

IKER 13
Euskalkia eta Hezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera Euskal Diglosia Irazian / Dialecto y educación. De lo conocido a lo desconocido dentro del entramado diglósico del euskara / Dialecte et éducation. Du connu vers l'inconnu dans le tramage diglossique de l'euskara (langue basque) / Dialect and education. From the known to the unknown inside the diglossia intervoven connections of euskara (basque language). Juan Luis Goikoetxea Arrietak paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 2003.

IKER 14
Euskal gramatika eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 2003.

IKER 15
Euskal atsoitzak eta neurtitzak. Arnaud Oihenart. Patxi Altuna eta J.A. Mujikak paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 2003.

IKER 16
La España Metafísica. Prudencio Garcia. Euskaltzaindia, Bilbo, 2004.

IKER 17
Nerekin yaio nun: Txillardegiri omenaldia. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 2005.

IKER 18
Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri. Inés Pagola Hernández. Euskaltzaindia, Bilbo, 2005.

IKER 19
Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV. Biltzarra Euskalgintza XXI mendeari buruz. Azkue eta Urkixoren omenez. Bazuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 2008.

IKER 20
Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944) Kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan. Amelia Hernández Matak paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 2007.

IKER 21
Jean Haritschelhar-i omenaldia / Homenaje a Jean Haritschelhar / Hommage à Jean Haritschelhar. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 2008.



**EUSKALGINTZA XXI. MENDEARI BURUZ
XV. BILTZARRA
HIZKUNTZA GAIAK**

**EUSKALGINTZA XXI. MENDEARI BURUZ
XV. BILTZARRA**

**EUSKALGINTZA XXI. MENDEARI BURUZ
XV. BILTZARRA**



**EUSKALGINTZA XXI. MENDEARI BURUZ
XV. BILTZARRA**

**EUSKALGINTZA XXI. MENDEARI BURUZ
XV. BILTZARRA**

IKER Bilduma / Colección IKER

IKER 1
Euskararien nazioarteko jardunaldiak / Baskologist international meetings / Encuentros internacionales de vascólogos / Recontres internacionales de bascologues. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 1981.

IKER 2
Piarres Lafitte-ri omenaldia / Homenaje a Pierre Lafitte / Hommage à Pierre Lafitte. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 1983.

IKER 3
Eritzizundi irukoitza / Triple cuestionario / Triple questionnaire (euskara 1925). Ana Mª Echaide Itartek paratua, 2 t. Euskaltzaindia, Bilbo, 1984.

IKER 4
Resurrección María de Azkue eta Pierre Brossain-en arteko elkarridazketa / Correspondencia entre R.M. de Azkue y P. Broussain / Corres pondance entre R.M de Azkue et P. Broussain. (1897-1920). Piarres Charritonek paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 1986.

IKER 5
Euskararen batasuna / La unificación de la lengua vasca / L'unification de la langue basque. Koldo Zuazok paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 1988.

IKER 6
Luis Villasanteri omenaldia / Homenaje a Luis Villasante / Hommage à Luis Villasante. J.A. Arana eta R. Badiolak prestatua. Euskaltzaindia, Bilbo, 1992.

IKER 7
Nazioarteko Dialektologia Bilzarra. Agiriak / Actas del Congreso Internacional de Dialectología / Actes du Congrès International de Dialectologie / Proceedings of International Congres on Dialectology. G. Aurrekoetxea eta X. Videgainek prestatua. Euskaltzaindia, Bilbo, 1992.

IKER 8
Oihenarten laugarren mendeurrena / Cuarto centenario de Oihenart / Quatrième centenaire d' Oyhénart. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 1994.

IKER 9
Euskararen tratamenduak: erabilera / Uso de los tratamientos alocutivos en euskara / Emploi des traitements allocutives en basque. Jabier Alberdi Larizgoitiak prestatua. Euskaltzaindia, Bilbo, 1996.

IKER 10
Federiko Krutwig-i omenaldia / Homenaje a Federico krutwig / Hommage à Federico Krutwig. Ricardo Badiola Uriartek prestatua. Euskaltzaindia, Bilbo, 1997.

IKER 11
Vasconiana. Jean Haritschelhar Dualde eta Piarres Charriton-ek paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 1999.

IKER 12
Jose Ignacio Arana: Egunaria. Patxi Altunak paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 2000.



**iker
19**

HIZKUNTZA GAIAK

iker - 19

**R. M. Azkue eta
J. Urkixoren omenez**

Bilbon, **Euskalduna** Jauregian,
2001eko irailaren 17, 18 eta 19an

**EUSKALGINTZA XXI.
MENDEARI BURUZ**

XV. Biltzarra

IKER-19



Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca / Académie de la Langue Basque

Bilbo
2008

EUSKALGINTZA XXI. MENDEARI BURUZ

Hizkuntza ereduak, hiztegegintza, hizkuntzaren historia

Euskaltzaindiaren Nazioarteko

XV. Biltzarra:

Agiriak

Azkue eta Urkixoren omenez,
Bilbon, 2001-IX-17/19an



IKER-19

EUSKALTZAINDIA
Bilbo, 2008

Euskaltzaindia. Biltzarra (15.2001. Bilbo eta Baiona)

Euskaltzaindia XXI. mendeari buruz/ Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra Azkue eta Urkixoren omenez, Bilbon, 2001-IX-17-19; Jardunaldi hauen agiriok argitaratzea Joakin Gorrotxategi Txurruka irakasle jaunak paratu du.

Bilbo: Euskaltzaindia, 2008

XX, 568 orr; 23 cm.--(*Iker*; 19)

ISBN: 978- 84-95438-26-3



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

© Euskaltzaindia/ R.A.L.V. /A.L.B.

Plaza Barria, 15- 48005 BILBO

E-posta: info@euskaltzaindia.net

* * *

Jardunaldi hauen Agiriok argitaratzea Joakin Gorrotxategi Txurruka irakasle jaunak paratu du.

* * *

ISBN: 978-84-95438-26-3

Lege-gordailua: BI- 237 -08

Fotokonposizioa: mccgraphics-evagraf, Alibarra, 64, 64-01010 VITORIA/GASTEIZ

Inprimategia: mccgraphics-elkar, Larrondo Beheko Etorbidea, 4.eraikina,
48180 LOIU (Bizkaia)

XV. Biltzarra:
Agiriak

Aurkibidea

XV. Biltzarreko Jardunaldien programa.....	XIII
Euskaltzainburuaren aurkezpena	XIX

Hizkuntza Ereduak

K. Zuazo: <i>euskara normaltzeko bideak</i>	3
J.-P. Bronckart: <i>les modèles de la langue et leurs niveaux de réalité</i>	15
L.M. Larringan - I. Idiazabal: <i>ahozko hizkuntzari antza hartzeko hiru gogoeta</i>	29
A. Larrinaga: <i>hizkuntza aldaerak telebistan</i>	39
L. Diaz de Gereñu - I. Idiazabal - L. M. Larringan: <i>ipuin kontalaritzaren eredu berria?</i>	47
G. Egja - L. Fernandez: <i>interfazeetako euskara: Interneteko euskarazko testuen izaeraz</i>	59
I. Zabala: <i>eraginkortasuna euskararen zientziarako hizkuntz aldaeretan</i>	65
J. C. Odriozola: <i>“Bilbo-Behobia autobidea” bezalako Tandem-Elkarteak. Hiru osagai baina morfologi prozesu bakarra</i>	75
V. Pitarch: <i>el caso catalán: diques político-administrativos contra el estándar</i>	85
L. Garmendia: <i>hizkuntza aldakortasuna Zaldibiako euskararen: ikuspegi soziolinguistikoa</i>	101
J. Lozano: <i>administrazioko hizkeraren oraina eta geroa</i>	113
J. Maia: <i>Euskara Batuaren eta euskalkiaren arteko harremanen bilakaera irakaskuntzaren ikuspuntutik</i>	119
G. Aurrekoetxea: <i>estandar eta dialektoen arteko bateratze joerak: (ikuspuntu teorikotik begirada bat)</i>	129
J.-L. Léonard: <i>aréologie dialectale et modularité des réseaux dialectaux: étagement spatial et structural des processus (morpho-)phonologiques dans le réseau dialectal basque</i>	141

* * *

Hiztegiak

M. Azkarate: <i>hiztegiak eta euskararen nolmalkuntza</i>	171
S. Maamies: <i>vocabulary development in Finland</i>	183
A. Urrutia - E. Urrutia: <i>hiztegi Batuaren lehen itzulua. Hitz arruntak - Hitz bereziak, Zuzenbidearen ikuspegitik</i>	193
I. Ugarteburu: <i>osasu arloko testuak eta lexikoa XXI. mendeari begira</i>	235
I. Azkune et al.: <i>nolako hiztegi batua behar du XXI. mendeko euskaldunak?</i>	245

M. E. Morris: <i>hiztegiintza elebiduna: egindakoa eta egitekoa</i>	253
E. Perez Gaztelu: <i>muga-arazo batzuk: zain eta zale</i>	257
R. M. Pagola: <i>Nafarroako hizkeren lexikora hurbilketa</i>	269
K. Dieguez: <i>etnometeorologiari buruzko euskal hiztegia egiteko oinarriak eta osagaiak</i>	281

G. Jones: <i>Welsh Lexicography and Terminology: past, present and future (I)</i>	293
D. Prys: <i>Welsh Lexicography and Terminology: past, present and future (II)</i>	301
M. Urkia: <i>euskararen erreferentzia-corpusaren beharraz</i>	307
M. Loinaz: <i>terminologiako bide berriak</i>	313
A. Aierbe: <i>teknolekto ugari baliatzen duten hizkerak</i>	317
I. Aldezabal - P. Goenaga - K. Sarasola: <i>aditz-azpikategoriazioa hiztegiintzarako lantzen</i>	327

Mahai ingurua: A. Gurrutxaga - P. Uribarren - P. Charritton - P. Rekalde - J. Sestorain: <i>gaurko hiztegiintzaren premiak eta arazoak</i>	347
---	-----

Hizkuntzaren Historia

J. Gorrotxategi: <i>Antzinateko euskararen nondik norakoak</i>	363
I. Iciar - J. Agirre: <i>euskal forma onomastiko baten proposamena pertsona izen historikoen azterketan oinarrituta</i>	381
A. Urrutia - C. Gallastegi: <i>euskarazko lexikogintza juridiko-administratiboa. Larramendiren eragina</i>	401
J. L. Lizundia: <i>Eliza eta foru eskualde zaharrak hizkuntzaren historiaren lagungarri</i>	473
L. M. Mujika: <i>Burgosko euskal toponimiaren ildoak gehituz</i>	483
S. Gabunia: <i>les parallèles parémiologiques basque-géorgiens</i>	517
Tx. Peillen: <i>Azkue eta euskal hizkuntzaren duintasuna</i>	525
M. Etxenike: <i>euskara eta erromantzeen artean izan diren harremanen historiaz</i>	531

Mahai ingurua: X. Kintana - J. L. Goikoetxea - J. M. Elempuru - J. R. Zubimendi - P. Rekalde - Tx. Peillen: <i>lekuko euskarak eta euskara batua: elkarren osagarri ala arerio?</i>	543
--	-----



Resurreccion Mª Azkue
(1864-1951)

XXI. mendearen aurrean gogoeta bideratu nahi du Euskaltzaindiak euskararen iraganaz, orainaz eta geroaz. Mende aldaketa horretarako aitzakia izan daiteke, baina hiru euskalari handi gogoratu nahi ditu batez ere Euskaltzaindiak: Akademiaren sortzaile eta lehen buru izan zen Resurreccion M. Azkue (1864-1951), Julio Urkixo (1871-1950) euskal filologiaren sustatzailea eta Piarres Lafitte (1901-1985) gramatikari eta euskal filologia eta literatura ikertzailea.



Julio Urkixo
(1871-1950)

“Euskalgintza XXI. mendeari buruz” izenburupean, euskararen historia, lexikografia, hizkuntza ereduak (estandarren eta aldaeren arteko erlazioa), gramatika eta literatura azterketak biltzen dira.

Piarres Lafitte
(1901-1985)



Azkue eta Urkixoren omenez, **Bilbon**

IRAILAREN 17a, astelehena (*)
Arloa: HIZKUNTZA EREDUAK

Egitaraua:

Goiza

- 09.00: Hasierako ekitaldia
- 09.30: Hitzaldia: Koldo Zuazo (Euskal Herriko Unibertsitatea): *euskararen normalkuntzarako bideak*
- 10.15: Eztabaida
- 10.30: Hitzaldia: Jean-Paul Bronckart (Université de Genève): *les modèles de la langue et leurs niveaux de réalité*
- 11.15: Eztabaida
- 11.30: Atsedenaldea
- 12.00: Txostena: Luis Mari Larringan - Itziar Idiazabal (Euskal Herriko Unibertsitatea): *ahozkoari antza hartzeko hiru gogoeta*
- 12.20: Txostena: Asier Larrinaga (Euskal Telebista): *hizkuntza aldaerak telebistan*
- 12.40: Txostena: Leire Diaz de Gereñu - Itziar Idiazabal (Euskal Herriko Unibertsitatea): *ipuin kontalaritzaren eredu berria?*
- 13.00: Txostena: Luis Fernandez (Codesyntax) - Gotzon Egia (EIZIE): *interfazeetako euskara: interneteko euskarazko testuen izaeraz*
- 13.20: Txostena: Igone Zabala (Euskal Herriko Unibertsitatea): *eraginkortasuna zientziarako hizkuntza aldaeretan: zientziarako euskararen kasua*
- 13.40: Txostena: Juan Carlos Odriozola - Mertxe Martínez (Euskal Herriko Unibertsitatea): *elkarren arteko hitz elkartuak: hizkuntza komunak erabilera berezituetarako gordea zuen altxorra*

Arratsaldea

- 16.00: Hitzaldia: Vicent Pitarch (Institut d'Estudis Catalans): *el caso catalán: diques político-administrativos contra el estándar*
- 16.45: Eztabaida
- 17.00: Txostena: Larraitz Garmendia: *hizkuntza aldakortasuna Zaldibiako euskararen: ikuspegi soziolinguistikoa*
- 17.20: Txostena: Jon Agirre (IVAP / HAEE): *euskalkien erabilera eta idazkera*
- 17.40: Txostena: Joseba Lozano (IVAP / HAEE): *Administrazio-hizkera eta Administrazioaren hizkera*
- 18.00: Atsedenaldea
- 18.20: Txostena: Julian Maia (Euskal Herriko Unibertsitatea): *euskara batuaren eta euskalkiaren arteko harreman bilakaera irakaskuntzaren ikuspuntutik*
- 18.40: Txostena: Gotzon Aurekoetxea (Euskaltzaindia - Euskal Herriko Unibertsitatea): *estandar eta dialektoen bateratze joerak: ikuspuntu teorikotik begirada bat*
- 19.10: Txostena: Jean-Léo Léonard (ILPGA - Institut de Phonétique): *aréologie dialectale et modularité des réseaux dialectaux: étagement spatial et structural des processus (morpho-) phonologiques dans le macro-réseau dialectal basque*

(*) Erakusketak:

(*) 1. Euskara eta teknologia berriak. Euskalduna Jauregian. Bilbon, 2001.eko irailaren 17tik 19ra.

(*) 2. Azkue eta Urkixo-ri buruzko erakusketa. Plaza Barria, 15. Bilbon, 2001.eko irailaren 17tik 28ra.

Azkue eta Urkixoren omenez, **Bilbon**

IRAILAREN 18a, asteartea

Arloa: HIZTEGIGINTZA

Goiza

- 09.00: Hitzaldia: Miren Azkarate (Euskaltzaindia - Euskal Herriko Unibertsitatea): *hiztegi-gintza eta euskararen normalkuntza*
- 09.45: Eztabaida
- 10.00: Hitzaldia: M.A. Sari Maamies (Language planning division in the research Institute. Helsinki): *corpus planning in Finland*
- 10.45: Eztabaida
- 11.00: Atsedenaldia
- 11.30: Txostena: Andres Urrutia - Esther Urrutia (Deustuko Unibertsitatea): *hiztegi batuaren lehen itzulia. Hitz arruntak-hitz bereziak Zuzenbidearen ikuspegitik*
- 11.50: Txostena: Iñaki Ugarteburu (Euskal Herriko Unibertsitatea): *osasan arloko testuak eta lexikoa XXI. mendeari begira*
- 12.10: Txostena: Alfontso Mujika (Elhuyar): *nolako hiztegi batua behar du XXI. mendeko euskaldunak?*
- 12.30: Txostena: Mikel Morris Pagoeta (Kazeterm taldea): *hiztegi-gintza elebiduna: egindakoa eta egitekoa*
- 12.50: Txostena: Elixabete Perez Gaztelu (Deustuko Unibertsitatea): *erdi-atzizki omen direnez*
- 13.10: Txostena: Rosa Miren Pagola (Deustuko Unibertsitatea): *Nafarroako hizkeren lexikora hurbilketa*
- 13.30: Txostena: Kepa Dieguez (Udako Euskal Unibertsitatea): *etnometereologiari buruzko euskal hiztegia egiteko oinarriak eta osagaiak*

Arratsaldea

- 16.00: Hitzaldia: Geraint Jones - Delyth Prys (Bangor, University of Wales): *Welsh Lexicography and Terminology: Past, Present and Future*
- 16.45: Eztabaida
- 17.00: Txostena: Miriam Urkia (UZEI): *euskararen erreferentzia corpusaren beharraz*
- 17.20: Txostena: Miel Loinaz (UZEI): *terminologiako bide berriak*
- 17.40: Txostena: Axun Aierbe (Euskal Herriko Unibertsitatea): *teknolekto ugari baliatzen dituzten hizkerak*
- 18.00: Atsedenaldia
- 18.30: Mahai ingurua:
Gaia: *gaurko hiztegi-gintzaren premiak eta arazoak*
Moderatzailea: Henrike Knörr (Euskaltzaindia - Euskal Herriko Unibertsitatea)
Partaideak: Antton Gurrutxaga (Elhuyar), Adolfo Arejita (Labayru - Deustuko Unibertsitatea), Patxi Uribarren (*Bostak Bat* Kultura elkarte), Josu Zabaleta (Rosetta), Piarres Charritton (Euskaltzaindia), Paskual Rekalde, J. M. Zestorain.

Ordezko txostena:

- Izaskun Aldeazabal, Patxi Goenaga, Kepa Sarasola (Euskal Herriko Unibertsitatea): *aditzaren azpikategorizazioa hiztegi-gintzarako lantzen.*

Azkue eta Urkixoren omenez, **Bilbon**

IRAILAREN 19a, asteazkena
Arloa: HIZKUNTZAREN HISTORIA

Goiza

- 09.00: Hitzaldia: Joakin Gorrotxategi (EHU): *Aintzinateko euskararen nondik norakoak*
09.45: Eztabaida
10.00: Hitzaldia: Joseba Lakarra (EHU): *euskararen barne historia*
10.45: Eztabaida
11.00: Atsedenaaldia
11.30: Txostena: Jaione Agirre (Bekaduna Eusko Jaurlaritzan) - Irati Iciar Madinabeitia (Azkue Biblioteka): *pertsonezko izen historikoen azterketan oinarritutako euskal forma onomastiko baten proposamena*
11.50: Txostena: Andres Urrutia - Cesar Gallastegi (Deustuko Unibertsitatea): *euskarazko Lexikogintza Juridiko-Administratiboa: Larramendiren eragina*
12.10: Txostena: Jose Luis Lizundia (Euskaltzaindia): *Eliza eta foru eskualde zaharrak, hizkuntzaren historiaren lagungarri*
12.30: Txostena: Luis Mari Mujika (Euskal Herriko Unibertsitatea): *euskal toponimoak Burgosen (aztarren berriak)*
12.50: Txostena: Natela Sturua (Euskaltzain urgazlea): *overview of the Basque-Caucasian Hypothesis*
13.10: Txostena: Salome Gabunia (Euskaltzain urgazlea): *les parallèles parémiologiques basque-géorgiens*
13.30: Txostena: Txomin Peillen (Euskaltzaindia): *Azkue eta euskal hizkuntzaren duintasuna*

Arratsaldea

- 16.00: Hitzaldia: Maite Etxenike (Valentziako Unibertsitatea): *euskara eta erromantzeen artean izan diren harremanen historiaz*
16.45: Eztabaida
17.00: Atsedenaaldia
17.15: Mahai ingurua:
 Gaia: *lekuko euskarak eta euskara batua: elkarren osagarri ala arerio?*
 Moderatzailea: Andres Urrutia (Euskaltzaindia)
 Partaideak: Xabier Kintana (Euskaltzaindia), Juan Luis Goikoetxea (Bizkaia), Juan Martin Elexpuru (Debarroa), Joxe Ramon Zubimendi (Gipuzkoa), Paskual Rekalde (Nafarroa) eta Txomin Peillen (Iparraldea).
19.30: Bukaera ekitaldia

AZKUE ETA URKIXOREN OMENEZ

Bilboko **Euskalduna** Jauregian, 2001eko irailaren 17tik 19ra

Euskaltzaindia

Batzorde akademikoa:

Buru: Jean Haritschelhar (Euskaltzaindia)

Idazkari: Patxi Goenaga (Euskaltzaindia - Euskal Herriko Unibertsitatea)

Kideak: Beñat Oyharçabal (Euskaltzaindia - CNRS Paris)

Henrike Knörr (Euskaltzaindia - Euskal Herriko Unibertsitatea)

Patxi Altuna (Euskaltzaindia - Deustuko Unibertsitatea)

Georges Rebuschi (Université de Paris III)

Joakin Gorrotxategi (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Antolaketa batzordea:

Buru: Jose Antonio Arana Martija, diruzaina

Idazkari: Jose Luis Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea

Kideak: Juan Jose Zearreta, ekonomia eragilea

Jose Antonio Aduriz, Hiztegi Batuko lantaldeko arduraduna

Pello Telleria, eragile teknikaria

Ohorezko batzordea:

Juan Jose Ibarretxe, Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakaria
Josu Bergara, Bizkaiko diputatu nagusia
Iñaki Azkuna, Bilboko alkatea
Manuel Montero, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea
Jose Maria Abrego, Deustuko Unibertsitateko errektorea

EUSKALTZAINDIAREN NAZIOARTEKO XV. BILTZARRA
(BILBO - BAIONA)

Plaza Barria, 15
48005 BILBO
Tf.: 94 415 81 55; faxa: 94 415 81 44
e-mail: info@euskaltzaindia.net
<http://www.euskaltzaindia.net>

Hernani, 15
20004 DONOSTIA
Tf.: 943 42 80 50; faxa: 943 42 83 65

Conde Oliveto, 2 - 2
31002 IRUÑEA
Tf.: 948 22 34 71; faxa: 948 21 07 13

San Antonio, 41
01005 GASTEIZ
Tf.: 945 23 36 48; faxa: 945 23 39 40

Thiers, 18 - 1
64100 BAIONA
Tf.: 00 33 (0) 559 25 64 26
faxes: 00 33 (0) 559 59 45 59
e-mail: baionaordez@euskaltzaindia.net

XV. Biltzarraren aurkezpena

Bilbo, egoitza

2001-VI-28

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua

Kazetari jaun-andereak egun on.

Eskerrak zuei etorri zaretelakotz aurkezpen honetara. Bospa-sei egun iraunen du Euskaltzaindiak antolatzen duen bere XV. Biltzarrak: hiru egun Bilbon *Euskalduna* Jauregian eta bi Baionako Fakultatean. Azken eguna iraganen da Uztaritzen, Lafitte zenaren ohoretan.

Nazioarteko Biltzarra eta, beraz, Biltzar Nagusia XXI. mendearen eta III. milurteko atarian, aztertuko direlarik Bilbon hiru egunez hizkuntza ereduak, hiztegegintza eta euskararen historia, gogoan ditugula Resurreccion Maria Azkue euskalari bikaina eta lehen euskaltzainburua eta Julio Urkixo *RIEV*-ren sortzailea, biok zenduak duela 50 urte.

Baionan bi sailetan banatuko dira ikerleak, sail horiek direla gramatika eta literatura, hain zuzen Pierre Lafitte-k aztertu zituenak. Honen ohoretan, gogoratuz sortu zela duela ehun urte Luhuson.

HIZKUNTZA EREDUAK

Euskara normaltzeko bideak

Koldo Zuazo

IRAGANARI BEGIRATUA

Euskararen historia luzean, bi mila urte ingurukoa da guk, ondo edo txarto, eza-gutzen dugun denbora tarteak, eta bi mila urteko denbora tarte horretan, euskara beti agertu da zerbaiten gabezia, beti agertu da inoren menpean. Baina bi mila urteko denbora tarte horretan, gabeziak betetzeko nahia, eta gainerako hizkuntzen maila berean jartzeko gogoia ere aspalditik eta sarri agertu dira. Nik neuk, dena dela, XX. mendearen erdialdean egin zen ahalegina jarriko nuke beste guztien gainean.

Benetako iraultza gertatu zen XX. mendearen erdialdean, eta hiru ardatz nagusi izan zituen iraultza hark. *Ikastola* izan zen lehen ardatza, eta ikastolari esker, euskara lehen aldiz sartu zen irakaskuntzan. Gau-eskola izan zen bigarren ardatza, eta gau-eskolari esker, hainbat lagun sartu zen Euskararen Herrian, eta Euskara Batua izan zen hirugarren ardatza. Eta nik neuk esango nuke hirugarren hauxe izan zela ardatzik oinarritzkoena, azken batean, bai ikastolak eta bai gau-eskolek Euskara Batuari esker egin zituelako aurrera. Eta gehiago ere esango nuke: euskara normaltze bidean, Euskara Batua dela, ziurren-ziurrenera, sekula guztian egin den urratsik esanguratsuenak.

Eta gauzak nola diren: euskarak sekula guztian bizi izan duen egoerarik okerrenetakoan sortu zen Euskara Batua, Hego Euskal Herria diktadura militarren azpian zela, eta, beharbada, euskara bera ere sekula baino ahulago zela. Gogora dezagun Pedro Irizarrek, 1973an –Euskara Batua sortu berritan, beraz–, argitaratutako emaitza: 533.500 euskaldun inguru baizik ez ziren guztira, eta 1.900 baizik ez, esate baterako, Araba osoan.

Egoera zail horretan Euskara Batua nola sendotu ahal izan zen ulertzeko, gutxienik ere lau arrazoi izan behar ditugu kontuan: a) hizkuntzalari handi bat, Koldo Mitxelena, izan zela gidaria; b) Mitxelenaren inguruan, euskaltzain talde langile eta esanekoa elkartu zela; c) talde horrek gertatutako egitasmoa bultzatzeko prest, irakasle, idazle, kazetari eta euskaltzale multzo hazia osatu zela; d) –eta hauxe denetan esanguratsuenak– egitasmoa bera zuzena eta zentzuzkoa zela.

Erdialdeko euskalkian, hau da, Gipuzkoan eta Nafarroako mendebalean egiten den hizkeran oinarritu zen Euskara Batua, eta hauexek ziren aukeraren arrazoiak:

a. *Hizkuntzazkoak*. Erdialdeko euskalkia da euskaldun guztiendako bilgune ego-kia. Mendebalekoa edo Bizkai aldekoa, urruna eta arrotza egiten zaie gainerako euskaldunei, eta berdintsu gertatzen da zuberotarrarekin ere, beste alderdian.

b. *Demolinguistikoak*. Erdigune horretan eta mendebalean zeuden 1968an —eta baita gaur egun ere— euskaldunik gehienak. Era berean, Gipuzkoan eta bere alde-mentetan zeukan —eta dauka— euskarak indarririk handiena: Lea-Artibai eskualdean, Busturialdean eta Durangaldean, Bizkaiari dagokionez, eta Bortzirietan, Bertizaranan, Baztanen, Malerrekan, Basaburuan, Larraunen, Araitzen eta Sakanan, Nafarroari dagokionez.

c. *Soziolinguistikoak*. XVIII. mendetik hona, euskara giputza izan da —eta Beterrikoa, zehatzago— prestijioa eta ospea izan duena.

d. *Ekonomia eta kulturazkoak*. Bilbo da, jakina, Euskal Herriko hiri nagusia, baina ez da euskalduna. Akats berbera dute Gasteizek, Iruñeak eta Baiona-Angelu-Miarritze (B-A-M) hiribilguneak.

Berezia da —eta gainerako herrialdeen aldean, guztiz bestelakoa— Gipuzkoaren egitura. Hemen ez dago hiri handi bakarrik. Ekonomiariek diotenez, ez du egitura *makrozefalikorik*, edo denok ulertzeko moduan esateko, ez du *buru bakarreko* egiturarik. Alderantziz, egitura *multipolarrekoa* da, edo denok ulertzeko moduan esateko, *buru anitzekoa*. Hauexek dira buruak: Irun-Hondarribia, Oiartzun-Errenteria-Lezo-Pasaia, Donostia, Lasarte-Oria-Hernani-Andoain, Tolosa, Beasain-Ordizia, Urretxu-Zumarraga-Legazpi, Azkoitia-Azpeitia, Arrasate-Aretxabaleta-Oñati, Bergara-Eibar-Elgoibar. Buru hauek, gainera, bata bestearekin ondo samar lotuta daude, eta sare bat osatzen dute. Azken batean, beraz, Gipuzkoa bere osotasunean hartuta da hiri handi bat, Ibon Sarasolak aspaldi esan zuenez.

Ezaugarri hauek guztiok kontuan izanda, zuzena eta zentzuzkoa begitantzen zait Euskara Batua erdialdeko euskalkian oinarritu izana, eta horren ondorioa da, ezbairik gabe, lortu duen arrakasta.

Orain hogeita hamahiru urte, 1968an, abiatu zen Euskara Batua, eta bada, dagoeneko, ondorioak aztertu ahal izateko garaia. Zeharo aldekoa da nik neuk egiten dudan ondorioa, agerian eta begibistan daudelako Euskara Batuak ekarri dituen onurak. Hona hemen, nire iritziz, denetan esanguratsuenak direnak:

a. Edozein alderditako euskaldunak elkartzen garenean, gero eta zailtasun gutxiago daukagu bat besteari ulertzeko. Ez daukagu nahitaz erdarara jo beharrik, dagoeneko.

b. Edozein gai darabilgunean, gero eta zailtasun gutxiago daukagu euskaraz jarduteko. Gairik tekniko eta jasoenez dihardugunean ere, ez daukagu nahitaz erdarara jo beharrik, dagoeneko.

c. Hizkuntzaren gainean erabakiren bat hartu behar denean, Euskal Herria bere osotasunean kontuan hartzera jotzen dugu. Ez diogu Ipar Euskal Herriari bakarrik, edo Hego Euskal Herriari bakarrik, edo Gipuzkoari edo Bizkaiari bakarrik begiratzen. Bada oraindik zuzendu eta aldatu beharreko jokabide franko, eta zeharo bat nator Ibon Sarasolak (1997) salatzen dituen ajeekin, hau da, Hegoaldean gehiegi begiratzen zaiola Hegoaldekoari eta, batez ere, gaztelaniari, eta Iparraldean, era berean, gehiegi begiratzen zaiola Iparraldekoari eta, batez ere, frantsesari. Baina, ajeak aje, asko aurreratu da 1960tik hona, eta geure herrialdea edo geure euskaldetxoa ez ezik, Euskal Herria bera ere onartzen eta ikusten dugu gaur egun.

d. Euskara ikasi dutenen kopurua ikaragarri hazi da, eta hori, jakina, ez zen gertatuko, euskara euskalkitan zatituta egotera.

e. Euskara ikasi duten horiei guztioi esker, mendez mende murriztuaz eta estutuaz etorri diren euskararen mugak zeharo hautsi dira, eta Bizkaiko mendebala,

Nafarroako hegoaldea eta ekialdea, Baiona-Angelu-Miarritze hiribilgunea, Araba osoa, eta baita atzerriko lagun asko eta asko ere Euskararen Herrian sartu dira.

f. Euskararen prestijioa hazi egin da. Ez da, dagoeneko, dialekto sorta; hizkuntza da. Hizkuntza txikia beti ere, baina hizkuntza hala ere.

ESTANDARGINTZAREN ORAINA ETA GEROA

Euskararen estandargintzak joan den hogeita hamahiru urteotan aurrerakuntza handia egin duen arren, bide luzea daukagu oraindik ere ibiltzeko. Beste hiru urrats handi eman beharra daukagu Euskara Batua erabat amaitu eta gauzatuko badugu:

a. Hizkuntza bere osotasun guztian arautu behar da.

b. Euskaldun guzti-guztiek erabat onartu behar dute Euskaltzaindiak aurkeztu duen eredua.

c. Euskaldun guztiek eredu hori ezagutu, eta erraz eta eroso erabiltzeko gauza izan behar dute.

Hiru horietatik dira Euskara Batua zeharo eta erabat errotzeko bete behar diren baldintzak, eta ikus dezagun astiroago zein den gaur egungo egoera.

Alde batetik, eta eredu estandarrari berari dagokionez, arlorik oinarritzkoenak arautu dira joan den hogeita hamahiru urteotan: aditza, deklinabidea, eta baita beste hainbat gauza ere, baina egindako hori guztiori gorabehera, beste kontu eta kontutxo asko dago oraindik argitzeko eta zehazteko: ahoskera dela, azentua dela... denetarik dago oraindik ere eginkizun.

Badira, bigarrenik, Euskara Batua beharra onartzen ez dutenak, eta euren euskalkiari –eta, batez ere, erdarari– loturik jarraitzen dutenak. Badira, horiekin batera, Euskaltzaindiak aurkeztutako egitasmoaren orde, beste ereduren bat (lapurtera klasikoa dela, edo besterik dela) nahiago dutenak.

Eta badira, hirugarrenik, hitzez Euskara Batua onartu arren, behar bezala ezagutu ez, eta eroso erabiltzeko gauza ez direnak.

Beraz, nahiz eta Euskara Batuak arrakasta eta aurrerakuntza handia izan duen, euskara erabat estandarizatuko bada, eta normalizazio bidean benetan aurrera egingo bada, ezinbestean egin beharko ditugu hiru urrats horiek.

EUSKARA BATUAREN GAINEKO OKER ULERTUAK

Baina euskara erabat normalduko bada, oso barneratuak ditugun uste ustel bi ere zeharo baztertu beharko dira. Uste dute batzuek Euskara Batua dela euskara, eta, uste dute besteek, Euskara Batua dela euskara ona. Uste bi horiek ez dira inondik inora ere egiak eta zuzenak, eta kalte askoren sortzaile dira, gainera.

1. Hizkuntzaren osagaiak

Lehenengo eta behin, gauza bat izan behar dugu ondo gogoan: osotasun bat dela hizkuntza. Hasteko, hiztun bakoitzak badu hitz egiteko bere era berezia; badu bere idiolektoa. Hiztun bakoitzaren era berezi hori ere aldatu egiten da, gainera, egoeraren arabera. Norekin gauden, non gauden, zertaz dihardugun, badu horrek guztiorrek une

eta gune bakoitzean egiten dugun hizkerarekin zerikusia. Baditugu, besteak beste, geure lagunarteko hizkera eta geure hizkera jaso.

Haurrekin gaudenerako ere badugu haur hizkera berezia, eta gazteek ere badute hain bizia eta hain indartsua izan ohi den gazte hizkera. Nork bere lanbidean edo bere esparruan ere bere argot edo hizkera zehatza izan ohi du, eta horrekin guztiorrekin batera, eremu jakin bateko dialektoak, edo gizarte esparru jakin bateko soziolektoak izan ohi dira.

Hizkera horiek guztiok daude hizkuntza “normaletan”, eta, hain zuzen, ugaritasun horrexek ematen die hizkuntzei aberastasuna eta, hiztunei, hizkuntzarekin jolas-teko eta hizkuntzaz gozatzeko aukera. Besterik da, ostera, euskarari gertatzen zaiona, ondoren ikusiko dugun bezala.

Oso galdua eta murriztua dago haur hizkera. Hain aspaldikoak ez diren *mama* ‘ura’, *papa* ‘ogia’, *nene* ‘esnea’, *pipi* ‘txoria’, *popo* ‘automobila’, *apapa joan* ‘kalera irten’ tankerako hitz eta esapideak ahaztuak dituzte gaur egungo guraso gazte gehienek. Erdarazko hitz eta esapideak dituzte ordezko, oraindik orain, Bizkaiko hondar-tza batean ginela, andrazko batek ume txiki bati esan zion *emon besito, kariño!* esaldiak argiro erakusten duenez¹.

Gazte euskaldunen hizkerak ere erdaran dauka bere harrobia, Imanol Esnaolaren azterketa xume batek (ikus Rodríguez & Esnaola 1998: 117-134) erakutsi berri duenez. Dena dela, inork erakutsi beharrik gabe, gutariko bakoitzak ere erraz eta laster ikus dezake, geure eguneroko jardun arruntean, gazteen –eta hain gazte ez direnen– lagunarteko hizkera zertan den.

Inork erakutsi beharrik gabe ikusten da, era berean, non dagoen gure argotaren jatorria: erdaran, honena ere. Ikasle eta irakasleak, medikuak eta presoak izan ohi dira argoten sortzailerik emankorrenetakoak, eta hiru esparru horietan ordezkaririk franko dugun arren Euskal Herrian, ez gara, nonbait, geure baitatik ezer sortzeko gauza.

Euskaldunon berdintasunaren eta hidalgia orokorraren mitoak gorabehera, “gaine-nekoak” eta “azpikoak” aspaldi luzetik izan dira Euskal Herrian, baina erdaretara jo-tzea izan da “gaineok”, “azpikoengandik” bereiztearren, sarrien hartu duten joka-bidea².

Euskaldunok ezertan aberatsak eta ugariak izan bagara, dialektoetan izan gara, eta, aberastasun horren nolabaiteko froga-edo, hitz berezia ere sortu dugu dialektoak izendatzeko: euskalkiak. Baina gainbehera datoz horiek ere. Gurasoak euskalkidun

1 Gauzak, nonbait, ez erabat zuri ez erabat beltz ez direnez, euskararen osasun ona erakusten duten argibideak ere ba omen diran han-hemen. Iñigo Aranbarrik (2001: 63) kontatu berri duenez, ume txiki batek zeruan hegazkina ikusi, eta *pipi-popo* hitza esan omen zion aitari. Txoria *pipi* eta automobila *popo* zirela jakiteaz gainera, hitz berria sortzeko sena ere bazuen, beraz, ume horrek. Eta, harrigarriena, zera: Bilbo erdiko Doña Casilda parkean gertatu zela “miraria”. Zalantza bat badut, dena dela, gertakari honen inguruan: Aranbarri poeta edo Aranbarri lekuko hotz eta zintzoa ote zen Doña Casilda parkeko “miraria” ikusi zuena.

2 Salbuespen banaka bat bada, dena dela. Bonapartek (in Urkijo 1910: 257), Bergarako egoeraz ziharduela, Bruno Etxenikeri idatzi ziona daukat, esate baterako, gogoan: “Quand je dis biscayen et non pas guipuscoan de Vergara, je sais fort bien que cette manière de parler déplaît à Messieurs les Vergarais qui se piquent d’être de purs guipuscoans. Je ne dis pas non, de même que je ne nie pas que les sermons de leurs curés les plus instruits et que souvent même le langage ordinaire des personnes les mieux élevées soient non seulement en guipuscoan, mais même dans la variété la plus pure de Beterri”. Bergarako handi jendeak, beraz, Beterriko euskara giputza erabiltzen zuten herri xehearen-gandik bereiztearren, baina, jakina, euskarak osasun eta bizitasun hobea zuten garaiko kontuak dira horiek, eta oso eremu euskaldun eta euskaltzalean gertatutakoak. Euskal Herriaren historian salbuespenak, azken batean.

hutsak eta seme-alabak erabateko euskalkigabeak dira leku askotan, eta euskalkiari eusten dion zenbaitek ere, batua, euskalkia eta –nola ez, ba?– erdara darabiltza, hirurak nahasian. Gauza xebererik ere ikusten da han-hemen. Esate baterako, eskoletako ahozko azterketetan, eta zenbait lan lortzeko egin ohi diren elkarrizketetan, Euskara Batuan ez daudela eroso dioten batzuek, euskalkian hasi, eta erdi-euskalkia eta erdi-batua egiten dute gero. Txirrita bertsolariak esango lukeenez, Batua ikasi ez, eta euskalkia ahaztu, gertatu zaigu, nonbait, oraingooi ere.

Laburbilduaz, gauza bat dakar egoera honek agerira: euskararen osasuna ez dela nahi genukeen bezain ona. Egia da euskararen osagai bat, Euskara Batua, asko indartu dela, baina *hizkera bat* besterik ez da Euskara Batua, eta euskarak osasuna izango badu, bere osagai guztiak, bere *hizkera guztiak* indartu behar dira.

Garbi dago euskara asko soildu eta asko erkindu dela oso denbora tarte laburrean. Oso urte gutxitan galdu da hitanoa, oso urte gutxitan galdu dira hizkera bateko eta besteko azentuak, eta oso urte gutxitan galdu dira lagunarteko hitz eta esapideak. Badirudi euskaldun berrien lana samurtzea izan dela joan den hamarkadetakoa estrategia, eta estrategia horren barruan hartu dela hizkuntza soiltzeko eta errazteko bidea.

Euskara ikasi behar dutenendako, jakina, samurragoa da hitanorik gabeko, azenturik gabeko, sinonimorik gabeko, eta errejistrorik gabeko euskara ikastea, baina kontua zera da: hizkuntzak ez direla ikasteko bakarrik. Jolasteko eta gozatzeko dira, batez ere, hizkuntzak, eta jolasteko eta gozatzeko gaitasun horixe da gaur egungo euskarak nabarmen galdu duena. Hainbesteko soiltzeak gozakaitz bihurtu du, eta hori dela-eta, euskaratik ihesi joan, eta erdaran aurkitzen du euskaldun askok babesa eta jolasa. Gaur egungo gazte askok euskaraz –eta oso euskara onean, gainera– egin ohi ditu eskolako zereginak, baina erosoago eta lasaiago ari dira erdaraz lagunarteko giroan, adar soinuak dihardutenean, edo barreneko sentimenak adierazi nahi dituztenean.

Euskararen gaixotasun “kronikoei”, hau da, bere betiko txikitetasunari eta aldameneko hizkuntza handiekin lehian jardun beharri, beste bat gehitu zaio, beraz, orain: gozakaitz izatearena, hiztunak erakartzeko indarra galtzearena.

Baina ez da hori agertu den gaixotasun berri bakarra. Beste bat ere hedatu da horrekin batera. Erdaratik kopiatzera mugatu gara, eta nabarmen ihartu zaigu guk geuk sortzeko ahalmena. Eta garbi dago gaixotasun bi hauek ez direla nolanhikoak; terminalak dira, hizkuntzak heriotze bidera eramaten dituztenak.

2. Hizkeren esparruak

Euskara Batua dela euskara ona uste du gure arteko askok, eta hori ez da erabat gezurra. Behinik behin, ona da *zenbaitek* darabilen Euskara Batua. Baina egia alderdi bat besterik ez da hori.

Kontua da nahastu eta ilundu egin dela Euskara Batuaren izaera eta sortzeko arrazoia. Uste dute batzuek, euskalkiak txarrak eta ezgauza zirelako asmatu zela Euskara Batua, eta hori ez da inondik inora egia. Euskara Batua ez zen egin, esate baterako, euskara zuberotarra txarra zelako. Euskara zuberotarrak ederki asko bete ditu, mende askotan zehar, zuberotar gehieneguneroko beharrak. Arazoak, jakina, zuberotarrak Zuberoatik irteten direnean, edo zuberotar ez direnak Zuberoan sartzen direnean, edo Zuberoako neska-mutilak Kanboko “Xalbador” ikastolara joaten dire-

nean, edo Zuberoko gazteak euren unibertitate ikasketak Hego Euskal Herrian, euskarazko lerroetan egitera joaten direnean, edo zuberotarren batek nobela edo ikerlanen bat egin nahi izaten duenean sortzen dira. Eta, hain zuzen, horrelako egoeretarako asmatu zen Euskara Batua; ez Zuberoba barruko eguneroko jardunean erabiltzeko.

Zeharo bestelakoa da, ostera, joan den hamarkadotan Euskara Batuaren inguruan zabaldu den irudia: euskara onarekin, euskara jasoarekin berdindu dute askok eta askok Euskara Batua, eta gertatu dena ikusteko, geure inguruko edozein herri euskaldun har dezakegu adibide.

Herri euskaldun askotan, alkate eta zinegotziek herritarren aurrean hitzaldiren bat egin behar dutenean, Euskara Batuan egiten dute, horixe delakoan hizkera jasoa. Herri euskaldun askotan, apaizek Elizan, Euskara Batuan egiten dute, horixe delakoan hizkera jasoa. Herri euskaldun askotan, irakasleek, eskola barruan ez ezik –eskola barrua bada-eta hizkera estandarren esparrua!–, eskolatik kanpo ikasleen gurasoekin edo ikasleekin eurekin elkartzen direnean ere, Euskara Batuan egiten dute, horixe delakoan hizkera jasoa. Herri euskaldun askotan, herri barruko irratia edo telebisita sortzen denean, Euskara Batuan egiten dute, horixe delakoan hizkera jasoa. Azken batean, herri euskaldun askotan, Euskara Batua erabiltzen da jardun jaso guzti-guztietan.

Jokabide honek oso ondorio okerrak ekarri ditu, uste izatekoa zenez. Herri euskaldun askotan, euren hizkera txarra dela, euren hizkera ezgauza dela sinestu du herritar xeheak, eta zein gurasok erakutsiko die bere seme-alabei txarra eta ezgauza den euskara! Txarra eta ezgauza dena gorde eta izkutatu egiten da, eta horrelaxe galdu da bertako betiko euskara, Euskal Herriko herri askotan.

Euskal Herriko herri askotan, ikastolara eta eskola euskaldunetara bidali dituzte gurasoek euren seme-alabak, eurek ez zekiten euskara “ona” ikastera. Eta ikastetxeetan euskara ona ikasten da, dudarik gabe, baina gazteen eguneroko jardunean egitura okerrak ere sortzen eta hedatzen dira oharkabea, eta baita ondo sustraitu ere, gurasoek eskolaren eta gainerako eragileen lana osatzen ez dutenean. Baina, jakina, gurasoek ez badakite euskara “ona”, nor ausartu gazteek darabilten euskara zuzentzera? Gazteek “lau pertsonaren atxiloketa eman zen atzo gauean” esaten badute, nor ausartu esatera “lau lagun atxilotu zituzten bart” izan dela orain arte, eta beti, ohikoa eta arrunta?

Baina beste urrats bat ere egin da Euskal Herriko herri askotan: gurasoak eurak ere ikastetxeetara doazen seme-alaben euskara “ona” ikasten hasi dira. Eta hori dela-eta, Euskal Herriko herri askotan, ea zer opari nahi duten euren *zorionetarako* galdetzen hasiak dira gurasoak seme-alabei, edota ea eskolan *pelotan jolasten* ote duten galdetzen ere hasiak dira. Gurasoek, jakina, *urtebetetzea* / *eguna* eta *pelotan jokatu* esan ohi dute euren bizi guztian, baina euren bizi guztikoa “euskalgaiztoa” omenenez, oraingo euskara “onera” moldatu behar, nahitaez.

Eta hauxe da gaur egungo euskarari etorri zaion hirugarren gaixotasuna: eten egin dela guraso eta seme-alaben arteko hizkuntza lotura, eten egin dela transmisioa. Eta hori ere ez da nolanhiko gaixotasuna; terminala da, hizkuntzak heriotze bidera eramaten dituzten horietakoa.

Gaixotasun honen sintomak aspaldi agertu ziren azalera, baina ez zen behar bezalako sendagairik ipini. Aspaldi ikusi zen gazteen euskara ez zela espero bezain ona, eta aspaldi ikusi zen betiko euskaratik nabarmen aldentzen zen hizkera exotiko eta berria garatzen ari zela, erdixantxetan erdi-benetan, *Marteko Euskara* deitu dudana.

HIZKUNTZA EGITASMO BERRI BATEN BEHARRA

Euskararen etsaia Madrilen eta Parisen –eta, aspaldi honetan, Iruñean– ikusten dute gure arteko zenbaitek, eta halaxe ikusten dut, egia esan, nik neuk ere, baina ez dezagun beti kanpoko etsaiarekin itsutu eta barrena lasaitu, geure baitan daukagu-eta gaixotasun askoren harra.

Nork agindu digu, esate baterako, euskara berbera eta modu bereborean irakatsi behar dela Lesakako eta Tafallako euskaltegietan? Nork agindu digu euskara berbera eta modu bereborean irakatsi behar dela Portugaleteko eta Lekeitioko ikastoletan? Nork agindu digu euskara berbera erabili behar dela Arrasate barruko *Arrasate Press* aldizkarian eta Euskal Herri osorako sortu zen *Euskaldunon Egunkaria*-n, eta nork agindu digu euskara berbera erabili behar dela Gasteizko eta Aramaioko udaletxeetako ohar eta iragarkietan? Erabaki zentzugabe eta ganorabako horiek ez dira ez Madrildik, ez Paristik, ez Iruñetik etorri, geure baitatik baizik, eta geure baitan daukagu, beraz, akats eta oker horiek zuzentzeko gaitasuna eta erantzukizuna.

Gaitasun eta erantzukizun hori dela-eta, orain arteko hizkuntza politika aldatu eta zuzendu egin behar dela uste dut. Lau gaixotasun larriren berri eman dut orain arteko kontakizunean:

- a. Euskarak, arlo batzuk landu ez direnez, hiztunak erakartzeko ahalmena galdu izana.
- b. Euskaldunoi hizkuntza sortzeko gaitasuna ihartu izana.
- c. Guraso eta seme-alaben arteko hizkuntza lotura eten edo, behintzat, nasaitu egin izana.
- d. Euskararen betiko moldeekin zerikusirik ez duten egitura arrotz eta exotikoak garatu izana.

Lau gaixotasun hauen jatorrian arrazoi nagusi bi daudelakoan nago. Alde bate-tik, goizetik gauera egin eta hedatu nahi izan dugu Euskara Batua, eta bestetik, berriz, laster eta azkar handitu nahi izan dugu euskaldunen kopurua.

Euskara Batua indartu nahirik, alde batera utzi dira gainerako hizkerak. Eztabaida absurdo bat piztu da, gainera: ea Euskara Batua ala euskalkiak bultzatu behar ote diren, kontuan izan gabe Euskara Batua eta euskalkiak, biak direla hizkuntzaren zatiak, biak bata bestearen osagarriak. Eta kontuan izan gabe, bestalde, errejistro bi horietaz gainera, beste batzuk ere badituela hizkuntzak bere barrenean.

Euskaldunen kopurua handitu nahirik, berriz, soildu, murriztu eta erkindu egin dugu euskara. Euskaldun berriei bidea erraztea zen helburua, eta, jakina, zuzena zen, berez, helburua. Euskaldunen komunitate osoa helburu horren menpe jartzea da inondik inora ere zuzena ez dena.

Etorkizunera begira, beraz, hizkuntza politika berria eraiki beharra dago. Lehenengo eta behin, hizkuntza politikaren gunea bera aldatu behar da. Euskaldun berriak sortzea izan da orain arteko helburu nagusia, hiztun berriei begira antolatuta dira orain arteko egitasmo gehienak, eta bigarren mailan, baztertuta, geratu dira jatorrizko euskaldunak.

Ostera, egoera “normalean” dauden hizkuntzetan, hiztun natiboek osatu ohi dute hizkuntzaren gunea. Hiztun natiboak izan ohi dira eredutzat hartu ohi direnak, eta hiztun berriak dira eredu horretara hurbiltzen ahalegintzen direnak. Euskal Herrian ere, beraz, herri euskaldunak izan behar dira hizkuntzaren gunea hemendik aurrera.

Bestelako erabakiak alde batera utziaz, eta hizkuntzari berari dagokionez, era bitako neurriak hartu behar lirateke abian jarri beharreko egitasmo berrian:

- a. Herri euskaldunetan bertako hizkera indartzea.
- b. Euskara Batua herriko euskaran oinarritzea.

1. Herri euskaldunetako hizkera indartzeaz

Herri euskaldunetan bertako hizkera erabili eta indartu behar da herri barruko ahozko jardunetan: Haur Hezkuntzan, Udalean eta herriarrekin hartu-eman zuzena duten gainerako administrazio esparruetan, herri barruko irrati eta telebista saioetan, Elizan, batzar eta hitzaldietan, eta, jakina, lagunartean eta familian.

Komenigarria da idatzizko zenbait esparrutan ere herriko hizkera agertzea: herriarrendako ohar eta iragarki laburretan eta herrietako aldizkarietan, esate baterako. Idatzizko esparruetan, baina, hizkera jasoa, gramatika aldetik zuzena, eta Euskara Batuaren ortografia arauak betetzen dituen bultzatzea komeni da.

Honekin guztionekin, hiztunak bere buruan konfiantza eta ziurtasuna izatea bilatu behar da, horixe delako, hain zuzen, gurasoen eta seme-alaben arteko hizkuntza lotura gauzatu ahal izateko ezinbesteko baldintza. Norberaren euskara gaiztoa den konplexuak baztertu, eta gure betiko euskara ona dela –edo izan daitekeela– sinestu behar dugu.

Herri euskaldunetako hizkera bultzatzeak beste helburu bat ere badu. Hizkuntza bat familian eta lagunartean erabiltzen denean, orduan lortzen da hiztunaren eta hizkuntzaren arteko lotura, orduan lortzen da hiztunaren eta hizkuntzaren arteko jolasa, eta hizkuntzarekin jolas egiten denean, berez sortzen dira hitz eta esapide berriak, eta, denok dakigunez, hizkuntzak iraungo badu, sortuaz eta sortuaz joan behar du etengabe. Hain zuzen, euskalkien arabera, hitz egin, berba egin, elestatu, mintzatu esan ohi dena, Nafarroako alderdi batzuetan jolas egin esaten da, eta horixe da, nafarrek ez ezik, gainerako euskaldun guztiok ere egiten ikasi behar duguna: hizkuntzarekin jolas. Euskaraz hitz egitea izan da orain arteko helburua, eta, aldiz, euskaraz jolas egitea izan behar luke egitasmo berriko lehentasuna.

2. Euskara Batua herrietako euskaran oinarritzeaz

Ezinbestekoa da Euskara Batuaren izaera malgutzea. Egoki dator, jakina, Euskal Herri osorako izkribu eta hitzaldietan hizkera berdina samarra erabiltzea, txokokeriarik gabea, euskalkien gehiegizko eraginik gabea. Baina beste kontu bat da

herri barruko zereginetarako denean. Beste kontu bat da herri jakin bateko eskoletan, lantegietan, udaletxeetan, eta ezinbestean Euskara Batua erabili beharreko gainerako esparruetan izan behar den jokabidea.

Adibide bat erabiliko dut esan nahi dudana azaltze aldera. Lesakako Laminaciones lantegian, konparazio baterako, leku askotako langileak ari dira. Jo dezagun Baztango eta Basaburuko nafarrak, giputzak eta bizkaitar banaka bat direla tartean. Garbi dago zaildu egiten duela horrek lantegi barruko oharrak Lesakako hizkera gordinean egitea. Jo dezagun, ba, Euskara Batua erabiltzea dela egokiena. Ados, baina nik neuk ez nuke erabiliko edozein batu, Lesakako eta Bortzirietako batua erabiliko nuke. Adibidez, honako hauxe:

Ortegunean, arratsaldeko lauretan, bilera eginen dugu, heldu den urteko konbenioaren gainean solasteko.

Arrasateko lantegi batean ere leku askotako langileak ari daitezke lanean: Durangaldeko bizkaitarrak, Goierriko giputzak eta Gasteiz aldeko euskaldun berriak, esate baterako. Pentsa dezagun, ba, ezin dugula erabili Arrasate bertako hizkera gordina. Ados horretan ere, baina Batua erabiltzekotan, Arrasateko edo Leinzko batua erabiliko nuke. Adibidez, honako hauxe:

Eguenean, arratsaldeko lauretan, batzarra egingo dugu, datorren urteko konbenioaren gainean berba egiteko.

Txikikeria zenbait gorabehera, Batua da ohar bi horietako hizkera, gaur egun sarrien ikusten dugun beste esaldi honetako hizkera bezain batua, behinik behin:

Ostegunean, arratsaldeko lauretan, asanblada egingo dugu, datorren urteko konbenioari buruz hitz egiteko.

Ez da hau ez unea eta ez gunea asanblada eta konbenioari buruz horien jatortasunaz eta zuzentasunaz eztabaidatzeko, baina jatortasuna eta zuzentasuna alde batera utzita, egokitasuna da kontuan izan beharrekoa. Eta inolako zalantzarik gabe, Lesakako lantegirako, lehenbiziko oharra da argiena eta egokiena, eta bigarrena, berriz, Arrasateko lantegirako. Eta berdintsu jokatu behar litzateke gizarteko gainerako esparruetan. Garbi dago Lekarozko institutuan, Gernikakoan, eta Kanboko “Xalbador” ikastolan Euskara Batua izan behar dela lan-tresna, baina hiru leku horietako bakoitzean, bertako Euskara Batua erabili behar litzatekeelakoan nago. Eta, azken batean, horixe besterik ez da, nire iritziz, euskalkiek Euskara (Batua) hornitzeko eta aberasteko bidea, gutariko askok zeharo beste moduz ulertzen dutena³.

Orain arte ibili gabeko bide honetan abiatuz gero, hainbat korapilo askatuko ditugulakoan nago.

Alde batetik, errazago lortuko dugu beste alderdi batzuetatik herri jakin batera joandako euskaldunak bertakotzea. Laminaciones lantegian lan egiteko Lesakara joan den bizkaitarrak, esate baterako, jakin egin behar luke *heldu den, eginen, ortzeguna, bilera, solastu* zer diren, eta hori jakinda, errazago ekanduko da Lesakako bizimodura.

3 Euskalkiek Euskara Batua aberastu behar dutela-eta, *barik, zelan, gagoz, lagunagaz* bezalako aldaerak sartzen ditu zenbaitek Euskara Batuan, eta, nire iritziz, hor ez dago inolako aberastasunik. Are gutxiago premiarik gabeko erdarakadak sartzean: gure artean hain maiz ikusten diren *sobera, prefosta, asunto & afera, atoan, pulamentu, derrepente, derrigor, primerakoa* bezalakoak datozkit gogora.

Bigarrenik, lesakarra bera Euskara Batua egiterakoan bere hizkeratik abiatzen bada, euskara zuzenagoa eta biziagoa egingo du. Askozaz zuzenagoa eta biziagoa, ez berea ez inorena ez den eredia erabilia baino.

Hirugarrenik eta azkenik, errazago lortuko genuke hasieran aipatutako helburua betetzea: euskaldun guzti-guztiek onartu behar dutela Euskaltzaindiak aurkeztu duen Euskara Batua. Eta bereziki nabarmendu nahi dut azken kontu hau, euskara estandarizatu eta normalduko bada oinarri-oinarrizkoa delako euskaldun guztiek Euskara Batua onartzea.

Gaur egungo euskaldun gehienek, hain zuzen, “inorentzat” dute Euskara Batua. Ipar Euskal Herriko askok Hegoaldeko kontutzat dute, ‘hegoaldeko euskara + espanyola’ dela diote. Hego Euskal Herrira etorri, eta nafarrei, arabarrei eta bizkaitarrei galdetuta, zera diote: ‘euskara giputza’ dela Euskara Batua. Gipuzkoara joanez gero, azkenik, han bai, han badira Euskara Batua oso eurentzat dutenak, eta lasai asko *det, gera, dijoa, nere, bezela, eskubi* esan eta idazten dutenak, Euskara Batuan dihardute-nean. Baina, jakina, hori ere ez da kontua.

Zalantzarik gabe, euskara normalduko bada, iritzi horiek zeharo baztertu behar dira. Euskaldun guztiak eta bakoitzak *beretzat eta etxekotzat* izan behar du Euskara Batua. Egunerok darabilena baino jasoagoa, eta bere inguruko adiskideekin darabilena baino zabalagoa, baina, azken batean, berea. Eta, nire iritiz, helburu horretara ez gara sekula helduko oraingo Euskara Batu ertsiar eta itxiar.

Ostera, beste hauxe da euskaldun guztiari eta bakoitzari buruan eta bihotzean sartu behar zaiona: Euskara Batua, ‘bere herriko hizkera + arau jakin batzuk’ besterik ez dela. Hau da, Euskara Batua erabili behar duenean, ez duela bere hizkera beste batera “itzuli” behar. Bergarako hitzun batek, esate baterako, *etxera noia, kantsauta nago-eta* esaten baldin badu bere eguneroko jardun arruntean, *etxera noa, nekatuta nago-eta* esan dezake, lasai-lasai, Euskara Batuan. Horrela hitz egiten badu, lasai eta eroso jardungo du, euskara zuzena egingo du, hizkuntzarekin jolas ere egin ahalko du, eta, gainera, Euskara Batua erabiliko du.

Zoritxarrez, baina, bere *etxera noia, kantsauta nago-eta* hori *etxera noa, nekatuturik bainago* bilakatu ohi du sarri, eta hori ere zuzena eta Batua den arren, ez du ez hain “berea” eta ez hain “berezkoa”, eta “inoren eremuan” jokatuta, nekez lortuko du hizkuntzarekin benetan jolastea eta gozatzea, eta, azken batean, nekez lortuko du, hizkuntza sortzea. Sarritan, gainera, euskara zuzena egitea ere ez du lortuko, zaila delako, hizkuntzalari ez denarendako, “inoren zelaiko” arauak zuzen ikastea eta menderatzea.

Egitasmo berri hau aurrera eramateko, ezinbestekotzat jotzen dut irakaskuntzan, herri barruko hedabideetan eta herri barruko administrazio erakundeetan iraultza bat egitea.

(/) baakit askotan / galderekin hastia zuzenean ez dela izaten erraza orduan ba / nik eh aurrena // baa 10 minutuz eo gutxiagoz ba gauza txiki bat // esango dizuet gauza txiki bat kontatuko dizuet // eta // gauza txiki hori kontatuta geo ba ikusiko dea aterako det halako ondoriyo bat halako moraleja txiki bat aterako det / eta handikan aurrea ba pixka bat zuei utziko dizuet hitza ezta? /// esango nuke // nere iritiz / mundu hontan dena sekretua da eo garrantzia duen / dana o gehiena sekretua da // eta jakin egin behar dugu sekretu horiyek geureganatzen da sekretu horiyek asmatzen // eta hoi erakusteko / hain zuzen ere dena sekretua dela erakusteko nik orain hemen jarriko dizuet / kanta oso txikiya // seguruasko ba ezagutuko duzuen ez dakit ezagutzen duzuen kanta txiki bat // euskaraz // gutxi gorabehera esaten duena... (B.A.)

B

(/) badakit askotan galderekin hastea zuzenean ez dela izaten erraza; orduan, aurrena, gauza txiki bat esango dizuet, 10 minutuz edo gutxiagoz, eta ondoren halako ondorio edo moraleja bat aterako det. Gero zuei utziko dizuet hitza. Nere iritiz mundu honetan dena sekretua da, garrantzia duen / dena da sekretua; halatan jakin egin behar dugu sekretu horiek asmatzen eta geureganatzen. Eta horretarako, hots, dena sekretua dela erakusteko nik orain kanta txiki bat jarriko dizuet euskaraz; ez dakit ezagutzen duzuen, seguruasko bai. Gutxi gorabehera honela esaten du...

Lehenengo zutabea, audioz eta bideoz grabatutako testuaren transkripzio bat ematen da. Bigarrean, irakurle arrunt batek espero lukeena edo ematen da. A adibideko transkripzioak esandakoarengandik hurbilago dirudi, hots, gordinagoa dirudi;

bigarreanean ñabardura gutxiago jaso dugula antzeman daiteke. Alde horiek derrigorezko orraztuñoaren ondorio dira. Areago, aldeak handiagoak lirateke (A zutabeko) transkripzioetik audio zintara joko bagenu. Audio zintan paperean agertzen ez diren hamaika ñabardura antzemango genituzke. Eta askoz ñabardura eta xehetasun gehiago bideo zintan. Gauzak horrela, pertsona arrunt batek A zutabeko transkripzioa bere gordinean irakurriko balu, transkribatutako hori “gaizki idatzita” dagoela esango luke, hizkuntza hori “gaiztoa” dela. Edo kalitate urrikoa. Edota desegokia. Edo... horrelako zerbait. A zutabeko testua euskaldun batek egina dela, onartu, onartzen dugu, baina pentsatuko dugu testu hori (A zutabea) gutxienez “gaizki” idatzita dagoela beste zutabeko (B zutabeko) zerbait espero dugulako. Izan ere, hizkuntza idatzia- ren testuingurua eta ahozkoarena nahiko bestelakoak dira. Hitz egitea ez da idatziz mintzatzea. Ondorioz, bi erabilera horien arteko aldeak ugariak eta maila ezberdinetakoak dira: fonetikoak, sintaktikoak, informazio mailakoak, komunikazio mailakoak, produkzio mailakoak. Eta abar. Kazetariak eta estilo zuzena erabiltzen dutenean ez dituzte normalean ahozko hizkeran erabilitako elementu asko eta asko jasotzen. Eta idazkeraren oinarriak menperatzen dituzten idazleek, badakite ezinbestekoa dela hiztunak esandakoa apaintzea edo hiztunak esan ez dituen elementuekin hornitzea, esan duen hori, beterik gabe, ondo ulertu ahal izateko. Bestalde, badakigu transkripzio- ziorik onenak ere nekez isla dezakeela informazioa komunikatzeko garrantzi handia daukaten hamaika gauza.

Gure aldetik, ahozko hizkuntzaren hiru alderdi edo ezaugarri ekarri nahi ditugu. Honako hauek: errepikapenak eta erredundantziak, hizkuntza idatzian “lorrintzat edo usteltzat” jotzen diren baina hizkuntza mintzatuan sarri asko gertatzen diren “eraikuntza edo erabilera gaiztoak”, eta, azkenik, hanka-sartze eta erroreak. Gure esatekoak gogoetak dira, esan nahi da, ez direla ikerketa zehatz eta zuzen baten ondorio, gogoan darabiltzagun kontuak baino. Nolanahi ere badute oinarri sendorik eta enpirikorik, euskaraz emaniko hainbat hitzaldi, mintzajardun, hizketaldi, ... grabatu, transkribatu eta aztertu baititugu.

2. ERREPIKAPENAK ETA ERREDUNDANTZIAK

Errepikapenak eta erredundantziak gertaera arruntak dira ahozko hizkeran. Elementu horiekin gehiegi kezkatzen ez den batek, eta hiztunak nola esan nahi duen jakin nahiko ez lukeen norbaitek, ziur asko nahiago luke errepikapen horiek kentzea (goiko adibidean, eskuineko zutabea, alegia), hau da, ezkerreko zutabea eskuineko moduko batera itzuliko luke, beti ere testuaren edukia, zer esan nahi izan duen edo eduki semantikoa, errazago uler eta aztertu ahal izateko. Eta arrazoi bat baino gehiago du horretarako, besteak beste, mezua antolatzeke modu propioa duela ahozko hizkuntzak nola idatzizkoak.

“Repeticiones, Paráfrasis, deícticos, hiperónimos o comodines contribuyen a configurar algo especialmente característico del uso oral: la baja densidad léxica”. (Perera, 1984; Tusón (1997)-tik hartua).

Nolanahi ere, errepikapen eta erredundantzia guztiak ez dira maila eta garrantzi berekoak. Batzuek hizkuntza petral eta ahul baten lagin nabarmenak dira. Beste batzuk ez, ostera. Horregatik edo, kontu honetan bada benetako arriskua, lastoa baz-

tertu guran alea ere galtzeko arriskua hain justu, zeren eta errepikapen horien balio eta funtzioa, errepika gordin horien azpian dagoen esanahia baino urrunago baitoa.

Esan dugunez, errepikapen guztiak ez dira zaku berekoak. Luzzati (1998) autoreak hiru mota eta 11 errepika-figura bereizten ditu. Gure aldetik errepikapen zehatz bati egingo diogu arreta: egitura parataktiko eta koordinatuz (alborakuntza eta juntadura bidez) osatutakoei. Eta hauxe da gure proposamen-gogoeta: errepikapenak adierazi baten adierazle ere izan daitezkeela, alde batetik, eta bestetik, errepikapena ahozko hizkuntzaren nolakotasuna definitzeko elementua dugula.

Esan bezala, kide biko egitura parataktiko eta koordinatuei egingo diegu arretagunea, hots, bi atalez edo osagai (A eta B) osatutakoei. Egitura horiek honela transkribatu ditugu: egitura markatzeko < > ikurrak erabiliko ditugu; osagaiak edo atalak, hots, A eta B, markatzeko, berriz, I ikurra baliatuko dugu. Era berean / edo // ikurrak etena adierazten du, laburragoa (/) edo luzeagoa(//).

Ekar ditzagun adibide batzuk.

- (1) < eta esan nuen ez / nundik dator fama hau ez I nundik dator fama hau / ez/> (J.M.K.)

A

B

- (2) gauza txiki hori kontatuta gero ba ikusiko degu <aterako det halako ondoriyo bat I halako moraleja txiki bat aterako det> (B.A.)

A

B

- (3) < // begira txantxangorria da / txori bat // beti gordeta egoten dana // I

A

txantxangorria ez dugu inoiz ikusten> (B.A.)

B

- (4) < // ez dakit / nik beti / erizpidea galdetzen didatenean / nik gomen datzen det // norberak gehien gustatzen zaiona aukeratzea / I jakina /

A

baldin badaki / zer gustatzen zaion / norberak gehien gustatzen zaiona / hartzea// > (GB.E)

B

Ikus daitekeenez:

- Batzuetan, (1) adibidean esaterako, zati berbera errepikatzen da; ez da inolako ezberdintasun formalik.
- Beste batzuetan, A atalaren eta B atalaren artean nolabaiteko aldaketa errepara daiteke formari dagokionean, (2) eta (3) adibideetan esaterako.
- (4) adibidean, ez dago formazko aldaketarik, nahiz eta errepikatutako atalaren eta haren aurrekariaren artean, hots, A eta B-ren artean, beste elementu bat tartekatzen den.
- Errepikatzen diren edo erredundante diren bi atalen artean badago beti ere nolabaiteko erlazio logiko bat.

Zenbaitetan, esan bezala, A eta B-ren artean aldaketa gertatzen da formaren aldetik, (3) adibidean kasurako. Holakoetan bidezkoa da ondoko galdera: esanahiari dagokionean, baliokideak ote dira bi atal horiek? Baliokidetasunaren arabera, bi (azpi)multzoz berez daitezke: parafrasikoa eta kontrakarrekkoa...

a) Erlazio parafrasikoa.

Bi atalen arteko esanahia nahikoa antzekoa da, ezer gutxi aldatzen baita. Adibidez, (2) eta (4), edota beste adibide hirukote hau:

- (5) < /eta hor / ba bueno / teknikoak daude eta beti esaten daue jo ez bota ez badakizue lurra zelakoa den / I ez bota ez dakit zer / eta beti esaten dute
A B
ba analisiak itxeko / lurraren analisiak / > (E.B.)
- (6) </ letra hau kantatzen zuela pixkat aldatuta ez?
A
I ez oso aldatuta baina pixkat aldatuta / ez? /> (B.A.)
B
- (7) // eta zer berezitasun dau?; <bazkide laguntzaileak / gehienez ere botuaren herena izan / e:::/ izan ahal izango dutela // bai? I bakarrik botuaren herena (3,) gero/> (KH)

b) Kontrakarreko erlazioa

Beste batzuetan, oster, A eta B-ren artean nolabaiteko kontrastea edo aldea gertatzen da, nolabaiteko aurkaritza. Adibidez, (3) kasuan, edota beste hauetan:

- (8) < / eta gero // e: / jubilatzen direnean / bai? / beraien kapitala koperatiban bertan uzten dute / I ez dute eramaten beraien kapitala // > (KH)
A B
- (9) </ eta mundu guztian da /istoria hau / istoria hau ez da bakarrik euskalduna /
A
I istoria hau da Grezian eta da unibertsa //> (B.A.)
B
- (8-9) adibideetan, A eta B atalak baliokideak dira mezuari dagokionean, baina hitz ezberdinez dago emana mezu hori, A-n esaten dena B-n errepikatzen baita baina beste hitz batzuek, edota ikuspuntua aldatuz.

Oposizio erlazioaren gertari bikainak dira esaldien arteko modalitate kontrasteak ere. Horietan, A atalean esandako zati bat B atalean errepikatua agertzen da, baina beti ere modalitatez aldatzen delarik. Batean, esaterako, galde modalitatea aurkitzen dugu; bigarren atalean, oster, baieztapen modura azaltzen da errepikatutako zatia. Edota entzuleak esan berri duena berriz esaten du. Hala nola:

- (10)< / aldiz / zer egiten du txepetxak? // I txepetxak egiten du kontrakoa / >
A B
- (11)< / badakizue nolakoa den ajedrezko zea? // I ba ajedrezko zean ere / hau da e ajedreza / > (B.A.) A B
- (12)// esaten omen da zuk galdetu ezkeo zea bati / <sankritoz hitz egiten zuen agure haitako zar bati galdetu ezkeo zer da mundua ?
A
// esate omen tzun / mundua zer dan? / I ba hauxe da mundua / hola itten omen tzun / > (B.A.) B B

3. ERREPIKAPENEK (ETA ERREDUNDANTZIEK) HIZKETALDIAN DUTEN FUNTZIOA

Errepikapen asko huskeriatzat, makulu eta betegarritzat jotzen dira, ez baitira mezuaren esanahia ulertzeko ezinbestekoak. Hiztunak esaldi bakarrez edo laburrago esan zezakeena, sintagmak, esaldiak edo zenbait zati errepikatuz ematen du. Ahozko hizkuntzan gauzak behin eta berriro errepikatzen ditugu, esandakoa ahaztu egin zai-gulako edo pentsatzeko beta hartu nahi dugulako. Era berean, ahozko hizkuntza prozesatzeko baldintzetarik dugu denbora: pentsatzen eta aukeratzten diren heinean esaten dira hitzak. Hiztunak birformulatu egin behar izaten du behin baino gehiagotan eta behin eta berriro esandakoa, bai berak bai entzuleak esandakoaren hariari erraza-go jarraitzeko eta informazioa prozesatzeko nahikoa astia izateko. Horrenbestez, memoriaren mugak eta denboraren presioak sortutako eragozpenak gainditzeko joko luke hiztunak errepikapenetara. Arrazoi horiek ez ditugu okertzat joko. Baina bada beste esatekorik ere.

Errepikapenak aztertu dituztelarik, zenbait autore (Tannen (1987); T. Villamizar (1993) edo A. Álvarez (1994) funtzio erretorikoez eta poetikoez mintzatzen da. Errepikak, Tannen-en ustetan, formula erritualak sortarazteko ahalmen bat da. Berorien funtzioetariko bat hizketaldia modu eraginkorragoan, azkarragoan eta neke gutxiagorekin burutzea litzateke. Errepikapena zerbait automatikoa da, eta, aldi berean, aldagarria ere bai; horrek mezuaren ulermena erraztuko luke, berbaldiaren zama edo dentsitate semantikoa arintzen baitu. Era berean, hizketaldiaren edo diskurtsoaren kohesioa eta funtzio fatikoa ere bideratzen dituela dio. Villamizar autoreak errepikapenaren funtzio ludikoa eta poetikoa gogorarazten dizkigu; errepikapenak, zenbaitetan, diskurtsoan duen balio ikonikoa ere aipatzen du, figuraren erritmoak ekintzaren erritmoa islatzen dueneko balioa hain zuzen, honela: “iluntzen zihohan, iluntzen zihohan, iluntzen zihohan”. Nolanahi ere, autore horiek uste dute errepikapena ez dela erabile-raren ezinbesteko akatsa edo pekatua: funtzio erretoriko, poetiko eta pragmatikoez mintzatzen dira, horiek ere kontuan hartu beharreko alderdiak direla esanez.

Gure testuetara itzuliz, errepikapenei honako funtzio pragmatiko hauek errepara dakizkieke:

a) Formulazioa gauzatzeko eta moldatzeko baliabide egokiak dira errepikapena eta erredundantzia. Hasieran (A zutabean) emandako adibideak ondo ilustratzen du hemen esandakoa.

b) Berbaldiaren aitzineratze geldoagoa edo motelagoa eragiteko, hizketaldiaren arretagunea behin eta berriro mantenduz. Esan denaren errepikatzeak eta erredundantziak hitzuna eta entzulea uhin berean mantentzen ditu (Ong, 1987). Badirudi ahozko hizkuntzaren hedatzea ez dela sekuentzia linealean gauzaten, zatika eta leihok irekiz baizik. Ahozko hizkuntza zati laburretan bidaltzen eta heltzen da. Adibidez:

(13) // begira txantxangorria da / txori bat // beti gordeta egoten dana /// txantxangorria ez dugu inoiz ikusten / ez udabarrian / ez udaran eta ez udazkenean / eta txantxangorria beti bizi izaten da jendegandikan oso urruti / baino // etortzen da aurreneko hotz handia / etortzen da aurreneko elurra / mendietara hain zuzen / egun hoietan / hoi da abenduaren 12a 13a 14a / etortzen da / elur hori eta txantxangorriak pentsatzen du (...). (B.A.)

Hor bi leiho edo irekigune ditugu. Eta hirugarren baten hasiera.

- 1) “begira.....oso urruti”
- 2) “baino etortzen da elur hori”
- 3) “eta txantxangorriak pentsatzen du”

c) Metahizkuntza funtzioa. Errepikapenak, izan ere, komunikazio eraginkorra-
goa eragiten du, beti ere mezuaren kodeketa eta deskodeketa errazten baitu. Honela,

- (14) / gero daude/ beno azidotasuna oso inportantea da oso garrantzitsua da / e
ardoan e? / azidotasunak ematen dio ardoari / freskotasuna /saporean
ere nabaritzen da / e usainan ere bai / garbitu egiten du ardoa / oso garran-
tzitsua da e azidotasuna/ eta /(...) (E.B.)

d) Funtzio fatikoa. Azpimarratzekoa da baita ere errepikapenen funtzio hau, esa-
tariaren eta hartzailearen artean kanal fisiko eta psikikoak luzatzen ditu eta.

e) Hanpatze funtzioa. Hona adibidea:

- (15) /u::: eta holako batean esan zuen / ba: zerbait egin behar dut ! zerbait egin
behar dut! Pentsatu zuen / pentsatu pentsatu/ (J.M.K.) .

f) Nabarmentze funtzioa. Adibidea:

- (16) // ba txepetxa da txantxangorriaren / aurkakoa erabat beste modu batera
jokatzen du / txepetxa egoten da beti jende artean / egoten da jende artean
/ udabarrian egoten da jende artean udaran eta egoten da jendeartean udaz-
kenean / baina zer gertatzen zaio aurreneko hotza / etortzian // (B. A.)

Gogora dezagun gure gogoeta: errepikapenak ahozko hizkuntzaren elementu
identifikagarriak dira; ez dira besterik gabeko elementu baztergarriak, baliabide prag-
matikoak baizik. Hau da, esanahia duten elementuak. Horrenbestez, ahozko hizkunt-
zaren zentzua atzemango bada, baliabide honek sistemaren duen efektua ere atzeman
beharko da. Ondorengo baieztapenak ez dirudi burugabekeria: uste dugu hipotesi
hauek ez direla hemen aipatu ditugun gertakarietara bakarrik mugatzen, ahozko hiz-
kuntzaren beste batzuetara ere aplikagarri izan daitezkeela.

4. BIGARREN GOGOETA

Bigarren gogoeta ahozko hizkuntzan sarri asko gertatzen diren “eraikuntza
gaiztoei” buruzkoa da. Alderdi horretatik errepikapenez bestelakoak dira. Luzzati
(1998) autoreak uste du erretorikako “eraikuntza figurez” baliatuz deskriba daitezke-
ela erabilera larri horiek. Eraikuntza gaizto horietarik ditugu, esaterako, anakolutoa
edo eraikuntzaren besterik gabeko etadura, hitz ordenaren aldaketa, etabar. Urratze-
mota ugari dago, hain zuzen. Denek ez dute sorburu bera: izan ere, batzuek eraikun-
tza figurak baino gehiago pentsamendu figurak dira. Holakoetan urratzen dena egitu-
ra sintaktikoa baino gehiago zentzuaren koherentzia da. Beste batzuek, ostera,
alderantziketa figurak dira, beraietan berezko edo unekoaren kontrako ordena edo no-
rantza gertatzen baita. Ordena sintaktikoa da holakoetan urratzen dena. Hirugarren
multzo bat mozketa figurek osatzen dute; horietan segida edo sintaxia jarraipena
urratzen da, esaldia, bapatean, moztua izan balitz bezala, bukatzen da eta. Bada lau-
garren multzo bat: hemen bilduko genituzke delako erdibana (“apokoinou”) figurak.
Beren ezaugarri nagusia hauxe da: ez da enuntziatuaren barruko rol sintaktikoen
berezketarik egiten.

Gure aldetik, bereziki bi aipatu nahi ditugu: erdibana eta silepsia izenekoak, biak ahozko hizkuntzaren ezaugarri bikaintzat jotzen baitira. Bi eraikuntzok, bestalde, ez ditugu sakon aztertuko, gure gogoetarekiko behar den heintxoan baino, hau da, ahozko hizkuntza deskribatzeko argitasunik ematen duen neurrian.

4.1. Erdibana

Erdibana (“apokoinou”) eraikuntzan, atal bat bera bi proposiziori dagokio. Jar dezagun adibide batzuk. (Oharra: erdibana segmentuak azpimarratuta daude).

- (17) / ez da azaltzen urte guztiyan eta urte hori urte zaharra bukatzeaz dijoanean / azaltzen da / urte berriarekin batera ordun bihurtu da urte berriaren sinboloa / (B.A.)
- (18) / eta sartu dute eta txantxangorriak zerikusia dauka baita ere salatu egin duela txantxangorriak ere lagundu egin du // (B.A.)
- (19) / eta inoiz mendira joaten bazarete eta ikusten baduzue hola sasi artian / sasi artian beti zerbait mugitzen dala / eta / ikusi eta da txori txiki bat eta ematen du gainera lotsatuta dagoela ematen du ba ez dakit / zerbait / platera bat puskatu duela edo zerbait holako egin duela ... (B.A.)
- (20) / nere / nere auzoan / ba: nere auzoan / zeuden (/) e: / nere auzoan / ba berro berre berrehun ionki zentrimetro (/) kuadratuko // hor eee unibertsoa ez zegoen unibertsoa ez zegoen ezer! Jainkoa bakarrik / (J.M.K.)
- (21) / Gu geu be bagoz geu be / (Geuk bildua; aitona ilobari esandakoa)

Adibide horietan azpimarratuta dagoen atalari dependentzia bikoitza errepara dakiok. (17) adibidean esaterako, “eta urte hori urte zaharra bukatzeaz dijoanean” esapidearen jarraia da; era berean, hurrengoaren “urte berriarekin batera” segmentuaren hasiera ere bada. Eta horrela beste adibideetan ere.

Erdibana eraikuntzetan ez da gramatikako araurik urratzen. Eta baldin eta arau urratze larria ez baina nolabaiteko desaraua iruditzen bazaigu, koherentzia sintaktikoaz dugun irizpidea beti ere idatzizko hizkuntzarena delako izan ohi da. Erdibana erabilerak, ahozko hizkuntzaren beraren funtzionaltasun autonomoaren irizpidetik epaitu behar ditugu. Ez dirudi bidezkoa denik idatzizko sintaxiaren lege zorrotzat eta zurrunik ahozkoari aplikatzea.

Idatzian, koherentzia sintaktikoa erabatekoa da; haren barrutia perpausa edo esaldia da, eta irizpideak, gramatikaltasuna eta onargarritasuna. Besterik gertatzen da ahozko erabilerari dagokionean: hemen, koherentzia sintaktikoa nozio erlatibo da, esan nahi dugu, ez dugula haren definiziorako marko zehatzik; ahozko esaldia, idatzizkoaz konparatuz, entitate birtuala da. Idatzizko esaldia gauzatua dago, egina, ondua; ahozkoa, beti ere enuntziarioari lotua dago. Ez dago misteriorik, erabilera bakoitzak baitu bere koherentzia.

4.2. Silepsia

Ahozko hizkuntzan komunztadura batez ere pentsamenduarekin egiten da, eta ez sintaxiarekin. Zentzu honetan, ahozko hizkuntzan barra-barra gertatzen dira ad

sensum egindako komuntadurak, hots, silepsia erako egiturak. Deskribapen eta azterketa osoagorik merezi du gai honek, baina oraingoz gera bedi hor, gogoetagai izate horretantxe.

Eman dezagun silepsia gertakari horren adibide bat.

(22) ME. Asko hitzegiten da Europaren porrotaz / ezta?/ nola ikusten duzu Pernado kontua?

P.B. bai / Europaren porrotaz eta / e / orokorrean nazioarteko erakundeetaz / hor nik uste dut / Yugoslaviako gatazkaren aurreko fasean / ederki erakutsi egin zela / Milosevic bera e / estatu kriminal bat zela // eta horri ez zitzaion/ beharrezko neurriak aplikatu / eta ez ziren beharrezko neurriak hartu ezta ? / eta (...) eta azken finean / ba bueno / zer gertatzen den / ba nolabait elkarrizketaren porrot horren aurrean / edo presio hoi-en/ porrotaren aurrean / nolabait indar gehiago hartzen du / komunitate internazionalaren aurrean interbentzio militarrena / (GBP)

Ikus azpimarratutako sintagmak: komuntadura ad sensum egina dago, hau da, pentsamenduari begira eta ez sintaxiaren bitartez.

Bistan dago, hemendik ere ondorioetako batzuk esplizita daitezkeela ahozko hizkuntzaren erabilerari buruzkoak.

5. HIRUGARREN GOGOETA: HANKASARTZEEI ETA ERROREEI BURUZKOA

Ahozko hizkuntza, hizkuntza mendre eta ahularen parekotzat jotzen da. Akats-toki eta gramatika urraketan gertaleku paregabatzat ere bai. Besterik ezean jasan beharrekoa omen da. Esan ohi da ahozkoa naturala dela, idatzizkoa baino adierazko-rragoa, “aberatsagoa”, pertsonalagoa, askeagoa, ... Esan izan da, orobat, ahozko hizkuntza idatzia baino sinpleagoa dela, hots ez dagoela hain egituratua. Edozein modutan, gramatikalariek sarri askotan –gehienetan edo ia beti ez bada- hizkuntza idatzia hartu dute eredutzat hizkuntza eta lengoia deskribatzeko. Horren ondorioz, hainbat arazo sortzen zaio ahozkoaren deskribatzaileari.

Halaz ere, idatzitakoa ez da mintzatua baino egituratuagoa edo konplexuagoa. Ildo beretik, ahozkoa ez da idatzizkoa baino akastunagoa. Ahozko hizkuntzaren transkribapenek gutxiago egituratuak eta akastunagoak ematen badute, hori da ahozko hizkuntza “berrikusi” edo “berridatzi” gabe aurkezten dugulako. Ahozko hizkuntzak ez du “zirriborrorrik”, bapatean, ekoiztu ahal eta moduan ematen baita. Hankasartzerik edo errorerik eginez gero, ez dago atzera jotzerik, ez da esaldia aldatzerik. Holakoetan hiztunak derrigorrez aurrera egin beharra du. Ikus daitekeenez, enuntziatziara bertara jo beharra dago.

Akats eta urratu guzti horien adibideak ugariak dira. Bat aipatzearren hona horietako bat:

(23) Bueno nik esango nuke/ hor beti/ bi gauza dagoz/ beitzeko e/ bat/ nondikan diru hiri batzen dan/ e// eta nora/ diru hori eramaten dan// batu/ egingo da/ juan dan urtian bezelaxe/ aldundi bakoitzak diru gehiena/ba / ein die aldetak/ zerga batzuetan/ baino bueno/ gutxi gora behera batuko dira betiko/ beti edo/ atzenengo urtian bat dan bezela/ dirua// eta joan ere diru

hori/ aurreko urtian bezelaxe// bakarrikan orain/ haunditu dan hogeitazortzi mila ta bostehun miloi hoiek/ ba bueno badaoz hamar mila miloi/ errepideetarako dijoazela/ edo portuetarako/ edo infrastrukturako// eta nik uste det hori ona dala// eta beste bi mila eta bostehun ere/ ba dijuaz laguntza bezela/ lan kontrato berri hoieta/ bai relevo ta sustitucion/ deitzen jakona/ hoiek/ hoiie erraztasuna emateko// eta nik uste dut ba hori/ ba ondo dago/ bihar zan gauza bat da// baino/ aldaketa haundi haundi haundirikan horrek ez dut uste dakarrenik (GB.E)

Horiek horrela, komeni da ondorioetako batzuk esplizitatzea, baldintza horrek isats luzea baitu ondorio gisa. Guk hemen bi ondorio aipatuko ditugu, baina ez nolana hikoak: lehena, errorearen izaerari buruzkoa da, eta bigarrena, zuzentze moduari buruzkoa.

Errorea, idatzizko hizkuntzan, nozio estatikoa da: enuntziatu oro zuzena da edo gaiztoa, eta errorea zuzentzeko eta berridazteko aukera du hiztunak. Edota halakotzat jotzen dugu. Ahozko hizkuntzan, errorea nozio dinamikoa da: hiztunak hankasartzea eginez gero, mezua luzatuz soilik eta aurrera joaz hura zuzendu ahal du.

Ahozkoaren zuzenketak lan sintagmatikoa eskatzen du, hots, ardatz sintagmatikoan egiten dira zuzentzea eta erreparoa; idatzizko hizkuntzaren zuzentzea, ostera, lan paradigmaticoa da. Idazleak nahi duen denbora guztia izaten du bere mezua antolatatu, behar dituen hitzak aukeratu eta egiturak zuzentzeko, eta, oro har, bere idatzia ondu eta lantzeko, hariak eta komunikatu beharreko mezua emateko era egokia aurkitu arte. Besterik eta bestelakorik gertatzen zaio ahozko hizkuntzaren erabiltzaileari. Ahozko eta idatzizko hizkuntzek, modu ezberdinean funtzionatzen eta, hala errorearen tratamendua nola haren ebaluaketa, irizpide desberdinen arabera egin beharko litzateke.

Esan dezagun, azkenik, zenbait hizkuntza unitatek oso modu bestelakoan funtzionatzen duela ahozkoan eta idatzizkoan. Adibidez, nolabaiteko eragozpen bat edo egiten denean desenkusatzeko erabili ohi den “Barka; Barkatu” esapideak. Ahozkoan “eragozpenaren” atzetik behar du agertu, hura gertatu ondoren. Idatzian, beti ere kutsu ironikoa bereganatzen du, zeren hiztunak beta du hura zuzentzeko. Badira beste zenbait oposizio ere.

AIPATUTAKO ADIBIDE-ITURRIEN LABURTZAPENAK:

- J.M.K.: Jose Mari Karrere, “Bibir del Kuento” konta saioaren transkribapena
- B.A.: Bernardo Atxagaren hitzaldi baten transkribapena
- E.B.: Estibalitz Buesa: Ardo Ikastaroko hitzaldi baten transkribapena
- GB.E.: “Goizean Behin” Ekonomiaz Euskadi Irratiko Tertulia
- GB.P.: “Goizean Behin” Politikaz Euskadi Irratiko Tertulia
- K.H.: Kooperatibei buruzko Hitzaldia

BIBLIOGRAFIA

- ÁLVAREZ, A. (1994). *Lo crudo y lo cocido: variación en narraciones orales venezolanas*. Boletín Antropológico, 28. Mérida: Universidad de Los Andes.
- GARCIA-DEBANC, C. (1999). “Évaluer l’oral”, *Pratiques* 103/104, 193-212 or.

- HABE eta UZEI (Lankidetzan) (1989). *Euskara-irakaslearen eskuliburua, Glotodidaktika-zerbitzua*. Donostia.
- LUZZATI, D. (1998). “Rhétorique et description de l’oral”, *Verba* 25, 7-30.
- MOREL, M.A. (1983). “Pour une typologie des figures de rhétorique: points de vue d’hier et d’aujourd’hui”, *DRLAV* 16, 1982, 1-62.
- ONG, W.B. (1987). *Oralidad y escritura. Tecnologías de la palabra*. Mexico: Fondo de Cultura Económica.
- TANNEN, (1987). *Repetition in conversation: Towards a poetics of talk*. *Language*, 63.
- TUSÓN, A. (1997). *Análisis de la conversación*. Barcelona: Ariel.
- VILLAMIZAR, Th.(1993). *Repetición de estructuras sintácticas en el habla rural*. *Boletín Antropológico*, 27, Mérida: Universidad de Los Andes.

Hizkuntza aldaerak telebistan

Asier Larrinaga Larrazabal

ETBko Euskara Saila

Hogei urte dira euskara ikus-entzunezko esparruan sartu zela, Euskal Telebistaren eskutik (ETB sortu aurreko ahalegin xumea ez dut aintzat hartuko). Era guztietako kritikak egin zaizkio Euskal Telebistako euskarari, gehienak zuzentasunaren ikuspegitik. Orainsu arte zuzentasuna izan da euskal hiztunen eta euskararen sustatzaile-begiratzaileen kezka eta ardura nagusia, baina azkenaldian egokitasuna bihurtu da kezka eta ardura guztien sorburu. Ezin da bestela izan, gramatikaren arauak betetzea ez baita berme nahikoa komunikazio egoeraren eskakizunei ondo erantzuten zaiela ziurtatzeko.

Ikus-entzunezko euskara egokia den epaitzeko, nahitaezkoa da alde zuretik urrats bi egitea.

I. Hizkuntza aldaerak zein diren jakitea eta aldaera bakoitzaren ezaugarriak zehaztea.

II. Telebistako saio mota bakoitzean zein aldaera erabili behar den argitzea.

I. Hizkuntza aldaerak aztertzen hasita, lehenengo sailkapena egin behar da. Hainbat eredu dira baliagarri. Nik, komunikazio ekintzaren eskema hartuko dut oinarri. Eskema jakintzat emanda, beste barik hasiko naiz sailkapena egiten.

1. ERREGISTROAK

Komunikazio kanalaren arabeko aldaerak.

1.1. Ahozko erregistroa. Hartzaileari entzunezko kanaletik heltzen zaion aldaera. Ahozko erregistroaren gramatika, testu eta testuinguru ezaugarrien multzoari ahozkotatasuna deritzo.

1.2. Idatzizko erregistroa. Hartzaileari ikusizko kanaletik heltzen zaion aldaera. Idatzizko erregistroaren gramatika, testu eta testuinguru ezaugarrien multzoari idatzizkotatasuna deritzo.

1.3. Erregistro mistoa. Idatziz sortu eta ahoz igortzen diren testuei dagokien erregistroa da, hain zuzen ere, ikus-entzunezko komunikabideetan nagusi diren testuei dagokiena. Erregistro mistoa ahozkotatasunaren eta idatzizkotatasunaren elkargune zabala da, honako ezaugarri pragmatiko eta testual hauek dituena.

ERREGISTROAK			
Ezaugarria	Ahozkoa	Idatzizkoa	Mistoa
<i>Kanala</i>	Entzunezkoa	Ikusizkoa	Entzunezkoa
<i>Komunikazioa</i>	Bat-batekoa	Prestatua	Prestatua
<i>Kodea</i>	Hitzezkoa eta beste hainbat	Hitzezkoa funtsean	Hitzezkoa eta beste hainbat
<i>Informazioa</i>	Bururatu ahala hautatua	Zorrozki hautatua	Zorrozki hautatua
<i>Testuaren egitura</i>	Irekia	Planifikatua	Planifikatua
<i>Kohesioa</i>	Hein batean doinuerak eta erritmoak bideratua	Lokailuek bideratua	Lokailuek bideratua funtsean

2. ESTILOAK

Solaskideen arteko harremanaren araberako aldaerak. Egoeran-egoeran, era batekoa edo bestekoa izaten da solaskideen arteko harremana, are solaskide berberak izanda ere. Estiloak ere, horrenbestez, era batekoak edo bestekoa izaten dira. Izan litezkeen estilo guztiak zehazten hasi beharrean, muturreko biak ematen dira normalean.

- 2.1. **Estilo formala.** Solaskideek elkar hartzeko modua gizarteko adeitasun eta begirune arau guztiekin jantzen duteneko estiloa.
- 2.2. **Estilo kolokiala.** Solaskideek aldartea eta sentimenduak ezkutatu edo mozorrotu barik elkar hartzen duteneko estiloa.
- 2.3. **Estilo neutroa.** Mutur bien erdian dagoena.

3. DIALEKTOAK

Hiztunaren ezaugarrien araberako aldaerak. Multzo handi bi bereizi behar dira:

- 3.1. **Geolektoak.** Hitztunaren jatorri geografikoaren araberako aldaerak.
- 3.2. **Soziolektoak.** Hitztunaren kultur eta gizarte ezaugarrien araberako aldaerak. Soziolektoak era askotara sailka daitezke, baina hona hiruko banaketa bat ekarriko dut, irizpidetzat hizkuntzaren zaintze neurria erabiliz.
 - 3.2.1. *Goi-mailakoak.* Maila honetako soziolektoei hizkera zaindu, landu eta jaso ere esaten zaie. Hitzun ikasiak bakarrik heltzen dira hizkuntza aldaera hauen jabe izatera.
 - 3.2.2. *Erdiko mailakoak.* Hizkuntza arauak betetzeari garrantzi handia ematen zaio maila honetako hizkeretan, baina, aldi berean, hitzun gehienek erraz samar ulertzeko moduko hizkerak izaten dira.
 - 3.2.3. *Behe-mailakoak.* Hizkera arrunt eta arduragabe ere esaten zaie. Hitzun ikasigabeekin eta gizartean onarturiko hizkuntza arautik kanpo dagoenarekin loturiko soziolektoak dira.

Erregistroak	Ezaugarri sintaktikoak
<i>Idatzizkoa</i>	· <i>Zein</i> erako erlatiboak ager daitezke. · Perpaus elkarketa baliabide ugariz eta era konplexuan.
<i>Ahozkoa</i>	· Ez da <i>zein</i> erako erlatiborik agertuko. · Perpaus elkarketan emendiozko juntagailuak ugari.
<i>Mistoa</i>	· <i>Zein</i> erako erlatiboak ager daitezke. · Perpaus elkarkerta baliabide ugariz; ez oso konplexua.

Estiloak	Tratamenduak
<i>Formala</i>	· Berorikakoa ager daiteke. · Hikakoa inoiz ez.
<i>Kolokiala</i>	· Hikakoa ager daiteke. · Berorikakoa inoiz ez.
<i>Neutroa</i>	· Zukakoa beti.

Mailak	Ahoskera
<i>Goi-maila</i>	· Harmonia bokalikorik ez. · <r, rr> hortz-hobietakoak. · Bokal arteko kontsonante ahostunak ez dira galtzen.
<i>Erdiko maila</i>	· Harmonia bokalikoak gerta daitezke. · <r, rr> hortz-hobietakoak. · Bokal arteko kontsonante ahostunak gal daitezke.
<i>Behe-maila</i>	· Harmonia bokalikoak. · <r, rr> ubularrak izan daitezke. · Ohikoa da bokal arteko kontsonante ahostunak galtzea.

Hizkuntza aldaerak zein diren jakinda, aldaera bakoitzaren hizkuntza ezaugarriak aztertu eta zehaztu beharra dago. Hauek adibide batzuk baino ez dira.

II. Bigarren urratsa, hizkuntza aldaera bakoitza zein saio motatan erabil daitekeen argitzea da. Lehenengo, beraz, programa motak bereizi behar dira, eta horretarako, berriro ere, komunikazio ekintzaren eskema hartuko dut oinarri.

Ezer baino lehen, argibide bat. «Esatari» diodanean, hedabidearen onespenera eta hedabidearen izenean pantailan mintzatzen diren esatariak, aurkezleak, kazetariak eta aktoreak adierazi nahi ditut. Esatari ez denari «ikusle» esango diot. Berez, ikuslea, saioari begira egoten da, pantailaren aurrean zein estudioan. Horrek ez du baztertzeko batzuetan programan era bateko edo besteko parte hartzea izatea.

Testuinguru pragmatikotik hasita, solaskide biak esataria eta ikuslea direnean, gerta liteke elkarrekintzarik ez egotea bien artean, alegia, ikuslea hartzaile pasiboa

izatea. Bestela esanda, esatariak helarazten dion informazioa bereganatu baino ezin du egin ikusleak.

Edo gerta liteke elkarrekintza egotea, alegia, ikuslea solaskide parte-hartzailea izatea. Bestela esanda, informazioa bereganatu ondoren, esatariari erantzuteko aukera du ikusleak hedabidean bertan. Batzuetan ikusle guztiei eskaintzen zaie erantzuteko aukera, telefonoz, esate baterako, eta beste batzuetan ikusle batzuei bakarrik, aditu, gonbidatu edo inkestatu gisa.

Horrez gainera, beste batzuetan, ikusleak ez du parterik komunikazio ekintzan. Elementu arrotza da, ez baita solaskideetako bat. Komunikazio ekintza gertatzen ikusten du, kanpotik, behatzaile gisa.

Testuinguru semiotikoari dagokionez, erreferentzi emaileak ikuslea, komunitatea, mundua edo fantasia izan daitezke.

Saio mota bakoitzean komunikazio egoera zelakoa den jakinda, errazagoa da zein aldaera erabil daitezkeen esatea.

Elkarrekintzarik ez			Elkarrekintza bai			Ikuslea arrotza		
<i>Ikuslea</i>	<i>Komunit.</i>	<i>Mundua</i>	<i>Ikuslea</i>	<i>Komunit.</i>	<i>Mundua</i>	<i>Komunit.</i>	<i>Mundua</i>	<i>Fantasia</i>
	publizitatea							
	albistegiak							
	emankizunak							
	magazinak							
	dokumentalak							
	erreportajeak							
			lehiak.					
			elkarrizketak					
						filmak		
						telesailak		
						marraski bizidunak		

Telebistan, erregistro mistoa da nagusi. Ahozkoa, elkarrizketen eta eztabaiden zati batzuetan baino ez dugu topatuko. Idatzizkoa, uste baino sarriago erabiltzen den arren, azpidatzitako produktuetan bakarrik ez da izaten osagarri soila.

Oro har, hartzailea ikuslea denean, estilo neutroa erabili behar da, gutxienez. Saio mota batzuetan, hala ere, estilo kolokialerantz jo daiteke, esaterako, iragarkietan, magazinetan, kirol albisteetan eta festa eta ospakizun giroko emankizunetan, baina neutrotik gehiegi urrundu gabe. Ikuslea komunikazio ekintzatik kanpoko elementua denean, muturrik formalenetik muturrik kolokialenera arteko estiloak topatuko ditugu.

Mailei dagokienez, hartzailea ikuslea denean, erdiko mailako hizkerak topatuko ditugu. Albistegi, erreportaje eta dokumentaletan, gainera, hizkerak jasoagoak izaten dira. Dena dela, ikuslea solaskide parte-hartzailea denean, ikusleak berak jaisten

du askotan hizkeraren maila. Ikuslea komunikazio ekintzaren so-egile hutsa denean, era guztietako soziolektoak aurki daitezke: epaileen argot jaso, kaleko gazteen hizkera zabarra.

Geolektoei dagokienez, telebistan **aldaera batua** erabili behar da, alegia, ezau-garri geolektalik gabea. Lurralde baterako egiten diren saioetan, hango geolektoa erabil daiteke, betiere gogoan izanda badirela aldaera batuak hitzun komunitate osorako direnak, eta badirela eremu geografiko bateko komunitaterako bakarrik direnak.

Ikusleari parte hartzeko aukera ematen zaionean, bere geolektoa erabiltzea guztiz zilegi da, eta kode batua ulertzeko zailtasunak dituela konturatuz gero, esatariak ikuslearen geolektora hurreratzeko ahalegina egin behar luke. Ikuslea behatzaile soila denean, geolektoek tokia izan dezakete, testuinguru semiotikoaren ardatza komunitatea bada.

Saio motak	Erregistroak	Estiloak	Mailak
<i>Publizitatea</i>	mistoa	neutroa	erdikoa
<i>Albistegiak</i>	mistoa	neutroa	erdikoa
<i>Emankizunak</i>	mistoa	neutroa	erdikoa
<i>Magazinak</i>	mistoa	neutroa	erdikoa
<i>Dokumentalak</i>	mistoa	neutroa	erdikoa
<i>Erreportajeak</i>	mistoa	neutroa	erdikoa
<i>Lehiaketak</i>	mistoa + idatzizkoa	neutroa	erdikoa
<i>Elkarrizketak</i>	mistoa + ahozkoa	neutroa	erdikoa
<i>Filmak</i>	mistoa / idatzizkoa	denak	denak
<i>Telesailak</i>	mistoa / idatzizkoa	denak	denak
<i>Marrazki bizid.</i>	mistoa	denak	denak

Goiko taulak ez ditu biltzen emandako azalpen guztiak, baina oso baliagarria da, konkomitantzia bat erakusten duelako, hain zuzen, estilo neutroa eta erdiko mailako hizkera hainbat bider batera erabiltzen direla. Aldi berean estilo neutrokoa eta erdiko mailakoa den aldaerari **aldaera orokorra deritzo**.

Hona iritsita, badakigu telebistako programa bakoitzean zelako euskara erabili behar litzatekeen. Erabiltzen denaz, hartara, erraz eman behar genuke egokitasun epaia. “Genuke” esan dut, hari honek korapiloren bat edo beste baitu oraindino askatu barik. Izan ere, batetik, euskararen aldaera batzuk ez dira behar bezala karakterizatu oraindino. Bestetik, hainbat aldaera existitu ere ez dira egin euskararen, telebistak pantailaratu ez dituen arte.

III. Horren guztiaren osagarri, beraz, euskarak ez dituen çcaldaerak edo ondo garatu gabe dauzkan aldaerak sortzeko, bultzatzeko eta aberasteko ikerbideak finkatu behar dira. Nire ustez, ikerbideak hiru dira.

- Hizkuntza biziaren arakaketa.
- Inguruko hizkuntza eredu azterketa.
- Sormena.

Ez naiz orain alderdi bakoitza sakonki aztertzen hasiko, beharbada askoz baliagarriagoa baita adibide bat ematea. Euskal Telebistan igarri dugun hutsunerik handiena soziolektoei dagokiena denez, *Hasiberriak* telesaileko gidoilari eta elkarrizketalariei ETBko Euskara Sailak eman zien eredia jarriko dut adibidetzat. Gazte hizkeraren eredu bat da, jakina, honela osatu genuena.

Hizkuntza bizia arakatzeko, berariazko inkesta bi prestatu ditugu orain arte, bata sexuari buruzkoa eta bestea drogari buruzkoa. Drogari buruzkoak itxura hau dauka.

2. DROGAK

2.1. DROGA MOTAK

2.1.1. ALKOHOLA

2.1.1.a Alkohola, oro har

2.1.1.b. Ardoa

2.1.1.c. Garagardoa

2.1.1.d. Kola eta rona

2.1.1.e. Gina eta tonika

2.1.1.f. Gina eta limoia

2.1.1.g. Ardoa eta kola

2.1.1.h. Vodka eta laranja

2.1.1.i. Bestelakoak

2.1.2. BESTEAK

2.1.2.a. Marihuana

2.1.2.b. Haxixa

2.1.2.c. Heroina

2.1.2.d. Kokaina

2.1.2.e. Anfetamina

2.1.2.f. Speed-a

2.1.2.g. Besteak

2.2.b. Pastillak

2.2.c. Hautsa, pilo estu eta luzanga batean ipinita

2.2.d. Pasta gogortua

2.2.e. Injekzioa

2.2.f. Paper zati batean jarritako LSD tanta

2.3. KONTSUMOA

2.3.1. KONTSUMITZEKO ERA

2.3.1.a. Edatea

2.3.1.b. Irenstea

2.3.1.c. Erretzea

2.3.1.d. Sudurretik hartzea

2.3.1.e. Zainean injektatzea

2.3.2. KONTSUMITZEKO

BITARTEKOAK

2.3.2.a. Erretzeko papera

...

2.2. DROGA ERABILI EDO

ERA

2.2.a. Zigarroa

ESKURATZEKO

Inkesten bidez eta kaleko gazteek esaten dutenari erreparatuz, hainbat hitz eta esamolde bildu ditugu. Hauek, esate baterako.

Zarraztada bota.

Txiza egin.

Txahala egin / Txahala bota.

Gonbito egin.

Azken ostikadak jo.

Zerbaiten azkenetan jardun.

Upela.

Tripa lodia, gizona.

Kaka jatea dauka horrek.

Ahaztu hori. Ez hartu aintzat pertsona hori.

Hau da harria!

Desesperatzeko zorian gaudenean esatekoa.

Ze suma ibili.

Zeregin jakin barik egon.

Gorri ibili.

Parrandan edo zeregin askorekin ibili gelditu gabe.

Gogoan izan genuen, jakina, gazte hizkera zelakoa den hizkuntza guztietan: estilo kolokialekoa da, eta erdiko mailatik goragokoa inoiz ez. Sintaxian, esate baterako, ezaugarri hauetan gauzatuta dago izaera hori.

· Gazte hizkeran hitzen ekonomia da lege: berba egitean adierazteko modu motz eta bizietara jotzen da.

· Perpausa osatzen duten elementuak ordenatzeko, ahozko erabilera izan behar da gogoan eta informazioa helaraztea jarri behar da lehentasuntzat.

Ezaugarri horien haritik, honako baliabide hauek proposatu dizkiegu, besteak beste, Hasiberrien testuak sortu behar zituztenei.

· Aditz laburketez baliatu galdera, agindu eta promesetan.

- Nahi? (*Nahi duzu?*)

- Bihar deituko! (*Bihar deituko dizut!*)

- Gustatzen? (*Gustatzen zaizu?*)

· Esaldi laburrak egin, aditz metaketa saihestu, erlatiboak eta egitura korapilatsuak soildu... Perpaus landuegiak, hanpatuegiak eta aldrebesegiak lekuz kanpo daude.

· Informazioaren zati handi bat esaldiaren hasieran jarri behar da.

· Perpaus nagusia perpaus menderatuaren aurretik jarri.

Asmatutako gauzak ere proposatu dizkiegu, *txatean aritu*, esate baterako, gaur egun hainbat eta hainbat gaztek Interneten izaten dituzten solasaldiak adierazteko.

Hasiberriek uztailan amaitu zuten lehen denboraldia eta oraingo hilean hasi dute bigarrena, pantailan izandako arrakastari esker. Agerian dago hasieran aipatu ditudan hogeitau urteak ez direla alferrik joan, Euskal Telebista egiten dugun pertsona guztion artean ezerezetik ikus-entzunezko hedabideetako hizkuntza izatera eraman baitugu euskara.

BIBLIOGRAFIA

AGOST, R. (1999). *Traducción y doblaje: palabras, voces e imágenes*. Bartzelona: Ariel.

CASSANY, D. (1996). *Describir el escribir. Cómo se aprende a escribir*. Bartzelona: Paidós.

ETBKO EUSKARA SAILA. (2000). *Tratamenduak ETBko fikzioan*. Barne-txostena.

- _____ (2001). *Hasiberriak. Euskararen gaineko irizpideak*. Barne-txostena.
- EUSKALTZAINDIA. (1990). *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-III (Lokailuak)*. Bilbo.
- _____ (1998). «Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua». *Euskera* 43: 2, 485-490.
- HERNANZ, M. L.; BRUCART, J. M. (1987). *La sintaxis. I. Principios teóricos. La oración simple*. Bartzelona: Crítica.
- VIGARA TAUSTE, A. M. (1992). *Morfosintaxis del español coloquial. Esbozo estilístico*. Madril: Gredos.
- VILLASANTE, L. (1980). *Hacia la lengua literaria común*. Oñati: Editorial Franciscana Aranzazu.
- ZUAZO, K. (2000). *Euskararen sendabelarrak*. Irun: Alberdania.

Ipuin kontalaritzaren eredu berria?

*Leire Diaz de Gereñu, Itziar Idiazabal &
Luis M. Larringan*
UPV/EHU

SARRERA

Hizkuntza ereduak ez ditu akademiak bakarrik erabakitzen. Hizkuntza gehienak akademiarik gabeak dira, ez ordea, eredurik gabeak. Literaturari beti onartu zaio eredugile izatea, gurean ere bai, nahiz eta ahozko literatura ez den gehiegi kontuan hartua izan. Gure azter eremuak ahozko literatura jarraitzen eta/edo moldatzen du eta hori da deskribatu gura duguna: euskal ipuin kontalaritzaren gaurko ereduak.

Ipuinak, euskal ipuinak, jakintsu, zaletu, euskaltzale, folklorista, etnologo, literatur aztertzaile askoren langaia dira. Ipuin bildumak, ahozkotik eta idatzitik jasoak eta haien azterketa sakon edo arinagoak ugariak dira gure artean eta beste hizkuntzen kultur altxorraren bildumetan. Zer esan dezakegu guk orain arte esan ez denik? Ikus dezagun:

- Ipuin kontak saioez jardun gura dugu; gaurko jendaurreko kontak saioez eta, nolabait, eginkizun horretan espezialistak edo profesionalak direnen ipuin kontalarien emankizunez.

Ipuin kontak saioetan egiturarik, eredurik baden ikusi gura dugu. Ipuinen egitura formalari buruz asko ikertu eta idatzi da. Ipuin kontak saioez ez hainbeste. Izan ere, idatziz heldu izan da ahozko literatur gehiena eta ahozkotetasun horri, ipuinei dagokienez behintzat, gutxi aztertu da. Gu baino adituagoa den J.M. Lekuonak (1982) salatu du (ahozko) kontaketa-eremuan lan berritzaileen premia.

Bestalde, ahozko kontakizunaren hizkerari buruz aurkitu daitezkeen aurreritzi-jositako eta intiutiboki egindako deskribapenak gura baino ugariagoak dira. Hona adibide gisa Xabier Kaltzakortak (1989) Pierre Lafitten zita eginez emandako bat: «Mintzairaz den bezainbatean, ez da egiazko legerik: kondatzaile bakoitxak badu bere euskara eta bere jeinua. Etxeko eta herriko hizkuntza baderabila, dakien neurrian ala mordoilo, aditzaileei kausitu nahiz. Kondatzean, edergailu guti: han-hemenka atsotitz bat edo bertze; konparazione bat edo bertze, arrabots edo zarata hitz batzuk jostatzeko ateraldi bakar batzuekin.» (15-16. or.). Uste dugu euskarazko ahozko dis-

¹ Lan hau Eusko Jaurlaritzaren Ikerketa proiektu bati esker (HU.128.1998) abiatu zen eta gaur egun Leire Diaz de Gereñuk duen Doktore aurreko beka bati esker ari gara bideratzen.

kurtso-narratiboak deskribapen linguistiko zehatzagoa behar duela, aurrekoa bezelako definizioak gaingintzeko, bai zehatzasunean eta bai sakontasunean.

Ikerketa sistematiko eta enpiriko batetik abiatuko gara. Gaurko euskal ipuin kontalari ezagunenetakoen zazpi ipuin kontak saio grabatu ditugu, bideoz eta audioz. Transkribatu egin ditugu. Hori da gaurkorako erabiliko dugun corpusa. Gaurko ahozko ipuin kontalaritzaren eremu hori da guk aztertu gura duguna. Ez ipuingintza orhar, ez eta euskal ipuingintzaren eremu osoa ere.

Gure ustez, ipuin kontak saioak beti egon izan dira. Lehen ere ez zen edonor ipuinak kontatzen zituena; ez ziren edonoiz kontatzen ez eta edonon ere. Euskal ikerlariak artazuriketa, txerri hilketa eta eguberri bezperetan egiten ziren kontak saioak, edota hirule eta jostunen jardunak aipatu izan dituzte. Barandiaranen, Lafitterren, Azkueren edo Mayi Ariztiaren lanetan aurki ditzakegu zenbait aipamen. Nolanahi ere, saio edo ipuin konkaketaren giroari baino arreta gehiago ipuinari berari, istorioari eta haietan agertzen diren hizkuntz formei begiratu izan zaie. Eta oso gutxi dakigu saio haiek nola antolatzen edo bideratzen ziren. Baina saioak bazirela eta kontalariak amona eta aitona guztiak ez zirela ere esan daiteke. Alegia, profesionala izan ez arren, nolabaiteko gaitasuna aitortzen zitzaizkien norbanako batzuk ziren ipuin kontalariak.

Corpusa aztertzerakoan, garbi geratu da ez dela inoiz saio bat “Behin batean” esapidearekin hasten. Ipuinari heldu aurretik, gauza asko gertatzen da ipuin kontak saio batean. Bukatu ere, saioa ez da inoiz “Hala bazan eta ez bazan” huts batekin amaitzen. Gaurko kontak saioek badute egitura bat ipuinaren hiru edo bost ataletako² egituraren kabitzen ez dena. Berria? Ala zaharretan gertatzen zen modura, kontalariak bere erara antolatua, saioak entzuleek, lekuak eta guneak (alegia, egoera komunikatiboak) eskatzen duen erara moldatua?

Mintza jardun horiek, ahozko mintza jardun diren heinean, hizkuntza praktika aldetik aztertu gura ditugu. Ahozko genero honen ezaugarri formalak aztertzeke lana hartu dugu gure gain. Badakigu hiztuna, den hiztun sortzaileena delarik ere, hizkuntzak mugatuta bere jarduna molde jakinetan egitera behartua dagoela. Testuak mintza jardunaren bide-erakusle harturik aritu ohi gara hiztunak. Testuen moldatze-moduen galbaketatik pasarazi beharra dugularik gure jardunean, jokoan dauden testulegeak eta mugak ezagutzeak badu bere garrantzia gure ustez.

Kontestuaren arabera testu-mota desberdinak gauzatzen dira. Testu-motak molde antzera funtzionatzen dute eta bertan urtzen da geroago testua (ekoizpen linguistiko edo diskurtsiboaren emaitza berbala) izango dena. Testu hauek, garapen sozio-historikoan eraikitako egitura diskurtsiboetan oinarriturik, antolaketa berezia eta hizkuntz unitateen banaketa espezifikoak dituzte ezaugarri.

Kontak saioetan berbazkoa ez dena ere asko da. Ahozkoa den heinean, Zumthorrek (1990) dioen bezala, ahotsaz gain gorputzaren beste ahalmen asko erabiltzen da: jarrera, keinua, begiratua. Aipatu egilearen lana gogoan hartuz, ipuin kontak saioak “performance” modura ere deskriba daiteke. Honek guztiak honek ere, izugarritzko garrantzia du gaurko ipuin kontak saioetan. Lehen ere izango zuen behar bada. Gogoratu Héliasek (1990) kolorezko suez esaten duena, musikaz, dantzaz eta antzez-

² Propp-engandik ikasi dugu ipuinak hiru atal dituela: sarrera, korapiloa eta amaiera; Adam-en (1984) arabera bereizten ditugu, berriz, ipuinaren bost atalak: Hasierako egoera, Indar transformatzailea, Ekintzen atala, Indar orekatzailea eta Amaiera.

teaz beste hainbatek aztertua, sutondoko lekuen antolaketaz Kaltzakortak (1989) Orixeren lana aipatuz esaten duena, eta abar. Nolanahi ere, berbazko elementuak jaso eta aztertuko ditugu eta konta saioetan agertzen diren bestelako elementuak ere (musika, dantza, eszenatokira eramaten diren objektuak) kontutan hartuko ditugu.

Corpusa eta lanerako metodologia aurkeztu eta mintza jardun honen ezaugarriak eman ondoren, gaurko ipuin konta saioetan bereiztu ditugun hiru atalak deskribatuko ditugu gure corpusean agertzen diren elementuak kontuan hartuz. Ipuinak berak baino gehiago konta saioaren kokapenerako eta barne loturarako nahiz amaiera emateko konta saioetan agertzen diren elementuak izango dira lan honetako aztergai nagusia. Hain zuzen, gure artean kasik oharkabe geratu izan diren osagaiak eta jendaurreko ahozkoan, berriz, behar beharrezkoak direnak.

1. CORPUSA

Lan enpirikoa da guk egin duguna. Ikerketa ahozkotik jasotako corpus batetik abiatu da. Gure nahia ahozkoaren pragmatika zein den ikustea litzateke, orain arte idatzizkoaren barruan egin baitira ipuinari dagokionez ikerketarik gehienak.

Ekarpen teknologikoen eman diguten posibilitatea aprobetxatuz, grabatutako materiala CD Rom formatorak pasatu da erabilpena errazteko; bideo grabaketak egin dira berbazkoa ez den ekoizpena jasota eta azterketarako prest egon dadin. Aurrerago euskarazko ahozko kontakizunen bilketa egiteko asmoa dugunez, fitxategi informatikoetan numerizatu eta gordetako ipuinen bilduma egitearen esperientzia jaso dugu³ eta uste dugu ikerketarako eta material didaktikoaren prestaketarako lanabes egokia eskaintzen duela bide honek.

Grabatutako eta transkribatutako testuetan ipuin kontaketa saio osoak jasotzen dira. Konta saioetat hartzen dugu ipuin kontalari batek eszenatoki edo jendaurrean agertu ostean egiten duen berbazko eta ez berbazko ekoizpen guztia, ipuin kontalaria edo entzulegoa ekintza-komunikatiboa egin den lekutik alde egiten hasten den arte. Ekoizpen egoeran garrantzitsu diren datuak ere jaso gura izan ditugu.

Ondoko taulan ikusten den moduan, corpusa zazpi ipuin konta saioz osatua dago. Bost kontalari ezberdin; entzuleen ezaugarriak, lekuak eta saioaren osagarriak ere ezberdinak izan daitezke. Dena den guztiak bat datoz guretzat generoaren ezaugarri komunak direnetan: ipuinak kontaktzen dira, ipuin kontalaria da saioaren gidaria, jendaurrean egiten da, egun eta leku jakin batean. Ez dira bat-bateko edo lagun arteko saioak.

2. IPUIN KONTA SAIOA ETA HAREN HIRU FASEAK

Ipuin kontalari profesionalek bideratuta eszenatokietan, jendaurrean beraz, egiten diren jardunak izango ditugu aztergai.

Ipuin konta saioa, makroegintza komunikatibo moduan aurkeztu eta definitu gura dugu, hizkuntza ekintza oso bezela.

3 Britainiako DASTUM elkartearen eduki dugu aukera hori.

	T0	T1	T2	T3	T4	T5	T6
Ipuin kontalaria	Pello Añorga	Jose Mari Karrere	Koldo Amestoy (+Pascal Gaigne musika-ria)	Koldo Amestoy	Pello Añorga	Pello Añorga	Antton Irusta (+hiru musikari eta hiru bertsolari)
Eta izenburua		“Bibir del kuento”	“Bilintx”	“Makilar-gi”			“Pattakon . Daukanari kendu eta ez daukanari emon”
Entzule mota eta kopurua	Nagusiak Kop.: 20	Nerabeak Kop.: 125	Nagusiak Kop.: 30	Nagusiak Kop.:40	Haurrak Kop.: 40	Haurrak Kop.:100	Batez ere haurrak. Kop.: 100
Iraupena	66' 37”	82'29”	70'04”	68'08”	54'28”	57'29”	52'30”
Ipuin kopurua	5	7	5	10	2+ ipun antzeztua	3	1

- Hasteko, ikuspuntu estruktural eta pragmatiko batetik, konta saioa bere osotasunean berbazko ekintza artikulatua da. Helburu zehatza duen giza-jardunaren hizkuntz erabilera batez ari gara.

- Ardatz nagusia ipuin bat edo gehiagoren narrazioek osatzen dute, eta jakina, estrukturalki eta hierarkikoki zati nagusia ipuin horixe (edo horiexek) izango litzateke. Egituraketan, hala ere, ipuin horietaz gain izaera ezberdineko elementuak ageri dira antolatuta eta hierarkizatuta.

- Saioaren osotasunaren egituraz, izaeraz eta funtzioaz jardun gaitezke. Horrela, balorazio epai batzuek osotasunaz dihardute edo berau, ekintza komunikatibo osoa, hartzen dute kontutan: saio itzela, ederra.

- Esan dezakegu ahozko konta saioak xede ludiko-estetikoa duela. Ez dauka inongo xede logikorik. Ezin daiteke berbazko ekintza hau «egia/faltsu» terminotan ebaluatu, ezta ekintza eraginkor/ez eraginkor moduan ere. Badirudi gehiago erantzuten diela lortua/ez lortua moduko balorazioei.

Guzti honek, programa diskurtsibo-enuntziatibo bati buruz hitzegitea ahalbidetzen digu, giza-komunikazio-ekintza bati lotua dagoena, berba-ekintzaren gauzatzeko modu bezala.

Guk hiru gauzatzeko fase identifikatu ditugu: sarrera-aurkezpena, garapena eta amaiera-agurra. Azterketa ildo bera jarraituko dugu hirurekin eta hauxe izango da. Lehenik hiru faseen kokapen teorikoa eta deskribapen laburra egingo dugu eta ondoren fase bakoitzari dagokion analisia, bildutako testuetatik jaso diren elementuen sailkapenerako eskema bat proposatuz.

Diskurtso jakin baten helburua ipuin bat kontatzea izateak, ez du esan gura ipuinari hertsiki dagozkion elementu eta sekuentziak besterik aurkituko ez dugunik. Are gehiago, ondoren aztertuko ditugun sarrera-aurkezpen, garapen eta amaiera-agurra faseetan izaera ezberdinetako errekurtsoak erregulartasunez erabiltzen direla ikusita, esan genezake, diskurtso mota honen kategoriatzat har genitzaizkeela, ezaugarri eta funtzio bereziak dituztelarik.

Faseak banan-banan aztertzeko erabiliko dugun eskema behin-behinekoa izan arren, eta maila ezberdineko kategoriak erabiltzen ditugun arren, aztertzen gabiltzan hizkuntz-jardun honen makroegituraren eta bere programa diskurtsibo narratiboaren irudi bat egiteko lagungarri izan zaigu. Bi alderditatik begiratuko ditugu faseak. Batetik fasearen izaera zirriborratuko dugu: helburuak eta egituraren ezaugarri nagusiak aipatuz, eta bestetik hiru eremu edo atal bereizten dituen analisi eskema bat erabiliko dugu fase bakoitzaren azterketan: 1) komunikazio egoerako (kasu honetan konta saioko) parametro nagusiei (fisikoei nahiz haien errol edo irudikapenei) dagozkien aipamenak: kontalariari, entzuleei, leku-denborari buruzkoak. Adibidez, kontalaria bera aipagai oso garrantzitsua izaten da, bere biografia esate baterako, oso errekurtso erabilia da bai sarreran bai beste faseetan ere. Gauza bera eskenatokia eta honen kudeaketa ere hizpide eta ezinbesteko zeregina dira konta saioko fase ezberdinetan, bereziki hasierakoan: jendearen kokaguneak, lekuen atontzea eta abar. Elementu hauek bereziki garrantzitsuak suertatzen dira sarrera-aurkezpen fasean. 2) Ipuinetako pertsonaia eta gaiak dagozkien aipamenak; ipuin bateko pertsonaia tartean martean ager daiteke “bere ipuina” aspaldi bukatua izan arren, saio guztiari izana eman diezaioke eta abar. 3) Musika, kantua eta hainbat errekurtso estilisko nahiz modu askotako disgresioak ere ipuin idatzi bilduma batean ez dira inoiz agertzen (oharkabez jasotakoren bat ez bada). Aldiz, konta saioetan berebiziko garrantzia izaten dute. Uste dugu gainera fase bakoitzak bereak izan ditzazkeela. Oraingoan azterbidea eta adibide batzuk emango ditugu. Azterketak luze joko du.

3. SARRERA-AURKEZPENEA

3.1. Izaera

Sarrera atala, jakina, konta saioaren lehen fasea da. Corpusean garbi agertzen da saio bat bera ere ez dela zuzenean ipuin batekin hasten; sarrera batek beharrezkoa dirudi. Ipuin kontalaria eta entzulegoa kontestu enuntziatibo berean aurkitzen diren momentutik lehen ipuinaren hasierara (bazen behin...) heldu arte, badira berbazko nahiz ez berbazkoak diren produkzioak ipuinari berari ez dagozkionak. Honi deitzen diogu ahozko ipuin saioaren sarrera-aurkezpena.

3.2. *Analisia*

Esan dugun moduan, fasearen barne aldea begiratuko dugu aipatu ditugun hiru eremuak jarraiki.

a) Komunikazio-egoerako parametroen sarrera eta aurkezpena

- Kontalariaren errola da parametro horien artean ia beti nabarmentzen dena: Ipuin kontalariak, ahozko kontaketa hasi aurretik, entzulegoa prestatzen du lehenik

eta aldi berean iradokitzen entzuketa zein ikuspegiren arabera egin behar den. Bide anitzak erakusten ditu kontalariak bere errola nabarmendu eta finkatzeko orduan. Justifikazio eta argibideak emateko fasea da eta publikoaren onarpena lortzeko hainbat azalpe ager daiteke: zer helburu dituen, zergaitik hasiko den honela edo horrela, bertsioen eta aldaeren ezagupena, bereganatutako jakintzak... Testu monogestionatuaren arduraduna izate hori negoziatu beharra dago. Ipuin kontaketarako duen gaitasuna neurtzen eta frogatzen jardungo du kontalariak. Hona tratamendu honen adibide bat, non kontalariak bere burua zuzen-zuzenean aurkezten duen:

-“bueno / e:: ni:k / kontatuko dut (/) / bueno ni ipuin ipuin kontalaria naiz / ezta?” (T1)

-Entzulearen errola: Entzule errolaren ezarpena ipuin kontalariak espreski lantzen dituen puntuen artean ageri da. Bi alde bereizi ditzazkegu: bata fisikoa edo esplizittoa, non espazio interpersonala lantzen den, entzuleak eroso dauden eta ondo entzuten duten ziurtatzen du; bestea, entzule errola zeharka jorratzen deneko modua da, entzuteko prest diren galdetzean, identifikazioa bilatzen denean, entzulegoaren iritziak litezkeenak aipatzen direnean, eta abar.

-Leku-denbora indizeak: Konta saioaren lehen fasean komunikazio-egoeraren eta kontakizunaren denboraren leku-denborazko indizeak sartu eta aurkezten dira. Kokatu egiten da saioa, beraz, kontaketa saioan erreferentzia diren edo izango diren indizeak sartuz eta aurkeztuz.

Objektu baten aurkezpena ere erabil daiteke konta saioa abiatzeko. Batzutan hasieratik erakusten dira objektuok. Eskenatokia antolatzen da, beraz, behar diren atonketak eginez.

b) Ipuinetako pertsona-errolen eta gaien sarrera

Harrera ona aurreikusi nahi delarik, ipuin kontalaria eskeintzera datorrena aurrez desia eragitea bilatzen du. Baliabide hau honela gauzatu aurkitu dugu: lehen ipuinaren sarrera egiten da gaiaren, pertsonaiaren edo elementu garrantzitsu baten aurkezpenaren bitartez, ipuinaren jatorria azalduz, gaiari lotutako istoriotxo bat ekarri, bertsioen berri eman daiteke, eta abar. Ipuinen aurrerapen antzeko baliabide honen adibide bat dakargu:

-“(...) eta hasi nintzen / idazten / ipui hura / errege batena / kantu zoragarria entzun nahi zuela”(T5)

c) Musika, kantua eta formula estilistikoak, nahiz ateraldi eta digresioak

Musika, kantua eta zenbait errekurso estilistiko dira corpuseko sarrera-aurkezpen denetan agertzen diren baliabideak, gauzapan oso ezberdinak izanda ere. Hasiera formulak kanta daitezke edo musika tresnaren bat erabili berbazko ekoizpena laguntzeko, esaterako. Ondoko adibidean ikus daiteke komunikazio-errolen ezarpenarekin urtuta:

-“(alboan duen panderoa hartu eta berau joaz ondokoa abestuko du) nere ago iturritik ixuri guziak edanen ote ditu zure belarri:::ak nere ago iturritik ixuri guziak edanen ote ditu zure belarri:::ak trandadatindidadidididandiraridaundi” (T3)

Ateraldi eta digresioei dagokionez, aurrez prestatuak egon daitezke edo bapatekoak izan. Ipuin kontalariak egin dezake, momentuan bertan, egoera-komunikatiboan jazo den zerbaiten gaineko komentarioa, edo bere berbaldian azaldutako gertakizun edo gaiaren inguruan zerbait gaineratu. Ahozko kontaketazko komunikazio-ekintzari

oso lotua ageri den baliabidea dugu, aldakorra eta tonu aldetik oso ezberdina izan daitekeena.

4. GARAPENA

4.1. Izaera

Ipuin konta saioaren bigarren fasea garapena da eta ipuinek osatzen dute bere muina. Hala ere, beste baliabide elementu batzuk agertzen dira, hemen ere, bai ipuinetan eta bai ipuinetik ipuinaera doan ekoizpenean. Lehen ipuinarekin batera hasiko da fase hau eta saioan kontatuko den azkenengo ipuinarekin batera bukatuko.

4.2. Analisia

a) Ipuinak

Saioen muina osatuko dute ipuin edo eta istorioek, jakina. Ipuin konta saioa deritzagun programa hauetan kontalariak ipuin edo istorio bat baino gehiago kontatuko dituela aurreikusten da. Ipuinak luzeraz eta gaiez oso ezberdinak izan daitezke. Batzuetan beste bost ipuin baino gehixeago kontatzen dira ipuin konta saio bakoitzeko. Atal hau ez dugu bereziki aztertzen oraingoan.

b) *Komunikazio-egoerako parametroen mantenimendua, garapena*

-Kontalariaren errola: saioaren garapenean zehar jarrai dezake kontalariaren errolaren tratamenduak, hasera fasean baino presentzia txikiagoa duen arren. Errola mantendu eta garatuko da saiotan zehar, salbuespenik gabe.

-Entzulearen errola: Entzulearen tratamendua garrantzitsua izango da garapenean zehar. Saioko fase luzeena izanda, entzulearen arreta mantendu eta frogatu beharra dago. Hau modu askotara egiten da: entzuleen ezaugarri sozialak eta hizkera kontutuan hartuz, kontaketa hurrengo datorrena asmatu eraginez, diskurtsiboki aukera egiten utziz... Memoria eta errepika ariketak ere sarri agertzen dira, batez ere haurrekin. Entzuleen erreakzioak eta sentimenduak landu, bere entzumena gidatu eta antzekoak egiten dira. Hona, esaterako, institutoko ikasleei begira bilatutako identifikazioaren adibide bat konta saioaren barruan:

-“gu institutora joaten giñen kaña ematera” (T1)

-Leku-denbora indizeak: Indizeak mantendu, gogoratu, garatu, utzi eta berritu egin daitezke. Sarrera-aurrezpenean kontaketa abiatzeko, pertsonaia baten edo ipuin kontalariaren biografia erabili bada aitzakizat, esaterako, garapenean ibilbide hau jarrait edo gara daiteke. Kontaketa egiten den herriari erreferentziak egin dakizkioke, eskenatokia antolatzen jarraitu, moldaketak egin eta abar.

-“eztakit hemen Basaurin / otsoek nola egiten duten baiñan / ipuin hortakoak horrelako zerbait egin zuen” (T3)

c) *Ipuinetako pertsona-errolen eta gaien garapena*

Nola edo hala, ipuin edo istorio denak daude saioko beste zatiren batekin behintzat lotuak edo harremanduak. Ipuinak sartzerakoan, bukatzerakoan edo bata

besterekin lotzerakoan baliabide jakin batzuk erabiltzen dira eta azpimarratzekoa da kontalariak borobiltze honetan jartzen duen arreta.

Mantendu, lotu eta berritzu daitezke indizeak: adibidez, ipuin konta saioan zehar pertsonaia bat izan daiteke mantentzen den elementua, aldakorrek izango diren beste indize batzuekin lotuz (denbora, leku aldaketak, eta abar); kontatutako azken istorioko elementu bateri indize berri bat gehitu dakioke eta (pertsonaia baten lanbide aldaketa, berbarako) eraldaketa horrek beste ipuin bateri bide eman. Adibide bat dakargu:

-“eta geo baita ere beste beste ipuia! eta ipui hura / txoriketaria berarena zen / ze txoriketaria bera handitu zenean / egun hartan / joan zen basora / eta basoko zuhaitz guztiak ezagutzen omen zituen” (T5)

Uzteak ere egiten dira garapenean: batzutan besterik gabe uzten dira kontatutako ipuinak, landutako gaiak edo pertsonaiak, bestelako hedapenik egin gabe. Bestetan berebizizko arreta jartzen zaie, uzte horiek ondo lotu eta borobilduz.

d) Musika, kantua eta formula estilistikoak, nahiz ateraldi eta digresioak

Ipuin konta saioen garapen denetan agertuko dira musika eta kantua. Abesti bat diskurtso narratiboan zelan josten den ikusiko dugu, kontalariak arrantzaleen itsasoratzera kontatu ostean:

-“da boga boga ! / (kantatuz) boga / boga boga / mariñela / mariñela / joan behar degu / urrutira / urrutira / bai indietara / bai indietara ooo ea ba (kantatzeari utzi eta hurrengoa erneguz esango du) baiñan kanpaiña oso txarra da” (T2)

Esaldi estilizatuak, hitz-jokoak eta esaera antzekoak konta saio guztietan erabiltzen dira.

-“eta joan zen / joan / eta joan ta joan / Mari Joana Mari Joan!” (T4)

Digresio eta ateraldiei dagokienez gure corpusean duten maiztasunak erakusten du ahozko diskurtso narratiboaren interlokuziozko elementu esanguratsua osatzen dutela, ipuinaren barruan nahiz garapeneko beste ataletan. Kontaketa eten eta bazterreko zerbaitez berba egiten da denbora laburrez. Ikus dezagun adibide bat:

-“aingeru txuria ta / lur azpiko aingeru gorria / ta hortxe daude / borrokatzeko prest ezpata ta sardea / ta gu hortxe tartean gizonak bobo / ahal duguna egiten gizakiok bai / ob o / gaineko ongia eta lureko / gaizkiaren artean” (T3)

5. AMAIERA-AGURRA

5.1. Izaera

Amaiera atala beharrezkoa da edozein diskurtsotan; are gehiago, jendaurreko diskurtso narratiboan. Azken ipuinaren ondotik eta konta saioa guztiz bukatzen den arte egiten den ekoizpenak osatzen du fase hau.

5.2. Analisia

Azken atalean goian ikusitako guztien bukatze, borobiltzea egingo dela ikusiko dugu ondoren:

a) Komunikazio-egoerako parametroen gogoratzea eta uztea

- Kontalariaren errola: Kontalariak, amaiera-agurra fase honetan, gogora deza-ke zein izan den bere errola eta egitekoa, zer kontatu duen, eta abar. Bere funtzioak eta egitekoak zeintzuk izan diren gogora ditzake, eta bete direla baieztatu, bide batez.

- Entzulearen errola: Entzulearen erroalak saioaren akaberan tratamendu berezia dauka, bere errola zein izan den gogoratuz eta utziz ere bai. Entzulegoak bere errola bete duela gogorarazten da. Beste batzutan, entzulearen erroalaren tratamenduan gehiago sakontzen da: entzundako ipuinen bat kontatzera animatzen da entzulea, gogoratzen zaizkio une batzuk, eta abar. Agurtu eta eskerrak ere ematen zaizkie entzuleei bukaeran, edo oporraldi onak igarotzea desiatu, garaiaren arabera. Hau da hain zuzen, orohar, saio guztietako azken ahozko ekoizpena.

- Leku-denbora indizeak: indize hauek ere tratamendu berezia jasaten dute. Egin daiteke berriztapenen bat, baina orohar, landutako leku-denborazko indizeak gogorazi eta utzi egiten dira. Ardatza izan den pertsonaiaren bizitzan edo herriaren historian azken egoera bat emanez buka daiteke. Beraz, ipuin kontak saioaren sarrera-aurkezpena eta garapena egituratzeko erabili diren leku-denborazko indizeei bukaera eman dakieke. Eskenatokiaren antolaketa ere egiten da, batez ere espazioa hustu alde-
ra.

b) Ipuinetako pertsona-errolen eta gaien gogoratzea, lotzea eta uztea

Arrunta da, datuen arabera ipuin kontak saioan zehar kontatutako zenbait elementu gogora ekartzea. Ekintza hau burutzeko moduak bi dira. Bata *itxura narratibo* batean azaltzen dena da, ipuin kontak saioan zehar (sarrera-aurkezpena barne) agertutako pertsonaiak, gertaerak, objektuak eta abar josten dituenak. Elementu eta prozesu berriekin ager daitezke gogoratutakoak kontakizunaren denboran aurrera eginez. Azpimarratzekoa da, esaterako, hori guziaz antoaltzailearen erabilpena ipuinaren garapenean gertatutako guztia jasotzeko eta sarrera-aurkezpenean sartutako elementu batekin lotzeko, beti ere bukaera bilatuaz:

-“hori guziaz etzen gertatuko gure herrira ezpalira etorri hiru gizon / batek bazuen eskuan e: / igitai bat / pss! bigarrenak bere besoetan holako katu bat” (T3)

Gogoratzeko erabiltzen den beste modua magia jokoa da. Jokoa egiten den artean gogoratzen dira bestelako lotura berezirik bilatu gabe saioko uneak, kantuak, pertsonaiak eta gura den guztia.

Esan behar da, halere, azaldutako bi modu hauetan *gogoan dauka, gogoan dauka ere bai, gogoratzen zeate?, gero kontatu nuen beste istorioa* moduko esapideak komunak direla.

c) Musika, kantua eta formula estilistikoak, nahiz ateraldi eta digresioak

Errekurtso hauek amaiera-agurrean ere erregulartasunez ageri dira. Formula estilistikoak maiz erabiltzen dira saioaren amaiera aldera. Musika, kantua erabiltzen da formula horiek laguntzeko edo huts-hutsean saioa borobiltzeko.

Ateraldi eta digresioak ere ageri dira azken fase honetan.

6. EZTABAIDA

Gaur eguneko kontak saioen azterketa egin eta gero, agerian geratu da ipuinez gain beste hainbat elementu agertzen direla. Elementuok, programa diskurtsibonarratibo edo enuntziatibo bezela aztertzen ditugu, alegia: errolen aurkezpen eta azpimarratzea, denbora-espazioaren kokapena, kontasaiok indartu, osatu, erakargarriago egingo duten elementuen presentzia, eskenatokia, objektuak, musika, eta abar. Guzti

hauek ez dira berriak. Guk uste dugu, ahozko jardunari dagozkiola ezaugarri hauek, beraz, betikoak direla. Idatziz heldu zaigun tradiziozko kontaketen deskribapenetan han eta hemen atzeman daitezke hauen aztarnak. Eta beste herrialde batzuetako ahozko kontaketen deskribapenetan ere ageri dira (ikus britainiako ipuin kontaketa Hèlias, 1990).

Gurera mugatuz, erritualizatuta eta esamolde klitxetuetan heldu zaizkigun zenbait esapide jardun horren aztarna direla esango genuke (hala bazan edo ez bazan... eta antzeko formulak). X. Kaltzakortak (1989) bildu ditu adibide andana bat. Esaterako, Azkuek Mundakan erabiltzen zen bat aipatzen du, kontalariak entzuleari zenbat ipuin zekien galdetzeko erabiltzen zena: «¿zenbat arrautza yan dozuz zuk?» (13.or.). Barandiaranek jasotako interlokuziozko formula bat ere gogoratzen digu Kaltzakortak. Honela dio: “Cuando se le pide un cuento largo, contesta así:

“Bela’atek emen zeuken ego’at oso motxa
eta bestea oso luzea.
Oixe dek kuntu luzea.” (15. or)

Aramaion Konsuelo Salaberriri guk geuk jasotakoa da, berriz, ondokoa. Osabak, behin haurrak bere inguruan batuta, zer entzungo zeudela, honela kantatzen zien:

“ipuin ipuin
hala bandera
ahuntzek igo dau
laba gañea
laba gañek punta zorrotza
Maritxuri agoa korotza!”

Gaur elementu berriak sartzen dira beharbada, izan ere hizketa-moldeak, lexikoa eta abar aldatu direlako; saio batetik bestera ere aldaketak izaten dira, kontalariaren estiloak ere badu zeresana, baina ekintza-komunikatiboa eta helburua berbera dira. Hein horretan, ahozko jendaurreko kontaketa oinarriko egitura eta baliabi-deak berdinak izaten jarraitzen dutela uste dugu.

BIBLIOGRAFIA

- ADAM, JEAN-MICHEL (1984). *Le récit*, Paris: P.U.F.
- ARIZTIA, MAYO (1982). *Amattoren uzta*. Donostia: Elkar.
- BARANDIARAN, JOSE MIGUEL (1960-1962). *El mundo en la mente popular vasca*. III.alea. Donostia: Auñamendi.
- _____ (1979, 2. ed.). *Mitología vasca*. Donostia: Txertoa.
- BRONCKART, JEAN-PAUL ET COL (1985 a). *Le fonctionnement des discours*. Paris: Delachaux & Niestlé.
- GARZÓN CESPEDES, FRANCISCO (1995). *Teoría y técnica de la narración oral escénica*. Madrid: ed. Laura Avilés.
- HÉLIAS, PIERRE-JAKEZ (1990). *Le quêteur de mémoire*. Paris: Plon.
- KALTZAKORTA, XABIER (1989). “Herri ipuinen hasiera eta amaiera formulak” in Kaltzakorta X, Larringan L.M. & Etxebarria, J.M. (Ed.) *Tradiziozko ipuingintza*. Bilbao: Labayru, 11-32
- KUNZ, MARCO (1997). *El final de la novela. Teoría, técnica y análisis del cierre en la Era moderna en lengua española*. Madrid: Gredos.

LAFITTE, PIERRE (1973). "Euskal ipuinak", *Euskera*, 160-166

LARRINGAN, LUIS MARI (1989). "Ahozko ipuingintzaren egitura eta baliabideak". In Kaltzakorta X, Larringan L.M. & Etxebarria, J.M. (Ed.) *Tradiziozko ipuingintza*, Bilbao: Labayru, 33- 71

_____ (1992). "Ipuingintza: Komunikazioa eta praktika linguistikoa" *Euskera* 37:2, Separata, 497-505

LEKUONA, JUAN MARI (1982). *Ahozko Euskal Literatura*. Donostia: Erein.

ZUMTHOR, PAUL (1990). *Performance, réception, lecture. Autour de l'idée de la performance*. Québec: Les Éditions du Préambule.

Interfazeetako euskara: Interneteko euskarazko testuen izaeraz

Gotzon Egia

EIZIE

Luis Fernandez

Codesyntax

1. SARRERA

XXI. mendean, testua, beste ezer baino gehiago, testu digitala izango da, eta izaera digital teknologiko horrek ere baditu hizkuntzaren izaeran eragin zuzenak. Dagoeneko, paperean argitaratuta ikusten ditugun ia testu guztiak digitalki ekoiztuak izan dira, ordenagailuetan. Testu digitalekin lanean dihardugu dagoeneko. Baina hemendik aurrera, ordenagailuen sare-konexioen hedapenarekin, argitalpen modu nagusietako bat ere digitala izango da. Testuak ordenadorean sortzen ditugun bezala, ordenadorez aurkitu eta, hein handi batean, irakurriko ditugu.

Egia da testu mota askok papera izango dutela euskarri hemendik aurrera ere. Eleberri bat pantailan irakurtzerik ez dago. Eta hortaz, eleberrietako hizkuntza aldaeretan ordenagailuak duen garrantzia erlatiboa izango da. Baina badaude, hala ere, beste testu batzuk espezifikokoak.

Ordenagailuarekin dakusaguna testua da batik bat. Testu mota berezi bat: interfazea. Makina batekin elkarreragiten uzten digun testua da interfazea. Interneten web-gune bat bisitatzen dugunean, edo software programa bateko menuekin lanean dihardugunean, oinarrian testu idatziz osatutako elementuekin dihardugu lanean (elementu grafikoek ere garrantzia izan dezaketen arren).

Interfazea beraz, zera litzateke, “*Ordenadoreko pantailan dakusaguna, eta eragiteko aukera ematen diguna: klikatu, geuk datuz bete, eskaera egin...*”. Alde horretatik, lehen irudipen batean beharbada pentsatu dezakegu interfazeak egitea diseinu edo informatika kontua dela, eta hizkuntza bigarren mailako faktorea dela. Baina ez da hala. Hizkuntzak berebiziko garrantzia du interfazeetan zeren eta, Interfazea, batez ere, testua da: hizkuntza naturala. Elementu ikonikoak gora-behera, eta multimedia delako produktuak hor daudela kontuan izanda, ez dago ordenadoreetan ganoraz ibiltzerik testurik irakurri eta nolabait ulertu gabe, edo erabiltzaileak testurik makinari

eman gabe (helbide bat idatzi, bilatzaile batean eskaera bat egin, aukera jakin bat irakurri eta klikatu...).

Horrek ondorio zehatzak dakartza.

1. Internet medio idatzia da.
2. Interneten, banketxe bat, testu bat da. Eta banketxe bat "itzuli" egin daiteke. (Esaldi paradoxiko hau gehiegizkoa da, baina funtsean, hizkuntza ingeniartzak merkataritza elektronikoan ze garrantzi joka dezakeen ikustarazteko esango dugu horrela). Interneteko garaian, denda bat ez da espazio fisiko bat, baizik eta testu bat, salmenta erraztu nahi duten elkarlotutako interfazeen bidez eratutako aplikazio bat.
3. Inprentaren bidez, paperaren oinarriak hizkuntza eraldatu eta adaptarazi zuen bezala, teknologiaren bidez interfazeen oinarriak hizkuntza eraldatzen dihardu, eta adaptarazten behartzen gaitu.
4. Hizkuntza agrafu edo estandarrik gabeak ez dira egokitu paperera eta paperaren arora..

2. INTERFAZEETAKO TESTU ZATIKATUA

Interfazeetako testuek berezko ezaugarriak dituzte, eta oso kontuan hartzeakoak dira hizkuntza egokitzeko orduan.

Lehenik eta behin, interfazeetako testua zatikatua dago, zentzu batean baino gehiagotan. Batetik, hizkuntza naturalean irakurtzeko esaldiak zatikatu egiten dira. Esate baterako:

testu pusketa + aukerak menu batean + zeuk bete beharreko laukia + botoia

Pantailan egin daitekeen eragiketa arrunt bat horrela gera daiteke adierazia eta azaldua. Zatikatua egon arren, hor osa daitekeen esaldiak ulergarria izan behar du, eta zuzena ere bai.

Webgune eleanitz baten kasuan, elementu horien zatikatze eta ordenatzea erdaraz pentsatu bada, eta zatikatze-ordenatzea ezin bada berregin, euskaraz testu zuzen bat ematea oso zaila izango da. Gerta daiteke, gainera, itzultzaileari testu-unitate minimoak ematea, testuingururik gabeak: "*acerca de*" itzultzeko esaten bazaio, "*-ri buruz*" bezalako zerbaitekin erantzutea. Itzultzaileak esaldi zatikatuaren testuinguru orokorra jakingo balu, konpondu ahal izango luke beharbada.

Testuaren zatikatzearen beste alderdi bat tekniko da. Interfaze batean sortzen diren testuek kokapen diferentek dituzte azpiko aplikazio informatikoan: data algoritmo batek sortzen du, irudietan ageri den testua irudien karpetatik dator, testuak beste karpeta batetik datoz... Ondorioz, hizkuntza bateko mezuen sorburuko elementu guztien katalogo zehatz, praktikoa eta ordenatu bat ez baduzu, nekez maneatutako dituzu elementu horien bertsio anitzak hizkuntza desberdinetan.

Interfazeetan kontuan hartu behar den beste faktore bat informatikaren indarra bera da. Argi esanda, interfazeetan makinek testua manipulatu egiten dute. Makinek testua sortu egiten du, eta haren gainean eragiketak egiten dituzte...

Ez da aplikazio aurreratuegirik behar makinek hizkuntza sor dezaten. Edozein aplikaziotan ikus daitezke, makinek sortutako mezu automatikoak, tartean gramatika edo sintaxirik egon gabe. Makinek sortzen dituzten testuen artean, honako hauek aipa daitezke:

Datak. Euskaraz, bereziki tratatu beharrekoak dira hauek. Data oso bat idaztean, urtearen ondoren -e- idatzi behar den edo ez erabakitzeko, algoritmo bat behar duzu urtearen zenbakia irteeratzeko: ez du balio azken zifra (ezta azkeneko bi zifrak) kontuan hartuko dituen eragiketa sinpleak ere. Adibidez: *1900eko*, baina *2000ko*, *2001eko*, *2002ko*, *2010eko*, *2020ko*...

Ohar automatikoak. Era honetakoak ohikoak dira: *X ikuskatzen saiatu zara baina Y errorea gertatu da*. Segun zer den X eta zer Y auskalo zer agertzen den!

Zenbaketak. “1 liburu aurkitu da”, “2 liburu aurkitu da” Honako mezuak aurkitzea ez da harrizkoa. Pluralizazioak arras desberdinak dira erdarak eta euskara alderatuz gero.

3. HIZKUNTZAREKIN ERAGIKETAK: EUSKARAZ BILATZEKO ZAILTASUNAK

Beste alde batetik, makinek testuaren gaineko eragiketak egiten dituzte. Honek, Interneteko interfazeen aldetik, alderdi jakin batean du garrantzia: bilaketak (bilatzea da, sarritan, Interneteko eragiketarik arrunt eta oinarritzkoena).

Alderdi honetatik, euskararen izaera itsaskaria ez dute kontuan hartzen sistema informatiko gehienek, eta hortik datoz kontuak. Deklinabidea kontuan hartzen ez bada, bilaketak ez ditu emaitza zuzenak edo esanguratsuak aurkituko. “*Hondartzak*” bilatu eta ez duzu “*Hondartzetako egoera*” aurkituko. Gure inguruko erdaretan, kontu honek ez du garrantzi handirik. Adibidez, *Mario* beti da *Mario* gaztelaniazko testu batean, eta beti *Mario* ingelesezko testu batean. Euskaraz: *Mariok*, *Mariori*, *Marioarena*...

Euskarak lematizazioa behar du indexatzeko eta bilatzeko eragiketetan egoki funtzionatzeko. Hitzaren lema edo erroa aurkitzeari esaten zaio lematizazioa: prozedura informatikoen bidez hitz jakin baten erroa zein den aurkitzea. Ezagutza gramatikala funtsezkoa da zeregin horretan, noski.

4. DISEINU KONTUAK

Azkenik, interfazeen diseinu grafikoa edo maketazioa antolatzean, hizkuntzaren faktoreak alde batera uztea hanka sartze larria dela esan behar da. Webgune elebidun edo itzulitako askotan ikusten diren erroreak dira hauek:

Hizkuntza desberdinetako elementuak batera pantailan.

Luzera arazoak: testuak X neurriko kutxetara egokitu ziren, eta itzulpenak eskatzen duen luzera handiagoko testua ez da sartzen.

Testua irudietan sartua (erabaki arriskugarria sarritan, praktikotasunaren kontrakoa...)

Aplikazioaren maila desberdinak (logika, diseinua, funtzionaltasunak eta edukia) era nahasian tratatzen badira, azpitik web aplikazioen zerbitzari indartsu edo ondo antolatua bat egon gabe, hizkuntza bertsioen deskontrola erraz gertatzen da.

5. EUSKARAZKO WEBGINTZA


Honek guztiak axola ote dio gune euskaldunak sortzen dituzten erakundeei?

Beharko luke, baina askotan badirudi honen guztiaren gainean pentsatu ere ez dela egin. Interfaze batean edozein modutan idatz daitekeela. Adibide gisa, horra Euskaltzaindiaren webguneko bazter batetik ateratako interfaze puska bat:

Euskaltzaindiaren webguneko interfaze zati bat (2001eko iraila).

http://www2.euskaltzaindia.net/Temas/Pro/ProApeFraDoc_e.htm


Testu/interfaze honetako hizkuntza ez da euskara. Ez da gramatikala, eta, gainera, ez da ulertzen. Eta Euskaltzaindiak ekoiztutako testu bat da!




Beste adibide bat, Eusko Jaurlaritzaren webgune batetik hartua:

Zer da *(r)i buruz* hori? Itzultzaileak “*acerca de*” itzultzeko erabili duena. Gaztelaniazko orri baten itzulpena baita goikoa.

Ageri-ageriko erroreaz gain, kontatzekoak modukoak izango dira aplikazioak euskaraz data zuzen ematen dutenak. Eta, zer esanik ez, euskarazko bilaketetara ego-



kituak. Alderdi honetan, ez inongo erakunde publiko (gobernu, aldundi edo udal), ez aurrezki kutxek, ez EITB, Euskaltel edo Euskaltzaindiak berak, ez dute beren Interneteko guneetan euskaraz gauzak bilatzeko modu egokirik eskaintzen.



Soil-soilik euskalgintzaren esparrutik sortutako hiru enpresak sortutako aplikazio batzuetan implementatzen da euskarazko lematizazioa, bilaketak egoki egiteko

ezinbesteko elementua, Adur Software, Code & Syntax (pseudo-lematizazioa), eta Plazagunea.

6. KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

Hizkuntza, beraz, interfazeak egiteko orduan bereziki kontuan hartzeko gaia da. Eta, Interneti dagokionez, batez ere, testuinguru hauetan:

Webgunea hizkuntza jakin batean garatu den zerbaiten itzulpen edo adaptazioa denean.

Webgune eleanitza denean.

Webgune elebakarra izanik, beste hizkuntza batean lan egiteko pentsatu den tresnekin egiten bada.

Bistan denez, euskarazko webguneak ez dira libratzen baldintza horietarik. Hortaz, euskaraz interfazeak sortzerakoan, baldintza hauek oso kontuan hartu behar dira:

Hizkuntz zuzentasuna: interfazeak ulergarria izateaz gain, hizkuntz arauak bete behar ditu.

Erabilgarritasuna: elkar eragiteko gaitasun eta erraztasuna.

Testuaren diseinua: interfazea osatzen duten testu zatiak egitura ulergarrian antolatu behar dira, ezin dira nola-hala agertu.

Hizkuntz ingeniartzaren ekarpenak eta baliabideak erabili behar dira interfazeen bitartez egiten diren eragiketak euskarara egokitzeke.

Hizkuntza biren kudeaketara behartuta gaudenean, edo webguneko euskarazko bertsioa erdaraz garatutako zerbaiten bertsioa denean, interfazeen itzulpena baino gehiago, egokipen edo lokalizazio lana egin behar dela kontuan hartu behar dugu. Itzultzaileak behar dira, baina haien lana marko teknologiko batean kokatu behar da, eta ingeniari-tza horri, aplikazio informatiko bat testuinguru lokal batera egokitze-ari, lokalizazioa esaten zaio¹.

Honek ez du esan nahi itzultzaileen lanaren gainera dagoenik informatika. Uztarketa behar da. Informatikariek (edo web egileek) eta itzultzaileek (edo hizkuntzaren profesionalak) terreno berri batean egin behar dute lan, elkarren premien berri edukiz, eta horretara egokituz. Terreno berri horixe da lokalizazioarena eta hizkuntza ingeniari-tzarena. Hor egin behar dena hizkuntzalaritza izango da noski, baina ingeniari-tza ere bai, eta ez bakarrik ingeniari-tza tekniko baizik eta prozesuen ingeniari-tza ere bai.

Amaitzeko, interfaze on eta txarren ezaugarriak laburbilduko ditugu:

Interfaze onak

Hizkera ulergarria darabil, esaldi arrunten parekoa.

Hizkuntza arauak zuzen gordetzen ditu.

Testu zatiak era ulergarrian banatu eta egituratzen ditu.

Beste hizkuntzetan sortutako interfazeak ez ditu itsuan itzultzen, egokitu edo lokalizatu baizik.

Eragiketak euskararen arauetara egokitzen ditu.

¹ Itzultzaileen langintzan gero eta garrantzi handiagoa du beste faktore teknologiko batek: itzulpen memoriaren teknologiararen erabilpena. Teknologia horren inplikazioak ere bete-betean aztertzeak dira lokalizazio prozesuetan, baina interfazeen testuen gaiari eutsi diogunez, ez dugu hemen ukituko.

Interfaze txarrak

Esaldi ulertezin eta harrigarriak darabiltza.

Erdarazko interfazeak ezarritako arauetara makurtzen da.

Erdarazko hitzak nola-hala euskarazkoek ordeztu dituzte.

Ez du euskararen araurik aintzat hartzen; adibidez, deklinabidea bilatzerakoan.

Diseinu nahasi eta ulergaitza dauka.

Eraginkortasuna euskararen zientziarako hizkuntz aldaeretan

Igone Zabala

Euskal Herriko Unibertsitatea

Zientzia Fakultatea

ERAGINKORTASUNA EUSKARAREN ZIENTZIARAKO HIZKUNTZ ALDAERETAN*

Zientzia-jakintzan aurrera egiteko eta jadanik finkaturiko jakintza hedatzeko erabiltzen diren aldaeren barruan komunikazio-egoeraren arabera hainbat berbaldi mota aurkituko baditugu ere, erabilera horretan eredu zuzenaren ezaugarri finka daitezkeela aldarrikatuko dugu lan honetan. Gure argudio-ildoak da eredu zuzenaren berbaldi zientifiko eraginkorrak eraikitzekeko prozesatzen errazak diren segidak aukeratzen ditugula eta aukera hori zuzenean lotuta dagoela gramatika-baliabide jakin batzuen hautapenarekin. Hortaz, lan honen gogoetak eta ondorioak eredu zuzenaren berbaldi zientifikoari buruzkoak dira eta ez nahitaez euskararen bestelako erabilerei buruzkoak.

1. ALDAERA GEOGRAFIKOAK, ALDAERA FUNTZIONALAK, HIZKUNTZA MAILAK

Aldaera geografikoak hizkuntza bakarraren barruan banaketa geografikoaren kausaz sortu diren "kode" desberdinak dira, alegia, morfologiarekin, ebakerarekin, eta agian ortografiarekin zerikusia duten aukerak¹. Normalizaturiko hizkuntzetan behintzat, markatutzat har ditzakegun aldaera geografikoez gain, aldaera estandar (ez-markatu)a dago, kode 'neutrotzat' har daitekeena eta edozein jatorri geografikotako hiztunek beregan dezaketena. Edozein hiztun enuntziatu bat sortzen duen bakoitze-

* Lan hau aurrera eramateko UPV 033.310-HB194/98 eta DGICYTeko BFF2000-1307-CO3-01 ikerkuntza-egitasmoen diru-laguntzaz baliatu gara. Eskerrak eman nahi dizkiegu egin dizkiguten iruzkin interesgarriengatik Juan Carlos Odriozolari, Elixabete Pérez Gazteluri, Asier Larrinagari eta Edurne Etxebarriari. Esan gabe doa txarto esanen erantzule bakarrak gu gara.

1 Aldaera geografikoen barruan joskera- eta morfologia-baliabideen artean ere zenbait aukera (mikroparametrik) aurki daitezke.

2 Askotan leporatzen zaizkio euskara batuari hizkuntzaren aberastasun eta zuzentasun ezarekin zerikusia duten arazoak. Ez deritzogu oso zuzen lotura hori egiteari; euskara batua euskarak dituen kodeetako bat baino ez da eta aipaturiko arazo horiek zerikusi zuzena dute hiztunen hizkuntz ahalmenearekin, alegia, senarekin. Izan ere, badira euskara batua deritzen kodea baino ez duten hiztunak, euskara zuzen eta aberatsa erabiltzen dutenak eta alderantziz, badira euskara batuz gain euskalki bat duten hiztunak, euskara txar eta txiroa egiten dutenak.

an bere hizkuntzaren sena erabiltzen ari da. Honen bidez esan nahi duguna da burmuinean dituen Gramatika Unibertsalaren arauak eta bere hizkuntza bereizten dituzten parametro-aukerak baliatzen dituela. Enunziatu hori ekoitzi ahal izateko bere senaren barruan dituen kodeetako bat erabili beharko du nahitaez hiztunak². Printzipioz, aldaera geografiko bakarria erabiliz, edozein komunikazio-egoeratan ari daiteke hiztuna, hizkuntza osoaren sortze-ahalmen guztia ezar baitaioke kode horietako bakoitzari. Edonola, ezinbestekoa izango du komunikazio-egoera desberdinetara egokitzeta eta komunikazio-egoera horietan solaskideen arteko konplizitatea funtsezkoa izango delarik, kode jakin bat erabiltzera behartuta egon daiteke askotan hiztuna. Bestetik, hizkuntzaren erabilera-esparru desberdinetan, hizkuntzak dituen baliabide guztien artean aukera jakin batzuk egin beharko ditu erabilera-esparru horren ezaugarri eta ohiturei egokitzeko: aldaera funtzional bat erabiliko du. Hizkuntz maila dagokienez, zaindutat eta zaindu gabetzat har ditzakegun esaldiak gauzatu ahal izango dira edozein aldaera geografikoren eta edozein aldaera funtzionalen barruan.

Euskararen aldaera geografikoen hautapena komunikazio-ekintza gertatzen den eremuaren luze-zabalarekin lotu izan da inoiz. Esate baterako, herri, eskualde eta nazio esparruen hedabideek hurrenez hurren herriko hizkera, eskualdeko euskalkia eta Euskara Batua erabili beharko luketela aldarrikatu du Zuazok (2000). Edonola, aldaera geografikoaren hautapena komunikazioaren xedeekin ere lot daiteke eta ikuspegi honetatik, kode bat baino gehiago menderatzen duen hiztunak aukera gehiago ditu komunikazio-egoeretara moldatzeko³. Adibide bat ematearren, bi kode edo gehiago dituen hiztunak eremu nazionalako hedabidea den telebistan edo irratan mahainguru batean dagoelarik, aukeran izango du bere euskalkiaz hitz eginez, bere izaera eta jatorriaren berri emateko, edota bere hizkera bereko jendearekiko hurbiltasuna adierazteko, edota beste hizkera batzuk dituzten hiztunekiko distantzia agerian uzteko eta beraz, berbaldian nabariki inplikatzeko, edo euskara batua erabiliz, berbaldi autonomoagoa egiteko.

2. BERBALDI MOTAK ETA ALDAERA FUNTZIONALAK

Aldaera geografikoen berri emateko orduan, hedapen geografikoari eta hizkuntza osoaren baliabideen artean aldaera horrek egiten duen hautapenari begiratzen diogu, baina aldaera funtzionalen ezaugarriak finkatu nahi ditugunean, ezinbestekoa dugu erabilera-esparruak eta komunikazio-egoerak kontuan hartzea: solaskideen ezaugarriak eta inplikazioa, euskarria (mintzatua, idatzia, elektronikoa...), komunikazioaren xedea (informatzea, eragitea...) e.a.

Erabilera-esparru bakarrean, hainbat komunikazio-egoera egon daitezke edo nahi bada, testuen ekoizpen-baldintzak askotarikoak izan daitezke⁴. Hortaz, testu eta

³ Aldaera geografikoen artean aldaera estandarra da egiatan komunikazio-egoera guztietan balia daitekeena: kode estandarra baino ez duen hiztunak kode hori erabiliko du familiarean eta lagunartean, lanean eta Administrazioarekiko harremanetan. Aldaera geografiko markatua baino ez duen hiztunak arazo larriak izango ditu erabilera-esparru orokorretan: erabilera-esparrua orokorragoa egiten den neurrian garrantzi handiagoa hartzen du hiztun-komunitate osoak onartzen dituen baliabide eta berbaldi-estereotipo komunak erabiltzeak.

⁴ Ikus adibidez Petöfi-k (1976) gai berezitzen inguruko komunikazioaren barruan bereizten dituen egoera motak: "a) communication of experts with experts of the same special field about topics belonging to that special field; b) communication of experts with experts of another special field/ other special fields about interdisciplinary topics concerning them immediately; c) communication of experts with non-experts about topics of the special field represented by the experts; d) communication of non-experts with non-experts about topics that do not belong to a special field." Hauei gainera dakieke adituak ez direnek elkarren artean eremu berezietei buruz egiten dituzten komunikazioak, esate baterako, kazetariak gai berezitu bati buruz ematen dituzten berriak

berbaldi mota ugari aurki daitezke erabilera-esparru bakarrean. Edonola, “ereduzko berbaldi eta testu motak” deskriba daitezke eta hauen bereizgarrietako bat da gramatika-baliabideen ereduzko erabilera.

Adibidez, bere senaren barruan euskalki bat duen hiztunak euskalki hori erabiliko du seguruenik familiarrean eta lagunartean. Hitzun hori irakaslea bada eta lehen hezkuntzan bere herrian eskolak ematen baditu, bere euskalkia erabili ahal izango du bertan ere, baina, unibertsitatean eskolak ematen baditu, ikasleen artean toki askotatik etorritakoak izango ditu eta kode estandarra erabili beharko du⁵. Kode estandarra baino ez duen hiztunak, jakina, hori baino ez du erabiltzerik izango erabilera-esparru guztietan. Edonola, horrek ez du esan nahi komunikazio-esparruetara eta egoeretara moldatu beharko ez duenik. Hizkuntz mailei dagokienez ere, ereduzko erabilerak egiten ditugu: ohikoena da familiarrean eta lagunartean hizkuntza zaindu gabea erabiltzea eta Administrazioarekin harremanak izateko, edo esparru berezitu bateko hitzaldia emateko hizkuntza zaindua erabiltzea. Hain zuzen ere, ereduzkotasun horrek eskura jartzen digu aldaera funtzionalez aritzea.

3. EREDUZKO BERBALDI ZIENTIFIKOA

Hizkuntza zientzia eraikitzeko edo zientzia-jakintza hedatzeko erabiltzen denean, hizkuntzaren ereduzko erabilera egiten da. Esparru berezitu batean ari gara eta horretan aritzen diren hiztunak oso talde txikia izan ohi dira hiztun-komunitatearen barruan. Gainera, ohikoena da esparru berezitu horren barruan aritzen direnen artean hainbat jatorri geografikotako hiztunak egotea. Hortaz, kode estandarra erabiltzea izango da ohikoena. Bestetik, eztabaida zientifikoak eta zientzia-jakintzaren hedapena egoera formaletan egin ohi dira (artikuluak, testu-liburuak, entziklopediak, hitzaldiak, biltzarrek, eskola magistralak...); hori dela eta, hizkuntza zaindua erabili ohi da. Jakina, horrek ez du esan nahi, bestelako erabilerarik ezin egon daitekeenik. Esate baterako, puntako ikerkuntza zientifikoak egiten duen laborategi batean herri bereko hiztun bik lan egiten badute, egiten ari diren puntako saioki buruz, alegia, oso gai berezituaz, era informalean eta beren herriko hizkera erabiliz ari daitezke: komunikazioa ziurtatuta dago, baina sortuko duten berbaldi hori ez da izango zientziaren esparruko ereduzko berbaldia.

Esan ohi da erabilera berezituetan komunikazioaren xedea informazioa transmititzea dela baina badira berbaldi berezituari nabariki eragiten dioten beste xede batzuk ere. Adibidez, Jaume Martí-k (2001) nabarmendu duenez, xede horien artean maiz egoten dira adituaren irudiaren indartzea, taldearen mugak zaintzea e.a. Esate baterako, eta adibide hau Larrinagari (2001) zor diogu, futbol talde bateko jokalariek batek izan duen lesioa azaltzeko sendagileak prentsaurrekoa eman eta “afectación sinobial del ligamento cruzado posterior” edo nahi bada “atzeko lotailu gurutzatuaren erasan sinobiala” izan duela esaten duenean, sortzen duen enuntziatuaren xede nagusia edo bederen xede bakarra ez da ikusleei jokalariek “belauneko bihurtura” izan duela jakinaraztea; izan ere, enuntziatu hori telebistako kameran aurrean sortzeko oso eragile garrantzitsua da bere sendagile estatusa agerian utzi nahi izatea, alegia, informazio hori ematen duenak, jokalarirean lagunak edo aitak ez bezala, osasun kontuez gizartekide arruntek ez duten jakintza baduela agerian utzi nahi izatea.

Edonola, zientziaren kasuan ez dago berbaldia iluntzeko beharrik, gizartekide arruntak esparru horretan sartzea berez zailtzen duten faktoreak baitaude: batetik, erabiltzen diren adigaien abstraktutasuna eta beraz, urruntasuna eta bestetik, ikur-kode-

⁵ Zuazoren (2000) proposamenean oinarritu gara adibide hau emateko; benetako egoera horretatik urrun samar egon daitekeela dirudi ordea.

f. ? [Jonek] [arazoak dituela] [analisi honek] [esan du]
₁ ₂ ₃

Beste horrenbeste esan daiteke ondoko izen-sintagmei buruz¹¹: prozesatzen errazagoa da aditza aurreratuta duen b aldaera.

- (2) a. Animalien tenperatura-aldaketen aurreko erantzunak
 b. ✓ Animalien erantzunak tenperatura-aldaketen aurrean

4.2. Informazio nagusia/informazio osagarria

Unibertsaltzat har daiteke informazioa premiaren arabera antolatzeke estrategia ere, ondoren ikusiko ditugun kasuetan hainbat modutara gauzatzen dena.

4.2.1. Galdegai/mintzagai sistema

Esaldi bakunen barruan informazioa premiaren arabera antolatzeak eskatuko digu lehendabizi ZERTAZ mintzatuko garen zehaztea eta ondoren gai horri buruz ZER esan nahi dugun ematea. Azkenik etorriko da BIGARREN MAILAKO INFORMAZIOA. Horrek esan nahi du hurrenkerarik eraginkorra ondokoa dela: mintzagaia-GALDEGAIAditza-2.mailako informazioa.

- (3) a. ✓ Baso helduetan ITZALA nagusitzen da oihanpean.
 b. % Baso helduetan nagusitzen da oihanpean / ITZALA.

(3b) bezalako segidak posible dira euskaraz¹² baina batetik, hiztun guztiek ez dituzte onartzen eta bestetik, (3a) bezalakoak prozesatzen errazagoak dira, informazioa premiaren arabera antolatuta baitaramate. Hortaz, (3a) bezalakoak dirateke ereduakoa testu zientifikoetan. Mintzagaia beharrezkoa ez den kasuetan, esate baterako, gai-aldaketarik ez dagoenean, esaldiari galdegaiarekin ekitea dateke eraginkorra (4a).

- (4) a. ✓ ITZALA nagusitzen da halako kasuetan.
 b. Halako kasuetan nagusitzen da / ITZALA.

4.2.2. Zerrendak eta osagai luzeak

Zerrendak eta osagai luzeak ditugunean, moteldu egiten da hanpadura eta eraginkorragoa izaten da aditza aurreratzea: predikatua osagai luzea baino lehenago emateak ‘aldez aurretik emandako’ eskema batean txertatzen lagun gaitzake. Ondokoak edo lau azpiatal nagusiak bezalako antolatzaileak txertatzeak are eraginkorragoa egiten du segida, atzetik datorrena prozesatzeko prestatzen baikaituzte. (5b) bezalako segidak erabat eraginkorrak badira ere, artifizialeki iruditzen zaizkie zenbait hiztuni eta horrexegatik gaineratu diegu ehunekoekin ikurra¹³.

- (5) a. % Matematikaren azpiatal nagusiak ANALISIA, ALGEBRA, GEOMETRIA ETA ZENBAKIEN TEORIA dira.
 b. % ✓ Matematikaren azpiatal nagusiak ONDOKOAK dira: ANALISIA, ALGEBRA, GEOMETRIA ETA ZENBAKIEN TEORIA.

¹¹ Izen-sintagma korapilatsuei buruz, ikus Zabala (1999).

¹² Ikus adibidez Hídalgo (1996) Altuberen (1929) ikuspuntuaren aurka ematen dituen adibideak eta datuak.

¹³ Alberdiren (2001: 25) arabera, posible da bi puntu jartzea ondokoak bezalako antolatzailearik gabe (Matematikaren azpiatal nagusiak dira: ANALISIA, ALGEBRA, GEOMETRIA ETA ZENBAKIEN TEORIA). Gure iritziz ez da zuzena bi puntuak edo koma bezalako puntuazio-ikurrak txertatzea aditzaren eta haren osagarriaren edota aditzaren eta galdegaiaren artean eta desegokitzat jotzen dugu Alberdiren proposamena. Odrizolak (1998, 2001) puntuazio-ikurrei egotzen dizkien ezaugarri fonologikoen ikuspuntutik ere, ez litzateke egokia Alberdiren proposamena.

- c. $\sqrt{\quad}$ Matematikaren azpiatal nagusiak dira ANALISIA, ALGEBRA, GEOMETRIA ETA ZENBAKIEN TEORIA.
- d. $\sqrt{\sqrt{\quad}}$ Matematikaren lau azpiatal nagusiak dira ANALISIA, ALGEBRA, GEOMETRIA ETA ZENBAKIEN TEORIA

Galdegaiari buruzko iruzkinak aditzaren eskuinean ematea da prozesatzea errazten duen beste estrategia bat: era honetan ez dugu apurtzen galdegaiaren eta aditzaren arteko ukipena (6b)¹⁴.

(6) a. % Odoleko glukosa-kontzentrazioak gora egiten badu, HERIOTZA ERAGIN DEZAKETEN FAKTORE GUZTIAK [ETA BATEZ ERE BIHOTZEKO IZATEKO ARRISKUA] larritzen dira.

b. $\sqrt{\quad}$ Odoleko glukosa-kontzentrazioak gora egiten badu, HERIOTZA ERAGIN DEZAKETEN FAKTORE GUZTIAK larritzen dira, [BATEZ ERE BIHOTZEKO IZATEKO ARRISKUA].

4.2.3. *Perpaus osagarriak daramatzaten aditzak*

Ondorioztatu edo esan aditza ikusi bezain laster, *-ela* konplementatzailea igar dezakegu. Mendeko perpausaren aditza aurreratuz, are segida eraginkoragoak lor ditzaugu: askoz ere askatasun handiagoa izaten dugu mendeko perpausaren hurrenkera aldatzeko eta hurrenkerarik eraginkorrenak bilatzeko (7c)¹⁵.

- (7) a. [14.000 urteko aztarna horiek gaurko elefante afrikarrekin asiarrerekin baino zerikusi handiagoa dutela] **ondorioztatu dute** zientzialariek.
- b. $\sqrt{\quad}$ Zientzialariek **ondorioztatu dute** [14.000 urteko aztarna horiek gaurko elefante afrikarrekin asiarrerekin baino zerikusi handiagoa dutela].
- c. $\sqrt{\sqrt{\quad}}$ Zientzialariek **ondorioztatu dute** [14.000 urteko aztarna horiek zerikusi handiagoa dutela gaurko elefante afrikarrekin asiarrerekin baino].

Are nabarmenagoa da prozesatzearen errazte hori, hainbat mendeko perpaus dituen segida baten aurrean gaudenean: hobeto prozesatzen dira nagusitik osagarriara doazen segidak (8a), osagarritik nagusira doazen segidak baino (8b).

- (7) a. $\sqrt{\quad}$ **Uste dut [garbi dagoela** [[eskualde honetan bizi diren organismoak] azkarrago **ugaltzen direla** [elikagaiak uga riagoak direnean]]
- b. [[[Elikagaiak ugariagoak direnean] [eskualde honetan bizi diren organismoak]]] azkarrago **ugaltzen direla**] **garbi dagoela**] **uste dut.**

Osagarritasun-hurrenkera hau hausten badugu, askoz ere txarragoak izaten dira ondorioak (8c): gramatikaltasunaren mugen inguruan gabiltzala ere esan genezake.

- (8) c. ?? Eskualde honetan bizi diren organismoak azkarrago ugaltzen direla elikagaiak ugariagoak direnean **uste dut garbi dagoela.**

4.2.4. *Aditzik gabeko segida korapilatsuak*

¹⁴ Ikus Zabala (1996).

¹⁵ Ikus Euskaltzaindia (1999: 44).

Izen-sintagma konplexuagoak ditugunean, informazio-blokeak antzeman eta premiaren arabera antolatzea da estrategiarik eraginkorrena. Hortaz, informazioaren antolakuntza berdintsua izango da hizkuntza guztietan; osagai bakoitzaren barruko antolakuntza aldiz, hizkuntza bakoitzaren parametro-aukeren arabera aldatuko da. Ikus bedi euskaraz informazio-blokeen buruak (beltzez nabarmendurik) bukaeran azaltzen direla eta gaztelaniaz aldiz, hasieran.

- (9) a. 'Indize biotiko' orokor baten **finkapena** ['aniztasun-indize' batetik (d) eta 'balentzia saprobiko' batetik (s) **abiatuta**] [COSTEren (1974) arabera]
 b. Determinación de un 'índice biótico' global [a partir de un 'índice de diversidad' (d) y una 'valencia sapróbica' (s)] [según COSTE (1974)]

4.3. *Proposizioen arteko lotura edo konexioa*¹⁶

Prozesatzen errazagoak dira proposizioen arteko kateamenduak, parte hartzen duten harreman logikoen berri lehenbailehen ematen badugu. Puntuazioak ere, berebiziko garrantzia du¹⁷.

4.3.1 *Lokailuak*

Perpausak edo paragrafoak elkarren artean lotzeko erabiltzen ditugun lokailuak perpausaren hasieran ematea izaten da eraginkorrena¹⁸, honela lehenbailehen ematen baitigute harreman logiko horren berri. Jakina (10a) eta (10b) guztiz zuzenak dira eta estiloa arintzeko ere erabil daitezke noizbehinka. Desegokiak gertatzen dira ordea, segida guztietan atzeratuta erabiliz gero.

- (10) a. Erradioterapia gorputzeko toki jakin batzuetara bideratzen da **beraz**.
 b. Erradioterapia, **beraz**, gorputzeko toki jakin batzuetara bideratzen da.
 c. ✓ **Beraz**, gorputzeko toki jakin batzuetara bideratzen da erradioterapia.

Osagai bat nabarmentzen duten lokailuak¹⁹ aldiz, eraginkorrak izaten dira nabarmentzen duten osagaiaren eskuinean bertan. (11a) adibidean esaldien arteko harreman logikoak prozesatzen laguntzen diguten bi faktore daude: batetik, *kirurgiak* osagaiaren atzeko koma, osagai horrek aurkaritza batean parte hartzen duela iradokitzen diguna²⁰, eta bestetik, *aldiz* lokailua, aurkaritzan sartzen den bigarren osagaia zein den eta zer nolako aurkaritzaz ari garen iradokitzen diguna.

- (11) a. Kirurgiak, ez du aparteko eraginik izaten. Tratamendu sistematikoek aldiz, gorputz osoari eragiten diote.
 b. Kirurgiak ez du aparteko eragainik izaten. Aldiz, tratamendu sistematikoek, gorputz osoari eragiten diote.

4.3.2. *Perpaus adberbialak*

16 Koherentzia, kohesio eta konexio adigaiak zedarriztatzerako ikus Larringan (1998).

17 Puntuazioaren eta hizkuntz mailen arteko loturari dagokionez, ikus Makazaga (1996) eta Odriozola (1998, 2001).

18 Ikus Makazaga (1996).

19 Ikus Osa (1990), Zabala eta Odriozola (1992) eta Makazaga (1996).

20 Subjektuaren atzean ohikoena izaten da komarik ez jartzea. Edonola, bezalakoetan prozesatzeari laguntzen dio koma horrek. Ebakitzeko modua ere desberdina izaten da halako aurkaritza batean parte hartzen duten eta halako aurkaritzetan parte hartzen ez duten esaldietan.

(A) Nagusiak eta mendeko perpauk adberbialak subjektu erreferentziakideak dituztenean, subjektua hasieran eta komaz banaturik duen segida (12a) izaten da prozesatzen errazena: ohikoena izaten da subjektuaren atzean komarik ez jartzea baina (12a) esaldian ezinbestekoa da koma, mendeko perpaukaren hasiera adierazten baitu.

- (12) a. ✓ Azeleragailuak, [hasiera batean fisikarako garatu baziren ere], gaur egun helburu praktikoetarako erabiltzen dira zientziaren beste arlo batzuetan, industrian eta medikuntzan.
 b. [Azeleragailuak hasiera batean fisikarako garatu baziren ere], gaur egun helburu praktikoetarako erabiltzen dira zientziaren beste arlo batzuetan, industrian eta medikuntzan.

(B) Perpauk kontzesiboen kasuan, aditz (jokatu/jokatu gabearen) hautapenak ere, zerikusia du prozesatzearen erraztasunarekin. Adizki jokatu erabiltzen badugu (14), lehen perpaukaren bukaeran jabetzen gara bi proposizioen arteko harreman logikoaz²¹. Adizki jokatu gabea erabiltzen dugunean aldiz (13), bigarren esaldira heldu behar dugu, harreman horretaz jabetu ahal izateko (Zabala, 2001).

- (13) a. [Saio ugari egin arren], ez dugu ondorio ikusgarririk lortu. (EGIAREN PRESUPOSIZIOA)
 b. [Saio ugari egin arren], ez genuke ondorio ikusgarririk lortuko. (BALDINTZA)
 (14) a. [Saio ugari egin ditugun arren], ez dugu ondorio ikusgarririk lortu. (EGIAREN PRESUPOSIZIOA)
 b. [Saio ugari egingo bage nitu ere], ez genuke ondorio ikusgarririk lortuko. (BALDINTZA)

4.4. *Buruak atzerarazten dizkiguten testuinguruak*

Esana dugunez, izena edo aditza aurreratuz prozesatzen errazagoak diren segidak lortzen ditugu; edonola, badira izena edo aditza segidaren bukaeran uztera behar izaten gaituzten sintaxi-faktoreak, euskara ‘burua azken’ hizkuntza izatearekin zerikusia dutenak.

- (15) a. [Tenperaturaren urtaroaren arabera **balioari**] elikagaien ugaritasunaren faktorea gaineratu behar zaio.
 b. *[Tenperaturaren **balioari** urtaroaren arabera] elikagaien ugaritasunaren faktorea gaineratu behar zaio.

Semantika-faktoreek ere beren eragina izan dezakete: (16) adibidean, argudio-ildoaren koherentziak eskatzen ditu hurrenkera jakin bat.

- (16) a. Antartikako mendebaldeko izotz-geruza zen susmagarriena, [[itsas maila baino beheago **egonik**] urtzeko joera handia **baitzuen**]
 b. #Antartikako mendebaldeko izotz-geruza zen susmagarriena, [urtzeko joera handia **baitzuen**] [itsas maila baino beheago **egonik**]

BIBLIOGRAFIA

²¹ Bi perpauk arteko harreman logikoaz jabetzen garen unea agerian uzteko, azpimarratu egin dugu harreman horren berri ematen digun osagaia.

- ALBERDI, X. eta SARASOLA I. (2001). *Euskal estilo libururantz. Gramatika, estiloa eta hiztegia*. Bilbo: EHUKo Argitalpen Zerbitzua.
- ALTUBE, S. (1929) *Erderismos*. Euskera. X urtea I-IV zenbakia.
- EUSKALZAINDIA (1999). *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-V (Mendeko perpausak-1)*. Bilbo.
- HAWKINS, J. A. (1990). "A Parsing Theory of Word Order Universals", *Linguistic Inquiry*, 21, 2: 223-261.
- (1995). *A Performance Theory of Word Order and Constituency*. Cambridge: Cambridge University Press.
- HIDALGO, V. (1996). "Euskal joskeraren mito kaltegarriak (I). Nola idatzi euskaraz modu arin, ulergarri eta aberats batean", *Hizpide*, 35, 39-51.
- HIDALGO, V. (1996). "Euskal joskeraren mito kaltegarriak (II). Euskararen hitz ordena librea Hizpide", 36: 21-27.
- (2001). "Marileisis sufre (IV) oxidozko atmosferan". *Ekaia* 14, 117-128.
- LARRINGAN, L. M. (1998). "Testuen analisirako zenbait nozioren kontzeptualizazio bidean", I. Idiazabal eta L.M. Larringan (ed.) *Koherentzia, Kohesioa eta konexioa: testuratzeko baliabideak. Hizkuntzaren azterketa eta Irakaskuntza*. EHU eta Arabako Foru Aldundia: 49-94.
- MAKAZAGA, J. M. (1996). "Perpausen arteko testu-mailako lotura: testu zientifikoak sortzen", I. Zabala (koord.) *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoa*. Bilbo: EHUKo Argitalpen Zerbitzua: 45-111.
- MARTÍ, J. (2001). "Comunicación especializada y objetivos sociales", *III Escuela Internacional de Verano de Terminología*. Instituto Universitario de Lingüística Aplicada. UPF (eskuizkribua).
- ODRIOZOLA, J. C. (1998). "La puntuación y la entonación como desambiguadores en las estructuras limítrofes entre la yuxtaposición, la coordinación y la subordinación", *I Simposio Internacional de Análisis del Discurso*. Madrid: Universidad Complutense.
- (2005). "Puntuazioa Gramatikagai", H. Knörr eta P. Etxeberria (ed.) *Nerekin yaio nun. Txillardegiri omenaldia*. Iker 17, 353-378.
- ORTIZ DE URBINA, J. (1998). "Axularren ezen konpletiboa eta hizkuntz prozesamendua", *Studia Philologica in Honorem Alfonso Irigoien*. Deustuko Unibertsitatea, 151-162.
- OSA, E. (1990). *Euskararen hitzordena komunikazio zereginaren arabera*. Doktoretza tesia. Bilbo: EHUKo Argitalpen Zerbitzua
- PETÖFI, J. S. (1976). "Lexikology, Encyclopaedic Knowledge, Theory of Text", *Cahiers de Lexicologie XXIX*. Paris.
- ZABALA, I. (1996). "Testuan iruzkinak sartzeko funtzioa izan dezaketean antolatzaileak: hau da, hain zuzen ere, adibidez, batez ere..." I. Zabala (koord.) *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoa*. EHUKo Argitalpen Zerbitzua, 113-165.
- (1999). "Izen-sintagma konplexuak: adjektiboen eta izenlagunen segidak", J. C. Odriozola (ed.) *Zenbait gai euskara teknikoaren inguruan*. EHUKo Argitalpen Zerbitzua.
- (2000). "Hitz-hurrenkera euskara tekniko-zientifikoan", *Ekaia*, 12: 143-163.
- (2001). "Euskararen zientzia eta teknikarako erabileraren hizkuntza berezitasunak", *Ekaia*, 13 (2000ko negua), 105-129
- ZABALA, I. eta ODRIOZOLA, J. C. (1992). *Hitz-ordena, galdegaia eta komaren erabilera*. EHUKo Argitalpen Zerbitzua.
- ZUAZO, K. (2000) *Euskararen sendabelarrak*. Irun: Alberdania.

“Bilbo-Behobia autobidea” bezalako Tandem-Elkarteak: Hiru osagai baina morfologi prozesu bakarra

Juan Carlos Odriozola Pereira
Euskal Herriko Unibertsitatea
Zientzia Fakultatea

0. SARRERA⁽¹⁾

Euskaltzaindiak (1992) elkarren arteko edo tandem-hitzezko aposizio gisa azaldu ditu (1-5)eko hirukoteak.

- (1) Bilbo/Behobia autobidea²
- (2) Behobia/Donostia maratoia
- (3) EAJ/PSE koalizioa
- (4) bodega/petaka aldaketa
- (5) idazle/hiztun koefizientea

Bestalde, bi hitzeko elkarte baten ezkeraldeko osagaia hedatuz sortzen ari direla adierazi du Euskaltzaindiak. Deskribatu izan diren gainontzeko hiru hitzeko segida guztietan ordea, syntaxian beregainki erabil daitekeen ondorio bana ematen duten bi prozesu ikusten dira: berrelkarketaren kasuan euskal morfologiak eskura dituen elkarketa bi (§1.1) eta sintaxi-hedapenaren kasuan izen baten sintaxi-hedapena eta haren gaineko elkarketa bat (§1.2). Gure lan honetan agerian jarri nahi dugu tandem-elkarteak bakarrak direla euskal morfologian: gainontzeko hirukoteak ez bezala, morfologi prozesu bakar batek sortzen ditu (§1.3).

Bestetik, Euskaltzaindiaren (1991, 1992) lanetan, aposizio modura izendaturiko izen-elkar-teek oro har izaki bakarra adierazten dutela esan izan da eta tandem-elkar-te hauek ez dira beti horrelakoak. Hemen agerian jarriko dugu ohi baino zehazkiago ulerturiko aposizio izeneko etiketa bat behar dugula (§2).

1 Lan hau egiteko Euskal Herriko Unibertsitateko UPV 033.310-HB 194/98 egitasmoaren dirulaguntza jaso dugu. Lanean erabili ditugun biokimikako adibide berezitu asko, Martínez (2001) lanekoak dira, eta eskertzekoa dugu has-teko egile horrek biokimikari aditu modura eskaini digun laguntza guztia. Eskerrak eman behar dizkiegu, gainera, Igone Zabala eta Elixabete Pérez hizkuntzalariei, lana gauzatzeko eskaini diguten laguntzagatik; beraienak dira hemen bildu diren zenbait ideia, baina azken idatzian egon daitezkeen okerrak, jakina, guri leporatu behar zaizkigu. Asier Larrinagari ere eskertu egin behar dizkiogu bere iruzkinak.

2 Ez genituen hemen idaztarauak finkatu nahi eta zilegi iritzi diogu adibide guztiak zeharkako marraz itxuratzeari.

Gainera, Euskaltzaindiaren laneko hiru azpisailak –nondik norakoak (1-2), aurrez aurrekoak (3-4) eta neurri-mugakoak (5)–, ez bide dira erabat egokiak, funtsean ez baitira hirugarren gunean azaltzen diren izenen tasunak kontuan hatu eta halaber, tasun horiek osagai bikoitzean duten eragina ez baita agerian gelditu. Beste alde batetik, aposizioen lehenengo osagai bakun edo bikoitzak elkartearen barruan jasaten (ez) duen erreferentzi aldaketaren arabera (§3.1), aposiziozko tandem-elkarteez gain (§3.2), mendekotasunezko tandem-elkarteen berri ere emango dugu (§3.3). Bukatzeko, mintzabehar berriei erantzuteko sortzen ari direla esan du baina tandem-elkarteen sailkapen horretan zehar agerian geldituko da eguneko euskarak eskura duen morfologi erabide batez ari garela.

1. TANDEM-ELKARTEAK MORFOLOGI PROZESU BAKAR BATEK SORTZEN DITU

Euskaltzaindiaren (1991) lanaren oinarrian zeuden txostenetako batean (Odriozola eta Altonaga: 1988), nabarmendu egin zen (6)ko elkarreak ez zirela ordu arte deskribatuak zeuden gainerako euskal elkarteen antzerakoak.

(6) $dN(t)/dt$ balioa, Cu^{+2}/Zn^{+2} erlazioa, $(-\infty, +\infty)$ ardatza

(6)koek nazioarteko laburdurak zituzten eta agian horregatik, aztertzeke utzi zen euskara orokorrean morfologi erabide honek izan dezakeen emankortasuna. Gero, aposizio mota berezi bat sumatu zuen Euskaltzaindiak (1992) horrelakoetan eta haren hitzetan, mintzabehar berriei erantzuteko sortzen ari dira ezker-osagaiaren hedapen baten bidez. Tandem-elkarte gisa izendatu zituen gainera. Lan horren adibidetegian, erabilera orokorreko adibideak bezain ugariak dira hizkuntzaren erabilera berezitetakoak

- (7) a Bilbo/Behobia autobidea
 b bodega/petaka aldaketa, EAJ/PSE koalizioa
 c idazle/hiztun koefizientea

Atal honetan nabarmendu egin nahi dugu deskribaturik dauden gainontzeko hiru hitzeko elkarrekin dauden funtsezko aldea.

1.1. Berrelkarketak, bi elkarketaren ondorioa

Euskaltzaindiaren lanetan (1987, 1991, 1992) ondo samar ikus daiteke berrelkarketa elkarketa prozesu biren ondorioa dela: bideragarriak dira adibidez bi aposiziozko elkarketa (8a), bi mendekotasunezko elkarketa (8b), koordinaziozko bat eta mendekotasunezko bat (8c), Euskaltzaindiak dvardva gisa azaldu duen elkarte bat eta mendekotasunezko bat (8d)³ edo koordinaziozko bat eta aposiziozko bat (8e).

- (8) a Azkue jaun apeza
 b garagar-ogi puska
 c jale-edale ospe
 d galdera-erantzun sorta
 e Gernika-Lumo udala

3 Bai mendekotasunezko bi elkarketa egin ahal izateko, bai mendekotasunezko baten osagai bat hedatzeko (§1.22), eskuinaldeko mugakizunak berezia izan behar du. Ikus bitez berezitasunak Euskaltzaindia (1992:42-45) lanean eta bai bereziki Azkaratek (1990) eskaini dituen hiru osagaiko segiden corpusean ere.

Azpirarratu beharrekoa da elkarketa prozedura bakoitzak sintaxian beregainki erabil daitekeen ondorio bat dakarrela: (8c-d-e)koetara heltzeko, sintaxian beregainki (9b-10b-11b) erabil daitezkeen izen- edo izenondo-elkarteak lortu dira lehenago eta mendekotasunezko elkarte bat egin da gero.

- (9) a [[jale-edale]koordinaziozkoa ospe]mendekotasunezkoa
b (Oso) jale-edale(a da)
- (10) a [[galdera-erantzun]koordinaziozkoa sorta]mendekotasunezkoa
b (Hor dituk) galdera-erantzunak
- (11) a [[Gernika-Lumo]koordinaziozkoa udala]aposiziozkoa
b Gernika-Lumo(ko saihezbidea)

1.2. Garapenak edo hedapenak, sintaxi- edo morfologi prozesu biren ondorioa

Esparru honetan ere, sintaxian beregainki erabil daitekeen ondorio bana ematen duten bi prozesu sumatuko ditugu orain arte deskribaturiko hiru hitzeko segida guztietan.

Euskaltzaindiaren lanetan ikus daitezkeen eredueta batean (12c), elkarte bat dugu abiapuntuan (12a). Bestalde, *ahuntz* osagaiaren sintaxi-garapena gertatzen da: (12b)ko *ahuntz beltz(a)* euskal sintaxian arrunta den izena + izenondoa osagaiez osaturiko izen-sintagma arrunta dugu⁴. Horretaz gain, talde horren ezkeraldean ere (12c) azal daiteke *ahuntz beltz* hori, azken batean ezker-osagaiaren hedapenaren ondorioztat hartuko duguna itxuratzeko.

- (12) a ahuntz talde(a ikusi du ardi-txakurrak)
b ahuntz beltz(a ikusi du ardi-txakurrak)
c ahuntz beltz talde(a ikusi du ardi-txakurrak)

Euskaltzaindiaren (1991) bigarren eredu (13), *neska bezalako izen baten sintaxi-hedapen bat da, izen-sintagma bat alegia*. Eskuinaldeko osagaia, *arrain-saltzaille*, hitz-elkarte bat dugu.

- (13) neska arrain-saltzaille

Euskaltzaindiak (1991) aipaturiko hirugarren hedapen- edo garapen-eredu batean (14-15), elkarketa/eratorpena (16-17) edo elkarketa/sintaxia (18-19) direlako mugen inguruko arazoak abiapuntuaren izaera finkatzeko unean⁵ baina bistan da lehenengo prozesu horren ondorioak kasu honetan ere beregain direla sintaxian.

- (14) gainzuritze
- (15) aldegitte
- (16) gainzuritu
- (17) zuritu
- (18) alde egin
- (19) egin

4 Azkaratek (1990) egindako eztabaidatik abiatu gara egun honelako egiturei ageriko eragozpenik gabe izen-sintagmaren izaera egozteko.

5 Ikus Odriozola (2001d) lanean (14), (16) eta /17)koen inguruko zehaztasun gehiago, eta Zabala (2001) lanean (15-18-19) koei dagozkienak. Izatez, pentsa liteke prozesuak (i) bezalakoak izan direla.

(i) zuritu > zuritze > gainzuritze

(ii) #egin > egite > aldegitte

Gainzuritu aditzetik *gainzuritze* izenatarako ibilbidea ordea, askoz ere arruntagoa da euskal morfosintaxian *zuritze* izenetik *gainzuritze* izenatarako eratorpena baino. Bideraezina beste adiera batekoa delako. Beraz, *gainzuritu* edo *alde egin* bezalako hiztegi-sarrerara ezagunetatik eratorritako izenak ditugu (14-15)ekoetan.

1.3. Tandem-elkarteak, ez dira berrelkarketak ez eta garapenak ere.

Elkarte hauen lehenengo osagai bikoitza ezin da oro har beregain erabili eta (20)ko galderei erantzuteko unean, tandem-elkartea egiteko aukera dugu (21) baina oso aldakorra da lehenengo osagai bikoitza soilik erabilia lortzen denaren gramatikaltasuna (22).

- (20) a Zein derby emango dute?
- b Zein tarte da hori?
- c Zein da jakin mina piztu duen auzia?
- (21) a Athletic/Erreal derbya
- b Bilbo/Durango tarte
- c Lasa/Zabala auzia
- (22) a Athletic/Erreal
- b ?Bilbo/Durango
- c *Lasa/Zabala

Izan ere, (22)ko bikoteak ez dira (21)ekoak lortzeko erabili diren abiapuntuak. Alderantziz, (21)ekoen gainean egiten den elipsi baten ondorioa dira (22)ko horiek. Elipsiaren gaineko murriztapenen izaera pragmatikoa izan daiteke bertan suma daitekeen aldakortasunaren eragile. Areago, ikus bedi (22a-b)koak eta agian (22c)koa ere erabat egokiak izango liratekeela idatzizko hedabide bateko izenburu gisa edo trafiko-seinale baten osagai gisa. Egoerarik ohikoena ordea, (21)ekoa da elkarte hauetan.

Laburbilduz, tandem-elkarteen hiru osagaiak prozesu bakar batek lotzen ditu eta hirukotearen barruan ez dago sintaxi-beregaintasunik duen sintaxi-egiturarik edo hitz-elkarterik: tandem-elkarteak ez dira euskal gramatiketan deskribatu izan diren berrelkarketan edo sintaxi- eta eratorpen-hedapenen hiru hitzeko ondorioen tankera-koak.

2. TANDEM-ELKARTEAK EUSKAL HITZ ELKARTUEN SAILKAPENAREN BARRUAN

2.1. Tandem-elkarteak ez dira koordinaziozkoak

Odriozolak (2001) bildu egin ditu Euskaltzaindiak dvandva modura sailkatu dituen elkarteak (23) eta koordinaziozko elkarte modura beste talde batean aurkeztu dituenak (24-25).

- (23) senar-emazteak
- (24) Gernika-Lumo
- (25) errege-profeta

Egitura hauetan bi buru daude: bi osagaien tasun (guzti)ak komunak ez badira ere, elkarrengandik hurbil egon behar bide dute, eta elkarteak bi buruen tasun guztiak biltzen ditu. Dakigunez (23-25)ekoen gainean berrelkarketak egin daitezke (§1.1) eta tandem-elkarteak aldiz, morfologi prozedura bakar baten ondorio dira (§1.3); ikusteko daukagu oraindik (26-27) tandem-elkarte hauen osagaien arteko esangura-harremana behintzat oso ezberdina dela (§2.2, §3). Esan dezagun hemen behintzat itxura

batean hurbil dauden koordinaziozko dvandva direlako elkarteak ezinbestez pluralean doazela:

- (26) Gipuzkoa/Donostia kutxa
- (27) EAJ/PSE koalizioa
- (28) a *senar-emaztea
- b senar-emazte taldea

Horren haritik, (28b)koan bikoteez osaturiko talde bat dugu, eta (26-27)ko tandem-elkarteetan berriz, bikote bakar bat.

2.2 *Lehenengo osagai (bikoitz)aren erreferentzi aldaketa eta aposizio harremana*

Munduko hizkuntzei buruz azken bolada honetan plazaratu den bibliografiaren berrikustapen arin bat eginda, Odriozolak (2001c) mendekotasunezko egitura-harremana egiaztatu du Euskaltzaindiak (1992) mendekotasunezkoztat jo duen (29)ko ereduari, baina baita Euskaltzaindiak atributuzkoztat jo dituen batzuen kasuan ere (30).

- (29) eguzki-lore
- (30) egun seinale

Bestalde, aposizio etiketari eutsi dio lan horretan baina osagaien arteko egitura-edota esangura-harreman jakin bat izendatzeko eta azpialde modura ulertu beharko diren 'aposizio izendatzaileak' (31a-a') eta 'sumpsuntiboak' (31b) elkarrekin jartzeko.

- (31) a Mugarra mendia
- a' Gaztedi dantzari-taldea
- b pinu arbola

Egitura hauetan ere bi buru daude baina oraingo honetan osagai batek beste osagaiaren tasunen barruko tasunak ditu eta hain zuzen tasun komun horiek bereganatzen ditu elkarteak. Horrekin batera, (31a-a') bezalakoetan (ibaien klasearen barruko edo dantzari-taldearen barruko) izaki bakarra adierazten da (Euskaltzaindiak aposizio modura deskribatu dituenak bezala), baina bestalde (31b)koan, (arbolen klasearen barruko) azpiklase bat adierazten da. (31)ko ereduaren arabera ulerturiko aposizio izeneko egitura- edota esangura-harremanean, erraz aurrean daiteke izaki bakarra edo izaki azpiklase bat adieraztea gerta daitekeela, eta hain zuzen ere txandakaketa horri eusten dio tandem-elkarteen ereduak: (32a) bezalakoetan *arte* bakar bat adierazten da eta (32b) bezalakoetan, aldaketa azpiklase bat, herskari ahostunetako batek herskari ahoskabeetako batera gerta daitezkeen aldaketen azpiklasea alegia.

- (32) a Bilbo/Durango artea
- b bodega/petaka aldaketa

Horrela, talde bakar batean bil daitezke izaki bakarra adierazten duten ohiko aposizio izendatzaileak, izaki bakarra adierazten duten tandem-elkarteak eta izaki azpiklasea adierazten duten beste tandem-elkarteak eta sumpsuntiboak.

Bestalde, (31a)ko lehenengo osagaiak, mendi bakar adierazten du beregainki erabilia zein elkartearen barruan, baina (31a')ko osagaiak elkartearen barruan ez du beregainki erabilia duen erreferentzia bera. Euskaltzaindiaren (1991) lanaren oinarrian dagoen txosten batean (Odriozola eta Altonagaren 1998) iradokitako itzulingu-

ruek agerian uzten dute aposizio mota bat zein bestea ados daudela lehenengo eta bigarren osagaien arteko hiponimo/hiperonimo esangura-harreman horrekin:

- (33) Mugarra delako mendia
Gaztedi delako dantza-taldea

Harreman hau eta bigarren aposizio-ereduan gertatzen den erreferentzi aldaketak, poliki aztertzeoak dira tandem-elkarteen kasuan.

a) Lehengo osagai bikoitza nekez erabil daiteke beregain euskal syntaxian, baina hala ere, betetzen du (33)ko itzulinguruetako⁶ baldintza:

- (34) Bilbo/Durango delako tarte hori, bodega/petaka delako aldaketa,
likido/solido delako nahastea, idazle/hiztun delako koefizientea

(31a')ko bigarren aposizio-ereduaren arabera tandem-elkarteen kasuan gertatzen den erreferentzi aldaketari metonimia deritzo: (34)ko *likido* eta *solido* gai-izenak dira baina *likido/solido nahastea* elkartearen barruan, gaiak adierazi beharrean, gaiak elkarrekin ematen duten osotasuna adierazten da, *nahaste* izenak adierazten duen nahasteen klasearen barruko azpiklase bat hain zuzen. Areago, adibide honetan behintzat, bereziki garbia da elkarteak adierazten duenaren tasunen artean badaudela lehenengo osagai (bikoitz)aren tasunak ere.

b) Batzuk, (31a)ko lehenengo aposizio-eredukoak dira eta osagai bikoitzak ez du erreferentzi aldaketarik jasaten. Haietako batzuen kasuan osagai biko aposizio arrunt bi egiteko aukera dago (35b), beste batzuetan aposizio arrunta egiteko aukera bazegoen ere ez da horrelakorik egin (36b), eta beste zenbaitetan osagai biko elkarteak beste adiera bat du (37b).

- (35) a cis/trans isomeroak
b cis isomeroa, trans isomeroa
(36) a Lasa/Zabala auzia
b #Lasa auzia
(37) a hartzaile/emaile bikotea
b #hartzaile-bikotea

c) Testu berezituetatik at nekez aurki daitezkeen euskarazko tandem-elkarte batzuek ez dute itzulingurua onartzen (38-39), eta berez aposizioak izan gabe mendekotasunezko elkarteak direla dirudi: lehenengo osagai bikoitzak ez du bigarren osagaiaren barruko zerbait adierazten, ez beregainki ez eta elkartearen barruan ere; hirugarren osagaiaren elisioa ere ezinezkoa bide da kasu guztietan. Izatez, aurrean definituriko (29)ko mendekotasunezko elkarteek bezala jokatzen dute tandem-elkarte hauek:

- (38) Na⁺/K⁺ trukatzaila, burdina/sufre proteina

⁶ Itzulinguru sortak banaketa zorrotz samarra du:

(i) Mugarra delako/izeneko mendia, Azkue delako/izeneko saria
solido zurrin delako/*izeneko kontzeptua

Alde batera utziko ditugu itzulinguruak har ditzakeen konnotazioak.

⁷ Ikus Odriozola (2001a) eta (2001b) lanak, nazioarteko arauetan egiten diren tandem-elkarteen inguruan. Horrelakoetan, euskararen arau propioen arabera egin gabe, hizkuntzetan zehar suma daitezkeen arau komunaren arabera egiten bide dira gauzak, eta horretan, tandem-elkarteak ere ez dira salbuespen. Bestalde, alde batera utziko dugu hemen beste gogoeta interesgarri bat egiteko aukera: Gramatika sortzailea bezalako teori esparruen inguruan sortu izan direnak -ikus adibidez testuko 3.1.1. ataleko (40b')- nazioarteko arauak dagozkien ala euskararen arau propioen arabera (erabilera mota jakin baterako) sortu ote dira? Berez, zorrozki jokatuta garbi izan behar dugu zer diren kimikako IUPAC bezalako nazioarteko batzorde batek finkaturiko nazioarteko arauak: nazioarteko adituek eraturiko batzorde batean onaturiko adigaiak gehi izendapen-arauak.

- (39) a *Na⁺/K⁺ delako trukatzailea, burdina/sufre delako proteina
 b *eguzkia delako lorea, *lorea(k) delako sorta, *seinalea delako eguna

(39) ko gramatikaltasun eza garbia den neurrian, (38)ko erabide-eredura jo baino lehen egin baino lehen ondo hausnartu beharko da kontua: erabilera berezitzuez ari bagara ere, nazioarteko arauen esparru batean ez gauden neurrian⁷, hizkuntzaren hiztegi-, morfologi eta sintaxi-arau propioak erabili behar dira nonbait, eta (38)koaren ereduok euskal senak sor ote ditzakeen, zalantzarria da gutxienez.

3. TANDEM-ELKARTEEN SAILKAPENA

Atal honetan Euskaltzaindiak (1992) zirriborraturiko sailkapen hirukoitza garatu behar dugu hiru osagaien arteko harreman moten arabera. Azken batean hirugarren osagaiaren mende egongo da eskuinaldeko osagai bikoitz bat edo beste azaltzea, bai eta erreferentzi aldaketa mota bat edo beste gertatzea ere⁸.

Morfologi erabide honek bere baitan daraman berrikuntza dela eta, esan behar dugu bai hizkuntza orokorrean ikus daitezkeen azpimotak bai erabilera berezitzuetan ugari(ago) azaltzen direnak emankor samarra den eta eguneko euskarak berea duen morfologi prozesu bati zor zaizkiola. Horren seinalea da nonbait Euskaltzaindiaren (1992) adibidetegia, elkarte arruntez zein berezitzuez osatu zena. Gure adibide sortak, honelaxe antolatuko ditugu:

- (a) Erabilera orokorrekoak Euskaltzaindiaren adibidetegian
 (a') Erabilera orokorrekoak hedabideetan edota eguneroko ahozko hizkuntzan⁹
 (b) Erabilera berezitzuetakoak Euskaltzaindiaren adibidetegian
 (b') Erabilera berezitzuetakoak Euskaltzaindiaren adibidetegitik kanpo

Sailkapenean zehar, lehenengo osagai bikoitzean hirugarren izenaren nagusigoaren arabera gertatzen den erreferentzi aldaketa adieraziko dugu eta horrela, *likido/solido nahasketa* bezalakoen berri emateko adibidez, osotasuna/osagai biak delako etiketa jarriko dugu, azken batean metonimia baten bidez osagaiak osotasun modura ulertzen direla aditzera emateko.

3.1. Aposiziozko tandem-elkarteak

3.1.1 Norabidedunak

Berezko edo metaforazko mugimenduak islapen garbia du hizkuntzen lexikoan eta gramatikan, eta hortaz, talde handi batean elkartu nahi izan ditugu horren inguruko adiera duten elkarte guztiak.

8 Maila honetako gogoetak zuzeneko harremanetan daude teori hizkuntzalaritzan erabili ohi diren (hirugarren osagaia-aren) argumentu-egiturak eta θ -rolak direlako adigaeekin. Lan honetan tandem-elkarteen deskribapena baizik ez dugu egingo, baina horretarako hizkuntzalaritza teoriotik kanpo ere erraz samar uler daitezkeen adigai eta terminoak erabiliko ditugu, aurrerago morfologi erabide ere erraz samar uler daitezkeen adigai eta terminoak erabiliko ditugu, aurrerago morfologi erabide hau teori esparruan jorratzen hasteko prest utziko dugulakoan.

9 Gure adibide-iturririk garrantzitsuenak izan diren hedabideak direla eta, Euskal Telebistako Euskara Saileko zuzendaria den Asier Larrinagak aditzera eman digu *Lasa eta Zabala auzia* (§3.2.f) bezalako elkarte batek denbora-epe labur batean erabat ordezkatu duela bere sintaxi-baliabide izango litzatekeen *Lasa eta Zabalaren auzia*. ETBko lankide honen hitzetan ordea, *Athletic-Erreal derbya* bezalako bat (§3.2.e) oraindik ari da lehian *Athletic eta Errealen arteko derbya* sintaxi-aldaerarekin. Balio bezate adibide biok berrikuntza honen azken urteotako garapenean berri izateko eta bai euskal senak honetan duen erraztasunaz ohartzeko ere.

a) *Leku edo denbora-epe bat/bi mugak*

Euskaltzaindiak nondik norako gisa sailkatu zituenen arteko hauek, erro sako-
nak dituzte hizkuntzaren erabilera orokorrean. Denborazkoak ere (41) arrunt sama-
rrak dira, Euskaltzaindiak jaso ez bazituen ere.

- (40) a Paris/Bonn ardatza, Gros/Amara autobus-linea,
a' Iruñea/Logroño autobidea
b ioi/ioi distantzia
b' galdetzaile/aztarna katea
- (41) a' 2001-2002 ikasturtea, udaberri/uda denboraldia, 2001/2004 hitzarmena
2002/2007 seiurtekoa¹⁰

b) *Jarduera/abiapuntua eta helmuga*

Euskaltzaindiak nondik norako elkarte gisa emandako gainontzeko guztiak
jarriko ditugu hemen.

- (42) a Behobia/Donostia maratoi-erdia
a' Paris/Dakar rallya
a' Denver/Chicago/New York bidaia¹¹

c) *Aldaketa bat/abiapuntua eta helmuga*

Euskaltzaindiak aurrez aurreko gisa sailkatu zituen. Guk hona ekarri nahi izan
ditugu, hizkuntzaren ikuspegitik behintzat norabide edo mugimendudunen antzera
jokatzen baitute izen horiek lexikoaren zein sintaxiaren ikuspegitik.

- (43) a' Ingelesa/euskara hiztegia
b bodega/petaka aldaketa
b' aldosa/zetosa trukaketa, zeto/enol tautomerizazioa, inkoatibo/arazle al-
daketa

3.1.2. *Norabiderik gabekoak*

Esan bezala, inolako norabiderik ez duten izenek ezberdin jokatzen dute hiz-
kuntzen lexikoan eta gramatikan, eta beraz, beste talde handi bat egin dugu,
Euskaltzaindiaren aurrez aurreko gehienak eta neurri-mugakoak elkartuz.

a) *Osotasuna/osagai biak*

Iraupen neurgarria adierazten dutenen eredia emankor samarra da erabilera
berezituetan eta bestalde, azpiero bi bereiz daitezke, kontua zorrotz aztertuz gero:
(44)koetan, osagai bikoitzaren azpiosagaiek aldi berekoak diren bi azpigertaera adie-
razten dituzte eta (45)ekoetan, aldi berekoak ez diren bi epe azaltzen dira, beti ere
hirugarren osagaiak adierazten duen osotasunaren barruan.

- (44) b' oxidazio/erredukzio erreakzioak
(45) b' fosforilazio/desfosforilazio zikloa, karboxilazio/deskarboxilazio sekuentzia

¹⁰ Ikus bedi urteak izendatzeko erabiltzen diren zenbatzaile zehaztuak ditugula lehenengo osagai bikoitz batzuetan.

¹¹ Bitik goragoko osagaiak ere azalduko zaizkigu sailkapenean zehar.

¹² *Bikote* bezalako izenen bikoitzasun delako tasuna dela bide auresagarria da elkarte hauek egiteko ahalmena bai eta horrekin batera osagai bikoitzak ez duela erreferentzi aldaketa jasango (§2.2). *Gune* bezalakoetan ordea, ezinbestekoa da aldaketa hori. Ildo horretan, ikus bedi 8. oharra.

(Ekintza baten) ondorio fisikoa adierazten dutenen eredu ere nahiko emankorra da erabilera guztietan.

- (46) a EAJ/PSE koalizioa
 a' EAJ/EA koalizioa,
 b kobre/eztainu aleazioa
 b' RNA/DNA hibridoa, burdina/sufre gunea, aditz/inflexio/
 konplementatzaile sistema, likido/solido nahastea, kloroformo
 metanol disoluzioa, osagarri/aditz osagaia, hartzaile/emaile bikotea¹²

b) *Gertaera bat /jardule biak.*

Arrunt samarrak dira:

- (47) a Erasun/Elgorriaga aizkol apostua, Kohl/Miterrand elkarriketa
 a' Athletic/Erreal derbya, PP/PSOE ituna,
 Beloki/Goñi pilota-partidua, Iurreta/Durango norgehiagoka,
 Espainia/Euskal Herria gatazka
 b' dipolo/dipolo elkarrekintza, espezifikatzaile/buru harremana¹³

c) *Egoera/subjektu biak.*

- (48) b bizidun/bizigabe bereizketa, karbono/karbono lotura
 b' hormona/hartzaile osagarritasuna, proteina/DNA ukipena,
 likido/solido oreka

d) *Neurri-mugakoak*

Honelako guztiek matematikako zatidura delako eragiketaren ingurukoak dira eta eredu nazioartekotzat har litezke, euskararen erabilera arruntean nolabaiteko txertakuntza badute ere.

- (49) b ikasle/gela ratioa, idazle/hiztun koefizientea
 b' azalera/bolumen harremana, indar/azalera zatidura
 a' kalitate/salneurri harremana

e) *Hurrenkera/ osagaiak (§2.2. b)*

- (50) buru/osagarri hurrenkera, mugatzaile/mugakizun ordena C-C-C katea

f) *Nolabaiteko jabea (§2.2. b)*

- (51) a' Las/Zabala auzia, Donostia/Gipuzkoa kutxa
 b' Michaelis/Menten Zinetika, Ehlers/Danlos sindromea

g) *Adigaia/txandakako balio biak (§2.2. b)*

- (52) cis/trans isomeroak, ezeztapen/baieztapen funtzio-kategoria,
 karboxilasa/oxidasa jarduera
 (53) cis isomeroa, ezeztapen funtzio-kategoria, karboxilasa jarduera

¹³ Oso azpimarratzekoa da izen jakin batzuek osagai bikoitz desberdinak hartuta tankera desberdinetako tandem-elkarteak eratzen dituztela: ikusi abididez *harreman* izena (§3.1.2. b) eta d). Era berean, osagai bikoitz jakin batek desberdin jokatzeko du hirugarren osagai desberdinekin: ikusi adibidez *burdina/sufre* (§3.1.2, eta §3.2.), *presio/bolumen* (§3.2.2. d) eta 3.2.).

3.2 Mendekotasunezko tandem-elkartek

Eredu honen barruan (§2.2), honelako azpitaldeak egin daitezke:

a) *Gertaera edo egile bat/objektu biak*

(54) b' Na⁺/K⁺ trukatzailea

b) *Izaki bat/osagaietako bi*

(55) a' Donostia/Baiona eurohiria

b' burdina/sufre proteina, ama/alaba adabegia,

c) *Prozesua/tresnak edo materialak edo era zabal batean ulerturik, gaiak*

(56) kaltzio/polietilenglikol tratamendua, presio/bolumen diagrama

Lanean erabili dugun itzulginguruak (§2.2) nahiko ondorio garbiak ematen badi-
tu ere, aitortu beharrekoa da aposiziozko eta mendekotasunezko tandem-elkarteen
arteko muga ez dela erabat sendoa, zeren eta azken batean muga hori lehenengo osa-
gai bikoitza hirugarren osagaiaren barruko kideztat hartu ahal izateko aukerak
baldintzaturik baitago. Aurreragoko lanetan izango dugu hau guztia hizkuntzaren maila
desberdinetan ondo aztertzeko beta.

BIBLIOGRAFIA

AZKARATE, M., (1990). *Hitz elkartuak euskaraz*. Donostia: Mundaiz.

ALTONAGA, K., M. ENSUNZA eta J. C. ODRIOZOLA (1988). *Sumpsumtive compounds*.
Eztabaidarako txostena (eskuizkribua).

EUSKALTZAINDIA (1991). *Hitz-elkarketa / 3*. Bilbo.

_____ (1992). *Hitz elkartuen osaera eta idazkera*. Bilbo.

MARTINEZ, M. (2001). "Tandem-elkartek: nola idatzi behar diren Biokimikako tes-
tuetan azaltzen direnean" (eskuizkribua).

ODRIOZOLA, S. C. & ALTONAGA, K. (1988). X. *Aposizioa: eztabaidarako txostena*
(eskuizkribua).

ODRIOZOLA, J. C. (2001a). "Entzimen izenak euskaraz". *Ekaia* 13, 131-147.

_____ (2001b). "Euskara eta nazioarteko arauak: erabilera orokorrak, erabilera
berezituak eta erabilera gainberezituak", *Euskera*.

_____ (2001c). "Aposizioa euskal hitz-elkarteetan" (eskuizkribua).

_____ (2001d). *Fronteras composición-prefijación y composición-sintaxis*
(eskuizkribua).

ZABALA, I. (2001). "Predicados complejos en vasco" (eskuizkribua).

El caso catalán: diques político administrativos contra el estándar

Vicent Pitarch i Almela

Institut d'Estudis Catalans (Secció Filològica)

SALUDO

Distinguidas autoridades, amigos y amigos:

Bona vesprada. Arratsaldeon. Em reconec especialment emocionat i honorat d'ésser ací amb vosaltres. Hunkituta, eskatzen dizuet, Katalan Herrialdeetatik dakarkizuedan agurrik kuttunena onar dezazuen.

He de empezar por reconocer que es ésta una de las circunstancias de mi vida en que experimento la congoja que me produce la desidia por no haber aprendido euskara, una deficiencia difícilmente perdonable si tenemos en cuenta la dilatada trayectoria de relaciones personales y, más aún, de sintonía política, que me une, con intensidad y pasión, a los avatares de Euskal Herria. Gracias por vuestra comprensión. Tampoco podría seguir adelante sin dejar constancia aquí de mi agradecimiento sincero a la organización de este XV Congreso de Euskaltzaindia por haberme otorgado el honor de ocupar ahora esta posición de privilegio. Sinceramente, me siento abrumado ante la opción que me ofrecéis de ser escuchado por los expertos en la lengua de una de las naciones más venerables y conmovedoras del mundo.

1. OBJETIVO

En mi exposición me propongo presentar, sobre la base de las grandes líneas que marcan el perfil del panorama sociolingüístico catalán, una aproximación al estado actual del proceso estandarizador que atraviesa la comunidad catalana. De manera esquemática podemos acordar que la planificación de este proceso ofrece dos vertientes, una lingüística y otra sociológica; es decir, una se dirige hacia la estructura de la lengua –establece la descripción del *corpus*– y la otra atiende a su aplicación práctica –programa la intervención sobre la sociedad–. Ni qué decir tiene que las dos vertientes se complementan mutuamente y a la vez entre ambas se establece toda una red de interrelaciones. Por supuesto, obviaré aquí cualquier referencia a la problemática de índole estrictamente lingüística –si se prefiere, al nivel de codificación–, es decir, a las propuestas, sugerencias y dificultades que suscita la alternativa del estándar ante la diversidad de los registros y de la variación espacial

que presenta la realidad interna del fenómeno lingüístico. Sin duda, éste no es el momento oportuno para analizar la casuística lingüística que ha de abordar el proyecto de estandarización del catalán en nuestros días. Así pues, lejos de detenerme a considerar el propio sistema de la variedad estándar del catalán tal como ahora circula, nos fijaremos más bien en algunas de las estrategias que caracterizan el modelo catalán del proceso estandarizador. En definitiva, ante la doble opción que ofrece el análisis (de descripción lingüística y de planificación social) del modelo estándar, nuestro enfoque será eminentemente sociológico, más bien sociopolítico. En este sentido, habrá que insistir en el rol fundamental que ejerce la estructura política de la sociedad en el proceso de estandarización idiomática; por supuesto, en sintonía perfecta con la dinámica global según la cual no hay proceso social –y, por consiguiente, no hay fenómeno lingüístico– que escape de los mecanismos de dirección y control que impone el sistema establecido (Pitarch 1996).

De acuerdo con el objetivo indicado, mi exposición será fundamentalmente descriptiva, con incursiones mínimas en el campo de la especulación teórica; y en cualquier caso, éstas no tendrán otra pretensión que la de servir de marco a la realidad que se describa. En última instancia, lo que aquí presento no es más que un modesto informe sobre las peripecias por las que atraviesa el proyecto del estándar catalán.

Naturalmente, he de confiar que algunos elementos de este informe ofrezcan aspectos de interés para el modelo estandarizador de Euskal Herria. Sin duda, desde la particularidad intransferible que representa cada realidad nacional, el drama lingüístico que viven los Països Catalans, por una parte, y Euskal Herria, por otra, comparte rasgos comunes, los cuales seguramente sugieren la conveniencia de intercambiar estrategias y experiencias de unos y otros. Para empezar, unos y otros compartimos el lastre de ser naciones sin estado, un estigma del que, por supuesto, no podemos sentirnos libres los catalanes por la simple pervivencia de Andorra, un estado que proclama el catalán su única lengua oficial. Ciertamente, la fluidez en el intercambio de políticas lingüísticas entre euskaldunes y catalanes constituye ahora mismo un reto común insoslayable.

2. ESTANDARIZACIÓN, IDENTIDAD Y GLOBALIZACIÓN

El tema de la mundialización ha conseguido ocupar un lugar central en los comentarios que circulan acerca de la actualidad socioeconómica. El fenómeno, por supuesto, había de incidir también sobre la situación sociolingüística. En este sentido, se han puesto de moda los diagnósticos que combinan los efectos derivados de la mundialización con el futuro inmediato que espera a las lenguas del planeta, mientras se acelera la dinámica de las visiones catastrofistas aplicada al mosaico lingüístico mundial. Se ha generalizado de tal modo esta visión apocalíptica de la salud mundial de las lenguas, que constituye ya una especie de axioma el supuesto de que van a desaparecer muchas comunidades lingüísticas. De hecho circulan cálculos prospectivos que cifran la destrucción de la diversidad lingüística, durante los últimos años y para el siglo XXI, en el 90% de las lenguas actuales, aproximadamente. Sea cual sea el interés que podamos atribuir a tales diagnósticos de reducción drástica del número de lenguas, hay un aspecto que no podemos menospreciar: la nueva coyuntura de la globalización implica un proceso considerable de nivelación etnolingüística, ante el cual naturalmente ofrecerán mayores garantías de resistencia aquellas comunidades lingüísticas que dispongan de estandarización aceptablemente consolidada. He aquí uno

de los grandes retos que ahora mismo tienen planteados lenguas como el euskara y el catalán, sin ir más lejos.

Pero al lado de tales querencias por las profecías lingüísticas de tono apocalíptico, la globalización ha conseguido despertar todo un extenso e intenso movimiento de inquietudes por la cuestión de la identidad, especialmente por la identidad colectiva. No hace falta salir del ámbito de influencia de la cultura española para detectar hasta qué extremos llega la obstinación por la identidad nacional. Así pues, no es el momento de sorprendernos por los recursos formidables de persuasión y coacción que el sistema español pone al servicio de la implantación masiva de su manera particular de percibir la identidad nacional; ahora bien, tales recursos adquieren dimensiones difícilmente superables (por supuesto, decididamente perversos) cuando se aplican a manipular la realidad identitaria de las otras naciones que se encuentran dentro del Estado español. Algún sociólogo llega a considerar que ahora mismo España es, en buena medida, una obsesión morbosa por la cuestión identitaria, percepción ésta que bien podría encontrar su correspondiente aval en la abundancia de ítems con estos perfiles que llenan las decenas de encuestas que realiza el CIS. Y bien, una larga tradición que llega hasta nosotros desde el romanticismo alemán ha mantenido durante dos siglos largos la identificación entre lengua y nación, identificación que se ha manifestado especialmente productiva en nacionalismos como el catalán. Es la ideología condensada, por ejemplo, en el aforismo fusteriano “*la nostra pàtria és la nostra llengua*”, que enlaza con la conocida máxima de F. Pessoa “*minha patria é a língua portuguesa*”.

Parece ser, con todo, que entre los mecanismos identitarios que regulan la conducta de las generaciones de hoy el fenómeno lingüístico no tiene el protagonismo que le habíamos atribuido. De hecho algunas líneas de investigación sociológica actuales apuntan que había sido sobredimensionada la correlación clásica entre lengua e identificación nacional. Ahora bien, sea prioritaria y decisiva, o bien subalterna y complementaria, resulta innegable la función que ejerce el idioma en el proceso de autoidentificación, tanto de los individuos como de los pueblos. Y aquí quería llegar, al papel de vertebración social que desempeña la lengua. Esta función, en definitiva, logrará su mayor eficacia a medida que avance y se consolide el proceso de estandarización lingüística. Si la lengua cohesionara una colectividad humana, el progreso de la lengua estándar constituye un factor activo en el progreso de compactación social.

Sea como sea, a través de la estandarización el sistema lingüístico tiende a su nivelación interior, con la pérdida consiguiente de “particularidades” lingüísticas identitarias. A su vez, y en situaciones como las nuestras (la euskalduna o la catalana), el fenómeno de la globalización –o, a nivel inmediato, de la interferencia del español– erosiona constantemente los rasgos diferenciadores de las lenguas sumergidas, las cuales, en tal trance, corren el riesgo de diluirse, de integrarse, en el sistema que emerge sobre el panorama ambiental de la comunicación.

3. PANORAMA ACTUAL

Pasemos ahora a trazar el perfil de la estandarización en la sociedad catalana, para lo cual me planteo aducir aquí algunos aspectos básicos, tales como los siguientes:

3.1. Mapa político y demografía

3.2. Un modelo para una situación compleja

3.3. Las barreras de la autonomía

3.4. Iniciativas de estandarización

3.1. Mapa político y demografía



(fuente: L. López del Castillo, *El català a través dels temps*, p. 59)

En la zona más oriental de la península ibérica se sitúan los Països Catalans, un país que se extiende desde el sur de les Corberes y el Pirineo Central (en el departamento francés de los Pyrénées-Orientales) hasta el sur del río Segura y que está repartido entre tres estados, el español, el francés y Andorra, a los cuales todavía cabría añadir el enclave lingüístico italiano de la ciudad de l'Alguer (L'Alghero), en la isla de Cerdeña. El mapa lingüístico del catalán comprende, pues, el Principat de Catalunya, el País Valencià, las Illes Balears, más la Catalunya Nord, Andorra, la Franja (d'Aragó) y l'Alguer. La superficie global suma 68.730 km², con una población (1999) de 11.365.496 h.:


Catalunya	6.207.533
País Valencià	4.066.475
Illes Balears	821.820
Catalunya Nord	394.231
Andorra	65.971
Franja de Ponent	48.830
L'Alguer	38.316
TOTAL (1999)	11.365.496

Mientras que en Catalunya la Vall d'Aran es de lengua occitana, un tercio aproximadamente del territorio valenciano pertenece al dominio lingüístico del español.

Con el fin de aproximarnos un poco más a la realidad lingüística actual de la comunidad catalanófona, espero que nos sean de utilidad los datos que a continuación expondré. Corresponden al conocimiento declarado (por el interesado o por algún miembro de la familia) pero no contrastado mediante pruebas objetivas. No hace falta advertir que el valor informativo de estos porcentajes es fundamentalmente indicativo. En este sentido, la comunidad catalanófona de nuestros días suele estimarse en unos 7.200.000 individuos, grosso modo. (Puede resultar de interés la lectura de Marí 1993: 167-189 y de Pradilla (ed.) 1999).

CONOCIMIENTO DECLARADO DEL CATALÁN (%)

DEMOGRAFIA




	<i>Catalunya</i> ¹	<i>País Valencià</i> ²	<i>Illes Balears</i> ³
Lo entiende	95	82,1	88,8
Sabe hablarlo	75,3	50,6	66,7
Sabe leerlo	72,4	37,7	55
Sabe escribirlo	45,8	15,1	25,9

1 Población a partir de dos años inclusive, según la Enquesta Oficial de Població del 1996 (Farràs-Torres-Vila 2000).

2 Población a partir de tres años inclusive, según el censo del 1991 (Reixach 1997).

3 Población a partir de seis años inclusive, según el censo del 1991 (Reixach 1997).

CONOCIMIENTO DECLARADO DEL CATALÁN (%)



Sobre la competencia lingüística en catalán de los habitantes de la Franja d'Aragó (48.830, distribuidos en un territorio de 5.001,1 km²) no disponemos de datos globales, si bien constatamos que el catalán es la lengua de uso habitual en el ámbito familiar y en las comunicaciones informales (Huguet–Suïls–Carulla 2000). Por lo que respecta a Andorra el dato quizás más significativo para nosotros de la última encuesta disponible (del 1999; Camp 2000) es el 76,2% de la población que declara conocer el catalán *perfectamente, muy bien o bastante bien*. No olvidemos que en el ámbito comunicativo andorrano predominan cuatro idiomas: catalán, español, francés y portugués⁴. Referente a Perpinyà y su área de influencia, según la encuesta del 1997 (Becat 2000: 34), la población de la Catalunya Nord declara que sus competencias básicas en catalán son las siguientes: el 55% lo entiende; el 34% sabe hablarlo, y el 39% sabe leerlo. Por otra parte, el 38% opina que el uso del catalán en aquel territorio de administración francesa disminuye; el 24% opina que progresa, y otro 24% opina que se ha estabilizado. Finalmente, el estado de la lengua catalana en Alguer pone de manifiesto una situación sin duda límite. De acuerdo con los datos disponibles, aproximadamente el 35% de jóvenes, declaran conocerlo, un 10% manifiesta ser capaz de hablarlo y solamente un 5% asegura que lo usa, pero en cualquier caso relacionado con personas adultas (Bosch 1999: 272).

3.2. Un modelo para una situación compleja

Representarnos la comunidad catalanófono como una sociedad compleja no deja de ser una tautología. Con todo, si el recurso a la complejidad conserva algún valor didáctico es en la medida en que pone de relieve indicadores sociolingüísticos tales como los factores sociopolíticos e históricos que han dejado marcados los hábitos comunicativos de la comunidad catalanohablante, a la vez que establecen profundos desequilibrios sociales en el uso del catalán frente al estatus del español; además, también tiene sentido considerar compleja la comunidad lingüística catalana en cuanto que es capaz de mantenerse en pie a pesar de no disponer de estado propio. Tal défi-

4 Distribución (% de habitantes) de la lengua materna en la sociedad andorrana: catalán, 41%; español, 33%; 11%, portugués; 9% francés; 7% otras lenguas, especialmente inglés (Badia Gomis 2000: 159).

cit de soberanía, por otra parte, ha favorecido históricamente la aparición y difusión de factores que han propiciado la desintegración interna de la comunidad, a nivel político y, por tanto, lingüístico. Naturalmente, en estas condiciones, el establecimiento de la normativización del catalán había de resultar un proceso arduo⁵.

Este panorama de dispersión, debido en buena parte a la ausencia de resortes poderosos que pudiesen garantizar la cohesión de un espacio comunicativo propio, condicionó, por supuesto, el modelo de estándar de la lengua catalana, que fue diseñado, como es sabido, a principios del siglo XX por el Institut d'Estudis Catalans (IEC) –bajo la dirección del “seny ordinador de la llengua” Pompeu Fabra–, se pudo considerar consolidado durante la II República y mantiene su validez, sin duda, al ingresar en el siglo XXI. Es un modelo que podemos describir de inspiración monocéntrica (asentado sobre una norma básica aunque no excluyente); monocéntrico, pues, pero no unitarista (alejado de los casos clásicos del español, francés o italiano) sino más bien composicional, es decir, integrador de diversas soluciones tomadas de los dialectos territoriales, sobre el eje claro del dialecto considerado central, que gravita alrededor de Barcelona. Además, el perfil composicional de la norma catalana se define por su carácter no uniformizador sino polimórfico, en el sentido de compatibilizar soluciones alternativas aplicables a los distintos contextos territoriales. Supongo, pues, que este modelo de norma lingüística mantiene bastantes puntos de coincidencia con el del euskara batua. Con todo, no podemos ignorar una cierta tradición, dentro de la cultura catalana, que reivindica una codificación de la lengua de signo más bien policéntrico (los diversos “países” integradores dels Països Catalans tendrían competencia para proponer soluciones específicas) aunque tal diversidad de opciones normativas en ningún caso han de resultar incompatibles entre sí (Polanco 1984). Este policentrismo convergente cuenta con un arraigo notable en el País Valenciano y conduce, por ejemplo, a la reciente creación de la Acadèmia Valenciana de la Llengua.

Precisamente en el seno de la sociedad valenciana, los sectores que instigan y alimentan el conflicto lingüístico secular, promueven –en plena sintonía con su propia deserción idiomática– la difusión social del prejuicio secesionista, según el cual catalán y valenciano constituirían dos sistemas lingüísticos independientes entre sí. El prejuicio cuenta, para ser asumido sin excesiva oposición, con la ventaja que supone el hecho de que el nombre tradicional y popular que el catalán recibe en el País Valenciano es el de valenciano. Y conste que esta misma denominación es la que aplican, en exclusividad rigurosa, las instituciones valencianas, hasta el punto de que el IEC decidió incorporarla a sus estatutos⁶.

Y bien; a pesar de los particularismos que conviven en el interior de la comunidad catalanohablante, insisto en que el modelo de estándar por el que optó esta sociedad se manifiesta operativo. En efecto, el conjunto de la industria editorial (libro, prensa, canción, teatro, cine, audiovisual) se vehicula en los Països Catalans a través de un registro estándar altamente consolidado, un estándar que viene avalado, en términos abrumadores, por los distintos sectores de la cultura y, en concreto, por todo el universo que integran las universidades (Marí 1992). En este sentido, no podemos

5 “I l’estructura social, política, cultural i lingüística dels diferents països no sols era complexa sinó ben diversa [...] Mancava, en definitiva, no sols una clara i unànime consciència de comunitat lingüística, sinó la més mínima possibilitat de coincidència en una norma que semblàs partir del català” (Polanco 1984: 119).

6 Pleno del 12 de mayo de 1997: “S’entén que la llengua a què es refereix la lletra a de l’article 2 és la reconeguda universalment com a català per la romanística, sens perjudici de les seves denominacions populars i de la de valencià emprada per la Llei orgànica 5/1982, de l’1 de juliol, i per les disposicions legals que la modifiquen o que en deriven” (Disposició final que se incluía en los estatutos del IEC).

olvidar el papel valioso que ejerce l'Institut Joan Lluís Vives, la red que incluye trece universidades catalanófonas y que constituye un vínculo de coordinación oficial y estable de todo el reducto universitario.

Gazteek, *eon tzaiz lasai!*, *jun tzaiz!*

Honetan, 50 urte ingurukoek gazteek baino joera handiagoa dute adizki trinkoak erabiltzeko.

Subjuntiboa:

Hiztun helduek **edin* eta **ezan* erako adizkien erabilera askoz hedatuagoa dute oro har. Gazteek nominalizazio bidez adierazten dituzte adinekoek jaso dizkiegun adibideok; 50 urte ingurukoek ere ez dituzte adinekoek bezainbat erabiltzen era honetako adizkiak: *alaba eon tzeilla etxen* ‘egon zedila’, *eze pasa etzein* ‘ezer pasa ez zedin’, *lo in tzaun* ‘lo egin dezagun’, etab.

e) Sintaxia:

Konpletiboak egiteko adineko batzuek *-(e)na* atzizkia erabiltzen dute oraindik (adb.: *bagiñukun arek defendittuko giñuNA* ‘bagenekien hark defendituko gintueNA’; *banekiñ etzaNA etorriko* ‘banekien ez zeNA etorriko’, etab.). Gazteek ez dute hau inoiz erabiltzen, ezta 50-70 urteko hiztunek ere; aldaketa erabat gauzatu da honetan, eta *-(e)la* da bai gazteek bai helduek darabilten konpletiboko marka.

Erlatibozko perpausetan, ordea, gazteetan ohikoa ez den *-(e)n + (e)ko* egitura bai adinekoek eta baita 50-70 urteko helduek ere maiz erabiltzen dute (Adb.: *kultur etxea dauNEKO plaza ortan eongo gea*).

ONDORIOAK: ZALDIBIAKO EGOERA SOZIOLINGUISTIKOAREN BILAKAERA

Gramatika soziolinguistiko honek asko falta du oraindik guztiz osatua izateko. Atal batzuk sakonxeago aztertu ahal izan ditut, eskuartean nituen datuak ere ugariagoak zirelako. Beste atal batzuk, ordea, azaletik aurkeztu ditut eta datuak edo adibi-deak zerrendatzea da egin dudana (beti ere datu hauek adinekoen eta gazteen hizkuntza ereduak alderatzeko baliagarriak zirela irudituz).

Ez nuke, ordea, umezurtz utzi nahi artikulua hau, eta aurreikus dezakedana oso gutxi gora beherakoa bada ere, ondorio apal batzuk aurkeztu nahi nituzke lan hau amaitzerako. Egia da datu zehatzagoak beharko nituzkeela behin betiko ondorioetara iristeko; hala ere, orain arte esandakoek hipotesi bat osatzen lagun dezakete:

- Zaldibiako euskararen barne aldakortasuna aztertzean **adina** da eragilerik gogorrena; ez dut uste, ordea, 80 urteko lagunak hizkera eta egungo gazteen euskara konparatzea denik egokiena, hor aldaketa erabat gertatuta baitago, eta eragile nagusiak zein izan diren, aldaketa zein ingurune gramatikal eta soziolinguistikotan gertatu den jakin gabe geldituko ginatke. Interesgarriagoa deritzot aldaketaren arrastoari jarraitzeari; bestela esan, orain 80-70 eta 50-70 urte inguru dauzkaten pertsonen hizkerari begiratu, eta noiz, nola, zeinen aurrean eta zertarako darabilten aldaera bata edo bestea aztertzea. Horrela, hizkuntza baten egoerarik naturalenaren barreneko berezko aldaketa aztertzerantz irits ginatezke, baina herri batean, Zaldibian, euskara batuaren oldarrak zerikusetekorik ez duen garai bateko aldaketa gainera. Honelako iraultza baten aurretik izandako hizkuntzaren berezko jokaera da aztertu nahi dudana.

- **Auzotik auzorako** diferentzia ere aipatu dugu aurretik. Lehen hipotesi baten arabera, herritik gora dauden auzoetan bai hiztun zaharrek bai gazteek ere euskarari eta euskalkiari berari hobeto eutsi diote herritik Ordiziara bidean daudenek eta kale-

koek baino. Izan ere, komunikabide-sare garrantzitsurik ez da igaro Zaldibiatik, eta ez igaro izanak berak baldintzatu du hiztunen arteko hartu-emanak: goialdekoak lanera joateko bakarrik jaitsi izan dira, baina etxean bazen beti irten gabeko norbait. Gainera, asteburuetan Gaintza edo Abaltzisketakoekin gehiago zituzten harremanak. Behealdekoek berriz, Ordizia, Beasain eta herrira bertara lanera datozenekin harreman estuagoa izan dute.

- **Generoaz**, orain arte Zaldibian egindako grabazioetan bildutako datuetan ikusi duguna hau izan da: gizonak emakumeek baino aldakortasun handiagoa erakutsi dute zenbait hizkuntza ezaugarriren aurrean. Emakumeak egonkorragoak izan dira beti ezaugarri berdina erabiltzen. Esate baterako, *gabe/bae* partikulari dagokionez, herrian goialdeko auzoetakoak diren adineko emakumeak egonkor agertu dira *bae* aldaera erabiltzerakoan; gizonak, berriz, nagusiki *bae* aldaera erabili badute ere, horren ondoan *gabe*, *baiñ*, edo *be* aldaerak ere agertu dituzte. Azentu ereduetan ere, herrian goialdeko auzoetako adineko emakumeak izan dira lehenengo ereduari egonkor eutsi diotenak, eta hemen ere gizonetan nahasketa edo aukera gehiago ageri da.

Ez nuke adierazi gabe utzi nahi, hala ere, datu hauek interpretatzean sortu zaidan kezka bat: zenbait lan soziolinguistikotan adierazi den bezala, gaur adinekoak diren emakumeak etxetik irten gabe egon direlako eta gizonak kanpotarrekin harreman handiagoa izan dutelako, behintzat, zail da generoari dagokion banaketarik topatzen. Izan ere, belaunaldi hau ez da etxean egondako belaunaldi bat: emakumeak ere etxetik irten dira, dela azokara, dela neskame modura, eta beraz izan dute hartu-emanak kanpotarrekin ere. Esan liteke, ordea, hartu-eman hau gauzatu den ingurunea ez dela berbera izan gizonetan eta emakumeetan: izan ere, gizonak tabernan biltzen ziren asteburuero herriko zein inguruko lagunekin; emakumea, ordea, ez zen tabernan elkartuko lagunekin. Lanbideari dagokionez, gizonak kanpoko jendearekin hartu-eman handiagoa izan duela esan liteke; emakumeak, behin ezkondu eta gero, etxean egin beharko zuen nahikoa lan. Ez da harritzekoa, beraz, honek guztiak hizkuntzan arrastoa uztea.

Honen harira, guztiz interesgarria iruditu zait eskuartearen erabili ditudan lan soziolinguistikoetan genero bereizketa arrazoitzeko ematen den ikuspuntua¹⁴. Emakumeen hizkeraren arkaismo edo berrikuntza ez dago hainbeste sexuaren baitan, lurralde bakoitzean emakumeek duten bizimoduaren baitan baizik. Zenbat eta handiagoa izan sexu bien rolen arteko diferentzia, handiagoa da hizkuntza jokabideetako diferentzia (González Ferrero 1991: 62).

Azentukerari dagokionez ere, behin datuak aurkeztuta, nire hipotesia agertu nahi nuke hemen. Pentsa liteke 50 urte inguruko helduek edo gazteek berrikuntza bat egin dutela: alegia, adinekoen azentukera konplexua [+2] eta [+1], baina baita [+3] eta [+4] ere, gazteagoek [+2] eta [+1]-era soildu egin dutela eta beraz, azentukera horren ezaugarri batzuk -[+3] eta [+4]- galdu egin dituztela; ondorioz, soiltzea eta erregelaren bat galdu izana bera dirudi dela berrikuntza, ez adinekoen jarrera. Izan ere, aintzat hartu beharrekoa da zail dela adinekoek berrikuntza bat egitea eta 50 urte inguruko helduek ez jarraitzea, zeren berrikuntza hori garai hartan zahar ez ziren

14 Villena Ponsodak artikulu oso bat du gai honen inguruan ('Las consecuencias lingüísticas de ser una mujer. Notas para la intervención teórica en el campo de la conexión entre la lengua y el sexo'); eta funtsean berak egindako galdera honetan dagoela deritzot arazo honen arrazoien funtsa: *¿Es el discurso femenino arcaizante per se y el masculino innovador o más bien depende tal diferencia de los tipos y propiedades de sus pautas de relación social?* (1990: 156).

egungo adinekoek egina balitz, ziurrenik egungo helduek ere erabiliko zuten. Hor naturalena da, orain heldu diren horiek gazte denboran edo, berrikuntza bat abiaraztea, egun gazteek jarraitzen dutena.

- Zaldibiarrek eta euskara¹⁵:

Bat datoz adineko guztiak gaurko euskarara egon den aldaketa baieztatzerakoan. Datu hauek soziolinguistikoki duten garrantzia nabarmendu nahi dut, hemen. Guztiz garrantzizkoa da *azken fiñean, lanen dau*,... bezalako esapideek hiztun zaharrei belarriko mina ematen dietela esplizituki beraiei jasotzea, agerian uzten baitu hiztun hauek jabetzen direla hizkuntza nola ari den aldatzen eta ez dituztela begi onez hartzen gazteleraren eraginez sarturiko esapide hauek.

Izan ere, hainbat gazteren artean, euskaraz aritu arren gero eta nabarmenagoa da gaztelerazko esaldi edo moldeak erabiltzeko joera, eta niri behintzat zer pentsatua sortzen dit horrek. Telebistak, herritik maizago eta garaizago irteteak, edo euskalduntasunarekiko kontzientziarik ezak, besteak beste, zerikusi zuzena dutela honetan esango nuke. Etxean ditugu gaur egun ordenagailu, bideo-jolas eta erosotasun guztiak; honek kaleko bizimoduari eta euskarazko hartu-emanei mesede handirik egiten ez dielakoan nago. Bestalde, beti esan izan da euskarak ez duela gazteentzako hizkera eredu berezirik, helduen hizkeratik bereiztuko duenik, eta horrek ere eragin ohi du zenbait egoeratan erdal esapide batzuetara jotzea.

AMAITZEKO

Tesi bat egiteko bidean hasierako urratsak besterik ez ditut eman, eta denborarekin nire hipotesiak argitzen joango direla espero dut. Lanari osotasuna emateko, beraz, bai alde teorikoan eta bai praktikoan zer jorratua badago oraindik.

70-80 urte inguruko zaldibiarrekin hasitako lanaren jarraipenak zer interes duen azaltzen saiatu naiz aurretik: 50-70 urte dauzkaten pertsonen hizkerari begirata, aldaketaren arrastoari jarraitzeak du interesa, horrela, hizkuntza natural baten barreneko aldaketa propioa aztertzea iristeko. Euskara Batuaren aurreko egoera naturala da bilatu nahi dena, eta egoera edo garai hartan aldakortasunaren funtzionamendu soziolinguistikoa zein zen aztertu. Konparazioko terminoak, beraz, bi eta are hiru belaunaldietan ageri diren hizkuntza aldaerak izan beharko dute lan honen etorkizuneko ataletan.

Bestalde, Soziolinguistikaz dudak ikuspegia azaldu nahi izan dut, labur izanik ere, artikulu honetan. Era berean, lagungarri gertatu zaizkidan eta eskuartearen erabili ditudan zenbait egileren hipotesien berri ematen ere ahalegindu naiz. Helburu nagusia, ordea, Zaldibiako euskararen hizkuntza aldakortasuna ageri duten aldagaiak deskribatzea eta datu horien inguruan irakurleari nire hipotesien berri ematea izan da.

¹⁵ Hizkuntzaren jakintza-mailari dagokionez, Zaldibian hizkuntza aukera bakarra dugu: salbuespenak salbuespen (kanpotik etorritako familiak) hiztunaren ezagutza euskaraz da aberatsena, eta hiztuna euskaraz erosoago ari da edozein egoeratan gazteleraz baino.

Zaldibiako euskaldun kopuruari dagokionez, datu zehatzago batzuk baditugu hemen (3. eranskina).

1996koak dira Eustat-ek kaleratu dituen azken datuak; lan hau argitaratzerako, ziurrenik, neurketa berriagoak aterata izango dira.

BIBLIOGRAFIA:

Eskuliburu klasikoak eta antzekoak:

- GONZÁLEZ FERRERO, J.C., (1991). *La estratificación de una comunidad semiurbana: Toro (Zamora)*. Salamanca: Universidad de Salamanca.
- LABOV, W., (2001). *Principles of linguistic change. Social factors*. Oxford: Blackwell.
- LÓPEZ MORALES, H., (1993). [1989], *Sociolingüística*. Madrid: Gredos.
- MILROY, J., (1992). *Linguistic variation & change*. Oxford: Blackwell.
- MORENO FERNÁNDEZ, F., (1990). *Metodología sociolingüística*. Madrid: Gredos.

Artikuluak:

- BOIX, E., (2000). 'Soziolinguistika: eremuaren ikuspegi orokorra', *Bat* 37, 11-29.
- ROMAINE, S., (1994). 'Sociolinguistics', in Asher eta Simpson (arg.), *The Encyclopedia of Language and Linguistics* VII: 4.005-14, Oxford - New York - Seul-Tokio: Pergamon Press,
- VILLENA, J. A., (1990). 'Las consecuencias lingüísticas de ser una mujer. Notas para la intervención teórica en el campo de la conexión entre la lengua y el sexo', in *La mujer en el mundo contemporáneo. Realidad y perspectivas*. Málaga: Diputación provincial, 149-191.

Euskararen inguruko eskuliburuak eta bestelakoak:

- CAMINO, I., (1997). *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- HUALDE, José I., (1997) *Euskararen azentuerak*, [ASJUren gehigarriak XLII], Donostia - Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia & EHU.
- Udalerrikako estatistika informazioa: <http://www.eustat.es>

Udalerrri baten informazioa: = Zaldibia
Biztanleriaren hizkuntza-bilakaeraren tipologia = (urte). 1996

	Biztanleria	Euskaldun-zaharrak	Jatorrizko elebidunak	Euskaldun-berriak	Partzialki euskaldunberriak	Partzialki = erdaldunduak	Guztiz erdaldunduak	Erdaldun-zaharrak
(T) Gipuzkoa	647.977	235.659	26.633	60.161	72.187	17.432	5.765	230.140
(C) Goierrri	61.893	28.335	2.286	6.140	5.090	1.158	293	18.591
(M) Zaldibia	1.503	1.269	6	61	40	7	2	118

Biztanleriaren etxeko hizkuntzaren erabileraren = tipologia (urte). 1996 (1)

	Guztira	Euskaldunzaharrak		Jatorrizko = elebidunak		Euskaldunberriak		Partzialki euskaldunberriak		Partzialki erdaldunduak						
		Euskaraz aktiboak	Euskaraz pasiboak	Euskaraz aktiboak	Euskaraz pasiboak	Euskaraz aktiboak	Euskaraz pasiboak	Euskaraz aktiboak	Euskaraz pasiboak	Euskaraz aktiboak	Euskaraz pasiboak					
(T) Gipuzkoa	412.072	170.265	48.124	17.270	2.240	17.146	7.247	2.795	10.185	47.181	0	6.755	65.432	52	6.559	10.821
(C) Goierrri	43.009	21.371	5.547	1.417	157	1.650	479	288	1.532	4.320	0	895	4.195	0	574	584
(M) Zaldibia	1.383	1.182	76	11	0	4	2	8	16	37	0	13	27	0	3	4

(1) No se incluyen ni los Totalmente = castellanizados ni los Castellanofonos

Fuente: II Mapa = sociolingüístico. Departamento de Cultura (Viceconsejería de = Polifónica Lingüística)-EUSTAT.

Administrazioko hizkeraren oraina eta geroa

Joseba Lozano

HAEEko administrazioko hizkeraren arduraduna

“Administrazioa” hitza aipatzen denean, bati baino gehiagori honako irudiak etortzen zaizkio burura: “bulegoa”, “dekretua”, “egonean eta trabak jartzen dabilen funtzionario garratza”... Ez dut ukatuko nik badirela arrazoiak horrela pentsatzeko, baina topikoak topiko, gauza bat aitortu beharrean gaude: une honetan, euskararen normalkuntzaren zamarik astunena Administrazioak hartzen du bere gain; gehiago esango nuke: gure hizkuntzaren iraupena eta sustapena, neurri handi batean, Administrazioaren eskuetan daude.

Izan ere, Administrazioaren besoak (“hatzaparrak” esango luke zenbaitek) gizarte esparru guztietara zabaltzen dira, eta horregatik, administrazioko hizkeraz hitz egiten dugunean, ez gara mintzatzen ari, ez horixe, leihatila baten atzean pilatutako ofizio, akta eta horrelako agiriez bakarrik. Nekazaritza ere Administrazioaren zati bat da, ezta? Eta berdin, osasuna, hirigintza, kirola, turismoa, irakaskuntza, EITB... Esparru horiek guztiak kudeatzeko paper mordoak sortzen du Administrazioak, egungo egunean euskarazko testu gehienak, dudarik gabe, eta idazki horietako asko eta asko ez dira “teknikoak”, oso “arruntak” baizik: umeentzako udalekuei buruzko informazioa, zaharrentzako bidaiak, liburutegiko arauak, osasuna zaintzeko kanpainak eta abar.

Esandakoagatik guztiagatik zalantzatan jarri behar dugu adituek administrazioko hizkerari buruz egiten duten definizioa: beraien ustez, teknolektoa da administrazioko hizkera, eginkizun berezietarako aldaera, adituen arteko komunikaziorako tresna, erabilera-esparru jakina (Administrazioa) eta berezko ezaugarriak (esamoldeak, terminologia...) dituen.

Egia da Administrazioak hizkera berezia erabiltzen duela, batez ere, zenbait dokumentu motatan; baina, ikusi dugunez, idazki askotan oso testu “estandarrik” sortzen ditu edo, zuzenago esateko, sortu beharko lituzke. Eta “beharko” esaten dut zeren eta Administrazioak bere komunikazioetan egiten duen okerrik handiena hauxe baita: teknolektoan oinarritutako mezuak kaleratzea; hau da, Administrazio barruko diskurtsoa –eta horrek askotan dakarren guztia (testu korapilatsuak, akastunak, ulergaitzak)– herritarrekiko komunikazioetan erabiltzea, kontuan izan gabe herritarrak ez dakiela kode hori deskodetzen, eta garrantzitsuena, ez duela zertan jakin.

Zergatik hitz egiten dio Administrazioak herritarrari esaldi luze eta inpersonaletan, perifrasi bidez, kalkoz beterik...? Arrazoi ugari dago horretarako: gaztelaniarekiko morrontza, agintari eta funtzionario askoren axolagabekeria, hizkuntza prestakuntza falta etab. Hori guztia salatu dugu batzuek behin eta berriro; zoriez, badirudi zenbait administrazio ohartzen hasiak direla komunikazioak daukan garrantziaz, eta neurriak hartu dituzte administrazioeko hizkera berritzeko eta demokratizatzeke. Hor daude, esandakoaren erakusgarri, oraindik ere argitara eman diren eskuliburuak, eskaini diren ikastaroak, moldatu diren idazkiak eta abar.

Baina saio horiek txalogarriak izan arren, bada gauza bat, bere horretan irauten duena, eta nik esango nuke hori dela Administrazioaren komunikazioetako kontraesanik nabarmena. Hona hemen: herritarrentzako idazki asko aurreko dokumentu batzuetan oinarritzen dira (dekretuak, legeak, txosten teknikoak...), eta dokumentu horiek, salbuespenik gabe, erdaraz eta barruko teknolektoan idazten direnez, kaleratu beharreko testuak erabat kutsaturik ateratzen dira. Horregatik gertatzen zaigu hain zail, esate baterako, Errenta Aitorpena edo beste hainbat agiri gure kontu betetzea; hain zuzen ere, mila dekretu, lege eta arauetan dituztelako erroak.

Une honetan, Administrazioaren hizkuntza-saio gehienak, guztiak ez badira, kanpora begira egiten dira, barruko arkanoa nahita edo nahigabe ahazturik. Antza, ez gara konturatzen zabarkeriaz idatzitako testu horiek zipriztindu baino, zikindu egiten dituztela arian datozen iragarkiak, bandoak, gutunak, informazio-orriak... Hori kontraesana! Benetako komunikaziorako balio ez duten testuak idatzi... gero moldatu behar izateko! Testu “alternatiboak” asmatzen ibili ardurazko zer edo zer adierazi nahi dugunean edo jende askorengana heldu, baina aurretik, benetan behar denean, nekerik hartu ez!

Aldeak alde, ez al zitzaion antzeko zerbait gertatu Elizari hainbat tokitan? Herritarrek latinez ulertzen zuten bitartean ondo funtzionatzen zuen meza latin hutsez. Baina mendeak aurrera egin ahala, jendeak latinez ulertu ez, eta erdiko bidea hartu behar izan zuen Elizak: Jainkoaren hitzak latinez, eta sermoia, herritarren hizkuntzaz. Horretan gaude orain Administrazioan. Hitzik sakratuenak, gure hizkeran, gure terminoekin, segurtasun juridikoaren izenean; baina, hitz horiek jendeari ezagutarazi behar dizkiogunean, orduan, zerbaitek aholkatzen digu herritarren hizkerara makurtzeko.

Kontraesan horretan murgilduta daude administrazioak. Zer egiten dute aurre egiteko? Ba... euren artean denetarik dago. Batzuek, ezer ez. Beste batzuek beren herri-langileen momentuko inspirazioaren esku uzten dute testu kriptikoak “itzultzearen” erantzukizuna; lan horren arrakasta edo porrota, jakina, langile horien trebetasunaren arabera izaten da. Bestalde, egon, badira ere, hizkuntza bitartekari/estilista/ingeniariengana jotzen dutenak, jatorrizko testuetan egindako aldrebeskeria guztiak konpon ditzaten. Baina, zenbat dira azalak apaintzera baino harantzago doazenak? Zenbat, itxura oneko sagar ustelak saltzen ez dizkigutenak?

Historiak erakutsi digu zein bide hartu behar izan zuen azkenean Elizak: Jaungoikoa tokian tokiko hizkuntza mintzatzen jarri; eta halaxe egin behar du Administrazioak ere, hori guzti hori, orain nagusi den gehiegizko teknifikazioa saihesteko. Izan ere, ez al da errazagoa testu “txikiak” elikatuko dituzten testu “handien” kalitatea zaintzea? Goazen urrutirago. Ez al litzateke erosoagoa hizkera administrati-

boa estandarera hurbiltzea behin betiko, eta kazetaritzaren, publizitatearen eta beste diskurtso-mota batzuen baliabideak bereganatzea? Zergatik ez ditu Administrazioak bere gauzak jakinarazten telebistan, irratian edo prentsan egiten duten moduan? Zergatik ez egokitu mezuak hartzailaren ezaugarri komunikatiboetara eta erabili azalpenak, definizioak, adibideak, irudiak,... Noiz aldatuko dizkiegu itxura eta estiloa boletinei, herritarrak irakurtzen ausartu daitezen?

.....

Ikusi dugu, azal-azaletik bada ere, zein den administrazioiko hizkeran gertatzen ari diren aldaketak; baina benetako iraultza, dena goikoaz behera irauliko duena aurrerapen digitala da. Bai, honetaz zerbait esan nahi dut saio honen bigarren zatian: alegia, idazketa digitalak komunikazioari berari eta baita administrazioiko hizkerari ere ekarriko dion jauzi kualitatiboaz. Begira dezagun zertaz ari garen:

Teknologia berriak erruz sartu dira gurean

Esan dugun bezala, azken urte hauetan iraultza izugarria gertatu da gizartean: teknologia berriak munduko txokorik txokoenera ere heldu dira, baita Administrazioa ere, jakina. Gaur egun oso gutxi dira –baten bat gelditzen bada– ordenagailurik ez duten administrazioak, eta berdin gertatzen da internetekin. Erakunde handienek beren orrialdeak zabaldu dituzte sarean, eta horrek, nahitaez, aldaketak ekarriko ditu zerbitzuak ematean, kudeatzean eta baita Administrazioak erabiltzen duen hizkeran ere. Makina elektronikoen batera “hizkuntza kontrolatua” etorriko zaigu; programa informatiko berriek plantilen bidez lan egiteko aukera eskainiko digute, eta funtzionarioek gero eta askatasun gutxiago izango dute testuak idazteko orduan, izan ere plantila horien diseinua eta kontrola aditu batzuen esku egongo da.

Herritarrak bide elektronikotik jarriko dira harremanetan Administrazioarekin

Orain arte Administrazioarekin konturen bat hasi nahi zuen edozein herritarrek bulego batera joan, leihatila aurrean jarri eta funtzionarioen laguntzaz bete behar zituen hango inprimaki korapilatsuak. Gauzak, ordea, aldatzen hasi dira, eta abiadura handiz aldatu ere. Gizarte-esparruak kudeatzeko leiho bakarra eta birtuala izatea da Administrazioaren asmoa. Horiek horrela izanik, herritarrak bere etxetik eta ordenagailuaren bidez eskatuko ditu diru-laguntzak, erroldatze-ziurtagiriak edota isunak ez ordaintzeko inprimakiak. Jakina, herritar horrek ez du inor izango aldamenean, zernola bete behar duen esateko, eta horregatik, behar-beharrezkoa izango da azalpen argiak eta hizkera kontrolatua (adituek zaindutakoa) erabiltzea.

Teknologiak aurrera egiten du etengabe, eta orain sinestezinak iruditzen zaizkigun gauzak errealitate izan daitezke epe laburrera, eta teknologiaren alorrean “epe laburrera” esateak “bihar goizean” esan nahi du. Jar dezagun adibide bat. Ikastetxeek astero-astero hamaika paper ematen diete umeei, etxera eraman dezaten: zorrien aurkako kanpainak, kultur ekintzei buruzko informazioa etab. Oraindik ere, eskola gutxi du web-orria, eta herritar gutxi, ordenagailua etxean. Baina harritzekoa litzateke bihar-etzi denok ordenagailua izatea eta mezuak interneten bidez bidaltzea? Eta interneten bidez egiten bada, zein informazio jasoko du herritarrak: testu idatzi arrunta? Ikonoz lagundutako testu idatzia? Ikastetxeko zuzendariak irakurritako testua?

Aurkezle birtual batek ahoz emandako mezua, entzuleak erantzuteko eta galdetzeko aukera izango duelarik? Geroak du hitza.

Hizkuntza digitalak ezaugarri berriak ditu

Daniel Cassany irakasle kataluniarrak ongi asko aztertu ditu iraultza digitalak hizkuntza erabileran duen eragina. Ikus ditzagun ohiko komunikazioaren eta komunikazio digitalaren arteko alde batzuk:

OHIKO KOMUNIKAZIOA	KOMUNIKAZIO DIGITALA
Mugatua	Mugagabea
Presentziala	Birtuala
Geldoa	Azkarra
Garestia	Merkea
Hizkera plano	Hizkera multimedia (irudiak, ahotsa)
Testu itxia	Testu irekia
Linealtasuna (norabide bakarra)	Norabide ugari
Ealdien inguruko antolaketa	Sintagma isolatuak, mezuak multzoka

Argi ageri denez, etorkizuneko komunikazio elektronikoa interaktiboa izango da, hizkera errazagoa eta informagoa erabiliko du, eta baita ikono ugari ere, herritarren norabidea gidatzeko. Irudiaren aroa datorkigu, oraingo idazkera fonetikotik aitzineko idazkera piktografikora bueltatuko bagina bezala.

Administrazioaren jokabidea aldatu da

Administrazioa ez da dagoeneko erakunde ahalguztiduna, ororen gainetik dagoena, baizik eta herritarren zerbitzurako tresna bat, eta, aitortu dezagun bide batez, herritar horiek beroiek ordaindutakoa. Jokaera berriaren ondorioz, Administrazioa da herritarrengana jotzen duena informazioa ematera. Bera sartzen da behin eta berriz herritarren etxeetan –baita askotan baimenik gabe sartu ere–, eta horrek komunikatzeko modua moldatzea eskatzen du ezinbestean. Kudeaketa erraztu nahian, Administrazioak ez du lehen bezala herritarra paper zuri baten aurrean bakarrik uzten, idatzi beharrekoa asma dezan. Aitzitik, herritarrari besotik heldu eta dena egina ematen saiatzen da Administrazioa. Idazki asko ez dira lehengo paper beldurgarriak (gogoratu instantziak), ordenagailuaren bidezko galdera-erantzunak baizik. Herritarrak blokeka ematen du Administrazioak eskatzen dion informazioa, beti gidatuta, beti zainduta. Horrelako aplikazio informatikoetan diru dezente gastatzen ari da Administrazioa, baita herri-langileak prestatzen ere, beren hizkuntza kalitateak hobera egin dezan.

Lehia sortu da administrazioen artean

Ez hain aspaldi, administrazio bakoitzak bere kasa jardun ohi zuen; baina azken denboraldian gero eta estuagoak dira horien arteko hartu-emanak eta batera egiten dituzten lanak. Udalak elkarrekin aritzen dira sarritan, Foru-aldundiekin, Erkidegoko sailekin, Estatuko eta Europako erakundeekin... Harreman horiei esker, informazioa trukatu egiten diote elkarri; administrazio bakoitzak badaki nola egiten duen lana

aldamenekoak, zer-nolako agiriak eta hizkera erabiltzen dituen. Horrelakoetan, hala-ko elkarreragina sortu ohi da erakundeen artean, eta komunikazioaren arloan aurreratu-
tuen dabilenak estiloa kutsatzen die besteei.

Elkarren lehia areagotu egiten da, administrazio horiek hizkuntza batean baino gehiagotan lan egiten badute. Hori da Kanadako kasua eta, neurri apalagoan, baita gurea ere. Menpean dagoen hizkuntza (frantsesa Kanadan, euskara Euskal Herrian) gogor saiatzen da bezeroak bereganatzen, hau da, irakurleak erakartzen, eta horretarako, hizkuntza zaindua, diseinu erakargarria eta horrelako baliabideak erabiltzen ditu. Hizkuntza menperatzailea laster konturatzen da berrikuntzaz eta ez dio inolako lotsarik ematen txikiak jorratutako bide berriak abiatzeak. Norgehiagoka horretan argi dabilena garaile aterako da.

Funtzionarioaren sentsibilitatea aldatu da

Administrazioa larrua berritzen ari da, begi aurrean dago. Urte gutxi barru funtzionario izango direnek zerikusi gutxi izango dute mende luzeetan iraun duen topikoarekin: leihatila baten atzean lo kuluxka egiten duen alferrontziarekin, alegia. Funtzionario berriak gazteak izango dira, kultura demokratikoan jaiokak, eta kezkatu egingo dira herritarren arazoekin; beren garaiko seme-alabak izango dira, eroso jardungo dute teknologia berrieekin eta arrotz egingo zaie administrazio oraingo hizkera mordoiloa. Horrek, zer esanik ez dago, erraztu baino bultzatu egingo du administrazioa hizkeraren iraultza.

Baina, Administrazioa ez da bere burua prestatzen ari den bakarra; herritarra ere ez dago lehenagoko tokian.

Herritarrak ezagutu eta erabili egiten ditu teknologia berriak

Eroso murgiltzen da sarean, bere etxetik mugitu gabe, bakardadean, eta posta elektronikoz baliatzen da bere lagunekin eta erakundeekin harremanetan jartzeko; komunikabideen magalean hezi eta hazia da; bere inguruan milaka telebista, irratia eta web-orri berri sortzen dira egunero, eta ohituta dago beraiek eskaintzen dizkioten mezu-motekin; ez, ordea, Administrazioa antigoaleko hizkera eta esamoldeekin.

Herritarraren kultura mailak gora egin du

Kulturaren demokratizazioarekin batera, ia herritar guztiak izan dute sarbidea eskolan. Dena dela, irakurle gehiago izateak ez du esan nahi jendeak gehiago irakurtzen duenik, eta are gutxiago, Administrazioaren idazki kriptikoak deszifratzeko gauza denik edo gogorik daukanik. Telebistaren lagun mina denari nekeza eta aspergarri egiten zaio orrialde pare bati aurre egitea, eta zer esanik ez, "literatura" hori Administrazioak sortua bada. Hortik datoz enpresa pribatuaren saioak herritar gazte horiek irudien eta soinuen bidez erakartzeko. Administrazioa, lotsati samar, baina hasi da sartzen zurrumbilo horretan. Atzera bueltarik ote du horrek?

Herritarra modu informalagoan ohituta dago

Arrazoi ugari direla-eta (izandako heziketa, posta elektronikoaren erabilera...) aldatu egiten dira lehenagoko formaltasunaren ardatzak. Administrazioaren ohiko eti-

keta hankaz gora geratu da neurri handi batean, eta horrek ondorioak izan behar ditu nahitaez administrazioiko hizkeraren bilakaeran.

Herritarrari ez dio beldurrik ematen kritikatzek

Kritikatzeke aukera hori, gehienetan, Administrazioak berak sustatu du, eta harrera ona izan du, zalantzarik gabe. Garai honetako herritarrak ez ditu berez eta besterik gabe Administrazioaren jardunak onartzen. Zerbait gaizki iruditzen bazaio edo ulertzen ez badu ez da isilik geratzen lehengo moduan; aitzitik, salatu egiten du gaizki egindakoa eta, beharrezkoa denetan, behar den tokira jotzen du auzia argitzeko. Alde horretatik, ondo atondutako idazkiak estrategia onak dira Administrazioarentzat.

.....

Orain dela zazpi urte hasi ginen HAEEn, besteak beste, garai hartako administrazioiko hizkeraren gehiegikeriak salatzen. Lagun askoren izerdiari esker administrazio handi eta txiki gehienek, komunikazio beharrak bultzaturik, lanak egin dituzte hizkera hori sendabidean sartzeko; baina, saio horiek, orain arte bederen, komunikazio arruntenetan edo erabilienetan egin dira, testu “estrategikoak”, momentuz, kanpoan utziz. Kalitatea, ordea, ez da erabatekoa izango, testu “handi” horiek euskara jatorrez eta erdararekiko murruntzaren hautsa astinduz idazten ez ditugun bitartean.

Hitzaldiaren hasieran esan dugu Euskal Administrazioa dela, gaur egun, euskaraz testu gehien plazaratzen duena, eta, hortaz, erreferentzia bihurtu zaigu hizkuntz korpusa normalizatzeko prozesuan. Bide horretan, adi egon behar dugu geroak zer ekarriko, eta zuzen eta beldurrik gabe begiratu iraultza digitalari. Ezin gara betiko moduan gelditu besteek egingo dutenaren zain: honetan, behintzat, aurrea hartu beharra dago. On bazaigu ala ez bazaigu, hori da etorkizuna, eta horretarako prestatu behar dugu gure euskara zaharra.

Euskara Batuaren eta euskalkiaren arteko harremanen bilakaera irakaskuntzaren ikuspuntutik

Julian Maia

*Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saila
Irakasleen Unibertsitate Eskola Bilbokoa
UPV/EHU*

SARRERA¹

Gaur eguneko euskara batua izeneko hizkuntz ereduaren oinarriei, Euskal-tzaindiak 1968an eman zien hasierako onespén akademikoa. Orduan, gizartean borroka gogorrak izan ziren zein ote zen modurik egokiena euskara indartzeko: eredu elkarretaratzaille berriaren inguruan indarrak bildu, edo euskalkiak landu eta sendotu. Tarteko bide ñabarragoak eta orekatuagoak ibiltzearen aldeko jarrerak ere izan ziren, baina halere auzia polarizatu zen, eta elkarren kontrako bi aukera agertzen ziren, praktikan tarteko bideentzat eta bizikidetzarentzat toki handirik gelditzen ez zelarik.

Gaur egun, ordea, euskara batuaren eta euskalkien arteko auzian iritzi aldaketa gertatzen ari da gizartean: euskara batuaren oneste osoarekin batean euskalkien tratamendu egokia ere albora ezinekotzat jotzen du aunitzek, euskararen normalkuntza prozesuaren baitan. Irakaskuntzaren esparruan ere gisa bereko bilakaera ageri da. Aldabide horretan garai batzuk bereizteko saioa aurkeztuko dut, alde batetik, eta bestetik proposamen baten ildo nagusiak agertuko ditut.

Horretaz gainera, azalduko da euskara batuaren eta euskalkien arteko harreman horiek nolako trataera izan duten irakaskuntzaren esparruan, hartarako ikastetxe batzuetako jardunaren berri laburra emanez, alor horretako arribidea adierazteko balio dezakeelakoan, orientabide gisa.

EUSKARA BATUAREN ETA EUSKALKIAREN ARTEKO HARREMANEN BILAKAERA (1968-2000)

Etenik gabeko prozesu batean garaikatzea ezartzeak beti nolabaiteko tekua artifiziala badakar ere, eredu horien arteko harremanetan hiru aro bereizi ikusi uste izan ditut.

¹ Txosten honen oinarria, joan den urteko ekainean EHUan aurkezturiko tesi bat da (Maia 2000).

Lehenbizikoak, 1968tik 1982a arteko urteak hartuko lituzke. Garai horren ezaugarri nagusia da orduan bizi zen borroka giroa. Euskara batua onartzeak ezinbestean edo eramaten zuen euskalkien balioa ukatzera; eta beste aldetik, euskalkien balioa aldarrikatzeak eredu bateratzailearen kontrako jarrerara eramaten zuen besterik ezin balitz bezala. Ez zen biderik asmatu eredu ustez kontrajarri horien arteko bizikidetzarentzat. Borroka horren ondorioetako bat izan zen euskara batua modu zurrun eta estuan ulertzeko joera, eta euskalkien ezaugarriak eredu horretan nekez onartzekoa. Garai honetan, irakaskuntzako proposamenek ez dute ñabardura handirik, oro har: euskara batuaren kontrako eredu gisa, euskalkiak aldarrikatzen dira (Arenaza 1974, Latiegi eta Oñatibia 1982). Izan ziren iritzi orekatuagoak ere, baina ez zuten nonbait atxikimendu aski bildu gizartearen (Villasante 1977, Zarate 1978, Euskaltzaindia 1979a eta 1979b, Carlos Santamaria 1979...).

Bigarren aroari igarotze aldia esaten diot, eta mugak 1982 eta 1988 urteak proposatzen ditut. Bigarren aro honen mugarritako, honako gertakari hauek hartzen ditut, besteak beste: Hezkuntza Sailak 1982ko urrian eginiko adierazpena hasiera gisa, eta amaiera Koldo Zuazoren tesiaren ondorioetako jarrera (1988). Garai horretan, euskalkien berpiztea sumatzen da alde batetik, baina bestetik kezka, mugimendu horrek euskara batuari kalte besterik ez ote zion ekarriko. Joera bikoitz hori ongi ageri da 1984ko eguberrietan, Eibarko Udalak antolatu zituen jardunaldietan, Euskara/Euskalkiak izenburua izan zutenak. Irakaskuntzan, Agirre, Eguzkitza, Idiazabal eta Larringanen lana izanen genuke adierazgarria, 1985ean. Hartan euskalkiaren balioa goresten da, baina ñabarduraz osatuagoa aurkezten da: alde batetik, lurralde eta ikasle euskalkidunak hartzen dira aintzat bereziki; bestetik, arrazoi psikopedagogikoen bidez egiten da argudioa; azkenik, euskara batuaren balioak onartzen dira, zenbaiten ustez uzkur samar bada ere.

Hirugarren garaia hasiera, berriz, 1988aren inguruan kokatuko nuke, eta gaur egun horixe da indarrean. Honen ezaugarri nagusia da gizartearen maila teorikoan gaintzen hasten dela euskara batuaren eta euskalkiaren arteko aurkaritza ustez ezinbestekoa, eta gero eta gehiago agertzen direla eredu bien arteko osagarritasuna aldarrikatzen duten iritziak, eta baita ekimen praktikoak ere ildo horretan. Jose María Sánchez Carriónen oinarriko teorizazioa garrantzi handikoa iduritzen zait (1986 eta 1987). Garai honetan azaltzen diren iritzi-proposamenetan, euskara batuaren beharra onartzetik abiatuta, esan daiteke inork ere ez duela maila teorikoan euskalkien balioa ukatzen, alderantziz baizik. Baina hala ere ñabardura gehiago agertzen da jarreretan: ahozko eta idatzizko jardunak bereizten dira, eta hizkuntza mailak edo erregistroak ere kontuan hartzen dira, esate baterako. Bestalde, ez da euskara batuaren edo euskalkiaren aldeko erabateko apusturik egiten, eta eztabaidatzen diren puntuak gisa honetakoak dira: zein lurraldetan da onuragarri euskalkia erabiltzea? Zein irakas-mailatan? Ahozko kodean edo/eta idatzian? Zein euskalki eredu baliatu? Zer helburu du euskalkia erabiltzeak? Nolako euskara batua erabili behar da eskolako jardunetan? Garai honetako iritzien adibideak dira Uruburu (1993), Goikoetxea (1996, 1997 eta 2001), Elexpuru (1996), Maia (2000), Zuazo (1989, 1993, 1999a, 2000).

Euskara batua bai, eta euskalkia ere bai, baina toki batzuetan (proposamena)

Txosten honen oinarria den lanean gogoeta teorikoa egiten genuen, hizkuntza eredia hautatzeko orduan kontuan hartu beharreko faktoreez. Honako hauek genituen gogoan: 1) eskolaren zeregina eta funtzioak; 2) irakasleen prestakuntza eta jarrera; 3)

ikasleen jatorrizko ezaugarri linguistikoak; 4) arrazoi politiko-ideologikoak eta arrazoi didaktikoak; 5) euskal hizkuntzaren eredu desberdinak (euskara batua, euskalki literarioa, eskualdeko berbeta eta herrian herriko hizkera); 6) material didaktikoa.

Faktore horiek aztertuta, proposamen bat aurkezten genuen, honako puntuotan bil daitekeena: 1) eskolan euskara batua ikasi-irakatsi behar da, baina inguru euskalkidunetan euskalkia ere bai, arrazoi birengatik: batetik, eredu bakoitzak komunikazio funtzio bat betetzen du, eta bestetik euskalkitik abiatzeak euskara modu osoagoan eta naturalagoan ikasteko bidea eskaintzen du; 2) irakasleen prestakuntza kontuan hartu behar da, eta desegokia litzateke euskalkia euskara batuari kontrajartzea, beste eredu guztiz desberdina balitz bezala, ez baita hala; 3) ikasleak euskalkidunak baldin badira edo/eta inguru euskalkidunean bizi, eredu dialektalean aritzea egokia da, baina bestela ez; eskolaren inguru sozial hurbilean euskalkirik ez bada, euskara batuaren aldearen bat erabiliko genuke eredu; beste aldetik, zenbatez eta giroan euskalkia biziago egon, hainbatez arreta handiagoa behar luke; eskola-garaia bere osoan hartu behar da gogoan, eta horren barrenean ikasleen adina eta euren inguru soziolinguistikoa; 4) arrazoi politiko-ideologikoak barik, arrazoi didaktikoak erabili behar dira: hizkuntza osoago eta naturalago ikasteko bide egokiena eta "merkeena" zein den aztertu behar da; 5) euskara batua modu malgu eta zabalean ulertu behar da eskolako jardunean, tokian tokiko ezaugarriari arreta jarrita; euskalki literarioak arazo batzuk izan ditzake zenbait eskualde euskalkidunetan; euskalki bereko eskualde batetik bestera hizkeraren ezaugarri batzuk aldatzen dira, eta horiei erantzun eman behar litzaieke; horretaz, eskualdeko berbetaren ezaugarrietatik abiatzea proposatzen dugu, kontuan harturik ezinezkoa iduritzen zaigula herrian herriko egungo hizkera hartzea eredutako.

Azterketa enpirikoa, Gernika aldean eta Bortzirietan

Eskoletan nolako jokabide zehatzak gertatzen ziren ikusteko, bi eskualdetan burutu genuen azterketa enpirikoa, Bizkaiko Gernika aldean (Gernika-Lumon eta Muxikan), eta Nafarroako Bortzirietan (Lesakan eta Beran). Bi inguruetan bada euskalkia, eta bietan jo dezakegu euskarak bizkortasun handia duela: biztanleen % 70 inguru da euskalduna (eta beraz, haietako aunitz, euskalkidunak). Horrek, aukera onak eskaintzen ditu eskolan bertako aldaeren formei bide zabala emateko.

Hamar ikastetxerekin aritu ginen lanean: 5 Muxikan eta Gernika-Lumon, eta beste 5 Lesakan eta Beran, denak irakaskuntza euskaraz bideratzen dutenak². Berrogeita bi irakaslek lagundu ziguten, Lehen Hezkuntzakoak, eskuzabaltasun handia erakutsita: eskerrik asko denei³. Azterketa honetan ez genuen kontuan hartzen irakasle horiek euskaldun zahar edo berri ziren, edo herriko hizkera bazekiten edo ez: azken batean, bilatzen genuena zen ea eskualdeko ezaugarriek zenbateko aukera zuten bizirik irauteko irakasleen batez besteko hizkuntz galbahetik igaro ondotik.

2 Hauek izan ziren azterturiko ikastegiak: *Urretxindorra* Herri Ikastetxea Muxikan, eta *Allende Salazar* Herri Ikastetxea, *Sebero Altube* Ikastola, *San Fidel* Ikastola eta *Barrutia* Herri Ikastetxea, azken laurok Gernika-Lumon; *Tantirumairu* Ikastola eta *Irain* Eskola Publikoa (biok Lesakan), eta *Ricardo Baroja* Eskola Publikoa, *Labiaga* Ikastola eta *Jesusen Bihotza* Ikastetxea, azken hirurok Beran.

3 Gernika aldean: *Seber Altube*-n, 7 irakaslek; *Allende Salazar*-en, 7k; *Barrutia*-n, 4k; *Urretxindorra*-n, 3k; *San Fidel*-en, 2k. Beran eta Lesakan: *Labiaga*-tik, 6 irakaslek; *Tantirumairu*-tik 4k; *Irain*-dik, 4k; *Ricardo Baroja*-tik, 3k; *Jesusen Bihotza*-tik, 2k.

Azterketa enpirikoaren helburua zen ikastea eskualde euskaldun horietako eskolara datozen ikasleen forma dialektalak nola tratatzen ziren eskolako eginkizun idatzietan, nolanhikoak direla ere: ea forma horiek besterik gabe onartzen ziren, edo ez ziren hala egiten, dela irakasleek zalantza erakusten zutelako, edo dela gaitzesten zituztelako. Hiru indize atera genituen: Ezaugarria Gaitzesteko Indizea (EGI), Ezaugarriarekiko Zalantza Indizea (EZI) eta Ezaugarria Aldatzeko Joeraren Indizea (EAJI=EGI+EZI)⁴. Nolanahi ere, indize horiek 1996-1997 urteetan bildu genituen, eta orduko jokabidea eta egoera islatzen dute.

Hizkuntza gertakari bat lan honetan aztergai hartzeko, honako irizpide hau erabili genuen, nagusiki: nozio bera adierazteko, hizkuntza baliabide diferentek usa daitezela bi eskualdeetan; halere, horretaz gainera, zenbaitetan eskualde bietan berdintsu erabiltzen diren ezaugarri batzuk ere aztertu genituen, hain zuzen euskara batu soziologikoan (Salaburu 1994) sartzen ez zirela uste genuen kasuetan⁵.

Hipotesi hauxe erabili genuen: eskolako lan idatzietan ezaugarri dialektalen aurrean irakasleek nolabaiteko gaitzespena agertuko zutela, bi dimentsiotan: batetik, ez ziren onartuko eskualdeko hizkeraren ezaugarri batzuk, baldin eta euskara baturako haien orde besterik ez zuten hautatuak baziren (adibidez, erakusleen deklinabidean edo aditz laguntzailean)⁶; bestetik, irakasleek ez zuten euskara batua har zitekeen bezain modu zabalean hartuko, eta irazki estuxkoa erabiliko zuten eskolan idatziz onartzeko lirakeen hizkuntza formei dagokienez.

Gainera, beste hipotesi hau ere baliatu genuen: herriko forma horiek ez onartzeko joera handiagoa izanzen zen Gernika aldean Bortzirietako eskolatan baino, batez ere euskalkiaren eta euskara batuaren arteko gatazka ustez ttikiagoa izan delako Nafarroa aldean Bizkaian baino.

Hipotesiak egiaztatzeko edo gezurtatzeko prozedura, berriz, laburturik, honako hau izan zen: irakasleei aurkeztu zitzaizkien inguruko item linguistiko batzuk esaldi batzuetan sartuak, eta zuzentzeko eskatzen zitzaizkien, esan gabe ordean zein ezaugarri axola zitzaizkigun, eta ohiko irizpideen arabera zuzentzeko galdetuta, euren geletako ikasleek idatziak balira bezala.

Emaizetara etorrira, lehenbiziko esan beharko litzateke errealitateko datuak ez zirela agertu ikuspuntu teorikotik pentsa genezakeen bezain ongi zedarrituak: hala, euskara batua zer den eta zer ez den, ez da espero genuen bezain muga zehatzik ageri irakasleen zuzentze lanaren batz bestekoa egin eta: irakasle gehien-gehienek idatzizko lanetan euskara batua baliatzen zutela adierazi bazuten ere, adibidez, euskara batu formalean sartu "ezin" diren forma batzuk ere neurri batean onartzen dira (hori, berez, ez zaigu jokabide desegokia iduritzen).

4 Honela atera genituen indizeak: EGI=ezaugarria zuzentzen duten irakasle erantzuleen kopurua zati erantzule guzien kopurua; EZI=ez erabat onetsi ez gaitzetsi egiten zuten irakasle erantzuleen kopurua zati erantzule guzien kopurua; EAJI=EGI+EZI.

5 Gemika aldeko hizkeraren aztergaiak bereizteko, oinarri gisa Iñaki Gaminderen Foruko Euskararen Morfosintaxiaz izeneko lana baliatu genuen (1990, egilearen edizioa, Foruko Udalak lagunduta); Bortzirietako euskalkiaren bereizgarriak hautatzeko, berriz, gure hango solaskeraren jakintza erabili genuen, oro har.

6 Lan enpiriko honetako datu biltzea 1996 eta 1997ko udaberrien artean egin zen, eta horregatik, euskara batu formaltako (Salaburu 1994), bakarrik jotzen genituen Euskaltzaindiak 1994ko urriko batzarra baino lehenago erabakiak zituen puntuak.

Hona adibide batzuk:

Lesaka-Bera	onartu (%)	Gernika aldea	onartu (%)
gizonak ekarri dute	47	gizonak ekarri dute	48
Asierreri, norbaiteri (vs Asierrri)	40	Asierreri (vs Asierrri)	37
-tikan, -rikan (vs -tik, -rik)	69	loran (mugag.)	78
pertsonetaz (vs -ez)	78	mutilagaz	43
hok, hek (vs hauek, haiek)	25	ha (vs hura)	39
bide honetik (vs honetatik)	61	ebagi, jagi	53
ditiot (vs dizkiot)	19	-idu, burutuaren marka (mobidu, segidu)	47
nabila, dabila (vs nabil, dabil)	50	jat	35
doazi, zoazi (vs doaz, zoaz)	69	dogu	54
daukit (vs daukat)	28	zeinke (vs zenezake)	61
daramazkit (vs daramatzat)	83	dakitsut	91
begira uk/uzu!	79	halan, holan	71

Beste emaitza eta ondorio hauek ere aipatzekoak dira:

1) Eskualde bietan aurkitu dugu batz besteko joera, bertako ezaugarriak bere hala ez uzteko. Azterturiko bereizgarri guziak batean hartuta, grafikoki esan daiteke ezaugarrietatik lautik bat inguru aldatuko litzatekeela, gutti goiti-beheiti:

	EGIO⁷	EGIO	EZIO	EZIO	EAJIO	EAJIO
	Les.-Ber.	Gern.ald.	Les.-Ber.	Gern.ald.	Les.-Ber.	Gern.ald.
Lexikoa ez beste ezaugar ⁸	0'29	0'30	0'06	0'07	0'35	0'37
Lexikoa ⁹	0'10	0'13	0'04	0'06	0'13	0'20
Ezaug. guziak batean ¹⁰	0'19	0'22	0'05	0'07	0'24	0'28

Gernika aldean bertako formak aldarazteko joera handixeagoa ateratzen da; baina Na-farroako eskualdean ere oso antzeko jaidura ikusten da.

2) Azterturiko gertakari linguistikoaren artean, bi eskualdeetan, forma franko ez da txartzat hartzen (ikus ondoko koadroa).

	EGI<0'1 (%)	EGI<0'1 (%)
	Lesaka-Bera	Gernika aldea
Lexikoa ez beste ezaugar.	% 31	% 31
Lexikoa	% 70	% 58

7 EGIO: EGI Orotara; EZIO: EZI Orotara; EAJIO: EAJI Orotara

8 Indizeak ateratzeko, item guzien banakako emaitzak hartu dira (397 Bortzirietan eta 389 Gernika aldean).

9 Lexikoko item guzien batz bestekoa egin dugu (120 Bortzirietan eta 125 Gernika aldean).

10 Indize hau ateratzeko, beste bi multzoen indizeen batz bestekoa egin dugu.

Hona adibide batzuk:

Lesaka-Bera	ez gaitze- tsi (%)	Gernika aldea	ez gaitze- tsi (%)
etxe aldera (=etxerantz)	94	biok, denok	100
etxerat, Lesakarat	94	berton, bertotik	98
lau urteko neska	92	jendetan batu da...!	96
bi egunez	94	uretan egon, uretara jausi	100
zerbait	100	birik (=bitik)	91
nornahi	94	kalerik kale	96
deus	94	bihar goizerako	100
eurek	98	neu, heu	99
neronek, geronek	96	inor (=beste)	91
xamar	100	nortzuk, zeintzuk	100
ber-a, ber-ean...	97	edonork, edonori	100
etxe bi	98		
Lexikoa		Lexikoa	
ai(n)tzin	98	aurre	100
amatxi	100	amama	98
atorra (=alkandora)	100	alkondara	100
barren (=barru)	100	barru	100
behatz (eskukoa)	100	atzamar	100
erne egon	100	adi egon	100
galtzak	100	prakak	100
jostatu	100	olga(t)u	89
zango	100	berna	100
akabatu, akautu (=amaitu)	89	akaba(t)u (=amaitu)	30

Iruzkina: tokiko berezitasun kopuru adierazgarri batek, bi eskualdeetan, ez du otoporik eskolaren *galbahean eralkitzeko*. Gernika aldean eragozpen handiagoak jartzen zaizkio ondare lexikoari eskolan onartuak izateko. Lexikoa ez besteko bereizgarrien atalean, batez beste ezin esan daiteke Gernika aldeko hizkerako ezaugarriek zorrotzago gaitzesten direla eskolan, Bortzirietan baino.

3) Baina txanponaren beste aldea adierazgarriagoa da: handia da, oro har, eskolan nola edo halako traba esanguratsua jasaten duen itemen kopurua, batez ere lexikoa ez den atalean. Ondoko koadroan ikus daitezke adibide batzuk:

Lesaka-Beraez	gaitze- tsi (%)	Gernika aldea	ez gaitze- tsi (%)
esuan jarri	83	asteon	52
bizikletan etorri (vs bizikletaz)	44	bizikletan etorri	39
haietara joan (vs haiengana)	86	hiru egunerik, goizerik	57
hiru eguneko joan (vs egune(ta)rako)	44	honeek, horreek...	54
bihar goizeko (vs goizerako)	50	pagetan, pentsetan	33
nor etorri dira? (vs nortzuk)	42	zehatz ondo (maila adb.)	48
ekartzen bazenu (vs ekarriko ba-)	100	zertan joan zara (vs zertara)	57
hemen da (vs dago)	34	joan danik hona (vs denetik)	80
ongi itsusia (maila adverb.)	56	izan ezean (vs izan ezik)	65
joan gogo dut	56	hain da handia ze ez da...	57
lanean gelditu (vs -ari utzi)	100	ezpabe (lok. haut.)	83
hura etorri deneko (noizko)	72	saltzen noa (vs saltzera)	24
egitekoz, egizu orain (bald.)	50	banoa, ze ez daukat dirurik	61
Lexikoa		Lexikoa	
atrebitu	31	aditu (=ulertu)	24
estudiatu	61	atrebidu	54
hetsi (=itxi)	50	berba	22
galdetu (pedir, demander)	28	martitzen	22
josteta	22	paga(t)u	41
nerbiostu	17	eroan	17
Aldaerak		Aldaerak	
ateri (=atera)	17	ahizta	17
behari	33	denpora	26
bozik (=pozik)	26	etse (=etxe)	96
guti	22	gitxi	35
itxe (=etxe)	25	narru	30
sube (=suge)	39	sube (=suge)	70
		ule (=ile)	26

4) Euskara batu formalak "debekatzeko" dituen bereizgarriak ez onartzeko joera handiagoa da, oro har, beste itemen kasuan baino (ikus ondoko koadroa).

	EGIO	EGIO	EZIO	EZIO	EAJIO	EAJIO
	Les.-Ber.	Gern.ald.	Les.-Ber.	Gern.ald.	Les.-Ber.	Gern.ald.
EBFk baztertu ezaugar. ¹²	0'43	0'48	0'11	0'14	0'54	0'62
EBFk ez baztertuak	0'28	0'27	0'05	0'07	0'33	0'34

¹² EBF= Euskara Batu Formalak (ikus 6. oharra). Koadro honetako indizeak ateratzeko, ezaugarri guztien indizeak baliatu ditugu (lexikoa ez dugu aintzat hartu).

Horrek adieraziko luke eredu horrek eragiten duela irakasleen jardun zuzentzailean. Beste alde batetik, ordea, eredu batu formalean sartzen ez diren ezaugarri batzuk ez dira erabat gaitzesten; edo bestela esanda: euskara batu formalak ez ditu arrotan "itotzen" edo "bizigabetzen" harekin lehian ari diren forma dialektalak.

5) *Euskara batu formalean* erabaki gabeko ezaugarrien artean ere, joera bakan-du-zalea ageri da, eta horrek, *euskara batua soziologikoaren* eragina erakutsiko ligu-ke, edo *ustezko euskara batuarena*, eta haren erreferentzi balioa.

6) *Euskara batu formalak* eta euskara batua uste denak, beraz, biek eragiten dute. Baina inguruko hizkera moldearen bizkortasunak ere zeharka bederen eginen luke, benetako edo ustezko eredu arauzkoen ondoan, eta batzuetan haien aurka ere bai.

7) Herri eta eskualde euskaldunetan bertako hizkeraren hainbat forma ez lirate-ke baztertu behar eskolako jardunean, haien ordeztuzko euskara batuaren eredu soil-soila ezartzeko, eta bai ordea haiek aintzat hartu, arreta eskaini, eta zaindu. Jagote lan hori bi modutan gauzatu beharko litzateke: batetik, euskara batua modu zabalean ulertuz; eta bestetik, euskara batu formalak "ukatzen" dituen ezaugarriak ere lantzeko moduak eta aribideak bilatuz, baldin eta euskara zuzenekoak badira. Horrela, dialektoetako hiztunei beren hizkeraren harrotasuna ez litzaieke kenduko, belaunaldien arteko hizkuntza transmisioan etena tikiagotuko litzateke, eta funtsean hiztun hobeak aterako liratekeela uste dugu, hizkuntza sena ez bailitzateke hainbeste kamusteko arriskuan jarriko.

8) Lan honetan neurri batean baietsi dugu azterturiko ikastetxeetan irizpide murrizgarria erabiltzen dela inguruko forma linguistiko ugariaren aurrean. Baina, aztertokietan bildu ditugun iritzi batzuek iradokitzen dute jokabide hori ez datorrela euskalkiaren edo herriko hizkeraren kontrako joera ohartu eta deliberatu batetik, eta beraz, alda daitekeela, informazioaren eta prestakuntzaren bidez.

BIBLIOGRAFIA:

- AGIRRE, EGUZKITZA, IDIAZABAL, LARRINGAN (1985). *Euskarazko irakaskuntza Bizkaian: arazoak eta zenbait proposamen/La enseñanza en euskera en Vizcaya: problemas y algunas propuestas*. Bilbo: Desclée de Brouwer.
- AREJITA, A. (1986). «Euskara batua eta euskalkien arazoa hezkuntzan», in EIBARKO UDALA (arg.) (1986).
- ARENAZA, J. (1974). *Tus hijos y el euskera (El mito del "BATUA")*. Bilbo: La Editorial Vizcaina.
- BASTERRETXEA, J. Oskillaso (1984). *El libro Negro del Euskera*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.
- COLL eta Beste Batzuk (1994). *El constructivismo en el aula*. Bartzelona: Graó
- EIBARKO UDALA (arg.) (1986). *Euskara/Euskalkiak*. Eibar: Eibarko Udala
- ELEXPURU, J. M. (1996). «Herri-euskararen eremua», *Euskera* 41, 1996-3, 523-529.
- EUSKALTZAINDIA (1979a). «Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak», *Euskera* 24, 103-106.
- _____ (1979b). «Euskara batua eta euskalkiak irakaskuntzan», *Euskera* 24, 1979-2, 697-698.

- _____ (2000). Hiztegi Batua, *Euskera* 45, 2000-2, Bilbo, Euskaltzaindia.
- EUSKO JAURLARITZA. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (1982). «Euskararen erabilera Bizkaiko irakaskuntzan», Gasteiz, EJAZN
- _____ (1992a). Oinarrizko Curriculum Diseinua. Haur Hezkuntza, Gasteiz, EJAZN.
- _____ (1992b). Oinarrizko Curriculum Diseinua. Lehen Hezkuntza, Gasteiz, EJAZN.
- GEREÑO, X. (1978). «Bergarago (sic) biltzarrerako», *Euskera* 24, 807.
- GOIKOETXEA, J. L. (1994). «Bizkaieraren aberastasunetarik zeintzuk diren batuan sartu beharrekoak», *Euskera* 39, 795-830.
- _____ (1996). «Euskara batua eta bizkaiera ikasgelan», *Euskera* 41, 1996-3, 517-521.
- _____ (1997). «Hamalau erantzun bizkaieraren irakaskuntzari», in MENDEBALDE KULTURA ALKARTEA (1997). *Mendebaldeko euskara XX. mende goienean*, Bilbo.
- _____ (2001). «Euskal diglosia irazia eta ikaskuntza esanguratsua euskalkia eskolaratzeko», in MENDEBALDE KULTURA ALKARTEA (2001). *Euskalkia eta Hezkuntza*, Bilbo, 145-177.
- IDIAZABAL, I. (1984). «Euskara eta eskola», in RUIZ OLABUENAGA & OZÁMIZ (argit.) (1986), 167-181.
- _____ (1992). «Euskararen normalkuntza eta kurrikulumaren berrikuntza», in IDIAZABAL, I. (ed. arduraduna). *Pedagogía del texto-Testuaren pedagogia*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- KINTANA, X. (1986). «Literatur euskara batua eta euskalkiak», in EIBARKO UDALA (arg.), 149-161.
- LABAYEN, A. M. (1972). *Sasi-Batasuna. Mala letra y peor espíritu de una pseudo-unificación*. Tolosa: Gráf. López Mendizabal.
- LATIEGI' tar Bixente; OÑATIBIA' tar Dunixi (1982). *Euskaltzaindiari epaiketa*. Donostia: Lorea Artes Gráficas
- LATIEGI, V. de; OÑATIBIA, D. de (1983). *Euskaltzaindia El Batua y la muerte del euskera*, Donostia, Lorea Artes Gráficas
- LÓPEZ DEL CASTILLO, LI. (1982). *Llengua standard i nivells de llenguatge*. Bartzelona: Laia
- MAIA, J. (2000). *Eskolako hizkera ereduaz, euskara batuaren eta euskalkiaren arteko harremanen testuinguruan*, EHU, doktore tesi argitaragabea.
- MENDEBALDE EUSKAL KULTUR ALKARTEA (2001). *Euskalkia eta hezkuntza*. Bilbo.
- MOKOROA, J. M. (1971). *Lengua vasca de hoy y de mañana*. Donostia: Ed. Auñamendi.
- RUIZ OLABUENAGA & A. OZÁMIZ (arg.) (1986). *Hizkuntza minorizatuen soziologia. Sociología de lenguas minorizadas*. Donostia: Ttarttalo.
- SALABURU, P. (1994). «Euskara batuaren egungo premiak», *Euskera* 39, 1994-3, 675-695.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, J. M. Txepetx (1986). «Fundamentos para una teoría de la territorialidad lingüística», in RUIZ OLABUENAGA & OZÁMIZ (arg.) (1986). Donostia: Ttarttalo, 19-49.
- _____ (1987). *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskera y teoría social de las lenguas*. Lizarra: egilearen edizioa.
- SANTAMARÍA, C. (1979). «El euskera como lengua escolar», *Euskera* 24, 465-481.

- TRUDGILL, P. (1983). *Accent, Dialect and School*, London: Edward Arnold (publishers) (zazpigarren argitaraldia; lehenbizikoa, 1975ean).
- URUBURU, Laura (1993). «Bizkaiera eskolan», in BILBOKO UDALA. BARRAINKUAKO UDAL KULTUR ETXEA (arg.), 197-223.
- VILLASANTE, L. (1970). *Hacia la lengua literaria común*, Oñati, EFA.
- _____ (1977). «Bitor Garitaonandia jauna eta euskararen batasuna», *Euskera* 22, 1977-1, 39-45.
- ZARATE, M. (1978). «Euskara batua eta euskalkiak», *Euskera* 25, 557-568.
- ZUAZO, K. (1988). *Euskararen batasuna*, IKER-5. Bilbo: Euskaltzaindia.
- _____ (1989). «Euskalkien geroaz», *Jazten* 1, 1989ko iraila, Arrasate.
- _____ (1993). «Euskalkiak, askatu gabeko korapiloa», *Jakin* 76, 41-62.
- _____ (1999a). *Deba ibarreko euskeria*. Oñati: Deba Ibarreko Udalak.
- _____ (1999b). «Euskararen osasuna eta euskalkiak», *Euskera* 44-1, 355-362.
- _____ (2000). *Euskararen sendabelarrak*. Irun: Alberdania.

Estandar eta dialektoen arteko bateratze joerak (ikuspuntu teorikotik begirada bat)

Gotzon Aurrekoetxea
UPV/EHU

1. SARRERA

“The traditional Danish dialects are dead in the sense that they are no longer used in the younger generations” (T. Kristiansen 1998, 115)

Esaldi honek zer pentsatu eman beharko lioke euskararen estandarizatze lanean diharduenari eta, oro har, ondorioz, hizkuntzaren kalitateaz arduratzen den edonori ere.

Zeren esanak esan eta gura diren argudio guztiak ipini arren ere, hizkuntza aberatsa, kalitatezkoa,... eraiki gura badugu, ezinbesteko dugu, besteak beste, gaurko euskara batuari ipini zaion, dioten, beharbada diogun, kortse estuegia askatzeko euskarak bere aldaeretan ostendurik dituen aberastasunak biltzea eta forma estandarera ekartzea.

Euskalkiak edo tokian tokiko hizkerak eta euskara batua edo estandarraz gure artean sarri eta asko berba egin eta idatzi da. Hasiera batean euskalkiak eta euskara batua elkarren kontra jartzea modan bazegoen ere, orain elkarren osagarri direla esatea bihurtu da moda. Ikerketa eta marko teoriko baten ezarritako datu objektiboen faltaz iritzi subjektiboak eman izan dira: maiz errepikatzearen errepikatzeaz asper-tzerainoko topikoak erabiliz. Hala ere, azkenaldion poztasunez hartu ditugu arlo honetako lehen ikerketa sakonak ere; horien artean kokatu behar dira Juan Luis Goikoetxea eta Julen Maiaren tesiak, adibidez.

Ez dut jardungo zein leku dagokion euskalkiari edo tokian tokiko hizkerari eta zein hizkuntza estandarri zehazten, eredu horien artean sortzen den elkar eragina ikuspuntu teorikotik aztertzen baino. Hain zuzen ere, estandar eta dialektoen arteko bateratze joerak aztertzea. Eta ez historian zehar eman direnak¹, gaur egun ematen

¹ Hauek aztertzeko ikus K. Mitxelena 1992 eta J.A. Lakarra 1989 edo 1992.

direnak baino. Eta hau Europan aldaera estandar eta dialektoen artean eman diren bateratze joerak aztertu dituztenen marko teorikoa erabiliz.

1. BATERATZE PROZESU MOTAK

Bateratze prozesu desberdinak eman daitezke. Bi aipatuko ditugu hemen:

1.1. Dialekto eta estandarraren arteko bateratze joerak

Hizkera estandarren hedakuntzak eragin handia izan du dialektoen egituran. Eragin hau “konbergentzia” terminoarekin deskribatu ohi da; hau da, aldaera indartsuak (estandarrak) aldaera ahula (dialektoa) asimilatzen edo bereganatzen du. Nahiz bestelako fenomenoak ere gerta daitezkeen.

Bateratze prozesu hauek lehen-lehenik lexikoan agertzen omen dira eta ondoren gramatikan. Arlo hauetan aldaera ez-estandar eta estandarraren arteko desberdintasunak oso nabariak dira entzunenerako, arlo fonetikoan eman daitezkeenak baino gehiago.

Dialektoen bateratzea estandarraren inguruan ematen da gehienetan; horrela gertatzen denean bateratze dialektal bakar edo bateratze dialektal monozentrikoaz hitz egiten da.

Bateratze hauetan dialektoak barietate primitibotzat jotzen dira inplizituki, estandarrari lekua utzi behar dioten barietatetzat (hizkuntza berria / hizkuntza zaharra). Posizio hau da, hain zuzen ere, aldaera dialektalak “txartzat” (ez-zuzentzat) hartzen dituzten irakasleena.

1.2. Bateratze prozedurak dialektolestandarraren arteko dinamikatik independenteak

Dialektologo guztiak ados daude dialektoen heriotza Europan aldaera estandarren posizio indartsuaren ondorio dela.

Baina bateratze dialektala eman daiteke estandar erregionalen inguruan ere; orduan bateratze dialektalaren prozesu edo bateratze dialektal polizentrikoaz hitz egiten da.

Auer-en esanetan (1998, 5) gaur egun dialektologian arazo garrantzitsuena aldaera dialektal erregionalen egoera estandarrenazko konbergentzia-urrats gisa interpreta daitekeen jakitea da. Badirudi ez dela nahitaezkoa eta ikerketa enpirikoak adierazten dutela aldaera erregionalen bilakaera eta hedatzeak aldaera estandarretik dibergentzia inplika dezakeela.

2. BATERATZE PROZEDUREN TIPOLOGIA

Dialektoen eta estandarraren artean ematen diren prozeduren tipologia zehaztu da Europan azkenaldion egin diren ikerketa desberdinetan. Ikus ditzagun garrantzitsuenak:

2.1. *Bateratze osoa eta guztiz burutu gabekoa*

2.1.1.

Aldaera estandarerranzko konbergentzia oso-osoan, bere egitura fonologiko edo morfologikoan, eman daiteke. Kasu hauetan dialektoa guztiz galtzen edo desagertzen da.

2.1.2.

Guztiz burutu gabeko konbergentzia. Kasu honetan dialekto eta estandarren arteko zerbait sortzen da. Adibide morfologiko bat aurkeztuko dugu, Christenen lanetik hartua (1998, 57-58). Suitzako aleman dialektoan mintzo den gazteak atzizki “berriak” erabiltzen ditu adjektibo atributiboetan nominatibo eta akusatibo singularrean, tradizionalaki ‘zero’ atzizki izan den lekuan (*di alt frau* ‘andre zaharra’) beste hau sortuz: *di alt-i frau*. Atzizki berria itxuraz aldaera estandarretik (*di alt-e frau*) desberdina izan arren, estandarren teknika morfologiko berak (atzizkia vs. zero atzizkia) erabiltzen ditu eta dialektoa estandarren antzekoago egiten du. Hau izan daiteke aldi berean kostuak txikitu eta ondorioak maximalizatzeko aldaera erregional berriek duten bideetarik bat.

2.2. *Konbergentzia bertikala eta horizontala*

Estandar eta dialektoaren arteko bateratzea bi dimentsiotan ematen da: ‘horizontala’ eta ‘bertikala’ (Auer 1998. Konbergentzia bertikala estandar eta dialektoaren artekoari deitzen zaio; konbergentzia horizontala dialektoen artekoari.

Konbergentzia bertikalak sarri konbergentzia horizontala ere badakar. Izan ere, estandarerranzko prozesuan batera doazenean, estandarren eta dialektoen arteko distantzia txikituz doan bitartean, dialektoen arteko forma desberdinak ere urrituz joaten dira (ikus Auer & Hinskens 1996).

Konbergentzia edo bateratze bertikal eta horizontalaren prozesua, hizkuntza komunitate nazionalaren perspektibatik ikusten denean, noiz edo noiz dialekto eta estandarren arteko (eta batzuetan dialektoen arteko) aldaera berri batekin hasten da. Aldaera berri hauek izendatzeko ‘erregiolekto’ (regiolect) eta ‘estandar erregionala’ (regional standars) terminoak asmatu dira (Auer 1998, 2). Honelako prozesuetan gerta liteke hasierako egoera **diglosikoa** (aldiera estandarra dialekto askoren gainetik dagoela adierazten da) desegin eta Bellmann-ek deitzen duen **diaglosikoa** bihurtzea².

Kontzeptualizazio lan honetan Günter Bellmann-ek (1998) ‘Base dialektala’ kontzeptua erabiltzea proposatzen du, eremu txiki baten, herri txikietan batez ere, berba egiten den eta estandarrekin hizkuntz ezaugarri kopuru handienaz bereizten den aldaera izendatzeko. Alemanaren eremuan % 10 inguru izango dira base dialektalean mintzatzen direnak. Gaur egun base dialektalak herriz kanpo mugitzen ez diren eta komunitate lokaleko kide zaharrentzat bakarrik dira komunikazio era.

2 *Diaglosia* kontzeptua honela definitzen du: ematen diren bi muturren artean, ezaugarrien kontinuum bat dago; zeinetan, dialektoa, hizkuntza interferentziaren ondorioz, subestandarren parte izanik, bere ezaugarriak, batez ere ezaugarri nabariak, galtzen doan (1998, 24). Auer-ek Bellmann-en diaglosia aipatzean honela azaltzen du: gainerako aldaera edo formen kontinuumak guztiz betetzen du estandar eta dialekto tradizionalen arteko espazio estrukturala (1989, 2)

2.3. *Aldaketa endogenoa ('naturala') eta ukipenaren eraginez egindakoaren arteko lotura*

Aldaera dialektalak bihur daitezke berdinago edo ez beste batekin edota aldaera estandarrekin barne berregituraketa edo berrikuntzen ondorioz ere. Gainera, barne berregituraketa eta beste aldaketa endogeno batzuk dialektoen arteko ukipenak eraginak izan daitezke. Hipotesizar jotzen da aldaera estandarrezko konbergentzia indarturik izango dela aldi berean prozedura 'naturalagoa' bada; oztopotua izango da forma estandarra dialektokoa baino 'eznaturalagoa' bada.

Horrela dio Taeldeman-ek (1998): estandarren prozesua oso 'antinaturala' eta dagokion prozesu dialektala 'naturala' bada, dialektoak gorde egiten du bere egitura.

Estandarraren eta dialektoen edo dialektoen arteko konbergentzia prozedurak ulertzeko hiztunek hurbiltze edo urruntze prozesu sozialetan, adibidez, "identitate ekintzetarako" hizkera nola erabiltzen duten aztertu behar da (Auer 1998, 8). Gizarte konplexu batean taldeak ez daude muga geografiko gisa definituak, espazio sozial dinamiko bezala baino.

2.4. *Konbergentzia indartsu eta ahulak*

Bateratze indartsu eta ahulaz ere hitz egiten da: indartsua (Tipo I bezala ere eza-gutua) dialektoa desagertazteraino eraman lezakeena da; bateratze tipo ahul edo motela (tipo II bezala ezagutua) denean dialektoak ezaugarri batzuk baino ez ditu galtzen.

Konbergentzia edo bateratze tipo biak aurki daitezke, adibidez, alemanean. Saxonia Garaia, Thuringia Mendebaldea eta Brandenburg Hegoaldean, adibidez, bateratze tipo I ematen da. Saxonia Garaia konbergentzia tipo indartsuaren adibide bereziki hunkigarria omen da, zeinetan estandarren interferentziaren ondorioz dialektoa ia-ia desagertarazi den.

Konbergentzia tipo ahul edo motela (tipo II) Alemania Garaiko dialektoen eremuan eman da, zeinek nagusiki ez diren zuzenean hizkuntza kolokial deituko formetara egokitu, dialekto berria (new dialect / Verkehrsmundarten, Großmundarten), erdi-dialektoa (semi-dialect / Halbmundarten) edo dialekto erregionalak (ikertzaile desberdinen arabera) deitu formetara baino.


Bateratze joerak modu zehatzean aztertzeke Bellmann-ek *Rhine Erdialdeko Hizkuntz Atlasa* (MRhSA) erabili du. Atlas honetan bi belaunaldi inkestatu zen: 70 urtekoak, eta 30-40 urtekoak. Mapen erdia inguru kontrastiboak dira, hau da, bi serietako datuak elkarren aurrean jartzen dira kolorez bereizita. Horrela dialektotasun maila aztertzeke beta dago. Bi talde-datu konparatuz hizkuntza aldaketa-joeraren norabidea eta gradua atzematen dira. Beste berba batzuetan, konbergentzia joerak jarraitzeke ahalmena ematen diote.

Adibide lexikal bat aukeratu dugu: Germaniako erdi-mendebaldean erabiltzen da edo zen *Gesäms* izen kolektiboa, 'seed / garaua, bihia', eta Germaniako hizkuntza estandarreko formarekin identifikatzen den *Samen* aldaera berriagoa. Jadanik I seriean badira *Gesäms* itxaroten zen arean aldaera lehiakidearen agerrera batzuk, ekialdetik abiatuta, zeina eremu honetan berrikuntzen hedatzearen norabide orokorra den. Serie 2-an *Gesäms* eta *Samen* formen arteko harreman kualitatiboa alderantziz jarri da: %88 forma zaharrenak serie 1-ean eta %35 serie 2-an. *Gesäms* formak jarraitzen du ordezkaturia izaten (ikus mapa eta diagrama). Forma zaharraren gutxitze-

ak eta forma berriaren gehitzeak erakusten du hizkuntza estandarrenzko konbergentzia eta kontrastearen urritzeko joera.

2.5. *Dialekto eta estandarren arteko aldaera berrien sorrera*


Dialekto eta estandarren arteko harremanetan, bateratze joeretan, bitarteko aldaerak sortu ohi dira usu, ikerketa desberdinek erakusten dutenez. Peter Auer eta Frans Hinskens-ek (1996, 7) lau maila bereizten dituzte: estandar nazionala, estandar erregionalak, dialekto erregionalak edo regiolekoak eta dialekto tradizionalak, ondoko irudian ikus daitekeenez (ikus Auer 1998, 2 ere).



Hirukiaren inguruan bildutako aldaeren rola ere aztertua izan da. Horrela egiten du, adibidez, Van Coetsem-ek (1988; 1992: 30 eta h.) aldaera emaile edo aktiboa eta aldaera hartzailea bereizten dituenean. Dialektoko hitzunek estandarreko material lexiko zein hizkuntza ezaugarriak bereganatzen dituztenean dialektoko hitzun horiek rol agentea dutela esaten da. Horrela estandar erregionala dialektoko hitzunek nazio mailako estandarra lortzeko egiten duten arrakasta partziala ahalegina baino ez litzateke izango. Gai honen inguruko ikerketa asko dago (Berruto 1983, Spitzer 1922 italierarako; alemanerako Hinskens 1992), baina aldaera berrien sorreran ematen diren hizkuntza mekanismoak oso gutxi ezagutzen dira oraindik.

Aldaera berrien hizkuntza ezaugarritan sakontzeko asmorik gabe, esan daiteke hauen gramatika eta fonologia gutxiago markatuta izateko joera izaten dela, erregularragoa eta sinpleagoa.

Dialekto erregional edo erregiolekoen eta estandar erregionalen sorreran hiri handien rola handia omen da ikerketen arabera. Gehienontzat ezaguna den adibidea jartzeko, Andaluzian gaztelania estandarren bi erregional aldera sortu dira: 'norma sevillana' eta 'malagueño' deituak (Villena, 1996). Auer eta Hinskens-ek diotenez (1996, 10), dialekto erregional edo erregiolekoen garatzeak dialekto tradizionalen bizi-iraupenaren berme dira (hori gertatzen omen da Calabria eta Italiako hegoaldeetan Trumper/Maddalon 1988 eta 1994-en arabera), nahiz guztiz desagertu ere egin daitezkeen, ondoko irudian ikus daitekeen legez (Goi Saxonian gertatzen omen da).



Horixe gertatu omen da Danimarkan Tore Kristiansen-en esanetan (1998, 120), non dialekto tradizionalan %5 baino gutxiagok hitz egiten duen, zaharrak barne; denak Copenhage-ko aldaeraz jabetu dira.

3. BATERATZE JOERAK EUSKARAN

Gure inguruko hizkuntzetako ikerketak gogoan izanik, gure hizkuntzaren kasuan zer gertatzen ari den itauntzea zilegi bekit. Gureko estandarizatzeko lanetan norantz goazen eta zein abiaduretan itaundu beharra dugu, nor edo nork kontrolatzen duen edo inork kontrolatzen ez duen edonora ote goazen.

Gai honen inguruko ikerketa hasiera baten emaitzak dakarkizuet. Bateratzearen abiadura batetik eta ereduia bestetik neurtzeko egin gura dudana ikerketa-hasieraren emaitza batzuk, hain zuzen ere.

3.1. Arazo terminologikoak?

Baina emaitzak azaltzen hasi aurretik hemengo eta hango ikerketak irakurtzean izan ditudan desberdintasun terminologikoak aipatu gura nituzke. Izan ere gurean erabiltzen diren terminoak eta kanpoan erabiltzen direnak ez baitatoz bat. Gurean erabiltzen direnak etxean ibiltzeko egokiak izan daitezkeen arren, kanpokoak ere irakurtzeko beharra dugunontzako ere egokiak izan daitezen aldaketatzeko batzuk egin beharrea gaude. Nazioartean lau mailatan sailkatzen da hizkuntza kontinuum: a) nazio mailako estandarra, b) eskualdeko estandarra, c) erregiolekoa eta dialekto erregionala (erdi-dialektoa eta dialekto berria ere), eta d) “base dialektala” edo dialekto tradizionala.

Gurean Elexpuruk (1996, 525) “berbeta-eskualdea” kontzeptua lantzen du. Horrela Leintz (Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta agian Aramaio), Oñati, Bergara, Eibar eta Elgoibar edo Txorierri, Goierri, Baztan.... izango lirateke ‘berbeta-eskualde’. Zuazok bi kontzeptu erabiltzen ditu: “nazioko batua” eta “eskualdeko” edo “herrialdeko” batua³.

Terminook erkatzen hasiz, eta Elexpurrena albo batera utziz, zalantza daukat Zuazoren “eskualdeko edo herrialdeko batua” eta nazioartean erabiltzen den “eskualdeko estandarra” itxuraz gauza bera diren arren, benetan bat diren. Badirudi bata (Zuazorena) euskalkia batuaren arlopekin jantzia dela eta bestea (eskualdeko estandarra) aldaera estandarra eskualdeko bereizgarriekin jantzia. Hau da, batean, lehenengoan, batutik desberdintzeko helburuz sortua, bestea ingurune batean ekoizten den batua. Beste era batera esanda: Zuazoren “eskualdeko batua”k “erregioleko”arekin lotura handiagoa du, nire ustez, “eskualdeko estandarra”rekin baino. Beraz, antzeko terminoak erabili arren kontzeptu desberdinak biltzen dituzte. Dena den, utz dezagun gaia hemen, astia izango dugu eta geroago batean berrartzeko.

3.2. Bateratzearen abiadura eta ereduia

Gure arteko hainbatek hizkerak eta dialektoak modu pasibo batean ikusten baditu ere (pertsonek zaharrak, inoiz herritik irten bakoak, guraso eta aitita-amonak berta-

³ “Eskualdeko batua”ren ezaugarriak hauek lirateke “Euskara Batuaren egiturari eutsiaz, eskualdeko lexikoa, sintaxia eta bertako zenbait ezaugarri fonologiko eta morfologiko darabilena”; “eskualdeko substandarra” ere deitzen du (Euskararen sendabelarrak, 168).

koak dituztenak, senar edo emaztea bertakoa dutenak, inoiz ez dutenak irakurtzen eta kanpoko berbakera inoiz entzun bakoak), errealtatea jada ez da hori; hori baino nabarragoa da. Hizkera edo herri baten ordezkari ezin da, besterik gabe, ezaugarri horiek biltzen dituen jendea izan; ez hizkuntza kontuetan, ezta bizitzaren gainerako alderdietan ere.


Ingurumen batean bizi den jendeak hitz egitean sortzen duena da bertako hizkera. Hizkera hori ez da monolitikoa. Herri horretako adinduak eta gazteak, ez ikasiak eta ikasiak, bulegariak eta baserritarrak mintzatzen dira hizkera horretan.

Euskalkiak eta euskara batua edo estandarren arteko interakzioan elkar eragina dagoela inork ukatzen ez badu ere, inor gutxik itaundu du zer gertatzen ari den bien arteko harreman horietan. Zeinek zeinengan eragiten duen. Joera bateratzailek ba ote dagoen. Bateratze joera bizia ala motela bizi dugun gaur egun gure herrietan. Euskararen lurralde guztietan joera bera eta indar berarekin ematen ari ote den.

Itaun horien erantzunak bilatzeko asmoz hasi dut⁴ gorago aipatu den ikerketa. Berau hiru adin desberdinetako jendearen hizkera aztertuz burutu da⁵.

Datuak eskaintzean arloka aurkeztuko ditut: fonologia, morfologia, sintaxia (Dimako datuak baino ez) eta lexikoa. Jaso diren datuak multzo bitan bildu dira: “herrikoa” zutabeen herri edo inguru horretan dialektologia tradizionalen biltzen diren bezalako datuak (jende zaharrei, herriko semeei, herritik irten gabekoei ... jasoa); zutabe honetan “hizkuntza iraunkortasuna” neurtu gura izan da, herriko hizkerari zaion atxikimendua, alegia. “Jasoa” zutabeen kontrako joera biltzen da: eskolan ikasitako edo hedabideetatik jasotako euskara mota. Izatez “herriko formei atxikimendu eza” adierazten du zutabe honek, (herriz) kanpoko kulturak edo kulturek ekarritako formak. “Biak” zutabeen bi erantzun (herrikoa eta jasoa) jaso direnean biltzen dira.

3.2.1. *Fonologia*



4 Inkestaren datuak:


- Helburua: euskara batua eta hizkeren arteko harremanak ikertzea.
- Inkesta-lekuak: Gipuzkoan (Goierriin) eta Bizkaian (Diman).
- Inkesta: galdesorta itxia:
 - o Gipuzkoan 66 itaun: fonologia (19), morfologia (22), lexikoa (25).
 - o Bizkaian 128 itaun: fonologia (31), morfologia (30), sintaxia (17), lexikoa (50).
- Lekukoak: >60, 40, 16-18 urtekoak.

5 Hemen aurkezten dizkizuedan datuak behin-behinekoak dira; burutu gura dudan ikerketa handiago baten hasikinak: badira zuzendu eta sakondu beharreko gauzak oraindik. Beraz, datuak tentu handiz har ditzazuen eskatzen dizuet.

Ikaragarritzko aldea dago bi inkesta-lekutan fonologiari dagokionean. Gipuzkoako Goierrin ederki eusten diete herriko ezaugarriei. Bai 40 urte inguruko jendeak (%98an eusten diete herriko ezaugarriei), baita gazte jendeak ere (%97an). Hauek eskolako eredia eta herrikoa maisutasunez bereizten dute eta ez dago ia-ia interferentziarik herrian lagunartean hitz egiten dutenean. Herriko ezaugarrien atxiki-mendu handia dagoela oso argi erakusten du diagramak.

Diman gertatzen dena, aldiz, ez da hain kilikagarria. Herriko formenganako atxikimendua jaitsi egiten da Goierrikoarekin erkatuz helduen artean (%87-k eusten diete herriko formei). Are nabarmenago gertatzen da gazteen artean; Goierrin %97-k eusten bazien herriko formei, Diman %64-ra jaisten da atxikipena.


3.2.2. Morfologia



Fonologian legez morfologian ere alde handia dago bi diagramen artean: Goierrin bai helduek eta baita gazteek ere eusten diete euren herriko ezaugarri morfologikoei modu finko batean, nahiz ez fonologian erakutsi duten fideltasun ia erabatekoarekin. Hala ere, %84ko fideltasun maila handia da.

Dimako diagramari erreparatzen badiogu eta datuek benetako errealitatea islatzen badute, modu kezkarrian hartzeko modukoak direla onartu beharko genuke. Berriz diot era zabal eta sakonago batean ikertu gura dudana gaia dela eta hau abiapuntua baino ez dela. Helduek %100 eusten dieten bitartean, gazteak %51-n baino ez dute egiten. Belaunaldi batean ia ezaugarri morfologiko erdiak berriekin ordezkatuak izan dira.

3.2.3. Sintaxia




Diman baino ez da egin sintaxiari buruzko galdeketa.

Kasu honetan datuak bi multzotan bildu ordez hirutan bildu dira: herriko forma baino ez denean jaso, forma jaso baino ez darabiltenean eta biak eman dituztenean.

Helduek atxikimendu handia erakusten duten bitartean (%86), gazteak %43-n baino ez dute egiten. Eta %14-an bi formak eman dituzte: herrikoa eta forma jaso, ikasia.

3.2.4. Lexikoa




Goierri fonologia eta morfologian baino askoz ere dialektotasun txikiagoa erakusten dute datuek: %60 –an baino ez dira herriko berbak jaso helduen artean. Gazteen artean, aldiz, gehiago dira ikasiak edo herrikoak ez diren (uler bedi dialektologia tradizionalan herrikotzat jotzen ez diren) berbak.

Diman, ostera, helduen atxikimendua oso handia da (%94), baina gazteengan %51-ra baino ez da heltzen. Dena den, Goierri erakutsitakoa baino handiagoa, zalantza barik.


3.2.5. Osotara

Datu guztiak diagrama batean sartuz, herriko ondoko emaitzak lortzen dira: Gipuzkoako Goierri %88 eusten diete bertako ezaugarriei helduek eta %74-ean gazteak. Esan liteke bertako hizkera eta estandarren arteko bateratze prozesua orekatua dela, hein batean.




Diman helduek ezin hobeto eusten badie ere gazteak jada lerratu dira estandarren atzaparretan, %52-an baino ez dizkie eusten eta herriko ezaugarriari. Hemen bertako hizkera eta estandarren arteko bateratze joera bizia da. Eta bitartekorik ez bada jartzen epe laburrean pentsa liteke estandarra nagusiko dela osorik, bertako ezaugarriak galduz.

3.2.6. Helduak eta gazteak



Bi inkesta-lekutako helduak eta gazteak konparatuz lortu dira diagrama hauek. Helduengan herriko hizkeren ezaugarriak hobeto gordetzen dituzte Diman Goierrin baino. Baina gazteen mailan alderantziz gertatzen da.



3.3. Ondorioak

Diagramak argiro erakusten dutenez bateratze joera gazteen artean bortitza da, zalantzarik gabe. Gorago esan bezala, lexikoan ematen dira indize handienak, ondoren sintaxian eta morfologian, eta azkenen datoz ezaugarri fonologikoak.

Datuek erakusten dutenez Bizkaia aldean (eta Gipuzkoan?) gazteria euskara estandarera lerratu da. Aldaera dialektaletatik hain urrun diren formak eskoletan irakatsi eta erabilaraziz guraso eta aitita-amonen belaunaldiarekin deserrotuz doa. Deserrotzearen abiadura uste eta behar baino lasterragoa dela iruditzen zait. Euren hizkera eskolaz kanpoko loturarik gabe gelditzen ari da. Kulturazko deserrotzeari hizkuntzazkoa gehitzen ari zaio une honetan, aurreko munduarekin zubia egiteko beharrezko den hizkera ez da horretarako gai.

Alde batetik euskalkiak eta estandarra urruntzen badira eta bestetik irakaskuntzan hau baino ez bada erabiltzen puzzlea osotu da: urte gutxi barru euskara bakarra izango dugu. Bateratze joera bizienaren ezaugarriak dira eta ondorio garbiak aurreikusten dira.

Gauzak horrela, bateratze joerak orekatzeko lanik egiten ez bada, jardunean den hizkuntza ideologia edo ideologia estandarra Tore Kristiansen-en hitzetan ('standar ideology') ez bada errotik aldatzen, bi belaunalditan galduta egongo dira dialekto tradizionalak. European (Dinamarkan, Alemanian...) eman den egoera berean izango gara.

4. AZKEN BERBAK

Hasieran aipatu dut, sasoi batean euskalkiak eta euskara batua aurka jartzea modan zegoela eta orain "osagarriak" direla esatea. Nire ustez, baina, etenik bako eta ekidin edo saihestu ezin den lehian dihardute. Lehia horretan euskara galtzen ez ateratzea da helburua.

Henrike Knörr-en hitzak⁶ hartuz euskararen etorkizuna batua eta euskalkien arteko oreka zaindu zuhurrarekin lotuta dago. Joera integratuak indartu behar dira; hauek indartzen ez diren bitartean, gure euskara batua zabala egiten ez den bitartean, jendea hizkeretatik urruntzen joango da, euskararen aberastasuna galduz joango da.

Lizardiren hitzak, Mitxelenak "Lengua común y dialectos vascos" lanean bezala, neure eginez "azal orizta, muin betirakoa", zuztar tradizioaletatik sortutako enbor berria nahi dugunok ez dugu nolanhiko euskararik gura.

BIBLIOGRAFIA:

- AMMON, U., (1998). "Measuring the Broadness of Dialectal Speech", *Sociolinguistica* 12, 194-207.
- AUER, P. & A. di LUZIO (arg.), (1988). *Variation and Convergence*. Berlin: Gruyter.
- AUER, P., (1998). "Dialect Levelling and the Standard Varieties in Europe", *Folia Linguistica* XXXII/1-2, 1-9.
- AUER, P., / F. HINSKENS, (1996). "The Convergence and Divergence of Dialects in Europe. New and not so New Developments in an Old Area", *Sociolinguistica* 10, 1-30.
- BELLMANN, Günter, (1998). "Between Base Dialect and Standard Language", *Folia Linguistica* XXXII/1-2, 23-34.
- CHRISTEN, H., (1998). "Convergence and Divergence in the Swiss German Dialects", *Folia Linguistica* XXXII/1-2, 53-67.
- ELEXPURU, J. M., (1996). "Herri-euskararen eremua", *Euskera* 41, 523-529.
- EUSKALTAINDIA, (1996), II. Jagon Jardunaldiak, Tolosan, *Euskera* 41, 3.
- GERRITSSEN, M., (1991). "Mechanisms of standardization. An investigation of changes in three similar dialects under influence of three different standard languages", in E. van HOUT & E. HULS (arg.), *Artikelen van de Eerste Sociolinguïstische Conferentie*. Lunteren, November 1991, Eburon, Delft.
- HARITSCHELHAR, J., (1991). "Dialectes et standardisation", *Bulletin du Musée Basque* 131, 1-11.

- HAUGEN, E., (1968). "Dialect, language, nation", in E. HAUGEN, *The Ecology of Language, Essays by Einar Haugen*. Selected and introduced by A. S. Dil, Stanford 1972, 237-254.
- HERRGEN, J. & Jürgen Erich SCHMIDT, (1989). "Dialektalitätsareale und Dialektabbau", in Wolfgang PUTSCHKE, Werner VEITH & Peter WIESINGER (arg.), *Dialektgeographie und Dialektologie*. Marburg: Elwert, 304-346.
- HINSKENS, F., (1992). *Dialect Levelling in Limburg. Structural and Sociolinguistic Aspects*, PhD-dissertation, University of Nijmegen. An abridged and revised version will be published fall 1996 by Niemeyer Verlag, Tübingen.
- _____ (1998). "Dialect Levelling: A Two-dimensional Process", *Folia Linguistica* XXXII/1-2, 35-51.
- KRISTENSEN, K. / M. THELANDER, (1984). "On dialect levelling in Denmark and Sweden", *Folia Linguistica* XVIII/1-2, 223-246.
- KRISTIANSEN, T., (1998). "The Role of Standard Ideology in the Disappearance of the Traditional Danish Dialects", *Folia Linguistica* XXXII / 1-2, 115-129
- LAKARRA, J. A., (1986). "Bizkaiera zaharra euskalkien artean", *ASJU* XX/3, 639-682
- _____ (1992). "Bizkaieraren lekua beste euskalkien artean iraganeko garaietan" in *Bizkaieraren lekua gaur*. Bilbo: Euskal Ikaskuntzen Institutua-D.U.
- MARTÍN ZORRAQUINO, M. A., (1998). "Sociolinguistic Attitudes and Beliefs Towards Dialectal and Standard Varieties in La Franja Oriental de Aragón (Spain)", *Folia Linguistica* XXXII/1-2, 131-143
- MITXELENA, K., (1976). "La fragmentación dialectal: conocimientos y conjeturas", *REL* VI, 309-324 [orain in *Lengua e historia*, Madrid, 1985: Paraninfo, 73-85]
- _____ (1992). "Fenómenos de convergencia en la historia de los dialectos vascos", *FLV* 24, 355-366
- TAELDEMAN, J., (1998). "Levelling Phenomena in the Flemish Dialects", *Folia Linguistica* XXXII/1-2, 11-22
- TRUDGILL, P., (1986). *Dialects in Contact*. Oxford: Blackwell.
- VAN COETSEM, F., (1988). *Loan phonology and the two transfer types in language contact*. Dordrecht: Foris.
- _____ (1992). "The interactions between dialect and standard language, viewed from the standpoint of the Germanic languages", in J. A. VAN LEUVENSTEIJN, J. A., & J. B. BERNIS (arg.), *Dialect and Standard Language*, Amsterdam, North Holland, 15-70.
- VAN LEUVENSTEIJN, J. A., & J. B. BERNIS (arg.), (1992). *Dialect and Standard Language*. Amsterdam: North-Holland.
- ZUAZO, K., (2000). *Euskararen sendabelarrak*, Iruñea.

6 Donostian 2001.eko ekainaren 31n ospatu zen "Diversidad y convivencia lingüística en la Unión Europea" simposiumean emandako hitzaldia.

Aréologie dialectale et modularité des réseaux dialectaux: étagement spatial et structural des processus (morpho-)phonologiques dans le réseau dialectal basque

Jean-Léo Léonard
Osterlits, Paris III

INTRODUCTION¹

Cette communication se fixe trois objectifs principaux:

1) qualifier et hiérarchiser des variables phonologiques qui traversent l'espace géolinguistique de l'euskera à l'aide de modèles tels que la géométrie des traits,

2) proposer un modèle à la fois aréologique et sociolinguistique de la variation géolinguistique, en termes de volume ou masse des aires (aires majeures vs. aires mineures) et en terme de cohérence interne et de contact des aires (discontinuité versus continuité des aires),

3) proposer une géométrie variable de l'espace géolinguistique de l'euskera.

Plusieurs variables seront examinées comme étude de cas: le traitement de *-d-* et *-g-* intervocaliques, les groupes vocaliques flexionnels envisagés comme cycles vocaliques/vowel shifts, et les inventaires consonantiques du point de vue de la compacité structurale. Des comparaisons seront établies avec la morphologie verbale, en proposant une taxinomie archimorphémique (dodas <- /DA-^{oo}-TA-ZA/, ditut <- /DA-it-√-TA/, cf. Léonard, 2002).

Le modèle aréologique présente plusieurs avantages sur la conception classique en géolinguistique:

¹ Je tiens à remercier particulièrement mes collègues Georges Rebuschi (Paris III) et Xarles Bidegain/Charles Videgain (Euskaltzaindia/Académie de la langue basque) pour m'avoir non seulement insufflé une passion pour l'euskera et de la linguistique basque, mais aussi pour avoir grandement facilité mon accès au terrain et à la documentation. Xarles Bidegain a aimablement accepté de donner lecture de cette communication lors du congrès, alors que j'étais en mission au Guatemala et au Mexique, absorbé par le terrain maya. Merci aux gens de la ferme d'Aldarreta, à Ataun, qui m'ont si souvent accueilli, instruit et encouragé, surtout à Maritere Lardizabal, Pello Urdangarin, Ainhoa, Edurne, Mari-Joxe, Joxe, et Iban Urdangarin, bertsolaritxo haundia. Je salue aussi les étudiants de l'ILPGA (Paris III) en TD de sociolinguistique de licence du premier semestre 2000-01, qui ont accepté le défi d'un semestre entièrement consacré à l'étude critique des données de l'Enquête Sociolinguistique Basque de 1991 et 1996 conçue et publiée par le gouvernement de la Communauté Autonome Basque (CAB).

a) il permet de faire l'économie de la notion d'aires latérales et centrales tout en faisant apparaître clairement la stratification diachronique,

b) il fait apparaître de manière très fonctionnelle le séquençage diachronique des variables, les conservatismes s'exprimant le plus souvent sous forme d'aires majeures ou mineures discontinues, les innovations sous forme d'aires mineures continues. La plupart des variables retenues dans l'euskera batua relèvent par exemple d'aires majeures ou mineures discontinues.

c) il facilite la synthèse structurale: les processus et les paradigmes se ventilent dans les colonnes d'un tableau à quatre colonnes qui déclinent les modalités des entrées lexicales ou structurales.

L'analyse spatiale dégagera un réseau dialectal à géométrie variable au-delà des divisions classiques héritées des travaux de Bonaparte et d'Azkue, et des unités pertinentes périphériques, notamment une corniche littorale, qui constitue une ligne d'innovations qui percolent vers l'intérieur ou une ligne de surfragmentation.

Ce travail tentera de mettre en valeur l'approche qualitative comme complémentaire de la démarche quantitative pour l'individuation de sous-réseaux dialectaux et fera largement usage de modèles récents en phonologie et morphologie. Elle devrait être susceptible d'intéresser également les historiens, les sociologues et les géographes spécialistes du monde de l'euskera.

MODÉLISATION ARÉOLOGIQUE

Dans cette communication, je vais tenter de:


1) Proposer un modèle d'intégration aréale de la variation dialectale appliqué à l'euskera, qui se basera essentiellement sur deux ordres de classement des faits géolinguistiques:

- a) magnitude
- b) continuité

2) Suggérer, dans un état provisoire de la recherche sur la stratification géolinguistique basque, un modèle de diffusion aréale articulé comme dans les schémas ci-dessous (S-1 et S-2):


S-1.

Géométrie aréale du domaine euskera. Synthèse.



S-2.

Dynamique aréale de l'euskera : aires principales et secondaires



i) sous-ensembles individués:

- biscaïen (B)
- guipuzcoan (G)
- labourdin (L)
- navarro-roncalo-souletin (N-R-S)

ii) amphizones ou aires intermédiaires (aires de contact)

- B-G (biscaïo-guipuzcoan)
- G-N (guipuzcoan-navarrais)
- A-N (alavo-navarrais)

iii) aires périphériques

- corniche littorale Bayonne-Bilbao (bande de diffusion expansive)
- bordure sud alavo-navarraise (aire résiduelle récessive)

3) Argumenter sur ces dispositifs à partir de faits dialectaux phonologiques et morphologiques modélisés dans le cadre de la linguistique générale et typologique.


DÉMARCHE

J'insiste d'emblée sur un certain nombre de points. Mon attitude de recherche se basera sur:

a) une approche non classificatoire en termes d'entités dialectales: je ne cherche pas à présenter une nouvelle classification des dialectes basques, mais plutôt à faire ressortir des pôles et des dynamiques de diffusion des variables dialectales débouchant sur une esquisse d'une géométrie variable de l'espace linguistique basque (cf. S-1, S-2) et S-3, qui n'a aucune prétention à l'exhaustivité ni à faire autorité. Le but de cette approche par géométrie variable des aires est davantage de décloisonner la vision géolinguistique de l'euskera, de susciter un débat sur les déterminismes intra-

linguistiques et extralinguistiques (approche sociolinguistique, en fin de parcours) de cette variation, que d'étiquetter des aires.

S-3.




b) la primauté des principes de polarisation et d'étagement des variables:

- polarisation des variables dans des segments du réseau sociolinguistique (ex: carte C-1 et surtout C-3 ci-dessous) ; progression en deux ondes successives de la palatalisation: a) aita > aitta, b) aitta > aitxa),

- étagement structural des variables en fonction de deux contraintes intralinguistiques (options disponibles par la modularité des structures internes des segments comme en S-9 ci-dessous, ou des syntagmes comme en S-14.

C-1.



L'objectif de cette démarche est de contribuer à la connaissance des processus de diversification ou de dialectalisation internes de l'euskera et, accessoirement, de contribuer à renouveler l'approche des aires culturelles basques par le dispositif à géométrie variable (comparer les trois schémas ci-dessus: S-1, S-2, S-3).

Proposition 1: dispositif d'intégration aréale

Pourquoi les isoglosses ne se recoupent-elles pratiquement jamais ? C'est la vieille question de la labilité isoglottique, qui faisait dire à Meyer et à Gillieron que "les dialectes n'existent pas".

Bien entendu, **les dialectes existent**: le cumul de variables finit par créer des entités cohérentes, compactes structurellement (cf. Goebel, 2000 et 1984). Paradoxalement, les dialectes constituent le **substrat structural maximal** d'une langue qui peut permettre l'**unification linguistique**, comme ce fut en partie le cas pour l'*euskera batua*, ou basque unifié. Le basque était en fait une famille isolée de langues ou de dialectes, qui est devenu à date très récente une langue unifiée subordonnant des dialectes, qui constituent son substrat structural et fonctionnel (càd. sociolinguistique). En tant que dialectologue, j'adhère sans équivoque au projet de l'*euskera batua*, tout en prônant une attention sociolinguistique aux *euskalkiak.*, càd. aux variétés dialectales. Je vais en outre tenter de présenter quelques pistes de recherche de **aréologie sociolinguistique basque** à partir d'une vision en géométrie variable du **réseau dialectal** de l'*euskera*.

Le modèle classique de stratification géolinguistique hérité des néolinguistes (Bartoli) et de Corrado Isaia Ascoli qui oppose, dans une perspective diffusionniste, des aires "centrales" innovantes à des aires "périphériques" ou "isolées" conservatrices ne me semble pas suffisant pour interpréter une variation dialectale aussi complexe que celle de l'*euskera*. Ce modèle classique se décline comme ci-dessous.

Typologie des aires, selon Coseriu (1954, rééd. 1977: 148 et sgg), d'après Bartoli

1) aire **isolée**, ou aire moins exposée à la communication: «l'aire la plus isolée conserve généralement la phase antérieure», ex. {Sardaigne: *kras, domo, mannu, iski-re, ebba* } ~ {Italie centrale *domani, casa, grande, sapere, cavalla*}.

2) aire **latérale**, ou périphérique: «la phase des aires latérales est plus ancienne que la phase des aires intermédiaires», ex. {Ibérie: *hermoso, mesa, hervir, entonces, dia, mas* } ~ {Gaule: *beau, table, bouillir; alors, jour, plus; Italie: bello, tavola, bollire, allora, giorno, più* } ~ {Dacie: *frumos, masa, a fierbe, atunci, zi, mai* }

3) aire **majeure**: «l'aire majeure conserve généralement la phase antérieure (à moins que l'aire mineure soit moins exposée ou soit constituée d'aires latérales», ex. {Ibérie, Gaule, Italie: *cosa, mes, abrir, y; chose, mois, ouvrir, et; cosa, mese, aprire, e* } ~ {Dacie: *lucru, luna, a deschide, si* }

4) aire **postérieure**: «la phase antérieure se conserve généralement dans l'aire postérieure», ex. {Provinces romaines: esp. *comer, nieto, miedo*, franç. *oncle*, roum. *a duce* } ~ {It. *mangiar, zio, nipote, condurre, paura*}.

J'ajouterai les modalités suivantes, s'appliquant à des normes ou pôles de moindres dimensions:

5) norme **d'innovation structurale** ou **interférentielle**: ex. nasalisation vocalique, spirantisation de /n/ en /h/ nasalisé et <ü> = /y/ => [y, ø] en souletin.

5.1) si le phénomène relève d'un mécanisme structural

5.2) si le phénomène relève d'un mécanisme interférentiel (hypercorrection, emprunt ou adstrat).

NB. Les guillemets correspondent à des citations de Bartoli. Les parenthèseses { } délimitent et constituent des types dialectaux lexicaux, càd. des classes naturelles géolectales.

J'attribuerai donc les caractéristiques sous forme d'abréviations en majuscules:

1) ISOL.

2) LAT.

3) MAJ.

4) POST.

5) INNV.

5.1) INNV.-Struct.

5.2) INNV.-Interf.

Dans une approche d'aréologie dynamique, ces modalités géolectales complètent, spécifient ou se substituent aux dialectes (A, B, G, L, N, S...)

J'ai tenté de disposer cette taxinomie dans un tableau synoptique pour indexer les données de l'EAEL, mais cette classification ne me permettait pas de décrire la réalité de manière satisfaisante. Il était par ailleurs hors de question de citer les localités à chaque fois, ce qui rendrait fastidieux et atomiste le travail d'observation, de classement des variables phonologiques, morphologiques et lexicales.

Ces divisions paraissent *ad hoc*: elles manquent d'autonomie pour maintenir suffisamment les critères de généralité. Je réduis donc tout à deux modalités géolinguistiques: majeure et mineure, que je spécifie comme continu ou discontinu. Cette bipartition minimaliste en termes de volume (densité) et de continuité (cohérence, stabilité) neutralise cependant la polarité dynamique (innovant versus périphérique). Or, ces concepts ne sont que relatifs, et entâchés de présupposés évolutionnistes. En outre, les notions que je retiens rendent compte de deux facteurs importants du point de vue de la problématique des réseaux: majeur/mineur implique l'aspect quantitatif, démographiquement proportionnel (combien de localités et de locuteurs en relation de synchronie sur un fait de norme), et continu/discontinu implique la densité et la cohérence du réseau (jusqu'à où les locuteurs se synchronisent sur une norme). Cela revient à donner la primauté à des variables sociolinguistiques sur les variables philologiques (ici, la chronologie importe moins que le rang d'apparition et de constance structurale).

Outre ses limites descriptives, cette théorie aréale s'intéresse davantage à la stratigraphie qu'à la dynamique sociolinguistique d'autonomie par diffusion, intensification ou au contraire capacité de résistance à un changement structural possible ou en cours, déterminé en partie par des contraintes naturelles du point de vue intralinguistique, comme nous allons le voir.

Afin de classer du point de vue de l'aménagement naturel, géolectal de normes locales les variantes d'une même variable morphologique (*dau* versus *du*, *diut* versus *dodas*) ou phonologique (*zilar* vs. *zidar*, *aita* vs. *aitta*, *idia* vs. *idie*, *idixa* vs. *idixe*, etc.), je propose le modèle des tableaux en T-1, T-2 et T-3 (pour des raisons de commodité éditoriale, ces tableaux et quelques autres cités plus avant ont été paginés en

fin d'article), ordonné en fonction de deux critères: *magnitude* (aires majeures vs. aires mineures) et *continuité* (continu vs. discontinu). Cette lecture des faits dialectaux éclaire la variation sous un angle davantage sociolinguistique: les aires discontinues majeures correspondent à des strates de conservation (inertie) ou de diffusion (mouvement) plus anciennes, englobent davantage de communautés locales, et représentent une strate historique de l'aménagement linguistique "naturel" de l'euskera. La plupart de ces variantes ont été à juste titre (représentativité aréale en tant que phénomènes massifs ou relativement diffus sur un large territoire) intégrées à l'*euskera batua* dans une vague plus récente d'aménagement linguistique "institutionnel".

Cette continuité mérite d'être signalée, dans la mesure où elle résulte d'un diagnostic aréologique relativement intuitif hérité de la philologie appliquée pratiquée par Koldo Mitxelena et les promoteurs de l'*euskera batua*. En revanche, les aires majeures continues correspondent le plus souvent à des dialectes individués, comme le biscayen (*dodas, zidar, aista*), tandis que les aires mineures discontinues correspondent souvent à un sous-réseau dialectal en voie de fragmentation (*zilar* et *ahizpa* en Iparralde, c.à.d. au Pays basque côté français), soit à des segments isolés pour des raisons de norme locale ou de stylistique (*buruba, burube, urso* ou *aitxa*). Ces données sont réécrites en termes de processus ou de sélection de traits en T-3.

Ces trois premiers tableaux mêlent des variables morphologiques et des variables phonologiques. Les tableaux 4 et 5 (T-4 et T-5) poursuivent cette démarche de distribution aréale selon deux critères (magnitude et continuité) à titre d'exemple sur une variable phonologique homogène par la distribution (consonnes lenes intervocaliques), hétérogènes par la spécification de lieu d'articulation des segments: coronale -d- vs. dorsale -g- en contexte intervocalique hétérorganique (e-a, u-e) et homorganique (i-i et u-u conditionné par -r final): *edan, suge, idi, sudur*.

Ces tableaux font apparaître que les innovations progressent par modulation assymétrique de leur volume: une variable continue, en s'étendant ou en reculant devient discontinue (-r- de la phase aréale 1 à la phase aréale 2, comme indiqué par la flèche de droite à gauche), tandis qu'une mineure discontinue peut devenir mineure continue (-h- et -g- de la phase 1 à la phase 2).

Ce filtrage en aires majeure et mineures est en fait sous-jacent à l'entreprise de constitution de l'*euskera batua*, qui a été conçu de manière à donner préférence aux formes de distribution majeure, discontinue et continue. L'avantage de cette présentation est de spécifier les hiérarchies de volume et de cohérence spatiale, et par conséquent la hiérarchisation sociolinguistique des variables dans un réseau dialectal dont la géométrie variable peut se réduire à ce qu'en présentent les schémas S-1-3.

Là encore, les traitements conservateurs se retrouvent ordonnés en aires majeures discontinues, et les traitements innovateurs en aires majeures continues et mineures discontinues. La dynamique évolutive des trois entrées innovantes du tableau apparaît en T-5: une innovation s'amorce en aire mineure continue, puis s'étend en aire mineure discontinue, à moins de croître en aire majeure continue pour se fragmenter ensuite en aire majeure discontinue (*eran*, en Biscaye et Gipuzkoa). Le processus phonologique analysé ici relève de la lénition du terme faible de la corrélation d'occlusives, se traduisant par une lénition graduelle par approximantisation (d>r), spirantisation (g>h) ou l'amuïssement (d>zéro), ou une transphonologisation assimilante des caractéristiques périphériques du segment, favorisée par le contexte vocalique

labial ($g > b / u _ _$), qui filtre le trait de tonalité +grave de /g/ pour le réinterpréter comme une labiale: /b/.

Nous pouvons désormais élargir le champ empirique, en traitant une variable phonologique unitaire dans un segment du réseau dialectal basque: le traitement des groupes vocaliques de l'absolutif singulier. Le site morphologique concerné touche la jonction entre la voyelle thématique et le suffixe -A déterminant flexionnel. Nous allons maintenant donner un "coup de zoom" sur un segment du réseau dialectal concernant cette variable: l'ouest du domaine (bisciaïen et guipuzcoan occidental, segment du réseau dialectal étudié par Olabarri, 1995). Ce coup de zoom nous permettra d'illustrer le principe de fragmentation des aires, qui en détermine la discontinuité, dans notre dispositif aréologique. Les faits, repris de Hualde et de Urbina (1993:16) sont décrits en T-6 et T-7, glosés en termes de processus en T-8, et représentés en dérivations et opérations syncrétiques dans les schémas 4 et 5 (S-4 et S-5).

T-6. Cycles de séquences vocaliques en finale dans des sites flexionnels (biskaiera)

	Arratia	Getxo	Gernika	Bermeo	Lekeitio	Ondarroa
a-a	<i>alabea</i>	<i>alabe</i>	<i>alabie</i>	<i>alabie</i>	<i>alabia/alabii</i>	<i>alabi</i>
	-ea	-e	-ie		-ia, -ii	-i
e-a	<i>berdea</i>	<i>berde</i>	<i>berdie</i>	<i>berdie</i>	<i>berdia/berdii</i>	<i>berdi</i>
	-ea	-e	-ie		-ia, -ii	-i
o-a	<i>basoa</i>	<i>baso</i>	<i>basoa</i>	<i>basue</i>	<i>basua/basue</i>	<i>basu</i>
	-oa	-o	-oa	-ue	-ua/-ue	-u
i-a	<i>mendie</i>	<i>mendi</i>	<i>mendiʒe</i>	<i>mendiʒe</i>	<i>mendiʒa</i>	<i>mendixe</i>
	-ie	-i	-iʒe		-iʒa	-ixe
u-a	<i>eskue</i>	<i>esku</i>	<i>eskue</i>	<i>eskue</i>	<i>eskua/eskuu</i>	<i>esku</i>
	-ue	-u	-ue		-ua/-uu	-u
uCa	<i>lagune</i>	<i>lagune</i>	<i>lagune</i>	<i>lagune</i>	<i>laguna</i>	<i>lagune</i>
	-une				-una	-une
oCa	<i>gizona</i>	<i>gizona</i>	<i>gizona</i>	<i>gizona</i>	<i>gizona</i>	<i>gizona</i>
	-ona					

The Basic Dictionary of the Finnish Language aims at describing the core vocabulary of present-day Finnish. In addition to standard language vocabulary, the dictionary contains central terms from specialised fields, colloquial expressions, slang words and dialectal variants, especially those that have been frequently used in the mass media. The Basic Dictionary includes recommendations on orthography, derivation, pronunciation, style, meaning, as well as use in clauses and phrases. The recommendations are based on the recommendations issued by the Finnish Language Board of the Research Institute.

A machine cannot replace human work in the follow-up of vocabulary development. Lexicographers at the Research Institute follow the development daily by reading newspapers, magazines and books and by following other mass media; nowadays the Internet also offers lots of source material. New words and new ways of using expressions are stored in a database. Most of the new words are short-lived, e.g. words related to a phenomenon of the day, disappearing together with the phenomenon.

We still need traditional word collecting – gathering data from papers and books – but we also need wider textual material. The electronic corpora offer us a reliable way of obtaining data on the modern meaning of words and their generality, syntactic features, typical collocations, style, phrases, etc. The Research Institute for the Languages of Finland has been actively involved in the compilation of electronic text corpora, and presently it has a corpora containing over 40 million words. The corpus consists mainly of newspaper and magazine articles from the 1990s, as well as of certain other genres.

The Basic CD Dictionary of the Finnish Language

The CD-ROM version of the Basic Dictionary of the Finnish Language was published in 1997. The electronic data for the dictionary was therefore structurally modified in accordance with SGML coding, which enables many-sided search options. In addition to searching words by using the alphabetical index, searches can be done by giving just the end of a word, or the search can be directed to the various structural parts of an article, e.g. the explanation or the example. A central feature of

Finnish words is that they can be inflected, and it is a great challenge for an electronic dictionary to produce and identify inflections. Language technology was used in the compilation of the CD-ROM Basic Dictionary so that the dictionary can produce all the inflections of inflectable words, even compounds, if necessary. Moreover, the entire text in the dictionary has gone through a morphological analysis program, and consequently, in addition to the uninflected form of a word, the dictionary program finds even its inflected forms in the text. This feature has so far been rare in the Finnish electronic dictionaries.

Compared to the printed Basic Dictionary, the CD-ROM version has 2,000 more new entries, and as many updated old entries. A new revised version of the CD-ROM dictionary is almost ready (in October 2001), and there will be 3,000 new words along with other changes in the dictionary. The dictionary will also include new features, such as the comparatives of adjectives. There will also be 20,000 Finnish place names – names of cities, town, communities – together with information on their inflection; even appellatives are inflectable in Finnish, and that may cause problems in some cases. So, the traditional dictionary is gradually changing into a multi-purpose program combining the needs of language planning and lexicography, serving the purpose of solving problems of language usage in a many-sided way.

SOURCES

- HAARALA, Risto (1989). *Sanat tiedon ja taidon palveluksessa*. In *Nyky-suomen sanavarat*. Edited by Jouko Vesikansa. Porvoo–Helsinki–Juva: WSOY.
- HAKULINEN, Lauri (1979). *Suomen kielen rakenne ja kehitys*. Fourth, revised and added edition. Helsinki: Otava.
- HÄKKINEN, Kaisa (1994). *Agricolasta nykykieleen. Suomen kirjakielen historia*. Porvoo–Helsinki–Juva: WSOY.
- RINTALA, Päivi (1998). *Kielikäsitys ja kielenohjailu*. – Sananjalka. Suomen kielen seuran vuosikirja 40. (The 40th annual of the Society for the Finnish Language). Turku, pp. 48–65.
- THOMAS, George (1991). *Linguistic Purism*. London & New York: Longman.

Hiztegi Batuaren lehen itzulia. Hitz arruntak - Hitz bereziak, Zuzenbidearen ikuspegitik

Andres Urrutia
Esther Urrutia

1. SARRERA: HIZTEGI BATUAREN NONDIK NORAKOAK

Jurislinguista direnentzat, alegia, zuzenbidea eta hizkuntza batera lantzen dituztenentzat, ohikoa izaten da hitz arruntak eta hitz bereziak zedarritzatzea, zuzenbidearen ikuspegitik behinik behin. Horretarako, jurislinguista euskaldunek ezinbesteko abiapuntua dute gaur egun: Hiztegi Batua. Izan ere, Euskaltzaindiak Hiztegi Batuaren lanketari ekin dio azken urteotan. Bukatua eta argitaratua du, dagoeneko, Hiztegi Batu horren lehen itzulia; bigarrena hasi berria du, eta hirugarren itzuli baterako itxaropenean ere, badabil Euskal Akademia. Euskaltzaindiak badaki, jakin, hiztegi-gintzarako osagarrien premia dagoela euskal gizartean. Badaki, halaber, lehendabiziko eginkizun duela hizkera erkideari dagokiona. Hartara zehaztu du Hiztegi Batu horren helburua:

Hiztegi Batu hau da, Euskaltzaindiarentzat, euskal hitzen, aldaeren eta horien guztien erabileren zuzentasuna edo egokitasuna erabakitzeke irizpidea. [...]

Argi dago Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua, lehen idatzaldi honetan, ortografia hiztegia dela batez ere, hau da, hitzen forma egokiaz ari dena. Ez da hori harritzekoa, arautze bidean gertatzen diren hizkuntza guztiak urrats hori egiten baitute lehenik. [...]

Hiztegi honek, arau kontu guztiak bezala, letra eta espiritua du. Esan gabe doa Hiztegi Batu hau ontzean erabili dugun filosofia dela, batez ere, euskaldunek aintzat hartzea nahi genukeena¹.

Horra hor Hiztegi Batuaren xede nagusia. Baditu, nolana ere, bestelako esanahiak².

Dena dela, aski da Hiztegiari gaingiroki begiratzea besterik ere eskaintzen duela ikusteko.

Hortaz, Hiztegi Batua ez da ortografia hutsean agortzen, eta hizkuntzaren hainbat ezaugarri bertara batzen ditu. Arloz arlo dabilenak ere agerikoak izan ditzake, hitz bilduma horretan, landu beharreko hiztegi berezien hitzak. Halako berbek terminolo-

1 EUSKALTZAINDIA: «Hiztegi Batua», *Euskera*, 45, 2 (2000), 481, 483 eta 484. orr.

2 EUSKALTZAINDIA: «Hiztegi Batua», *Euskera*, 45, 2 (2000), 483. or.

giaren txokoa maiz-sarri uki dezakete. Euskaltzaindiak aspalditik aitortu zuen bere esparrutik kanpo ikusten zuela langintza hori, besteak beste, behar adina baliabiderik ez zuelako. Aitortza hori gorabehera, bistan da Euskaltzaindiaren ekarriaz balia gaitzkeela arloz arloko oinarri batzuk nabarmentzeko. Egia da Euskaltzaindiari ez dagokiola “administrazio-zuzenbidea” hiztegi berezia oso-osorik egitea. Alabaina, Euskaltzaindiak adierazi behar du hiztegi berezitu horretatik zer ekar daitekeen hiztegi batu eta orokorrera; alegia, hiztegi berezitu horren lehen urratsak Akademiatik bertatik etorri behar dira, hizkera erkidearen hiztegia zehazten doan neurrian.

Lehen pauso horiek bilatzeko eta, zehatzago, administrazio-zuzenbidearen arloko hitz berezituak bilatzeko, lehenengo eta behin, Hiztegi Batu horretara jo izan dugu. Gure asmoa, lehen so edo hurbilketa honetan, hauxe izan da: Hiztegi Batu horretatik euskal juristarentzat erabilgarrien zer izan daitekeen plazaratzea. Egia esan, hiztegi osoa du erabili beharrekoa euskal legelariak, edozein euskaldun ikasik izan beharko lukeen moduan. Lanbideko jardunean, lege-administrazio irakaskuntza bideetan, horietan guztietan du zimentarri Hiztegi Batua euskaldun adituak.

Lege eta administrazio arloari dagokionez, Hiztegi Baturako lehendaurrezko egiaztatzeak garamatza puntu honetara, alegia, *Zuz.* eta *Admin.* laburdurak erabilia, ea nahiko izango litzatekeen halako laburdura daramaten hitzak jasotzea, Hiztegi Batutik molda dezakegun hiztegiño juridikoa osatzeko. Hori egin... eta hara zer aurkitu dugun:

Admin. laburdurarekin:

ganbera 1 *Ipar.* 'logela'. 2 *Admin.*: *diputatuen ganbera; merkataritza ganbera; ganbera musika.*

ogasun 1 *Bizk.* 'ondasuna'. 2 *Admin.* '*finantzak*'

Zuz. laburdurarekin

oinordetza *Zuz.*

zehatu, zeha, zehatzen. 1 *du ad.* 'jipoitu'. 2 *Zuz.* 'zigortu'

Hiztegi Batuak bere lehen itzulian, batez beste, 21 000 sarrera dituela kontuan izanik, sinesgaitza da lau bakarrik izatea *administrazio-zuzenbideari* dagozkionak. Zerrenda sakon aztertuz gero, argiro-argiro ikus daiteke beste hitz batzuk ere, laburdura zehatzik ez duten arren, *administrazio-zuzenbidearen* arlo berezi horretakoak izan daitezkeela. Adibide gisa, aldera ditzagun *deklaratu* eta *zitatatu* hitzak. Hona zer datorren, zehatz-mehatz, Euskaltzaindiaren argitalpenean, bi horien inguruan:

deklaratu, deklaratu, deklaritzen. *du ad.* 1 (epaiketaren inguruko adierarekin batez ere). 2 h. **adierazi**, **agertu**, **aitortu**, **azaldu**, etab.

zitatatu 1, zita(tu), zititzen. *du ad.* 1 'epailearen aurrean aurkezteko deitu'. 2 *g.er.* 'aipatu'. 3 *Heg.* 'hitzordua izan'

Edonola ere, ez da nahiko Hiztegi Batuan *Zuz.* eta *Admin.* laburduradun hitzak bilatzea, bertako hiztegi juridiko laburra osatzeko. Bilaketa-lana, beraz, ez zaigu hain erraz gertatuko. Zein izan behar dira, bada, lan horri ekiteko irizpideak?

1.1. *Gai zehatz baten azterketa: baldintzak*

Jakina denez, Hiztegi Batuan lehenengo itzulian, Euskal Akademiak nahi-taezko izan ditu oinarri batzuk, hala nola, *Orotariko Euskal Hiztegia* eta *Euskararen*

Eguno Bilketa Sistematikoa. OEH eta EEBS izan dira orain arteko zutabe nagusiak, eta horietatik abiatuta osatu zen *Hiztegi Batua*.

Hasierako baldintzak horiek izanik, hitz juridikoak Hiztegi Batuan zedarritzateak bestelako galbahea eskatzen du, bi zutabeotan zuzenbideko edukia idoro nahi bada. Zuzenbidearen arloari gagozkiola, esan dezagun oinarriok urriak direla, eta osatu beharrekoak, betiere, hizkera erkide edo arruntari arlo honetako ekarriak egiteko asmoetan. Luzeago jardungo dugu, hala ere, puntu honi buruz, geroari buruzko kontuak aipatzean.

Bestelakoa egin bitartean, eskura duguna lehenengo itzulia baino ez da, eta horri heldu diogu, Zuzenbidearen eta Administrazioaren hizkerari dagozkion hitz berezkoak azpimarratzeko. Izan ere, hizkera juridiko-administratiboa hizkera berezi-tzat har daiteke, hizkera arruntari begira, eta jarraian hori adierazteko arrazoiak azalduko ditugu.

1.2. *Hizkera erkidea - hizkera berezituak*

Azaldu legez, hizkera berezituak, hizkera arruntan eretzean, hainbat desberdintasun dituzte; baina nabariena da, hain zuzen ere, lexiko zehatza erabiltzea:

“Todos los lenguajes especiales hacen uso del mismo sistema gramatical de la lengua general, pero se caracterizan por peculiares rasgos fonéticos (sólo relevantes en algunos lenguajes especiales), léxico-semánticos, morfosintácticos y de estilo; aunque es el léxico específico de cada uno de ellos lo que sustancialmente los diferencia: los textos se distinguen por una alta frecuencia de lexemas desconocidos para el no iniciado o de unidades léxicas que tienen un significado diferente en la comunicación diaria”.

Hizkera juridiko-administratiboaren kasuan, hizkera berezituak ezaugarri hori begi-bistakoa da. Badira, bestalde, hizkera juridiko-administratiboaren inguruan aipa daitezkeen beste ezaugarri batzuk ere.

Lehenengo eta behin, *hizkera juridikoa lanbide zehatz bateko hizkera da*, alegia, talde zehatz batek darabilen hizkera da:

“The language of the law, sometimes even a particular word, has a dual aspect. Lawyers use language that is intended to speak to lawyers and laymen, as in contracts, jury instructions, notices, and even laws. Lawyers also use language that is intended to speak primarily to each other, in pleadings, opinions, articles, books, argument, the whole gamut of legal papers, and in the day-to-day negotiation and discussion that is the lawyer’s life. In this latter aspect, a portion of the language of the law is *argot*, a “professional language””.

Bigarrenik, *hizkera juridikoa hizkera teknikoa da*, zientzia bati buruzkoa delako. Tekniko izatearen ondorioz, hizkera juridikoa zehatza ere bada; bestela, segurtasun juridikoa kolokan jarriko litzateke. Zehaztasun horren bila, oso lagungarri gertatzen da jurisprudenziaren eginkizuna:

The standard answer to any criticism of the language of the law is that this language is *precise*. If the criticism is especially violent, the answer is modified only to the extent of saying that the language of the law is *more precise* than the ordinary speech... Call it

3 MARTÍN, J. eta beste batzuk: *Los lenguajes especiales*, Comares, Granada, 1996, XV. or.

4 MELLINKOFF, D.: *The language of the law*, Little, Brown and Company, Toronto, 1990, 18. or.

what you will. *Precise* it is said to be, and that virtue is deemed sufficient, that the clincher in any argument⁵.

Hirugarrenik, *hizkera juridikoa hizkera tradizionala dela* esan ohi da, gizartea dagoenetik, zuzenbidea ere badagoelako (*ubi societas, ibi ius*) eta, hori hitzen bitartez kanporatu behar denez gero, zuzenbidea dagoenetik, zuzenbideko hizkera ere badagoelako. Euskararen kasuan, beharbada, tradiziozko izaera hori ez da hain ugaria, baina ezin dira ahantzi Foru zuzenbideko nahiz Gaztelako zuzenbideko aztarnak.

Ezaugarri horiek guztiek eurekin dakarte hizkera juridikoa hizkera berezitua izatea. Edonondik begira dakiola ere, horrek ez du esan nahi hizkera erkidetik aparte aztertu behar denik. Aitzitik, hizkera juridiko-administratibo berezituak hizkera erkidearen espiritua gorde behar du, hizkera erkide horren arau eta garapenarekin bat etorri:

“Si aceptamos la hipótesis de que el idioma del derecho presenta características lingüísticas suficientes para constituir un lenguaje especializado, el postulado consiste en que todo lenguaje de este orden se desarrolla necesariamente en el seno de una lengua y, por consiguiente, que el vocabulario jurídico (francés) se desarrolla en el seno de la lengua (francesa), conexión elemental que no invita sólo a la comparación de esta lengua especializada con el lenguaje corriente o con otros lenguajes técnicos, sino que impone respetar el espíritu de la lengua a la que pertenecen según sus normas y su evolución⁶”.

Hori dela eta, Hiztegi Batuaren nondik norakoak erabakigarri dira lexiko juridikoarentzat ere. Santiago Mollfulleda Buesak, bere doktoregoko tesian, astronomiako metafora erabili zuen, hizkera juridiko eta hizkera arruntaren arteko harreman ezinbestekoak azaltzeko. Metafora hori, agidanez, argigarri izan daiteke. Hizkera arrunta eguzkiarekin pareka daiteke, eta gogoratu behar da eguzkia masa gaseosoa dela. Hori horrela izanik, «los tecnicismos específicamente jurídicos podrían concebirse como aquellas protuberancias solares que no dejan de pertenecer a la corona, aunque se proyecten a enormes distancias»⁷.

2. HIZTEGI BATUAN HITZ JURIDIKOAK BILATZEA: ESKLUSIBOTASUNA ETA ELKARREKIKOTASUNA⁸

Esanaren arabera, Hiztegi Batuak, bere lehen itzuli horretan, hitz arruntak bildu ditu gehienbat. Horrek ez du esan nahi, ordea, hiztegi horretan hitz juridiko gutxi dagoenik. Aitzitik, gure ekinean 1.866 hitz juridiko aurkitu ditugu, eta horiek guztiak lan honen eranskin modura zerrendaturik datozkio irakurleari. Hortaz, Hiztegi Batuaren edukia %10ek, gutxi gorabehera, zerikusia du Zuzenbide eta Administrazioaren esparruarekin.

5 MELLINKOFF, D.: *The language of the law*, Little, Brown and Company, Toronto, 1990, 291. or.

6 CORNU, G.: *Vocabulario jurídico*, Temis, Santa Fe de Bogotá, 1995, XII. or.

7 MOLLFULLEDA BUESA, S.: *Lenguaje jurídico y lengua común*, Bartzelonako Unibertsitatea, Bartzelona, 1980, 22. or. (doktoregoko tesiaren laburpena)

8 Gureak egingo ditugu Enrique Alcaraz Varó jaunaren hitzak: «Ni qué decir tiene que esta clasificación es simplemente didáctica, ya que los límites entre los (tres) grupos no son siempre diáfanos, ni todos los hablantes nativos estarían dispuestos, en la mayoría de las ocasiones, a considerar que un término pertenece a un grupo o al otro». (ALCARAZ VARÓ, E.: *El inglés jurídico*, Ariel, Bartzelona, 3. argitaraldia, 1998, 82. or.)

Hala eta guztiz ere, Hiztegi Batura zein hitz juridiko bildu den jakiteko, aurrenik, termino juridikoa zer den definitu behar dugu⁹. Definizioari eutsiz, *hitz jakin bat termino juridikoa izango da, baldin eta antolamendu juridikoak esanguraren bat ematen badio*. Hortaz, hitz juridikoak esanahi edo karga juridikoa behar du izan, eta Zuzenbideko hiztegiaren barruan sartu behar da, eragile juridikoek hala erabiltzen dutelako. Edozein egitate, ekintza edo gertaera juridikotzat har daiteke, baldin eta zuzenbideak arautzen dituen ondorioak sortzen baditu.

Bigarrenik, behin termino juridikoa zer den argitu eta gero, hitz juridikoen eskusibotasuna eta elkarrekikotasuna izan behar ditugu kontuan.

Hitz juridiko eskusiboak dira zuzenbideari soil-soilean dagozkionak. Halakoek esangura juridikoa besterik ez dute. Edozein erabilera izan dezaketen arren, beti esangura juridiko zehatzarekin erabiliko dira hitz horiek, ez baitute Zuzenbidearen esparrutik kanpo inolako esanahirik. Bistakoa denez, hitz juridiko eskusiboak oso-oso gutxi dira; gainera, ez dira adierazgarrienak, ez dituztelako Zuzenbidearen munduko erakunde oinarrikoenak islatzen.

Bestalde, ez dira hitz juridiko eskusiboak eta, beraz, *elkarrekikoak* dira zuzenbidearen hizkera eta hizkera erkidea batzen dituztenak. Zuzenbideko hiztegieta termino gehienak horrelakoak dira. *Hitz polisemikoak* izan ohi dira, eta *lexiko erkidea* aberasten dute¹⁰.

2.1. *Hitz juridiko eskusiboak*

Zuzenbideko hiztegieta halakoak gutxi badira, Hiztegi Batuan are gutxiago.

Zergatik hitz horiek esangura juridikoa baino ez dute?

- a) Jatorria: hitz juridiko eskusibo gehienak ez dira berriak, nahiz eta berri batzuk izan (*juridicidad, salarial...*). Hitz berriak erabat zehatzak direlako edota gainerakoek duten jatorria dela medio, ez dute esanahi juridikoa besterik garatu.
- b) Erabilera: hitz horien erabilera eraginda esangura juridikoa baino ez dute:
 - Zuzenbidean aditua denak bakarrik ezagutzen dituelako.
 - Hitz horiek aditzera ematen duten esangura historikoa-edo desagertze bidean dago.
 - Hitz horien esangura, Zuzenbidearen praxiaren munduan ere, oso arruntak ez direlako, ez dira hiztegi arruntean sartzen.
 - Hitz batzuk jurista mota batek erabiltzen dituelako: notarioek, forentseek...
- c) Balioa: hitz horiek duten esangura erabat itxia da. Batzuetan esangura figuratiboa adieraziko dute (*senalagmático, postulación...*) eta horrek hitz horien eratortzea oztopatzen du.

9 «Les mots à considérer ici, en eux-mêmes, sont les éléments du vocabulaire juridique, les termes juridiques. Deux critères associés les caractérisent comme entités de base du langage du droit:

»—Ils sont porteurs d'un sens. Ce sont des unités significatives. Dans cette fonction, chacun constitue une entité linguistique distincte et autonome qui suffit par elle-même à produire un sens, à signifier.

»—Ils sont porteurs d'un sens juridique. Ils ont un sens au regard du droit. Ceux que nous retenons reçoivent même plus spécifiquement leur sens du système juridique...» (CORNU, G.: *Linguistique juridique*, Domat, Paris, 2. argitaldia, 2000, 67. or.).

10 Ez gaitu inola ere harritu behar, hizkera juridikoa hizkera berezitua izanik ere, polisemia nagusi izatea: «La primera revelación de este momento de síntesis consistió en designar la polisemia de los términos jurídicos como una de las características lingüísticas esenciales del vocabulario del derecho. Lo sabíamos del lenguaje corriente, pero muy a la carrera decíamos que un lenguaje técnico forja términos con un solo sentido. Acerca de esta creencia podíamos entrar en controversia, pero solo con respecto a los significados falsos. En cuanto a los demás, el fenómeno inevitable de la polisemia se imponía como una evidencia y como una riqueza científica que había que explotar» (CORNU, G.: *Vocabulario jurídico*, Temis, Santa Fe de Bogotá, 1995, XV. or.).

- d) Aipakizunak: termino juridiko eskusiboek zehaztasunezko esangura teknikoa dute. Hitzien adierazia erreferente juridikoa delako, ez dute bizitza arruntean parekorik.
- e) Konkurrentzia: hitz juridiko eskusiboek ez dute hiztegi arruntean parekorik, eta hizkera arruntean, azken horiek erabiliko dira, adibidez, *hizpaketa* (hitz juridiko eskusiboa) erabili beharrean, *klausula* erabil daiteke¹¹.

Laburbilduta, zein dira hitz juridiko eskusiboen ezaugarriak?

- a) su **monosemia**, con lo cual se obtiene una gran precisión en su definición y gran estabilidad semántica y, consecuentemente permiten una gran seguridad jurídica; y b) su **carácter medular**, ya que, si no se entienden, no se puede comprender la especialidad. Algunos creen que éstos son los verdaderos *terms of art* (términos técnicos de la profesión), ya que para ellos no existe un equivalente en el (inglés) común o general¹²

Argi dago, beraz, hitz juridiko eskusiboak Hiztegi Batuan aurkitzea ia ezinezkoa izango dela. Hala eta guztiz ere, badira hitz juridiko eskusibo batzuk, Hiztegi Batuaren lehenengo itzuli horretan ageri ez direnak, baina bigarreneko alboraezin gertatzen direnak. Esaterako, gure foru zuzenbideetako zenbait erakunde berezi izendatzeko, euskal izenak erabili izan dira betidanik. Are gehiago, askotan euskal izen horiek ez dute erdarazko parekorik eta, horregatik, erdaraz hitz egin edo idatzi arren, euskaraz erabili behar dira (ikus, bestela, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilarri buruzko 3/92 Legea, uztailearen 1ekoa). Halako erakunde bereziak dira, besteak beste, hurrengoak:

alkar-poderoso	gasaila
erdirako/erdirikoa	ondazilegi

2.2. Hitz juridiko eskusibo ez direnak

Zuzenbideko hiztegietan halakoak badira gehienak, orobat Hiztegi Batuan. Cornu jaunaren hitzetan, hitz horien ezaugarri nagusia da *la double appartenance*:

“Dans leur immense majorité les termes du vocabulaire juridique ont également un sens dans le langage commun. À la vérité, ce peut être le même. Mais, dans la plupart des cas, il s’agit d’un sens différent. Lorsque cela est, un même terme est, par la pluralité de ses sens, à cheval sur le langage du droit et sur le langage courant. Un tel chevauchement pourrait être nommé double appartenance. *Les termes de double appartenance* sont ceux qui ont au moins un sens dans chaque vocabulaire¹³”.

agindu	eskubide	proposamen
arau	erakunde	zigor
betebehar	hitzarmen	zor
botere	ohitura	
debeku	proiektu	

Hona hemen, adibide gisa, ezaugarri horiek bete eta Hiztegi Batuaren lehen pasaldian ageri diren hitz batzuk:

11 URRUTIA, A. eta LOBERA A. (arg.), *Euskara, Zuzenbidearen hizkera*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2. argitaraldia, 1997, 91. or.

12 ALCARAZ VARÓ, E., CAMPOS PARDILLOS, M. A. eta MIGUÉLEZ, C.: *El inglés jurídico norteamericano*, Ariel, Bartzelona, 2001, 94. or.

13 CORNU, G.: *Linguistique juridique*, Domat, Paris, 2. argitaraldia, 2000, 74. or.

Azal dezagun, gaingiroki bada ere, zergatik hartu ditugun hitz horiek eta antze-koak, gure Hiztegi Batutik osaturiko hiztegi juridikoa moldatzeko.

Har dezagun, esaterako, kaleko eta lagunarteko hizkera. Halakoetan ohikoa da *ez dago horretarako eskubiderik!* entzutea. Esaldi horretan, *eskubide* hitzak ez du karga juridiko berezirik. Zernahi gisaz, *bizitzeko eskubidea* edota *grebarako eskubidea* aipatzen direnetan, *eskubide* hitzak karga juridiko berezia bereganatzen du. Orobat *ohitura* hitzarekin. Urtero-urtero Ibilaldira joatea ohitura izan daiteke, eta hitzak, kasu horretan, ez du esanahi juridikorik. Alabaina, *ohitura zuzenbidearen iturri izan daiteke* adierazten dugunean, orduan hitz horrek karga juridiko saihestezina erakartzen du. Adibideak anitz izan daitezke (*diruak boterea dakar / Montesquieu-k botere legegilea, botere betearazlea eta botere judiziala bereizi zituen*) (*asteburuan etxean geratu beharko zara, zigortuta zaude eta / urtebetetik sei urte arteko espetxe-aldi-zigorra*) etab. Agerikoa denez, kasurik gehienetan, hitz batek esangura juridikoa izateak ez du baztertzen hitz berberak esangura arrunta izatea, ezta alderantziz ere, esanahi arruntak ez baitu esanahi juridikoa alboratzen.

Nabari denez, halako hitz juridikoak etengabe erabiltzen dira eguneroko hizkeran eta, horregatik, orokortu egin dira. Horrek berarekin ekarri du euren esangura guztiontzat ezaguna (edo, behintzat, erdi ezaguna) izatea. Ondorenez, inoiz gertatzen da hitz juridikoen erabilera irudizkoa baino ez izatea¹⁴.

3. HITZ JURIDIKOEI HIZTEGI BATUAN DAGOZKIEN MARKAK

3.1. *Euskalki marka*

Hainbat hitzen formaren ondoan *Bizk.*, *Ipar.* eta *Naf.*, *Gip...* ikurrak ematen ditugu. Euskalki markaren bat azaltzen duten hitz horiei buruz esan behar da ez dela inondik ere Euskaltzaindiaren asmoa, marka horiek eranstea, horrelako hitzak baztertzea; aitzitik, euskalki hitzok Hiztegi Batuan sartzeak adierazten du Euskaltzaindiak bultzatu egin nahi dituela idazleak hitz horiek erabiltzera —jakinaren gainean eta nori bere senak agintzen dion eran, jakina— horrela euskaldun guztien ondare bihurtuz joan daitezten¹⁵.

Hori egia bada ere, ezin ukatuzkoa, maiz-sarri, euskalki bateko hitza gehitzean, beste hitz bat hobetsi beharra izan duela Euskaltzaindiak, hobetsitako hori Euskal Herri osoko euskara estandarretarako egokiagoa delakoan. Hori ezin da inondik ere kritikatu, Hiztegi Batuak zein helburu duen aintzakotzat hartuz gero. Horren argigarri gisa, aldera dezagun hona pare bat adibide:

errentero *Heg.* h. maizter
kastigu *Heg.* h. zigor

hartzedun *Ipar.* h. hartzekodun
tratulant *Ipar.* h. tratulari

¹⁴ «Así, es posible advertir el desvío semántico del término de Derecho fiscal IVA, Impuesto sobre el Valor Añadido, en el texto siguiente: El IVA de la moralidad. Así también, el referido término hipoteca ha llegado a generalizarse de tal modo que, en su pleno significado jurídico, se utiliza en campañas publicitarias del tipo: Hipoteca abierta de la Caja Rural. Una hipoteca abierta a tus necesidades. Junto a los dos términos citados, IVA e hipoteca, también pasan a la lengua general, entre otros, los términos jurídicos arras, tutor, candidato, herencia, robar, cómplice, testamento, testigo, legítimo y juez». (MARTÍN, J. eta beste batzuk: *Los lenguajes especiales*, Comares, Granada, 1996, 48. or.). Barregura eragiten duten adibideak ere jar daitezke, esaterako, *zezenen* munduan: «Los Toros. Aplazamiento de sentencia. Ambos novilleros tuvieron que entenderse con reses no aptas, por lo que la vista de la causa, ante el tribunal de los aficionados taurinos, deberá aplazar su sentencia».

¹⁵ EUSKALTZAINDIA: «Hiztegi Batua», *Euskera*, 45, 2 (2000), 482. or.

Horren inguruan, honako kezka hau azaltzen zaigu: *Heg.* marka duten hitzen kasuan, maizago gertatzen da beste bat hobestea, *Ipar.* marka duten hitzen kasuan baino. Zergatik ote? Esate baterako, Hegoaldeko *juez*-aren ordeztu, *epaile* hobetsi da; baina Iparraldeko *juje*-aren aldamenean, ez da *epaile* hobetsi. Arrazoa ez dugu argi ikusten, berori ez bada bata (iparraldekoak) izan dezakeen literatur tradizioa izatea besteak (hegoaldekoak) falta duena.

Beste batzuetan, aldiz, euskalki marka gehitu da, hitz zehatzak esanahi edo erabilera desberdinak izan ditzakeelako lurralde desberdinetan. Berbarako,

eragotzi, eragotz, eragozten. *du ad.*
1 *Ipar. Zah.* ‘egotzi’. 2 *Heg.*
‘debekatu’: argia ikustea
eragozten didatenak. 3 (erdarazko
molestar; déranger): eragozten
dizu hain berandu deitzeak?

manifestatu, manifesta,
manifestatzen. 1 *Heg. da ad.*:
milaka lagun manifestatu ziren
Bilboko kaleetan. 2 *Ipar. du ad.*:
milaka lagunek manifestatu zuten
Baionako kaleetan.

Heg. marka dutenak

Heg. ikurraren esanahia bestelakoa da, eta bitarikoa. Batzuetan, *Heg.* ikurraren bidez adierazi nahi dugu, delako hitza berria dela eta gaztelaniaz ez dakitenentzat ezin ulertuzkoa —*aleazio*, esaterako—; horrelako hitz askok bikotea osatzen dute *Ipar.* marka daramaten hitzekin —*Heg.* ikurra duen *alfonbra*-k *Ipar.* duen *tapiz*-ekin adibidez—. Kasu hauetan Euskaltzaindia ez da gauza izan euskaldun guztiok batu gaitzakeen forma bakar bat eskaintzeko, eta, oraingoz, horrelako bikoteekin etsi behar izan du. Beste kasu batzuetan, *Heg.* ikurrak —*aspertu*-ren lehen adieran, esaterako— adierazten du delako erabilera Hegoaldekoa soilik dela, eta horrelakoetan, noski, ez zaio horiek erabiltzeari inolako oztoporik jarri nahi. Ez dugu uste inongo irakurlek arazorik izango duenik bazuk eta besteak bereizten¹⁶.

Bi helburu horiek gogoan izanik, jarraikoak dira *Heg.* markarekin jasotako juridiko-administratibo kutsuko hitzik adierazgarrienak:

derrigor *Heg.* h. **baitezpada, nahitaez**
derrigorrean *Heg.* h. **behartuta**
derrigorrez* e. derrigorrean
derrigorre(z)ko *Heg.* h. **baitezpadako,**
nahitaezko
derrigortu, derrigor(tu), derrigortzen.
Heg. du ad. h. behartu
doarik *Heg.* h. **doan**
eragotzi, eragotz, eragozten. *du ad.*
1 *Ipar. Zah.* ‘egotzi’. 2 *Heg.*
‘debekatu’: argia ikustea eragozten
didatenak. 3 (erdarazko *molestar,*
déranger): eragozten dizu hain
berandu deitzeak?

errentero *Heg.* h. **maizter**
heredatu, hereda, heredatzen. *Heg. du*
ad. ‘jarauntsi’
herentzia *Heg.* ‘ondoretasuna’
juez *Heg.* h. **epaile**
juizio *Heg.* ‘epaiketa’
juzgatu, juzga, juzgatzen. *Heg. du ad. h.*
epaitu
kargu hartu *Heg.* ‘erantzukizuna
eskatu’
karrera *Heg.* h. **ikasketak**: *Zuzenbide*
karrera h. Zuzenbide ikasketak.
kastigatu, kastiga, kastigatzen. *Heg. du*
ad. h. zigortu

16 EUSKALTZAINDIA: «Hiztegi Batua», *Euskera*, 45, 2 (2000), 482. or.

kastigu *Heg.* h. **zigor**

kontzeju *Heg.*

letradu *Heg.* ‘legelaria’

lukurreru *Heg.* h. **lukurari**

manifestatu, manifesta, manifestatzen.

1 *Heg. da ad.*: milaka lagun

manifestatu ziren Bilboko kaleetan.

2 *Ipar. du ad.*: milaka lagunek

manifestatu zuten Baionako kaleetan.

merkantzia *Heg.* h. **salgai**, **gai**

ofenditu, ofendi, ofenditzen. *Heg. du*

ad. ‘iraindu’

partidu *Heg.* 1 h. **partida**. 2 h. **alderdi**

pertsegitu, pertsegi, pertsegitzen. *Heg. du ad.*

petxa 1 *Heg.* ‘zerga’

petxatu, petxa(tu), petxatzen. *Heg. du ad.* ‘zerga ipini’

protesta *Heg.*

sasiletradu *Heg.*: *sasiletraduentzat ez dago legerik.*

tesoro *Heg.* h. **altxor**

testigantza *Heg.* ‘lekukotasuna’

testigu *Heg.* ‘lekukoa’

tokamen *Heg.*: *irabazietan bakoitzari dagokion tokamena.*

zuzendu, zuzen(du), zuzentzen. *Heg. da/du ad.*

Ipar. marka dutenak:

asurantz *Ipar.* ‘asegurua’: *asurantza hartu*

bastart

boz 2 1 *Ipar.* ‘botoa, autarkia’. 2 ‘bozketa, hauteskundera’

eragotzi, eragotz, eragotzen. *du ad.* 1 *Ipar. Zah.* ‘egotzi’. 2 *Heg.* ‘debekatu’: *argia ikustea eragotzen didatenak.* 3 (erdarazko *molestar, déranger*): *eragotzen dizu hain berandu deitzeak?*

erregelamendu *Ipar.* h. **araudi**, **arautegi**

galdatu, galda, galdatzen. *du ad.* 1 ‘goritu’. 2 *Ipar.* ‘galdegin, eskatu’

galde 1 ‘galdera, itauna’. 2 *Ipar.* ‘eskaera’: *galde-erantzunak*

gazitgatu, gazitga, gazitgutzen. 1 *dio ad.* ‘abisatu, ohartarazi’. 2 *Ipar. du ad.* ‘zigortu’

gazitgu 1 ‘abisua’. 2 *Ipar.* ‘zigorra’

gizalde batez ere *Ipar.* ‘giza taldea’

hartzedun *Ipar.* h. **hartzekodun**

igurikimen *Ipar.* ‘itxaropena’

inkesta 1 ‘iritzi-bilketa’. 2. *Ipar.* ‘auzitegiko ikerketa’

izpiritu *Ipar.* edo *Jas.* h. **espiritu**

jabaldura *Ipar.*

jujamendu *Ipar.* ‘epaiketa’

jujatu, juja, jujatzen. *Ipar. du ad.* ‘epaitu’

juje *Ipar.* ‘epaile’

kitantz *Ipar.* ‘ordainagiria’

kobratu, kobra, kobratzen. *du ad.* 1 *Ipar.* ‘berreskuratu’. 2: *soldata kobratu.*

laido *Ipar.* edo *Jas.*

langilego 1 *Ipar.* ‘langiletasuna’. 2* e. **langileria**, **langileak**

lekatu 1, leka(tu), lekatzen. *Ipar. du ad.* *Zah.* ‘kanpo utzi, salbuetsi’

libera 1 ‘Frantziako dirua’. 2 *Ipar.* h. **libra**

libertate batez ere *Ipar.* ‘askatasuna’

librantza *Ipar.*

luzamendu *Ipar.*

manamendu *Ipar.* ‘agindua’

manatu, mana, manatzen. *Ipar. eta Naf. du ad.*

manatzaile *Ipar.* eta *Naf.*

manifestatu, manifesta, manifestatzen.

1 *Heg. da ad.:* milaka lagun
manifestatu ziren Bilboko kaleetan.

2 *Ipar. du ad.:* milaka lagunek
manifestatu zuten Baionako
kaleetan.

manupeko *Ipar.*

meneko *Ipar.*

ofentsatu, ofentsa(tu), ofentsatzen.

Ipar. du ad. 'iraindu'

ofentsatzaile *Ipar.* 'iraintzailea'

ordenu *Ipar.* 'hilburukoa, testamentua'

paga 1 *Ipar.* eta *Naf.* 'lansaria': *apezen*
paga. 2 *Heg.* (haurrei ematen
zaiena)

partitu, parti, partitzen. *Zah.* edo *Herr.*

1 *du ad.* 'zatitu, banatu, bereizi'. 2

Ipar. da ad. 'joan, irten, abiatu'

petzero *Ipar.* 'mendekoa'

populu *Ipar.*

prefet *Ipar.*

premu *Ipar.* 'seme nagusia;
'oinordekoa'

premugo *Ipar.*

premutasun *Ipar.*

profitatu, profita, profitatzen. *Ipar. du*
ad. Herr.

prometatu, prometa, prometatzen. *Ipar.*
du ad. Zah. 'promestu, agindu'

prozedura 2 *Ipar.* h. **isun**

tratulant *Ipar.* h. **tratulari**

ukan, ukaiten. *Ipar. du ad.* 'izan'

ukandun *Ipar. g.er.*

utzietsi, utzietsen, utziesten. *Ipar. du ad.*
'bertan behera utzi'

Bizk. marka dutenak:

apartatu, aparta, apartatzen. *du ad.*

Lgart. 1. *Gip.* eta *Bizk.* 'aukeratu'.

2 'bereizi'

behargin *Bizk.*

beharrizan *batez ere Bizk.* 'beharra,
premia'

gizaldra *Bizk.* 'giza taldea'

gizateria *Bizk.*

jagon, jagoten. *Bizk. du ad.*

legegin *Bizk.* 'legegilea'

ogasun 1 *Bizk.* 'ondasuna'. 2 *Admin.*
'finantzak'

ostendu, osten, ostentzen. *Bizk. da/du*
ad. 'ezkutatu'

pentzudan *Bizk.:* *arazo hori nire*
pentzudan utz ezazue ('nire
ardurapean')

postura *Bizk.* 'apustua'

senikera *Bizk.* 'senidetasuna,
ahaidetasuna'

testigutza *Bizk.* 'lelukotasuna'

Bada beste bat, *Bizk.* markarik ez duena, baina argi eta garbi lurralde historiko horri dagokiona:

elizate 'Bizkaiko lur zabaleko herria'

BNaf. marka dutenak:

Bat bakarrik

auzapez *Lap.* eta *BNaf.*

G-B marka dutenak:

Ez dugu halakorik bilatu.

Gip. marka dutenak:

Bailara hitzaren kasuan izan ezik, bestelakoetan beste laburdura batzuekin ageri da.

apartatu, aparta, apartatzen. *du*
ad. Lgart. 1. *Gip.* eta *Bizk.*
'aukeratu'. 2 'bereizi'

bailara *Gip.* 'eskualde txikia'
lizentzi izan *Gip. da* ad. *Herr.*
'zilegi izan'

Lap. marka dutenak:

Bat bakarrik eta ez darama laburdura hori bakarrik

auzapez *Lap.* eta *Bnaf.*

Naf. marka dutenak:

Ez dago *Naf.* marka huts-hutsean daraman hitzik. Daudenek, *Naf.* markaz gain, *Ipar.* marka daramate. Hona hemen halakoak:

manatu, mana, manatzen. *Naf. du*
ad.

paga 1 *Ipar.* eta *Naf.* 'lansaria':
apezen paga. 2 *Heg.* (haurrei
ematen zaiena)

manatzaile *Naf.*

Zub. marka dutenak:

jesan, *jesa(i)ten.* *Zub. du* ad.
'maileguz hartu'

ogen *Zub.* h. **hoben**

3.2. *Mailegu zaharkituak eta gutxi erabiliak*

Erabileraren aldetik, hitz zaharkituak —zah.—, gutxi erabili direnak —g.er.— eta gaur egun gutxi erabiltzen direnak —g.g.er.— ere markatu dira¹⁷.

Zah. marka dutenak:

eragotzi, eragotz, eragozten. *du* ad. 1
Ipar. Zah. 'egotzi'. 2 *Heg.*
'debekatu': *argia ikustea eragozten*
didatenak. 3 (erdarazko *molestar,*
déranger): *eragozten dizu hain*
berandu deitzeak?

ero 1, eraiten. *Zah. du* ad. 'hil, erail'

heredero *Zah.* h. **oinordeko**

juramentu *Zah.* 1 h. **zin.** 2 h. **arnegu,**
birao

konplimendu 1 *Zah.* 'bururatzeta,
bukatzeta'. 2 'kortesiazko hitza, ele
onak'

konsultatu, kontsulta(tu),
kontsultatzen. *Zah. du* ad.
'argibidea, kontseilua eskatu'

lekatu 1, leka(tu), lekatzen. *Ipar. du*
ad. *Zah.* 'kanpo utzi, salbuetsi'

narrio *Zah.* 'akatsa, orbana'

ofentsagarri *Zah.* 'iraingarria'

partitu, parti, partitzen. *Zah.* edo *Herr.*
1 *du* ad. 'zatitu, banatu, bereizi'. 2
Ipar. da ad. 'joan, irten, abiatu'

prometatu, prometa, prometatzen. *Ipar.*
du ad. *Zah.* 'promestu, agindu'

traditu, tradi, traditzen. *Zah. du* ad.
'saldu, saldukeria egin'

¹⁷ EUSKALTZAINDIA: «Hiztegi Batua», *Euskera*, 45, 2 (2000), 483. or.

g.er. marka dutenak:

salerosi 1, saleros, salerosten. *du ad.*

g.er.

ukandun *Ipar. g.er.*

zitate 1, zita(tu), zitatzen. *du ad. 1*

‘epailearen aurrean aurkezteko deitu’. 2 *g.er.* ‘aipatu’. 3 *Heg.* ‘hitzordua izan’

g.g.er. marka dutenak:

tribunal *g.g.er.* 1 ‘auzitegia’.

2 ‘epaimahaia’

3.3. Terminoen maila: Behe mailakoa / Goi-mailakoa / Herri-mailakoa / Jasoa

Hainbat sarreratan hitzaren maila adierazi da, behe mailakoak —lagunartekoak eta herrikoiak— eta goi mailakoak edo jasoak —literarioak etab.— bereiziz¹⁸.

Beh. marka dutenak:

prenda *Heg.* 1 *Beh.* ‘bahia’. 2

Zah. ‘dohaina’

Goi. marka dutenak:

- Ez dago halakorik.

Herr. marka dutenak:

edade *Heg. Herr. h. adin*

edadeko *Heg. Herr. h. adineko*

inozente *Herr.* 1 ‘errugabea’. 2
‘tolesgabea’

justu *Herr.*

kiebra *Heg. Herr.* ‘porrota’

konpromiso *Heg. Herr.*

lizentzi izan *Gip. da ad. Herr.*
‘zilegi izan’

partitu, parti, partitzen. *Zah.* edo

Herr. 1 *du ad.* ‘zaitu, banatu, bereizi’. 2 *Ipar. da ad.* ‘joan, irten, abiatu’

profitatu, profita, profitatzen. *Ipar. du ad. Herr.*

segurantzia *Heg. Herr.*
‘segurantza’

tokatu, toka(tu), tokatzen. *Heg. da/zaio ad. Herr.*

Jas. marka dutenak:

eskudantzia. *Jas.* 1 ‘ausardia’. 2
‘boterea’

iraungi, iraungitzen. *da/du ad. Jas.*
‘itzali; ahitu’

izpiritu *Ipar. edo Jas. h. espiritu*

judizio *Jas.* ‘epaiketa’

laido *Ipar. edo Jas.*

¹⁸ EUSKALTZAINDIA: «Hitzegi Batua», *Euskera*, 45, 2 (2000), 483. or.

3.4. *Sinonimia*

Ahalik eta informazio osagarri gehiena emateko eginahal horretan, ahalegina egin da sinonimoak eta antonimoak ematen. Sinonimoei buruz esan behar da batzuk sinonimo beteak direla eta beste batzuk ez. Esaterako, euskarazko *bela* guztiak *haize-oihal* dira, eta orobat *haize-oihal* guztiak *bela*; hortaz, “**bela Sin. haize(-)oihal**” eta “**haize(-)oihal Sin. bela**” eman ditugu; baina, aldiz, nahiz *azote* guztiak *zigor* diren, *zigor* guztiak *azote* ez direnez gero, “**azote Sin. zigor**” eman dugu, baina ez alderantzizkoa¹⁹.

Hitz juridikoen kasuan, sinonimo beteak gertatu dira gehienak, eta horrek azaltzen du, bat ematerakoan, horren alderantzizkoa ere zerrendatzea. Ikus, bestela, hurrengo adibideak:

ageriko: *politikarien ageriko bizitza; ageriko aurrezkia. Sin.*

jendaurreko, publiko

aholkatu, aholka, aholkatzen. *du ad.: norbaitek norbait zerbait egitea aholkatu; aholkatu zuen Adan hark ere har zezan sagar hartatik. Sin.*

aholku eman

atzerrialdi Sin. erbestealdi

doan Sin. dohainik

dohainik Sin. doan

enkante: *enkantean jarri, saldu. Sin. erremate*

erantzukizun Sin. erantzunbehar

erantzunbehar Sin. erantzukizun

erbestealdi Sin. atzerrialdi

erkide 1 iz. ‘partaidea, bazkidea’.

2 izond. **Sin. komun**

erremate 1 *Heg. Herr.* ‘azkena, bukaera’: *erremate txarra eraman* (‘fin gaizto egin’).

2 ‘enkantea’

espetxe Sin. kartzela, presondegia

idazkun Sin. inskripzio

inskripzio 1 ‘izen ematea’. 2 **Sin. idazkun**

itsasketa: *itsasketan ohituak diren gizonak. Sin. nabigazio*

jabego Sin. jabetasun, jabetza

jabetasun Sin. jabego, jabetasun

jabetza Sin. jabego, jabetasun

(kale) agerraldi Sin. manifestazio

kontzientzia(-)eragozle Sin.

kontzientzia(-)objektore

kontzientzia(-)eragozpen Sin.

kontzientzia(-)objekzio

kontzientzia(-)objektore Sin.

kontzientzia(-)eragozle

kontzientzia(-)objekzio Sin.

kontzientzia(-)eragozpen

lankidego Sin. lankidetza

lankidetza Sin. lankidego

legedi Sin. legeria

legeria Sin. legedi

manifestazio Sin. (kale) agerraldi

merkatalgo Sin. merkataritza

merkataritza Sin. merkatalgo

monarkiko Sin. erregetiar

nabigazio Sin. itsasketa

publiko Sin. ageriko, jendaurreko; herri(-)

¹⁹ EUSKALTZAINDIA: «Hiztegi Batua», *Euskera*, 45, 2 (2000), 483. or.

4. HIZTEGI BATUKO HITZ JURIDIKOEN SAILKAPENA, ZUZENBIDEAREN ARLOTIK

4.1. Zuzenbidearen adar guztietan ager daitezkeenak:

adindun	dokumentu	juridiko
adingabe	ebazpen	justizia
agiri	erabaki	lege
akta	erantzukizun	notariotza
aplikazio	erregistro	xedapen
arbitrario	errenta	zuzenbide
artikulu	hierarkia	
askatasun	indargabetasun	

4.2. Zuzenbide publikoa:

Administrazio zuzenbidea:

administrari	erkidego (autonomia	sailburu
administrazio	erkidego;	udal
alkate	foru erkidego)	zentralizatz
aldundi	ertzaintza	zinegotzi
ararteko	funtzionario	
baimen	ganbera	
departamendu	gobernadore	
departamentu	hirigintza	
diputazio	ministerio	
	ogasun	

Auzibideetako zuzenbidea:

abokatu (abokatu	epaitu	peritu
defentsaria)	irmotasun	probidentzia
absolbitu	jurisdikzio	prozedura
akusazio	jurisprudentzia	prozesu
auzilari	kereila	salaketa
deklarazio	kondena	sententzia
epai	lekuko	zitatu
epaiketa	magistratu	
epaitegi		

Zuzenbide politikoa:

abdikatu	gutxiengo	monarkia
aberri	hauteskunde	nazio
anarkia	independentzia	nazismo
botazio	inperialismo	oposizio
bozketa	jeltzaletasun	parlamentu
burujabetasun	kantziler	plebiszitu
demokrazia	karlismo	referendum
diktadura	kolonialismo	senatu
enperadore	konfederazio	separatismo
erreferendum	kongresu	sozialdemokrazia
errege	konstituzio	subiranotasun
errepublik	koroa	sufragio
eskumen	legebiltzar	teknokrazia
estatu	legegintzaldi	tirania
estatutu	lehendakari	totalitarismo
faxismo	leninismo	tradizionalismo
federalismo	liberalismo	trantsizio
gobernu	maoismo	trotsismo
gorte	marxismo	

Zigor zuzenbidea

abortu	erailketa	konfiskatu
amnistia	errudun	krimen
aringarri	errugabe	lapurreta
atxiloketa	espetxe	mehatxu
aurrekari	falta	ostu
bahiketa	hilketa	preso
biktima	irain	tortura
bortxaketa	iruzur	trafiko
ebatsi	isun	zigor
egile	kartzela	

4.3. Zuzenbide pribatua

Foru zuzenbidea

apartatu	foru	hilburuko
elizate	foruzale	seniparte
foral	foruzaletasun	zorbide

Merkataritza zuzenbidea

akzio	harpidetza	partaidetza
aseguru	jaulkipen	patente
baltzu	jesapen	poliza
banku	kooperatiba	porrot
bazkide	kotizazio	sindiko
bazkun	mailegu	sozietate
billete	marka	txeke
burtsa	merkataritza	
enpresa	obligazio	

Zuzenbide zibila

absentzia	gaitasun	kontratu
apustu	gordailu	maiztertza
bahi	gozamen	mantenu
besterendu	harrera	nortasun
dibortzio	hartzekodun	oinordetza
elkarte	herentzia	okupazio
erres	higiezin	ordenu
eskualdatze	higikor	salerosketa
eskuratze	hilburuko	testamentu
ezgaitasun	hipoteka	trukatze
ezkonsari	idazkun	tutoretza
ezkontza	jabetza	zordun
fruitu	jaraunsle	
fundazio	komisario	

4.4. *Zuzenbide historikoa*

ekandu		
eskribau	korrejidore	
kontzeju	merindade	prefektu
	pragmatika	zedula

5. HITZEN OSAERA

Atal honen azterketak lan oso baterako emango luke. Horregatik, hitz juridiko-etan gehien erabiltzen diren atzizki eta aurrizkiak besterik ez ditugu aztertuko.

5.1. *-keta/-pen atzizkiak**-keta* atzizkia daramaten hitzak

atxiloketa	hilketa	ordainketa
bahiketa	itaunketa	salaketa
bihurketa	itzulketa	salerosketa
bilketa	kanporaketa	suntsiketa
bortxaketa	kenketa	tokialdaketa
bozketa	kudeaketa	zatiketa
epaiketa	lehiaketa	zerga-bilketa
erailketa	lekualdaketa	zigorketa
erosketa	miaketa	zuzenketa
galdeketa	mugaketa	

-pen atzizkia daramaten hitzak

adierazpen	ezespen	jesapen
agerpen	ezeztapen	legeztapen
aitorpen	galarazpen	luzapen
aurreikuspen	hautapen	onarpen
baieztapen	hautespen	onespen
berrespen	idazpen	salbuespen
ebazpen	igorpen	salerospen
egiaztapen	ihardespen	sorospen
ekarpen	irizpen	suntsipen
eragozpen	izendapen	ustiapen
esleipen	jakinarazpen	xedapen
ezarpen	jaulkipen	

5.2. *-garri/-kor atzizkiak**-garri* atzizkia daramaten hitzak

aberasgarri	ezeztagarri	kondenagarri
arbuigarri	frogagarri	ofentsagarri
aringarri	iraingarri	ordaingarri
erabakigarri	kaltagarri	suntsigarri
eragingarri	kitagarri	zigorgarri

-kor atzizkia daramaten hitzak

bihurkor	iraungikor	suntsikor
eraginkor	mugikor	zatikor
higikor		

5.3. *Aurrizkien aipamen laburra*

Aurrizkiei dagokienez, ezin da esan aurrizki jakin bat edo batzuk berezko zaizkienik zuzenbideko hitzei. Esate baterako, *ber-/bir-* bikoteari dagokionez, *berjabetasun* eta *birsaldu* hitzak besterik ez dira ageri; aurre- aurrizkiak denaz bezainbatean, zerbait gehiago, baina ezer gutxi (*aurreikusi*, *aurreikuspen*, *aurrekari*, *aurrekontu*).

6. ONDORIOAK: LEHENENGO ITZULITIK BIGARREN ITZULIRA

6.1. *Gutxieneko baldintzak*

Horra hor Hiztegi Batuaren lehenengo itzuliak izan dituen emaitzak. Alabaina, Euskaltzaindia ez da hor geratu. Haatik, bigarren itzulirako irizpideak onartu ditu, 2000ko uztailaren 21ean, Donibane-Lohizunen, eta horiek berretsi, 2000ko irailaren 29an, Zizur Txikian. Irizpide horien arabera, aurreko iturrietatik (batez ere, OEH eta EEBS) lortutako zerrendak osatu egingo dira arloz arlo oinarritzko ikusten diren termino eta hitz bereziekin. Bigarren pasaldi horretan, beraz, Hiztegi Batuaren altxor juridikoa osatzeko aukera egongo da.

Baina zein izango dira jatorrizko zerrenda osatzeko irizpideak? Horretan, egia esan, lehen pasaldian erabilitako irizpide bertsuak aplikatuko dira:

1. Formarik hedatuenak hobestea.
2. Gaurko “erabilera zaindu”etan nagusitua da hobestekoa.
3. Forma erregularra da hobestekoa.
4. Forma berri(ago)ak dira hobestekoak, baldintza jakin batzuk betez gero.
5. Eratorri eta elkartu berriak onartzekoak dira, baldintza zehatz batzuetan.
6. Mailegu berriak onar daitezke, batik bat, nazioartekoak direnean.

Gure arloan, ostera, euskarak baditu bere zailtasun oinarritzkoenak. Lehena datorchio izatetik bertatik, hizkuntza erromantze ez izate horretatik, horrek eragozten baitio latinezko hitz juridikoen maileguak besterik gabe bereganatzea. Hurrena, eta ez txikia, ingurutik ezartzen zaio, euskarak ez baitu ezagutzen (Foruaren aztarnak izan ezik) bestelako sistema juridikorik Europako kontinentean dagoena baino. Hizkuntza eta legea estekatzen dituen lokarria sakona izan eta hori ere aintzat hartu behar da, askotan gerta baitakiguke, besterik gabe, zailtasunak areagotzea. Horretarako, ñabardurak eman behar dira bigarren itzulian. Horretarako ere, elkarrekin lan egiteko paradaren premia, guztion ekarriak ontzeko tenorean. Erakusgarri, gaur egunean behintzat, oraintsu argitaratu den Espainiako Zigor Kodearen argitalpen elebiduna, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Deustuko Unibertsitateak ondu dutena, IVAP-HAEEren itzalpean.

6.2. *Geroko baldintzak*

Geroko bide horretan, Hiztegi Batu horren bigarren itzuliak eskatzen du hiztegi berezitueta edukiak artez jasotzea, bere luze-zabalean baino, hizkera arruntarekin dituen koska eta esparru komun horietan. Hartara, Euskaltzaindiaren baitan «administrazio-zuzenbidea» izeneko lan-taldea eratuko da, esparru horri hizkuntzaren bai-

tan beti aitortu ohi zaion garrantzi berebizikoa azpimarratzeko²⁰. Lan-talde horren egitekorik premiazkoena da Hiztegi Batuko bigarren itzulirako zerrenda egokia prestatzea, administrazio-zuzenbidearen munduan dabilzan kontzeptu oinarrizkoenak biltzeko. Egitekoak horiek izanik, argi dago lan-taldearen osaera bikoitza izan behar dela: bateko, Euskaltzaindiko ordezkariak bertan izan behar dira; eta, besteko, zuzenbideko adituek ere parte hartu behar dute. Horrela bakarrik berma daiteke emaitzarik onena erdiestea.

Egingarri izan dezake horrek ere, Hiztegi Batuko hirugarren itzulirako ametsetan, aurreko materiala gaurkotu, bilduta ez dagoena batu eta sistematizatzeko. Horretarako, testugintza juridiko-administratiboaren lekukotasunak izango ditugu, Ipar zein Hego Euskal Herrikoak.

Euskarak erronka luzea du lege eta administrazio barrunbean. Mendeetan urrunegi ibili da horretatik, eta arrapaladan eta arineketan denbora berreskuratu beharra du. Ez nolana, zentzuz eta taxuz baino. Gure ustez, langintza horretan pisutsua da euskarerantz esparru berriak aldarrikatzea (Administrazioa, justizia, lanbide juridikoak...). Aurreko hori bezain garrantzitsua, jakina, Hiztegi Batu hori bezalako tresnak sortzea, bestelako hiztegi berezituentzat irizpide-emaile eta erakuslea. Ekin diezaiogun lanari.

7. ERANSKINA: HIZTEGI BATUAN AURKITUTAKO HITZ JURIDIKOEN ZERRENDA

Zuzenbideko euskal ikasle asko eta asko kezkatuak dabilta, ikasgai gogorak ikasteaz gain, hizkera ilun eta nahasia bereganatu behar dutelako, zuzenbideari dago-kion mundu horretan aritu ahal izateko²¹. Horren jakitun izanik, Deustuko

zaticatze**zaticeta****zaticor****zaitu**, zati(tu), zatitzen. *du* ad.**zedarri****zedarritu**, zedarri(tu), zedarritzen. *du* ad.**zedarritzatu**, zedarritzta, zedarritzatzen.*Ipar. du* ad.**zedula****zehatu**, zeha, zehatzen. 1 *du* ad. 'jipoitu'. 2*Zuz.* 'zigortu'**zentralizatu**, zentraliza, zentralizatzen. *du* ad.**zentralizatzaile****zentralizatze****zentsu** 'errola'**zentsura****zentsuratu**, zentsura(tu), zentsuratzen. *du* ad.**zerbitzu****zerbitzugintza****zerga****zerga-bilketa****zergadun****zergalari****zergaldi****zergapeko****zergapetu**, zergape(tu), zergapetzen. *du* ad. 'zerga jarri'**zergategi****zibil****zigilatu**, zigila, zibilatzen. *du* ad.**zigilu** 1: *erregeren zigiluarekin*. 2 (gutun-azaletakoa)**zigilu-marka****zigilu-markatzekoa****zigor****zigorgarri****zigorkari****zigorkatu**, zigorka, zigorkatzen. *du* ad.**zigorketa****zigorpe****zigorpean****zigorpeko****zigorraldi****zigorraz**, zigorraz, zigorrazten. *du* ad.**zigortu**, zigor(tu), zigortzen. *du* ad.**zigortzaile****zilegi****zilegi izan**. *da/du* ad.**zilegitasun****zilegitu**, zilegi(tu), zilegitzen. *du* ad.**zin****zin-egile****zinegin****zinegotzi****zinpeko** izlag.**zitate** 1, zita(tu), zititzen. *du* ad. 1'epailearen aurrean aurkezteko deitu'. 2 *g.er.* 'aipatu'. 3 *Heg.* 'hitzordua izan'**ziurtagiri****ziurtatu**, ziurta, ziurtatzen. *du* ad.**zor****zor izan****zorbide** 'bide-mota, lur jabedunean zehar igarotzen dena'**zordun****zordundu**, zordun(du), zorduntzen. *da/du* ad.: *hartzten duena zorduntzen da.***zorgabetu**, zorgabe, zorgabetzen. *da/du* ad.**zorpetu**, zorpe(tu), zorpetzen. *da/du* ad.**zuhurtzia****zuribide****zuritu**, zuri(tu), zuritzen. *da/du* ad. 1 'zuriz margotu'. 2 '(patatari eta) azala kendu'. 3 'nor bere edo besteren hutsegitea zuzentzen saiatu'. 4: *elurra egin du, baina ez du zuritu.***zuritze****zuzemen:** *bitarte hau, bere anaia etxeratzeke zuzemenak egiten igaro zuen.***zuzen****zuzenbide****zuzendari****zuzendariondoko****zuzendariorde****zuzendariorde****zuzendaritza****zuzendu**, zuzen(du), zuzentzen. *Heg. da/du* ad.**zuzenketa****zuzentasun****zuzentza** 'justizia'**zuzkidura****zuzkitu**, zuzki, zuzkitzen. *du* ad.

Osasun arloko testuak eta lexikoa XXI. mendeari begira

Iñaki Ugarteburu
EHU/UPV

SARRERA

Badirudi lexikoa dugula osasun eta, oro har, espezialitateetako testugintzako auzi nagusia; batez ere, arlo horietako hiztegi berezia nola jorratu eta finkatu. Izan ere, aspaldi esana da ez dela Euskaltzaindiaren lana esternokleidomastoideo bezalako hitzen forma eta erabilera erabakitzea:

Esternokleidomastoideo delakoa sartu ez badugu zeragatik izan da, alegia anatomi hizkera bereziko hitza delako. Zientzi eta teknika alorretako hitz bereziok ez dute, gure ustez, erabateko hiztegi batean zertan azaldu. Are gehiago, ez dugu uste Euskaltzaindiak horrelako hitzei buruz inolako erabakirik hartuko behar lukeenik. Delako alorrean dihardutenen arteko arazoa da hori, ez beste inorena. (Sarasola 1984)

Gerora ere, hainbatek esan ohi du espezialitate arloko testu eta lexiko arazoak erabakitzea espezialisten esku —guri dagokigunez, mediku-erizainen esku— egon beharko lukeela¹.

Ez da halakorik ikusten, ordea, eguneroko hizkuntza jardunean. Maiz dira eztabaidak espezialista, itzultzaile, teknikari, kazetari, testu-liburuen prestatzaile, institutu-tuetako eta unibertsitateko irakasle eta beste askoren artean. Baita erakunde bat eta besteko espezialisten artean ere. Hortaz, nork eta nola erabaki behar ditu ehunekoen idazkera, arlo berezietako hiztegia, ortotipografia? Are gehiago, bada galdera bat zaila erantzuten: erabakiak hartzeko orduan, noiz ari gara espezialitatean eta noiz arlo orokorrean?

1. OSASUN ARLOA

Osasungintzan sortzen diren euskarazko testuez ari garenean, badirudi espezializazioko arloaz eta, hortaz, hizkera zientifiko-teknikoaz ari garela. Eta hori horrela ote den erabakitzeak garrantzi handia du, alde batetik euskarak duen tradizioa (eredu

¹ “Hizkuntzaren jabe bakarra sentitzen ez naizenez, eta, zinez, medikuntzaren kasuan laguntzaile gonbidatua soilki, argi daukat ekimena eta hitza ez direla nireak, ez eta ni bezalakoentzat gordeak ere. Itzultzaileak, normalizazioko teknika-riak, Unibertsitateko irakasleak, euskaltzainak, filologoak, euskaltzaleak, politikoak...” (Manjón, R. 1998. Medikuntzako testuetako zenbait okerbide eta balizko aje. Senez aldizkaria 20. EIZIE, <http://www.eizie.org/euska-ra/argital/senez/20/aurkez.htm>)

izan daitezkeen testuak) bilatzeko, eta bestetik aurrera begira suma daitezkeen hizkuntz behar eta arazo berriei (komunikazio premia berriei) nola erantzun erabakitzeke. Izan ere, tradizio urrikoa dugu euskal hizkuntza zientzia eta teknikaren munduan (beste garai batzuetako frantsesaren edo alemanaren eta gaurko ingelesaren aldean behintzat) eta zail gertatzen da, etorkizunari begira corpus handiak erabiltzea —hala jokatu ohi dugu hizkera orokorraren azterketan— haietan oinarritu, aztertu eta erabakitzeke. Baina euskara estandar orokorraren (arauzko gramatika eta lexikoaren) oinarriak finkatuak ditugularik, beste testugintza eta lexikogintza horren azterketari gero eta indar handiagoz heldu beharra dago.

Bestalde, azterketarako esparru aproposa dugu osasuna, arlo horixe dugulako azken urteotan ikaragarri hedatu direnako bat testugintza, argitalpen, zabalkunde eta terminologia arloetan. Beste espezialitate-arlo batzuk ez bezala (haien garrantzia ukatu gabe) osasungintzak egunero eta astero betetzen ditu orrialdeak egunkari eta astekarrietan eta hainbatetan sortzen ditu hiztegi katramilak esatari, idazle eta itzultzaileen lanetan. Beste era batera esanda, arlo honetan zail gertatzen da espezialitateko arloaren eta orokorraren arteko bereizketa zehatza egitea: ikerketa nahiz goi-mailako jakintzaren emaitza, alde batetik, eta erreferente hartaz hiztun arruntak irakurtzen eta idazten duena, bestetik. Gainera, gaurko egoera euskarak inoiz ezagutu ez duen bezalako da arlo honetan. Bi dira egoera horren arrazoiak. Alde batetik osasun arloko euskara, eta oro har zientzia eta teknikakoa, goi-mailako irakaskuntzan eta ikerketan ari diren espezialisten tresna bilakatu izana, eta bestetik jakintza arlo horrek azken urteetan izan duen zabalkundea.

‘Zientzia eta teknikako hizkera’ (Kocourek 1982) edo, oro har, espezialitateko testuetako hizkera deitzen dugun hori eredu orokorraren azpisistematzat hartu behar dugu (Gutiérrez 1998). Testu hauen ezaugarri nagusiak beste argitalpen batean azalduak ditugu (Ugarteburu 2000) eta testu hauek, terminologiak duen garrantzia ahaztu gabe, unitate konplexutzat hartuko ditugu edo errealtate kontzeptual konplexu baten berri ematen duten unitatzat. Horregatik, hainbat ikuspuntu har daitezke testu hauen azterketarako (Cabré 1983): kognitiboa, linguistikoa, pragmatikoa. Ikuspuntu eta azterbide horiek guztiak izan beharko ditugu gogoan gure azterketan.

Izan ere, testu espezializatua espezialistak sortua den arren, egia da antzeko testu asko sortzen direla gaur egun (ez da erraza ohiko sailkapenetan kokatzea, esate baterako, ospitaleetan gaixoak sinatu ohi duen operatu aurreko baimen-orria, edo analisisien emaitzak jasoko dituen inprimakia); badira, gainera, teknikoan antzekoak diren testu estereotipatuak edo errutina-testuak, eta oro har ez dituzte ezaugarri berak espezialitateko testuek, didaktikoez, eta zabalkundekoek (Cabré 1999). Baina testu hauen bateratasunik eza ulertzeko, gogoan hartzea komeni da (Hoffman 1984) espezializazio mailaren eta forma linguistikokoaren arteko erlazioa. Osasun arloan urriak dira zientzia teorikoan ohikoak diren abstrakzio maila handieneko testuak, baina ugari dira beste maila guztietakoak, baita abstrakzio mailarik apalenekoak ere.

Abstrakzio maila handiko testuak ditugu ohiko biltzar eta zientzia argitalpen espezializatuetan. Halakoetan maiz erabiltzen dira sinbolo artifizialak elementuetarako eta hizkuntza orokorra erlazioetarako. Baina gero eta ugariagoak dira hizkuntza naturala eta terminologia espezializatua (sintaxi kontrolatuarekin edo libre samarrarekin) darabiltzaten zientzia aplikatuko eta teknikako testuak. Eta ezin ahaztu, lehen ez bezala, gaur egun asko direla abstrakzio maila apaleko testuak kontsumo arloan

(zorionez, osasunaren kezka sortu eta zabaldu da gizartean). Testu horiek hizkuntza naturala erabiltzen dute eta sintaxi librea, baina hainbat termino espezializatu erabili ohi dituzte. Izan ere, objektuen ezagutza zientifikoa gizarteko kulturaren txertatua dagoenean sartzen da —orduan bakarrik sar daiteke— hiztegi orokorrean, hau da, sozializatu eta ulergarri bilakatu denean.

Bestalde, egia da intsulinak edo hidrogenoak erreferente bera duela euskal iker-tzailearentzat nahiz beste herrialde batekoarentzat —ez da hala gertatzen, aldiz, herrialde horietako erakunde juridiko edo politikoekin (Gutiérrez 1998)—, baina ez dirudi espezialitateko testua terminologiara muga daitekeenik. Testu horietan komunikazio asmoa erabakigarria gertatzen da sortzaileentzat; ongi dakite hori testu-egile-ek asmo horren arabera hautatzen baitira komunikazio estrategiak eta erabiliko diren hizkuntz baliabideak (Hoffman 1984).

Azken batean, honela definitzen du Hoffmannek espezialitateko hizkera:

“A complete set of linguistic phenomena occurring within a definitive sphere of communication and limited by specific subjects, intentions and conditions (Hoffmann 1979: 13-17)”

Eta ez da, hortaz, harrizkoa hizkuntza gertaera horietan gai, asmo eta egoerak duten garrantziaren arabera jokatzeko diskurtsoak eta terminologiak. Eragile horien azterketak erakutsiko digu zergatik joko duen idazleak errazago izenondoa edo elkar-keta erabiltzera (*sukar aftosoa / afta sukarra*, ‘*aheria*’) edo zergatik egiten duen aukera lexiko bat edo beste (*ugatzeko minbizia / bularreko minbizia*):

“Les critères sociolinguistiques ne doivent pas être davantage négligés: là où le spécialiste emploiera “cancer mammaire”, il est probable que le profane parlera de “cancer du sein” (Maniez 2001: 66-67)”

2. OSASUN ARLOKO TESTUAK

Testu hauek sailkatzeko ardatz biak izan beharko ditugu kontuan. Alde batetik, testuaren espezializazio maila edo, beste era batera esanda, ea testua espezialistarentzat, ikaslearentzat edo irakurle arruntarentzat idatzia dagoen. Bestetik, testu horien ezaugarriak izango ditugu gogoan, batez ere: konplexutasun kontzeptuala, diskurtsoaren antolamendua (estereotipatua espezialista-testuetan eta sintaxi libreagokoa ohiko komunikabideetan), terminologia... Testu hauen zailtasuna edo konplexutasunaren arrazoi nagusiak bi dira: terminologikoa eta kontzeptuala.

Baina terminologiaz eta elementuen arteko harreman kontzeptual konplexuz gain, ez dago arrazoirik testu konplexua dela esateko, eta ez dirudi halako adierazpenak (diskurtsoaren antolamendua) sintaxi premia bereziak dituenik, ohiko sintaxi baliabideetatik apartekorik, alegia.

Zabalkunde eta, batez ere, komunikabideetako testuetan terminologia dugu arazo nagusi. Ez horrenbeste terminoen sorrera eta erabileraren ondorioz eta bai termino horiek ordezkatzeko dituzten kontzeptuak hiritar arruntari ezezagun zaizkiolako. Maiz erabiltzen dira, arazo horri aurre egiteko, analogia, konparazioa, azalpena edo beste baliabide batzuk (Gutiérrez 1998); baina zientzia-zabalkundean ez bezala, komunikabideen asmo nagusia ez da zientzia gertaerak aditzera ematea, gertaera horiek gizartean izan dezaketean eragina baizik. Horretarako, maiz erabiltzen dira sasi-

terminoak: “bakterio hiltzailea, kolesterol txarra”... Sasi-termino horiek lasai asko bereganatu eta erabiliko ditu irakurleak, ordezkatzan duten kontzeptua ezagutu gabe, eta oso zailak gertatzen dira erabakitzen. Are gehiago, komunikabideen bidez zabalitzen dira eta finkatzen dira —euskararen kasuan, maiz itzuli edo mailegatu egiten dira—. Hau da, ‘bakterio hiltzaile’, ‘bifidus aktibo’ eta antzeko izendapenek ez dute testu horietan balio terminologikorik, eta bai izendatze-balio hutsa.

Hori guztia dela eta, lau kategoria nagusiko sailkapena egin daiteke testuaren espezializazio mailaren arabera (handienetik apalenera):

- (a) testu espezializatua (“*Dirudienez 17p eta 18q kromosometan azaltzen diren alelo galerak kolon eta ondesteko minbizien etiologiaren faktore garrantzitsuak dira*”)
- (b) zabalkunderako testua (“*Kimioterapia-tratamenduan dauden gaixoengan tratamenduak eragiten duen goitinahia saihesten du kalamuak duen THC substantziak; hots, efektu antiemetikoa du*”)
- (c) komunikabideetako testuak (“*Behi zoroen gaitzari aurre egiteko neurriak hartuko dira Autonomia Erkidegoan*”. “*Orain arte ez dago zientifikoki frogatuta sakelako telefonoak erabiltzea osasunerako arriskuak dakartzanik, baina korrante zerebraletan efektu termiko eta biologikoak atzeman dira*”)
- (d) kontsumo arloko testuak

Bestalde, osasun administrazioan sortzen diren testuak atal bat edo bestekoak izan daitezke (prebentzio-ekimenak, sendagai berriak...) baina ugari dira arlo horretan errutina-testuak (historia klinikoak...) edo estereotipoak (informaziodun baimena...). Eta testu horien inguruan badira osasun ohitura, higie, prebentzio eta oinarritzko informazioaren berri hiritarrei emateko prestatu ohi direnak. Hau da, testu horietan guztietan osasuna dugu gai edo erreferente, ez besterik; eta erreferentearekin batera, terminologia edo lexiko jakin bat.

3. TERMINOLOGIA ARAZOAK: BIRSEMANTIZAZIOA

Hiztegi estandarra eta terminologia datu-baseak eratuak edo eratze bidean diren garai honetan, arreta berezia merezi du datozen urteei begira arazo batek, espezialitateko terminoen eta hiztegi orokorreko hitzen artean dauden elementu lexikoen multzoak hain zuzen. Izan ere, frogatua dago (Estopa eta Valero 99) espezialistek askoz hitz gehiago hartzen dituztela adiera berezikotzat, irakurle arruntek edo ikasleek baino.

“A typical presentation would include the sudden onset of a feeling of heaviness, with noticeable swelling and...”

Adiera berezia izan dezaketen hitz horiek (*feeling of heaviness...*) termino edo lexiko berezizat hartuko ditu espezialistak, baina nekez ezagutuko du halakorik espezialitateko formazioa ez duen idazle edo itzultzaileak. Gerta daiteke alde batetik, erabiltzaile arruntak ez ezagutzea ‘higie’ hitzak XIX. mendetik hona izan duen bilakaera (hau da, garbitasunari eta eredu moral eta estetikoari loturik egotetik erabat autonomo eta diziplina zientifiko jakin baten izena osatu arte: osasuna mantentzeaz eta eritasunaren prebentzioaz ardura hartzen duen medikuntzaren atala)².

2 Beste kontu bat dugu, ordea, balio terminologikoaren izenean egiten den lexiko-aukera (mailegua edo hizkuntzaren bide patrimoniala: espainol hutsezko ‘alta’ edo komunikabideetan arazorik gabe erabiltzen den ‘senda-agiria’)

Hortaz, birsemantizatu edo adiera berezia hartu duten hitzak ditugu osasun testuetan arazo nagusietako bat. Euskal itzultzaileen elkartearen (EIZIE) Interneten bidezko eztabaida taldeko galdera-erantzunak aztertzea aski dugu horretaz konturatzeko³. 1999-2000 aldian talde horretan eztabaidatu diren termino eta gaien artean 54 izan dira osasun arlokoak (accidentado, adimena, afterloader, alteración, burnout, busca, coxofemoral, implante, malnutrición, manipulador de alimentos, nutricionista, príon, tanatorio, terminal...)

- (a) hitz arruntak: 27, birsemantizazioa edo adiera berezia dutenak (*alteración, antecedente, eficacia/eficiencia...*)
- (b) hiztegi orokorreko hitzak: 10, hiztegietan *Med. Anat.* edo beste markaren bat dutenak (*enurético, forense, implante...*)
- (c) espezialitateko terminologia: 13, hiztegi orokorrean jaso gabeak (*afterloader, cell culture, nutricionista...*)
- (d) beste hitz edo gai batzuk: 4

Eta oso zail gertatzen da, bestalde, inguruko erdaretan ere finkatu gabe dauden hitz mailegatuak euskaraz ordain bakar finko batekin ematea. Besteak beste, inguruaren arabera balio bat edo beste izan dezaketelako (*reacción adversa, indeseable, contraria, secundaria...*) edo inguruko erdaretan ere finkatu gabe daudelako: *detección selectiva, cribado, tamizaje, pesquisaje, muestreo, detección inicial, escrutinio...*(*screening*)

Gainera, hitz haiek ez dira denak espezializazio maila berekoak eta batzuk besteak baino lexikalizatuagoak dira.

(a) arruntenetan (*brote, ataque, jugo...*) erraz jo izan da erdaratiko mailegu zuzenera baina ez dirudi hori denik biderik egokiena. Izan ere, hizkuntza bakoitzak bere ohiko baliabideak erabiliz eman ohi ditu kontzeptu hauek. Garrantzi handikoa litzateke hitz hauen adierak jaso, erabaki eta arautzea. Hori dela eta, hitz berriak sortzea bezain erabakigarria gertatzen da Hiztegi Batuan hitz horiek adiera edo azpisertera modura hartzea (*agerraldi, disko, urin...*).

Agerraldi: ... 2. (adiera) *gripe-agerraldia*

(b) espezializazio maila handiagokoak (*ataque, crisis, alteración, anomalía, urgencia...*). Honako hauek ere hiztegi orokorrak erabaki beharko lituzke, hiztun guztiek erabiliko dituzten hitzak baitira. Baina on litzateke hitz hauen azterketa egiteko orduan espezialisten, terminologoen eta osasun administrazioko ordezkarien iritzia jasotzea.

(c) hitzik espezializatuena ditugu ohiko erabileratik aldentzen direnak (*enfermedad aguda/ crónica; eficacia/eficiencia...*) nahiz eta lexiko orokorrekoak izan. Horiek dira lexiko berezian jaso beharrekoak.

Baina ezinbestekoa dugu hitzaren ingurua aztertzea, diskurtsoaren ezaugarriak kontuan izatea eta alderdi pragmatikoa ere gogoan hartzea; izan ere, espezialitateko jakingaita espezialitateko lexikoaren eta lexiko orokorraren bidez adierazten da (Tercedor 2000) eta adierazpen horretan garrantzi handia du fraseologiak.

3 Ikus <http://www.eizie.org/itzul> edo <http://www.egroups.com/itzulist.htm>

Para prevenir la caries... / Txantxarrrik ez izateko...

Erdal testuetako egitura horien ordain egokiak bilatzeko ezinbesteko dugu tesuaren mikroegituraren hizkuntz azterketa, alderdi semantiko eta lexikoekin batera sintaktikoak eta pragmatikoak ere kontuan hartuta.

Maiz, fraseologiak berak adieraziko digu espezializazio maila handiko testu bateko unitate lexiko finkatua (terminologia) dugun edo espezializazio maila apalagoan ari garen. Etaaldi berean, askatasun handiagoa izango dugu maila apalean sintaxi librearekin eta hizkuntza baliabideekin jokatzeko unitate lexiko finkatuak eskatzen dituen adierazpen kontzeptual konplexuan baino.

Bestalde, badirudi hitza baino goragoko unitateak hartu beharko genituzkeela unitatetzat arazo hauek aztertzeko. Hiztegiak ere sintagma mailako unitateak jaso beharko lituzke (Gross, Mathieu-Colas 2001); osasungintzako idazle edo itzultzailearen arazoa maiz izan ohi da ‘resistente a la penicilina’, ‘alérgico a la penicilina’ bezalakoak euskaraz ematea. Baina kolokazio horien azterketak oinarritzko izen eta aditzen deskribapen eta tasun lexiko-semantikoen azterketa eskatzen du lehenik.

4. TERMINOLOGIA ARAZOAK: LEXIKALIZAZIOA

Espezialitatean ari denak darabilen lexikoa lau sail nagusitan bana dezake, espezialitatearen (erreferente, gai eta komunikazio asmoaren) arabera (Cabré 1993).

- (a) Hizkuntza orokorreko elementu lexikoak, Hiztegi Batuak (estandarrek) jasoko dituenak, alegia.
- (b) Tarteko elementu lexikoak. Hauek ere hiztegi estandarrek jaso beharko lituzkeenak. Hauen artean ditugu osasun arloan lehen aipatu ditugun unitate lexiko birsemantizatuak, espezialitatean adiera berezia hartzen dutenak.
- (c) Espezialitateko hizkeraren lexiko berezia. Osasun arloan, mediku eta erizainek (baita beste langileek ere) erabili ohi dituztenak. Unitate lexiko hauek finko samarrak dira eta espezialista nahiz administrazio teknikariak paradigma lexiko eta taxonomia jakin baten barruan jasotzen ditu. *Loditasun*, *gizentasun* dugu euskarazko ohiko hitza gehiegizko pisua adierazteko, baina patologian (operatzea erabakitze orduan) edo epidemiologian (gizakiak eta giza taldeak sailkatzeko orduan) honako hauek bereizi ohi dira BMI indizearen arabera: 1. *Normal range* (BMI 20-25), 2. *Overweight* (>25), 3. *Mild Obesity* (27-30), 4. *Moderate Obesity* (30-35), 5. *Severe* (35-40), 6. *Morbid obesity* (40-50), 7. *Superobesity* (50-60), 8. *Super/super obesity* (60-65), 9. *Triple obesity* (> 65).

(d) Ultraespezialitateko hitzak. Hitz horiek nekez igaroko dira erabilera arruntera. Hitz hauen erabilera eta estandarizazioa espezialista talde eta erakundeetan erabaki ohi da.

Ikusten denez, itzulpena izan ohi da neologiararen bultzatzen gaituena. Eta itzulpenarekin batera zientzia eta teknikaren zabalkundea eta osasun zerbitzuak hiritar guztiengana hurbildu izana. Gertaera eta berrikuntza hauek ez dira euskararenak soilik. Gure inguruko erdaretan euskararen baino tradizio aberatsagoa badute ere, lexikografia lanak edo asmo didaktikoa zutenak (higiene liburua edo ikasleentzako liburu-

ruak) izan dira nagusi XX. mendera arte. Baina XXI. mendeari begira erabat aldatu da egoera: Internetek eta komunikaziorako nahiz testu-ediziorako erraztasunek aldaketa handia ekarri dute, baita alfabetatze eta kultura maila handia gizarte osora zabaldu izanak ere. Hortaz, ezinbestekoa dirudi espezialitatekoak diren edo arlo horretakoak izatetik hurbil dauden hainbat testu (administraziokoak, irakaskuntzakoak, aldizkarietakoak) aztertzea eta haietan erabili ohi den lexikoa finkatzen saiatzea. Lan horretan maiztasun handikoak dira paradigma lexiko eta kontzeptualetako unitate diren izendapenak: eritasunen izenak, proba diagnostikoak, aseguru-erakundeetako kontzeptuak, ebakuntza-teknikak...

Baina ez dirudi kontzeptu eta aurkikuntza berriak izendatzeko (eritasun edo tresna izenak, adibidez) erabiltzen diren nazioarteko hitzak “asmatzen” ibili behar dugunik (izen kategoriakoak direnean bereziki): *prioia*, *klonazioa*...

Abere ala jende, oro kotsa ditzazken gaitz galgarriari euskarazko izen baten emaita nahi lukete zonbaitek. Hortarako, hitz berri baten moldatzera lagozke gogotik. Guri lan alferra litzaiguke, osoki alferra. Ez bakarrik Frantzia, baina oraino munduko bertze eskualde guzietan izen bera —edo bertsua— du apaldiskoan gaitz horrek: *tuberculose*. Bertze guziek bezala zendako ez ginuke behar deitu guk? (Etxepare 1985: 125)

Hala gertatzen da behintzat nazioartean forma estandarra duten hitzekin. Egia da bereizi beharra dugula espezialitateko testua (espezialistak, hots arauzko ikaskuntza burutu duen mediku edo erizainak sortua) eta osasun gaia darabilen espezializatu gabeko testua (kazetaritzakoak: Etxeparerenak esate baterako), nahiz eta bietan erreferentea osasun gaia den. Baina badira terminologia arazoak bietan erantzun beharrekoak.

Arazo nagusia izendapena eta nomenklatura biltzen direnean gertatzen da. Izan ere, eritasunen izenak adibidetzat harturik, badirudi espezializazio mailan (bestela gertatzen da lagunartean edo erabilera arruntean, baina gogora dezagun bi arlo horien arteko muga gero eta zailagoa dela zehazten, zientziaren zabalkundea eta hiritar arrunten formazioa direla eta) eritasun bakoitza ongi bereizi eta izendatu beharra dugula. Horrela, besteak beste, nazioarteko estatistika ikerketak eta epidemiologia ekimenak errazago bidera daitezke. Ez dago, gaur egun, antzeko klinika eta itxura izan arren jatorri etiologiko desberdina duten eta, agian, tratamendua ere desberdina behar duten eritasunak nahasterik, nahiz eta herriak izen bera erabili inguru batean eta bestean bi gaitz horiek izendatzeko. Zalantzarik ez dago, zabalkundean ez dugula halako arazo larrik. Ikus dezagun adibide modura Aranburu eta Bago doktoreen testua:

Elcorria edo charrampiña:... Elcorria azaltzen da laugarren egun inguruan lendabico arpegui eta lepoan eta joaten da andican gorputz guztira zabalduaz beste bi egunean (*Sarampión: ... La erupción o sarpullido aparece al cuarto día, primero en la cara y el cuello; gradualmente se extiende en dos días sobre el resto del cuerpo*) (Aranburu-Bago 1899)

Hiztegi aukerak laster erakutsiko digu lan hori zabalkundekoa dela eta asmo didaktikoa duela (bat dator asmo hori, oro har, XIX. mendean zabaldu zen higienearren kontzeptuarekin). Hain zuzen ere, medikuek idatzitako hainbat artikulua argitaratu dira hurrengo urteetan euskaraz epidemiologia eta higiene arazoan inguruan (Arratibel, Artetxe, Ipolito, Zinkunegi: *Itzaldiak, Euskal Esnalea*). Baina formazioa erdaraz jaso duten idazleak ditugu eta nolabait erantzun beharra dute espezialitateko hiztegiaren aurrean. Izan ere, oraino nahiz lehenagoko edozein medikuntza-testuk adieraziko digu elgorriaren (azaleko gorritasuna edo exantema sorrarazten duen gai-

tzetako bat, alegia) diagnostikoa egiteko orduan beste hainbat gaitz gogoan hartu eta haietatik bereizi beharra dagoela: errubeola, eskarlata, sendagaien ondorengo exantemak, alergia-gaitzak, bat-bateko exantema, mononukleosi kutsagarria, eta adenobirus, echobirus nahiz beste birus batzuek eragindako infekzioak.

Galtza bete lan du arlo horretan lexikografoak. Hain zuzen ere arazoa saihestu egiten dute maiz Bago eta Aranburuk *giltzurruneko* gaitza idaztean (erdal testua ere zabalkundekoa den arren, gaitzen izenak aipatu egiten dituzte: *enfermedad de Bright, hidropesías*; ez, ordea, euskaraz), nahiz eta beste batzuetan zabalkunderako idazteak testuaren birformulazioa dakarren eta, beraz, azalpenaren bidez hainbat kontzeptu eta arazo zehazkiago deskribatzen dituzten (Arrigain 1994), eta hainbat gaitz bereizten ere ahalegina egiten duten (*nafarreri zoroa, astanafarrerria*). Bestalde, ez dirudi tesuinguru horretan '*sarpullido*' (elgorriak eragindako exantema, alegia) hitzaren ordainik behar denik eta gaitzaren izena bera balia daiteke harako hura adierazteko (*elgorria azaltzen da larruazalean...*). Baina, esan bezala, zailagoa dugu jokabide hori gaitz exantematiko guztien paradigman. Hortaz, ezin ukatu neologia lana beharrezkoa dugula hor: kontua dugu lan horri nola heldu. Beste era batera esanda, hitzek dituzten edo izan ditzaketen lerratze semantikoez gain edo jatortasun etimologikoez aparte, nazioartekotasuna edo paradigmak osatzeko oinarri izatea irizpide sendoak izango dira maileguak erabakitzeke orduan.

Baina arlo honetan ere erraz konturatuko gara zaila dela espezialitateko arloa eta orokorra bereiztea. Orain arte erabakitako hiztegi estandarrean (Euskaltzaindia 2001) 17 hitzek bakarrik jaso dute *Med.* marka (*Medikuntza*) *a* eta *k* letren artean (*angina, diuretiko, ebakuntza, epileptiko, eskizofreniko, esklerosi, eskorbuto, espasmo, faringitis, farmakologia, hemofilia, hemorroide, hepatitis, herpes, infekzio, koliko, kongestio*). Horien ondoan markarik gabe ageri dira beste asko: *diabetes, pneumonia, sifili...* Eta beste asko dira orain arte lekukotasunik edo erabilera zabalik izan ez arren gaur egun zabalkundeko aldizkarietan (Elhuyar, www.zientzia.net...) ez ezik komunikabide arruntetan ere egunero erabiltzen direnak (*Euskaldunon Egunkaria, Zabalik, Argia, EITB...*)

Hiztegi bakoitzak bere aukera egiten du halako sarrerak hartzeko orduan, erabili den metodologiaren, bezeroaren eskakizunaren, hitz kopuru osoaren eta beste hainbat eragileren arabera. I. Sarasolaren Euskal Hiztegiak (Sarasola 1997) 84 hitz jasotzen ditu *Send.* markarekin. Espainiako Akademiak 2.548 jasotzen ditu (Medikuntza: *Anat., Med. ...*), baina ingurumen zientziak (*Biol*) ere kontuan harturik 5.013 hitz dira Bizitza Zientzien atalekoak. Frantses Akademiak, berriz, 1.034 hitz. Eta, bide horretatik, Elhuyar hiztegi elebidunak 3.200 hitzetik gora jasotzen ditu atal honetakoak.

Espezialitateko lexikoarekin bezala, badirudi ez dela beti berdin jokatzeko esparru teknikoan garrantzia duten beste hainbat arazoren inguruan ere, nolabait arautu beharko lirakekeenak: kultur tema edo osagaien transkripzioarako arau orokorrak, maileguen transkripzioarako arau orokorrak, sigla eta akronimoen transkripzioa eta erabilera (akronimo eta eponimoen artean izen arruntan erabilera dutenen paradigmak zehaztea), sinbolo, formula eta nomenklaturak (nazioarteko erabilera estandarren arabera).

Eta horiekin batera, sintaxia eta lexikoaren arteko aditzen erregimena bezalako arazoak.

Idia edo behia hestulaz attaccatua denean cer eguin behar den. Idia marfondiz attaccatua denean eta guciz hestulla handia duella, hartuco duçe aphurbat hissopa eta hura hiraquit

pinterdibat huretan guero iraci duçuenian edanaraz hur hura idiari. (Dassança, M. *Laborarien abissua*, 1692)

Agindu testu modura antolatu den testu horretan ikus daiteke hizkuntza orokorreko ohiko sintaxi eta diskurtoaren antolamendutik urrundu gabe ere lexikoa gertatzen dela arazo nagusia: *hestulaz, marfondiz atacatua*.

5. ONDORIOAK

Ondorioak. Bada aldea osasun arloko tradiziozko testuen eta gaurko testuen artean, baina alde hori zertan den kontuan izan beharra dago. Alde batetik, hizkuntzaren erabilerarekin batera gertatu den aldaketa, bereziki sintaxiari dagokiona (hizkuntz gaitasunak eta itzulpenaren morrontzak neurri batean azal dezaketena), eta bestetik lexikoari dagokiona (espezializaziokoari baino gehiago orokorrari). Eta aldaketa horietan bada ahaztu ezin dugun beste eragile bat: hizkuntz premia berriei erantzun beharra. Behar horiei taxuz erantzuten zaien neurrian lortuko da osasungintzan eus-kara eredu aldi berean adierazkorra eta eraginkorra. Eta horrekin batera biologiako nomenklaturetan egiten den antzera, klinikan ere (gaixotasunen izenetan adibidez) nazioarteko estandarrei begira jokatu beharko da neurri batean.

Osasun arloa espezialitateko arloa bada ere, era askotako komunikazioa bideratzen da arlo horretako hiztun eta partaideen artean (mediku eta gaixoaren artean, administrazioaren eta hiritarraren artean, ikertzaileen artean...) eta arloko euskararen azterketak egoera konplexu hori kontuan hartu beharra du testuak nahiz lexikoa lantzeko eta erabakitzeke orduan.

Espezialitateko hizkeraz ari garenean idatziaz ari gara nagusiki, eta neurri handi batean terminologiaz. Baina espezializazio mailak bereizi behar ditugu alde batetik (ikerketako testua, zabalkundekoa...) eta esparruak bestetik (zerbitzu publikoak, kazetaritza...) lexiko aukerak egiteko orduan hartzaileak ongi gogoan hartzeko. Arreta berezia merezi du alde horretatik erdi mailako irakaskuntza formaleko testugintzak (batxilerra eta lanbide heziketa)

Arlo horretako hizkuntza araua ezartzen ahalegina egitea komeni da. Horretarako Euskaltzaindiak hizkuntza orokorrerako ezarriez gain, estandarizazioa bilatuko duten ortotipografia, estilo eta terminologiarako oinarritzko eta gutxieneko arauak ezartzea komeni da. On litzateke, idazle, itzultzaile eta erabiltzaileek onarturiko erakunde edo talderen batek ardura hori hartzea eta erakunde horrek beste hizkuntza erakundeekin harreman estua izatea.

Lan horretan arreta berezia jartzea komeni da aldaketa semantikoa edo birsemantizazioa jasan duten hitzei eta hiztegi estandarrean, ahal den neurrian, adiera, azpiadiera edo adibide modura jaso. Horrekin batera, aditzen erregimena eta erabile-
ra esparru berezietako salbuespenak markatzea komeniko litzateke.

Arreta berezia jartzea komeni da lexikografia lanetan kolokazio eta adiera unitate konplexuei. Nahiz eta mailegu hartu berriak maiz aldi batekoak edo komunikazio esparru oso murriztetoak izan ohi diren, badira batzuk (eritasun berri batzuk, adibidez, munduan zabaldu eta agerpen handia eta gizarte eragin handia dutenak) behin-behinean behintzat erabaki eta arautu beharrekoak.

Hiztegi estandarrek esparru teknikitik jaso behar dituen hitzen kopurua eta haiek jasotzeko irizpide nagusiak eztabaidatu eta erabakitzea komeni da. Horrekin

batera, terminologia datu-baseetan lexikalizatzeko eta hiztegi espezializatura edo hiztegi orokorrera (baita estandarera ere) iragan daitezkeen elementu lexikoak aztertu eta bereizi beharko lirateke.

BIBLIOGRAFIA

- ARAMBURU, M.; BAGO AGUIRRE, M. (1899). *Errico gendeentzat osasun legueac eta medicantzaco arguibideac*. Bergara: J. F.López arg.
- ARRIGAIN, I. (1994). Sarrera. In *Erriko Jendeentzat Osasun Legeak eta Medikantza-ko Argibideak*. Aranburu, M. eta Bago Agirre, M.; Arrigain, I. Ed. Klasikoak.
- CABRÉ, T. (1993). "*La terminología: teoría, metodología, aplicaciones*". Barcelona. Empuries: Ed. Antártida
- (1999). "*La terminología. Representación y comunicación. Una teoría de base comunicativa y otros artículos*." Barcelona: Institut Universitari de Lingüística Aplicada (Universitat Pompeu Fabra).
- DARANATZ, J. B. (1902). *Mongongo Dassança Chimista*. Un vétérinaire basque du XVII. siècle, RIEV.
- EIZIE (1999-2000). (<http://www.eizie.org>). *Itzulist eztabaida zerrenda* (Yahoo / eGroups). <http://www.egroups.com/itzulist.htm>
- ESTOPÀ, R.; VALERO, A. (1999). *Adquisición de conocimiento especializado y unidades de significación especializada en medicina*. Madrid. Jornadas-Coloquio Problemas Terminológicos en Medicina. RACEFN-AET.
- ETXEPARE, J. (1985). "*Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak (II Medikusolas)*". Donostia: Charritton P. (ed.) Elkar.
- EUSKALTZAINDIA (2000). *Hiztegi Batua*. Bilbo. [Euskera 45. liburukia, 2000, 2].
- GROSS G.; MATHIEU-COLAS, M. (2001). *Description de la langue de la médecine*. META XLVI-1. (68-81)
- GUTIÉRREZ, B. (1998). "*La ciencia empieza en la palabra. Análisis e historia del lenguaje científico*". Barcelona: Península.
- (2000). *El lenguaje de la medicina y sus funciones*. Revista Iberoamericana de Discurso y Sociedad. Barcelona: Gedisa, juny 2000. Vol. 2
- HOFFMANN, L. (1998). (1988). "*Conceptes bàsics de la lingüística dels llenguatges d'especialitat*". En Brumme, J. (ed.) *Llenguatges d'especialitat. Selecció de textos*. Barcelona.
- KOCOUREK, R., (1982). "*La langue française de la technique et de la science*" Wiesbaden: Oscar Brandstetter Verlag GmbH & Co.
- MANIEZ, F. (2001). *La traduction du nom adjectival en anglais médical*. META 46-1 (56-67)
- SARASOLA, I. (1997). *Euskal Hiztegia*. Donostia: Kutxa.
- TERCEDOR M.; MÉNDEZ, B. (2000) *Fraseología y variación terminológica: estudio descriptivo en corpora biomédicos*. Terminologie et traduction 2.
- UGARTEBURU, I. (2000). *Especialitateko hizkera* <http://www.ehu.es/euskalosasuna/eh00.htm>

Nolako hiztegi batua behar du XXI. mendeko euskaldunak?

*Iñaki Azkune, Elisabete Etxeberria,
Antton Gurrutxaga, Alfontso Mujika,
Sagrario Barandiaran*

Elhuyar

Euskaltzaindiak Nazioarteko XV. Biltzar honetan parte hartzeko eskaintza egin zigunean, euskara batuaren hiztegiari buruz zerbait esan behar genuela otu zitzaigun. Baina ez Euskaltzaindiak lantzen diharduen Hiztegi Batuari buruz –maiuskulaz idazten dugun *Hiztegi Batu* horri buruz–, edo ez behintzat lan horri buruz bakarrik. Izan ere, pentsatu genuen gauden tokitik, geure eguneroko jardunetik eta eskarmentutik, abiatu behar genuela gogoeta Biltzarrean plazaratzeko.

Izan ere, Elhuyarren, une honetan, gure jardunak honetara ekarri gaituelako, euskararen estandarizazioaren dinamikaren banalerroaren erdian-edo gaudela esan dezakegu. Batetik, hiztegiak, entziklopediak, atlasak eta bestelakoak argitaratzen ditugu. Hortaz, nolabait sortzaile garen aldetik, euskararen erabiltzaileei –euskaldunei– kontsulta-obrak eta, neurri batean, erreferenteak edo ereduak, eskaintzen dizkiegunez, gure erantzukizuna eta ardua, gure nahia eta gure erabakia da Euskaltzaindiaren erabakien eramaile, zabaltzaile eta gizarteratzaile izatea, eta Euskaltzaindiak ezarritako ildotik ez aldentzen saiatzea.

Bestetik, aldizkari bat argitaratzen dugu, itzulpenak egiten ditugu, lanbide-heziketako eta unibertsitateko eskola-liburuak argitaratzen ditugu, eta hainbat enpresatan ari gara euskara-planak garatzen euskara lan-hizkuntza izan dadin. Alde horretatik, euskararen kontsumitzaileak gara, eta egunero-egunero agertzen zaizkigun lexiko-arazoei aurre egin behar izaten diegu.

Azken alde horri, alde kontsumitzaile horri, erantzun behar dio Elhuyarren alde sortzaileak. Eta errealitate horretatik –premien, nahien eta ezinen dialektika horretatik– abiatu behar dugu gure gogoeta, gure kezkek eta nahiak zuengana-tzeko. Horregatik, honela bataiatu dugu txostena: *Nolako hiztegi batua behar du XXI. mendeko euskaldunak?*

Euskaldunok euskaraz egin ahal izateko, euskarak eguneroko komunikazio-beharretarako —lagunarretarako, eskolarako, lanerako, jakintzarako, aisiarako eta abarretarako— tresna egokia izan behar du.

Euskaldunok Europako gizartearen parte gara, eta, nagusiki, zerbitzuetan eta industrian lan egiten dugu. Euskarak, euskal ondare lexikalak, gizarte horretan bizitzeko behar ditugun hitzak eman behar dizkigu. Eta, ematen ez dizkigunean, guk, euskaldunok, hitzak mailegatuz, egokituz eta sortuz, ematen dizkiogu euskarari behar dituen hitzak. Horrela eginez doa egunez egun euskal hiztegia, hiztegi hori ofiziala ez bada ere, eta batu-izaera zalantzazkoa badu ere. Euskaraz bizi nahi dugu, eta, horretarako, inguratzen gaituen eta erabiltzen dugun oro izendatzeko, hitzak behar ditugu.

Euskaltzaindiak azken urteotan hiztegi batua finkatzeari ekin dio. Lanak duela ia 10 urte hasi ziren, 1991ko abenduan Hiztegi Batuko Batzordea sortu zenean. Lehen urrats garrantzitsu horretan tradizioa, ondare lexikala, hartu da oinarritzat. Lehen urratsa amaiturik, 22.000 hitz inguru finkaturik, bigarren urratsean beste hainbeste hitz finkatu nahi ditu Euskaltzaindiak. Finkatze hori gehienbat grafiari dagokio, ez hainbeste hitz horiek dituzten adierei edo esanahiei. Hortaz, hiztegi batez ere ortografikoa lantzen ari da Euskaltzaindia. Hitzen etxaurrea –grafia– eraiki du, etxaurreaz haraindi lana badagoela jakinik ere. Nonbaitetik hasi behar zen, eta abiapuntu ona, nahitaezkoa, ezarri du Euskaltzaindiak.

Baina inon idatzirik ez dagoen 'euskal hiztegi bat' —edo bat baino gehiago— badago: euskaldunok gaur egun baliatzen duguna, komunikatzeko balio diguna. Ez da hiztegi batua izango, edo neurri batean soilik izango da batua, baina euskal hiztegia da, erreala da, funtzionala da.

Bien artean, zalantzarik ez da, leizea dago. Hori hizkuntza guztietan gertatzen bada ere, gurean inguruko erdaretan baino askoz nabarmenagoa da, besteak beste, hiztegi batu ofiziala hastapenetan dagoelako. Eta larriagoa da gurean arazoa, egungo beharretatik abiatutako hiztegi baturik ez dugulako oraindik. Plaza horretan, jokaleku horretan, jardun beharra dago.

Hiztegi Batua egiten hasteko, literatura-tradizioan oinarritu da Euskaltzaindia. Baina harago ere joan da. Izan ere, euskal ondare lexikalarekin batera, tradiziorik gabeko hainbat eta hainbat hitz ageri dira Hiztegi Batuan. Hau da, saio bat egin da, tradizioaz gainera, gaurko plazara ere jaisteko, gaurko euskaldunok ditugun beharretara hurbiltzeko. Asmo txalogarria, zalantzarik gabe, eta beharrezkoa. Hona hemen, adibidez, Hiztegi Batuak bildu dituen zientzietako hainbat hitz:

batugai, diagonal, diferentzial, diskretu, disolbatu, erdikari, erroketa, fotoi, gradiente, isolagailu, kateto, kosekante, magnitude, minus, multiplo, periodo, sinu, unitate.

Hala eta guztiz ere, beharretara hurbiltze horretan ez du ematen zezenari adarretatik tinko heldu ahal izan zaionik: Hiztegi Batuaren lehen urratsean batere tradiziorik ez duten kultur hitz asko sartu dira. Gorago emandako adibideekin batera, beste hainbat mailegu ageri dira Hiztegi Batuan. Zaila da neurtzen, baina, gaur egungo euskaldunen beharrei begira jarriko bagina, ez du ematen beharren araberrako hurrenkeran ezarritako zerrenda batean oso gora ezarriko genituzkeenik, eta, gainera, mailegu garbiak diren aldetik, ez ziren arazo-iturri. Adibidez:

apostasia, anfofero, diakronia, epigrama, erradioskopioa, espektrograma, etnolinguistika, hexametro, homotezia, ideografiko, mikrokosmos, palatalizatu, pentametro, prosodia, semiologia, tautologia, teleologia, teosofia, teodizea, trakeotomia.

Hitz horiek guztiak hiztegi batura bildu izana ez dago gaitzesterik. Aitzitik, horiek denak behar ditu XXI. mendeko euskaldun eskoladunak. Baina XXI. mendeko euskaldun orok —eskoladunak nahiz eskolagabeak— horiek baino askoz gehiago, maizago, erabiltzen dituen hainbat hitz, oinarritzkoak, falta dira Hiztegi Batuan. Adibidez, automobilari begiratu eta erreparatu atalei:

bolantea (gazt. *volante* / fr. *volant*)

embragea, lozagia? (gazt. *embrague* / fr. *embrayage*)

esekidura (kalean, kaleko euskara batuan, '*suspentsioa*')

biradera (leihatila jasotzeko eta jaisteko)

abiadura-kaxa (Hegoaldean, kalean, '*kajakanbio(s)a*') (gazt. *caja de cambios* / fr. *boîte de vitesse*)

lohi-babesa (Hegoaldean, kalean, '*guardabarro(s)a*') (gazt. *guardabarros* / fr. *aile, garde-boue*)

motelgailua (Hegoaldean, kalean, '*amortiguadorea*') (gazt. *amortiguador* / fr. *amortisseur*)

kolpe-babesa, kolpe-babesgarria, babesgarria, kolpe-leungailua... (Hegoaldean, kalean, '*paratxoke(s)a*') (gazt. *parachoques* / fr. *pare-chocs*).

Automobilaren alorra bezala, oinarritzko beste alor asko dago langai: janari-edariak, sukaldaritza, jantziak, estetika eta garbitasuna, aisialdia, etxeko elementuak, altzariak eta apaingarriak, etxetresnak, eskola- eta bulego-materiala, brikolajea, etab., hau da, alor arruntak, egunerokoak, behar-beharrezkoak. Adibidez, Hiztegi Batuan ez dugu *galleta* hitza aurkituko, ezta *bonboi, ma(g)dalena, saltxitxoi, biberoi, konpresa, kapota, txaleko, lozio, permanente, errulo, kantinplora edo erantzungailu* hitzak ere; laranja-zukua eta abar egiteko aparatuari *zuku-makina* edo nola esan behar diogun, telebista eta beste aparatu batzuk urrutitik gobernatzeko tresnari *urrutiko aginte, tele-aginte, telekomando* edo nola esan behar diogun ere ez dugu aurkituko; Hegoaldeko *entxufe* edo Iparraldeko *prisa* ere ez; paperak lotzeko *grapak* eta *grapagailua* ere ez daude. Eta azken aldi honetan hainbeste hauts harrotu dituen *telefono mugikor, telefono mugigarri, telefono eramangarri, telefono zelular, sakelako telefono* edo dena delako hori, kalean, Hegoaldean, *telefono mobila* esaten zaion hori ere ez dugu aurkituko.

Ez inork pentsa gero aurreko guztia Hiztegi Batuaren kritika denik. Alderantziz, esanda dago, eta berretsi egin nahi dugu, orain dugun Hiztegi Batua tresna ezinbestekoa dela, eta oinarri sendoak ezarri dituela aurrera egin ahal izateko. Baina non gauden, zer egin den eta zer falta den argi azaldu beharra dago.

Gure ustez, hiztegi batu ofizialak, aurrera begira, arreta handiagoa jarri behar luke gaurko euskaldunen beharretan. Tradiziotik —literaturatik— datorren ondare lexikalak hiztegiaren enborra osatu behar du, zalantzarik gabe, baina beharrei ere begiratu behar zaie.

Oso kontuan hartu behar da, orain arte baino kontuanago, euskara hizkuntza bizia dela, eta, beraz, erabiltzen den hizkuntza batu behar dela, ez garai batean —literatur tradizioan— erabili zena. Horretarako, erabiltzen den hizkuntza behar da eza-gutu. Duela 10-12 urte, hiztegi batu ofiziala erabakitzeko eskumena zutenen artean zegoen iritzi aski zabala honako hau zen, modu gordinean adierazita: "azken 25 urteotan euskara batuan idatzi dena ez da kontuan hartu behar edo ez du lehentasunik izan behar hiztegi batua finkatzeko orduan, ez baita fidagarria".

Baieztapen horrek ñabardurak beharko lituzke, baina bego bere horretan. Hala ere, ez da ahantzi behar azken 25 urte horietan aurreko 400 urteetan baino askoz gehiago idatzi dela. Eta azken 10 urteotan aurreko 25 horietan baino are gehiago idatzi dela. Idatzi eta irakurri: Azken 25 urteotan makina bat hitz eta termino —ezinbestekoak eta tradizioan ez daudenak— sortu dira, eta beren bidea egin dute. Hiztegi batuak, batu modernoak, bere altzoan hartu behar ditu, iragazi eta aztertu ondoren, jakina. Zorionez, ez gaude duela 35 urteko egoeran, ezta duela 10-12 urteko egoeran ere, eta kalean dagoen euskarari, erabiltzen dugun euskarari, ezin zaio ezikusiarrena egin.

Hortaz, 'tradizioan zer dugun' galdera ahaztu gabe ere, 'eguneroko bizitzan zer behar dugun' galderari erantzun behar zaio. Euskaldunek eguneroko bizitzan behar dituzten hitzak detektatu egin behar dira, eta kontuan hartu behar da, gainera, kontzeptu horiek adierazteko 'zerbait' erabiltzen dutela jadanik euskaldunek. Eta hitz horietako askok ez dute testigantzarik izango idatzizko tradizioan.

Euskal hitza zer den eta zer ez den definituta-edo du Euskaltzaindiak 1991ko apirilaren 26ko adierazpenean (*Euskal hitzak dira euskara bizian sustraituak daudenak* esana zuen lehendik, eta honako erantsi zion adierazpen hartan: *Euskara bizian sustraituak ez daudenak ez dira euskal hitzak, sustraitzen ez diren bitartean bederen*. Eta hitzak sustraiak badituen ala ez igartzeko, hiru irizpide ezarri zituen: *hitzauren hedadura, hitzauren antzinatasuna eta hitzauren erabilera idazle zaharretan*. Gehiago ere erantsi zuen: *ez dira erabat euskal hitzak gaztelera edo frantsesa jakin gabe euskaldun batek ezin adi ditzakeenak*).

Hala ere, plazara jaitsita, garbi dago definizio horrek ez digula beti balio, ez behintzat komunikazio-beharrei erantzungo dien hiztegia egin nahi bada. Euskaltzaindiak badaki hori, eta Hiztegi Batuan aurre egin behar izan dio arazoari. Hor daude, adibidez, *gasolina/ezantza, koaderno/kaier, betun/ziraia, kartel/afixa* edo *bizkotxo/bixkotx* bikoteak. Eta hainbatetan ausart jokatu du Euskaltzaindiak, arazoan aurrean errealitateari muzin egin gabe. Hor ditugu, adibidez, *aleazio, bonbilla, fideo, pantaila, txandal* edo *txikle* hitzak. Hemendik aurrera, horrelakoak ugaritu egingo dira, eta hitz bakar-baturik proposatzeko zailtasuna edo ezintasuna izango da, baina, gure iritziz, ezin itzurizko eta lehentasuna duen erantzukizuna da.

Euskaltzaindiak Hiztegi Batuaren bigaren urratsean beste 20.000 hitz finkatu nahi baditu, ez dago zalantzarik kopuru horretara iritsi ahal izateko alor espezializatuetan sartu egin beharko duela, nahiz eta Euskaltzaindiak behin baino gehiagotan esan duen terminologia teknikoan ez dela sartuko (Bide batez, esan dezagun terminologiarako erreferentzia-gune bat behar dugula, Euskal herri osokoa eta ez administrazio baten menpekoa, eta ez kolorebakarra, arauak emango ez baditu ere, nolabaiteko onarpena emango duena, eta gune edo elkarte horrek adostasuna bilatuz lan egin beharko luke, eta ez arauak ezarritz). Alor espezializatuetan sartu behar bada, modu sistematikoan lan egin behar delakoan gaude. Noizbehinkako eta banan-banako esku-hartzeak saihestu egin behar dira. Orain arte Euskaltzaindiak finkatu duen hiztegian badago horrelako arazoren bat, zorionez puntuala. Zenbaitetan, sarrerak hautatzeko irizpidea bitxia izan da: hitz batzuei sarrera eman zaie eta beste batzuei ez, kontzeptu-multzoak kontuan izan gabe. Horrek ez du ondorioz erabakietan, baina hiztegitik sarrerak hautatzeko orduan irizpide garbi egituraturik falta izan dela adierazten du.

Adibidez, hainbat elementu kimiko ageri dira Hiztegi Batuan, baina multzo osolari begiraturik, badirudi aliriztura erabaki dela zein sartu eta zein ez:

klora sarrera da, *bromoa ez*, *fluorra* bai eta *iodoa ez*. Zergatik? Elementu horiek talde bat osatzen dute —halogenoak— eta elkarrekin ikasten dira eskoletan. Era horretako adibide asko daude: *litioa* sarrera da, baina *helioa ez*; *kadmioa* bai, baina *titania* ez; *zesioa* bai eta *banadioa* ez; *zerioa* bai eta *neona* ez; eta abar.

Bestalde, *erradio* eta *radio* sarrerak ageri dira Hiztegi Batuan, alboan bat ere oharrik edo ikurrik ez dutela. Guk ez dugu zalantzarik: elementu kimikoa *radioa* eta geometriako terminoa *erradioa* esan eta idazten ditugu, baina Hiztegi Batuan ageri diren moduan ez dago jakiterik zein den zein, argibiderik ez baitago.

Sarrerak hautatzeko irizpidearen lausoa ikusten da honako adibide hauetan ere: *gimnospermo* sarrera da, baina *angiospermo* ez; *erribonukleiko* sarrera da, baina *desoxirribonukleiko* ez; *sulfuriko* sarrera da, baina *nitriko* ez.

Baina modu sistematikoan lan egin ez izanaren ondorioak horiek baino larriagoak izan daitezke. Bi akats aurkitu ditugu Hiztegi Batuan, bi termino teknikotan: *sulfhidriko* eta *zianhidriko* ageri dira zerrendan. Konposatu kimikoen nomenklatura funtzionalaren atal espezifikoak hiru elementu izan ditzake: aurritzia, erroa eta atzizkia. ‘*hidriko*’ atzizkia da, eta ezin da batean hatxea kendu eta bestean jarri. Nomenklaturaren sistematikotasunak eskatzen du *sulfhidriko* idazteak, hatxea ez kentzea alegia.

Beste akatsa unitateen izenetan gertatu da. Unitate Sistema Internazionalak oinarritzko zazpi unitate ditu (*metroa*, *kilogramoa*, *segundoa*, *amperea*, *kelvina*, *mola* eta *kandela*), eta horiek dira gainerako unitate guztien jatorria. Hiztegi Batuan, hutsuketa sistematikorik egin ez eta, bost jaso dira eta bi kanpoan utzi. Baina arazoa ez dago hor. Sistema Internazionalako unitateen izenak, jatorriari begira, bitan bereizten dira: jatorrian pertsona-izena dutenak (*kelvin*, *hertz*, *newton*, *joule*, *pascal*, *watt*, *coulomb*, *ohm*, *siemens*, *henry*, *becquerel*...) eta gainerakoak (*metro*, *segundo*, *kandela*, *mol*, *radian*, *lumen*, *lux*...).

Jatorrian pertsona-izena ez duten unitateen izenak, batzuk behintzat, aldatu egiten dira hizkuntzatik hizkuntzara, baina jatorrian pertsona-izena duten unitateen izenak ez. Euskaltzaindiak *volt* eta *watt* eman ditu, baina *ampere* erabaki du, hau da, jatorrian pertsona-izena duen unitatearen izena egokitu egin du, sistema osoaren nomenklaturaren koherentzia bortxaturik (Espainian bertan, Errege Dekretu baten aginduz¹, *ampere* da forma ofizial bakarra, ez *amperio*).

ingelesez	ampere	volt	watt
gaztelaniaz	ampere (amperio)	volt (voltio)	watt (watio)
frantsesez	ampère	volt	watt
alemanez	Ampere	Volt	Watt
italieraz	ampere	volt	watt
nederlanderaz	ampere	volt	watt
portugesez	ampere	volt	watt
danieraz	ampere	volt	watt
suedieraz	ampere	volt	watt
norvegieraz	ampere	volt	watt

Ezin da maileguen egokitzapen sistematikoaren irizpidea ezarri, eta *-mp-* grafia *-np-* bihurtu, *temperatura*, *enpiriko*, *implizitu*, *inportazio* edo *inperio* hitz arruntetan egin den bezala. Kanpoko estatuetako herritarren izenak (baita hiriburuetakoen ere), adibidez, sail berezia osatzen dute, eta sail berezi gisa aztertu eta sartu dira Hiztegi Batuan. Hor, adibidez, *mozambiketar*, *gambiar*, *kualalumpurta*, *kampalar*, *zambiar*, etab. ageri dira, jatorrizko *-mp-* hori gordeta. SI sistemako unitateek ere sail berezia osatzen dute, eta sail gisa aztertu eta erabaki behar dira. Horrela jokatzu gero, *ampere* da grafia egokia (antzeko kasua da *coulomb* unitatearena ere. Oraingoan hori ez da Hiztegi Batuan ageri, baina, *anpere*' erabakia ikusirik, norbaitek pentsa lezake *'coulomb'* behar lukeela).

Arazo horiek puntualak dira, eta, ozen esan dezagun, ez dute Hiztegi Batuaren balio ukazina iluntzen. Baina hurrengo urratsetarako prozeduretan sistematikotasuna zorrotz zaindu beharko dela erakusten dute.

Euskaldunok behar dugun hiztegi batuari, desideratum horri, asko eskatzen diogu, eta badakigu lantegi zaila dela. Izan ere, hiztegiak produktu 'ona' eskaini behar du: hor agertzen diren hitzek euskararen zerizanari eta tradizioari leialak, zorrotz aztertuak eta hizkuntzalaritzaren eta lexikografiaren ikuspegitik 'zuzenak' izan behar dute. Aldi berean, komunikaziorako tresna behar dute izan, eta horrek esan nahi du funtzionaltasun-baldintza minimo batzuk ere bete behar dituztela edo funtzional izatera iristeko ezaugarriak dituzten alde aurretik aztertzea komeni dela, aiantzi gabe jadanik funtzional diren baina Hiztegi Batuan onesten ez diren beste hitz edo termino batzuekin lehiatu beharko dutela.

Hori oso arazo korapilatsua da. Hiztegi gintzan dugun eskarmentutik esan dezakegu. Baina badakigu euskaltzainak horretaz jabeturik daudela. Horrenbestez, halako kontzeptua adierazteko erabil litezkeen hitz edo terminoen artean bat hobesterakoan hizkuntzalaritzaren irizpideen arabera okertzat eta baztergarritzat jotzen denik ez badago, hobe litzateke erabilera errealarari (edo erabilera errealean nagusi den formari) men egitea, ahalik eta distortsiorik txikiena sortzeko. Ez genuke aiantzi behar euskaraz bizi nahi duen gizartea ezin dela Euskaltzaindiak halako kontzeptuak euskaraz nola behar duen noiz erabakiko zain egon, gizarteko premiak akademia batek erabakiak har ditzakeen baino lasterrago aldatzen eta berritzen direlako. Hori esanik, ez dugu adierazi nahi sortu eta zabaldu diren hitzak besterik gabe onartu behar direnik, errealtatea hor dagoela eta merezi duen heinean aiantzat hartzekoa dela baizik. Eta, horretarako, azken urteotako testugintzaren corpus informatizatuaren premia begibistakoa da. Nola jakin, bestela, zer proposatu den azken aldi honetan hainbat itzulpen eta sortze-lanetan?

XXI. mendean gaude, eta XXI. mendeko hiztegi batua beharko dugu egin. Lan horri ekiteko, Euskaltzaindia da, gaur egun, euskaldunok onartzen dugun tresnarik egokiena. Hari laguntzea izan behar dugu helburu. Euskaltzaindiak gaurko euskaldunak entengabe izan behar ditu gogoan; eta euskara egunero-egunero sortu, erabili edota

1 Espainian, urriaren 27ko 1317/1989 Errege Dekretuak lehen eranskinean SI oinarriko unitateak definitzen ditu eta izenak ematen: *ampere* da forma ofizial bakarra.

Eta, gaztelaniari dagokionez, honela erakutsi ohi dira SI unitateen izenak: "Los nombres de las unidades debidos a nombres propios de científicos eminentes deben escribirse con idéntica ortografía que el nombre de éstos, pero con minúscula oficial". Horixe da arau (konbentzio) nagusia gaztelaniaz.

hedatzen duten agenteen lana kontuan hartu behar du, gero eta gehiago, hiztegi batu eta euskaldunok erabiliko duguna egingo badu.

Zama handiegia ezartzen ari gara, beharbada, Euskaltzaindiaren bizkarrean. Ez dakigu Euskaltzaindiak bakarrik heldu ahal izango dion gure ustez behar den hiztegi batu horri. Eginkizun horretan talde-lana indartzeko, Euskaltzaindiaren gonbita jaso genuen, eta, gure aldetik, gure ahal apalen neurrian, antolatzen diren lan-taldeetan ganoraz eta gogoz lan egiten saiatuko gara. Besterik ez. Mila esker gure ideia hauek zuen aurrean azaltzeko eman diguzuen aukeragatik.

Hiztegintza elebiduna: egindakoa eta egitekoa

Michael E. Morris

Aimery Picaud-ek bere lehen hitz-zerrenda atera zuenetik, euskal hiztegigintzak ikaragarri egin du aurrera. Koldo Mitxelena eta Ibon Sarasolak egindako hiztegigintza elebakarrari esker, askoz errazagoa da orain -eta zehatzago gertatzen da, gainera- hiztegigintza elebidun fidagarria egitea, duela -esaterako- 30 urte edo baino. Aipa ditzadan, bidenabar, Azkueren eta Lhanderen hiztegien oinorderik garrantzitsuenak, eraginari dagokionez: Placido Mujicaren hiztegia eta Xabier Kintanaren *Hiztegi Modernoa*, hain zuzen ere.

Mujicaren hiztegiak, 1964ean argitaratu zena, ordu arteko hutsune itzela bete zuen: Erdararik euskarara. Ordura arte, ahalegin gehien-gehienak euskaratik erdararakoak izan ziren. Garbizalea zen Mujica, baina ez gehiegi. Dena den, nire ustez, gehiegi fidatu zen baserritarren asmamenez. Esaterako, “avión reactor / jet airplane” euskaratzeko, *hegazkin keduna* proposatu zuen, behin batean baserritar batek horrelaxe deitu baitzuen. Gainera, Mujikaren joerak ere ikusten ziren zenbait hitzetan, adibidez, Darwinism *darwinkeria* bihurtu zuen, comunismo *baltzukeria*, mormonismo *mormoikeria*.

Xabier Kintanaren *Hiztegi Modernoa*, *Hiztegi 80*, eta *Hiztegi 2000* izeneko hiztegiek sekulako eragina izan zuten euskalgintzan eta euskara batuan eta hori aitortu behar da. Horren isla Xarritonen hiztegia, Kintanaren hiztegian oinarritutakoa. Oraindik ere, jende askok “izpiritu” esaten eta idazten du. Hala ere, egitura aldetik, nahiko bakuna zen eta adibide asko falta ziren, batik-bat esaerak eta erabilerak argitzeke.

Egungo hiztegi elebidunak lehenagokoak baino mardulagoak eta osatuagoak dira. Eskerrak eman behar dizkiegu Elhuyarri eta Adorez taldeari haiek egindako esfortzu itzelagatik, benetako aurrera pausoak baitira. Hala ere, egungo egoera diglosiko negargarriaren isla fidel ere badira. Egungo gaztelania-euskara hiztegiei azaletik so eginez gero, ikusten dugu kaleko hizkeraren baliokideak ez direla behar bezala agertzen horietan. Elhuyarren hiztegian, esaterako, gaztelaniazko *chaquetero* hitzari “kameleoi” jarri diote ordaintzat. *Hiztegi 3000*-koek, ordea, *proteiko* hitz bitxia aukeratu dute horretarako. Eta “hortera” hitza, berriz? Bada, Elhuyarren arabera, *nabarmen* da hitz horren ordain egokia. Baliteke hor *nabarmen* erabiltzea zuzena izatea, baina hotza eta aseptikoa da. Nola esan behar dugu “pringado”? Eta “Pijo”? Maila

askotan daude zalantza, ez soil-soilik argot mailan. Egunero itzultzaileek literaturan egindako esamolde zehatz eta garrantzitsuekin, baina euskarazko balioak aurki ezinik, nahiz eta Mokoroaren hiztegian han-hemenka begiratu. Nire ametsa –agian txakurrametsa– Euskaltzaindiak edo beste norbaitek antzeko arazoak konponduko dituen.

Euskal hiztegiak beste arazo larri bat du: hiztegia agertzen dena -edo euskal hiztunak esan behar lukeena- dugu, batetik, eta jende arruntak benetan erabiltzen duena, bestetik. "Parchoques" gaztelaniazko hitza, euskal hiztegien arabera, *leungailu* esan behar dugu, baina herriak *paratxokea* esaten du. Benetan, zenbat euskaldunek esaten dute *garbigailu* edo *ikuzgailu*, Goenkaleko antzezleak kontatzen ez baditugu? Benetan, zenbatak? Zenbatak, *lehorgailu*? Eta, aitzitik, zenbatak, *sekadore*? Kontua hauxe da: Zer da euskara garbia? Eta zein puntutan bihurtzen da euskara *euzkera garbija* edo "euskañol"?

Goiko auziari gagozkiola, auzia are larriagoa gerta daiteke gaztelaniazko edo frantsesezko ez diren euskal hiztegi elebidunetan; adibidez, ingeles-euskara hiztegietan, edo alemaniera-euskarazkoetan. Demagun, esate baterako, euskaldun batek "velvet" hitza ikusten duela testu batean. Hiztegiako adierara jo, eta "velvet" hitzaren balioak aurkitzen du: "belus". Oraindik ere, zoritxarrez, Hegoaldean behinik-behin, ez da behar beste ezagutzen "belus" hitza. Beraz, "terziopelo" jarri behar ote dugu? Euskara al da "terziopelo"? Ala gaitzetsi beharreko erdarakada da? Eta horren antzeko adibideak, tamalez, ugariak dira. Aipatutako hiztegi horiek erabiltzeko orduan, garbi dago euskaldunen euskara dela problema nagusi, ez euskara bera. Euskaldun gehienok, ondotox dakigu zergatik, ez dakite euskaraz, finlandiarrek finlandieraz dakiten moduan edo islandiarrek islandieraz dakiten mailan.

Hegoaldean egindako hiztegiek, oro har, ez dute behar bezala aintzat hartzen Iparraldeko euskara. Hiztegi horien egileentzat, ez da Iparralderik. Hiztegi horietan, nazioarteko izenentzat, askotan, euskal kutsuz moztutako izen espainiarrak jarri dituzte; esate baterako: *Anberes*, *Akisgran*, *Brujas*, *Makiavelo* eta *Joan Kalbino*. Jakina, Iparraldean, gaztelaniaz ez baldin badakite, ez dituzte ulertzen izen "bitxi" horiek. Baina, antza denez, zenbait hegoaldearrentzat, huskeria bat da hori. Euskara Batua euskaldunak batzeko izan dadin nahi baldin badugu, baztertu egin behar ditugu premiazko ez diren gaztelaniakadak eta frantseskiakadak euskara horretatik. Halaxe esana du, adibidez, Ibon Sarasolak, behin baino gehiagotan.

Goaxeagoan esandako hiztegiak, gainera, beren moduan irakurtzen dituzte Euskaltzaindiaren arauak. Adibide bat: Euskaltzaindiak zera erabaki du, eta ezarri, bere "Arauak" sailean, 554. orrialdean:

"Goi mailako ikerketetarako, eta maiztasun urriko izenentzat, bigarren bide bat ere uzten da zabalik, latindar jatorriko izenetarako latin nominatiboa onetsiz (*Flavius Josephus*, adibidez), eta greziar jatorrikoentzat, transkripzio taula bat proposatuz (*Alkaios*, *Bakchylides*, *Kallimakhos*, *Themisthokles*... formak ere onesten dira honela)".

Beraz, *Alkaios* forma jatorrizkoa, ez bairik gabe, *Altzeo* forma eusko-espainiarra bezain onargarria da, baina Elhuyarrek forma eusko-espainiarrak onartu ditu soil-soilik (adib.: *Germaniko*). Batzuetan, Iparraldeko jendeak hobeki daki jatorrizko forma

(adib.: *Spartacus*), forma eusko-espainiarra (*Espartako*) baino, baina Elhuyarrek ez du kontuan hartu hori, zorritzarekin. Hobe da -eta zintzoagoa, gainera- onartzen diren forma biak jartzea.

Azkenik, Gaztelania-euskarazko hiztegien sarrera-antolabidea ez da nazioarteko mailara iristen. Adibidez, *Collins* (edo *Oxford*) *Spanish-English* hiztegiaren sarrera eta Elhuyarrena -edo *3000 Hiztegiarena*, berdin da- elkarren ondoan jartzen badiugu, haien sarrerak alderatzean, garbi dago Collins-en agertzen direnak askoz hobeto daudela antolatuta, eta askoz informazio gehiago dutela, aipatutako bi euskal hiztegietakoei baino. Gaztelania-euskarazko edo frantses-euskarazko hiztegi gintzari dagokionez, bete beharreko hutsunea izugarria da. Jakina, gauza bera esan genezake frantses-euskarazko hiztegiei buruz.

* * *

Nire hiztegiak, *Morris Student Plus* delakoak, Collins eta Oxforden egiturari jarraitzen dio, ahal den moduan behintzat. Egitura horrek hierarkia finkoa du. Hitz-artikulu bakoitza adiera orokorretan dago antolatuta. Eta behar denean, adiera batean zenbait azpi-adiera ere egon daitezke. Zenbait kasutan, horrelako sistema behar-beharrezkoa da, adjektiboetan eta oso hitz polisemikoetan batik-bat. Konpara dezagun, adibidez, “atera” hitza, nire hiztegitik hartutakoa, Elhuyarren hiztegitik hartutakoa, eta *3000 Hiztegi*-tik hartutakoa. Jakina, hizkuntz bikoteak bestelakoak dira, baina garbi ikusten da hiztegiaren barne-egitura bestelakoa dela. Nire hiztegiaren, “atera” hitza zenbait ataletan dago antolatuta: “du” aditz atala, “da” aditz atala. Atal bakoitzak zenbait adiera ditu, guztiak zenbakidunak, eta, gainera, eremu semantikoa, parentesietan jarritakoa, ere agertzen. Eta adiera askotan ere, azpiadiera ugari daude, eta gehienetan, azpiadiera hauek ere badauzkate eremu semantikokoak jarrita. Horrela antolatuz, erabiltzaileak errazago aurkituko du behar edo nahi duen esanahia. Elhuyar eta *3000 Hiztegia*, izeneko hiztegiaren, ordea, horrelakorik ez dago. Ez dago azpiadierarik, eta hori gutxi balitz, gehienetan eremu semantikoa ez da jartzen. Beraz, askoz zailagoa da behar den esanahia aurkitzea. Zentzu honetan, *Morris Student Plus* hiztegiak bide berriak ireki ditu euskal hiztegi gintza elebiduneari. Hala ere, *Morris Student Plus*, ingeles-euskarazko hiztegiarik handiena bada ere, euskarak dituen premiei begira, ez da, ez, nahikoa. Horregatik, une honetan, berritzen eta handitzen ari naiz.

Orain arte, gaztelania-euskarazko, frantses-euskarazko edo ingeles-euskarazko hiztegi elebidunak erabili ditugu bakarrik ahotan. Agertu dira, bai, beste hiztegi txiki batzuk ere, non beste hizkuntza batzuekin loturik agertzen baita euskara: nederlandera-euskara, errusiera-euskara, japoniera-euskara, eta, gezurra badirudi ere, Fang-euskara! Hala ere, nire iritziz, zeharo premiazkoa dugu beste hiztegi elebidun handi batzuk egitea, lehenbailehen; hauek, adibidez: alemaniera-euskara, portugese-euskara, katalan-euskara, italiara-euskara... Eta zergatik gelditu behar dugu hor? On handia egingo lioke euskal kulturari latin-euskara edota greko klasiko-euskara hiztegiak sortzeak; bai eta txinera-euskara eta arabiera-euskara hiztegiak egiteak ere. Komeni da, baita ere, frantses-euskara eta errusiera-euskara hiztegi handi bana ateratzea. Jakina,

asmo eder horiek gauzatzeko betikoak behar dira (eta ez ditugu ikusten orain): dirua, jendea, eta –aitor dezagun egia– gogoia. Gogozko bidean, aldaparik ez.

Bukatzeko, paperezko hiztegiak aipatu ditugu soilik, baina, egungo teknologiei begira, eta haiek medio, badira beste euskarri batzuk ere: CD-eko hiztegiak eta on-line hiztegiak. Inolako zalantza-izpirik gabe, hiztegitzaren etorkizuna ziberespazioan edo CD-etan dago. Paperezko hiztegietan ez bezala, haietan badago ahoskera, bideo-klipak, irudiak, hiperloturak e.a. jartzerik. Inoiz baino informazio gehiago eskainiko dute hiztegi elektronikoek. Nire hiztegia on-line jarri da, Eusko Jaurlaritzaren webgunean, www.euskadi.net/morris delakoan hain zuzen ere. Lan itzela eta nekagarria izan da. Baina ez da heldu, oraindik, paperezko hiztegien azken orena ere.

Muga-arazo batzuk: *zain* eta *zale*¹

Elixabete Perez Gaztelu

1. ATARIKOA: MUGA-ARAZOAK ETA HELBURUAK

Muga-Arazoak

Ez da inoiz gauza erraza izan hitz-elkarketa non hasten den eta non bukatzen jakitea: ez euskararen eremuan eta ez, egia esan, atzerri-hizkuntzen kasuan ere. (...).

Euskarari dagokionez, bi dira, besteak beste, mugarri finko baino sarriago istilu-iturri gertatu ohi diren puntuak: hitz elkartuen eta eratorrien arteko muga, alde batetik; eta, bestetik, hitz-elkarketaren eta sintaxiaren artekoa.(...)

Bukaeran *-dun*, *-gin/-gile*, *-zain/-zale*, *-bide*, *-aldi*, *-ola*, *-tegi*, ... duten eraikuntzak hitz elkartuak dira, ala eratorriak? (H-E/1, 22-25).

LEF batzordearen hitzok kezka-kate luze baten ispilua dira: euskalariek ez dute gisa berean jokatu elementu lexiko batzuk sailkatzean. Horren erakusgarri dugu, adibidez, Campionek (1884) edo Lopez-Mendizabalek (1943) elkarketan sartu dituztela Uhlenbeckek (1909), Azkuek (1923-25), Lafittek (1944) edo Villasantek (1974) erator-atzizkitzat jotako hainbat². Baina beti ere mugakotzat jotzen dituztela: bi baliabide lexikologikoren –eratorbidearen eta elkarketaren– artekotzat, hain zuzen ere. Alegia, bai aspaldi samarreko gramatika-ikerlanetan (aipatu ditugunak), bai gerokotan (Azkarate (1990, 1991), Euskaltzaindia (H-E/3, H-E/4)) errepikatzen den zalantza da elementu horien izaera, eta, honenbestez, eratzten duten hitzarena. Horietako batzuentzat sortu zen, hain justu, "erdi-atzizki" deizioa, Marchand-en (1960) *semi-suffixe* edo Dimitrescu-ren (1969) *suffixoide* terminoen bidetik.

Mugako eraikuntzen gaia (baliabide lexikoen artekoa, nahiz lexikoaren eta sintaxiaren artekoa) guztiz interesgarria eta gaurkotasun handikoa da³. Baina batzordeak elkarren ondoan aipatzen ditueni begiratu besterik ez dago jabetzeko aski gai zabal delako, muga-arazoak sortzen dituzten eskuineko osagai lexikoak gisa berekoak ez izaki. Nolanahi delako ere, garbi dagoena da "istilu-iturri" ez direla "erdi-atzizki" dei-

1 Lan hau egiteko *Estructuras morfológicas y estructuras sintácticas: las fronteras de la composición. Descripción, teoría y diccionarios*. DGES PB96-0457-C03 proiektuari emandako laguntzaz baliatu gara. Bestalde, eskerrak eman beharrean gara Esther Zulaika, Juan Carlos Odriozola eta Igone Zabalarari egin dizkiguten ohar jakingarriengatik; okerak gureak besterik ez dira.

2 Honek ez du esan nahi guztiak beti bat datozenik sailkapenean.

3 Azken aldiko ikerlan frankok ildo horixe dute jorrakizun.

tuak bakarrik. Zehatz esan, arazoa Euskaltzaindiaren (H-E/3, H-E/4) lau saili dihoakie:

- *andregai* moduko "erdi-atzizkiak" (*aldi, bide,...* eskuineko osagaiak dituztenak) (H-E/4, 79).
- *hitzaurre* moduko "deiktiko"etako "batzuk" (*alde, aurre...*) (H-E/4, 80).
- "Egile-elkarte sintetiko errokariak" (*-gin, -gile, -dun, -zain*)⁴. (H-E/4,64).
- "Izaera-elkarte" (H-E/3,127hh.) nahiz "asmo-elkarte"etan (H-E/4,70) aipatzen duten *zale*.

Zer dute, baina, guztiek batean?

Oro har, **maiztasuna** aipatzen da [Henzen (1947), Marchand (1960), Guilbert (1971, LXXIII), Euskaltzaindia (H-E/4)...]. Elementu horiek beste izen edo izenondoak baino askoz maizago darabiltzagu beste kategoria lexiko baten eskuinean hitz eratu bat osatzen. Honek, ordea, delako elementuaren jokamoldearen berri eman dezakeen arren, ez du arrazoiak argitzen, ez digu esaten zergatik erabiltzen den horren maiz hitz-eraketan. Gainera, bistan da zabalegia eta estuegia dela aldi berean, izan ere: maiztasun hutsa aski al da elementu lexiko bat atzizkitzat hartzeko? Eta, kontrara, orduan zergatik ez "mugako"tzat jo beste kategoria lexiko bati loturik oso maiz darabiltzagun *multzo, talde, zati, modu, usain...* mugakizunak⁵, esate baterako?

Bilakaera ere aipatu izan dute [Uhlenbeck (1909), Azkue (1923-25), Villasante (1974), Euskaltzaindia (H-E/4)]: hitz beregaina zena, denboraren joanean atzizki bilakatu da. Baina, berriz ere, gertatu dena esaten zaigu, ez zergatik gertatu den delako bilakaera. Ez dirudi, hortaz, bilakaerara jotze hutsak arrazoiak argitzeko balio duenik.

Honenbestez, maiztasunak eta bilakaerak gertakariak argitu baino areago deskribatu egiten dituzte.

Irizpide horiek askietsi ez eta arrazoiak bilatzeko saioa egin dute hainbat iker-tzailek. Maiztasunak osagai horren **esanahia aldatzean** izan behar du euskarria [Bally (1932,244), Rohrer (1967,16), Lifetree-Majumdar (1974,65-67)...]. Lotuta nahiz aske joan, delako hiztegi-sarrerak esanahi-aldaketa sendorik ez badu, ezin atzizkitzat hartu eta hitz elkartuko osagaitzat jo beste erremediorik ez dago.

Giurescu-k (1970, 263-264), Dimitrescu-ren (1969,3-4) suffixoide-en azterketari eransten dio delako osagaiak **beregaintasuna** galdu ote duen ere kontuan hartu behar dela: osagai hori bakarrik ezin erabil badaiteke atzizki bilakatu den seinale da.

Azkaratek (1991) **kategoria-aldaketa** ere aipatzen du, adierazgarria izan baitaiteke osagai bat lotuta doanean eta beregain darabilgunean kategoria berekoak ez izatea.

Gure azterketan ikusiko dugu noraino diren baliagarriak irizpide horiek eta noraino beharko ditugun beste teoria batzuekin osatu: Morfologia Sortzailearen ekarria ezinbestekoa gertatuko zaigu.

Guztiak lotzen dituzten arrazoiak egonagatik, gaiaren zabalak makurtu gaitu mugako eraikuntzen artean hautatzera⁶. *Zain* eta *zale* jo ditugu begiz orain, itxuraz bestelakoak izanik ere, bai baitute batean ezaugarriarik. Bestalde, *zale* aukerakoa da lexikoaren barrengo mugetan ez ezik, lexikoaren eta sintaxiaren artekoetan ere arakatzeko.

4 Errepara grafiari: atzizki balira bezala idatzi dituzte.

5 Nahiz hauek ere bereziak izan egitura-harremanaren ikuspegitik (Perez Gaztelu (2001)).

Honenbestez, hauexek dira gure helburuak:

- Arrazoietan arakatu: zer dela eta sortu dute zalantza elementu horiek eta ez beste batzuek, zer dute, bada, berezi mugakotzat jotzeko.
- Batzordeak erantzun gabe utzi zuen galderari (aldez) erantzun. Azterketak eramango gaitu zain, zale hiztegi-sarrerak direla eta, honenbestez, hauek eskuinean dituzten eraikuntza lexikoak hitz elkartuak direla aldarrikatzera.

2. ZAIN

Euskaltzaindiak (H-E/3, H-E/4) *zain* eskuinera daramaten eraikuntza lexikoak egile-elkarte sintetiko errokariaren artean sailkatzen ditu bigarren osagaitzat *-gin/-gile* eta *-dun* dutenekin batean⁷. Baina bere izaerari buruzko zalantza ere jasotzen dute, euskalariak harturik lagun: izen beregaintzat daukate baina beste izen bati lotuta maizago darabilgula ere badiote. Hortaz, zer da *zain*, atzizkia ala izen beregaina? Eta beregaina bada, zergatik darabilgu maizago beste kategoria lexiko bati lotuta?

Bestetik, berriz, Villasantek (1974,139), Azkaratek ((1990,390); (1991,106), Euskaltzaindiak (H-E/3,57)⁸ *zain egon* predikatu konplexuarekin lotzen dute: zein ote *zain(a) izan* izaki mailako predikatuaren (1a) eta *zain egon* egoerako predikatuaren (Zabala (1993)) (1b,1c) arteko lotura?

- (1) a artzaina da
- b artzain dago Nevadan
- c zure zain dago

Eta *zaindu* aditz eratorriarekin, nolako harremana du?

Hala izanik, kategoria- eta esanahi-aldaketa azaldu beharko liratekeela dirudi.

2.1.1. Zain izen beregaina

Jo dezagun lekukoetara ikusteko *zain* beregainaz hitz egiterik ba ote dagoen.

Zain-en osagarria erreferentzia mugatukoa denean, ezin era dezakegu hitzik (*ene aniazaina), ezinbestean kate sintagmatikoren batera jo beharrean gaude: IS(GEN) + *zain* da ohikoena (2). Arestiko debekurik ez dagoenean ere, nahiz eta eraikuntza lexikoa litekeena izan, hiztunak jo dezake sintaxira (3a,b). Baita osagarria isilpean duten atribuziozko egituretan ere (4).

- (2) Ni ote naiz ene anaiaren zaina? (KM MEIG VI - 148) / (G.H.) ene anaiaren zaintzailea / *Ni ote naiz ene aniazaina?
- (3) a otsoa ardien zain (Es.zah.) / (G.H.) otsoa artzain, ardi zain, ardiak (ardien) zaintzen
- b Gibelerat heldu zauku laster, erriaren zainek erranik ez dela gaizkiago eta, hain xuxen, orduan lo dagola (HU Aurp - 182) / (G.H.) erizainek erranik
- (4) Jangoikoak emonik dauko gizon bakotxari bere Angeru gordegilla, zaina, begiragillea (Añ Ggero - 354) / (G.H.) zaindaria / zaintzailea

6 Perez Gaztelu (2001) lanean xehekiago jorratu ditugu horko beste "istilu-iturri" direnetako batzuk.

7 Ohartzen dira, nolahi dela ere, guztiak ez direla gisa berekoak. *-gin, -gile -dun* atzizkitzat jotzen dituzte. Beregain-tasunaren irizpideak hemen garbi bereiziko lituzke batzuk eta bestea. Hortaz, elkarteatik atera eta eratorbidean aztertzekoak bide lirateke, *-(l)ari, -ketari...* 'egile' adierako izen-sortzaileekin batean.

8 "eguna zabaldu zain"... bezalakoak aipatzen ditu; perpausen elipsiaren bidez azaltzen ditu. Ez ditugu hemen aztertu.

Egia da adibide hauetatik ezin ondoriozta daitekeela gaurko hiztunak lagunarteko edo eguneroko hizkera arruntean halakoak barra-barra egiten dituenik; areago, seguru aski eman ditugun ordezkioak (GH) aiseago egingo ditu. Baina ulertzeko eragozpen larrikeria ere ez luke izango, eta, nolana dela ere, ez lituzke gramatikaz kanpokotzat joko.

Era berean, hiztun horrek berak (5b) bezalako "oihartzun-galdera" (EGLU-V,41) onartuko luke, eratorbidean ezinezkoa da (5d).

- (5) a haurtzaina da
 b zeren/noren zaina dela esan duzu?
 c erretzailea da
 d *zeren/zer -tzailea dela esan duzu?

Horrek dakarren ondorioa da, gure ustez, ezin esan daitekeela *zain* atzizkia denik. *Zain izen beregaina, hiztegi-sarrera da.*

2.1.2. *Zain(a) izan, zain(du), zain egon*

Ba ote loturarik *zain* hauen artean?

Ez bide dago aldezerik *artzain*-en *zain*, *zaindu* aditzaren oina denik: ez dugu [A *zain*] motako elkaturik euskaraz. Areago, *zaindu* aditza *zain*-etik geroztik eratorria delakoan gaude.

Beste aukera *zain egon* predikatu konplexutik abiatzea da. Badirudi Azkaratek (1991,106) honen alde egiten duela, baina ezin azal ditzake kategoriala eta azpikategoriazio-aldaketak. Azter dezagun hau.

Batetik, 'itxoin', 'itxaron' adiera duenean ez dugu egitura lexikorik eratzen: *ume-zaina* 'umeak zaintzen dituena' besterik ezin da izan, ez 'umeen *zain* dagoena'.

Bestetik ez genuke atzendu beharko predikatu mota beretik abiatuta baditugula [I *zain egon/ ibili/joan...*], egoerako predikatuak, baina 'kontzen', 'gordetzen' eta ez 'itxoinen', 'esperoan' adiera dutenak ("jardun-elkarte sintetikoak" (H-E/3,57)). Literaturako lekukoak ugariak dira: lehengo (3a) (predikazio mota batean), edo (6) ekar daitezke, besteak beste.

- (6) Presondegiaren *zain* ezarriak izatu ziren soldaduak loharkatu ziren denak, eginik elkharen artean, etzuela balio gauik galtzea jadanik erdi hila zen gizon baten gatik (Jnn Sbi - 151)

Ez da harrizkoa [+gizakia, +egilea⁹] azpikategoriaziozko izenek antzeko predikatuak osa baititzakete: *apaiz egon, misiolari ibili*¹⁰, ...

Gauzak honela, hona gure ustea:

Zain ('zaintzen duena') izenki predikatua (eta *zaindu* aditzaren oinarria dena) egun ia erabat beste izen bati lotuta darabilgu, elkarrekin zilegi denean behintzat.

Izen beretik abiatuta bi predikatu konplexu mota sortu ditugu: batek osagaietatik eskuraturiko esanahia du (*significado composicional*) eta hiztunak berariaz ikasi beharrik ez du ('gorde', 'kontu', 'gordetzen / kontzen egon'); bestearren, berriz, ezin da osagaietatik ondorioztatatu, hiztunak predikatu osoa ikasi behar du: 'itxoin', 'itxaron', 'esperoan egon',¹¹...

⁹ 'actor' eta 'agente' bereizi gabe darabilgu.

¹⁰ Xehetasunetarako, Zabala (1993).

¹¹ Erromantzetako *guardar* eta *aguardar* aditzak etorki berekoak izatea gure hipotesiaren beste euskarri bat izan daiteke?

2.2. Zain elkarreetan

2.2.1. Mota morfologikoak eta osagaien ezaugarriak

[I I]: artzain, hartzain, erizain, atezain, euskaltzain, bizkartzain, arimazain...

Ezkerreko osagaia izena da: biziduna, nahiz bizigabea. Ia guztiak konkretuak dira (*arima...* edo *kenduta*). Hitz elkartua beti [+I, +gizakia, +egilea] da. 'egile' adieraren ispilu garbia da hitz eratu asko lanbide edo ogibide izenak izatea.

2.2.2. Argumentu-egitura¹²

Zain-ek argumentu-egitura du¹³: bi argumentukoa da. Kanpoko argumentua sintaxian asetzen du eta bere barneko argumentu osagarria ase daiteke:

- egun ia beti lexikoan, bere ezkerreko izenak: *erizaina...*
- baina baita sintaxian ere, IS(GEN) batek ase dezake: *erien zaina...*

2.2.3. Osagaien arteko egitura-harremanak

Zain buruak bere kategoria eta azpikategorizazioa iragazten dizkio hitz elkartuari eta honela honek kanpoko argumentua beretzen du. Elkarteko ezkerreko osagaia, berriz, bere argumentu osagarria da: "osagarri-buru" egitura-harremana dugu.

2.2.4. Emankortasuna

[I *zain*] mota oso emankorra da. Lanbideak izendatzeko hainbat izen sortu ditugu bide honetatik: *bizkartzain, telefonozain, kutxazain, gauzain*¹⁴, ...

3. ZALE

- (1) a ez naiz ni gerraren zale, baizik bakearen alde [Xenp.]
- b neska mutilzaleak oinak arin ditu
- c azkenean ez ziren arrimatuzale [Xenp.]
- d Honenbestez esana dago, noski, ez naizela aurrerazaleegia, baizik eta atzerazale (...), geldizale edo astiro ibilzale horietakoa (KM MIH - 340)
- e Ez da, bada, harritzeko gure artean ere zinemak, begi-festa merkeen horrek, gero eta zale gehiago izatea (KM MEIG I - 123)
- f Zuk egiten dezun guzia ikusten du, zure itzak aditzen ditu, zure zale eta deseoak ezagutzen ditu, zure gogorazio eta pensamentu guziak barrunt *zen* ditu (Arr May - 83)
- g esnezalea bezala, atez ate [SEH]

12 Selkirk (1982), Lieber (1983), Grimshaw (1990), Gracia eta beste (2000) lanen bidetik, besteak beste.

13 Arrazoi berak balio al du Euskaltzaindiak (H-E/3,38) garbitu gabe uzten dituen *oilo-lapur, etxe-jabe* bezalako egile-elkarte sintetiko soilen mugakizunen jokamolderako?. Onartuko bagenu egile-izen hauek guztiak argumentu-egitura dutela eta bere ezkerreko osagaia bere argumentu osagarria dela ez genuke Euskaltzaindiaren hipotesietara —atzeranzko eratorbidera edo zero atzizkira— jo beharko. Hartara, elkarte hauek guztiak egile-elkarte sintetiko soilizat hartu beharko lirateke. 7. oin-oharrean genioena kontuan hartuta, berriz, egile-elkarte errokaririk ez legoke.

14 Errepara hitz hau besteak ez bezalakoa dela: gauzaina ez da 'gaua zaintzen duena', 'gauaz zaintze lanak egiten dituen' baizik, mendekotasunezko izen elkartu arrunta, alegia ('garai' erlazio logikoa adierazten duena). Honek indartuko luke zain-en izaera beresukoa.

Adibideok erakusten dute auzi bat baino gehiago garbitu beharrak direla.

Atzizkia edo hiztegi-sarrera da? Bai baititugu (1a) eta (1b). Baina, hizkia izan, hiztegi-sarrera izan, harrigarria da eraikuntza lexikoetan batera ohikoa ez den kate sintagmatiko bati lotuta agertzea (1c,d). Hau ere *zale* bera ote? Eta (1e), (1f), (1g) bezalakoak, arestikoekin batean sailkatzekoak al dira? Denak mota berekoak al dira?

Galdera hauei erantzuten saiatuko gara.

Nolanahi dela ere, gogoan izan dezagun Euskaltzaindiak *zale* eskuineko osagaia duten hitz eratuak izenondo elkartutzat hartu dituela, beti sail berean kokatu ez baditu ere¹⁵.

3.1. *Zale izenondo beregaina*

Zale bada hiztegi-sarrera. Esate baterako, izenondo kalifikatzaileek (Zabala (1997)) onartzen duten konparatzea onar dezake.

- (2) a Lau aldiz baretu zan, e[t]a lauetan berriz ekin zion farrari, lenengoan bezain zale ta bero (Berron Kijote - 226).
b Eta halatan da gure Iainkoa ere hetarik gutiziosago, desoriosago, eta zaleago (Ax- 115).

Ez edozein moduz, ordea: "zer/nor bezain zalea den, zeren bestea baino zaleago den..." jakiteko bidea eman behar digu testuinguruak.

Horregatik maizago darabilgu "zeren zalea" den zehazten duen IS(GEN) ezkerretan duen eraikuntza (3a), edo, batez ere, hitz-elkartea¹⁶ (3b). Eta horrexegatik (4a) eta (4b) aukeren artean hitzunak aiseago adituko du egitura lexikoa duela (4a) eta ez sintagmatikoa (4b):

- (3) a Euskaldun zaharrak errosarioaren oso zaleak ziren (SEH)
b Gure aiton-amonak oso arrosariozaleak ziren
(4) a (X) neskazalea da
b ?neska /zalea da

Hortaz, badugu zale bere sintagmak islatzeko gai den **izenondo hiztegi-sarrera**, izaki mailako predikatua ('isuria, jaidura, norbaiten/zerbaiten aldekoa, jarraitzailea'), baina izenondo honek ez du erabilera erabat askea: "zeren zalea den" zehazten duen argumentu osagarri baten beharra du. Osagarri hori lexikoan (batez ere) eta syntaxian ase daiteke.

3.2. *Zale eskuineko osagaia*

3.2.1. *Kate sintagmatikoetan*¹⁷

1.IS + *zale*: alkandora ederzale, teoria handi eta solemnezale...

15 Sailkapen zaharrena ("elkartu sintetikoa" (H-E/1,44)) zergatik ez duten aintzat hartuko eta "izaera-elkartetzat" zergatik jo behar den arrazoitu eta horren arabera aztertu ondoren (H-E/3,30,121), azken lanean (H-E/4,70) "asmo-elkartetzat" hartzen dira era honetan osatuak.

16 Uste dugu gaurko hitzunak elkartua lehenetsiko lukeela. Baina adibide horiek eraikuntza sintaktikoetara eramango bagenitu, behar bada, lehenago joko genuke IS(GEN)etara ISetara baino, alegia: "oso jaki on eta edari onen zale", "oso jaki on eta edari on zale" baino. Baliteke hizkuntzaren prozesamenduarekin lotura izatea: zenbat eta sintagmak edo perpausak osagai gehiago (eta urrunago) izan, orduan eta osagaiak nolabait lotzeko premia handiagoa (Oroi Axularren "on da" / "gauza ona da"). (Ortiz de Urbina (1998), Axularren *ezen*-en erabileraz, ikuspegi honetatik).

17 Gure sailkapena ez dator puntuz puntu bat Euskaltzaindiarekin (H-E/1,127-129).

Zale-ren ezkerreko osagaia, bere argumentu osagarria, kate sintagmatikoa da: determinatzailerik gabeko IS.

Kate hauek interesgarriak dira lexikoaren eta sintaxiaren arteko mugez auziari dihoazkiolako bete-betean: alde batetik *zale*-k ezkerretara eraikuntza sintagmatikoa du —elkarketatik urruntzen duena— baina, era berean, IS horiek ez daramate determinatzailerik, eta hori sintaxian, oro har, ezinezkoa da¹⁸.

- 1.2. IS(GEN.) + *zale*: euren *zale*¹⁹, gerraren *zale*, arrosarioaren *zale*, gauza zaharren *zale*, zorritsuen *zale*, erreka soinuen *zale*...

Ohikoena da.

- 1.3. Oso emankorra ez bada ere, ez da ezinezkoa *zale*-k beste postposizio-sintagma batzuk osagarri izatea: PS(ADLAT.): apustu mota askotara *zaleak* dira gipuzkoarrak²⁰, PS(INS.): presuna handituak ere hetaz *zale* dira. Gutxiagotan PS(SOZ.): besteen gauzeekin *zaleak* dira²¹...

- 2.1. Perpausa + *zale*

Perpaus osoa ere izan daiteke *zale*-ren osagarria.

Partizipio biluzia aukeratzen du batez ere²²: azkenean ez ziren arrimatuzale; ondo bizizale...; arrautza jarrizale, izen handi bat irabazi *zale*, esaldiari hitz alferrak inausi-*zale*...

Ez beti, ordea: -T(Z)EN: sudurrez mintzatzen *zale*, inoren ahultasunak agertzen *zale*...; -T(Z)EKO: joateko *zale*; inori erakusteko *zale*...; -T(Z)EAREN: burua makurtzearen *zale*, ezkontza haustearen *zale*... Baina beti ere perpaus jokatugabea, aditz-izena duena du mendean.

Zale (izan) predikatuaren eta mendeko perpausaren subjektuak erreferentziakideak dira. Lehenak bigarrena semantikoki kontrolatzen du²³.

Hortaz, *zale*-k era askotako kate sintagmatikoak onartzen ditu osagarri moduan, baina IS denean IS(GEN), eta perpausa denean partizipio biluzia izatea da ohikoena.

3.2.2. Elkarreetan

3.2.2.1. Mota morfologikoak eta osagaien ezaugarriak

[I Izond]^{Izond}: ardozale, musikazale, arimazale, edertasunzale, abertzale, mutilzale...; Lizardizale, Maozale, Tolstoizale...;

herri-festazale, h-*zale*, jeltzale...

[Izond Izond]^{Izond}: ederzale, garbizale, fanfarroizale...

1.[I + *zale*]^{Izond}.

18 Postposizioen osagarriak bai, mugatzailerik gabeko ISak izan daitezke. Bestalde, horixe bera gertatzen da usain edo pilo mugakizun "bereziak" dituzten "menpekotasunezko izen elkartuetan" (H-E/4,78), esate baterako: jantzi busti usain, ezkongai gazte pilo... Behar bada denentzako argibide bakarra ez badago ere, errepara diezaiogun honi: muga-kizun hauek ere osagarri baten premia dute (zeren usaina, zerren piloa) erreferentzia bereganatzeko.

19 Izenordainek genitibo-atzizkia eraman behar dute: *Ni *zale* / Nire *zale*... Alegia, ISØ / IS(GEN) aukeran duten leku-denborazko postposizioek duten murrizpen bera dute: etxe(aren) aurrean, baina *Ni aurrean / Nire aurrean...

20 Hau da, beste batzuekin batean, zaletu aditz eratorriak izaten duena (IS(GEN) baino areago): "lurreko gauzetara zaletu", "baña Indianoagana etziñan zaletu"...

21 Sozietate / instrumental aukera euskalki kontua izan daiteke.

22 Bada adibideren bat edo beste aditzoina duena, baina arraz gutxi dira.

23 Erka: "ezkontza haustearen *zale*" (kontrolatua) / "ezkontza hautsiaren *zale*" (ez kontrolatua).

Joriena da. Era guztietako izenak onartzen ditu: bizidunak nahiz bizigabeak, konkretuak (gehienak) eta abstraktuak. Morfologiaren ikuspegitik ere denetik dugu: soilak, eratorriak, hainbat motatako elkartuak.

Izen juntatuak ere izan daitezke mugatzaileak: [ale edo garau]zale, [kontzeptu eta arrazoi]zale...

Izen bereziak ere bai, mendekotasunezko elkarteetan bitxia dena: *Mao, Tolstoi, Lizardi*... Ez dira asko eta XIX. mendetik hona sortuak dira ia denak.

Metahizkuntzako elementuak: *h...*; laburdura edo akronimoak: *jel...*

2. Izenondoa + *zale*:

Ia adibide guztiak XX. mendekoak dira.

Izenondotzat hartuagatik oso litekeena da gehienetan hiztunak *zale* izen bati lotu diola uste izatea: izena isilpean gordetzea litzateke tarteko.

Eraikuntza hauek guztiak [I Izond] motako **mendekotasunezko izenondo elkartuak** dira.

3.2.2.2. *Argumentu-egitura*

Zale buruak bi argumentuko argumentu-egitura du. Kanpoko argumentua sintaxian asetzen da eta barneko argumentu osagarria ase dezake bai lexikoan bai sintaxian:

- lexikoan: bere ezkerreko izenak asetzen du eta mendekotasunezko izenondo elkartuak eratzen ditu.
- sintaxian: ISTik hasi eta mendeko perpaus ezjokatuetaraino (EGLU-V).

3.2.2.3. *Osagaien arteko harremanak*

Zale buruak bere kategoria eta azpikategorizazioa iragazten dizkio hitz elkartuari eta honela honek kanpoko argumentua beretzen du. Elkarteko ezkerreko osagaia, berriz, bere argumentu osagarria da: "osagarri-buru" egitura-harremana dugu.

3.2.2.4. *Emankortasuna*

Hitz elkartu asko sortu dira, terminologiak barne: *abenturazale, heroinazale, elektroizale, europazale, nukleozale, itzalzale, berozale*...

Hiztunak gisa honetako elkartuak bazterrik gabe era ditzake; horregatik euskal hiztegiek ez dituzte era honetako hitz eratu asko jasotzen.

Elkarteetatik kanpo ere askotan baliatzen dugu, batez ere IS(GEN) osagarria duela.

3.3. *Zale izena*

Euskal hiztegi batzuek *zale* (izond.) hiztegi-sarreran izen kategoriako erabilera (5b) eta izen kategoriako beste azpisarrera bat ere (5a) ('isuria', 'nahia'...) jasotzen dituzte.

- (5) a Zuk egiten dezun guzia ikusten du, zure itzak aditzen ditu, zure zale eta des
eoak ezagutzen ditu, zure gogorazio eta pentsamentu guziak barruntzen ditu
(Arr May - 83).
- b Osasuna futbol taldearen azken emaitzak haserrea sortu duten zaleengan
(SEH).

Ez dira asko. Daudenak bitan bana daitezke dituzten ezaugarrien arabera:

- izen [-biziduna] 'nahia... ' (5a). Ez da hagitz emankorra. Gaurko hiztunak aise-
ago jotzen du beste kide batzuetara. Ez du hitz eraturik osatzen; hortaz, ez du
"muga-arazorik" sortzen.
- izen [+gizakia] 'isuria duena...' (5b).

Azkena, izena bada ere, pentsa daiteke "buru hutsa" duen IS dugula. Gertakari
hau aski arrunta da gizakiei dagozkien nolakotasunak adierazten dituzten izenondoak
dituzten IISSetan. Gainera, jakina da izenaren eta izenondoaren arteko mugak euska-
raz ez direla beti gardenak izaten (FHV,512).

Argumentu-ikuspegiaren arabera hitz eginez, esango genuke hor zale-ren argu-
mentua estari dagoela, baina testuingurutik nekerik gabe berreskura daitekeela.
Bestalde, pentsa ere daiteke, Bosqueren bidetik (1990,113), hemen zale (izond.) izaki
baten ezaugarriaren berri ematetik saila edo taldea adieraztera pasa dela²⁴.

Ez dugu, hortaz, eragozpen larririk ikusten hau ere zale izenondoarekin batean
sailkatzeko. Horren erakusgarria da, esate baterako, (6a) eta (6b) adibideen arrotza eta
onargarritasuna, hurrenez hurren:

- (6) a ?zale zaharrak etxean geratu dira eta gazteak kalean
b ni zu baino zalegoa naiz

Alegia, izenek ez bezala, izenondoa nekez²⁵, baina, izenondoek bezala, maila-
katzea onar dezake testuinguru jakinetan (6b).

3.4. -zale erator-hizkia

Azkenik dugu Azkuek (1923,§97,80), Villasantek (1974,140), Euskaltzaindiak
(H-E/3,129) eta bestek bestelakotzat duten -zale. Lehengo (1g) adibidearen moduko-
ak, alegia *egurzale*, *esnezale*... Ez dirudi txoil emankorra.

Ezkerreko osagaia, oinarria [-biziduna, +konkretua] ezaugarriko izena da. Hitz
eratorria, berriz, [+I, +gizakia, +egilea] da.

Esanahi- eta kategoria-aldaketen irizpideak baliagarriak dira -zale hau eratorbi-
dean sailkatu eta *zale* izenondotik bereizteko:

- 1) *zale* hiztegi-sarrerak ez bezala izen eratorgaiari, oinarriari, hark ez duen
'egile' adiera dakarkio. -(I)ari, -ketari... atzizkien jokamolde eta banaketa
bera du.
- 2) Hitz eratorria ez da izenondoa, izena baizik.

Labur beharrez, aipatu besterik ez dugu egingo -zale eta -tzaile atzizkien arteko
harreman argitu beharrekoak (atzizki beraren bi aldaera? –baina oinarrien kategoriak

²⁴ Baina izen bihur daitezkeen adjektiboak bihur ez daitezkeenetatik bereizteko baliatzen dituen frogak ("test de la «sustantiva-
ción valorativa»") ez bide dirudi euskararako balio dutenik (gazt. 'es aficionado' / 'es un aficionado'), eusk.: *zale bat da.

²⁵ Gehienez ere amorratu, porrokatu... bezalako adberbio-izenondo indartzaileak (?) ("adjetivos adverbiales intensionales"
(Demonte 1999, 139-141 eta 204-212)) "zale amorratuak bere taldeak irabazteko irrikan daude". Egin dezagun kontu, halaz ere,
izenondo hauek ezin direla edozein izenen modifikatzaile izan: "erretzaile amorratua" / "*"sendagile amorratua".

desberdinak dira--; bi atzizki?). Edozein moduz, garbi dagoena da *-zale* hau ez dela *zale* izenondoa.

4. ONDORIOAK

Erakutsi uste dugu bai *zain* eta bai *zale* predikatuak hiztegi-sarrerak direla eta ez atzizkiak. Maiztasunaren argibidea argumentu-egitura izatean datza. Argumentu-egitura hori lexikoan, hitz elkartuak sortuz, nahiz sintaxian asetzen dute. Hau dela eta, "osagarri-buru" egitura-harremanaz hitz egin dugu. Honek mendekotasunezko hitz elkartu arruntan "modifikatzaile-buru" egitura-harremanetik urrundu, baina aldi berean "mugakizun bereziko izen elkartu"etara hurbiltzen ditu: guztiek dute argumentu osagarria eta guztiek dute lexikoan asetzeko aukera. Erantzuna dago, hortaz, LEF batzordearen galdera.

Uste dugu hasierako irizpideetatik esanahi- eta kategoria-aldaketa baliagarriak direla, baina beste irizpide batzuek osatuta: hemen dator Morfologia Sortzailearen ekarria.

BIBLIOGRAFÍA

- AZKARATE, M. (1990). *Hitz elkartuak euskaraz*. Donostia: Deustuko Unibertsitatea.
 _____ (1991). *Irakaskuntza proiektua*. (argitaragabea).
- AZKUE, R.M. (1923-25). *Morfología Vasca* (1969, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca).
- BALLY, CH. (1932). *Linguistique Générale et Linguistique Française* (1965, Berne: Éditions Francke).
- BOSQUE, I. (1990). *Las categorías gramaticales*. Madrid: Síntesis.
- CAMPION, A. (1884). *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*. Tolosa: Lope.
- DEMONTE, V. (1999). "El adjetivo: clases y usos. La posición del adjetivo en el sintagma nominal", *Gramática descriptiva de la lengua española*. Madrid: Espasa, 129-215.
- DIMITRESCU, F. (1969). "Notes sur les suffixoïdes dans le Roumain littéraire actuel", *Revue Romaine de Linguistique* 1, 3-6.
- ELHUYAR (1996). *Euskara-Gaztelania, Castellano-Vasco Hiztegia*. Usurbil: Elhuyar. [ELH]
- EUSKALTERM: www.euskadi.net/euskara.
- EUSKALTZAINDIA (1987). *Hitz-elkarketa/1*. Bilbo: Euskaltzaindia. [H-E/1]
 _____ (1991). *Hitz-elkarketa/3*. Bilbo: Euskaltzaindia. [H-E/3]
 _____ (1992). *Hitz-elkarketa/4*. Bilbo: Euskaltzaindia. [H-E/4]
 _____ (1999). *Euskal Gramatika Lehen urratsak-V (Mendeko perpausak)*. Bilbo: Euskaltzaindia. [EGLU-V]
- GIURESCU, A. (1970). "Observazioni sulla categoria dei Composti Romanzi", *Revue Romaine de Linguistique* XV-3, 261-266.

- GRÁCIA, LL.; M. T. CABRÉ, S. VARELA, M. AZKARATE ET AL. (2000). *Configuración morfológica y estructura argumental: léxico y diccionario. Resultados del proyecto de investigación DGICYT, PB93-0 546-C04*. Bilbo: EHU.
- GRIMSHAW, J. (1990). *Argument Structure*. Cambridge MA: The MIT Press.
- GUILBERT, A. (1971). "De la formation des unités lexicales", *Introduction au Grand Larousse de la langue française*, T.I., IX-LXXXI. Paris: Larousse.
- HENZEN, W. (1947). *Deutsche Wortbildung*. Halle/Saale (1965, Tübingen).
- LAFITTE, P. (1944). *Grammaire basque. (Navarro-Labourdin littéraire)*. 1979, Donostia: Elkar.
- LIEBER, R. (1983). "Argument Linking and Compounds in English", *LI* 1, 251-285.
- LIFETREE-MAJUMDAR, M. (1974). "Contribution à l'analyse des modes de composition nominale en français écrit contemporain", *Cahiers de Lexicologie XXV-1*, 63-84.
- LOPEZ-MENDIZABAL, I. (1943). *La lengua vasca* (1977, Donostia: Auñamendi).
- MARCHAND, H. (1960). *The Categories and Types of Present-day English Word-formation*. Wiesbaden.
- MICHELENA, L. (1961). *Fonética Histórica Vasca*. Donostia: Diputación Provincial de Guipúzcoa [1977², 1985³, 1990³ 2. inpr.]. [FHV]
- MICHELENA, L. & I. SARASOLA (1987-): *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia. [OEH]
- ORTIZ DE URBINA, J. (1998). "Axularren ezen konpletiboa eta hizkuntza prozesamendua", *Studia Philologica in Honorem Alfonso Irigoien*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 151-162.
- PEREZ GAZTELU, E. (2001). "Fronteras entre la sufijación y la composición: algunos casos del vasco (*alde, aldi, bide, kide, zain, zale*)" (eskuizkr.), *Estructuras morfológicas y estructuras sintácticas: las fronteras de la composición. Descripción, teoría y diccionarios*. DGES PB96-0457-C03 proiektua. (argitarabidean).
- ROHRER, CH. (1967). *Die Wortzusammensetzung im modernen Französisch*. Tübingen.
- SARASOLA, I. (1996). *Euskal Hiztegia*. Donostia: Kutxa.[SEH]
- SELKIRK, E. (1982). *The Syntax of Words*, [Linguistic Inquiry Monographs 7], London.
- UHLENBECK, C. (1909). "Suffixes du Basque servant à la connaissance de la formation des mots en Basque", *RIEV III*:1, 401-430.
- VILLASANTE, L. (1974). *Palabras vascas compuestas y derivadas*. Oñate: Editorial Franciscana Aranzazu.
- ZABALA, I. (1993). *Predikazioaren teoriak Gramatika Sortzailean (Euskararen kasua)*. Dokt. Tesia. UPV/EHU.
- _____ (1997). "Argumentu-harremana / eremu-harremana: izenondo erreferenzialen euskal ordainen bila", *Nazioarteko Terminologia Biltzarra*. Donostia: UZEI-IVAP, 535-565.

Nafarroako hizkeren lexikora hurbilketa

Rosa Miren Pagola

Hitzak dira errazen darabiltzagun elementuak edozein hizkuntz azterketarako, berez mugatuak eta zehatzak direlako, edo horrela diruditelako, eta, bestalde, oso aprobetxagarriak ere bai. Baina, bide batez, arriskutsuak ere badira, hitzen erabilera-ri mugarik ezartzerik ez dagoelako ez formaren ez esanahiaren aldetik eta edonork erabil ditzazke askatasunez, ezpaitute hizkuntzaren egiturarik hausten ez iraultzen.

Lexikoak beti kezkatu izan nau dialektologia lanetan, eta ez da harritzekoa, hizkuntzaren azterketan ere eta, batez ere, haren egituraketan lexikoa izan baita beti alderdirik menperagaitzena. Esan bezala, fenomeno fonetikoek eta gramatikalek berez dute balio orokorgarria sistemaren baitan, eta era bereko unitateei aplikagarriak izan ohi dira bakoitza berari dagokion mailan. Hitzek, berriz, ez dute horrelako balio orokorgarriak, hitz bakoitza bera baita eta, bere familiakoezin izan ezik, lotura gutxi dute beste hitzekin. Nork uka lezake, hala eta guztiz ere, hizkera batean lexikoa hagitz adierazgarria gertatzen dela?

Bestalde, zein metodologia aplika daiteke dialektoen lexikoa aztertu nahi denean? Askotan, hitz zerrendak arlo semantikoko edo beste edozein irizpideren arabera egiten dira, baina lana bilketa horretan gelditzen da beste azterketarik egin gabe, askotan etnografiarekin bat egiten delarik. Beste batzutan, berriz, ez da lexikoa bera aztertzen, hitzen aldaki fonetikotan oinarrituz analisi fonikoko egiten da, eta hori ez da lexikoa aztertzea, fonetika aztertzea baizik.

Horiez gain, subjektibotasuna erabat saihesterik ez dago lexikoa aztertzean, baina ahal den neurrian zailtasun hori gainditzen edo mugatzen ahalegindu behar da. Dialektologian bereizketa edo dibertsitatea da azken xedea, hizkeren mugak edo isoglosak ezarri ahal izateko. Baina horretara iristeko hitzen azterketa semantikoa egin behar da. Hitzak desberdinak izan daitezke erreferente edo esanahi bera adierazteko; edo hitz berdinak, beti ere formaren aldetik, erreferente edo esanahi desberdinetarako. Bereizketa hauetan oinarritu behar da, nire ustez, maila lexikoaren azterketa dialektologikoa.

Horrenbestez, txosten honek lexikoaren azterketara hurbilketa xume bat izan nahi luke ondorio dialektalak, edo geolektalak, ahal den heinean, ateratzeko asmoz, edo hizkeren bereizketa lanean hitzak lagungarri gerta daitezkeen ikusi ahal izateko.

Hurbilketa hori gauzatzeko Nafarroa hartu da oinarri bezala, lurraldeari dago-kionez batasun bat duelako eta hizkeraz, berriz, anitza delako¹. Horrek aukera gehiago eskain zitzazkeen lurralde bereko hizkeren arteko lexikoaren bateratasunak eta berezitasunak erakusteko eta, bide batez, beste lurraldeetako hizkerekin erkatuz, baita

nortasun propioa azpimarratzeko ere. Edonola ere, Bonapartek ezarri zuen euskalkien banaketa hartu dugu ardatz bezala², oraindik, neurri on batean, jarraigarria dena, eta lan honetarako bereziki aprobetxagarria, berak bilduriko testuek banaketa horri erantzuten diotelako³. Baditugu, honela, zenbait testu hizkera bakoitzerako Bonaparten eskuizkribuetan eta, beharrezko den bezala, garai berekoak dira⁴. Esan beharra dago, hizkera guziak ez daudela berdin ordezkatuak, hizkera batzutako testurik biltzen ez delako. Horrela Ip(GN)ko Arakil, Araiz, Gipuzkoako azpieuskalkiak murriztuz gelditzen dira; era berean, Hg(GN)ko Iltzarbe eta Mendebaldekoak; eta, neurri on batean, (Aezk) ere, testu guziak dotrinaren itzulpenak baitira. Edonola ere, Ondarean oinarritzeak baditu alderdi onak ere, bertan Bruno Echeniqueren, Joaquín Lizarragaren, Pedro Jose Samperen eta Pedro Prudencio Hualde Mayoren itzulpen bikainak baitaude. Beraz, gure azterketa hau, lexikoaren azterketarako egiten den lagin bat baizik ez da, eta esan den bezala, diakronian kokatua XIX mendean, oro har, idatzitako testuetan oinarritzen baita.

IRUZKINA

Hemen hitz banaka batzuk jasoko dira aipaturiko testu horietarik, erabilera arunt edo orokorreko hitzak ahal den neurrian, horrelakoak direlako esanguratsua-
goak, ezen ez hitz oso berezi eta bakanak.

Altxatu

Hitz honek jatorri erromanikoa du eta euskaraz, guztiz normala izatez gain, jatorrizko esanahia gordetzen du oro har, latinezko ALTUS eta *ALTIAREtik baitator. Erromantzezko ahoskeratik hurbilago gelditu den “altzatu”, “altzau” eta bizkar-hobietakoa sabaikatuz eman duen *altxatu* hitzak euskalki guzietan erabili izan dira eta erabiltzen dira ‘goratu’ eta honen inguruko esanahiekin.

Nafarroan eta Iparraldean, aldiz, hitz honen esanahiak garapen bat izan du, ‘gorde’, ‘ezkutatu’, ‘ostendu’ adieraztera igaro baita. Garapena dela uste izan daiteke nahiz jatorrizko esanahia kontutan hartuz, nahiz berezko logikaz ‘gordetze’ak ‘jaso-tze’aren ondorengo ekintza dirudielako. Erromantzeetan ere ezaguna da hitza esanahi honekin. Iribarrenek *alchar* eta *alzar*. Nafarroako gatzelerazko hitz berezi bezala

1 Hain aberatsa ikusi zuen Bonaparte Printzeak euskara-aldakietan Nafarroa non esatera iritsi zen: “L’étude sur les lieux mêmes de la Navarre espagnole vient de nous prouver d’une manière évidente que cette province [...] n’a pas de dialecte qui lui soit propre, mais qu’elle se divise entre les autres, le biscain excepté” (1866, 33-34). Eta izan ere horrela eraman zuen praktikara, 3. sailkapenean Nafarroari ez baitzion bertako dialektorik eman eta goi-nafarrera ez zuen aipatu ere egin, horrela, bizkaiera izan ezik, beste guziak sartu zituen Nafarroako lurraldean. Ikus, Pagola (1991, 141-149).

2 Laugarren sailkapenaz ari gara, noski. Sailkapen honetan bi euskalki propio eman zizkion Iparraldeko goi-nafarrera –aurrerantzean Ip (GN) bezala aipatua izango dena- eta Hegoaldeko goi-nafarrera –Hg (GN) bezala aipatua izango dena-; horiez gain, beste hiru azpieuskalki berezi zituen euskalki desberdinetan kokatu zituenak, Azkera Mendebaldeko behe-nafarreran kokatua –guk (Aezk) bezala aipatuko duguna-, Zaraitzera Ekialdeko behe-nafarreran sartua – (Zar) deitua izango dena-, eta, azkenik, Errokariera Zubereran sartua –hemen (Er) bezala aipatuko dena. Sailkapen honi buruz zehaztasun gehiago nahi izanez gero ikus Pagola (1991, 149-156).

3 Hala ere, esan daiteke (Aezk), (Zar) eta (Er)ko hizkeren nortasun propioa ematen diogula, Iparraldeko euskalkietatik bereziz.

4 Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak izenburuko bildumatik aztertu eta jaso dira adibideak. Bilduma honek Iparraldeko goi-nafarrera, Hegoaldeko goi-nafarrera, Aezkera, Zaraitzera, Errokariera azpi-izenburuz hizkera horietan idatzirik dauden testuak biltzen ditu, 10 liburuki denetara. Bilduma honi buruz egiten diren aipamenak BOE siglen bitartez egintza dira.

jasotzen ditu ‘guardar’, ‘esconder’ adierazten dutelarik, 1563 urteko aipamen bat ere ekarriz⁵, ‘levantar’ esanahiarekin ere oraingo esaldi bat sartzen duen arren⁶. Corominasek ere jasotzen du *alzar* hitza ‘llevarse (algo)’, ‘recogerlo’, ‘guardarlo en su lugar’ esanahiarekin⁷. Berrero euskarara etorritz, Orotariko Euskal Hiztegiak, Nafarroari dagokionez, (GN) Baztango hizkera, (Zar) eta (Er) aipatzen ditu esanahi honetarako eta Iparraldea ere sartzen du: “Sólo se encuentra en textos septentrionales y navarros”⁸. Azkue-k (GN)ko baztandarra, (BN)ko (Zar) eta (Er) dakartza esanahi honetarako⁹.

BOEn esanahi horrekin aurkitzen da hainbat esalditan¹⁰. Hona hemen adibide batzuk:

Hg (GN): “Dá baitare iduria ceruen erreinua tesoro estaliric dágón batí alorrean, zoin aurquitzen balimadú guizon batéc, alchatzendú berris, eta bozcarios álaco arquideas, doaye, eta salcendú duen gucia eta erostendú alor úra”¹¹.

(Er): “Semejatruc da ere ceurien reinua, alurrian alchatruc dagon tesoro bati, zoin erdeitenbadu guizon batec, estaltandu berriz...”¹².

(Zar): “Zu baitare iduri Ceruetaco erreinua caudale alchatu bati alorrean...”¹³.

(Aezk)z eta Ip(GN)z BOEn ez da adibiderik aurkitu, baina azken euskalki honetako Baztan, Ultzama eta Bortzirietako azpi-euskalkietan erabilia da. Esaterako, Mariano Izeta-k, *altxatu* eta zenbait eratorri, ‘gorde’ren esanahiz, jasotzen ditu: *Altxatu lur azpien*¹⁴.

Edonola ere, testuetan ez da ikusten ‘jaso’ esanahiarekin ere erabilia den edo ez hitz hau ‘gorde’ esanahia duen Nafarroako hizkeretan. Ezagutu, ezagutuko da, baina beste zenbait hitz –*goititu*, *goratu*, *igan*, *igo*, *jeiki*– badirenez eta erabili ere ohi direnez, esanahi hori erdi ahanzia dagoela pentsa daiteke. Eta, alderantziz, ‘jaso’, ‘jeiki’, esanahiarekin erabiltzen den hizkeretan ez du ‘gorde’rena hartzen. Bi esanahi horien artean bada, nonbait, nahasmenak sortzeko arriskurik-edo komunikazioan, eta horregatik izanen da bereizketa zehatza egiteko joera. Elkarren arteko hurbiltasunak berak aunitz eragozten du testu idatzietan esanahia ongi bereizteko, testuinguruak ezpaitu beti aski laguntzen. Dena den, adibideak asko diren arren, *gorde* hitzarekin duen txandaketa ugaria da eta ez da ikusten inolako araurik jarraitzen denik bata ala bestea erabiltzean esanahi horrekin. *Gorde* hitzak badu beste esanahirik, ‘zaindu’, ‘bete’, esaterako, eta hauekin ez da *altxatu* hitza nahasten. Horiek kontutan izanik, azken hau,

5 “Está alcháu: está escondido [Larráinzar, Huarte, Valle de Odieta]”, “Alza ese juguete para que no lo rompa el chico. Es voz típica de Navarra y de uso general. En las Ordenanzas de los corredores (comisionistas) de Pamplona de 1563 se dispone que la cosas y ropas que se recibieren para vender deben guardarlas en “cofes y arcas donde los metan y alzen de noche”, Iribarren (1997, 17 eta 23).

6 “Alchale al chico que está llorando [Regata]” (1997, 17).

7 Murcia, Almería, Argentinan erabilia dela dio eta gazteleraizko literaturan dokumentatuta: “Mandóme alzar la caja y que la llevase” Guzmán de Alfarache, Clásicos Castellanos edizioa II, 286,6. DCECH (1980).

8 Orotarioko Euskal Hiztegia – Diccionario General Vasco (1987, 833). Aurrezantzean OEH bezala aipatuko da hiztegi hau aleari dagokion zenbakia erantsiz.

9 (1969, 34). Euskalkien aipamena Azkuek berak eginiko sailkapenaren arabera.

10 Iparraldeko euskalkietako BOEko testuetan ez da ‘gorde’ esanahiarekin aurkitu.

11 BOE: Hegoaldeko goi-nafarrera - 4, “San Mateoren Ebanjelioa”, (13, 44), (1996, 1304-1305).

12 BOE: Erronkarieta, “San Mateoren Ebanjelioa (Bidankotze)”, (13, 44), (1997, 55).

13 BOE: Zaraitzera, “San Mateoren Ebanjelioa (Eiaurrieta)”, (14,44), (1997, 45).

14 (1996, 39-40).

altxatu alegia, aski berezitzat har daiteke aipatu den erabilerarekin erabiltzen den Nafarroako hizkeretan.

Lotsa

Hauxe da beste hitz bat esanahia aldatzen duena tokien arabera. Mendebaldeko eta Ekialdeko behenafarreraz, zubereraz, lapurteraz, Hg (GN)z, (Zar)z, (Er) ‘beldurra’ adierazten du¹⁵; OEH-k¹⁶ Gipuzkoako bizkaiera ere sartzen du balio horrekin, baina horren adierazgarri biltzen duen esaldiak ez dirudi aski frogagarri: “Amalau urte dauzka eta eztauka etxeko lanak eitteko lotsaik”¹⁷, baina horren ulerketa ez da ‘beldurrari’ dagokiona ez esaldian bertan, ez bizkaieraren tradizioan, ez Deba-Arroan ere. Jarraian, hiztegi berak, Duvoisinengandik honako zita hau jasotzen du: “Le Guipuscoan emploie aussi *lotsa* dans le même sens que le labourdin: “Erromara joaten lotsa eta nekea”; baina honek ere, esanahiaren aldetik hurbilagokotzat har daitekeen arren, ez du hainbestera ematen, hitz horren adiera hagitz irekia baita testu labur horretan. Azkue-k behenafarrera, lapurtera, erronkaria eta zuberera baizik ez ditu sartzen¹⁸.

Nafarroako hizkeretan hagitz erabilia da, Ip (GN)z eta (Aezk)z izan ezik:

(Er): “Eta Herodesec onqui naicion ilaraci, baya ezen atrebitan iriaren lotsaz”¹⁹.

Hg (GN): “Eta icustean discipuloéc zabilalá ichasoain gañean turbatu ceré eta erranzuté: Fantasma bat da. Eta lotsatuic asiceré óyus”²⁰.

Sustantibo bezala ere berdin zaio Lizarragari eta ez du arazorik eratorriak eta konposatuak sortzeko: *lotsatu*, *lotsadura*, *lotsagarri*, *lotsamentura*, *lotsarritu*:

“aldibátes cegoláic sanda oráció eguiten fervorósa, icusizué visiónean inférnuá, ta án lecubát beréx ta choil diligént demónioac prevenicen sú lotsagarri batengáñean elcebát ándia, ta juntácen erruedac, gárfoiac, parrillac, tenázac ta bérce anitz instrumentu tormentáceco eguinac. Galdeguinzue lotsaturic sándac: Norendáco prestacendá lecugáu ain prisacá?”²¹.

(Zar)z ere aurkitzen da: “Etzitiela lotsa corren gatic; bada altzinetac aguitubear badiehere gauza cuec, etzu orañic azquentzea”²²; “Voza coní discipuluac erocintzan beren aurpeguen gañan lurrean, eta guelditucintzan lotsería andi batez bezitiric”²³.

Beste euskalkietan honelakoren bat esan nahi du gutxi gora behera: zerbait gaizki egin edo inoren aurrean irrigarri geldituaren ondorioz-edo... norberak bere buruarrekiko senti dezakeen egonezin eta erreparoa; eta aurreko euskalkietan *ahalke*, *ahalg*e hitzak adierazten duena, alegia²⁴. Horrez gain, batez ere bizkaieraz, ‘nagusi eta errespetuzko pertsonenganako begirunea’ adierazten du.

15 BOEko testuetan aipaturiko euskalki denetan dokumentatzen da.

16 OEH-XI, (1998, 696-697).

17 Elxepuru-ren Bergarako lexikotik jasoa, esaten denez.

18 (1969, 554).

19 BOE: Erronkaria, 1997, “San Mateoren Ebanjelioa (Bidankoze)” (14, 4), (1997, 57).

20 BOE: Hegoaldeko goi-nafarrera - 4, “San Mateoren Ebanjelioa” (14, 26), (1996, 1307).

21 BOE: Hegoaldeko goi-nafarrera-1, “Sermoiak”, (1996, 302).

22 BOE: Zaraitzera, “San Mateoren Ebanjelioa (Eiaurrieta)” (24, 6), (1997, 67).

23 BOE: Zaraitzera, “San Mateoren Ebanjelioa (Eiaurrieta)” (17, 6), (1997, 52).

24 Ikus jarraian datorren hitza.

Ez da erraza esanahi horien arteko desberdintasunak bereiztea, ez eta elkarren arteko loturak ere, eta zailagoa ezezik ezkinezkoa ere bereizketa horiek kito frogatzea. Pentsa daiteke, halere, ‘beldurraren’ eta ‘begirunearen’ artean behinik behin badela zerikusirik. Jainkoari behar zaizkion “begirunea” eta “beldurra” biak batera joan baitaitezke. Esaterako ondorengo testu honetan:

Er.: “Vordaltaco eta vordaltier gracia emoitaco, eta semealavaric ecutanvadei Juangeuico Geinaren lochan eta Ceuriaraco vidian azlizchein”²⁵.

Edonola ere, “beldur” hitza ez da ia inon galdu, agian, erronkarieraz, eta “lotsa” erabiltzen den hizkeratan hitz horren sinonimo bezala hartzen dela dirudi, bien artean txandaketa guztiz normala ageri baita:

Hg (GN): “Eta lotsatuic asiceré óyus. Ynstante berean Jesus mintzatu cequiote erranés: Arzacie ánimú, ni náiz, étzacielá beldur izan”²⁶.

(Zar): “Eta icustencielaric discipuluec zablela ichaso gañan, lotsatucintzan eta errancicien: Zu espantajo bat; eta beldurrez beteric asicintzan oyuz”²⁷.

(Er)z, berriz, *beldur* hitza ez da ageri corpusean. Aukera faltarik ez zuen egileak “San Mateoren Ebanjelioa”n esaterako, baina gehienbat, “lotsa” eta eratorriak darabiltza; inoiz edo behin, “icarería”²⁸ edo antzerakoren bat.

Eta, alderantziz, Ip (GN)z eta (Aezk) *beldur* da erabiltzen den hitza.

Ahalke

Lotsa hitzak berez gakartza *ahalke* hitzera, azken hau erabiltzen baita “lotsa” (‘beldur’) esanahiarekin erabiltzen den hizkeretan. Jatorria “ahal” eta “gabe” hitzen konposaketan du²⁹, baina hiztunak ez du horren kontzientziarik. Bi hitz hauek *-lotsa* (‘beldur’) eta *ahalke-* ez dute banaketa diatopiko berdina, beldur hitza hedatuagoa dagoelako *lotsa* baino gauza bera adierazteko. Esaterako, Ip(GN)n Ultzamako eta Baztango azpieuskalkietan *beldur* –ez ‘lotsa’- eta *alke* biak erabiltzen dira, eta hori egiaztatzen du Izeta-k ere bere hiztegian³⁰, non bizitasun haundiz ageri den egun ere “alke”, baina euskalki honetako beste azpieuskalkietan: Bortzirietakoan, Araizkoan, Uharte-Arakilgoan eta Gipuzkoakoan ez darabilte *a(hal)ke*, *lotsa* baizik.

Hg(GN): “alke”, “alketu”, “alkaizun”, “alkekor”, “alketi”, “alkaizungarri”, “alkegabetu”, “alkegorritu”, “alkearazi”.

“Confessaturic bát ichúras joánze, baña instánte alquearacizué burlátus goapoqui garbitu céla tintas”³¹.

Ip(GN): “alke”, “alketu”, “alkegarri”, “alkesun”, “alketasun”.

25 BOE: Errokariera, “Errokariko dotrina (Orokorra)”, (1997, 164).

26 BOE: Hegoaldeko goi-nafarrera - 4, “San Mateoren Ebanjelioa” (14, 26-27), (1996, 1307).

27 BOE: Zaraitzera, “San Mateoren Ebanjelioa (Eiaurrieta)” (14, 26), (1997, 47).

“eta baratu zren icarería andi batequin”, BOE: Errokariera, “San Mateoren Ebanjelioa (Bidankoze)” (17, 6), (1997, 64).

28 Mitxelenak (1997, 354) zioenez; bestalde, Etxeparek “ahalgeizan” eta Oihenartek eta Harrietek “ahalge” formak erabili zituztela eta, egun, Ekialdeko behe-nafarrerazko Garazin bizirik dirauela zioen. Aldiz, Leizarragak eta Axularrek “ahalke” zerabilten.

29 (1996, 39).

30 BOE: Hegoaldeko goi-nafarrera - 3, “Lizarragaren Dotrina - 1”, (1996, 1153).

31 BOE: Iparraldeko goi-nafarrera-1, “Ruthen liburua” (II, 16), (1995, 86-87). Itzulpena Bruno Echeniquerena.

32 BOE: Aezkera, “Ariako Dotrina”, (1997, 137).

Baztango azpieuskalkian: “Eta zuen faletaic bota citzue berariaz cembait buru, eta utz’azue an gueldi daitzila, alqueic gabe bil detzan, eta ñiorc ere eztezala meathatu biltzeco demboran”³².

(Aezk): “Ciertoac cierto bezala; dudosoac dudoso vezala; mortaleac mortale bezala; venialeac veniale vezala; beren numero eta circunstancia guciequi alques edo malicias bat berere uzi gabe”³³.

(Zar): “Eta issiltcenduenac alquegatic zomait becatu mortal, edo confesatcen zomait grave zoin ez baitu cometitu”³⁴.

(Er): “Eta *añlquez* issiltandionac zomait becatu mortale” .

Beraz, Nafarroako aipaturiko hizkeretan erabat arrunta da *ahalke* nahiz erabile-
ran nahiz eratorriak eta elkartuak sortzen. Lurraldeak markatzen ditu erabileragatik eta, adierari dagokionez, esan bezala, *ahalke* - *ahatge* erabiltzen ez den euskalkieta-
ko *lotsa* hitzaren parekoa da bere esanahi nagusian, baina ez hainbeste azken honek
hartzen duen “begirune”renean. Bestalde, hitz honek Iparraldeko euskalkiekin elkar-
tzen ditu Nafarroako hizkerak -Iparralde osoan *ahalke* – *ahatge*, batez ere lehenen-
goa, hain erabiliak baitira-, Ip(GN)ren zenbait azpieuskalki izan ezik. Edonola ere,
kontutan hartu behar da Ip(Gn) Baztan eta Ultzaman *alke* eta *lotsa* bi hitzen txanda-
keta dutela eta ez, aldiz, Iparraldekoetan, hemengo euskalkietan ezpaitute txandaketa
hori, “lotsa” (‘beldur’) adierazteko erabiltzen baitute.

Sarri

Hitz honekin ere *lotsa*-rekin bezala gertatzen da: euskalki batzutan esanahi bat
duela eta besteetan beste bat. Nafarroako zenbait azpieuskalkitan, Iparraldeko eus-
kalkietan bezala, ‘laister’, ‘brehala’, ‘gero’, ‘ondoren’ esanahiarekin erabili ohi da.

Hg(GN): “Eta nic diót ezi francoc, ez iragazteagatic mundu gucia, ez libracea-
gatic vicia, baicic ondásun triste sarri utzi beartutenengatic”³⁶.

(Er): “Eta barcuara igan izanzren sarri, sosegatuzen airia”³⁷.

(Er): “San Pedroren confesionia eta leina izaitia, zoin sarri guero da justoqui
reprenditruc”³⁸.

(Aezk): “Argatic zitezte jarri, / santiguacera sarri”³⁹. Erabilera honetan ‘maiz’
ere adierazi dezakeela pentsa daiteke, baina ulerkerazuzenena “santiguatzera gero”,
“santiguatzera brehala” litzatekeela dirudi.

33 BOE: Zaraitzera, “Eiaurrietako Dotrina”, (1997, 105).

34 BOE: Erronkariara, “Bidankozeko Dotrina”, (1997, 129). Bestalde, <ñ>k [a] bokala sudurkaria ahoskatzen zela adie-
razten du.

35 BOE: Erronkariara, “Bidankozeko Dotrina”, (1997, 129). Bestalde, <ñ>k [a] bokala sudurkaria ahoskatzen zela adie-
razten du.

36 BOE: Hegoaldeko goi-nafarrera - 1”, “Lizarragaren sermoiak 1”, (1996, 228).

37 BOE: Erronkariara, “San Mateoren Ebanjelioa (Bidankotze)” (14, 32), (1997, 59).

38 BOE: Erronkariara, “San Mateoren Ebanjelioa (Bidankotze)”, (16, Sarrera), (1997, 62).

39 BOE: Aezkera, “Abaurrepeko Dotrina”, (1997,147).

40 Hala ere, ez arkitzeak ez du ezer esan nahi. (Zar)z, hona P. J. Sanpere “San Mateoren Ebanjelio”ko (14, 32) pasarte-
ari ematen dion itzulpena: “Eta iganzrenecoz barcala, sosegatucinu en aizea.” (1997, 48). Eta Ip(GN)ko Baztango
azpieuskalkiari Bruno Echeniquek pasarte berari egiten diona: “Eta barcoan sartu ciren becen laichter, ezti tu cen
aicea”; eta itzulpen honi egiten dion beste bertsioan: “Eta sartucirelaric barcoan”, (1995, 136).

41 BOEn, ‘laister’, ‘brehala’, ‘gero’ esanahiz, lapurteraz eta zubereraz idatzirik dauden testuetan ageri da.

(Zar) eta Ip(GN) euskalkietan ez da BOEko testuetan agertu adibiderik⁴⁰ baina Ip(GN)n gaur egun erabiltzen da zenbait azpieuskalkitan, beraz, pentsa daiteke XIX mendean ere erabilko zela.

Iparraldeko euskalkietan ere erabiltzen da esanahi horrekin, hots, ‘maiztasuna’ adierazteko, eta honen ondorioz ‘berehaltasuna’⁴¹ adierazteko ere. Nafarroan, berriz, azken honetarako erabiltzen da batez ere. Hitza orokorra eta hagitz ezaguna da berez Euskal Herri osoan, baina bi erabilera horien artean bereizketa nabaria ematen denez, Nafarroako erabilera hemengo hizkera batzuen ezaugarritzat har daiteke, batez ere Hegoaldeko beste euskalkien aurrean.

Usu

“Usu” hitzak ‘maiztasuna’ aditzera ematen du, Nafarroako zenbait euskalkitan eta, ondorioz, ‘ugaritasuna’ testuinguruak horrela eskatzen duenean.

Hg(GN): “Cristiandadeain principioan obligacenzitue Eliza começátzera usuágo, gueró argalágo ta orái azqueníc argaleníc”⁴²

Ip(GN): “Zabilariq zaldia ain usu, eta laster”⁴³; “Etorbaledi tempestade bat ó edoy bat, botatcenduela zizarcora, eta arri usu eta larria”⁴⁴.

(Aezk): “Confesa eta começatu alvezain usu”⁴⁵.

(Zar)n eta (Er)n ez dugu aurkitu adibiderik BOEko testuetan.

Hitz hau ez da Hegoaldeko beste euskalkietan erabiltzen, baina bai Iparraldekoetan, adiera denak ‘maiztasunaren’, ‘ugaritasunaren’ eta ‘hertsitasunaren’ esanahiarekin lotuak badira ere. Horrenbestez, hitz hau ere Nafarroako zenbait hizkeren adierazgarri gerta daiteke, Hegoaldekoetatik bereiziz eta Iparraldekoekin elkartuz.

Bakoitz

Hitz honek ‘bakar’ adierazten du batipat Nafarroako hizkera batzutan, guztiz baztertu gabe beste esanahia, ‘norbera(k) bat’ alegia eta, azken hau, orokorra dena beste euskalkietan.

Hg(GN): “Cristoc itz bacoç bazúç gráveac errán ta ixilcenzé bere pássioan; judioéc, órdea, anitz oiú, testim<oni>o, argum<en>tu; ta alaré Pilatoséc ezaunduzué etzuéla culpáric ta solam<ent>e invidias cerducátela arren cónta”⁴⁶

(Zar): “Ginesten dut Aita gucis poderosoan, Ceruaren eta lurraren Creazalean, eta Jesu Cristo aren Seme bacoizean”⁴⁷.

(Er): “Jesusec ele bacoç bat ezaun erresponditu”⁴⁸; “eta Jesucristo haren Seme bacoç gore Geinan”⁴⁹.

42 BOE: Hegoaldeko goi-nafarrera - 1”, “Lizarragaren sermoiak 1”, (1996, 440).

43 BOE: Iparraldeko goi-nafarrera - 2”, “Familiaren instruziorako Dotrina 1”, (1995, 961).

44 BOE: Iparraldeko goi-nafarrera - 2”, “Familiaren instruziorako Dotrina 1”, (1995, 925).

45 BOE: Aezkera: “Ariako Dotrina”, (1997, 143).

46 BOE: Hegoaldeko goi-nafarrera - 1”, “Lizarragaren sermoiak 1”, (1996, 488).

47 BOE: Zaraitzera, “Orontzeko Dotrina - 2”, (1997, 194).

48 BOE: Erronkariera, “San Mateoren Ebanjelioa (Bidankoze)”, (1997, 60).

BOEko Iparraldeko testuetan, lapurteraz, Mendebaldeko behe-nafarreraz, Ekialdeko behe-nafarreraz eta zubereraz alegia, *bakoitz*, eta honen forma bilakatuak, ‘bakar’ en esanahiarekin ere dokumentatzen dira; ez, aldiz, Nafarroako Ip(GN)ko eta (Aezk)ko testuetan. Beraz, erabilera-esparruari dagokionez, Hg(GN), (Zar) eta (Er) hizkerek bat egiten dute Iparraldekoekin.

Xau(tu)

Hitz hau ‘garbi(tu)’ adierazteko erabiltzen da Nafarroako Hg(GN), (Aezk), (Zar) eta (Er)z beste euskalki batzuetako *garbi(tu)* hitzaren parekoa, alegia. Hona hemen zenbait adibide:

(Er): “zore beguia izan baledi sencillo edo egonbaleidi ssaiñ”⁵⁰.

Hg(GN): “xautu”, “jautu”: “Itzulize capitána, ta joanic Jordanerá xautuzé zazpi aldís”

(Aezk): “xau”, “xauki”, <sau>, <jauqui>, <sauqui>: “Yzan guitela sau eta casto, pensamendus, ices eta obras”⁵²; “Borzgarrena, decuma eta primiciac Jaungoicoain Elizari sauqui eta lealqui pagacea”⁵³.

(Zar): “Len faltatrendela cerua eta lurra, ecic eutkienbaita cumplitceco ssauqui legeac contenitcen duen gucia”⁵⁴.

Edonola ere, hizkera hauetan *garbi(tu)* hitza ere darabilte zein den txandaketa-araua garbi agertzen ez delarik: “Yzanguitela ssau, casto eta garvi, pensamentus, ices eta obras”⁵⁵. Bestalde, Ip(GN)z, ez da agertzen BOEn ‘garbitu’ esanahiarekin; hala ere, Baztango, Ultzama eta Bortzirietako azpieuskalkietan, ‘gogor jo’, ‘astindu’, ‘desegin’ adierazteko erabiltzen da, agian, jatorrizko esanahiaren ondorioz sortua, honetan Iparraldeko euskalkiekin bat egiten duelarik⁵⁶.

Ageri denez, fenomeno semantikoak ongi banatzea gauza zaila da, ezar dakizkiegun muga guziak gaintzen baitituzte eta haien artean egin daitezkeen sailkapenak hautsi ere bai. Ikusi dugu zer gertatzen den, esaterako, *lotsa* hitzarekin: ‘beldu-rra’ adieraztera igaro den hizkeretan beste esanahirako *ahalke* hitzaz baliatzen direla; baina hau ere ez beti, Baztango hizkeran esaterako, *lotsa* eta *ahalke* agiriko desberdintasunik gabe erabiltzen baituzte. Ezin da, halere, erabateko hitz desberdina denik esan, esanahia desberdintzen bada ere, *lotsa* hitza, baina bai adierazgarriak direla erabilera horiek hizkerak bereizteko.

50 BOE: Erronkaria, “San Mateoren Ebanjelioa (Bidankoze)”, (6, 22), (1997, 32). Bestalde, <ñ> grafiak diptongoa sudurkaria dela adierazten du.

51 BOE: Hegoaldeko goi-nafarrera - 1”, “Lizarragaren sermoiak 1”, (1997, 278).

52 BOE: Aezkera, “Ariako Dotrina”, (1997, 133).

53 BOE: Aezkera, “Abaurrepeko Dotrina”, (1997, 149).

54 BOE: Zaraitzera, “San Mateoren Ebanjelioa (Eiaurrieta)”, (14, 26), (1997, 47).

55 BOE: Aezkera, “Garaldako Dotrina - 2”, (1997, 115).

56 Ikus Baztango azpieuskalkian: “Yzta dazquigutue mastiac chauntzen ‘tuzten acheri ttarrac”, BOE: Ip(GN): “Salomonen Cantuen Cantua”, (II, 15), (1995, 77); hemen kontsonante sudurkari horrek garai bateko kontsonante sudurkariaren aztarna ager dezake: *xanu-rena, alegia; Mariano Izetak 1996 (178) ere batzen du kontsonante sudurkari hau gordetzen duen hitz bat, “xaungarri”, ‘labea garbitzeko isatsa’, ‘erratza’ esanahia duena. Bestalde, hona lapurterazko adibide hau: “Hartaco herritarrac zituen ihesi, Zituen oro ere chahutzen ikusi, Ezagutzaz bethea ungui egulientzat, Harmac har arte contra hekin etsaientzat”, BOE: Lapurtera, “Napoleon Lehena” (1994, 55). Zubereraz ere, “xaha-tü” hitza esanahi horrekin ere ageri da: “Chaha detzagun lurretik Jinkouaren eliza bestak oro”, “Ene etsayek gaizkiz chahatu niezie ziuelarik: Nouiz hilen da eta galduko haren arima?”, BOE: Zuberera: “Dabiden Gorantzak edo Psalmiak”, (1999, 147).

Beraz, era orotako fenomeno semantikoak gertatzen dira eta kasuak ugariak dira esanahi desberdineko hitzena hizkeren arabera: “saihets” (‘albo’), “maingu” / “maingi” (‘herren’), “txar” / “ttar” (‘txiki’), “aintzin” (‘aurre’), “makur” (‘gaizto’), “soil” (‘oso’), “abre” (‘zaldi-azienda’), “arotz” (‘errementari’), “apurtu” (‘gutxitu’), “emazte” (‘emakume’), “mutil” (‘morroi’), eta abar.

Askoz ere garbiagoa da, ordea, bereizketa erreferente bera izendatzeko hitz desberdinak erabiltzen direnean, euskalkien arabera, noski. Esan nahi dena zera da, formaren aldetik behinik-behin desberdinak direla eta desberdin diren heinean baita ezezagunagoak edo arrotzagoak ere erabiltzen ez diren tokietan.

Barreiatu

BOEko testuetan hitz honek ‘zabaldu’, ‘sakabanatu’, ‘banandu’ esan nahi du eta horiek izango lirakeke haren ordezkokoak Hegoaldeko beste hizkeretan, erabat parekoak ez badira ere. OEH-n ageri dira, batez ere Iparraldeko euskalkietan erabiltzen den hitz honi buruz, hainbat zehaztasun⁵⁷. Hitz hau Nafarroan XIX mendean erabilia zen, Ip(GN)z izan ezik, honetan Baztango hizkera salpuespena delarik:

(Er): “Eta granuen barriatian zomait erorizren bidiari abaño edo bidiaren alta-cara; eta ssinzren ceurico choriac eta ssanztein”⁵⁸.

(Zar): “Eta barreatzean granoac, zomait eroricitzan bideala urran; eta ssincitzan ceruco aveac eta ssanzticien”⁵⁹.

Hg(GN): “Eta barrayatzean granoac erorceré batzuc vide ondoan; eta etorceré goraco choriac eta ssanzusté”⁶⁰.

Ip(GN): “Nerequin eztena, nere contra da, eta nerequin biltzen ez-tuenac, barrayatzan du”⁶¹.

Sail honekin jarraituz, hau da, erreferente bakarrerako hitz desberdinena, BOEko Nafarroako hizkeretan idatzirik dauden testuetan oinarrituz, beste askoren artean, aipagarriak lirakeke: *mintzatu*, *jin / xin*, *elki*, *igorri*, *bozkario*, *agitu* (‘gertatu’), *hedatu*, *soinegi* (‘sorbalda’), *arras* (‘gutziz’), *zaro* (‘makila’), *naro* (‘maiz’), *urrikaldu* (‘errukitu’), *ebatsi*, *kausitu* (‘aurkitu’), *tresena* (‘jantzia’), *alhatu* (‘elikatu’), *goatze* (‘ohe’), *ilaski* (‘ilargi’), *tenore - destenore* (‘garai’ – ‘desgarai’), *gibel*, *botiga* (‘denda’), *otapur* (‘papur’), *deus*; *-gende* (‘-mota’, ‘-gai’, ‘-ki’, ‘-zko’) eta *-zutu* (‘-aro’) atzizkiekin eraturiko hitzak, hala nola, *avegende*, *haragigende*, *esnegende*, *ardogende*, *gizagende*, *txurigende*, *zurgende...*, *aurzutu*, *zaharzutu*, *gaztezutu*, *mutikozutu*, *mutilzutu*, *txikizutu*; eta *ukaldi* hitzarekin konposatuak diren: *puinalukaldi*, *makilukaldi*, *harrukaldi*, e. ab.

Izan duten bilakabide fonikoz, tokien arabera desberdinu direnak, beste taldean sar daitezke, besteak beste: *akaitu* / *akitu*; *ahantzi* / *ahaztu* / *atzendu*, *hertsi* / *itxi*, *joan* / *gan*, *gehiago* / *yago*, *jautsi* / *xauntsi* / *jeitsi* / *xatxi*, *joan* / *fan* / *gan*. Zenbait kasutan, ez da erraza, ordea, hitz beraz edo bi hitzez ari garen erabakitzea, egun, adi-

57 OEH (1990-4, 76-80). Dena den, “barratu” hitza, (GN)rako ematen duena, ez da BOEn dokumentatzen.

58 BON: Erronkarieta, “San Mateoren Ebanjelioa (Bidankoze)”, (3, 4), (1997, 52).

59 BOE: Zaraitzera, “San Mateoren Ebanjelioa (Eiaurrieta)”, (13, 4), (1997, 43).

60 BOE: Hegoaldeko goi-nafarrera - 4, “San Mateoren Ebanjelioa”, (13, 4), (1996, 1302).

61 BOE: Iparraldeko goi-nafarrera - 1, “S. Mateoñ Ebanjelioa”, (12, 30), (1995, 129).

tua ez denarentzat, ez delako hain garbi ageri hitzaren jatorrizko izate bakarra. Baina horiek ere esanguratsuak gertatzen dira edozein hizkerari antzeman nahi zaionean. *jaiki / jeiki / jiki / xogi, bulka(tu) / bultza(tu), usain / urrin / usin, matel / mazel* hitzek, esaterako, hitz bakartzat hartu behar ote dira? Egia da desberdintasunak fonetikan oinarritzen direla, baina hiztunentzat hitzak dira, bata darabiltenak ez baitute bestea ezagutu ere egiten; eta, edozein modutan, nahiz batak nahiz besteak, bakoitzak bere hizkera agertzen du. Beraz, hobe litzateke hitz bakartzat hartzera jotzea ahal den neurrian, eta azterketa maila fonikoaren alderditik egitea.

Esamoldeak

Esamoldeak ez dira hitzak, esate klitxatuak baizik, baina hitzen balioa hartzen dute neurri batean eta haiek bezain esanguratsuak izan daitezke hizkerak karakterizatzeko: *aies oies* ('aieneka'), *karakara, katuli eta alki* ('urlia eta sandia'), *alas edo olas, ahuz barna* ('ahozpez'), *ordezu* ('zoaz'), *orra nonziela* ('horra hor'), *erk erka* ('lerroz lerro'), *kantimas / benturaz* ('ausaz'), eta abar.

(Zar): "Bada, orañic nic, zoin ezpainiz gueago baizic guizon bat sugetonagona bercebatzuri, nola baititut soldadoac nore manuari, erratendiacozut batári: Ordezu, eta ura fatenzu"⁶².

Ip(GN): "Ezta venturaz au zurguinain semea?"⁶³.

Hg(GN): "Jauna, étzindué cantimas ereiqui ací oná zure alorrean?"⁶⁴; "Cantimas, eztá aú artesano edo zuguinain semea?"⁶⁵.

Azkenik, Nafarroako hizkerak beren artean lexikoaren bitartez ere bereizten dira, hona hemen adibide batzuk: (Er) *ekun*, besteek *izan* aditz iragankorrekin doanean; (Er) *baratu*, besteek *gelditu*; Hg(GN) eta Ip(GN) *gende, iende, pueblo, populu*, baita *erri* ere, (Zar) *erri* eta (Er) *iri*; (Er) *abaño*, (Zar) *urran*, Hg(GN) eta Ip(GN) *ondoan*; Hg(GN) eta Ip(GN) *atra*, (Zar) *elki*, (Er) *erkin*; (Er) *sats*; (Er) *gunean* eta beste hiruek *orduan*; Ip(GN) eta Hg(GN) *etorri*, (Zar) eta (Er) *xin*.

ONDORIO GISA

Lexikoak ez dirudi zehatz dezakeenik hizkera bat, baina gerta daiteke orientagarri bere orokortasunean. Hemen egin den azterketatik, eta lanaren murriztasunak eta erabili diren materialen mugak beti kontutan hartuta, zenbait ondorio atera daitezke:

1) Hg(GN)k ia beti bat egiten du Pirinotako hizkerekin, hau da, (Aezk), (Zar) eta (Er)rekin jarraiberean, azken hau gehien bereizten dena delarik. Batzutan (Aezk) kanpoan gelditu bada batez ere material eskasiagatik izan da. Hala eta guztiz ere, (Zar) eta (Er) elkarren artean hurbilago gelditzen dira.

2) Ip(GN), Sarreran esan den bezala, batez ere Baztango hizkerara lotu da, tes-tuen ugaritasunak horrela baldintzatu baitu lana. Dena den, beste azpieuskalkiak ere

62 BOE: Zaraitzera, "San Mateoren Ebanjelioa (Eiaurrieta)", (8, 4), (1997, 32).

63 BON: Iparraldeko goi-nafarrera - 1, "S. Mateoñ Evanjelioa", (13, 55), (1995, 134).

64 BON: Hegoaldeko goi-nafarrera - 4, "San Mateoren Ebanjelioa", (13, 27), (1996, 1303).

65 BON: Hegoaldeko goi-nafarrera - 4, "San Mateoren Ebanjelioa", (13, 55), (1996, 1305).

bilduak gelditu dira murriztagoa izan badute ere corpora. Beraz, esan daiteke, baldintza horiek aurrean izanik, Baztango euskalkia, Ultzamakoa eta Bortzirietakoa beste azpieuskalkietatik aldendu egiten direla eta hurbilago gelditzen direla 1. puntuan aipatu ditugunetik. Eta, gehiago zehaztuz, Baztangoa litzateke hurbilen gelditzen dena (Aezk)tik harreman haundiagoa duelarik eta Arakilgo, Araizko eta Gipuzkoako azpieuskalkiak beste eremu geolektal batetan sartuko lirateke.

3) Salbuespenak salbuespen, Nafarroako hizkeretan aztertu diren hitzak Iparraldeko euskalkietan ere erabiltzen dira. Egon daitezkeen bereizketak hitz horiek dituzten aldaketan edo beste hitzekin dituzten txandaketetan oinar daitezke.

4) Jaso ditugun hitzak eskuarki erabiltzen direnak izatea bilatu dugu. Horrenbestez, euskalkien lexiko orokorrari buruz zenbait zehaztapen egin daitezke:

- a. Hg(GN)ren lexikoa hagitz kutsatua dago erromantzekoarekin eta ez dira mailegu hutsak, zuzenean hartutako erdal hitzak hainbat baitira. Batzuk bakanka erabiliak, beste batzuk, aldiz, maiz errepikatzen direnak: *prebenitu*, *goapo*, *errobatu*, *kuadratu* eta antzerakoak.
- b. Badira zenbait hitz mailebatu hizkera hauetan hagitz erabiliak, Hg(GN) eta Ip(GN)z batez ere: *sobranio*, *kanpatu*, *preziso*.
- d. (Er)ko lexikoa esan daiteke bereziena dela. Hainbat hitz dira, beste Nafarroako euskalkiekin erkatuz, hizkera honetan baizik agertzen ez direnak: *abantxu* ('hurbil', 'inguru'), *aburrimentu* ('gorroto'), *altaka* ('albo'), *arra-koitu* ('mandatu'), *baia* ('zurrumuru'), *eguatx* ('ibai'), *foila* ('sakel'), *izorro* ('sustrai'), *sontotu* ('sendatu'), e. ab.

Lan hau alde zehatzetik hautatu diren hitz batzuen inguruan antolatuta da eta honetan ere beste irizpidez jokatzeko beste hitz batzuen inguruan lana egin zitekean. Agian, norbaitek esan dezake Mendebaldeko euskalkien ikuspegitik bereizgarriak gertatzen diren hitzak hautatu direla. Baina ez dut uste arrazoirik izango lukeenik, hizkera hauen sistemak, oro har, Iparraldeko euskalkietatik gertuago baitaude, eta lan hau hurbilketa bat den heinean, hautaketak ere hori islatzen du.

Azkenik, hiztegi batua hornitzeko eta aberasteko euskalki eta hizkeratan hainbat hitz daude, batzuk galdueak edo galduak, beste batzuk oraindik bizi-bizi dirautenak, eta denak testu idatzietan edo hizkuntz mintzatuan bil daitezkeenak. Baina kasu aunitzetan esanahi gurutzatuak, nahasiak eta, ia beti, hizkeren arabera balio propioak edo bereziak hartzen dituzte. Lexikologoek eta semantikoek lana da, nire ustez dialektologoekin batera, euskara batuan txertatu izan daitezkeen hitz horien balioa ongi biltzea gero euskara batuan erabilera egokia izan dezaten.

BIBLIOGRAFIA

- AZKUE, R. M^a de (1969). *Diccionario Vasco-Español-Francés*, la Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao.
- BONAPARTE, Luis-Lucien (1866). *Formulaire de Prône en Langue Basque, conservé naguère dans l'Eglise d'Arbonne*, Londres.
- COROMINAS, J., PASCUAL, J. A. (1980). *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico*, Madrid.

- IRIBARREN, José M. (1977). *Vocabulario Navarro*, Pamplona.
- IZETA ELIZALDE, Mariano (1996). *Baztango hiztegia*, Iruñea.
- MITXELENA, Koldo (1987, [...]). *Diccionario General Vasco / Orotariko Euskal Hiztegia*, Bilbo.
- _____ (1977). *Fonética histórica vasca*, Donostia.
- PAGOLA, Rosa Miren, (1991). *Dialektologiaren atarian*, Mensajero. Bilbo.
- _____ et alii (1995). *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak: Iparraldeko goi- nafarrera*, Bilbo.
- _____ (1996). *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak: Hegoaldeko goi-nafarrera*, Bilbo.
- _____ (1997). *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak: Aezkera*, Bilbo.
- _____ IRIBAR, ITZIAR, IRIBAR, JUAN JOSÉ (1997). *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak: Zaraitzera*, Bilbo.
- _____ (1997). *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak: Erronkaria*, Bilbo.

Etnometeorologiari buruzko Euskal Hiztegia egiteko oinarriak eta osagaiak

Kepa Dieguez Barahona

1. SARRERA

Zergatik "etnometeorologia" euskal hiztegia? Erantzuna galdera bezain erraza da: horrelako hiztegirik ez delako eta beste hizkuntza batzuetan nekez aurki genitzakeelako. Beste kontu bat da zerk bultzatu gaituen gai horren inguruko hiztegia egiten saiatzera. Uste dugu egunero, oharkabeko hainbat elkarrizketa "etnometeo-ologiko" izaten dugula, eguneko eguraldiaz mintzatzen gara, asteburuko iragarpena hizpide izaten dugu, telebistako eguraldi-iragarleak adi-adi entzun eta ikusten ditugu, tenpora-kontua apurka-apurka ikasten dugu eta sarri kontatu edo irakurri izan dugu zernola eragiten dion Mari jainkosak Euskal Herriko eguraldiari. Gainera euskara, hizkuntza gutxiagotua izanez, edo ez dakigulako, edota alboko erdaren estutzea ezin bortitzagoa delako alor honetan erabil genezakeen bezain ondo ez dugu erabiltzen. Mendeen joanean metaturiko hainbat berba eta esapide, gure hitz-altxorra, ahantzi samarturik dugu eta uste dugu gauza berriak asmatu baino lehen, geureari eutsi behar diogula. Daukagunetik abiatu behar dugu eta ez badaukagu, nola ekin pentsatuko dugu, baina errazkerietan jausi gabe.

2. HELBURUA

Lan honen helburua hauxe da: horretariko hiztegia gauzatu ahal izateko egin beharreko urratsak jakinaraztea. Horretarako izenburuari berari baizik ez diogu erreparatu behar, azaldu beharreko gaiak agerrarazteko: etnometeorologia, osagaiak eta oinarriak.

3. ETNOMETEOROLOGIA

Lehenik eta behin, "etnometeorologia" zertan den azaldu beharren gaude. Horretarako abiapuntu gisa balio digun lan garrantzitsu batera joko dugu: George P. Murdock-ek *Outline of Cultural Materials* antropologia arloan ezinbestekoa den liburuan kulturaren kategoria guztiak sailkatu ditu eta bakoitzak zenbaki jakin bat dauka. Guztira 91 kategoria nagusi eta 915 azpikategoria. 1999ko azkeneko bertsioan "Izadia eta jendeari buruzko ideietan" 820 zenbakia duen kategoria nagusian 821 zenbakia duen Etnometeorologia dago. Harekin batera, etnofisika, etnogeografia, etnobotanika, etnozoologia, etnoanatomia, etnofisiologia, etnopsikologia eta etnosozioologia,

hau da, jakintza horiekiko guztiekiko herri-idea eta sinesmenak. George P. Murdock-ek honela definitzen du etnometeorologia:

"Ideas about night and day, dawn and twilight, rising and setting of the sun, phases of the moon, eclipses, solstices and equinoxes, and the succession of seasons; notions about heavenly bodies (e.g., sun, moon, stars, constellations planets, comets, meteorites); ideas about meteorological phenomena (e.g., clouds and fog, frosts and drought, rain and snow, ice, hail and sleet, winds and whirlwinds, storms, thunder and lightning, rainbow, parhelion and aurora); associated behavior patterns (e.g., greeting the dawn, dispelling an eclipse); etc."

Beraz, definizio honen bidez etnometeorologiak zein esparruri heltzen dion jabetzen gara: fenomeno meteorologikoak ez ezik, zeruan izaten diren gertaera guztiak ere aintzat hartzen dira, baina herri-ikuspegi batetik, ez meteorologiak, jakintza gisa, nola ikusi eta azaltzen dituen. Lan honen helburua ez da izango fenomeno meteorologikoen zientzia-ikuspuntua adieraztea, bai, ostera, hartaz baliatzea taxuzko sailkapenak egin ahal izateko. Hortaz, meteorologia bitarteko moduan erabiliko dugu eta ez helburu.

4. OINARRIAK

Oinarriak dagokienez, arlo honetan XIX. mendetik hona gaia jorratu duten zenbait lanen aipamena egingo dugu. Gaia jorratzeko era berria bada ere, nola edo hala, zeharka edo zuzenean eta arlo zehatz bati ekinez, barreiaturik, meteorologia-lexikoa gogoetabide eta idazpide duten hainbat lan topa dezakegu. Egile askok herri bateko hizkera jasotzen eguraldiaren gaineko hitzak bildu dituzte. Beste batzuk, aldiz, fenomeno meteorologikoen arlo zehatz bat gidari zutela, ahalik eta berba gehien biltzen ahalegindu dira. Beste zenbaitetik, berriz, euskara-hiztegiak egitean nahitaez sartu dituzte horretariko hitzak. Eta egileren batek, hizkuntzalaria izan ez arren, mitologia gaia jorratzean, halaberharrez etnometeorologiarekin egin du topo. Beraz askotarikoak dira dagogikun gaira garamatzaten bideak. Guztiak baliagarriak, jakina. Bat ere ez da baztertzekoa. Lan zahar eta lan berri aitzindari batzuk aipatuko ditugu. Honako hauek, besteak beste:

4.1 Lan zaharrak

– AZKUE, R.M.: *Euskalerrriaren yakintza* (literatura popular del País Vasco). Madrid 1935, Euskaltzaindia, Bilbo 1989. Esapide eta atsotitzei dagokienez, 103 bildu zituen, gaur egun, oro har, nahiko ezagunak direnak. Atal batean "aldi"-ari buruz aritzen da eta bertan hilabeteak, urtezeroak eta zotalegunak (igarregunak) aipatzen ditu. Beste atal batean, "egurasketak" gaia jorratzen du, fenomeno atmosferikoak, alegia.

– BÄHR, G: *El arco iris y la vía láctea en Guipúzcoa*. RIEV XXII 1931. Artikulu horretan, lehenengo eta behin, Gipuzkoan 1931n ostadarra adierazteko erabiltzen ziren 71 hitzen berri ematen du, herri eta eskualdeka sailkatuta. Artikuluaren bigarren zatian hitz guztien balizko etimologiaz aritzen da eta azkenik, "Esne-bidea" edo "Santiago-bidea" euskaraz nola esan gaiaz jarduten du.

– BARANDIARAN, J.M.: *Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca*. Obras completas I en al. Bilbao, 1972. Hizkuntza aztertzea helburu izan ez bazuen ere -denok ezagutzen dugunez gero, antropologia zen haren esparrua- sarritan berba batzuen

berri eman zigun. Oso interesgarria da "Ortzi" eta "In" ustezko jainkoei buruz eta berauen isla eguraldi-hiztegian idatzi zuena.

– BONAPARTE, L.L.: *Mots basques signifiant tonnerre*. RIEV VI, 1912. Izenburuak berak aditzera ematen digunez, euskalki guztietan 1912an "trumoi" hitza nola adierazten zen kontatu zuen.

– *L'arc-en-ciel en basque*. Melusine II. Paris, 1884-85. Artikulutxo honetan 1885ean euskaraz euskalki guztietan "ostadar" hitza adierazteko berben berri eman zuen.

– *The ancient Basque name of God*. The Academy. London, 1880. *Ortzi* euskal ustezko jainkoari buruz aritzen da eta zenbait hitzen osagaia dela eman zuen aditzera.

– CARO BAROJA, J.: *Sobre la religión antigua y el calendario del Pueblo Vasco. Trabajos del Instituto Bernardino de Sahagún de Sahagún de Antropología y Etnología VI*, 1948. Liburu interesgarri honetan, ikuspegi antropologiko batetik lehenengo ataletan honako gai hauek jorratu zituen:

- Zerua izendatzeko euskarazko hitzak
- Jainkoa izendatzeko euskarazko hitzak
- Trumoi eta tximista izendatzeko euskarazko hitzak
- Ostegun eta ostiral egunei buruz
- Ostadarra izendatzeko euskarazko hitzak
- Eguzki, ilargi eta euskal hiztegiari buruz

– GARATE, J.: *Astros y meteoros en vascuence*. RIEV XXIII. 1932. Berak, gora-goa aipaturiko Gerhard Bähr-ek egindako lanari erantzuna ematen dio:

"Muy distinguido vascólogo: con gran interés he leído en esta Revista su bellissimo artículo sobre "El arco-iris y la vía láctea en Guipúzcoa" y creo poder aportar algunos datos e ideas sobre esa materia, paso a enumerarlas". Eta hitzen etimologiari buruz aritzen da, batez ere.

4.2 Lan berriak

– AURREKOETXA, G.: *Haizeen izendapenak ahozko hizkeran*. Txillardegi, lagun giroan. UEU, 1998. Euskal Herriko Hizkuntza Atlasean haizeen izenei buruzko itaunetan jasotako erantzunek motibazio desberdinak dituzte: puntu kardinalak, orografia, toponomia... Izendapen hauek ikerketa eta sailkapenean aurreratu gura izan da artikulu honetan. Era berean, hitz hedatuena orokorki begiratu eta lurraldeka zeintzuk diren aztertzen da.

– BARRUTIA, E.: *Bermeo eta Mundakako arrantzaleen hiztegia*. UEU, 1996. Arrantzaleen ahoetatik jasota, eguraldiaren inguruan hainbat berba agertzen dira, zenbaitetan hiztegiaren nekez topa daitezkeenak: "murmoi", "zarrazoi" "norteko haizea" VS "iparreko haizea"...

– UZEI: *Metereologia hiztegia*. Donostia, 1989. Meteorologia zientifikoaren hiztegia eta artikuluak biltzen ditu. Guztira 234 herri-hitz dauzka, gainerakoak berba zientifikoak dira. Oso liburu baliagarria.

– ZABALA, P.: *Naturaren mintzoa* (egunez egun, sasoiaren gurgpilean). Alberdania 2000. Egutegi zabala, hilabetez hilabete eta egunez egun eguraldiaren gainean iruz-

kin mamitsuak erantsiz. Hainbat hitz, eta esaera. Oso atsegina, egunero dagokiguna irakurtzeko.

5. HIZTEGIAREN EGITURAKETA ETA OSAGIAK

- Lehenik eta behin, edozein hiztegitan jazotzen den legez, bildutako hitz guztiak ordena alfabetikoz paratu behar lirateke, *a*-tik *z*-ra. Lehendabiziko elea *abaldenbora* eta azkenengoa *zurumilo*.

Bigarrenez, hitzok arloka sailkatu behar lirateke. Eta zeintzuk arlo? UZEI-ren Meteorologia-hiztegiaren arabera, meteorotzat jotzen direnak, hau da, hidrometeoroak, litometeoroak, eolometeoroak, fotometeoroak, elektrometeoroak eta garrantzi bereziko beste bi arlo, hodeiak eta itsasoa, alegia. Izarrak eta konstelazioak ere sar litezke hiztegian. Ez dira asko eta batzuk bitxi samarrak dira. Bestalde, badira eguraldiarekin erabiltzen diren beste hitz sailkagaitz batzuk, baina bere eremua zedarriturik eduki dezaketenak. Adibidez, "ekaitzak", "hilabeteak", "gaixotasunak", "igarregunak", "eguzkia", "ilargia", "izarrak", "zerua" "tenperatura" eta abar. Beraz, guztira 7 arlo nagusi eta egokituko litzaizkiekeen azpi-arloak ere. Meteororen definizioa ondoko hau da:

"Atmosferan edo lurrazalaren gainean behaturiko fenomeno, hodeia izan ezik. Fenomeno hau izan daiteke urrezko edo ez-urrezko zatiki likido edo solidoen prezipitazioa, suspentsioa edo jalkiera, baita azalpen optiko edo elektrikoak ere."

- Azkenik, hirugarren atalean, atsotitz eta esaeren hiztegia. Berauek, hitzen definizioarekin batera azalduko balira ere, beste toki batean, multzo berezizat hartura agertzeari interesgarri deritzogu.

Hitzen alboan nolako informazioak egon behar luke? Hitza beraz gain, gutxienez, honako elementu hauek agertu behar lirateke:

- a. kategoria gramatikala: izena, izenondoa, aditza... Badira aditz batzuk fenomeno meteorologikoekin batera baizik erabiltzen ez direnak.
- b. Arloa: gorago azaldu dugunez gero, 7 arlo nagusi bereiztu ditugu. Hala eta guztiz ere, azpi-arloak definitzekotan gelditzen dira. Adibidez hidrometeoroen barruan, euri, txingor eta izotzari dagozkienek beste azpi-multzo batzuk osatuko lituzkete.
- c. Definizioa: ahal denik eta zehatzen, hitzak zer adierazi nahi duen.
- d. Euskalkia: hitza zein euskalki eta, ahal izanez gero, zein herritan jaso, erabili edo erabiltzen den.
- e. Biltzailea: hiztegi-egilea, lexiko-biltzaile, idazlea edo inkesta bateko lekukoa izan daiteke.
- f. Testua: arras garrantzitsua da testua eta testuingurua ematea. Hitzak perpau-saren barruan bizi dira.
- g. Esaerak eta atsotitzak: hitzari loturiko esaerak eta atsotitzak, horrela balegokio. Zenbaitek esaera ugari dituzte eta batzuek bat ere ez.
- h. Mitologia: hitzak mitologiarekin zerikusirik badu, adierazi egin beharko da. Adibidez, "hodei" hitza.

6. ORAIN ARTE BILDUTAKO ZENBAIT HITZ

HITZA	ARLOA	DEFINIZIOA	BILTZAILEA	TESTUA	MITOLOGIA
Lurmendu	Aditza-elurra	Elurra egin ondoren lurra elur edo izotz barik geratzea	Azkue	Zapiain, Gure euskera	
Txangot	Beroa ++	Sargoria baino beroagoa	Azkue	Bizkaiko Txorierniko hitza	
Gohin	Eguraldiaren egoera	Eguraldi lainotua eta oso beroa	Azkue	Zuberoa	
Iñaut	Eguzkia-ezizena	Eguzkiaren ezizena	Lhande	Behe Nafarroa	Iñaut agur egiten ari zauku (egun beroa egingo duen seinale)
Aldagoi	Ekaitza	Haize-erauntsia euriarekin batera	Azkue	Alzola-Amezket-Gabiria	
Euzkillun	Eklipsea	Eguzki-eklipsea	Bera		
Iñizitu	Elektrometeoroa-tximista	Tximista	Barandiaran		
Uztarku	Fotometeoroa-ostadarra	Ostadarra	Azkue	Bizkaia	
Andraize	Haizeak-hegoa	Hego haizea			
Indriska	Hidrometeoroa-euria	Euri-zaparrada	Mogel-Peru Abarka	Bizkaia	
Hotzaro	Hilabetak-abendua	Abendua	Iparraldeko Gure almanaka 1951		
Txaramel	Hodeiak-euria Haize-zurrumbilao	Euri handiak dakartzaten hodeiak Haize-zurrumbilao	Azkue	Ondarroa eta Hondarribian / Baztan	
(H)Ozmin	Hotza-Hotz handia Gaixotasunak Elektrometeoroa-Trumioia	Hotz handia Hotzak eragindako atzamarretako mina	Aurre-Aprreiz		
Zotalegun	Igarregunak	Zotalegunak	Azkue	BN-L-Z	
Traganarru Tragarroi	Itsasoa-tragarroia	Haize zurrumbilao gehienetan indartsua, hodei zutabe gisa azaltzen dena eta behealdean itsasotik jasotako ur-tantak edo lurretik jasotako hauts, harea eta zaborra izan ohi dituen	Azkue	Bizkaia (Bermeo)	
Zazpi ohoiak	Izarrak-Ursa minor	Ursa minor	Azkue	Behe Nafarroan Eronkari	
Eguzkigibel	Lekuak-itzala	Hozpela	Azkue	Lapurdi	
Iparbiso	Litometeoroak	Ipar haizeak ekarri ohi duen "kalima"	Izagirre	Oñati	
(H)odei	Hodeiak-hodeia Elektrometeoroa-trumioia Mitologia	Haranez haran ekaitzak zuzentzen dituen izaki mitologikoa	Barandiaran (ekaitz-lainoa) Barandiaran	Zeanuri / Orozko	
Artizar	Planetak-Venus Izarrak-Goizekoak Izarrak-Estrella Polar	Venus edota Goizeko izarra Izar polarra	Leizarraga-Azkue	B-G-L-Err.	
Etzanalde	Puntu kardinalak-Mend.		Mendebalde	Prop.1989	
Goizaldi	Tenperatura	Goizeko tenperatura	Azkue		
Aro-berri	Urtaroak-udaberria	Udaberria	Lhande		
Hortzazki	Zerua-argitasuna	Gauean ilargiaren argitasuna	Lhande		

7. HIZTEGIAREN BALIAGARRITASUNA

- Etnometeorologiaren gaineko lexikoa toki bakar batean bilduta edukitzea.
- Hainbat hitz, esaera eta adiera ezagutarazi eta hedatzea
- Terminologiaren arloan lan-gai bezala erabili ahal izatea
- Euskara Baturako erreferentzia izatea

BIBLIOGRAFIA

Corpusa biltzeko

- AKESOLO, L.; DE LA SOTA, M. (1976, 1989). *Diccionario Retana de autoridades de la lengua vasca*. Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.
- ANUARIO de la Sociedad de Eusko-Folklore. Años 1921 a 1934.
- ARCHU, J. B.: "Uskaldun eta Franzes Hitztegia". Eskuizkribua.
- AZKUE, R. M.(1989). *Euskalerraren yakintza* (literatura popular del País Vasco). Madrid 1935, Euskaltzaindia, Bilbo.
- _____ (1984). *Diccionario Vasco-Español-Français*. Euskaltzaindia. Bilbo.
- BÄHR, G. (1931). "El arco iris y la vía láctea en Guipúzcoa". *RIEV XXII*.
- _____ (1931). "Alrededor de la mitología vasca". *RIEV XXII*
- BARAIBAR, F. (1903). "Vocabulario de palabras usadas en Alava", Madrid.
- BARANDIARAN, J. M. (1972). *Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca*. Obras completas I, Bilbao.
- _____ (1973). *Eusko Folklore*. Obras Completas II. Bilbao.
- BARRENSORO. (1950). *Uztaro*. Bilbao.
- BERA, P., LÓPEZ MENDIZABAL. *Diccionario Vasco-castellano*. Tercera edición, Zarautz.
- BONAPARTE, L. L. (1912). *Mots basques signifiant tonnerre*. *RIEV VI*.
- _____ (1884-85). "L'arc-en-ciel en basque". *Melusine II*, Paris.
- _____ (1880). "The ancient basque name of God", London, The Academy.
- CASENAVE, J. (1989). "Hitztegia Français-euskara. Züberotar eüskalkitik abiatzez". Hitzak.
- DARRICARRERE, J. B.: "Hitztegi Heuskara Frantziako eta Espainiako Erdaretarat itzulija". J. B. Darricarrère kapitainak egina, D. Rafael de Murga y Mugartegui Jeneralaren laguntzarekin, Baiona. Eskuizkribua.
- DARTHAYET, J. P. (1902). "Guide ou Manuel de la conversation et du style epistolaire Français-Basque", Baiona.
- DUVOSIN, J. (1859). "Bible Saindua edo Testament Zahar eta Berria, Duvoisin kapitainak latinezko Bulgatatik lehenbiziko aldiko Laphurdiko eskarara itzulua". Luis Luziano Bonaparte printzeak argitara emana, Londres.
- _____ "Dictionnaire Basque-Français". Copie de m. l'Abbé Daranatz, (1082 orriko eskuizkribua).
- ETXEBARRIA, T. (1965-1966). "Lexicón del Euskera dialectal de Eibar", *Euskera*, X-XI. Bilbo.
- EUSKAL ERRIA (1880-1918). Revista de Cultura Vasca.
- EUSKAL ESNALEA. (1914-1931).

- EUSKALDUNON EGUNKARIA (99-10-01 /02-06-30). Egunero Joan Albisuk egiten dituen eguraldi-iragarpenak.
- EUSKALZALE. (1897, 1898 y 1899). Euskerazko Albistari Edergarriiduna, Bilbon.
- EUZKEREA. (1929-1933), Bilbo.
- EYS, W. J. van. (1873). *Dictionnaire Basque-Français*. Paris.
- GARA Egunkaria. (99-10-01/00-07-31). Egunero Joxe Landak egiten dituen eguraldi-iragarpenak.
- GARATE, J.: "Contribuciones al Diccionario Vasco". *RIEV* 1930, 1932, 1933, 1934 eta 1936. *BAP* 1949, 1957, 1962 eta 1963.
- EUSKERA, 1962, 1967, 1973.
- FLV, 1973. Año V. Núm.15.
- GEZE, L. (1873). *Elements de Grammaire Basque, dialecte souletin, suivis d'un vocabulaire Basque-Français et Français-Basque*, Baiona.
- GOIKOETXEA. (1967). "Voces recogidas en Loyola", *Euskera* agerkaria.
- HARRIET, M.: "Diccionario manuscrito vasco-francés de 3.536 páginas".
- HERRIA*: Baionako astekaria.
- INTZA'R, Dámaso: "Esaera-zarrak". Bilbao 1927, 1928 eta 1974.
- IRIBARREN, J. M. (1952). *Vocabulario Navarro*. Pamplona.
- _____ (1958). *Adiciones al Vocabulario Navarro*. Pamplona.
- IZAGIRRE, C. "Vocabulario de Oñate". [*Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio Urquijo*, III].
- _____ (1959). "Voces roncalesas". *BAP*.
- _____ "Voces de Alsasua", *Anuario del Seminario de Filología de Filología Vasca Julio de Urquijo*, I.
- _____ "Notas lexicográficas". *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio Urquijo* II.
- _____ (1956). "Oñatiko liñagin-iztegitxo". *Euskera* agerkaria, I.
- IZETA, M. (1996). *Baztango hiztegia*, Iruñea.
- IZTUETA, J. I. (1847). *Guipuzcoaco Provinciaren Condaira edo historia ceñetan jarritzen diraden arguiro veraren asieratic orainarte dagazquion berri gogoan-garriac*, Donostia.
- LACOMBE, G.: "Algunas correcciones al Diccionario de Azkue". Eskuizkribua.
- _____ "Vocabulaire Basque. Mots, locutions, phrases, recueillis ça et là". Eskuizkribua.
- LANDERRETXE, A.: "Correcciones al Diccionario de Azkue". Eskuizkribua.
- _____ "Zuhur-hitz edo errankizun batzu bertzeren ahotik adituak". 47. Atsotitzeko eskuizkribua.
- LARRAMENDI, M. (1745). *Diccionario trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín*, Donostia.
- LARRASQUET, J. (1939). *Le Basque de la Basse-Soule Orientale*, Paris.
- LARREGUY, B. (1775). *Testamen Çaharreco eta Berrico historia, M. de Royaumon-tec eguin içan duenetic berrico escararat itçulia*, Baiona.
- LHANDE, P. (1926). *Dictionnaire Basque-Français et Français-Basque*. (Dialectes Labourdin, Bas-Navarrais et Souletin), Paris.
- MITXELENA, L. (1987...). *Orotariko Euskal hiztegia Diccionario General Vasco*. Euskaltzaindia, Bilbo, [I, II, III, IV, V, VI, VII, VIII, IX, X, XI, XII... eta material informatikoa].

- MOKOROA, J. (1990). *Repertorio de Locuciones del habla popular vasca*, Bilbo, Labayru Inst.
- OIHENART, A. "Uskarazco zuhur-hitzac". Bordelen, 1847. -Arnauld Doyhenart et son supplement des proverbes basques par l'Abbé P. Haristoy, Baiona, 1892.
- POUVREAU, S.: "Dictionnaire Basque-Français". Copia escrita del manuscrito que se halla en la Biblioteca Nacional de París.
- PREMORENA, d'Ostabat: "Mots basques recueillis par...". Eskuizkribua.
- REFRANERO Vasco-Español de 1596. "Refranes y Sentencias".
- SAINT-JAYME, F. "Annotations aux Dictionnaires de Azkue, Fabre y Van Eys". Eskuizkribua.
- SALABERRY, M. (1856). *Vocabulaire des mots basques bas-navarrais, traduits en langue française*, Baiona.
- SARASOLA, I. (1996). *Hautu-Lanerako Euskal Hiztegia. Euskal Hiztegia*, Donostia.
- UZEL. (1989). *Metereologia hiztegia*, Donostia.
- VINSON, J. (1870). "Le mot Dieu en basque et dans les langues dravidiennes". *Revue de linguistique II*, Paris.
Beharra, beraz, argia da. Gaur, eta gure hizkuntzaren egoeran, ez dira lexikografoak bakarrik kontuan hartu behar, hiztegi batuak oinarritzko 40.000 formak laster izango baititu, baina eguneroko bizitzarako hori baino gehiago beharko dugu: hiztegi berezituak, terminologia, alegia, egunero sortzen eta osatzen ari da, gramatikako erabilera berriak ere ageri dira, ahozkoa eskura izatea komeni da. Erreferentzia-corpusak guztiei erantzun behar die, eta guztiok izan behar dugu eskura modu erosoan eta azkarrarean.

Dudarik gabe, honen ardura Euskaltzaindiak izan behar luke, berari dagokio irizpideak zehaztea, sartu beharreko material erreferentea aukeratzea, kalitatea bermatzea, alegia.

Une egokian gaudela uste dugu gainera: mendea bukatu berri da eta EEBS corpus itxi izatera pasako da. Beraz, XXI. mendeko euskal produkzioa eskuratzen hasi beharra dago; baina ez eskuratzen bakarrik, baizik eta aukeratzen, kodetzen, etiketatzen eta modu erosoan eskaintzen. Gainera, ezin ahantz dezakegu Euskaltzaindiak egunen batean hiztegi arau-emaileari heldu beharko diola, eta hori pentsaezina da atzean erreferentzia-corpus modernorik gabe, OEH eta EEBSrekin osatuko dena.

Irizpideak zehaztean sailkapena izan beharko da kontuan, orokorra baina lagungarria, ahozko materiala zer eta nola bildu, corpusaren tamaina (bai abiapuntukoa, bai gerokoa ere) eta, batez ere, azpicorpusak zehaztu beharko dira. Hala ere, oreka mantenduz, edozein unetan gehi daitezke azpicorpus bereziak, irekia baita.

Egituraren aldetik, datu-base multifuntzionalaren beharra izango da: erabilera askotarikoa eta erraza. Tresna berrerabilgarriak behar dira, malguak eta elkartrukerako egokiak. Honek baliabideen bateratzea ekarriko du ezinbestean, elkarlana bideratuz: lexikografoak, gramatikariak, arlo desberdinetako adituak, informatikariak, hizkuntzalari konputazionalak...

Azkenean, Akademiak bere hiztegia behar duen bezala, corpora ere ezinbesteko du, *euskararen erreferentzia-corpusa* izango dena.

Diru- eta giza baliabideak bideratzea ez da erraza izango, lantalde handia behar baitu atzetik, baina, euskarak aurrera egingo badu, behar-beharrezko du halako oinarri sendoa osatzea.

ERREFERENTZIAK

ABEILLÉ, A., CLÉMENT, L., KINYON, A. (2000). "Building a treebank for French", in: *Proceedings of the Second International Conference on Language Resources and Evaluation*, Atenas.

- GELLERSTAM, M., CEDERHOLM, Y., RASMARK, T. (2000). "The Bank of Swedish", in: *Proceedings of the Second International Conference on Language Resources and Evaluation*, Atenas.
- HATZIGEORGIU, N., GAVRILIDOU, M., PIPERIDIS, S., CARAYANNIS, G., PAKOSTOPOULOU, A., SPILITOPOULOU, A., VACALOPOULOU, A., LABROPOULOU, P., MANTZARI, E., PAPAGEORGIOU, H., DEMIROS, I. (2000). "Dessing and implementation of the online ILSP Greek Corpus", in: *Proceedings of the Second International Conference on Language Resources and Evaluation*, Atenas.
- IDE, N., BONHOMME, P., ROMARY, L. (2000). "XCES: An XML-based Encoding Standard for Linguistic Corpora": in: *Proceedings of the Second International Conference on Language Resources and Evaluation*, Atenas.
- JOHANNESSEN, J.B., NOKLESTAD, A., HAGEN, K. (2000). "A Web-Based Advanced and User Friendly System: The Oslo Corpus of Tagged Norwegian Texts", in: *Proceedings of the Second International Conference on Language Resources and Evaluation*, Atenas.
- MACLEOD, C., IDE, N., GRISHMAN, R. (2000). "The American National Corpus: A Standardized Resource for American English", in: *Proceedings of the Second International Conference on Language Resources and Evaluation*, Atenas.
- MADROÑAL, A. (1998). "Corpus diacrónico del español (CORDE)", in: *Seminario de Industrias de la Lengua*. Soria. Fundación Duques de Soria.
- MARTÍN MUNICIO, A., ROJO, G., SÁNCHEZ LEÓN, F., PINILLOS, O. (2000). "Language Resources Development at the Spanish Royal Academy", in: *Proceedings of the Second International Conference on Language Resources and Evaluation*, Atenas.
- ORASAN, C., KRISHNAMURTHY, R. (2000). "An Open Architecture for the Construction and Administration of Corpora", in: *Proceedings of the Second International Conference on Language Resources and Evaluation*, Atenas.
- RUNDELL, M. (1996). "The corpus of the future, and the future of the corpus", in www.ruf.rice.edu/~barlow/futcrp.html
- SANTOS, D., BICK, E. (2000). "Providing Internet Access to Portuguese Corpora: the AC/DC Project", in: *Proceedings of the Second International Conference on Language Resources and Evaluation*, Atenas.
- SINCLAIR, J. (1998). "Standards for Textual Representation and Integrity", in: *Seminario de Industrias de la Lengua*. Soria. Fundación Duques de Soria.
- SOLER, J. (1998). "Los corpus textuales en lengua catalana", in: *Seminario de Industrias de la Lengua*. Soria. Fundación Duques de Soria.
- _____. SOLER, J. (1998). "Written Linguistic Resources in Catalan: the DCC Project", in: *First International Conference on Language Resources and Evaluation (Workshop on Language Resources for European Minority Languages)*, Granada.
- URKIA, M. (1998). "Los corpus textuales en lengua vasca", in: *Seminario de Industrias de la Lengua*. Soria. Fundación Duques de Soria.

Terminologiako bide berriak

Miel Loinaz

UZEI

Eskala handiko termino-produkzioa erakunde autonomikoen sorrerarekin batera hasi zela esango nuke, batez ere itzulpen premiak eraginda. Historia pixka bat eginenez, hiru alditan banatuko nuke euskal terminologiaren eboluzioa: 1990 artekoa, handik 2000 artekoa eta hemendik aurrerakoa.

1990 baino lehenagokoa

- 1990 baino lehenagoko aldian, sorkuntza eta irudimena izan ziren nagusi. Ezer gutxi zegoen oinarrizko lexikografian, ia dena falta zen terminologian eta bakoitzak ahal zuena egin zuen, idiak orgari ahal zen moduan lotuz. Terminogintza horren bi sorleku nabarmen jarriko ditut: UZEI eta Jaurlaritzako itzulpen-zerbitzuak.

- UZEI 1977an sortu zen eta oinarrizko hiztegi teknikoaren multzo handia zuen egina laurogeita hamarrerako: *Fisika, Kimika, Psikologia, Matematika, Hizkuntzalaritza, Kirolkidea, Artea, Filosofia, Biologiako Izendegia, Zuzenbidea...*

Argi dago hiztegi hauetakoa hainbat termino gaur egun baztertuta daudela, bai hitzen formen aldetik eta bai hainbat termino sortzeko aukeratutako bidearen aldetik. Termino horietako beste asko eta asko, ordea, onartuak izan dira.

- Bestetik, administrazio publikoan, eta bereziki Jaurlaritzan (Aldizkari Ofizialaren itzulpenean, HAEE/IVAPen) bide garbizaleagoa egin zen. *Arduralaritza* bezalako hitzen garaia izan zen. Garai horren lekuko da, adibidez, *Agintaritza Aldizkarietatikako Hitz Bilduma*, 1985ekoa.

Hamar urteko garai honetan piztu eta itzali ziren hainbat termino, udako gauean San Lorentzoren malkoak bezala. Hasierako garaiak ziren. Bide asko urratu ziren, batzuetan asmatu zen, beste batzuetan ez. Bakoitza bere aldetik ibili zen, eta hori da, batez ere, garai honen ezaugarria, lankidetzeta falta.

1990etik 2000ra.

Elkarlanaren eta adostasunaren premiaz jabetu zen jendea eta azken hamar urteetan bateratze-prozesu bat joan da indartuz. Hainbat erakundeetako ordezkarien batzordeak antolatu dira, batzuetan Hizkuntza Politikak bultzatuta, beste batzuetan IVAPek eta beste batzuetan beste erakunde publiko batzuek: Nekazaritza Sailak, Lan Harremanen Kontseiluak, etab. Lan-talde hauek benetako "normalizazio-batzorde" gisa aritu dira eta bertan partaide izan dira Jaurlaritzako ordezkariak (IVAP, Hizkuntza Politika, Aldizkari Ofiziala), Nafarroako Gobernuak, Foru Aldundiak, Euskaltzaindiak, UZEIkoak, etab.

Azken urteetako historia laburki gogoratuko dut.

- *Errentaren zerga aitorpenerako inprimakiak (1990)*.

Hiru Foru Aldundietan eta Nafarroan errentaren aitortzea egiteko zeuden inprimakiak hustu ziren UZEIn, eta inprimaki horietako testuak bateratzeko batzorde bat osatu zen, Hizkuntza Politikak antolatuta. Hor egon ziren Jaurilaritza barneko hainbat ordezkari (IVAP, Aldizkari ofizialekoa, Hizkuntza Politika), hiru Foru Aldundietakoak, Nafarroako Gobernuak, UZEIkoa. Batzordearen proposamenei Euskaltzaindiak egingako oharrak kontuan hartuta zerrenda bat atera zen, nahiz eta ez zen inprimategiko argitalpen formala izan.

Hor erabiltzen diren zenbait forma, gerora baztertuak izan dira, hala nola, *neka-zal*, *merkatal*, *kartera*.

Baita ere hor finkatzen dira gerora arrakasta izango duten zenbait termino: adibidez, *higiezin* eta *higigarri* (inmobiliario, mobiliario esateko) edo inoiz kritikatuak izan den zergaren *aitortzea*.

- *BEZ zergaren inprimakia (1990)*. Hemen ere aurrekoaren antzeko bidea segitu zen: balio erantsiaren zergarako inprimakia hustu zen UZEIn, eta horretarako Hizkuntza Politikak deitutako batzorde batean adostu zen euskarazko itzulpena. Batzorde horren osaera, aurrekoaren antzekoa izan zen. Baina orainoan, proposamenak Euskaltzaindira bidali ziren. Euskaltzaindiak "batzorde suntsikor" bat eratu zuen horretarako, eta batzorde horretan egingako zuzenketekin atera zen behin betiko zerrenda.

Gerora lurralde historiko-k baztertu du zerrenda honetan proposatzen den *herrialde historiko*.

Errentaren aitortzeneko *oinarri ezargarri* zuzendu egiten da eta *zerga oinarri* proposatzen da.

- *Barne Errotulazioa (1992)*. "Euskal Herriko Herri Erakundearen Barne Errotulazioa" izenarekin argitaratu zen inprimategian. Hizkuntza Politikak deituta eratu zen normalizazio-batzordea, eta bertan zeuden Euskaltzaindia, UZEI, EUDEL, hiru Foru Aldundiak, Nafarroako Gobernuak, Iparraldeko Euskal Kultur Elkarteak eta Jaurilaritziatik IVAP, Hezkuntza Saila eta Hizkuntza Politika. UZEIk egin zuen errotuluaren zerrendaren hustuketa, eta ondoren lantaldea sei hilabetez aritu zen lanean, astean behin bilduz. Hemen proposatzen den *mantenimendu* gerora baztertua izan da. Eta hemen adosten den *ingurugiro*-ren ordain hobeto gisa *ingurumen* agintzen da geroago Hiztegi Batuan.

- *Bide seinaleak (1994)*. Hizkuntza Politikak, Euskararen Aholku Batzordeak emandako gomendioei jarraituz, batzorde bat antolatu zuen. Partaide ziren hiru Foru Aldundiak, Nafarroako Gobernuak, hiru hiriburu-udalak, Euskaltzaindia, UZEI, EUDEL, eta Eusko Jaurilaritziatik Garraio eta Herrilan Saila, IVAP eta Hizkuntza Politika. Hau ere ez da zehazki hiztegi terminologikoa, baina terminologia asko adosten da errotuluak itzultzean. Hemen finkatzen dira, adibidez, *autobide* eta *autobia*, 'autopista' eta 'autovia' esateko.

- *Nekazaritza hiztegia (1995)*. Hau izan zen normalizazio-batzorde batean adostutako lehenengo hiztegi terminologikoa.

Batzordea Hizkuntza Politikak antolatu zuen, eta ondorengo erakundeak egon ziren ordezkariak: Nekazaritza eta Arrantza Saila, Nafarroako Gobernuak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, IVAP, hiru Foru Aldundiak, Fraisoro Nekazaritza

Eskola, Euskaltzaindia, Elhuyar, UZEI eta Hizkuntza Politika. Hiztegi-lanak UZEIn egin ziren eta azken erabakiak batzordean adostu ziren.

- *Administrazio hiztegia (Funtzio Publikoa) (1996)*. HAEE/IVAPek antolatutako batzordea eta egin zuen hiztegiaren terminologia-lana. Batzordean Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, hiru Foru Aldundiak eta UZEI egon ziren.

- *Arrantza hiztegia (1997-1998)*. Arrantza Sailak sustatua. Hauek izan ziren normalizazio-batzordeko partaideak: Eusko Jaurlaritzako Arrantza Zuzendaritza eta Hizkuntza Politika, Gipuzkoako Foru Aldundia, HAEE/IVAP eta UZEI.

- *Lan-harremanen hiztegia (1999)*. UZEIk egin zuen Nafarroako Gobernuak eta Lan Harremanen Kontseiluak eskatuta. Batzordean egon ziren Lan Harremanen Kontseilua, Nafarroako Gobernua, Euskal Herriko Unibertsitatea, IVAP eta UZEI.

Amaitzeko, aipatu nahi nituzke oraingo beste bi adibide. Bata da Epaitegietakoa Idazki Ereduak bateratzeko batzordea, urteetan lanean ari dena. Hor daude elkarrekin Justizia Saila, UZEI, IVAP, Deustuko Unibertsitatea, Abokatuen elkargoak, epaileak, itzultzaileak... Epaitegietakoa idazki-ereduak bateratzen ziren bitartean, termino asko eta asko ere adostu dira.

Beste adibide bat, bateratze-prozesu hau argi erakusten duena, Zigor Kodearen itzulpen argitaratu berria da. Deustuko Unibertsitatean itzulia, IVAPen berrikusia eta Epaitegietakoa Idazki Ereduak normalizatzeko batzordearen proposamenak oso konfiantzagarriak hartu dituenak.

Laburtuz, azken 10 urteetan bateratze saio asko egon da, hemen aipatu ditugunak eta beste asko ere bai. Guztiok aldatu dugu "txipa" edo pentsatzeko modua, eta ulertuz joan gara terminologian "ados jartzea" dela arau nagusia.

2001etik aurrera

Esango nuke garai berri baten hasieran gaudela, eta hori adierazi nahi da hitzaldian honen izenburuan. Euskarazko terminologia-lanari nolabaiteko babes ofiziala eman nahi diola adierazi dio UZEIri Jaurlaritzako Hizkuntza Politikak.

Beraz, datozen urteotarako terminologia-lanaren plangintza egitea agintzen duen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak esandakoari jarraituz, Eusko Jaurlaritzak euskarazko terminologia indartzeko erabakia hartu du. Hori izan da UZEIri azaldu zaiona eta UZEIk onartu duena.

Plangintza horren barnean, bi puntu nagusi aipatuko ditut: Terminologia Banku Publikoa eta Terminologia Batzorde Berrikuslea.

Terminologia-banku publikoa

Orain arte, baguen euskarazko terminologiaren banku bat, EUSKALTERM deitzen dioguna. Banku hau, nolabait esateko, terminoen makro-hiztegi bat da, eta hor daude bilduta ez bakarrik UZEIk argitaratu dituen hiztegiak, baita ere lehen azaldu ditugun batzordeetan adostutako guztiak. EUSKALTERM doan eskaintzen da Internet bidez. Jendeak zenbat erabiltzen duen ikus dezazuen, gutxi gorabehera hilean 30.000 kontsulta izaten ditu. UZEI arduratzen zen banku honetako terminoak eguneratzen eta hiztegi berriak bertan sartzen.

Aurten terminologia-banku publikoa eratzeko bide berri bati ekin zaio. Eta banku publikoa eratzeko, EUSKALTERM bankutik abiatzea proposatu dio Jaurlari-

tzak UZEIri. Beraz, Jaurlaritzak eta UZEIk lagapen-kontratu bat sinatu dute. Orain arte "EUSKALTERM, UZEIren Terminologia Bankua" zena, aurrerantzean EUSKALTERM, Terminologia Banku Publikoa" izango da. Helburu horrekin, EUSKALTERM Bankua kudeatu, eskaini eta eguneratzeko eskubideen lagapena egin dio UZEIk Eusko Jaurlaritzari. Eta guzti horren ondorioz, laster euskadi.net gunetik eskainiko da EUSKALTERM kontsulta.

Terminologia Batzordea Berrikuslea.

Maiz aipatu izan da honelako batzorde baten premia. Miren Azkaratek, duela lau urte, Donostiako Terminologia Biltzarrean argi eta garbi eskatu zuen.

Terminologia-batzorde berrikuslearen eraketa izan da Jaurlaritzak UZEIri proposatu dion planaren bigarren puntu garrantzizkoa: EUSKALTERMeko terminoak, aurrerantzean, batzorde horretatik pasatuko dira, eta batzorde horren onspena izan beharko dute.

Batzordeak finkatuko ditu terminologia-arloko lehentasunak, terminologia-lanerako irizpideak emango ditu, termino bat baino gehiago dagoenean, termino hobetsia aukeratuko du eta landutako terminologia-lanei onspena emango die.

Hemen ere, bide berri baten abioan gaude. Lehen aipatu ditudan batzordeak "suntsikorak" ziren nolabait esateko, proiektuei lotuak ziren, eta proiektua amaitzean batzordea deseginda geratzen zen. Hemendik aurrera, batzordea iraunkorra izango da, ofiziala.

Amaitzeko, zera esan nahi nuke, planteamendu berri hauek nolabaiteko "txip" aldaketa eskatuko digute guztioi. Lehenik, terminologoei, lan egiteko eta erabakiak hartzeko moduak aldatzea edo egokitzea ekarriko duelako. Gero, lexikografoei, terminologia-arloan adostutako erabakiei begirunea izaten jakin beharko dutelako, eta, azkenik, idazle eta erabiltzaile guztiei, normalizazio-bide berri honetara moldatu beharko dutelako.

Teknolekto ugari baliatzen duten hizkerak

Axun Aierbe Mendizabal

Euskal Herriko Unibertsitatea & Ibarako Udala

Hiztunongan eragin handia duten eta teknolekto ugari baliatzen duten bi hizkera motaz –hedabideetakoaz eta administraziokoaz– jardutea da txosten¹ honen xedea, guztiongana iristen direlako eta hedabideetakoak, gainera, eragin berezia duelako.

1. TEKNOLEKTO TERMINOZ

Gure inguruko hizkuntzetan eta geurean hainbat izendapen erabiltzen da kontzeptu berbera adierazteko. Euskal Herriko Unibertsitateak jakintza-arlo ezberdinetako euskara izendatzeko *Euskara Teknikoa* erabiltzen du, eta sarri ikusi ditugu *hizkera teknikoa* eta *hizkuntza teknikoa*² bezalakoak ere edo *teknolektoa* nahiz *xede berezietarako hizkera/hizkuntza*.

Teknolekto terminoa, *kronolekto*, *dialekto*, *soziolekto*, *xenolekto*, *mesolekto*, *idiolekto* eta abarren itxurakoa da. Haensch-ek (1983: 9) dio *dialekto* eta *idiolekto*-rekiko analogiaz eratu direla *soziolekto* eta *teknolekto*. Gainera, *teknolekto* terminoa osagai bakarrekoa da, ekonomikoagoa, alegia.

Badira termino guztiak baliokidetzat jotzen ez dituztenak eta *teknolekto* terminoaren aurkakorik ere aurki daiteke (Lerat, 1995: 16). Cabrék (1993: 135) espezialitate-hizkuntzez³ badihardu ere, beste artikulua batean (1998) gai hori sakondu du eta espezialitate-hizkuntzez mintza gintzekeela aipatu arren, *berbaldi espezializatua* gogokoago du, *hizkuntza espezializatuak* terminoa, egokitasunari begira, ez dela oso aproposa uste baitu.

Dakusagunez, oso antzeko kontzeptua izendatzeko darabiltzagun terminoak ugari dira. Biunibokotasunaren garrantzia (Altonaga, 1998: 1; Zabala, 1999: 159; Schiffko, 2001: 24) maiz aipatu arren, nabarmen da ez dagoela adostasunik, terminoak definitzean antzekotasun handiak badaude ere. Gainera, gure inguruko hizkuntzetako terminoen parekoak eratu ditugu euskaraz eta Zabalak (1999: 163) dioena gerta-

1 Eskerrak bihurtu behar dizkiegu Ricardo Badiolari, Juan Carlos Odriozolari eta Igone Zabalari eginiko ohar baliotsuengatik.

2 Gure inguruko hizkuntzetan ere nahasmendu handia dago: gaztelaniaz *lengua* eta *lenguaje* ageri zaizkigu, frantsesez *langue* eta *langage*, katalanez *llengüe* eta *llenguatge*,...

3 Liburuan *lenguaje(s) de especialidad*, *lengua de especialidad* edo *documentos especializados* izendapenak darabiltza.

tu zaigu, alegia, “adigai baterako etiketa bat baino gehiago egotea” eta “erdal etiketa bakoitzerako euskal ordain bat bilatu nahi izatea”.

2. TEKNOLEKTOEN EZAUGARRIEZ

Ezaugarriak aipatzean, xede berezi baterako edo arlo jakin batean egiten den hizkuntza-erabileraz mintzatu dira usu egileak. Maiz hizkuntza-ezaugarrietan oinarrituriko definizioak eman dira eta arlo batean edo bestean baliatzen den terminologia nabarmendu da. Bada terminologiaren eremura soilik mugatu denik ere. Oro har, bi jarrera-mota hauteman ahal dira: hizkuntza-ezaugarriak nabarmentzea edo horrez gain, komunikazio-faktoreak ere aintzat hartzea (Cabr e, 1993: 139-140; Hoffmann, 1998: 31-63) eta lexikoaren nahiz gramatikaren ikuspegia gainditzea.

Askotan aipatu dira argitasuna, zehaztasuna eta gardentasuna. Zabalak (1999: 159) “zehaztasuna: hizkuntza teknikoaren bereizgarria” dela dio eta “etiketa baten eta adigai baten arteko harreman biunibokoa” behar dela. Halaber, gardentasunaz mintzo zaigu, hots, irakurleak termino jakin bat «deskodifikatzeko» (1999: 174) izan ditzakeen erraztasun eta zailtasunez. Euskara Juridikoaren Mintegiak (Urrutia & Lobera, 1995: 29) teknolektoen edo hizkera teknikoaren ezaugarritzat jo du eraginkortasuna; eta baita formaltasuna, joskeraren tinkotasuna eta laburtasuna, eta egitura gramatikal bereziak, hiztegi berezitua eta kultismoak eta maileguak erabiltzea ere.

Hizkuntza-ezaugarrien zerrenda luzea egin dutenen artean dugu Duarte (1990: 103- -106)⁴. Espezialitate-hizkerak hizkuntza estandarrean oinarrituak direla esan du, baina komunikazio-mota jakin bat(zuk) d(it)u(z)tela helburu. Kocourek-ek ere (1991: 40-41) espezialitate-eremu bateko hizkuntzak eta, bereziki, hizkuntza landu eta teknozientifikoak hizkuntza arruntaren baliabiderik gehienak dituela baieztatu du, eta erregistroa, berbaldia, hiztegia edo terminologia baino gehiago dela esan du.

Auger-ek eta Boulanger-ek ere (1995: 23-2)⁵ espezialitate-hizkuntzak erregistro bereziak direla baieztatu dute eta ezaugarri lexiko eta gramatikalak eta kohesio-baliabideak nabarmendu dituzte.

Haensch-ek hizkuntza-ezaugarriak soilik nabarmendu ditu (1983: 15): hiztegi berezia, hizkuntza estandarren hainbat baliabide morfosintaktikoren erabilera berezia eta hitzak eratzeko zenbait arau. Teknolektoa⁶ ez dela hiztegia soilik dio (1983: 23). Marquet i Ferigle-k (1995: 75) berriz, esan du terminologia dela arlo interesgarriena, hiztegiaren elementurik garrantzitsuen delako.

Lexikoaren eremuan hiztegi arrunta eta berezitua edo terminologia bereizten diren arren, badira hiruko sailkapenak ere. Cabr e (1999: 58) proposatu du hiztegi arrunta, lexiko giltzarria (*lexique-charni ere*) eta terminologia bereiztea; Hoffmann-ek (1998: 198) aldiz, hiztegi espezializatua, oinarritzko hiztegia eta gutxienekoa. Hoffmann-en proposameneko hiztegi espezializatuak Cabr e terminologia eta lexiko giltzarri deituak besarkatzen ditu; Cabr e hiztegi arrunt deitu duena, ordea, Hoffmann-ek bitan zatitu du, hots, oinarritzko hiztegia eta gutxienekoa.

4 Hizkuntza-baliabideak erabiltzaile-motaren arabera ere sailkatu ditu.

5 Liburua Internet bidez eskuratua da eta ez datoz bat aurkibidean ageri diren orrialde-zenbakiak eta testuan zehar ageri direnak. Ipinitakoak aurkibideari dagozkie.

6 Hoffmann-en eta bere jarraitzaile Duarte-ren (1990), Kocourek-en (1991) eta Auger-en eta Boulanger-en (1995) iriziz ez bezala, Haensch-en aburuz, lanbideetako hizkerak ez dira teknolektoak, soziolektoak baizik.

7 Katalanezko itzulpena erabili dugunez eta bibliografian ere horren berri eman dugunez, katalanezko argitalpenaren data eta orrialde-zenbakiak emango ditugu Hoffmann aipatzean.

Hoffmann-ek testu espezializatuak sailkatzeko irizpideak jaso eta kritikatu ditu (1998: 31-63) eta espezialitate-hizkuntzak sailkatzeko ikuspegi ezberdinak erabili izana nabarmendu du. Sailkapen horiek gogobetetzen ez zutenez, lau irizpidetan oinarritua proposatu du (1998: 64): abstrakzio-maila, hizkuntza-forma, eremua eta solaskideak. Espezialitate-hizkeren ezaugarriak irizpide horien arabera dira. Bost maila ezarri ditu eremuaren arabera: oinarrizko zientzia teorikoetako hizkerak, zientzia esperimentaletakoak, zientzia aplikatu eta teknikoetakoak, ekoizpen materialaren arlokoak eta kontsumoaren eremukoak; eta funtsean hizkuntza-irizpide hauek hartu ditu kontuan:

- a) sinbolo artifizialean edo hizkuntza naturalean oinarritzea
- b) terminologia espezializatua gehiago edo gutxiago erabiltzea
- c) sintaxi hertsia edo askeagoa baliatzea

3. ADMINISTRAZIOKO ETA HEDABIDEETAKO HIZKERAK: ANTZEKOTASUN ETA EZBERDINTASUNAK

Teknolekto ugari baliatzen duten hizkeren gaineko txosten hau prestatzen ari garela argitara eman den Castellón Alcaláren tesian (2001: 82-83) administrazio-hizkeraren testuartekotasuna aipatu zaigu, beste hizkera tekniko batzuk besarkatzen dituelako (juridikoa, lege-arlokoa⁸, ekonomiazkoa, medikuntzako, fisikakoa, informatikakoa, etab.). Testuartekotasuna beste hizkera batzuetan ere badela dio eta kazetaritzako hizkera eta lege-arlokoa aipatu ditu horien artean, beste hizkera batzuetatik elikatzen direlako. Castellón Alcalá aipatuei politikarien hizkera eta publizitate-arlokoa erantsiko genizkieke, eta kazetaritzako hizkeraren ezaugarri ez ezik, oro har, hedabideetakoarena ere badela erantsiko genuke.

Aztergai ditugun hizkeretan bizitzaren (ia) arlo guztiak ageri diren neurrian, mota askotako hizkerak eta lexikoa baliatzen dira iturri gisara. Hortaz, testuaren xedea dugu beste hizkera espezializatu batzuekiko bereizgarria eta testuaren egitekoa da izaera erabakiko duena (Castellón Alcalá, 2001: 83-86).

Euskara Juridikoaren Mintegiak (1995: 30) ere hizkera juridikoa osagai anitzekoa dela dio, hots, "hizkera tekniko ez-homogeno bat".

Bestalde, hedabideetako hizkuntza-erabileraren eta kazetari-hizkeraren arteko bereizkuntza egin ohi da (Romero Gualda, 1993; Sarasua, 1996). Romero Gualdak hedabideetako hizkuntza-erabileraz diharduelarik izaera hibridoa (1993: 15) aipatu du, eta Castellón Alcalá testuartekotasun deitua, berriz, izaera heterogeneoa (1993: 19-20) dela esan du, askotariko edukiak ageri direlako. Sarasuak ere, askotariko terminologiak erabili beharra aipatu du eta euskararen egoera gogoan izan du, ulergarritasunaz mintzo baita (1996: 33-34).

Administrazioeko eta hedabideetako hizkeren arteko antzekotasunik nabarmenenak honako hauek direla esan genezake: askotariko jasotzaileak izatea eta mota askotako edukiak eta hiztegia agertzea: hiztegi arrunta, lexiko giltzarria nahiz terminologia.

8 Kurzon (1987) legearen hizkera (lege-xedapenetan erabilia) eta lege-hizkeraren (legeaz hitz egiteko erabilia) arteko ezberdintasunaz mintzatu da eta bien arteko testuartekotasuna aztertu du. Euskara Juridikoaren Mintegiak (1995: 30) izenak alderantziz erabili ditu: Kurzon-ek lege-hizkera deituari legegariaren hizkera baiteritzo eta Kurzon-ek legearen hizkera deituari, lege-hizkera.

Ezberdintasunik nabarmenena dugu, aldiz, administrazioiko hizkera landua eta formala izatea eta hedabideetako hizkeran erregistro guztiak agertzea, formalenetik lagunartekoraino. Alabaina, informazioa ematea xede duten albistegietan edo kazetaritzako genero ezberdinetan (Diaz Noci 1995: 73), hizkera formala eta landua da gailentzen dena, administraziokoan bezalaxe.

4. TESTU-MOTAK ETA LEXIKO-MAILAK

Administrazioiko eta hedabideetako hizkeretan testu-mota ezberdinak ditugu eta aukera handiagoa edo txikiagoa izan dezakegu sintaxi zurrunagoa edo askeagoa erabiltzeko eta lexikoa hautatzeko. Ez dugu uste hizkera bera erabili behar denik administrazioan bando bat egiterakoan edo erakunde batetik bestera txosten tekniko zehatz bat igorri behar denean. Lehenengoan hizkera arruntetik gertuago ibili behar genuke eta hiztegi arrunta eta lexiko giltzarria baliatu, eta arlo bereko teknikarien arteko komunikaziorako erabili terminologia teknikoa, Cabrék eginiko sailkapena gogora ekarriz. Hoffmann-ek eginiko sailkapena aintzat hartzen badugu, oso abstrakzio-maila baxuko hizkera erabili beharko genuke herritarrekiko harremanetarako, hau da, hizkuntza naturala eta termino espezializatu batzuk eta sintaxi librea. Abstrakzio-maila altuagoko hizkera adituen arteko harremanetarako utzi behar genuke. Gutxi dira hala ere, hizkera arrunta eta lagunarteko hizkera erabiltzeko aukera ematen dutenak: jai-egitarauak, zenbait kanpainatako testuak,...

Lexikoaz ari garela, ezin ahantz genezake, orain ehun urte termino zena egun hiztegi arruntekoa izan daitekeela edo orain hamar urte espezialisten artekoa zena egun hiztegi giltzarriko hitz bilakatua izan genezakeela, bereziki, hedabideen eraginez:

“Jainkoak daki zer oker ikaragarriyak gertatu litezken Probintzi ontan, *ill onen 26-ean*, Paristik-Madrilla, gure kamiyo errialetan, chimista bezela pasako diran *automovil* izena duten eta, baforiaren bidez, neurririk gabe korritzen duten gurdi edo koche mota berriyakiñ.” (Tolosako Udalak 1903an eginiko bandotik)

Ohart gaitezen *automovil* hitza gaztelaniaz bezala idatzirik dagoela, letra etzana duela eta definizioa eman zaigula. Horrek aditzera ematen digu, garai hartan terminoa zela, egun *automobil* hiztegi arruntekoa bada ere.

Bestetik, *behi eroen/zoroen gaitz* hiztegi arruntekoa dugu eta *entzefalopatia espongi-forme*, hedabideen eraginez guztion edo gehienon ezagutza pasibokoa bihurtu da eta egun, lexiko giltzarrikoa dela esan genezake.

Honako hauetan, ordea, arazoa bestelakoa da:

- a) *Ahoeria / Aheria / Ahomina / Hankamina / Nafarmina*
- b) *Sukar aftosoa / Afta(-)sukarra*

a) multzokoak euskaraz batean eta bestean erabiliak dira, eta baserritarrentzat, arruntagoak kaletarrentzat baino; b) multzokoek termino itxura duten arren, gaztelaniazko *fiebre aftosa*-ren kalko dira, ez baitute zerikusirik lexiko-maila ezberdinekin.

Badira hitz polisemikoak ere, eremuaren eta testuinguruaren arabera esanahi ezberdina dutenak eta hiztegi-maila ezberdinetakoak izan daitezkeenak. Esaterako, *artikulu* ez da gauza bera agerkari batean, lege-testu batean edo gramatika batean.

5. ADMINISTRAZIOKO ETA HEDABIDEETAKO EUSKARAREN ZENBAIT ARAZO

Hainbat testu hautatu dugu zenbait arazoren berri eman ahal izateko. Testu batzuk soilik hautatzeak ezinbestean eraman gaitu arazo ugari aipatu gabe uztera.

Euskara hainbat esparrutan eta zenbait gaiez jarduteko (oso) gutxi erabilia izan da azken urte hauetara arte. Halaber, ezin ahantz genezake euskaraz dihardugunean, lehenago beste hizkuntza batean edo batzuetan jasotakoa itzultzen edo egokitzen ari garela, zuzenean ez bada zeharka.

Administrazioaren jardueran euskara ez da hizkuntza normalizatua, apurka-apurka gero eta langile gehiagok erabiltzen badu ere. XX. mendean, 1936. urtean, eman zen argitara lehenengo aldizkari ofizial elebiduna, ordu arte, administrazioaren jardueran euskaraz dokumentu solteak soilik baikenituen. Lehenbiziko ale hartako lehen testua dugu ondokoa:

“Euzkadi’rentzat berjabetasun-araudia
[...]

Lgo. atala.—Erkalaren araudi nagusiak eta Araudi onek diotenez, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaya, España laterriaren soin barrunean, berjabetasunez janzten dira, Euzkadi izentzat arturik.

Aitatutako erkiak dituzten lurraldeak osatuko dute lurri berri au.”

Euskara baturik ez zegoen garaiko testua da. Sintaxiak ez du zailtasun nabarmenik, baina hiztegian neologismo ugari ageri da: *erkala*, *laterria*, *erkia*,... Euskarazko testua gaztelaniazkoa baino laburragoa da eta sinpleagoa, hiztegia alde batera utzita.

80ko hamarkadako testu askotan aurki genitzake, aldiz, honelakoak:

(1) “bidarien errepidezko araupeango garraiozko herri-zerbitzuen sariak” (1981)

Hitzak ezagun (samarr)ak zaizkigu, baina esanahia ulertezina zaigu sintaxia dela bide, izenen zama izugarriak eta horien arteko lotura nola hala bideratu nahi eta ezinak sortzen baitu arazoa.

Lexikoan ere bada arazorik:

(2) “Legegintzaren Erakidetzeta eta Egiterapen-Sailordetzeta” (1981)

(3) “herri-zuduzkotasuna” (1982)

(4) “osasunketa-lanbidedunentzako [...] deia” (1983)

(2)ko *erakidetzeta eta egiterapen* eta (4)ko *lanbidedun* euskarazko beste hitz batzuetatik abiatutik eratu dira. Erdal mailegurik hartu nahi eza da horrelakoak eratzeko arrazoia. Eratorbidea hitzak sortzeko erabili beharreko baliabidea da, baina horrek ez du esan nahi nolana era daitezkeenik. (4)an ageri den *osasunketa* hitzak aditzera ematen digu, dirudenez, *osasan* hitza ez zitzaioela aski idatzi zuenari edo teknikoago iritziko ziola atzizkidunari, *-keta* oro har aditzoin bati eransten bazaio ere⁹.

(3)an *herri-zuduzkotasuna* ageri zaigu *erabilera publikoa*¹⁰ adierazteko. *zudu* ageri zaigu hiztegiatan eta hortik abiatutik lehenik *zudu* + (z)ko eta ondoren *zuduzko* + *tasun* ginez eraturiko hitza dugu euskaraz *erabilera* esatea aski genuen lekuan.

9 Lafittek (1944: 34) *-keta* izen multzokariak eratzeko atzizkien artean ere sartu zuen.

90eko hamarkadan sintaxia eta lexikoa samurragoak dira, aurreratu dela nabari da testu ulerterrazagoak direlako oro har, baina (5)ean lotura falta da. Eratorbiderako joeraren lekuko da, berriz, *kreditapen*:

- (5) “hildakoen organoak erauzteko, bizidun emailearen giltzurrun erauzketarako, anatomi ehunak eta zatiak lortzeko, giltzurrun, kornea eta larru aldaketarako histokonpatibilitatea erreferentziarako laborategi lez iharduteko eta, [...] ospitaleari kreditapena emateko” (1992)

Zalantzak ere nabari dira:

- (6) “DEKRETUA, [...] presaz okupatu ditzala deklaritzen duena, nahitaezko desjabetzapena egin ahal izateko” (1992)
- (7) “DEKRETUA, [...] jabetza nahitaez kentzeko, [...] berehala hartu behar dituela aldarrikatzen duena.” (1992)

(6)an *nahitaezko desjabetzapena* dio eta (7)an *jabetza nahitaez kentzeko*; hots, bi era kontzeptu bera adierazteko. Halaber, (6)an *okupatu* eta (7)an *hartu* eta, orobat, (6)an *deklaratu* eta (7)an *aldarrikatu*. Lexiko-arloan gaztelaniatik harturiko maileguak ditugu (6)an eta (7)an berriz, euskal lexikoa.

Antzeko arazoak aurki genitzake 1997ko testu batzuetan ere:

- (8) “material suntsikorren horniketa egiteko lehiaketa publikoari publizitatea emateko”
- (9) “material fungigarria hornitzeko lehiaketa publikoari publizitatea emateko”
- (10) “ERABAKIA, [...] material fungigarriz hornitzeko lehiaketa publikoa argitara ematen duena”

Eratorbidearen atzaparretan harrapaturik, gaztelaniazko *material fungible*-ren euskarazko ordain gisara (8)an *material suntsikor* ageri zaigu eta (9) eta (10)ean berriz *material fungigarria*. Uste dugu biak desegokiak direla, material mota hori erabiltzean suntsitzen denez, *suntsigarri* izan behar bailuke, *suntsitu* bi argumentuko aditza (Artiagoitia, 1995) baitugu hor eta ezkerreko izenak, objektu izanik, balio pasiboa baitu (Azkarate, 1990: 35); hortaz, *-kor* lekuz kanpo legoke. Ez du zentzurik *fungigarri* eratzek, *fungi(tu)* euskaraz ez baita existitzen, eta ondorioz, ezta *fungi* aditzoina ere.

Bestetik, (8)an eta (9)an *lehiaketa publikoari publizitatea eman* ageri da eta (10)ean berriz, *lehiaketa publikoa argitara eman*. Esan beharrik ez dago bigarrena dela egokiena, kakofoniarik ez dagoelako eta *publizitatea eman* gaztelaniazko *dar publicidad*-en kalkoa delako.

Azkenik, aipa dezagun zalantza ageri dela *hornitu* aditzaren erregimena dela bide: (9)an absolutuarekin eta (10)ean instrumentalarekin. (8)an ez dugu horrelako zalantzarik nominalizazioa dugulako, baina testua astunagoa da.

Bi mila urte igaro eta gero ere, badira arazoak. Aurreko hamarkadetatik eskarmentua hartu dugu, Euskaltzaindia 1994tik hona ematen ari den arau eta gomendioak kontuan hartzen dira batzuetan, eta testu landuak eta onak badira, baina ez da beti horrela:

10 *Publiko* izenondoa gaitzetsi eta horren ordeko ia bakartzat *herri*-erabili da testu askotan.

- (11) “Behin bi aleak zinatuta (euzkeraz eta gaztelaniaz), [...] bidaliak izan behar dira [...] Premiazkoa da Alkate Jaunak zinatutako Ituna lehen baitlehen bidaltzea, tramitatu ahal izateko ordainketa Agindua” (2001)

Azken urte hauetan administrazioa ahaleginak egiten ari da langileak euskal-
dundu eta alfabetatzeko, baina hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeak ez du ziurtatzen
askotan euskara txukuna erabiliko denik. Goiko testua administrazio batetik bestera
igorritako gutun batekoa da eta uste dugu ez duela inork zuzendu¹¹. Batetik, ortogra-
fia-akats nabarmenak daude: *zinatuta, euzkeraz, lehen baitlehen,...* Bestetik, behar
baino letra larri gehiago ageri da, Ituna eta Agindua ez baitira izen bereziak, eta
Euskaltzaindiak 1990ean emaniko arauak dioenez, karguak letra xehez idatzi behar
dira, eta arau horrek eztabaida piztu arren, oraingoz Euskaltzaindiak ez du bestelako-
rik arautu. Azkenik, hitz-hurrenkera ez dagokio euskarari zati batzuetan bederen, *tra-
mitatu ahal izateko ordainketa Agindua* gaztelaniazkoaren parekoa baita. Azkenik,
aipa dezagun egitura pasiboa dugula aktiboa behar genukeen lekuan: *bidaliak izan
behar dira*.

Hori gertatu da ziurrenik (12)ko testuan ere, ez baita normala izena + izenondo
motako segidan izenak artikulua izatea edo documentua “c”z idatzirik agertzea; eta
jende aurrean ez da zuzena Hiztegi Batuaren arabera:

- (12) “Araua ordezkatzailen osagaien aldaketa izeneko documentua jende aurrean jar-
tzea.” (2001)

Ondoko testuak hedabideetatik eta publizitatetik jasoak dira. Ulerterrazagoak
izan arren, bada akatsik eta erabilera okerrik ere:

- (13) “Zazpi lagun zaurituak gertatu ziren”

Itxura pasiboaz itzuli da gaztelaniazko *resultaron heridos: -ak gertatu*. Kenduz
gero euskara onean ariko zen esataria, *zauritu ziren* egokiagoa baita.

- (14) “Barriolak frontisetik urruti mantendu nahi du Mikel Unanue”

Gure iritziz *mantendu* aditza gehiegi erabiltzen da. Kenduta ere, ez litzateke
esanahia aldatuko.

- (15) “Luis Mari Etxarte [...]k arraunketaren munduan dopina dagoenaren «susmoa» du”

Gaztelaniaren eraginez *mundu* ageri da askotan *alor, arlo, esparru* edo ezer
behar ez den lekuetan; *egon* aditza baino egokiago litzateke *izan* testu horretan, baina
larriagoa da *dagoenaren «susmoa»* jabetza-genitiboaz agertzea, behar ez denean.

- (16) “kurtso / ikasturte / lanurte politikoa”

Horiek guztiak entzun eta irakurri ditugu Eusko Jaurlaritzaren lanurtea abiatzean.
Batetik, *kurtso* ez da euskara batukoa, *ikasturte*-k irakaskuntza-arlorako balio du
baina ez dirudi hedadura semantikoa oso zilegi denik, ezbairik gabe *lanurte* da ego-
kiena. Bestetik, *politiko* erreferentziazko izenondoa da. Politikarien lanurtea izateak
lanurteari izaera politikoa ematen ote dio?

- (17) “Gipuzkoako lehen hiriezinen ataria”

¹¹ Ibarako Euskara Zerbitzuan ere gertatu zaigu zuzenketarik ez eskatzea eta testuak akatsez beteta ikustea argitara eman ondo-
ren. Beste batzuetan euskaraz ez dagoena euskaratzeko eskatzen da, baina euskaraz dagoena traketsa izan arren, ontzat emate-
ko joera dago eta ez da zuzentzeko eskatzen. Adi egon eta mesfidantzaz jokatu beharra dago testu trakets eta akastunik itzur ez
dakigun. *Auzi-Errekurtsua jar daiteke EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko auzitarako Epaitegi egokian* aurkitu
genuen halako batean eta hori irakurtzean pentsa daiteke, besteak beste, *epaitegi desegokiak* ere badirela.

Publizitatetik jasotakoa da (17)a. Gaztelaniaz *inmobiliarias* ageri denez, *hiriezin* hitzak ez du zerikusirik *hiri*-rekin, *higiezin* izan beharko luke; bestetik, *lehen* hitzak *atari*-ren aurretik agertu beharko luke.

6. ONDORIOAK

Euskara erabiltzen hasi berria den eremuetan edo garai batean baino erabiliago den esparruetan osatzea eta “eraikitzea” ezinbestekoa da XXI. mendeari begira, izan ere, irizpiderik eza nabari da behin baino gehiagotan eta (terminologia-) arazo jakin bati erantzun ezberdinak ematen zaizkio. “Zenbat buru, hainbat aburu” esaerak ez du gaurkotasunik galdu. Gainera, estandarra finkatua duten eta edozein eremutan eta edozertarako normaltasunez erabiltzen duten hizkuntzetan terminoak finkatzen dituztenak arlo bakoitzeko adituak eta profesionalak izaten dira, terminologoen laguntza izaten badute ere. Gurean, termino ugari sortu dugu eta sortzen dihardugu itzulpen bidez eta gehienetan hizkuntzaren arloko profesionalen eta itzultzaileen eskuetan egon da eta dago terminoak hautatzea, espezialitate-eremuetako adituen esku-haritzea apalagoa (izan) delako¹².

Aipatu bezala, maiz estandarraren erabilera berezizat hartu ohi da zenbait hizkera, eta hizkera horien ezaugarriak zehatz-mehatz deskribatzeko izugarritzko ahalegina egin ohi da. Gainera, hizkuntza batzuetan eta arlo jakin batzuetan estandarretik urruntzeko ahalegin berezia egiten da. Zorionez, gaur egun kontrako adibideak ere baditugu, bai geurean bai kanpoan: administrazioiko hizkera xehearen alde ingelesaren kasuan Estatu Batuetan, Italian, Katalunian, Suedian edo Finlandian egin dituzten eta egiten ari diren ahaleginak (Askoren artean, 1995; Hyttinen, 1987; Castellón Alcalá, 2000) eta ahalegin hori eredutzat harturik HAEE azken urte hauetan egiten ari den lana¹³.

Hedabideen arloan ere, ETBk eta Euskaldunon Egunkariak argitara emaniko estilo- liburuak eta eginiko lanak¹⁴ ahalegin horren barruan kokatu behar ginituzke.

Lan ugari egin da, argitara eman dira eta banatu ere bai, baina, ziurrenik ez dira behar bezain ezagun, erabili eta eragingarri.

Amaitzeko, aipatu nahi genuke, estandarretik urruntzeko ahaleginak egin ordez, egokiago eta osasuntsuago (izango) zaigula, estandarra baliatuz euskararen senera hurbiltzeko ahalegina egitea. Hiztegi batutik terminologia baturako urratsa egin beharko du euskarak XXI. mendean, ahantzi gabe XX. mendearen azken urteetako ahaleginak, ongi eginak aintzat harturik eta oker eginak zuzenduz. Izan ere, ez genuke mesederako termino eta egitura oker eta baldarrak nola-halako ezaugarrien zerrendak osatzeko baliagarri izatea txosten honetan egin bezala.

¹² Aintzat hartzekoak dira 1989an administrazioiko hizkera eta terminologiaz eginiko jardunaldietan azaldutako proposamena (Askoren artean, 1989) eta Diaz de Lezanak eta Azkaratek 1997an eginikoak.

¹³ *Hizkera argiaren bidetik* (1994), *Argiro: idazteko proposamenak eta ariketak* (1997), *Administrazio idazkiak. 7 ikas-tunitate* (1994), *Administrazioko mila hitz* (1995), *Argi idazteko bideak* (1996), *Nazioarteko Terminologia Biltzarra* (1997), *Kooperatiba Hiztegia* (1997), *Administrazio eta Prozedura Legea* (30/1992) eta *inprimaki ereduak* (1999), *etab.*

¹⁴ *Euskarazko albigestietarako esku-liburua* (EITB, 1992), *Estilo liburuak* (Euskaldunon Egunkaria, 1992 eta 1995) eta *98-99 euskara mintegia* (Euskaldunon Egunkaria, 1999)

BIBLIOGRAFIA:

- ALTONAGA, K. (1998). "Ajeak eta aje ez direnak", *Berba*, 26, 1-2.
- ARTIAGOITIA, X. (1995). "Garri atzizkiaren izaera bikoitzaz: Zergatik den maitagarria bezain mingarria", *ASJU*, XXIX-2, 355-405.
- ASKOREN ARTEAN, (1989). *Administrazioko hizkera eta terminologiaz jardunaldiak*, HAEE, Oñati.
- ASKOREN ARTEAN, (1995). *Administrazioaren eta herritarren arteko komunikazioa hobetu nahian: Hizkera errazteari buruzko jardunaldietako ponentziak*, HAEE 1996.
- AUGER P. & BOULANGER, J.-C. (1995). *Terminologie et Terminographie: Recueil de notes de cours (2e édition)*, Université Laval.
- AZKARATE, M. (1990). "Euskal -garri vs latinezko -bilis: bi balio ezberdin", Askoren Artean (1990). *Patxi Altunari Omenaldia*, Donostia, 19-39. Mundaiz.
- _____ (1997). "Euskal terminologiaren egoeraz", Askoren Artean (1997). *Nazioarteko Terminologia Biltzarra*. Donostia, HAEE & UZEL.
- CABRÉ, M. T. (1991). "Terminologie ou terminologies? Spécialité linguistique ou domaine interdisciplinaire?", CABRÉ, M. T. (1999). *La terminología: Representación y comunicación. Elementos para una teoría de base comunicativa y otros artículos*, 55-66. Bartzelona, IULA, Universitat Pompeu Fabra.
- _____ (1993). *La terminología: Teoría, metodología, aplicaciones*, Bartze-lona: Antártida & Empúries.
- _____ (1998). "El discursu especializat o la variació funcional determinada per la temàtica: noves perspectives", CABRÉ, M. Teresa (1999). *La terminología: Representación y comunicación. Elementos para una teoría de base comunicativa y otros artículos* 151-173. Bartzelona, IULA, Universitat Pompeu Fabra.
- CASTELLÓN ALCALÁ, H. (2000). "La reforma del lenguaje administrativo: la experiencia de los Estados Unidos de América", *Revista de Llengua i Dret*, 34, 23-42.
- _____ (2001). *El lenguaje administrativo: formas y uso*, Granada, La Vela.
- DÍAZ DE LEZANA, A. (1997). "Terminologi lanaren metodologia", *Senez*, 17, 29-38.
- DUARTE, C. (1986). *Llengua i administració*, Bartzelona, Columna, 1993, 2.a.
- DUARTE I MONTSERRAT, C. (1990). "Els llenguatges d'especialitat", *Revista de Llengua i Dret*, 14, 93-109; 35-54.
- EUSKALTZAINDIA (1990-1993). "Euskaltzaindiaren Gomendioak eta Erabakiak", _____ (2000). *Hiztegi Batua, Euskera*, 2000, 2.
- HAENSCH, G. (1983). "Les llengües d'especialitat o tecnolectes", *Revista de Llengua i Dret*, 1, 9-16.
- HOFFMANN, L. (1998). *Llenguatges d'especialitat: Selecció de textos*, IULA, Bartzelona, Universitat Pompeu Fabra.
- HYTTINEN, T. (1987). "Zur Nomenklatur der Staatsverwaltung in Finnland", LAURÉN C. & NORDMAN, M. (arg.) (1989). *From Office to School: Special Language and Internationalisation*, 3-12. Clevedon - Philadelphia, Multilingual Matters Ltd.
- KOCOUREK, R. (1982). *La langue française de la technique et de la science: vers une linguistique de la langue savante*, Wiesbaden: Brandstetter Verlag, [1991, 2.a.].
- KURZON, D. (1987). "Language of the Law and Legal Language" in LAURÉN C. & NORDMAN, M. (arg.) (1989). *Special Language: From Humans Thinking to Thinking Machines*, 283-290. Clevedon - Philadelphia, Multilingual Matters Ltd.
- LAFITTE, P. (1944). *Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire)*, Donostia, Elkar, [L.G. 1987].

- LERAT, P. (1995). *Las lenguas de especialidad*, Bartzelona, Ariel [1997].
- MARQUET I FERIGLE, L. (1993). *El llenguatge científic i tècnic*, Associació d'Enginyers Industrials de Catalunya, [1995, 2.a.]
- ROMERO GUALDA, M. V. (1993). *El español en los medios de comunicación*, Madrid, Arco / Libros. [1996].
- SARASUA, J. (1996). *Bi begiratu euskarazko kazetari hizkerari: gaiari egindako gain-begiratu eta euskarazko kazetaritzaren tradizioko lau kazetatan hitz eta esamoldeen hustuketa kualitatiboa*, doktorego-tesia, Kazetaritza I, EHU.
- SCHIFKO, P. (2001). “¿Existen lenguas de especialidad?” in *Las lenguas de especialidad y su didáctica: Actas del Simposio Hispano-Austríaco*, Tarragona, Universitat Rovira i Virgili.
- URRUTIA, A. & LOBERA, A. (arg.) (1995). *Euskara, Zuzenbidearen hizkera*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea.
- ZABALA, I. (1999). “Zehaztasuna eta gardentasuna” ODRIOZOLA, J. C. (koord.) *Zenbait gai euskara teknikoaren inguruan*, 159-189. Bilbo, EHuko Argitalpen Zerbitzua.

Aditz-azpikategorizazioa hiztegintzarako lantzen

Izaskun Aldezabal Roteta
EHU/UPV (Ixa taldea)

Patxi Goenaga, Kepa Sarasola
EHU/UPV

SARRERA GISA

Hemen aurkezten dugun lana, duela hamabi bat urte Ixa taldeak hizkuntzalaritza konputazionalaren alorrean hasi zuen ibilbidearen barruan kokatu behar da.

Bestalde, garapenean dagoen saio baten berri emango dugula azpimarratu nahi dugu. Alegia, guk hemen aditzak lantzeko prozedura bat proposatzen dugu, horretara eraman gaituzten arrazoiak agerian jarritz, baina ez dugu emaitzarik ez eta ondoriorik aurkeztuko, horixe baita uneotan egiten ari garena. Honenbestez, hemen, aditzak lan.tzeko hautatutako metodologia bera eta horretarako baliatu ditugun tresna automatikoak nahiz beharrezkoa izan zaigun eskuzko lanaren nondik norakoak azaltzeak du garrantzia. Ondorengo lanetan etorriko dira, hemendik lortutako emaitzekin egin beharreko azterketak.

Hala, lehendabiziko puntuan, eta gure gaia kokatzearen, hizkuntzalaritza konputazionalaz mintzatuko gara labur. Segidan, azpikategorizazioaren azterketak izan dituen gorabeherak eta haietan topatu ditugun hutsuneak jarriko ditugu argitan. Ondoren, hutsune hauei irtenbide emateko, azken joera linguistikoek proposatzen duten bidea, sintaxia eta semantikaren arteko elkarreragina, alegia, izango dugu hizpide, bereziki B. Levin-en *English verb classes and alternations* (1993) lanaren planteamenduari erreparatuko diogularik. Lan horretan ikusi dugunetik ateratako ondorioetan oinarrituta, gure lan-prozeduraren berri emango dugu hurrengo atalean, horretarako hartu ditugun baliabide sintaktikoak, aurrerabakiak, eraikitako datu-basea, eta hautatutako aditz-zerrenda aurkeztuko ditugularik. Eginkizun horretan baliatuko ditugun baliabide automatikoen garrantzia ere azpimarratuko dugu. Bukatzeko, ondorioak eta etorkizunerako lanak aipatuko ditugu.

1 HIZKUNTZALARITZA KONPUTAZIONALAZ BI HITZ

Hizkuntzalaritza konputazionala, hizkuntza ulertu ahal izateko, ordenagailu batek beharrezko dituen baliabide linguistiko eta automatikoak uztartzean diharduen hizkuntzalaritza-mota da; alegia, diziplinartekoa. Hala, hizkuntzalaritza konputazio-

nalak, ahal duen neurrian, hizkuntzalaritza orokorretik edan eta gero hori guztia konputazionalki tratagarri izango den modu batean jartzen du. Ahal duen neurrian diogu, izan ere, hizkuntzalaritza konputazionalak *corpus errealen gainean* (hau da, gure eguneroko jardunean topatzen ditugun euskarazko testuen gainean) egiten du lan, eta corpus erreal hauek ezagutu eta analizatu ahal izateko beharrezkoa den sistematizazioaren bila jotzen duenean, behin baino gehiagotan topatzen du agor hizkuntzalaritza orokorraren iturria, askotan baliabide automatikoen eskaerei erantzuteko nahikoa suertatzen ez delarik. Puntu honetan, automatizazio-prozesua, hizkuntzalaritza orokorraren lagungarri bihurtzen da, eta fenomeno linguistiko jakin bat definitzerakoan beharrezko diren ezaugarri eta prozedurak, gizakiok gure kabuz beharbada erreparatuko ez genizkienak, argitan jartzen dizkigu. Hizkuntzalaritza orokorra, beraz, iturria da, baina automatizazioak bere garapenean laguntzen du askotan. Hortxe ageri zaigu diziplinarteko lana; azken batean, baliabide linguistikoak eta automatikoak konbinatzekoan, batak zein besteak eskaintzen dituzten ahalmen eta mugak ondo neurtu beharra. Horrela jardun dugu hizkuntzaren atal desberdinak lantzeko garaian, hala nola, ortografia, morfologia, morfosintaxia, sintaxia eta semantikaren aurrean (horiek guztiak ukitzen baititugu gure ikerlerroetan).

Ordea, helburu behinena corpora aztertzea izaki, gure lan egiteko ikuspegia eza-gutzara alderatu da, hori izanik garatu ditugun tresnen helburu nagusienetakoa. Bestela esanda, azaleko eta sakoneko kontzeptuak hartzen baditugu erreferentziatza, guk azalekotik abiatuturiko analisia izan dugu aztergai. Zentzu horretan, perpausa, hitz kate jarraitu bat baino ez da, eta hala izanik, lehendabiziko eginkizuna hitzen osaera aztertzea bilakatzen da. Bata bestearen jarraian doazen hitz hauek, ordea, beti testuinguru jakinetan agertzen dira, eta hortaz, hitz bakoitzak besteekin harremanetan izan ditzakeen interpretazio guztiak aurreikusi beharra dago. Adibide batera joaz, “iritzi” hitza, izena zein aditza izan daiteke, baina horretaz gain, kontuan hartu behar da *zenbait iritzi* edo *iritzi bat* topatzen dugunean, lehenengoak mugagabearen marka (ez-ageria) daramala, eta, aldiz, bigarrenak, ez; edota *iritziak* hitza, *Alkatearen iritziak herritarrek harritu ditu* edo *Egunkariak herritarren iritziak plazaratu dituzte* gisako esaldietan ager daitekeela –hau da, ergatibo singular gisa nahiz absolutibo plural gisa. Orobat “iritzi” aditza denerako; *iritzi dio* bezalako segida batean, aditza dela esateaz gain, partizipio burutua dela ere esan behar dugu. Horrek esan nahi du, jarri ditugun “iritzi” eta “iritziak” hitzek, modu isolatuan analizatzen baditugu, hainbat interpretazio izango dituztela; bestela esanda, ambiguoak izango direla.

Euskal hizkuntzalaritzan aspaldian ikutu gabe zegoen arazo bati heldu dio J. Lakarrak azken urteotan, hemen ere hizkuntza barneko datuak soilik erabiliz: aitzin euskal erroaren egiturarena, hain zuzen. Esan behar da auzi hau beti izan dela hizkuntzalaritza historikoaren alorretarik tradizioaletakoena, hizkuntzalaritza indieuro-parrean bertan, eta zer esanik ez semitikoan, ikus daitekeenez.

C.C. Uhlenbeck hizkuntzalari holandarrari zor diogu lehendabiziko euskal erroaren sailkapen sistematikoa (1947). Aditzaren erroa alboan utzirik, euskal izenek erakusten zituztenak batu zituen, egitura ezberdin baikoitza jatorizat edo arrotzat hartu ondoren euskal lexikoaren estrato ezberdinak sailkatzeko gai izango zelakoan. Deskribapenaren arabera euskal erroak monosilaboak, bi silabakoak eta trisilaboak izan daitezke, atal bakoitzaren barruan azpisaillkapenak ere egiten dituelarik. Adibidez, monosilaboen artean bokalez, diptongoz, kontsonantez edo afrikatuz amaitzen direnak aurkitzen dira, eta bisilaboen artean (C)VCV egitura (*aho, behi, beso*), (C)VCCV (*albo, argi, garbi, zaldi*) eta (C)VCCVC (*argal, bazter*) egitura dutenak gehienbat.

Mitxelenak aurrerapausu handi bat eman zuen aniztasun hori guztia silabaren eskema sinpleago batera bihurtzeko gai izan zenean, pentsatzen baitzuen aitzin euskararen erro kanonikoa bisilaboa zela eta silabaren egitura aberatsena (CVRST) itxurakoa.

Lakarra, jatorrizko euskal hitzen egitura aztertu ondoren, TVTV egituraren faltaz jabetu zen, hau da *bide* moduko hitz zaharrak oso urriak zirela eta ez zegoela bate-re arrazoirik *daba, *degi, *bego eta antzeko hitzen falta horrentzat, ez baldin bazitzaion behintzat aurreko fase bateko erroari baldintza zehatz batzuk ezartzen. Kontuan harturik monosilaboetan ere ezin zirela hitzak kontsonante leherkariz amaitu, zilegizko kontsonante bakarrak sonanteak zirelarik, pentsatu izan zuen aitzin euskal erro kanonikoaren egiturak bi baldintza hauek bete behar zituela: a) monosilaboa izan eta b) CV(W)(R)(S) itxurako distribuzioa eduki.

Hizkuntzalaritzaren historiaren aldetik garbi dago aurrerapausu nabaria izan dela, fenomeno berdina gertatu zelako historia askoz ere ezagunagoa eta landuagoa izan duen indoeuroperaren kasuan ere. XIX. mendeko gramatikak irakurtzen baditugu (berdin da Brugmann-ena zein Whitney sanskritistarena), eredu askotariko erroen aurrean aurkituko gara: bokal bakarreko monosilaboak (sanskritozko *i* ‘joan, *r* ‘joan’

bezala), bokalez amaitzen direnak (sagr. *da*: ‘eman’), bi (sansk. *kar* ‘egin’) hiru (sansk. *bhrjj* ‘erre’) edo lau (sansk. *skand* ‘jauzi’) kontsonante silaba bakarrean dutenak eta azkenik bisilaboak zirenak ere (sansk. *jani* ‘jaio’); erroaren bokala kontuan hartzen bada, hor ere batzuk luzea edo diptongoa erakusten zuten beste batzuk laburra zeukaten bitartean. Baina Saussureren berreraiketak aniztasun hori dexente murriztu zuen bisilaboak (sanskritozko gramatikan *set* errokoak deritzanak) eta bokal luzez amaitzen zirenak aitzin erro orokorrago baten bilakaera bereziak zirela azaldu zuenean. Indoeuroperazko erroaren teoria Benvenistek osatu zuen hizkuntzetako egitura guztiak aitzin forma kanoniko batera bihurtu zituenean, Saussurek proposatutako laringalak jokoan jarritz. Erroaren teoriak konparaketaren mugak zabaldu zituen, erlazio gabeko hitzetan lotura berriak aurkituz eta berreraiketa antzinagorantz eramanez.

Kasu berbera gertatu da euskal erroaren teoria berri honekin ere. Euskal hitz gehienek ezaugarri formalak eta soinuen distribuzioa deskribatuaz gain, etimologia berri batzuren oinarria eman du. Garbi dago monosilaboez ez dutela teoria honetan aparteko arazorik sortzen, baina bisilaboen sorketa nolobait azaldu behar da: aurkitu daiteke, dena dela, prozedura batzuren arrastoa:

a) hitz elkartuak: *ur**din*, *gord**din* (*ur*, *gorr* gehi *-din* aditzforma, Mitxelenak ikusi zuen bezala), *gibel* (**gi-*, ik. *gizen*, + *bel*), *zintzurr* (*zintz* + *urr*).

b) atzizkien bidez eratorriak: *gorri*, *zuri* (*gorr*, *zur* + *izenondoetan* eta beste zenbait hitzetan agertzen den *-i*), *barru* (**barr*, ik. *barren*, + *-u*), *beltz* (*bel* + (*e*)*tz*, ik. *akit*. BELEX, edo bizk. *ertz*: *zub. eretz*).

c) erroaren lehendabiziko silaba (osoaren edo partzialaren) bikoizketaren medioz eratutakoak: *zezen*, *odol* (**do-dol*), *gogorr*. Bigarren kasuan ikus daiteke dizimilazio batek azaltzen duela hitz hasierako *d*-ren falta, *eder*, *adar*, *adats* eta halakoetan ere gerta zitekeena.

Lakarra bera kanpo konparaketagintzan erro teoriaren bat edukitzearen abantailaz jabetu da, eze ezagunak eta usuko diren kritikaz gain (lehen aipatu ditugunak) erroarekiko adostasuna ere erabili daiteke edozein ahaidetasun teoria epaitzeko orduan. Adibidez, karvelikoa eta euskararen arteko ahaidetasuna egiantza gutikoa da ez bakarrik kognatutzat eman diren kideek, —ondo aipatuak izan diren neurrian, jakina—, soinu egokitasunik aurkezten ez dutelako, baita bi hizkuntzek duten erro eredua arras ezberdina delako ere.

Aspirazioa. Aipatu dudan erroaren teoria erabili berria izan da aspirazioak aitzin euskaran sortzen dituen arazoak argitzeko. Mitxelena konturatu zen aspirazioa antzinateko euskara orokorraren ezaugarritasun nabarmenenetarikoa zela, Akitaniako izkriazioetan erruz jasotakoa eta Erdi Aroan ere Euskal Herriko zati gehiengan mantendua. Horregatik harrigarri samarra eginten zait Traskek (1997) proposaturiko aitzin sistema fonologikoan aspirazioari lekurik ez egitea. Mitxelenak berak oso ongi aztertu zituen aspirazioaren distribuzioa, euskalkietan erakutsitako aldaerak eta nolabaiteko sistematasun eza edo aldakortasuna, eta saiatu zen aspirazioaren eta azentuaren arteko ezin ukatuzko loturak ahalik eta argien azaltzen. Haren ikerketaren ondoren badakigu jatorriz aspiraziorik ez zuten forma batzuk hasperendun bihurtu direna, latinezko *pace* zuberierazko *bákhe* edo *zub. gaihér**di*, esaterako. Bigarren adibidean oraindik ere aspirazioa eta azentua silaba berdinean doaz, baina ez lehenengo adibidean, eta halakoak

azaltze aldera, hain zuzen, proposatu zuen aitzin euskal azentua bigarren silaban joango zela: lat. *pace* > aitzin eusk. *bakhé. Mitxelenaren eta Martinet-en proposamenak Hualdek (1995) aztertu ditu era argi batean.

Artikulua daraman silaba inoiz ere hasperenduna ez izateak nahiko garbi erakusten du silaba hori atonua zela, antzinako erakuslea, hau bai azentodun eta hasperendun, bere autonomia galduz artikulua gisa hitzari atxikitu zitzaionean sortu zena. Badaude, beraz, etimologikoak ez diren aspirazioak alde batetik eta baita galerak ere, bestetik. Baina ez dut uste euskararen aspirazio guztiak “of non-etymological origin” (Trask 1997:159) direnik, ezta gutiagorik ere. Traskek uste du bisilaboetan *ai*, *ei*, *oi*, *ui*, *au*, *eu* diptongoez gain beste edozein bokal elkarren ondoan agertzen baziren (esaterako *bear edo *ao hitzen kasuan) aspirazioa sartzen zela modu automatiko batean bokal horien artean (> *behar*, *aho*). Baina gauzak hala izan balira, ez da ulertzen zergatik dauzkagun ondoko bikote hauek: *sehi* / *sei*, *zahi* / *sai*, *ahur* / *haur* edo ondoko beste adibide hauek: *nahi*, *gehi*, *behi*, *lohi*, *zohi*, *ehun*, *mihi*, e.a. Ia segurutzat jotzen dugu aipaturiko hitz batzutan aspirazioa aurreko *-n-* batetik datorrela, *sehi* eta *mihi*-ren kasuan esaterako; pentsa liteke, beraz, Trasken ikuspuntuari jarrituz *-n-* bokalartean zeharo desagertu ondoren aspirazioa sortu egin dela azentodun bigarren silaban. Baina *behi*-ren kasuan ezin zitekeen halakorik gerta, hitz horren eratorriek, hala nola *betzain*, *beteseqi* eta *Betolaza* toponimoak, *-n-* gabeko aitzin forma bat eskatzen baitute. Berdin gertatzen da bizk. *lotin* ‘tierra húmeda’ eta *lokatzá lohi*-ren eratorriekin edo *zoperrí*, *zotal*, *zohi*-tik datozenekin. Eta nondik etorri daiteke orduan hasperen hori? Ikusirik leherkariak testuinguru horretan mantendu egin direla (*otana* < *ogi*, *errepide*, *erretpide* < *errege*, *artile* < *ardi*, *artizarra* < *argi*, e.a.) ez zaigu beste bideirik geratzen aspirazioari aitzin hizkuntzan lekua egitea baino. Bestalde, *bihi*-ren eratorria den *bikain* hitzak, batetik, eta *mihi*-rena den *mingain* hitzak, bestetik, ezin hobeto erakusten dute zegozkien aitzin formak pare minimoak zirela: **bihi* / **bini*.

Mitxelenaren teoriak azpirazioaren kokapenaren zenbait arazo azentoaren bitartez azal dezakeen arren, “it has some difficulty with the world-initial aspiration found in a substantial number of cases” (Trask 1997:165). Aipatutako erroaren teoriak argi egin dezake, ordea, arazo honetan, Ivan Igartuak idatzi berri duen bezala. Teoria honen arabera aspirazioa bakarrik erroaren hasieran zilegi denez, ez da harritzekoa gero ere hitz bisilaboetan HV(R)-HVR egitura egotea; bakarrik beranduago lotuko zaio aspirazioa bigarren silaba azentodunari, honen hasieran kontsonante hasperengarriren bat baldin badago, HV(N)-KhVR egiturako hitzak lortuz. Egitura biak akitanierazko izenetan aurki daitezke oraindino: *hahann-* eta *hontharr-* hain zuzen. Ematen du atzizki batzu berez azentodunak izan zitezkeela, nahiz eta hirugarren silaban joan, ondoko izen honek aditzera ematen duenez: BAISOTHAR-. Geroago kokatu beharko da, beraz, hasperena hitzaren lehenengo silaba bitariko bakar batera mugatzen duen desaspirazio legea. Honen guztiaren ondorio gisa ikus daiteke euskal hitz askok hasieran duten aspirazioak sustrai luzeak dituela, aitzin euskal erroari zor zaizkionak, eta bestetik, akitanieraren egoera bilakaera luze horren barruan koka daitekeela.

Inork ezin du ukatu antzin aroko lekukoek euskararen historiaren ezaguerarako duten garrantzia. XIX. mendean A. Luchaire-ren lanekin hasi eta urte askotan zehar hizkuntzalari gehienak garbi izan dute euskararen aztarna zaharrenak Akitanian aurkitzen zirela erromatarren inperioaren lehendabiziko bi mendetan. Lekuko horiek,

hots, latinez idatziriko epigrafeetan agertzen diren pertsona eta jainko izenak, Mitxelenak 1954an eta nik neuk 1984an ikertu genituen, orduko argitalpenen gainean. Harrezkero ez da Akitanian bertan datu asko gehiagorik azaldu, ezta ezagutzen zirenak ere berriro editatu. Datu berrien faltan beharrezkoa zaigu epigrafe zaharren edizio gaurkotua, oso ugariak baitziren galdutako edo ondatutako harrien gainean egindako irakurketak. Halaz guztiz ere, Luchaire edo Sacazeren obra zaharkituak batere kritikarik gabe erabiltzen dira historiagile, arkeologo eta hizkuntzalarien artean, batez ere frantsesak badira edo frantsesez idazten.

Akitania bera antzu agertu baldin bazaigu azken urteotan lekuko berrien ikuspuntutik, fortunaren kolpe itzal bati esker akitaniar izen mordo bat ezagutzera eman da Alemaniako Espiritatik gertu Rin ibaiondoaren garbiteka lanetan aurkikuntza arkeologiko baten ondorioz. Zilarrezko bitxi batzurekin batera garbitzaileontziak 129 zilarrezko xafla finak atera zituen ibaiondotik, horietatik hogeitamar inguruk latinezko testuak idatzirik zituztelarik. Testu guztiak erromatarren Marte jainkoari eskainitako *ex votoak* dira eta alde horretatik Inperioan zehar hainbat tokitan agertutako izkri-zioen pareko. Baina xafla horiek aztertu zituzten arkeologoei lehenengo momentutik deigarri egin zitzaiena hango pertsona izenen eitea izan zen, eze berehala konturatu ziren Akitaniako izenen antz itzela zutela (Bernhard, H. 1990). Eta halaxe da. Izenak zerrendatu ondoren bertan aurkitzen ditugu akitaniar antroponimian oso ezagunak eta euskararen aldetik ongi azalduak dauden izenak, hala nola *Sembus*, *Bioxus*, *Andossus*, *Sembedo*, *Belex*, *Bonxus*, e.a. Hauen ondoan badaude beste batzuk, galiar jatorrizkoak izan arren, Akitanian ere usuko zirenak, *Donnus* eta *Taurus*, besteak beste, eta azkenik etimologia garbirik ez dutenak, baina Akitaniako izen askorekin gertatzen den bezala, akitaniar jatorrizkoak izateko batere eragozpenik ez dutenak: *Salixus*, *Carerdo*, *Banbix*, *Berexe* e.a.

Izen hauek erakusten duten lehenengo ikasgaia zera da: Untermannek (1963) sorturiko "Namenlandschaft" nozioa nire ikerketa alorrari ere aplikatuz, Akitania eremu onomastiko berezitat jotzea ez zela apriorismo huts bat, bilduriko corpusetik berez mekanikoki zetorrena, errealitatearen isla baizik, inork ere aldeazurretik pentsa ez zezakeen urrutiko toki batean kasualidadez aurkitutako lekukoek baieztatzen duten bezala. Hau da, datu batzuren gainean eraikitako azalbide teoriko batek zeharkako bidetik etorri zaion baieztapen experimentalak izan du urte batzu geroago.

Xafla horietan agertzen diren izenak interesgarriak dira erabat akitaniar antroponimiaren zenbait ezaugarri berri erakusten dizkigutelako.

Aurkikuntza hauek baino lehen hutsaren hurrekotzat jo zitekeen hitz hasierako X- horren lekukotasuna. Orain, ordea, askoz ere zerrenda txikiago batean bi izen, batere ilunak ez direnak, gainera, X- batez hasten dira: *Xembus* eta *Xalinis*. Garbi dago lehendabiziko izena orokorragoa den *Sembus* izenaren aldaera dela, bigarrena latinezko *Salinis*-ena denaren moduan, hau ere lehenengo corpusean ezagutzen genuena. Horrek erakusten digu, alde batetik, X- hitz hasieran ez dela fonema autonomo baten adierazpidea, S-ren bitartez idazten den edo diren txistukari frikari(ar)en aldaera baizik, eta bestetik, ondorio gisa, lehenengo azalbidea funtsean indartu egiten dela, aldaera hori euskararen historian Erdi Aroko lekuko zaharrenetik hasita ezagutzen dugun asimilazio bustidura edo palatalizazioaren adibidetzat hartzen badugu. Euskarak, euskalkiz euskalki ezberdina den asimilazio bustidura edo palatalizazioaren ondoan, badu beste moduko bustidura bat, L. Oñederrak (1990) *buztidura adie-*

razgarria deitu zuena, eta hiztunak pertsona edo gauza batendako duen samurtasuna edo erakutsi nahi duenean erabiltzen dena. Erdi Aroan bertan *domna Gutia* (1061. urtean) buztidurarik gabeko izenaren ondoan *Munio Guchi* (1023. urtean) aurkiten dugu. Orpustan jaunak adibide gehiago batu ditu bere azken liburuan, *seme*-ren kasua barne: *cheme*, *chemeto*, *xeme*. (131 orr.)

Hau da, pentsa dezakegu buztidura adierazgarri fenomeno honen sustraiak oso urrutikoak direla, antzinatora ere heltzen direlarik gutienez.

Xafla horiek beste gauza interesgarri asko ere eskaini digute, banan banan orain tratatu ezin ditudanak, hala nola izen, atzizki eta aldaera berriak. Horien artean bakarrik *Doxxi* izenaren kasua aztertuko dut hemen. Izena monosilaboa da —amaierako bokala latinezko genitiboaren marka besterik ez da— eta /dots/ ahoskatzen zenaren idazkera sistematikoa da. Izenak, monosilaboa izanez gain, /d-/ horzkari ahostuna erakusten du hasieran, prinzipioz euskal hitz jatorrek ez dutena. Seguru nago G. Bähr-ek bere garaian izen honen berri eduki izan balu ez zukeela euskal izentzat hartuko, arrazoi honengatik hain zuzen: (Namen wie *Derro*, *Deri* sind dagegen wegen des Anlauts wohl kaum baskisch: *B.u.I.* 41). Baina lehen aipatu dugun erro teoriaren arabera ez dago eragozpenik aitzin euskal erroak hasieran *d-* izan zezan, zenbait bisilaboen bigarren silabak (arestiagoko erro bakarrek morfemak) erakusten duen legez. Gogora dezagun hemen De Rijken (1992) *da-* aitzin adizlagunari buruzko berreraiketaren ereduak.

Akitanieran bertan honen baieztapena izan dezakegula uste dut, izen hau cor-pusean guztiz ugaria den *Andoxsus* izenarekin lotzen badugu. Ugaria izateaz gain izen honen erabilera deigarri egiten zaigu hiru kasutan jaingo izenari epiteto gisa atxikitzen zaiola ikustea: *Herculi Ilunno Andose* Gers-eko epigrafe batean bezala.

Lehenagotik begiz jota neukan izen honetan ‘arra’, ‘ordots’ esangura zuen /dots/ edo /(h)ots/ formako erro bat onartu zitekeela. Alde batetik emakumezkoen *Andere* izenaren ordaina izango litzateke, eta bestetik euskarazko *bildots*, *orhots*, *ordots* eta antzeko animalia hitzetako erro berbera erakutsiko luke. Espira inguroko xaflek etimologia hori bi aldetatik baieztatu dutela uste dut: batetik *Doxxi* (gen.) formak berre-raikitako balizko *dots hura benetan gauzatu egin du eta bestetik akitanierazko *Herculi Ilunno Andose* egituraren eredu latinezko *Marti domino*-n aurki daiteke.

Pirinioetatik hegoaldera lekukoak nahiko ugari dira Lergako epigrafea 1960an argitaratu zenez geroztik. Akitanian euskal leinuko izenak garbiak eta ugariak ziren bitartean, Hego aldean eta batez ere Baskoien lurraldean ez ziren inondik ere agertzen, horrek sortzen zuen egonezina eta harridura nabariak zirelarik. Lergako izkruzioa agertu zenean, berehala ikusi zen hango izen bat, *Ummesahar*, euskaratik errez uler zitekeela eta beste biak, *Abisunhar* eta *Narhungen*, hain zuzen, Akitaniako izen multzoan sar zitezkeela bai osagaien aldetik bai fonetika arrazoiengatik ere. Mitxelena Lizarra inguruan agerturiko *Loxa* jainkosaren izena ere euskarazko *lotsa*-rekin lotu zuen eta halaxe lortu zen euskal izen multzo ñimiño bat Nafarroan ere identifikatzea (Mitxelena, 1991).

Harrezkero astiro baina geldiuenerik gabe agertu dira akitaniar kutsuko izenak baskoien lurraldean, batez ere Nafarroako erdigune, ekialde eta Aragoiko Cinco Villas inguruetan (Beltrán, 1986, 1993). Bateren batek euskal etimologia onargarria du, hala nola *Larrahe* jaingo izenak, euskarazko *larre*-rekin parekatzen badugu. Gehienek,

ostera, ezaugarri formalak besterik ez dituzte erakusten: hauetarik inportanteena aspirazioa da (*Dusanharis* Sofuentesen, *Serhuhoris* Valpalmasen eta *Jeihear* Botorritako latinezko brontzekoa), baina aipatzekoak dira baita azken morfemetako afrikatuak (*Selatse*) zein sudurkari geminatuak ere (*Itsacurrinne*) (Jimeno et al. 1998, Velaza, 1999). Jainko izenen gehienetan *-e* taxuko desinentzia aurkitzen dugu, baita Akiataniako izen askotan ere, hizkuntzaren beraren eta ez latinezko *-ae* datibo desinentziaren adierazpena izan behar lukeena.

Aipaturiko azken jainko izena deigarria da benetan: lehenengo kolpera *txakur* gogoratzen digu, baina hitz hasierako *its-* eta amaierako *-inn* horiek arazoak sortzen dituzte; lehengo txistukari afrikatua adierazteko bide bat izan daiteke?, bigarrena akitanierazko *-enn* atzizkiaren aldaera? (ik. *Belexennis* (gen.), *Leherenn* eta *Boriunno* jainko izenak). Hitz zatiketa beste modu batera egitea ere zilegi da: **Itsacur(e)rren-*, esaterako, Nafarroan bertan agertu den *Errensae* teonimoarekin bigarren osagaia parekatuz, edo euskarazko *itsats* dela lehendabiziko osagaiaren iturburua. Momentuz ez dut uste askoz gehiago aurreratu dezakegunez etimologiari dagokionean behintzat.

Izen hauek agertu diren eremuan iberiar jatorrizko izenak ere aurkitzen dira, *Geseladin*, *Turciradin*, *Gurtaanbas*, eta Ascoliko brontzean *segienses* herri izenaren azpian zerrendatzen direnak: *Sosinaden*, *Urgidar*, *Nalbeaden*, *Umargibas*, *Luspangibas*, e.a.

Betidanik pentsatu izan da Ascoliko brontzean agertzen diren izen guztiak iberiarrak direla, areago, iberiar onomastikaren egitura kanonikoa eskaintzen dutela. Baina kontuan izanik brontzeak jasotzen dituen izenak Pirinioetatik Ebro ibairainoko biztanleenak direla, ezin dugu saihestu batzuk akaso euskal leinukoak izan daitezkeenik: niretako *Enneges* ez da iberiera orokorreko izena, aipatu dudan eremu mugatuan agertzen zaiguna baizik eta Erdi Arotik Euskal Herrian oso zabaldua den *Enneco*-ren kidea.

Orain astiro tratatu ezin baldin badut ere, esan behar da antzinako hispaniar hizkuntzalaritzan izena duen J. de Hoz-ek iberierari buruzko gogoeta berri arras interesgarriak plazaratu dituela azken urteotan. Hitz gutitan esanda, J. de Hoz-ek ez du uste iberiera iberiar testuak agertzen diren leku guzti guztietan ama hizkuntza zenik. Alderantziz, zeharkako lekukotasunengatik pentsatzen du iberiera trukerako hizkuntza bezala lehenago eta hizkuntza idatzi jaso bezala geroxeago lurralde askotara zabaldu zela. Gure aldetik, baskoien eremuan izen propioek erakusten dutena, hau da euskal leinuko eta iberiar jatorriko izenen nahasketa, ikuspuntu horren sustentagarri izango litzateke.

Aurkikuntza berriak ez dira honenbestean bukatzen, eta oraingoan Ebro Ibaira begiratzen duten Soriako lurralde garaietara garamatzate. Espinosa eta Usero historiagileak (1988) Cidacos ibar goieneko latin epigrafeak aztertzerakoan konturatu ziren bai izenen aldetik, bai marrazki eta formaren aldetik epigrafe horiek multzo berezi bat osatzen zutela, Calagurris inguruko giroarekin Mesetakoarekin baino zer ikusi gehiago zuena. Epigrafia horren berezitasunaren arrazoia ez zen inguruko *officina* edo lantegi bateko ekarpenean bilatu behar, bertako biztanleen gizarte batasunean baizik, “en la homogeneidad social y cultural de las (gentes) que las tallaron” (Espinosa, 1989).

Espinosa eta Userok bere lanean bildutako materiala ikusi ondoren berehala konturatu nintzen bi gauzataz: bata, hango pertsona izen gehienak ez zirela zeltiberiak edo zelta leinukoak, nahiz eta epigrafeak teoriarik Zeltiberian edo gutienez lurralde indoeuroparrean agertuak izan, eta bigarren, ezin zitezkeela nahitanahiez iberikotzat jo: antzinatean handik ez urruti topatzen genuen hizkuntzaren bitartez, euskara zaharren bitartez alegia, azal zitezkeela.

Hona hemen orduko datuak 1992an Escorialeko ikastaroetan emandako iruzkinarekin batera (Gorrotxategi, J. 1993):

Junto a los *nomina* latinos acordes con los atestiguados en las ciudades romanas de los alrededores, hallamos un nombre indoeuropeo frecuente en el Ebro y la Meseta, *Maternus*, y otro *Caericioco[n]*, presumiblemente un genitivo de plural de una agrupación familiar celtibérica. Pero lo llamativo es la existencia de otros no indoeuropeos:

AR[...].]THAR, LESURIDANTARIS (gen.), OANDISSEN[...], ARANCISIS (gen.), SERGIA (nom. fem.), AGIRSENI (gen.).

cuya asignación a la lengua ibérica tampoco es incontestable. En primer lugar el antropónimo amputado *Ar[...].thar* presenta una aspiración vasca, el segundo...no tiene paralelos en ningún lado, excepto en el suf. *-tar*, tampoco los tiene *Oandissen[ni Arancisis*

Antroponimia honen ezaugarritasun nabariena analisirako iluntasunean eta parekotasunean datza. Identifikatu daitekeen *-tar* osagaiak bai akitanierazko onomastikan eta bai iberierazkoan ere sartzeko eskubideak ditu. *Agirseni* izena bere aldeetik Ascoliko brontzean agertzen diren *Agirnes* eta *Agerdo* izenekin lotu behar da, dudarik gabe, baina ia ez da hain segurua izen horiek nahitanahiez iberiar leinukoak direnik. Zerrenda horretan agertzen zen ezaugarri ñimiñoa nahi bada baina zeharo esanguratsua *-thar* atzizkian adierazten den aspirazioarena da, horrek baskoien hizkuntza girora eramaten gaituelako dudarik gabe. Hori zen dena.

Zorionez duela oso guti egin diren aurkikuntza berri eta ikerketek esker, izen mota honetako multzoa modu argigarri batean ugaritu zaigu. Gómez Pantoja eta Alfaro Peña historiagileek (2001) lurralde horietako epigrafe berri batzu argitaratu dituzte. Guri interesatzen zaizkigun izenak soilik aipatuz —espero zitekeenez erro-matarrak eta zenbait zeltar badaude eta—, hona hemen lekuko berriak:

1. Antestius | **Sesenco** | Paterni f. | an(norum) XX h.s.e.

(La Laguna, Villar del Río, Soria)

2. Sempr(onia) | **Attasis** f. | ic. s. est | an(norum) XXV | C. Se[m.]

mat(ri)

(Valdecantos, Santa Cruz de Yanguas, Soria)

3. Antestia | **Onse** Mur|rani filia | annorum | XXV | Hic s. e.

4. Aeonso --> Ae(milius) **Onso** (irakurketa onargarriagoa)

5. Ponti[a C]ons<i>li[a Na]sonis --> Pontia **Onse**

Lehenengo izena, hots *Sesenco*, Antistius-en *cognomen* gisa hartu behar dena, edozein euskaldunentzat Lergako *Ummesahar* hura bezain ulergarria da. Bai akitanier onomastikan eta baita Erdi Arokoan ere oso normala den *-co* atzizkia aurkitzen dugu hemen *zezen* animalia izenari loturik diminutiboa eratzeko asmoz.

Horren garbiak ez izanik ere, emakumezkoen *Onse* eta gizonezkoaren *Onso* guztiz interesgarriak dira sexoa atzizki berberaren bi aldaeren bitartez adierazi egiten

dutelako: akitanieraz *-so* (eta antzekoa edo berdina den *-x(so)* sexu biren izenen eraketan erabili arren —*Sembexson-* eta *Anderexso-*k erakusten duten bezala— askoz ere ugariagoa da gizonezkoenetan; *-se* atzizkia, ordea, soilik emakumezkoenetan agertzen da. Beraz, akitanier onomastikan ikusten dugun banaketa berbera aurkitzen dugu Soriako izen bikote honetan. Erroari dagokionez, akitanierazko *Bonxsoni* izen konparagarriaren azpian dugun *Bon-* erroarekin *Hon-* erroarekin baino lehenago lotuko nuke. Honek, jakina, aldaera dialektalak eskatzeaz gain aldaketa fonetiko jakin bat eskatuko luke: hasierako ezpainkari ahostunaren desagertzea /o/ bokal biribilaren aurrean (*#bo- > o-). Mitxelena konturatu zen euskarazko hitz jatorretan, *bost* eta ezer guti gehiagoren salbuespenak salbu, ia ia ezezaguna zela fonema hori /o/ baten aurrean. Pentsa dezakegu, beraz, aldaketa hau zenbait tokitan emana zegoela jadanik antzinatean.

Nolanahi ere den izen bakoitzaren azalpen etimologikoa, garbi dago multzoaren ezaugarritasun nabarrienak euskara zaharraren eta akitanieraren eskutik azaltzen direla. Baina Alemaniako zilarrezko xaflen aldean, Soriako lekuko hauek ondorio historiko sakonagoak eduki ditzakete. Historiagileek ez dakite zergatik agertu diren Alemanian, bere sorterritik hain urrun, akitanier xafla eta izen horiek, Akitaniako jendeak eramanak izan ziren edo germiniarrek hemen ostuta (noiz?) harantzako bidean galdu edo nahita uretako jainkoei eskaini zieten¹, baina inork ez du uste han bertan egiten zen hizkuntzaren frogatzat har daitezkeenik. Soriako lekukoak, oster, beste mota batekoak dira erabat: Espinosa eta Userok esaten zuten bezala, bertako gizartearen ekarpen bat. Segurutzat eman dezakegun arren gizarte horren zati batek behintzat euskara zaharra ezagutzen zuela, ez da hain erraza euskaldun horien presentziaren arrazoia jakitea. Izan daiteke euskara lurralde horretan zelberieraren indartzea baino lehenagoko hizkuntza propioa izatea, Errioxarako Merino Urrutiak aspaldi defenditu zuen bezala, edo abelzaintzara emana zegoen gizarteak Calagurris bestaldeko jende euskaldunarekin mantentzen zituen harreman estuen isla izatea. Bigarren hipotesi ahul honetan ere behar beharrezkoa da onartzea euskara Ebro Ibaian egiten ziren hizkuntzetariko bat zela.

Euskadiko lurraldeei dagokienean lekukoek lehenago berean segitzen dute, Araban salbuespen tipi bat eginik. Euskal kutsua zuten izenak oso urriak ziren, Iruñako izkizio batean agertzen zen *Illuna* izena —orain galduta dagoena, gainera— eta Miñaoko *Helasse* jainkoaren izena besterik ez. Orain zerrenda honi Agurain ondoran agertu diren beste bi izen gehi diezaizkiogu: *Luntbel...*(?) eta *Lutbelscottio*, nahiz eta euren azalpen etimologikoa zaila izan (Gorrochategui, J, 1995, *Veleia* 12). Bizkaian eta Gipuzkoan ez da aurkikuntza epigrafiko berririk izan, baina interesgarria da esatea Foruako izkizioan irakurtzen zen *Iviliae* jainkosa izena, nik neuk ere erromatarren aurreko izena kontsideratzen nuena, orain J. Velazaren bista fina eta jakiturari esker *Tutelae* irakurri behar dela. Honekin batera oso arraroa egiten zitzaigun euskal kutsurik gabeko izena ezabatu behar dugu lekukoaren artetik.

Zuzenezko lekukotasunezak berez ez luke arazo handirik sortuko, zeharkakoek, batez ere iturburu klasikoetan aipatzen diren toponimoek ez balute beste batera bide-ratuko; *Deva* edo *Nerva* ibaien izenak, esaterako, oso garbiak dira zeltaren aldetik. Tolomeoren zerrendaren arabera, Barduloen herrien artean *Segontia* eta *Trition* zelta

1 Xafla hauen gainean argibide gehiago nahi duenak ikus dezake *Revue Aquitania* 19 (2003), 25-47 aldizkarian argitaratu dudan lana.

jatorrizko izen garbiak dira eta gainontzeko gehienek zeltazko atzizkiak edo eratoritze moldeak dituzte. *Oiasso* izango litzateke Tolomeok aipaturiko leku izen euskaldun bakarra, geroko *Oihartzun*-ekin parekatzen bada.

Datu guzti hauen aurrean pentsa daiteke hiru euskal probintzien gehiengo antzinatean ez zela euskalduna eta geroago bihurtu dela euskaldun. Ikerlari ezagun batzu horixe bera uste izan dute, euskalduntzearen abiapuntua Nafarroako Baskoien lurraldean edo Iparraldeko Akitanian jarritz. Jakin badakigu orain, zuzeneko lekukoei esker, lurralde bi horietan euskara egiten zela baina zeharkako lekukotasunak edukiko bagenitu bakarrik, kostaldeko probintzietarako daukagun bezalaxe, ez litzaziguke hain erraza suertatuko lurralde horien erabateko euskalduntasuna frogatzea.

Ikus ditzagun Tolomeok baskoien eremuan aipatutako hiriak:

Iturissa (Poza lizenziadunaren garaitik euskarazko *iturri*za ulertu da hemen; dudarik gabe zerrendako euskal izen garbiena, ez bada *Iturista* irakurri behar behintzat), *Pompeion* (eusk. ala iber. *-elon?*), *Bituris* (gal. *Bituriges*, *Biturix*), *Andelos*, *Nemanturista*, *Curnonion*, *Iacca*, *Gracuris* (iber. *-gurri*), *Calagorina* (iber. *-gurri*), *Kasconton*, *Ercauica*, *Tarraga*, *Muscaria*, *Segia*, *Alauna*.

Zerrenda honetan ez ditugu zeltar izen nabariak aurkitzen, baina dudarik gabe *Bituris* Bordele inguruko *Bituriges* deritzan herriarekin lotu daiteke eta *Andelos*, hala nahita, *ande-* + *-lo-* zatitu daiteke eta *Uxello-* eta *Mediolo-* toponimoen antzera ulertu; honetaz gain *Segia Segobriga*-n eta antzeko toponimoetan agertzen den osagai zeltar nabariaren bidez uler daiteke eta izen askotan sakabanaturik indieuropar atzizkiak ere atzeman daitezke. Iberieraren aldetik ikusiko bagenu kontua, hor sartuko genituzke ziurki *-gurris*, *-elon*, *Tarr-* eta besteren bat. Ezin daiteke esan, beraz, baskoien toponimia zaharra euskal toponimia gardena denik, ezta hurrenik ere (Gorrochategui, J. 2000).

Akitania zaharreko toponimoek ere arazo berdintsuak dituzte:

Bigerri herri izena oraingo *Bigorre*-ren aurrekoa da dudarik gabe; gero *Bearn* /*Biarno* emango duen *Bearnarum* izenak agian euskarazko *behe*-rekin lotu daitekeen osagarria du; *Tarbelli* herri izena galoaren aldetik (ik. galozko *tarbo-* ‘zezen’) zein euskararen aldetik azal daiteke (eusk. *-bel* ‘beltz’) eta *sic de caeteris*.

Toponimiaren arazo hau alderantziz aztertuko bagenu, hau da, Erdi Arotik hasita atzera eginez *-oz* atzizkiz amaitzen diren toponimo ugarien arrastoa Antzinatean bilatzea izango balitz gure xedea, oso zaila egingo litzaziguke antzekorik aurkitzea. Toponimo horien zabalguneari erreparatzen badiogu, berehala konturatuko gara, Rohlf's eta Séguy hizkuntzalariek esan zuten bezala, akitaniera edo antzin aroko euskararen eremua adierazten dutela, eta gure tradizio idatziaren hasierarako jadanik eredu ihartu ez produktiboa izateaz gain oinarri lexiko ilunei atxikituta zegoela kontuan harturik, *-aga*, *-eta*, *-za* eta antzeko atzizkiak baino askoz zaharragoa izan behar zuela pentsatu behar dugu nahitanahiez.

Hori guztia jakinda, bururatu zait niri antzinako *Itinerarium Antonini* delakoak Akize eta Bordele artean kokatzen dituen *Segosa* eta *Coequosa* leku izenak aipatu dugun atzizkiaz osaturik egon daitezkeela, baina, egia esan, konparazioa *Tolosa*, *Succosa*, *Dertosa* eta antzeko /o:/ luzedun-*osa* atzizkia duten hiriekin askoz ere errazagoa izango litzateke.

Kosta aldeko probintzietara bihurtuz, gorago esan dut antzinako iturriek eskaintzen diguten toponimiak gehiago bideratzen gaituela zeltar aztarnak euskal aztarnak baino aurkitzera. Beste aldetik, Baskoien eta Akitaniako leku izenak azterterakoan deigarri egin zaigu euskaldun ziren eremuetan euskal toponimoak horren urriak edo zalantzakakoak izatea. Leku izenen eta pertsona izenen arteko desadostasunaren arrazoa nolana hiko ere den, uste dut iturrietan somatzen den euskal toponimiaren eskasiak ezin duela besterik gabe lurralde hauen euskalduntasuna ukatu.

Kontu hauetan arkeologiak laguntza apur bat eman dezake, nahiz eta hizkuntz egoeraz ezin zuzenean ezertxo ere esan, identifikatzen dituen kultura estrato edo geruzen hurrenkeran jarraipena edo etenak ikusteko gai bada. Gure gairako oso garrantzitsua den Burdin Aroa duela urte guti hasi dira seriozki aztertzen eta uste dut denbora guti barru sintesi moduko bat eskaintzeko moduan egongo direla.

Hizkuntzalaritzaren aldetik, froga bila ari bagara, uste dut zeharkako zerbait ekarri dezakegula auzi honetara. Toponimoekin zer ikusia duen kontua da, latinetik edo ustezko zeltiberieratik mailegatutako leku izenek ematen duten zeharkako argibidea, hain zuzen ere. Jakin badakigu euskarak latinezko hitzak garai ezberdin batzuetan mailegatu dituela eta jatorrizko forma latindarra kontuan harturik erabakitzekeo gai gara mailegu goiztiarra edo berantiarra den. Euskal maileguetan egiten den soinu aldaketen hurrenkera ez da zoritxarrez irladeraz egiten denaren bezain zehatza eta aberatsa, baina aldaketa batzutan oinarriturik erraz bereizi daitezke hitz hasierako belarea mantendu dutenak (*gela* bezala), batetik, eta palatalizatu dutenak (*zeru* bezala), bestetik, edo eta latinezko /i/ laburra mantendu dutenak (*bike* < *pice* bezalaxe) edo erromantzeetan bezala /e/ bihurtu dutenak (*fede* < *fide*). Erromantzeen lekukotasuna aztertu ondoren Lausberg erromanistak palatalizazioa III. mendean burutua zegoela uste du eta bokalen arteko nahasketa aurreragokoa izan daiteke.

Honek esan nahi du Arabako *Guircu* toponimoa, latinezko *circu(m)* hitzetik baldin badator, III. menderako gutienez latinetik euskaratua zegoela. Berdina esan dezakegu *Anguelu* leku izenari buruz. Baina hitza mailegu zaharra dela onartzeak ez du berez toponimoaren antzinatasuna frogatzen, zeren toponimoa euskarak bizirik zuen hitzaren gainean edozein momentutan sortu izan zitekeelako. Hau da, ezin da baieztatuta besterik gabe Bizkaiko *Ibarrangelua* III. menderako eratu zenik, *angelu* hitz arrunt bezala ordurako mailebatua zela baizik. Horregatik euskararen altxor lexikoan onartu diren maileguak (*angelu*-ren kasua eta ziurki *zaldu*-rena ere bai, nahiz eta Erdi Arotik hona erabilia ez izan) ezin dira toponimoen antzinatasuna frogatzeko erabili.

Horregatik hain zuzen ere, iruditzen zait Euskal Herriko latindar toponimiari buruzko ikerketa sakon bat behar beharrezkoa dugula erromanizazioaren indarra eta kronologia argiago ager daitezen.

Halako ikerketarik ez dugun bitartean, eskuetan geneukan aria galdu gabe, uste dut aurkitu daitekeela argudioren bat antzinako euskalduntasunaren alde.

Getaria leku izenak ematen digu aukera. Gauza ezaguna da bi Getaria daudela, Gipuzkoakoa eta Lapurdikoa, euskaraz beti berea duten *-a* erakusten dutenak (ik. *getariarra*; *Donostiarrak ekarri dute | Getariatik akerra*; 1193. urtean *cattarie*). Ematen du Aizkibelen hiztegian datorren sarrerak (*getaria* “atalaya en que se hacen las señas por humos”) Larramendiren sormenari zor diola bizitza (Lar. Fumante, keeztaria, getaria, kegillea) (ik. OEH, s. u. *getaria*). Gavelek uste zuen gaskoierazko

getari ‘begirale edo begiratzeko postua’ zela, besterik gabe, baina pentsa daiteke latinezko *caetaria*-tik ere etor daitekeela problemarik gabe. Etimologia honen alde hitz amaierako *-a* bokalaren tratamendua ez eze alemanez “Realprobe” deitzen dena ere aipa genezake: hiri bi horietan, hain zuzen ere, erromatar garaiko arrain industriak, *caetaria* deitzen zirenak, aurkitu dituzte. Etimologia onartzen badugu, hasierako leherkari belareak oso garbi adierazten digu mailegua latin arrunteko palatalizazioa baino lehenagokoa dela, eta kasu honetan nekez pentsatu daiteke latindar hitz hori toponimo ezagun eta konkretu hauetatik at euskal hitz arrunt bezala ere mailegatu zela.

Bostgarren mendetik aurrera, Inperioko leku askotan bezalaxe egundoko aldatetarik egon ziren politika, gizarte eta, ziur asko, hizkuntzaren aldetik ere. Hurrengo mende ilun horietan ereiten da IX.etik aurrera agertuko zaigun Erdi Aroko euskara. Aldaketa horien nondik norakoa gaur egun bakarrik arkeologiak eman diezaiguke eta badirudi azken urteotan aurkikuntza arras interesagarriak egon direla Hego Euskal Herriko zenbait lekutan, Basauri ondotik hasita Iruñearaino. Baina hori guztia euskal historiaren beste atal bateko atarikoak denez, nire gaurko xedetik urruntzen dena, esan dudanarekin bukatutzat emango dut nire hitzaldia, Euskaltzaindiaren gonbita biziki eskertuz.

BIBLIOGRAFIA

- BÄHR, G., (1948). *Baskisch und Iberisch*, [Eusko Jakintza], Baiona [gastelaniazko bertsio bat laster argitaratuko da].
- BELTRÁN LLORIS, F., (1986). “Epigrafía y onomástica de las Cinco Villas”, *Actas de las I Jornadas de estudio sobre las Cinco Villas*, Zaragoza, 53-93.
- (1993). “Un nuevo antropónimo vasconico en la comarca de Las Cinco Villas (Zaragoza)”, *Homenatge a Miquel Tarradell*. Bartzelona.
- BERNHARD, H., H.-J. ENGELS, R. ENGELS & R. PETROVSZKY, (1990). *Der römische Schatfund von Hagenbach*, Mainz [berezikiki R. Engels, “Zur Herkunft der Votivbleche auf Grund der Namen”, 14-19].
- ECHAIDE, A., (1967). “Topónimos en -oz en el País Vasco español”, *PV*, 11-14.
- ERNOUT, A. - MEILLET, A., (1967) (4. arg), *Dictionnaire étymologique de la langue latine*, Paris.
- ESPINOSA, U. & L. M. USERO, (1988). “Eine Hirtenkultur im Umbruch. Untersuchungen zu einer Gruppe von Inschriften aus dem conventus Caesaraugustanus (Hispania Citerior)”, *Chiron* 18, 477-504.
- ESPINOSA, U., (1989). “Una *officina* lapidaria en la comarca de Camero Nuevo (La Rioja)”, *Estudios sobre la antigüedad en homenaje al profesor Santiago Montero Díaz* [Gerión, Anejos II], Madril, 403-415
- GÓMEZ PANTOJA, J. & ALFARO PEÑA, E., (2001). “Indigenismo y Romanización en las tierras altas de Soria”, in: Fco. Villar & P. Fernández Alvarez (arg.), *Religión, lengua y cultura prerromanas de Hispania, VIII Coloquio sobre lenguas y culturas paleohispánicas*, Salamanca, 169-187.
- GORROCHATAGUI, J., (1984). *Onomástica indígena de Aquitania*, Bilbao.
- (1987). “Situación lingüística de Navarra y alrededores en la antigüedad a partir de las fuentes epigráficas”, *I Congreso General de Historia de Navarra* [Príncipe de Viana, Anejo 7], Iruñea, 435-445.

- GORROCHATEGUI, J., (1993). “Las lenguas de los pueblos paleohispánicos”, M. Almagro (arg.), *Los celtas*, 409-429.
- (1993) “La onomástica aquitana y su relación con la ibérica”, *Lengua y cultura en la Hispania prerromana. Actas del V Coloquio de lenguas y culturas prerromanas de la península ibérica*, Salamanca, 609-634.
- (1995). “Basque Names”, in: E. Eichler, G. Hilty, H. Löffler, H. Steger & L. Zgusta (arg.), *Proper Names Studies. An International Handbook on General and European Onomastic Sciences. I*, Berlin- New York [Handbücher zur Sprach- und Kommunikationswissenschaft], 747-756.
- (1995). [1997], “Los Pirineos entre Galia e Hispania: las lenguas”, *Veleia* 12, 181-234.
- (1995). “Basque and its Neighbors in Antiquity”, in: José I. Hualde, Joseba A. Lakarra & R.L. Trask (arg.), *Towards a History of the Basque Language* [Current issues in linguistic theory 131] Amsterdam / Philadelphia [John Benjamins], 31-63.
- (1998) “Euskararen historiarareaz zenbait gogoeta - Algunas reflexiones sobre la prehistoria de la lengua vasca”, Lección inaugural. *Acto solemne de Apertura del Curso Académico 1998-1999 Ikasturteari Hasiera Emateko Ekitaldi Nagusia*, Bilbao, 17-38.
- (2000). “La romanización del País Vasco: aspectos lingüísticos”, *Bitarte* 22, 2000, 87-105.
- (2000), “Ptolomey’s Aquitania and the Ebro Valley”, in: David N. Parson & Patrick Sims-Williams (arg.), *Ptolemy: Towards a linguistic Atlas of the earliest Celtic place-names of Europe*, Aberystwyth, 143-157.
- GORROCHATEGUI, J. & J. LAKARRA, (1996). “Nuevas aportaciones a la reconstrucción del protovasco”, *La Hispania prerromana. Actas del VI Coloquio de lenguas y culturas prerromanas de la península Ibérica*, Salamanca, 101-145
- (2001). “Comparación lingüística, filología y reconstrucción del protovasco”, in: Fco. Villar & P. Fernández Alvarez (arg.), *Religión, lengua y cultura prerromanas de Hispania, VIII Coloquio sobre lenguas y culturas paleohispánicas*, Salamanca, 407-438.
- HOZ, J. de, (1993). “La lengua y la escritura ibéricas, y la lengua de los íberos”, *Lengua y cultura en la Hispania prerromana. Actas del V Coloquio de lenguas y culturas prerromanas de la península ibérica*, Salamanca, 635-666.
- HUALDE, J. I., (1995). “Reconstructing the Ancient Basque Accentual System: Hypotheses and Evidences”, in: J. I. Hualde, J. A. Lakarra & R. L. Trask (arg.), *Towards a History of the Basque Language* [Current issues in linguistic theory 131] Amsterdam / Philadelphia [John Benjamins], 171-188.
- IGARTUA, I., (2001). “La aspiración en vasco: ensayo tipológico y diacrónico”, *ASJU* 35:1, 185-213.
- JIMENO, ROLDÁN, EVA TOBALINA, JAVIER VELAZA, (1998). “Una nueva ara romana procedente de Iscua (Navarra)”, *Epigraphica* 60, 290-294.
- KRAHE, H., (1964). *Unsere ältesten Flußnamen*, Wiesbaden.
- LAKARRA, J., (1995). “Reconstructing the Pre-Proto-Basque Root”, in: José I. Hualde, J. A. Lakarra & R.L. Trask (arg.), *Towards a History of the Basque Language*, Amsterdam 1995, 189-206.
- (1996). [1999], “Sobre el Europeo Antiguo y la reconstrucción del protovasco”, *ASJU* 30:1, 1-70.

- LAKARRA, J., (1998). "Hizkuntzalaritza konparatua eta aitzineuskararen erroa", *Uztaro* 25, 47-110.
- _____ (1999). "Ná-De-Ná", *Uztaro* 31, 15-84.
- LAUSBERG, H., (1970). *Lingüística románica*, 2 lib. Madril: Gredos.
- LUCHAIRE, A., (1876-7). "Les origines linguistiques de l' Aquitaine", *Bull. Soc. des sciences, Lettres et Arts de Pau*, 349-423.
- MARTÍNEZ SAENZ DE JUBERA, M. & J.M. GONZÁLEZ PERUJO (1998). "Onomástica vasca en La Rioja", *FLV* 79, 475-496.
- MERINO URRUTIA, J. B., (1978). *La lengua vasca en La Rioja y Burgos*, Logroño.
- MITXELENA, K., (1954). "De onomástica aquitana", *Pirineos* 10, 409-458 [Orain LH-an, 409-455]
- _____ (1961). "Los nombres indígenas de la inscripción hispanorromana de Lerga", *PV*, 65-74.
- _____ (1977). *Fonética histórica Vasca*, Donostia.
- _____ (1985). *Lengua e Historia*, Madril: Paraninfo.
- OÑEDERRA, L., (1990). *Euskal fonologia, palatalizazioa: asimilazioa eta hots sinbolismoa*, Bilbao: EHU.
- ORPUSTAN, J.-B., (1999). *La langue basque au moyen âge (IXe.-XVe. siècles)*, Baigorri: Izpegi.
- RIJK, R.P.G. DE, (1992). "Nunc Vasconice", *ASJU* 26:3, 695-724.
- ROHLFS, G., (1952). "Sur une couche prerromaine dans la toponymie de Gascogne et de l' Espagne du Nord", *RFE*, 209-256.
- SACAZE, J., (1892). *Inscriptions antiques des Pyrénées*. Toulouse [faksimila,1990, Toulouse]
- SÉGUY, J., (1951). "Le suffixe toponymique -os en Aquitaine", *Mémoires du troisième Congrès int. de Toponymie*, II, 218-222.
- TOVAR, A., (1961). *The Ancient Languages of Spain and Portugal*, New York.
- _____ (1977). "Les noms ibériques", *L'Onomastique latine. Colloques int. du CNRS*, 564, Paris, 281-290.
- TRASK, R. L., (1985). "On the reconstruction of Pre-Basque Phonology", J. L. Melena (arg.), *Symbolae L. Mitxelena septuagenario oblatae*, Vitoria-Gasteiz, 885-891.
- _____ (1995). "Origins and Relatives of the Basque Language: Review of the evidence", in: J. I. Hualde, J. A. Lakarra & R. L. Trask (arg.), *Towards a History of the Basque Language* [Current issues in linguistic theory 131] Amsterdam / Philadelphia [John Benjamins], 65-99.
- _____ (1997). *The History of Basque*, London & New York.
- UHLENBECK, C.C., (1947). "Les couches anciennes du vocabulaire basque", *EJ* 1, 543-581.
- UNTERMANN, J., (1963). "Estudio sobre las áreas lingüísticas prerromanas de la península Ibérica", *APL*, 165-192.
- VELAZA, J., (1995). "Epigrafía y dominios lingüísticos en territorio de los Vascones", in: F. Beltrán (arg.), *Roma y el nacimiento de la cultura epigráfica en Occidente*, Zaragoza, 209-218.
- _____ (1996). "Chronica epigraphica iberica: hallazgos de inscripciones ibéricas en Levante, Cataluña, Aragón y Navarra (1989-1994)", *La Hispania prerromana. Actas del VI Coloquio de lenguas y culturas prerromanas de la península Ibérica*, 311-337.

- VELAZA, J., (1999). "Novedades de epigrafía romana de Navarra", *Sylloge epigraphica barcinonensis* 3, Bartzelona, 155-168.
- VENNEMANN, T., (1994). "Linguistic reconstruction in the context of European Prehistory", *TPhS* 92:2, 215-284.
- (1998) "Etymology and phonotactics: Latin *grandis* vs. Basque *handi* 'big' and similar problems", *JIES* 26:3-4, 345-390.

Euskal forma onomastiko baten proposamena pertsona izen historikoen azterketan oinarrituta

Irati Iciar

(Azkue Bibliotekako katalogatzailea)

Jaione Agirre

(Eusko Jaurlaritzaren bekaduna)

SARRERA

Deituren edo abizenen inguruan egin diren ikerketak ikusita, ezin da esan gutxi egin direnik¹. Baina, aipatu behar da egin diren horietan, gehienetan, guztiak ez esateagatik, ikerlariak abizenak zein hizkuntzatatik datozen aztertu (euskaratik ote datozen, latinetik, juduak diren...), edo esanahiaren arabera sailkatzeaz arduratu dira (pertsona izen batetik datozen, ezizen batetik, lanbide batetik, gehien jota, toponimo batean jatorria ote duen...).

Gure asmoa bestelakoa da. Oso gutxi dira izen horiek gaur egun egiten ditugun lanetan euskaraz nola idatzi behar diren esaten edo proposatzen digutenak. Bai ikerketa lan historikoak egiterakoan, bai testuinguru teknikoagoetan, adibidez biblioteka bateko katalogoko sarrera nagusiak sortzerakoan, pertsonaia historikoen izenak idazterakoan arazoak sortzen dira. Hego Euskal Herriko artxibo-dokumentazioa gaztelaniaz dago eta bibliografia gehiena ere. Badirudi gaztelaniazko formak finkatuta daudela baina, gure ustez, euskaraz ere formak finkatu beharra dago.

Horregatik, arazoak planteatu eta adibide bidez proposamen batzuk aurkezten saiatuko gara, batez ere Durangaldeko dokumentazio zaharrenaren (XV eta XVI. mendekoa) azterketan oinarrituz.

Honen guztiaren helburua eredu estandar eta normalizatu bat aurkezteko balio dezaketen parametroak ezartzea da, izenen historia aztertuz eta dokumentazioan agertzen diren forma ezberdinak ikusiz eta baloratuz. Horrela, historiari buruzko euskal testuak sortzeko tresna baliagarria lortuko dugu, beste arlo askotan ere erabilga-

¹ Dirudienez "deitura" hitza da egokiena "abizen" neologismoa asmatu aurretik bazenez —ikus Jose Luis Lizundia (1977) —, baina guk biak erabili ditugu artikulu honetan bigarrena *Hiztegi Batuan* ere agertzen denez 'personen deitura' gisara.

ria izango dena, adibidez, liburutegi bateko katalogoak egiterako orduan, non egileen izen pertsonalak agertzeko modua oso zorrozki dagoen arautua².

Ikerketa honetan erabili dugun dokumentazioa doktorego tesi baten oinarritzko materiala da. Material horrekin lan egiteko orduan hainbat arazo sortu dira ikerketa lana paperean gauzatzera, eta, horien artean, pertsonen izenak modu sistematikoan idatzi beharra izan denean. (Artxibo-dokumentu horietatik abiatuz euskal testuak idatzi nahi direnean – historiako testuak edota doktorego tesia bera, adibidez- arazo ugari sortzen da). Dokumentuetan izenen forma ezberdinak agertzen dira, pertsona bakar bati buruz jardutean ere; horrez gain, garaiko testuak gaztelaniaz daude eta euskaraz idatzi behar denean zalantzak sortzen dira. Durangaldeko Erdi Aroko dokumentazioa transkribatua eta argitaratua dago hein handi batean (askotan transkripzio historikoak izanagatik, forma paleografikoak errespetatzen dituzte). Horrek lana errazten du 1520. urtera arte, ikerketa sistematikoa izatea posible egin duena. Orduetik aurrera heldu zaigun dokumentazioa argitaratu gabe dago eta gehiena aztertu dugu 1600 urtera arte.

Izen historikoen normalizazioa ez da bakarrik ikerketa lanetarako beharrezkoa, beste zenbait arlotan ere ezinbestekoa da. Adibidez, liburutegi bateko katalogoa osatzera. Katalogazio arau zorrotzak jarraitu behar izaten dira pertsona izenak ematerakoan —lehenik deitura(k), gero izena—, baina arau hauek gaur egungo pertsona izenetan oinarrituta daude, zeinetan izen/abizen binomioa ondo finkatuta dauden³. Hala ere, kasu bereziak ere agertzen dira arauetan, adibidez: erlijio izenak (Bartolome Santa Teresa), jatorria adierazten duten izenak (Gonzalo de Berceo), santuen izenak (Inazio Loiolakoa, Santua) eta erregeen izenak forma zuzenean ematen dira, hau da, ez da izenaren ordena aldatzen. Euskara hutsean egindako katalogo batean pertsona izen historikoak euskaraz eman behar direnean, arazoak sortzen dira, zeren “Gonzalo de Berceo” espainieraz forma gardena da (Berceo herriko Gonzalo dela esan nahi du), baina nola eman behar dira izen horiek euskaraz?

Leku izena abizena al da? Noiz dauka leku izaera eta noiz lotzen zaio familiarri? Zein da izen hauen gaur eguneko euskarazko forma? Ordukoaren berdina izan behar al da? Eta abar.

Deituren sailkapena

Deituren jatorriaz eta Euskal Herrian egon diren hizkuntza eta kultura desberdinen nahasketaz artikulatu ugari idatzi dira eta luze joko luke hemen aipatzeak. Hizkuntza desberdinetako jatorridun abizenak daudela adierazi digute horietan, jatorri euskaldunekoak, latindarrekoak, frankoak, juduak... Baina guri dagokigunez, interesgarria da ikustea nola agertzen diren abizen horiek —zein formatan idatzita— eta zein esanahi duten.

Kasuistika oso desberdina dagoen arren, orokorrean pertsona baten izenean ageri diren “zatiak” honela bana daitezke: izena eta deitura (edo abizena). Deituretan lau mota ditugu: patronimikoa, ofizio izena, ezizena eta leku-izena. Hauek dira, gutxi

2 Besteak beste: *Anglo-American Cataloguing Rules* (1998): “Choice of name, 22.1. General Rule” ; *Documentation: Catalogage: Forme et structure des vedettes noms de personne ...* (1986): “1. Vedettes noms de personne: Recommendations Générales” ; *Reglas de Catalogación* (1995): “15.1.1. Elección del nombre”.

3 Katalogatzeko arauei buruz: Pruden Gartzia (2001) eta bibliografian aipatutako nazioarteko arauen erreferentziak.

gorabehera, ager daitezkeen aldagaiak. Normalean, gainera, ez dira edonola agertzen, baizik eta era edo formula jakin baten arabera adieraziak⁴:

Izena

Izena + Ofizioa

Ynigo, açiclador (XV. mende bukaera-XVI. mende hasiera)⁵

Pero, el çapatero (XV. mende bukaera-XVI. mende hasiera)⁶

Izena + Patronimikoa

Miri [sic.] Lopes, la tendera

Martin Micolas

Izena + Patronimikoa + Leku-izena

Maria Ynigues de Sarasua (XV. mende bukaera-XVI.

mende hasiera)⁷

Furtun Sanchez de Çirarroysta (XV. mende bukaera-XVI.

mende hasiera)⁸

Maria Ochoa de Mendaro (XV. mende bukaera-XVI. mende hasiera)⁹

Izena + Leku-izena

- Uxier de armas** / Armazaya / *Armorum custos*
- Uxier de Camara** / Guelazaya, Camarazaya /
Cubicularius
- Uxier de Saleta** / Ataurrezaya / *Atrii custos*
- Vacacion** / Jabaldia, jabalaldia, gueraldia /
Vacatio
- Vacar** / Jabaldu, jabaldia, gueraldia artu /
Vacare

- Vacar algun empleo** / Bagaldian, utsaldia egon, arquite / *Vacare*
- Vacar, darse, dedicarse a algun ejercicio** / Cerbaiti equin, cerbaitera bere burua eman / *Vacare*
- Vacante** / Jabaldia, jabalaldia, bagaldia, utsalaia, gueraldia / *Tempus vacationis*
- Vagabundo** / Orronlar ia, orrontaria, barrunbaguea / *Vagabundus, homo vagus*
- Vagar** / Orron ibilli / *Vagari*
- Valido de algun Principe** / Gayeracoa, balotia / *Gratia valens, graciosus*
- Valia** / Balioa / *Pretium, aestimatio*
- Validacion** / Balioztea, balioztatzea / *Validatio, confirmatio*
- Validamente** / Baliozquiro, bidezquiro / *Validè*
- Validar** / Balioztu, balioztatu, bidezquitu / *Validare, ratum habere*
- Valido** / Baliozá, bidezquia / *Validus*
- Valor, estimacion** / Balioa / *Valor, pretium, aestimatio*
- Valor, animo** / Valorea, sendagailla, alaigoa / *Virtus, fortitudo*
- Valorar** / Balioa eman, ifiñi / *Pretium assignare*
- Vasaliage** / Mendazpia, mempea / *Clientela fiduciaria, homagium*
- Vassallo** / Mendazpicoa, mendecoa, mempecoa / *Cliens fiduciarus, subditus*
- Vecindad de un pueblo** / Urcondea, vecindadea / *Numerus incolarum*
- Vecindad de una casa a la otra** / Auzoa, alboa, aldamera / *Vicinia*
- Vecindad, immediacion** / Urrera, urcoera, aldea, alboa, alboera / *Confinium*
- Vecindad** / Ik. Domicilio
- Vecindario** / Urcondea / *Incolarum numerus*
- Vecino en algun pueblo** / Urcondearra, vecinoa / *Incola, civis*
- Veda** / Beda, bedea, debecua, artzara / *Vetatio, prohibitio*
- Vedar** / Bedatu, debecatu, debetatu, artzaratu / *Vetare, prohibere*
- Vedado** / Bedatua etab. / *Vetatus*
- Veedor** / Icuslaria, beatzallea, beguiralea / *Inspector*
- Veeduria** / Beguiralearen goyendea, veeduria / *Inspectoris munus*
- Velacion** / Beilla / *Vigilia*
- Velar, hazer centinela** / Celatan egon / *Excubias agere*
- Vellon** / Quarto / *Moneta cuprea*
- Venal** / Salcorra / *Venalis, e*
- Vendedor** / Saltzallea / *Venditor*
- Vender** / Saldu / *Vendere*
- Vendido** / Saldua / *Venditus*
- Vendible** / Salgarria, salquizuna / *Vendibilis*
- Vendicion** / Ik. Venta
- Vengador** / Mendecatzallea, mendecaria / *Vindicator, vindex*
- Venganza** / Mendecua, mendeca, mendequioa, venganza / *Vindicare, ulcisci*
- Venta** / Salgoa, saldura, salera / *Venditio*
- Verbal** / Hiztarra / *Verbalis, e*
- Verbalmente** / Hitez, verbaz / *Verbo*
- Verdugo** / Borreroa, guicerlea, burreba / *Carnifex, tortor*
- Verificacion** / Eguitatzea, eguiatzatzea / *Verificatio, comprobatio*
- Verificar** / Eguitatu, eguiatzatu / *Verificare, comprobare*
- Verificado** / Eguitatua etab. / *Verificatus*
- Verificativo** / Eguitagarria / *Verificativus*
- Vexacion** / Bersioa / *Vexatio*
- Vexamen** / Bersiopena, bersiaidia / *Objurgatio satyrica, cavillatio*
- Vexado** / Bersitua / *Vexatus*
- Vicaria** / Ordeintza, vicarià / *Vicarii dignitas, territorium*
- Vicario** / Ordeintzaduna, vicarioa / *Vicarius*
- Vice-Almiranta** / Almirantordea, almirantaren urrena / *Trirremium secunda*
- Vice-Almirante** / Almirantordea / *Praefecti trirremium vices gerens*
- Vice-Canciller** / Cancillerordea / *Vicecancellarius*
- Vice-Propvincia** / Provinciordea / *Viceprovincia*
- Vice-Propvincial** / Provincialordea / *Viceprovincialis*
- Viciar** / Galguirotu, calguirotu / *Vitiare*
- Viciado** / Galguirotua / *Vitiatus, depravatus*
- Vicio** / Galgiroa, calgiroa / *Vitium*
- Viciosamente** / Galgiroz / *Vitosè*
- Vicioso** / Galguirotia, galgirotsua / *Vitosus, luxuriosus*
- Victima** / Jauscaña / *Victima*
- Vigilar** / Ik. Velar
- Vigilante** / Atzarria, beillaria, ernaria, ernaya, arretsua / *Vigilans*
- Vilipendiar** / Ik. Despreciar, desprecio
- Villa** / Iria, uria / *Oppidum*
- Village** / Irichar, uricharra / *Oppidulum*
- Villanaje** / Iripedia / *Plebs, bis*
- Villano** / Bilauna, billaua, landerra / *Plebejus, rusticus, vilis*
- Villazgo** / Iricotiza / *Oppidi vectigal*
- Vilmente** / Bilusquiro, biluzquiro / *Sordidè*
- Vincular** / Lotetsi / *Jure haereditario annectere, devincire*
- Vinculado** / Lotetsia / *Annexus, a, um*

- Vínculo** / Locarria, locaya / *Vinculum*
Vínculo de mayorazgo / Lotetsia / *Haereditatis vinculum, annexio*
Vindicacion / Ik. Venganza, vengarse
Violacion / Borchaera, erchaera, queisaera / *Violatio*
Violador / Borcharia, ercharia, queisaria / *Violator*
Violar / Borchatu, erchatu, queisatu / *Violare*
Violado / Borchatua etab. / *Violatus*
Violencia / Borchá, erchá, erchacuntza / *Violentia*
Violentamente / Borchaz, queisuz / *Violenter*
Violentar / Borchatu, queisatu / *Inferre vim*
Violento / Borcharia, queisaria / *Violentus*
Virreina / Erregueordearen emaztea / *Proregis uxor*
Virreinato / Virreinatoa / *Proregis imperium, munus*
Virrey / Erregue-ordea, Virreya / *Prorex, gis*
Visorrey / Ik. Virrey
Vista / Icusta / *Cognitio causae*
Viudo, a / Alarguna / *Viduus, viduae*
Viudedad / Alargundera, alarguntza / *Viduitas*
Vivienda / Bicitza, biciteguia, soillerua / *Habitatio, domicilium*
Vivificacion / Bicierazotzea, biciazatzea, bicieraguitea / *Vivificatio*
Vivificador / Bizierazlea, biziazatlea, bicieraguillea / *Vivificator*
Vivificar / Bizierazo, biziaraci, bicieraguin / *Vivificare*
Vizcondado / Vizcondadua / *Vicecomitis dignitas, vicecomitatus*
Vizconde / Vizconde / *Vicecomes*
Vizcondesa / Vizcondesa / *Vicecomitis uxor*
Voluntad / Borondatea, oldea, naiguiña, guraguillea / *Voluntas*
Voluntad / Naya, gura, gogoa / *Voluntas, amor*
Ultima voluntad / Azquenaya / *Ultima voluntas*
Voluntariamente / Naita, gurata, naitaz, gurataz, gogoz, borondatez / *Voluntariè, spontè*
Voluntariedad / Naiquindera, guraguillera, gogatsuera / *Voluntarii qualitas*
Voluntario / Naitacoa, guratacoa, naiquindecoa, gogatsua / *Voluntarius spontaneus*
Voluntariosamente / Ik. Voluntariamente
Voluntarioso / Naietsia, naichequia, guretsia, gurichequia, mañosoa / *Propii arbitrii tenax*
- Votar** / Presqueñi, prescañi, bulotatu, promesatu, promesa, bulota, presqueña eguin, votoa eguin / *Vovere*
Votado / Presqueña, bulotatua / *Votus, a, um*
Votar por alguno / Baqueriztu, baqueritza, votoa eman / *Suffragium ferre*
Votado / Baqueriztua / *Suffragio probatus*
Votar / Ik. Jurar, blasfemar
Votante / Baquerizlea / *Suffragator*
Voto / Presqueña, prescaña, bulotá, promesa, votoa / *Votum*
Vuecelencia / Vuecelencia / *Vestra excellentia*
Vuelo / Irteera, urteera / *Pars extans, prominens*
Vuessa merced / Berori, berorrec, bere mesede, merchedea / *Tu*
Vuesseñoria / Ik. Useñoria
Vulgo / Diarte, oraldia. Ik. Plebe / *Vulgus*
Vusted / Ik. Usted
Xefe / Aguintaria, buruzaguia, burua / *Dux, praeses*
Yerro / Utsa, usguita / *Error, erratum*
Zar / Zarà / *Moschorum Imperator*
- HIZTEGIAREN SUPLEMENTO**
DELAKO ZATIAREN HUSTUKETA
Alguacil / Amamerua
Alimentos / Bicicayac
Alquilar / Alogadu
Arrepentirse / Garbatu
Ausencia / Eudea
Avenencia / Avenicoa
Caduco / Irola
Cobro, dar cobro / Burueman
Costumbre / Ecandua, aztura
Dictamen / Gardia
Disponer / Destatu
Disciplinar / Escolatu
Eleccion / Autua
Estipular / Eguincatu
Fiador / Astoa
Heredar / Jaraunsi
Huir / Ines, inesi
Hurto / Esparcoa
Igual / Burquidea
Impotencia / Eciña
Impotente / Ecindua
Impugnacion / Narritamentua
Inexcusable / Mameana
Justificar / Bitoretu
Ladron / Uhuna
Levantar testimonio / Erauci
Libertad / Escudencia, lachoa
Licencia / Baimena, baimendua
Licito / Sori, cilhegui hauzu

Mancomunar / Arrontatu

Mejoras / Obecuntzac

Motivo / Almutea

Negocio / Ecaira

Obligacion / Eguipidea

Obligar / Erchatu

Ocupacion / Lanzaroa

Ocupar / Pochelatu

Pendenciero / Ergarria

Permission / Haizugoa, cilleguigoa

Prenda / Baya

Quebrantador / Autsaillea

Reprehension / Alhadura

Reprehender / Alhatu

Satisfacer / Asquietsi

Soberano / Orotacoa

Sucesso / Guertacuntza

Tirano / Amia

Tormento / Toliacuntza

Vacaciones / Lanartea

Village / Irisca, urisca

Uso de razon / Endelgamendua


Usted / Berori, berorrec / *Tu*

Eliza eta foru eskualde zaharrak hizkuntzaren historiaren lagungarri

Jose Luis Lizundia Askondo
Euskaltzaindia

Euskalkien mapa egikeran, oraintsurarte, hizkuntzalariek egin dituzten aldaketak, nik orain dakardan eliza eta foru eskualde zaharrak, hizkuntzaren historiaren lagungarri izan daitezkeela, gutxi erreparatu dute. Beroren diziplinatik lan oso onak egin dituzte, historialariek gutxiago, ia denak erdaldunak izan direlako. Elizaren ikuspegitik ere, gai honetaz, propioki, egin den lanik ez dut ezagutzen. Foru eskualde zaharrez Nafarroan eta Bizkaiko merindadeez, Arabako kuadriliez, Zuberoako mezu-tegiez eta Gipuzkoako Erdi Aroko eskualdeez ikerketa gutxi egin da. Bereziki, Erdi Aroa argitzeko, baita, gaur ere, euskalkien eta azpieuskalkien banaketarako lagungarri izan zitezkeen lehen diziplina arteko ikerketa hauek.

Lehendabizi, elizarenak aztertuko ditut, politikoak baino askoz aldakuntza gutxiago izan dutelako. Gainera, hizkuntzalariek badakite zer eragin duen edozein erakunde hizkera batean eta, antzina, euskal herritarrentzat eragin nagusia Eliza Erakundeak zuen. XIX. mendearen hasieran Napoleonen Konkordatorarte, mendez-mendetan, hiru diozesietan hedatzen zen Iparraldea: **Baiona**, **Akize** eta **Olorue**. Hegoaldean, Gasteizkoa 1862an sortu arte, lau diozesi zeuden, **Iruñekoa**, Nafarroa gehiena hartzen zuena eta Gipuzkoako Probintzia, gauza bera; **Kalahorreakoa**




Bizkaia gehiena, Araba, Tuter eta Gobiaran salbu; **Santanderkoa** Bizkaia-Araba / gehienak. Enkarterri guztia, Gordexola salbu, eta Tuterako Elizbarruti txikiak Erribera zati baten zegoen hedatua.

Oraindik egiteke dago Kalahorrako artziprestazgo eta bikarien mapa. Dena dela, saiatu naiz alboan doan bibliografiaren arabera eta banan-banan *Diccionario histórico-geográfico* eta beste datuetatik hartuta. Euskara gutxi edo asko gordetzen den tokietatik hasiko naiz, sartu gabe beste xehetasun batzutan, Ipar Ekialdetik hasita: Durangoko uri artxibotik jasota konturatu naiz Debabarreneko parrokiek, **Durango** artziprestazgoaren **Elgoibarko** bikaria osatzen zutela, Elgoibar bera, Eibarko bi, San Andres eta Aginaga, Mendarozabal, Azpilgoeta, eta Astigarribia, Mutrikun. Parrokia hauetan, Mendebal euskara egiten dela ziurtatu du Koldo Zuazo ikerlariak. Beronen ikerketa dialektologiaren lagungarri, nik eman nizkion xehetasun hauek. Orobat, Debagoieneko parrokiek denek osatzen baitzuten zortzi bat mendetan Leintz artziprestazgoa: Bergarako lau parrokiek, Angiozar eta Antzuolako biek; Oñatiko hirurek; Arrasateko laurek; Leintz Gatzagakoak, Eskoriatzako zortziek; Aretxabaletako bederatziek eta Aramaioko bederlatzi elizetatatik zortzik, hain zuzen, Debarra doazen zortziek. Hauek guztiak osatzen zuten mendez-mendetan **Leintz** artziprestazgoa. Ez da nahasi behar **Leintz** erret ibarra, askoz handiagoa baitzen. Ez iezadazue esan hizkuntzaren eta euskalkien aldetik ere, batasun bat ez duenik, dotri-netan ere ikusten dena!

* * *

Durangoko artziprestazgoak merindade historikoez gain, Aramaio konterriko Oleta ere, beste azpieuskalki batekoa, Pedro Pujana euskaltzain ohorezko zendu berriak eta bertako semeak argitu zuenez eta Elgoibarko bikariak osatzen zuen. Mapa



bagenu, **Debarroko Markina**, beraz, Elgoibarko bikaria, Bizkaiko Markina merindadea, **Durangalde** eta **Leintzekin** aspaldiko batasun bat mendez-mendetako, azpieuskalki berekoa, nire ustez, aurkituko genuke. Ez ziren aspaldidanik pasatuko hainbeste mendeetako batasun bat bi artziprestazgo hauetan. Bestalde, gauza jakina da Elgoibar eta Arrasate hiri bezala agertzen direnean, ez dela jartzen Gipuzkoa direnik, oraindik. Leintz eta Durangalderako egindako dotrinak hobeto aztertu beharko lirateke kasu horretan. Besteak beste, behin baino gehiagotan aipatu den Leintz-Gatzagako abade jaunaren dotrina. **Markinako** merindade txikiko hiru udal eta bi parrokia bakarrik hartzen zituztenak ere, Durangoko artziprestazgoko bikaria bat osatzen zuten. Jose Maria Lakarra historiagileak eta bestek, behin baino gehiagotan aipatu dutenez, baita ere Juan San Martinek, batasun bat zuten bi Markinek, alegia, Elgoibarko bikariakoak eta Artibaikoak. Bestalde, berdintsu zen eibartar edo markina-xemeindar izan Juan Antonio Mogelentzat, euskalkiaren aldetik ere, edo durangar ala markinar izan Astarloa anaiekin batera. Denak azken baten artziprestazgo berberekoak baitziren. Zornotzako merindadeak ere bere 5 parrokiekin: Bernagoitia, Amorebieta, Etxano, Ibarruri eta Gorozikak, Durangoko artziprestazgoaren bikarietarikoa bat osatzen zuten.

* * *

Hainbeste aipatu den *Doctrina cristiana del vascuence de Llodio* delakoaz, jakin behar litzateke lau haranetako biztanle gehien zuten herria Ludio zela **Orozkoko** bikariaren barruan, **Orozko** bost parrokiekin, **Laudioko** harana, **Okondo** birekin eta **Gordexola** laurekin. Beraz, egoera politiko desberdinetako Orozko XVIII. mendean Bizkaira pasatua, Gordexola, Enkarterrikoa eta Okondo, Aiara foruarekin eta Ludio Bizkaiko foruarekin, baina Araban. Laurok osatzen zuten eliz eskualde bat, mapa baten begiratuta eskualde natural bat. Jende askok ahaztu dute Orozkoko euskara eta Ludiokoa antzerakoak zirela, seguru asko, Okondokoarekin ere antza izango zuten, ikertu beharko lirateke Jose Paulo Ulibarrikoaren lanak. Zoritxarrez, Gordexolako euskararen erreferentziarik ez dugu.

* * *

Busturiko euskararena ere agertzen da, alegia, **Busturia** esaten denean, ez Axpe elizatea, baizik eta merindade osoa. 1660ko dotrina, Bermeon agertutakoa, ez ote zen Busturiko merindade osokoa?, hots, “Barrukoentzat azkenean iminten diren arimen salbaziñorako be” Busturiko bikariako abade jaunen enkarguz”. Beraz, hemen, agertzen da berriz ere dotrinak eskualdeka egiten zirela eta eskualde horiek eliz eskualdeak eta foru eskualdeak zirela.

Eliz artziprestazgo edo bikariak eta merindadeek norainoko kidekatasuna duten banan-banan ikertzerik ezinezko gertatu bazitzaigu ere, horretarako norbaitek espreski ikertu behar litzuke dauden material oso aberatsak, Kalahorrako elizbarrutiaren artxiboa. Tartean, esan dezaket eta, Juan Manuel Etxebarria zeberioztarra lagun Zeberioiko euskara Arratiakoan sartzen dela eta ez Bonapartek, bere mapan, Jose Antonio Uriarteren eraginez, Arrigorriagako azpieuskalkian. Esan behar da, mendez-mendetan, Zeberio **Arratiako** merindadeko herrietako bat zela eta artziprestazgo ere. Bizkaiko artziprestazgo zaharrenetarikoa egoitza Erdi Aroko dokumentu baten ikusten denez, Arantzazun, Arratiako Arantzazun, noski, eta ez Oñatikoan, omen zegoen, gero XIX. mendean, Billarora/Areatzakora pasatu bazen ere, Gasteizko diozesia sortukeran. Arantzazuk aurten arte, barrendegi bat izan du Zeberion, bestalde. Beraz, Arratiako azpieuskalkia ikertzeko merindade eta artziprestazgoa kontuan izan behar lirateke. **Uribeko** artziprestazgo eta bikaria handia Lauroko kofradian, Arbilduko San

Migel ermita batzartzen zen XIX. menderarte, hiru “colectorietan” banatzen zen: 1. **Kostaldea**, Getxotik Lemoizera; 2. **Txorierrikoa**, Larrabetzutik Erandioraino, Deustu barne, Deustuko euskara Txorierrikoa izan daitekeela ziurtatu ei du norbaitek. **Mungialdekoa**, hirugarrena: “la Vega de Munguia” dio Labairuk.

* * *

Araba mendebaldeko euskararen aintzinakotasuna aztertzeke ezinbestekoa litzatekeela, uste dut, Kalahorraz gain, Burgos eta Santandereko elizbarrutien artxibotetara jotzea. Kalahorrako artziprestazgokoak ziren Egiraz, Ganboa, Zigoitia, Armentia, Kuartango, Aiara, Erribera, Trebiñuz gain. Aspaldi aipatu diegu, azkenengoz, maiatzean, **Trebiñu** uriko Udaletxean, Henrike Knörr, Jose Antonio Gonzalez Salazar, Koldo Zuazo eta Roberto Perez de Viñaspre mahaikideei. Interesgarria izango bailitzateke aztertzea Trebiñuko artziprestazgoa; buru Argantzón, hartzen bailituzte, ez bakarrik egungo barrendegiko parrokiak, 1955erarte Kalahorrakoak bestalde, sekula santan ez Burgoskoak, gehi Gasteizko elizbarrutia sortu arte XIX. mendearen erdialdean, baita ere Arabako zenbait herri, hala nola, Urizaharra. Portal, euskal idazlea ez ote zen Urizaharrako semea izango eta bukatu Trebiñuko artzipreste Argantzónen? Jakingarria litzateke, jakiteko modu bakarra Kalahorran ikertzea. Patxi Salaberri Zaratiegi adiskideak, bere doktorego tesian, *Eslaba aldeko euskararen azterketa. Toponimiaren bidez* (Onomasticon Vasconiae, 11) argitaratuan, bide interesgarria markatzen du euskara galdutako eremu baten ikerketa dialektologiko alorrean. Arabako kuadrillen, haran nagusien eta eliz eskualdeen arteko ikerketa egin gabe dagoenetik, bakarrik aipatuko nuke **Ganboa** eskualdea. Ganboarren leinuen aipamen asko egin dituzte historiagileek. Euskararen eta euskalkien aldetik, nik dakidala, ez ordea. Noski, hori ikertzeke Ganboa eskualdearen hedadura desberdinak kidekatu behar lirateke, alegia, gauza bat dela Ganboa artziprestazgoa, beste bat, ibar osoa eta hirugarrena, ibar administratiboa, alegia, lehen Ganboako Udala zena, 1957an desagertua, urtegiak zenbait herri urperatu zituenean. Eliz eskualdeak 21 herri hartzen zituen. Arabari dagokionez, eta baita ere Nafarroako Lizarra merindadealdeko zati bat, **Berberiego** artziprestazgoaren hedadura ere aztertzeke litzateke, bertan egon





daitezkeen euskal toponimoak ikertuz. **Urduña** ere hemen sartzen dut, zeren eta hiria Bizkaia izan, elizaz, mendez-mendetan, bikaria-artziprestazgo berbera baitzuen, bai hiriak, bai bere 4 herrixkek eta baita Arrastariako eta Urkabustaizko herriak ere. Horiek osatzen zuten eskualde hori. Hau ere euskararen mugan eta gaztelaniatik hurbil, hain zuzen, Losako merindadearekin, Gaztela Zaharreko 7 merindadeetariko bat, hain zuzen.

Egungo Euskal Herri historikotzat jotzen denetik kanpo, interesgarria litzateke Kalahorrako diozisi handiaren artziprestazgo banaketa arakatzea. Nola liteke, bestela, 1955eko Cicognani-Francoren konkordatorarte kalagurritarrak elizaz ziren Valle de Yanguas eta San Pedro Manrique eskualdean Joakin Gorrotxategik aipaturiko euskal aztarrenak aurkitzea, nahiz eta 1833 probintzia banaketaren ondoren Soriako izan?

* * *

Enkarterriko euskararen aintzinakotasunaz, hedaduraz eta bestez, oso ikerketa sakon gutxi dago, bat ere ez esateagatik. Askoz hobe ikertuta dago Errioxakoa, Juan Bautista Merino Urrutiak eta bestek, Bizkaiaren Mendebaldean dagoen eskualde historikoa bano. Azkenengo euskara galdu zuena Gordexola zen, seguru asko, Kalahorrakoa zelako, lehen ikusi dugun bezala. Gainontzekoena ikertzeko, bi artxi-botara jo behar da Santandereko elizbarrutia, XVIII. mendean sortua berau, Santillana del Mar-eko klausurako monjen komentu baten dagoelarik tornu eta guzti, ikertzeko

zailtasun guztiekin. Aurretiaz, Burgos artzapezpikutegekiko horra pasatu baitzen Valpuestako Erdi Aroko elizbarruti zaharra, Enkarterri, gehi Aiararen Mendebaldea, Tudela eta Gobia haranak hartzen zituen. **Castro Urdiales**ko artziprestazgo handiak izango luke zer ikertu alderdi horretan, Portugalete, Balmaseda, Laredo eta Castrokoko bikarien azpieskualdeekin. Ez ote dago Santander eliz eskualde horietarako euskarazko dotrinarik edo agiririk, euskararen aipamen solte apurrenik? Euskalki edo azpieskalkia baino gehiago, euskararen presentziaren antzinakotasuna ikertzeko, eskualde interesgarri bat Tudelako eskualdea izango litzateke. Ez nahas, mesedez, Tudela asko baitaude, Nafarroako Erriberakoarekin, baizik eta Artziniega burua zuen artziprestazgoa eta harana. Erdi Aroaren hasieran, Valpuestako elizbarrutikoa izan zen, gero Burgosek irentsi zuena, XVIII. mendean, ondoren Santanderekoa izan zen eskualde hori. 1862an Gasteizera pasatu ziren Arabako ziren herrixkak, baina ez ordea, Tudela ibar administratibokoak, honek Udalak izatea galdu zuenetik, Menakora pasatuak baitaude, elizaz, ordea, Santanderrekoekin jarraiturik. Federiko Barrenengoa eta beste asko konturatu ziren, Aiarako forudun eta kuadrillako, Artzeniegako inguruko arabar herrixketan, euskal toponimiaren presentzia oso urria zela. Burgoskoa zibilki eta elizaz Santanderrekoaz, ordea, nik dakidala ez dago ikerketarik eginda, salbu, Jose Bustamante Briciok, bere *La Tierra y los Valles de Mena*, Gráficas Ellacuria, Bilbao, 1971. Oraindik ezagun diren herrixka zenbaitetan, badirudi, euskal toponimia agertzen dela, hala nola, Anzo, Arza, Artieta, Orrantia, Aiega, Burceña, Irus, Obilla, Ungo, Larrate, Ziella, Zirion, Aranduenaren herrixketan, bederen. Ipar Mendebaldeko Tudela eskualde honek mereziko luke ikerketa bat bultzatzea, xehetasun historikoak, Santander eta Burgosen arakatuz.

* * *

Gipuzkerara pasatuz, mendez-mendetako Arciprestazgo Mayor de Guipúzcoa eta gipuzkeraren hedadura gauza bera da, parrokiar-parrokia¹. Dotrinak ere, zenbait dotrinak, horrela erakusten dute (*ikus eranskina*). Eta Felipe II.ren indarrez Erromak, Baionari lau artziprestazgo kendu arte, hots, Baztan, Doneztebe, Bortziri eta **Hondarribikoa**, esan dezakegu Hondarribiko sei parrokiak ere, Irun, Pasaia Donibane, Lezo, Oiartzun eta Errenteria, horiek direla, hain zuzen, Ekialdean, gipuzkeraren agiten ez duten herriak. Fidel Altunak, Juan Bautista Agirre “*Erakusaldiak Antologia*” liburukian pista jakingarriak ematen ditu, “Gipuzkoako eliz administrazioan ere kargu garrantzitsuak izan zituen, Gipuzkoako Artziprestazgo Nagusian: Asteasu eta beste zenbait herri biltzen zituen **Herniobea** korriedoko diputatu gisa azaltzen zaigu aurrena eta, ondoren, Gipuzkoako Artziprestazgo Nagusiko diputatu nagusi”. f “Una esposicion en bascuence del citado Astete que trabajé con encargo de la Venerable Hermandad de *Erniobea*”. f “El dialecto en que se escriben las instrucciones es un medio entre el de **Beterri** y el de **Goyeri**. Su diferencia del de Hernani y San Sebastian v.g. *en dezute, dute, duenac, dutenac, dituzute, dituzte, & c.* que es segun el modo de San Sebastián; y en el nuestro *dezue, due, duanac, duenac, dituzue, ditue*”. Beterri eta Goyeri arteko hizkera, jakina, egilearen herriko hizkera genuke aipu horretan: Asteasukoa. 1350ean 10 korriedotan zegoen banatuta “Gipuzkoako Artziprestazgo Nagusia”: Segura, Bozue, Gaztainaga, Soreasu, “Sierra” (Saiatz), Mutriku, Getaria, Sanctus Milianus/ Herniobea, Tolosa eta Sancti Sebastiani/ Donostia. Aipamenik seguruena Sebastian Insaustiren lan honetan “División de Guipúzcoa en valles”, *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 8. zenbakia, 1974, 226. orrialdea. **Herniobea** korriedoak parrokia hauek hartzen zituen:

1 Hain zuzen, 1027.urtean, Iruñeko Elizbarrutiaren lurralde-mugaketan, honako hau agertzen da”... *cum omnibus supradictis vallibus, et tota Ipuzkoa*”.



Zizurkil, Asteasu, Larraul, Alkiza, Hernialde, Irura, Amasa-Villabona, Andoain eta Urnieta. Hain zuzen Agirre Asteasuko euskara **Herniobeko** euskara izango da, seguru asko, Gatzagako abadearena, **Leinzkoa** den bezalaxe. Gipuzkoakoari dagokionez, Insausti eta Juan San Martinek Erdi Aroko eskualde historikoak, artziprestazgo edo korriedoak konparaturik egindako lanak ezagutzen ditugu; baina, nik dakidala, herriz-herrizko kidekatzea egin gabe dago oraindik, zeren eta Insausti berak airean uzten baitu nongoak ziren Bergara, Oñati, Antzuola, Elgeta, jakin gabe hauek elizaz Leinzkoak zirela. Soreasu eta Iraurgi gauza beretzat jotzen du Juan San Martinek. Hobeto zehaztu behar litzateke hau, zeren eta Iraurgi, egungo Azpeitia, Azkoitia izanik, Zestoako parrokiak Soreasukoak izan baitzitezkeen. Beste batzutan kidekotasuna argi dago, herri batzuk zehazteko badaude ere. Baina, ikerketa, hiru parametro zehatz hauekin egiteke dago, alegia, eliza, foru, hizkuntza loturei buruzkoa.

Nafarroarekiko ikerketa egingo balitz, seguru asko, Erdi Arotik hasita xehetasun interesgarriak aterako liratekeela “Rol de pueblos vascongados y rol de pueblos romanizados” deitzen diren Iruñeko elizbarrutiko sailkapenetan. Nafarroako merinda-

detariko batek azterketa sakona mereziko luke, ene ustez, Erriberrikoak, alegia, zeren eta Lizarrakoan / Estelleriaren azterketa zenbait eginak baituzte, hasi D. Manuel Lekuonak eta, 1990ean, Jose Maria Satrustegik eta beste batzuk. Erriberrikoa, Patxi Salaberri Zaratiegik aztertua badu ere. Iaz, berarekin, Uxuetik, Aragoi ibairaino joan ginen. Gogoia nuen bertako leku izenak ezagutzeko eta hain zuzen, Murillo Frutoraino joan ginen. Zergatik ote Aragoi ibai ertzerain euskal toponimia izatea? eta gero gutxi batzuk bakarrik? Bardeetan soilik eta Tuterako merindadean ia ezer ez? Hain zuzen, Uxuen, Murillo, Santakara Iparraldetik, Aragoi ibaia da, inguru guzti horretan, merindadeen arteko muga, salbu, Kaparroso-Arradan pasatzen da ibaiaren ezkeraldera. Holako azterketa eta ikerketa historikoeekin argiago izango genuke euskararen mugak zer ikusirik ote duen merindade horretan. Nafarroa Garaian bestalde, 11 artziprestazgo zituen Iruñeko elizak, XVII. menderarte, zeren eta kendu behar baitira, Gipuzkoakoa eta Valdonsella. Aibar, Berrotza, Deierrri, Arakil, Orba, Ibargoiti, Longida eta Anue ziren, beraz, beti ere ibar izenekin eta agian, aipaturiko azpieskualdekin. Hortik pasatu beharko ginatke ikerketara, erakunde hauek, euskararen azpieskalkien izan ditzaketen harremana, zerikusia edo kidekotasuna. Ikertzeko dago hori ere. Nafarroan ez bada ere, Alfontso Irigoienek eraginez eta erabakiz, Aragoira pasatu zen eskualde handi bat, elizak Valdonsella deitua. 1745erarte, 48 herri, eskualde horietakoak ziren eta ez Aragoikoak, gero pasatu ziren, eta gaur ere hala dira, Jakako elizbarrutira. Lehenago, Erdi Aroan, galdu zituen Exea, Tauste, -euskaraz, Deustia- eta Luna herriak. Beraz, konturatzen bazarete gaurko Zaragozako probintziak, Huescakoen eta Nafarrokoen artean egiten duen eskualde zabala da hori, “Cinco Villas” ere deitua. Tartean dago, Petilla de Aragoneko barrendegia, Nafarroa izaten jarraitzen duena. Eskualde honen azterketa linguistiko-toponimikorik egin gabe dagoela, uste dut. Garai hartan Aragoira, erreinuz, pasatu bazen ere, euskara antzina bertan hitz egitea posible zitekeen.

* * *

Eta Iparraldera pasatuz, Jean-Baptiste Orpustanek aipatu bezala, geroago Lapurdiko honekikoak baino zaharragoa da elizarekiko Lapurdi, hots, Baionako diozesiarena, alegia, egungo **Lapurdi**, gehi **Arberoa**, **Baigorri**, **Ortzaize**, **Garazi**, gehi aipatu diren XVII. mendean Iruñera pasatutako lau. Benetako Lapurdiren muga, **Pasaiako** badien jartzen baitzuen eta, ez Bidasoan, Haristoy apaizak. Jakina da, bestalde, Napoleonen Konkordatorarte, Nafarroa Behereko hiru eskualdeak, alegia, **Oztibarre**, **Amikuze** eta **Agramondarren** jaurreria, Akizeko diozesikoak zirela. Alderantziz, Zuberoa Olorueko zen. Hemen ere zenbait dotrinak egiaztatzen digu aipatzen dena. Iparraldean bertan ere, Oloroeko diozesi ohian Zuberoako artziprestazgoaz gain, Ossau, Aspe eta Garenx ez lirakeke ikertu behar? Akizekoan, Amikuze eta Lapurdiko Iparraldean dauden: Seignanx-Gosse eta Chalosse. Agian, aurkikuntza interesgarriak lortuko genituzke. Baliabide faltaz ez dut Iparraldeko gehiago aztertzeko modurik izan.

* * *

Azkenik, zenbait galdera egingo nituzke. Euskalkien eta tribu leinuen arteko kide-tasuna, behin baino gehiagotan aipatu duguna. Zehazki, eskualdez-eskualde, ikertzeko dagoena. Katalanek “vila mercat” deitzen dutena alegia, merkatu hirien eragina azpieskalkietan. Jakin badakigu, Gipuzkoan 6 zirela, hori aspaldian argitaratua du, Juan San Martinek: Ordizia, Tolosa, Donostia, Azpeitia, Arrasate eta Elgoibar. Bizkaian, ordea: Durango, Markina, Gernika, Mungia, Bilbo eta Balmaseda. Arratiako merindadeak, txandaka baitzuten merkatuak, agian, Areatza/Billarro ez zelako handitu. Araban begiratu behar litzateke merkatu zaharrenetarikoa bat, Aguraingoa. Nafarroan eta Iparraldean ere, interesgarria litzateke ikertzea.



Bide azpiegituren eragina ere ikertzeke dago. Beste gai garrantzitsu bat, zenbait aipamen egin badituz ere, euskararen muga historikoen bazterrak, ez bakarrik toponimian, baita ere antzinako dokumentazioan eta beste... ikertu beharra dago, bereziki, aipatu ditudan eskualde horietakoak.

Burgosko euskal toponimiaren ildoak gehituz

Luis Maria Mujika

Pozgarri bada beti euskara historikoaren aztarna berriak aurkitzea, hainbatago oraindik aurkikuntzak egungo euskararen esparrutik kanpokoak badira. Hain zuzen, bada urte mordoska Merino Urrutia errioxarrak Errioxa Garaia eta Ezkarai aldeko euskal toponimiaren berri eman zigula liburuki batean; bere lehia, gehienbat, Ezkarai aldera mugatu zen, Burgosko probintziaren egungo muga barruetan aurkitutakoak hain heatuki aztertu eta bilduak izan ez zirelarik. Beraz, guk 1150 kopuruko euskal toponimiazko multzoa jasoa dugu azken urteotan (1984 urteko udaldian hasita), eta toponimia horren sarritasuna aberatsa da, bereziki, Pradoluengo inguruko herrietan, hots, Arandio edo La Demanda mendikatearen babesgune berezian, Valdelaguna haranekoak ere intentsitatearen aldetik biziki interesdunak direlarik. Merino Urrutiak berak aitortzen digunez, bere aportazioak partzialak ziren -eta, gehienbat, 1932 aldean Guilermo Riitwagen-en emaztekiak ahoz bilduriko lekukoetara mugatuak-. Guk hemen aipatzen herri asko ikuskatua dugu eta bertako lekuko batzuen ahozko testigutza ere jasoa, kartulario, kastatro eta jabetzako erregistroetan bilduriko idatz-adierazpenez gain.

Hirugarrenez ekiten diogu lan honi, ezen, bere aurretik Euskaltzaindiaren *Iker-6* liburukian “El euskara en la toponimia de Burgos (nuevos testimonios)”, 311-347 eta “Toponimia vasca en Burgos,” *XI Congreso de Estudios Vascos*, 1991, 423-432 argitaratu genituen. Lehenengo lanean –zerrenda zehatzez gain- mila ehun eta piku euskal tokizenen alderdi filologiko batzuk aztertzen genituen, hau, alde fonetikoak, fonetismo zenbait, onomastikan integraturiko lexikoaren azterketa, eta, orobat, toki-zen atzizkigintza, beti ere alderdi dialektalak kontuan izanik. Bigarren lanean, zehazki, eskualde bateko toponimia eman genuen, hau da, Burgosko Beloradoko epai-barruti barruan ematen den euskal onomastika, bertara Ezkerra, Santa Olalla, Villagalijo, Pradoluengo, Fresneda de la Sierra eta Pradilla herrietako toponimia tipiaren testigutza idatziak eta ahozkoak ekarriz. Eskualde hori, dudarik gabe, Burgosko probintzian aberatsena da euskal toponimiaren aldetik behatuta, herriak Arandio mendizerraren babesean -eta Tiron ibaiaren ibilbide garaienean- kokatzen baitira.

Egungo lanean, beste eskualdetako toponimia ere jasotzen dugu, bat sarri eta joriagoa -oraindik Arandio edo La Demanda mendizerraren esparruari lotua, bai Pradoluengo inguruetan -eta bai Valdelagunako eremuan-, eta alboetara Arlanzon ibaia, Bureba eta Oca aldeko lautadetara barreiatzen dena -azken hau askoz bakana- goa izaki-.

Burgos aldeko euskal toponimia, noski, Ezkarai aldekoaren jarraipena da, eta tokizen zenbait probintziaren beste aldean ematen da, maiz, mugakide delarik. Denetan, antzeko ezaugarriak gertatzen dira, alegia, gaztelaniak mendeetan euskal leku-izenetan eginiko eragin fonetikoak, eta ondorioz sorturiko adulterazio eta urradurak. Mendialdeko geografia malkartsu eta izurtsuak, noski, lautadakoak baino hobeto gorde ditu adierazpen lexikalak, eta mirestekoa da, dagoeneko bederatzirehun bat urte baino gehiago duen tokizen zenbait nola gorde den. Beharbada, euskararen ahozko presentzia hemengo lekuetan orain seirehun bat urte itzaliko zen, eta demografiaren gorabeherak eskualdean handiak izan dira, gaur egun, gehienbat depresio guneak izaki. Oja eta Tiron ibaien ibilbideak gertatzen dira adierazkorrenak euskal toponimiaren aldetik, Ezkarai eta Burgosko probintziaren ekialdeari dagokionez. Merino Urrutiak mapa egokien bitartez erakutsi zigun bertako geografia anitza, eta mapa horiei behatuta, nabarmen da euskal toponimiaren nukleorik aberatsena Pradoluengo ingurukoa dela, bere eskuinean, Logroñoeko Errioxa Beheitikoa Ezkarai, Ojacastro, Saturde eta Saturdejoko eskualdea atzematen delarik.

Ptolomeok eta beste historigile aintzinakoek zehaztaper batzuk utzi zizkiguten Euskal Herria eta bere inguruko lurretako tribuen egitateaz. Erromatar historigileak baskoin, barduliar, karistiar, autrigoin tribuez mintzo ziren, eta hegoalderago Errioxa beheko lurretan beroin eta pelendoien jentilizioak gogoratzen zizkiguten, besteen artean. Dakigunez, iparraldeko barduliar eta karistiaren eremu gehiena mintzairaz euskalduna zen, eta, orobat, baskoinena, nahiz behetiko eremuetan, jada, erromatarren garaian euskararen aztarnak itzaliak egon. Autrigoinen eremuan, berriz, euskararen lekukotzak eskasak ziren, zabalgunen nagusienean, behintzat. Esan beharra dago, Errioxa Garaia, Bureba eta Tiron eta Oja ibaien gune gehienak autrigoinen mendekoa zirela, eta euskal ezaugarritza duen toponimia anitz eskualde horretan kokatzen dela. Iritziak iritzi, aburu asko filologoaren artean eskualdeko euskaltasunari buruz. Batzuen ustetan, euskararen presentzia aintzinakoa da, hau da, erromatarren aurretikoa, eta egungo toponimo anitz ordukoa izan daiteke. L. Mitxelena, Ormaetxebarria, Pérez de Urbel eta beste batzuek, berriz, lur haietako euskaltasunari goi-ertaroko aintzinasuna egotzen diote, soilik, hau da, mairuen eraso arbuiatu geroztikoa, bitarteko lurak eremu geratzean iparraldeko kristauek birpopulatu zituztenekoa; hain zuzen, euskararen presentzia ertaroan emaniko errepoplazio faktoreei lotuko litzateke, populatzaileak, hain zuzen, Arabako lurretatik jaitziriko euskaldunak izaki, gehienbatean. IX eta X mendeetan goiko lurretatik, eta, hurbilago, euskaraz hitz egiten zuten Arabatik jaitziriko euskaldunen adierazpena litzateke egungo toponimia, ezen eta, tokizenetan isladatzen den euskararen tipologia *mendebalekoa* da, gehienbat, aitz / *atx*, soro / *solo*, berri / *barri*, hiri / *uri/ uli /ulli* (poblado), urritz / *urretx* (*Urrez* toponimoa), *-dui* atzikia, beltz / *baltz* aldakiak azaltzen dira, nahiz ez beti. Ezin da ahanzi Errioxako herri eta populazioen izendegietan nabarmen direla *-uri* (poblado) osagaiez amaiturikoak, *Otxanduri*, *Ollauri*, *Nafarruri*, *Gipuzuri*, *Galbarruli*, *Semenuri*, *Herramelluri* modukoak- Toponimo hoiek, noski, errepoplazio baten adierazle dira *-uri* delakoak “poblado” esan nahi baitu, eta, hain zuzen, mendebaleko euskararen (Bizkaian eta Araban goikoen moldera *Enekuri*, *Maruri*, *Obekuri*, *Ullibarri*, eta abar agertzen direlarik). Bestalde, kontuan edukitzekoa da Elizaren erakunde administratiboak mende askotan, nolabait, aspaldiko bereizketa dialektalaren adieragari izan zirela, Calahorrako eliz-barrutiak, adibidez, Gipuzkoan egun bizkaiera mintzatzen duten lurak bere esparrukoak zituen. Banaketa administratibo bera Elizaren aldetik Iruñeako eliz-barrutiari dagokionez, ezen egun goi-nafarrera mintzatzen duten herri gehienak (Hondarribia, Irun, Oiartzun, eta abar...) Nafarroako eliz-barrutian sartzen ziren, aspaldiko baskoin tribuaren lurraldetasun-aztarnak gordez.

Egia esateko, hipotesi anitz da aspaldiko tribuen banaketa eta hedapen-guneei buruz, eta gutxi da Penintsulako aintzin egoera lingustikoaz dakiguna. Araban, zehazki, hiru tribuak biltzen ziren *Trifinium* (Treviño) delakoan, eta lurralde hori egoera kultural berezi baten kokagune zen. Autrigoiak mendean zeuden Valdegobia (Gaupe), Flabiobriga eta Virovesca (Briviesca) hiriak, eta iparmendebalean euren muga egungo Cantabrian zegoen Laredo eta Ason ibairen ondoan; hegoaldera, berriz, egun euskal toponimia aurkitzen den Oka mendiak eta Tiron ibaiaren ibilbidean. Euskararen presentzia artarora soilik ekartzen dutenen hipotesia, bestalde, ez da osoro kontrajartzekoa autrigoin tribuaren eremuan aspaldiko euskal mintzairaren nukleo isolatu berezi batzuk gordetzearekin. Ezin da albora utzi Nafarroako erreinuaren agintea Logroño eta Juarros aldeko lurretara hedatzen zela, ezen Logroño ez da atxikitzen Gaztelara XI. mendearen amaiera arte. Naiara 933. urtean konkistatzen zaie mairuei, eta Briones eta Cenicero 735.ean. Euskal tankera duen -edo euskaroidea den- Burgos eta Errioxako toponimiak arazo historiko bereziak ditu, baina, denetan egiatiena da gure hizkuntzaren ezaguarriak dituen toponimoen multzoa ez dela urria. Beraz, behin bateko Euskal Herriaren mugak egungoak baino zabalagoak ziren, bai, ekialdean Pirinio mendikatearen lerroan Andorrraraino, gutienez, eta mendebalean Burgosko lur berezi batzuetaraino, bere ukituan Errioxa Garaia eta Beheitikoaren lekukoak kontuan izanik.

I.- EUSKAL TOPONIMOEN ESKUALDE BERRIAK

Dudarik gabe, La Demanda edo Arandio mendizerraren bi aldetara ematen da Burgos eta Errioxako euskal toponimiaren gunerik aberatsena. Esan daiteke, Pradoluengo, Santa Olalla, Pradilla, Espinosa del Monte, San Clemente, Santa Cruz del Valle Urbión, Garganchón, Villagalijo, Fresneda, Valmala bezalako herrietan toponimia, batzuetan, ehuneko % 40 edo 50-ean euskaldun dela oraindik, nahiz ahozko euskara itzalita egoteak -hainbat mende geroztik- onomastikan aldaketa, desitsuratzte, arrotze-prozesuak, eta abar suposatu. Arandio mendizerrak, hain zuzen, Haro inguruko zabaldiek baino babesleku hobea eskaini bide die euskal toponimoei, nahiz eta geografikoki hango lurrak hegoalderago egon. Eskualdearen toki malkartsuak, herriak komunikabide zabaletatik, gehienbat, aparte kausitzeak, geografiaren isolamenduak eta demografia urriak lagundu bide diote iraupen horri. Hain zuzen, Pradoluengo aldean ez-ezik, Valdelagunan barreiatzen diren herri eta alorretan euskal toponimiak iraupen-lehia berezia erakusten digu, eta, aldiz, asko murriztagoa Bureba, Oca eta Arlanzón ibaiaren erdi eta azken ibilbidean, non gure lurri mendiek jada ez dien beharrezko babesa eskaintzen.

Hurrengo zerrendetan, bada, lau eskualde aipatuko ditugu euskal toponimoei dagokienez: 1) **Tiron ibaiaren ibilbide garaian eta erdian** Arandio mendizerraren babesgunean ematen direnak -ugarrienak izaki-, Eterna, Espinosa del Monte, San Clemente, Santa Cruz del Valle Urbión, Rábanos, Garganchón, Valmala herrietakoak (kontuan izan, esan dugunez, beste lan batean argitaratu genituela, zehazki, Pradoluengo, Fresneda, Pradilla, Santa Olalla, Villagalijo eta Ezkerrako toki-izenak). 2) **Arlanzón ibaiaren ibilbide garaia eta erdikoak**, Pineda de la Sierra, Espinosa de Juarros, Río Cabado, Villorobe herriena, besteen artean; goikoekin erkatuta, askoz murriztagoak direnak. 3) **Valdelaguna ibarraren barnekoak**; hauek ere Arandio mendizerraren babesean, eta Mencilla aintziraren hegoaldean; bertako toponimia Soriako lurretatik hurbil kokatzen da, eta Burgosko Salas de los Infantes herriaren epai-barrutiaren mugetara hertsitzen da, gehienbat. Aipatzekoak dira Neila,

Barbadillo de los Herreros, Huerta de Arriba, Tolbaños de Abajo herrien barrutikoak. Dударik gabe, bertako euskal tokizenen kopurua Arlanzón ibaiaren ildoari darraiena baino ugariagoa da, baina ez Pradoluengo inguruko bezainbatekoa. **4) Bureba eta Oka mendien** gunean sartzen den toponimia, Arandio mendizerratik aparte gune lauagoetan hedatua. Bureban, gaur egun, euskal toponimo urri gordetzen da. Bertako gune esanguratsuenak Espinosa del Camino, Villafranca de Oca, San Felices de Oca dira.

Orobat, Burgosko lurretan ematen diren beste toponimo tipi eta nagusiak aipagarri, Arandio mendizerraren urrunean aurkitzen direlarik ere, *Urbel*, *Zalduendo*, *Urrez*, *Urkiza*, *Ibeas* bezala. Kurioski, euskal toponimia sarria den tokietan ere egungo toponimia nagusia, gehienbat (*Ezkerra*, *Urrez* eta beste urri batzuk kenduta) gaztelaniaztatua aurkitzen da, Pradoluengo, Fresneda, Pradilla, Santa Cruz del Valle, Avellanosa, Eterna herri-izenetan suertatzen denez, nahiz bertako toponimia tipi gehiena aintzinako euskaltasunaren lekukotza esanguratsua gorde. Auzia, bada, toponimia nagusia (erdalduna) eta tipia (euskalduna) artean datza; administrazioak eta gaztelaniar mintzairaren gailentasun sozialak eragin handia ukan du aspaldidanik toponimo nagusien erdalduntze horretan, tipiek, aldiz, modu soilagoan euskaldun jarraitzeko oztoporik aurkitu ez dutela.

II.- TOPONIMOAK ESQUALDEKA

Goian esan dugunez, toponimoen lekukoak eskualdeka emanen ditugu, eta, lehenik, Arandio edo La Demanda mendizerraren babesgunekoak, non euskal toponimoen multzo nagusia bertakoa den. Gero beste eskualdetakoak jasoko ditugu. *Iturriak* aipatzean, gure zerrendako gehienak XIX mendekoak dira, hots, katastroen izendegietatik hartutakoak *erreg.* (erregistroa) izenpean (eta, zehazki, Belorado Jabetzako Erregistroak, Briviesca eta Salas de los Infantes-koekin batera), baina badira beste urri batzuk Kukullaga eta San Pedro De Arlanzako Kartulariotik jasotakoak, eta, orobat, azkeneko horiek baino modu askoz ugariagoan Marques de la Enseñadaren Catastro-tik (*Archivo de la Diputación de Burgos*) -bereziki, 1751-52 urteei dagozkienak- bildutakoak. XIX. menderako beste tokizen-iturria Burgosko *Archivo Histórico Provincial* delakoan kokatzen den Jabetzako Erregistroa da. Beste izen batzuk Merino Urrutiaren zerrendakoak dira, baina urrienak. Hemen ezagutzera ematekoa da, herrien arabera, ahozko lekuko zenbaiten izena: Germán Rubio Ontoso (Barbadillo de los Herreros), Emilio González Rubio (Ezkerra), Anastasio Bartolomé Uzki (Villagalijo), Sebastián Grijalba (Espinosa del Monte), Restituto Córdoba Rivera (San Clemente), Pedro Echavarría Cámara (Pradoluengo), Eulogio Garrido Garrido (Puras), Agapito Hernando Garrido, Natividad Sevilla Hernando (Santa Cruz y Soto del Valle), Justo Rábanos Hernando (Fresneda de la Sierra), Agapito Hernando Corral (Santa Olalla, Villagalijo), Faustino Hernando Cámara (Garganchón).

1. *Tiron ibaiaren ibilbideko euskal toponimoak.*

Eskualde honek bakarrik gordetzen ditu Burgos probintziako euskal toponimo guztien hiru laurdenak, Tiron ibaiaren ibilbide garaia –bere adarrak ahantzi gabes- eskualde menditsuan aurkitzen da, eta euskal tokizenen lekukotza ia Beloradoren pareraino luzatzen da goitik beherako intentsitate-mailan. Tiron ibaiak bere behe-ibilbidean Errioxako lurretan baino euskal toponimo urriago du. Hain zuzen, Logroñoeko probintziaren mendebalean euskal toponimoen presentzia, Ezkaraira ez ezik, Haro

inguruetara hedatzen da toki lauetan, baina, beti ere, La Demanda azpiko lurretan baino murriztago. Dagoeneko emanak ditugularik Pradoluengo, Fresneda de la Sierra, Pradilla, Santa Olalla, Villagalijo eta Ezkerrako euskal tokizenak, hona leku-ko berriak:

a) *Avellanosa, Eterna*:

Eterna herria Villagalijo-ren ekialdera aukitzen da, eta bere izena *Heterrena* zen 945. urtean. Avellanosa, grafia aldatuta, *Abellanosa* modura ere ezaguna da, baina guk bestea erabiliko dugu.

Angita (Avellanosa). *Aritxa* (Avellanosa), itxuraz, *aritz*-aren (roble) formula bustia. *Bastea* (soroa, erreg. 621). *Belasko* (lur-saila). *Buzkarras* (agian, *Bizkarras-loma*- baten ildokoa, erreg. 38. *Burkarros* aldakiak bere adulterazioa dirudi. Ikus Arch. Hist.Prov. Reg. Prop. Leg.533, 1850, urtea. “Un prado do dicen el frontal de Burcarros de media fanega, surca por cierzo rio, ábrego de la Iglesia de Fresneda y solano rio tambien” (Ibidem). *Ezkarna* (soroa, erreg. 610); agian, **Ezkerrana* baten sinkopa, gaztelaniar azentu bortitzaren eraginez, maiz, - arana -*arn* (-*arana*) bezala ematen baita atzetonikoaren erorketaz. Bide berdinetik bestetan *Ezkargaña*, *Azkarro*, *Azkarrio*, *Eskarriturri*. Eskualdeko toponimian “arce campestre” edo *astigarra* adierazi bide du. *Gallindona* (Eterna, soroa). *Guzkarros* (lur-saila, Arch.Hist.Prov. Reg. Prop. Leg.533, 4, 1850. urtea, “Otra en Gurcarros de una fanega surca por solano Lorenzo Esteban” (Ibidem). *Labartenia* (lur-saila, Avellanosa). *Larrea* (*La Rrea* idazki batzuetan, ohiko artikulatu erromanikoaren sasi-interpretazioaz; Arabako toponimian ere, maiz, *Larrain* > *La Rain* bezala, Avellanosa). *Matxabela* (lur-saila, Avellanosa). *Maugaluzea* (soroa, erreg. 605). *Moskiza* (erreka, erreg. 443), *Muiurua* (belardia, erreg. 740). *Ordokia* (soroa, erreg. 1288; bere esanahia “llanura, planicie BN, L, R, S, *ordo* eta (*t*)*oki* osagaietatik (*Orkidia* ere azaltzen da, baina izan daiteke goikoaren metatesi sasizkoa). *Orokiza* (soroa eta muinoa, erreg. 410). *Olleta* (lur-saila, Eternakoa; fonetikoki aipatzekoa albokariaren palatalizazio, *Zabala* > *Zaballa*, *Zaballazu* kasuetan bezala, hizkuntza erromanikoen ukituan gertaturiko fenomenoak izaki hori). *Pitxarria* (*Pitxania?*, soroa, erreg. 346). *Pullarana* (soroa, erreg. 349). *Rolaisa* (Avellanosa). *Rolana* (*Rolada?*, soroa erreg. 64, 58). *Trinkitxona* (lur-saila, Eterna). *Tubarria* (soroa, erreg. 68; agian, **Iturbarria* baten murrizketa lehen posizioko bokalaren erorketaz; aipagarri hemen -*barria*, mendebaleko euskararen aldakia). *Txarranplia* (soroa, erreg. 68). *Txazkibela* (soroa, erreg. 276; tokizenaren bigarren osagaiak -*gibela* dirudi, txistukariaren osteko herskariaren gorketaz). *Txaskina* (soroa, erreg. 380), *Vallizarga* (soroa, erreg. 104). *Valderrimotxa* (larratza, erreg. 1337). *Valtunate* (?) (soroa, erreg. 68). *Zalato* (soroa, erreg. 232). *Zarbida* (¿), soroa, erreg. 636). *Zarrazina* (lur-saila, Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 533, 9.”...Donde llaman Zarrazina lindante por regañon y solano herederos de Aniceto Esteban” (Ibidem). *Zuarta* (lur-saila, Eterna). *Zularna* (belardia, erreg. 395; -*arna* amaierak -*ar(a)na* “valle” islatu bide du, azentu atzetoniko arrotzaren eraginez).

b) *Belorado*:

Herri hau Logroñotik Burgosko hiriburura doan errepidean kokatzen da, eta mendien babesetik aski urrun, lautadako kokagunean, hain zuzen. Belorado eskualdeko Epai Barrutiaren buru da. Euskal toponimoak urriak dira bertan: *Balza* (lur saila, alboko herritan ere toponimo bera). *Barkar* (lur-saila, agian, hurrengo *Berkolar*-en aldaki murriztua). *Baroa* (mendia). *Berkolar* (mendia). *Zalagabiña* (antza, *Zagalaviña*-ren metatesia).

c) *Espinosa del Monte (San Clemente eta San Vicente del Valle):*

Hiru herriek euskal toponimia multzo handia dute, eta tokizenen zehaztapena erreka, lur-sail, soro, malda eta bestetan barreiatzen da. Lehenengo bi herriak Fresneña-tik hurbil geratzen dira, Logroñoko Errioxaren mugatik oso hurre, eta Santa Cruz del Valle, Fresneda eta Pradoluengorekin bertako euskal toponomastika ugaria da. Nabarmenezkoak, besteen artean, *Zabaleta*, *Lameturria (Laminiturria)*, *Turriosa (Iturriotza?)*, *Kroziga (Kuruziaga ?)*, *Mendiko*, *Kobaldia*, *Kañarana*, *Garaldea*, *Zanzarrias*. Hemengo tokizen anitz inguruko herrietan ere aipagarri, mugakide bezala, maiz.

A, B

Almendia (Espinosa lur-saila, Arch.Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 531,8, 1849. urtea); agian, lehen silabak *al* gaztelaniar artikulua adierazten du, *Mendia* soilik ere ematen baita; euskararen ezaguera galtzean, posible da tokizenei preposizio eta artikulua kasuarekin Neila > *Aneila (A Neila)* kasuan bezala); bestalde, euskal interpretazio baten baitan sartzen da *Armendia* aldakia, lehen osagaia *Arri* > *Ar-* konposakerazkoa izaki, *Alkorta* kasuaren moduan). “La mitad de otra en Almendia termino de esta Villa de doce celemines” (Ibidem). *Amezia* (beharbada, *Mezkia*-ren aldakia, lehen bokala norabidezko preposizioa izaki). *Andeleturria* (bigarren osagaia *-iturria*, beheerago *Fuenteleturria* hibridoazaltzen delarik). *Arana (Haranna)* bezala 1090 urtean. “Et alia terra in Haranna, et una serna ad S.Sebastianum ad fontem”. Cartulario de San Millán de la Cogolla, 280 or., bezer. or. 98). *Arangurra* (Espinosa lur-saila, Arch. Diput. Leg. 696, 16 ecl., 1752. urtea. “...Da fruto a segundo año, en termino que llaman Arangurra (?)...” (Ibidem). *Armendia* (lurra; osagaiak *ar-* (piedra) eta *-mendia* (monte). *Arnasara (?)* (Espinosa lur-saila; lehen osagaia *ar(a)na-* izan daiteke, bokalaren erorketaz. *Arrearana* (Espinosa lur-saila; bigarren elementua, orobat, *-arana*). *Arto* (San Clemente). *Arzea* (lur-saila). *Arzerana* (ausaz, *Arrearanaren* sasi-aldakia. “Sembradura de segunda calidad en el termino que llaman Arzerana da fruto con descanso de un año”. Arch. Diput. Leg. 696, 20, 1752. urtea). *Baganeda* (Espinosa lur-saila; lehen osagaia *bago* daiteke *Bagadia*, *Bagadoi*, *Bagoeta* tokizenetan bezala, amaierak tokizko *-eda* gaztelaniarra islatzen duela “Otra de cuatro celemines en la Baganeda del campo surca al regañon Miguel Garcia Martinez y al cierzo de Manuel Manso vecino de San Clemente”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 531, 7, 1849 urtea). *Balladarra* (Espinosa lur-saila. “...En el termino que llaman Valladarrá da fruto con descanso...” Arch. Diput. Leg. 696, 106, 1752 urtea). *Bandabias* (agian, *Landabia* baten aldakia. Erreg. 318. “Otra de diez celemines en Vandabias surca por solano y cierzo Escuela de Fresneda y por abrego Iglesia de Espinosa”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 531). *Baridana* (Espinosa lur-saila. “...En el termino de Varidana (Varidarra?) confronta con Zierzo y Abrego con terrenos de Conzejo”. Arch. Diput. Leg. 696, 39, 1752. urtea). *Bedarkula (?)* (San Vicenteko lur-saila). *Bitxona* (San Clementeko lur-saila; agian, **Bitxarana* baten sin-kopa. Arch. Diput. Leg. 654, 18).

E, G, I, K

Eskijarana (lur-saila. Bigarren osagaia *-arana* (valle), aurretiko velareak **Eskiza-* baten ildoak adierazten duelarik). *Ezkarro* (*ezkar,azkar* (arce), *o-* amaierak eranskin erromanikoa islatzen bide due. “...Da fruto con descanso de un año en el termino que llaman el Ezcarro”. Arch. Diput. Leg. 696, 141, 1752. urtea). *Ezkurna* (San Vicenteko haitza; amaiera *-arna (arana)* izan daiteke. *Garaldea* (lur-saila. *Garai* eta

-alde osagaietatik; -alde osagaiaz Burgosko toponimian oraindik *Zumaldea*, *Onaldea*, *Rozaldia*, (*I)turraldea*, *Kobaldia*). *Garatia* (San Clementeko lur-saila, *garai-* eta *-ate* (portillo alto) konposagaietatik). *Garduza* (San Vicenteko lur-saila). *Garraldea* (*Garaldea*-ren aldakia, San Clementeko lur-saila. “Una heredad de dos celemines en Garaldea surca cierzco calleja regañon Quintin Garcia, solano Calles”. Arch. Prov. Reg. Pr. Leg. 654, 18, 1851.urtea). *Gomenzulla* (lur-saila, amaiera baliteke *-olla/ulla* bustidurazko atzizkia izatea. 950 urtean *Gumenzula*. “Et ad gubernationem armentorum Larrehederra et Gumenzula in serra, et in monte de Auca Berozzal, et in rivuo de Onia”. Cartulario de San Millán de la Cogolla, 46 or., bezer. Or. 97). *Haranna* (lur-saila, 1090. urtekoa. *Iguna* (lur-saila, erreg. 1867). *Inagorana* (San Clementeko soroa “Una heredad de catorce celemines de sembradura en do dicen Inagorana termino de San Clemente del Valle surcante al regañon del Beneficio de ella”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 654, 20, 1851 urtea). *Ironda* (Irondo) (Espinosako lur-saila. “...De tercera calidad en el termino do llaman Ironda da frutto con descanso de un año”. Arch. Diput. Leg. 696, 20, 1752. urtea). *Irondo* (Espinosako lur-saila). *Karrandea* (belardia eta lur-saila, erreg. 1161; ausaz, *Garraldea*-ren sasi-aldakia). *Kobaldia* (zona del cueva, erreg. 1935). *Koloziga* (*Kroziga?* eta *Meturria* (*Laminiturria?*, erreg. 1727). *Kroziaga* (San Clementeko lur-saila, 1753. urtea; **Kruziaga* baten formula beranta bokaleen irekieraz gaztelaniar fonetikaren eraginez). *Kuturria* (Espinosako lur-saila; bigarren osagaia, probableki, *-(i)turria* (fuente).

L, M, O

Larrahederra –dehesa hermosa-, 950 urtekoa. “Et ad gubernationem armentorum Larrahederra et Gumenzula cum exitu et regressu et omni integritate...”. Cartulario de San Millán de la Cogolla, 44 or., bezer. or. 36. Orobat, hurrengoa: “...Cum arboribus fructuosis et infructuosis et ad gubernationem armentorum Larrahederra eta Gumenzula in serra, et in monte de Auca Berozaal, et in rivuo de Onia”. Ibidem, 950. urtean, 46. or., bezer. or. 97). *Lameturria* (*Laminiturria*-ren formula beranta lehen bokalaren irekieraz, “fuente de las lamias”. *Lamiturri* 950 urteko lekukoa. “Unum monasterium S. Paulum iuxta villulam Spinosa, cum exitu et regressu, id est, de illo fonte qui vocatur Lamiturri, et inde per illum vallem usque ad villam...”. Cartulario de San Millán de la Cogolla, 44 or., bezer. or. 33. Beste aipu bat XVIII. mendean: “...Sembradura de segunda calidad, en el termino, que llaman Lamiturria da frutto con descanso de año”. Arch. Diput. Leg. 696, 60, 1752. Urtea). *Larran* (lur-saila, probableki, **Larrain* baten aldakia). *Leturria* (**La Iturria*-aren sinkopa, baldin jatorrian *Lameturria* ez bada; erreg. 1184). *Madruete* (?) (mendia, erreg. 1781). *Maranagutia* (San Clementeko lur-saila; bigarren osagaia *-gutia* (menor) *Regutia* hidronimoan bezala). *Marrangutia* (*Maranagutia* ?). “Una heredad de sembradura, tres celemines y medio llaman Marrangutia termino de dicho S. Clemente”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 654, 3). *Massoa* (mendia, 945. urteko toponimoa. “..Et de alia parte sicut est illa via que venit de monte Massoa similiter usque ad villam”. Cartulario de San Millán de la Cogolla, 44. or., bezer. or. 93). *Muramangutia* (probableki, goiko *Maranagutia*, Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 654, 11). *Mentikillo* (*Mendikillo*, Espinosako lur-saila. “...Que llaman el Mentikillo: confronta por Zierzo, abrego...”. Arch. Diput. Leg. 696, 101, 1752. urtea). *Mendiko* (“del monte”; erreg. 46). *Mendiko Zorroza* (Espinosako mendia 1090. urtean konstatatua. “...Et alia terra in via de Espinososa sub Mendico Zorroza...”. Cartulario de San Millan de la Cogolla, 280. or., bezer. or. 98). *Mitxote* (lur-saila). *Onsastia* (*Osastia*, *Osartia?*, Espinosako lur-saila). *Osastia* (Espinosako lur-saila, bigarren osagaia *sagastia* (manzanal)/*sagar-*

tia daiteke; behe-rago *Sagartia*, 1752. urteko tokizena. “Una heredad de tres celemines en Osastia termino de Espinosa, surca al cierzo y abrego tiesos, al solano Bernardo Martinez vecino de dicho Espinosa”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 531, 4, 1848. urtea).

P, S, T, TX

Palagubia (San Clementeko soroa. “Otra de ocho celemines en Palagubia surca por solano Cristobal Ortiz vecino de Fresneda por los demas aires tiesos”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 654, 10, 1849. urtea). *Sagastia* -gorago *Sagartia*- Espinosako lur-saila. “...Da fruto cada año, en termino que llaman Sagastia, confronta por Cierzo y abrego con terrenos de Conzejo”. Arch. Diput. Leg. 696, 3 ecl., 1752. urtea). *Sarana* (agian, **Susarana*, San Clementeko lur-saila). *Sarasitas* (hau ere *Sagasti*-ren ildokoa, *sarats* “sauce”-etik “Otra de cinco celemines en Sarasitas, solano San Millan, cierzo Camino”. Arch. Hit. Prov. Reg. Pr. Leg. 531, 12). *Susarana* (San Clementeko lur-saila, erreg. 2996). *Tikuarana* (lur-saila; bigarren osagaia -*arana* (valle). *Turriozza* (probableki, (*I*)*turriotza*-ren -fuente fría- ildokoa, Pradoluengon *Turroza* ematen delarik; lehen bokalaren galeraz *Txarriturre*, *Turbero*, *Zarrakaturrias*, *Turruzaia*, *Turralde*, *Kuturria*). *Txaburtun* (*Txaburtun*, Espinosako lur-saila. “...Que llaman devajo de Chaburtun da fruto con descanso de un año”. Arch. Diput. Leg. 696, 110, 1752. urtea; orobat, *Txabortun*. “Otra de diez celemines en Chabortun, surca al abrego barranco”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 531, 4, 1848. urtea).

U, V, Z

Usartia (lur-saila, erreg. 1704; bigarren osagaia -*arte*; bere aldakiak, probableki, *Usastia* (*Usartia* ? eta *Osartia* / *Osastia*). *Urtxona* (San Clementeko lur-saila, Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 654, 18). *Valdeburena* (itxuraz, *Valdegurena*-ren aldakia; bigarren osagaia -*gurena* “superior o el más alto” daiteke, tokizen hibrido izaki. “Otra en Valdeburena termino de las tres villas de cuatro celemines, surca por solano Enrique Pascual vecino de Espinosa”. Arch. Hit. Prov. Reg. Pr. Leg. 531, 10). *Valdegurena* (“*Valle superior*”, erreg. 107). *Valladarr*a (ikus gorago *Balladarr*a; lehen elementuak *vall(e)* dirudi). *Zabaletas* (erreg. 270, gaztelaniar pluralgilea atxikia duela). *Zabalitas* (aurrekoaren aldakia. “...Y tres celemines en una heredad de fanega y media en Zabalitas” Arch. Hit. Prov. Reg. Pr. Leg. 531, 12). *Zaballa* (Espinosa lur-saila; palatalizazioak, -*ola* / *olla* kasuan bezala, hegoaldeko formula adierazten du, eskualde erromanizatu baten ukituan sortua). *Zalabita* (*Zabalita*-ren metatesia; San Clementeko lur-saila, erreg. 1829). *Zagalaviña* (inguruko herrietan tokizen bera, maiz; lehen osagaia **Zabala*-ren adulterazioa izan daiteke; Garganchón-en bada *Zagalaribera*). *Zanzarrias* (San Clementeko lur-saila. Bigarren osagaia, itxuraz, *Sarria* (espeso, lugar de espesura). “Otra heredad la Zanzarrias digo la mitad de dicha heredad toda ella de una fanega surca por cierzo Maria Ribera”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 654, 10, 1849. urtea). *Zazuarrilla* (?) (erreg. 408).

d) *Fresneña*:

Fresneña herria Beloradotik aski hurbil aurkitzen da, eta, beraz, euskal toponimiaren kokagune nagusitik zerbait gorago. Euskal toponimoen zerrenda Arandio mendizerraren babesgunean baino murrizagoa bertan.

Benaza (lur-saila, erreg. 1018. Villamayor-en toponimo bera). *Ezketa* (lur-saila; erreg. 179; agian, **Ezkieta* baten formula sinkopatua; Burgosko toponimoetan

Ezkijarana, Ezkizaga, Eskiza ildo beretik). *Ulagarte* (lur-saila. **Olagarte*-ren aldakia daiteke lehen elementua *ola*- (sel, cabaña, ferrería...) bada, hegoaldeko tokizenetan bokalearen ixtura ohikoa delarik, -*Martikula, Marmatula, Garrulla, Gumenzula* izenen modura).

e) *Garganchón*:

Garganchón herria ere Burgosen euskal tokizenak ugarien kausitzen diren eskualden kokatzen da, hots, Pradoluengo, Valmala eta Fresnedaren ondoan. Euskal toponimoen desitxuratzeak, gutxi gora-behera, eskualde guztian antzekoak dira; adibidez, *Bendias* > *Mendias* ordez, *Zorza* > *Zorroza* ordez, *Turralde* > *Iturralde* ordez. Beste batzuk *Ritarte*, *Gutia, Rastroluzea, Zarrias (Sarrias)*...

A, B, E, F, G

Abanza (Beste herritako *Abarza*-ren “ramaje” sasi-aldakia, agian; erreg. 2155). *Aluzeas* (lehen elementua gaztelaniar norabidezko preposizioa (*a*) izan bide da, euskal toponimo bati atxikia; bigarrena -*luzea* “largo”). *Andubias* (lur-saila, erreg. 1599). Fresnedan toponimo bera; amaieran -*bea/bia* “parte inferior”). *Araiza* (lur-saila, erreg. 1168). *Arrudela* (lur-saila, erreg. 1678). *Azkurna* (haitza, erreg. 1671; lehen elementua *haitz*- “roca” daiteke; bigarrena, agian, -*gur(e)na* “superior, el más alto”). *Azorke* (lur-saila, erreg. 90). *Bendias* (beherago *Mendias*, ezpainkarien ohiko nahasketaz; lur-saila eta gurutze-tokia, erreg. 183). *Bizkarruka* (lur-saila, erreg. 16; *Zabarruka / Zabaluka* sasi-aldakiak izan daitezke, etimologian *bizkar*- “loma” dagoelarik). *Buzanko* (lur-saila, erreg. 280). *Elesa* (belardia; agian, *eleiza* “iglesia” baten ildokoa, baina ez da ziurra. “La sexta parte de un prado en la Elesa”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 772, 4). *Erukare* (bestetan *Irukare, Ilukare*; lur-saila). *Fuentorrillas* (lur-saila, erreg. 1641; beharbada, hibridoia, lehen elementua *fuelle* eta bigarrena *iturrias / *torrias* daitekeelarik). *Galsomero* (zubia eta belardia, erreg. 442; lehen osagaia *gari/gal*- “trigo” izan daiteke; bigarrena gaztelaniar *somero*). *Garatia* (beste herritan *Garatea* “portillo alto”, *garai*- eta -*ate* elementuetatik. “Un prado de yerba segadora... de siete celemines y medio de cavida poco más ó menos sito en Garatia o prados abiertos comuneros de Santa Cruz, Soto y Garganchon”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 772, 4). *Gazalea(?)* (lur-saila, 281). *Gizamotila* (lur-saila, erreg. 17; beherago *Motila*, soilik.; bere esanahia, ausaz, “muchacho” *giza*- eta -*mutil* osagaietatik). *Gurranbal* (lur-saila, erreg. 765. Kasu batzuetan, -*bal* (*za*)*bal*-en hondarra da). *Gutia* (lur-saila, erreg. 1718; *gutia-k* toponimian “menor” adierazten du, *Regutia, Igutia* kasun modura, eta beste eskualdetako *Olazagutia, Gamarragutia* izenen arabera). *Guzupela* (lur-saila, erreg. 693; bada *Ipella* ere inguruetan).

I, K, L, M, N

Iezkua (lur-saila, erreg. 411, eta Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 772, 14). *Igutia* (lur-saila, erreg. 599; bigarren osagaia -*gutia* “menor”). *Ipella* (lur-saila; Valmalan toponimo bera). *Ilukare* (lur-saila, Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 772, 13. “...Sita en do dicen Ilucare, surca por regañon...”. Bere aldakiak *Erukare* eta *Irukare*. Cfr. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 772, 4). *Keiiga* (mendia, erreg. 2158). *Kontraiza* (lur-saila, erreg. 1727). *Laiza* (lur-saila, erre g. 503; lehen kontsonantea gaztelaniar artikuluaeren hondarra daiteke, erroa *aitza* (peña) izaki. *Landabia* (belardia, Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 772, 20; lehen osagaia *landa*- “campo”, bigarrena -*bea* (-*bia*,”parte de abajo” *Olandabia, Lozabia* kasuetan bezala. “Un prado de siete celemines y tres cuartillos de cavida situado en Landabia termino de Garganchon, Santa Cruz y Soto, surcante por cierzo de Francisco Heras”. *Lozabia* (lur-saila, Arch. Hist. Prov. Reg. Prop. Leg. 722, 12). *Lozaria* (lur-saila, erreg. 33; *Lozarria* ere bai - erreg. 866-, bigarren ele-

mentua *Zarrias* (*Sarrias*) “lugar espeso”) izan daitekalarik. *Luzea* (lur-saila, “largo”; ildo beretik *Aluzeas* eta *Rastroluzea*). *Maiturri* (lur-saila, *Maziturri*-ren sinkopa; bigarren elementuan *-iturri* “fuente”). *Maziturri* (iturri eta bizkarra). *Mendia* (lur-saila, erreg. 135). *Mendias* (lur-saila, erreg. 671; *mendi* “monte”, pluralgile arrotza atxikia duelarik). *Naskaza Trescaza* ?, lur-saila, erreg. 138). *Oladabias* (baliteke *Landabiarren* ildokoa izatea. “Un prado de cuatro celemines do dicen Oladavias que linda por abrego Fracisco Heras”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 772, 4). *Ordantiga* (belardia. “Un prado de yerba segadora de diez celemiens en Ordantiga termino comunero de santa Cruz, Soto y Garganchonn surca al cierzto Domigno Alarcia”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pro. Leg. 772, 6). *Ordokia* (lur-saila, erreg. 743, “llanura”, *ordo* eta (*t*)*oki* osagaietatik. *Orkidia* honen metatesia, agian. *Orgisalo* (?), (erreg. 183). *Rastroluzea* (lur-saila, erreg. 1472). *Restauluzea* (belardia; bigarren elementua *-luzea* “largo”, bestelako *Rastroluzea*, *Restuluzea*, *Restroluzea*, *Reteluzea* delakoak kontuan izanik). *Riogutia* (erreka, erreg. 1472. Ildo beretik *Regutia*, *Rigutia*, lehen osagaia gatelaniazko *río-* eta bigarrena *-gutia* “menor”. *Riotxikito* beherago). *Ritarte* (erreka eta belardia, erreg. 1240, *río-* eta *tarte* (entre) delakoetatik). *Ritena* (ausaz, bigarren osagaian *-ar(a)na* (valle). *Sarziko* (madura, erreg. 54). *Turralde* ((*I*)*turralde*-ren aldakia, hasierako bokalaren ohiko erorketaz, *Lejoste* < Elejoste, *Txabarri* < Etxabarri izentetan bezala.”...La quinta parte de la heredad de trece celemines y medio encima de Turralde que surca por cierzto...” Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 722, 13. Ildo beretik gorago *Maziturri* eta *Maiturri*). *Txikito* (erreka, erreg. 907). *Urban* (lur-saila. “La mitad de una heredad en Urban...” Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 772, 15). *Utar* (mendi-lepoa. Bigarren elementua *-ar(a)na* izan daiteke. “La tercera parte de la heredad de ocho celemines y medio en el collado de Utarna y surca por solano...” Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 772, 13). *Zabaluka* (lehen osagaia *zabal-* “ancho, extenso”, *-uka* elementua *Bizkarruka*, *Zalduka* delakoetan ematen den bera. “Otra en la subida de Zabaluka de catorce celemines que surca por cierzto camino...” Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 772, 14; beste sasi-aldakiak *Zalduka*, erreg. 489, *Zabarruka* erreg. 1172 eta *Zagaluka* erreg. 1610). *Zagaña* (Ildo beretik *Izagaña*. Bigarren elementua, itxuraz, *-gaña* (parte alta, altozano); lur-saila, erreg. 161). *Zagalarihera* (lur-sailak; bada *Zagalaviña* ere; agian, lehen elementuan *zabala-* desitxuratuta. Ez da ziurra). *Zagañas* (lur-saila. “Y la otra en Zagañas de otros tres celemines surcante por cierzto de Antonio Goñi”. Arch. Hist. Prov. Reg. Prop. Leg. 772, 9). *Zarraas* (belardia, *zar-* “viejo”, baldin eta *Zarr(i)as*-en sinkopa ez bada. “Un prado de yerba segadora... de cuatro cargas do dicen Zarraas surcante al abrego de la cofradia de...” Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 772, 4). *Zarrias* (*sarria* “espeso, lugar de espesura”, erreg. 856). *Zorza* (lur-saila, erreg. 872. Izan daiteke *Zorrotza* (agudo) baten aldakia, amaierako afrikaria itzalita Bilboko *Zorroza* eta Gasteizko *Mendizorroza* kasuetan bezala; aldaketa fonetiko hori gure erdaldunduetan eman ohi da. Badira *Ginzorza* eta *Kinzorzas* toki-zenak eskualdean).

f) *Puras de Villafranca*

Puras Ezkerra herriaren ezkerrera ematen da, eta Espinosa del Caminoren hegoaldean; egia esan, euskal toponimia jori gertatzen den tokitik at dago; hala ere, bere euskal tokizenen kopurua Bureba edo Juarros euskualdetakoa baino anitzagoa da. Aipagarri dira, besteen artean, *Ezkarriturrias*, *Valjubi*, *Valuzea* (*Vall(e)*) *luzea* = Valle largo), *Kurzegañas*, *Okendo*, *Okaraña*, *Kurzelaia* (prado de la cruz), *Sarria*.

A, B, E, G

Artikolana (*Artikorana* ?, lur-saila eta aintzira, lehen osagaian *arte-* “entre” baldin eta “encina” ez bada-, bigarrenean *-arana*, agian; erreg. 494). *Baiza* (ausaz,

euskualdean ezaguna den *Balza* toponimo zaharra). *Bajobi* (*Valjubi*-ren aldaki irekia; lehen osagaia *val* gaztelaniarra izan daiteke *Valondo*, *Valmala*, *Valloca* tokizenetan bezala; erreg. 1. *Valjobi*, erreg. 139. Ikus Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg.589, 8, 1851. urtea). *Baljubi* (lursaila, goikoaren aldakia. “Tres partes de una heredad de cuatro celemines do llaman Baljubi termino de Puras”. Arch. Hist. Prov. Reg. Prov. Leg. 589, 8, 1851. urtea). *Balloka* (*Valloca*, mendia, erreg. 557). *Balza* (lur-saila, erreg. 28 eta 986). *Balzuzea* (*Valuzea* “valle largo”; lur-saila, erreg. 61). *Berkolar* (bigarren osagaia, probableki, *larr(e)* “dehesa, prado”. Cfr, Arch. Hist. Pro. Reg. Pr. Lega.589,8, 1851 urtea). *Bubia* (*Ubia?*, erreg. 613). *Enterga* (lihotokia, erreg. 1075). *Eskarriturrias* (hidronimoa; lehen osagaia *ezkar-* “arce, bigarrena *iturria* “fuente”, gaztelaniar pluragilez osataua; osagai bera *Zarranaturria* toponimoan). *Garreta* (mendi-hegia, erreg. 495; bestalde, *Kareta* formula, bietan *-eta* atzizki ohikoa).

K, M, O, R

Kolorzia (belardia, erreg. 408). *Kruzaraña* (*Kurzegaña*-ren aldakia, *kurze* (*kurutze*, “cruz”) eta *-gaña* “parte alta, altozano” osagaietatik). *Kurzegañas* (lur-saila; gaztelaniar pluralgilea anitzetan azaltzen da, aspaldidanik eskualde arrotzotzean kokaturiko tokizen bezala; pluralgile bera *Zabaletas*, *Zabalitas*, *Izagañas* izenetan). *Kurzelaia* (bigarren elementua *zelaia*, eskualdean maiz *zalaia* agertzen dela). *Kurzeñas* (*Kurzegañas*, lur-saila, erreg. 349). *Kurzereña* (*Kurzegaña?*, erreg. 439). *Malalan* (?) (lur-saila, erreg. 185). *Modorra* (lur-saila, erreg. 614). *Mulalardo* lur-saila., erreg. 327). *Mugaña* (bigarren osagaia *-gaña* “parte alta”; ikus *Mugarana*/*Mujerana* ere, erreg. 82 eta 623). *Okaraña* (agian, mendebaleko *okarana* “ciruelo”, baldin *-arana* “valle” baizik ez bada). *Okendo* (belardia, erreg. 583). *Redunte* (*Ordunte?*, soroa eta lur-saila. “Otra de una fanga en Ordunte, que surca por Regañon la Capellania de Eustaquio Benito, cierzo Feliz Martinez, abrego Ignacio Garrido y demas tierras...”. Arch. Hit. Prov. Reg. Pr. Leg.589, 8).

S, U, V, Z

Sajokolareia (?) (lur-saila. “Otra de media fanega en Sajocolareia (?) termino del mismo...”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg.589, 8). *Sarria* (lur-saila, “espeso, espesura”, erreg. 498). *Urdiales* (belardia, erreg. 284). *Valdarrabe* (lur-saila, erreg. 159). *Valdehabiza* (?) (lur-saila, erreg. 291). *Valdeitxabieza* (ausaz, *Valdetxabieta*-ren ildo-koa, San Miguel de Pedroso-n bezala (lur-saila, erreg. 291). *Valdelupe* (San Miguel de Pedroso-n *Valderupe*; lur-saila, erreg. 126. *Valdetxanzera* (?) (lur-saila, erreg. 40). *Valuzea* (ikus gorago *Baluzea*). *Zagaña* (bigarren osagaia, *-gaña* “lugar alto, altozano”, baldin eta *Zagalaviña*-ren sinkopa ez bada; erreg. 507). *Zarranaturria* (bigarren elementua *-(i)turria* “fuente”).

g) Rábanos, Ahedillo, Alarcia, Villamudria:

Beste gehienetan bezala, herrien deitura erdalduna da, baina bertako toponimia tipiak ukazezinezko euskal adierazpenak ditu (Alarcia-ri dagokionez, behintzat, Arlazon ibaiaren ibilbitik aski hurbil aurkitzen delarik). Bestaldeti hurbil Pradoluengo eta Valmala, euskal toponimiazko gune aberatsenetakoak. Rábanos Garganchónetik hegoaldera dago. Azpimarratzekoak, besteen artean, *Zaizola*, *Mazeturte* (*Maziturri*, *Arana*, *Txorrua*, *Kanpuzkiña*, *Azkarro*).

A, B, E, G, H, I

Agas (lur-saila, erreg. 939; beherago *Alegas*). *Aiago* (gailurra eta lur-saila, erreg. 1180). *Alaga* (lur-saila, erreg. 664). *Alegas* (*Alaga?*, lur-saila, erreg. 500). *Arana* (auzoa, “valle” erreg. 33). *Arangua* (lur-saila, erreg. 119). *Azas* (lur-saila, erreg. 290).

Azkarro (“arce”, eta bestetan *Ezkarro*, *Ezkarriturrias*, *Eskargaña*, *Eskarna*, *Eskargaña*). *Balza* (eskualdean aurkitzen den aspaldiko toponimoa hots, 1042. urtekoa. San Miguel de Pedroso-n izen bera. Agian, mendebaleko euskaran ezaguna den “beltza” (negro)- ren aldakia, bestelako *barri*, *bago*, *uri* (*uli*), *okaran* eta antzekoen ildotik. *Baskuñana* (*Bascuñana*, herri-toponimo nagusia **Vascuniana* batetik, *Báscones*, *Vasconcelos* gentilizioen antzekoa). *Bastolo* (*Bastola* ?, erreg. 1105). *Burbeda* (lur-saila, erreg. 999). *Erbaneta* (bestetan *Erbineta*; Alarciako lur-saila, erreg. 462). *Espurga* (Rábanosko lur-saila, erreg. 1333). *Etiga* (Villamudriako belardia, erreg. 678). *Etixiga* (*Etiga*?, Villamudriako lur-saila, erreg. 142). *Ezkarro* (goran *Azkarro* aldakia “arce”; Ahedilloko lur-saila, erreg. 3). *Guman* (?) (Ahedilloko lur-saila erreg. 374). *Gurapeta* (lur-saila, erreg. 1151). *Hirrun*?) (Alarciako lur-saila, erreg. 430). *Iuela* (belardia, erreg. 97).

K, L, M, O, R, T, TX, Z

Kanpuzkiña (lur-saila, erreg. 674). *Lapan* (iturria eta lur-saila, erreg. 1663). *Larrako* (Villamudriako belardia, erreg. 1441). *Lusartia* (lehenengoa *lur*- izan daiteke. *Lasartiga* ere bada eskualdean; erreg. 171, 1000). *Mendikillo* (lehen osagaia *mendi* “monte”, *Mendegillo*. *Mendigillo* aldakiak izaki; erreg. 270). *Meneturna* ?) (lur-saila, erreg. 1121). *Mezeturri* (*Maziturri*, bigarren osagaia, *-iturri* “fuente”, *Maziturre*, *Mazeture* (erreg. 544) aldakiak kontuan izanik). *Merguna* (lur-saila, erreg. 1839). *Merkina* (*Mezkina*, lur-saila, erreg. 1914). *Orkiza* (lur-saila, erreg. 508). *Orman* ?) (lur-saila, erreg. 322). *Rako* (agian, *Larrako* baten sinkopa, hasierako silaba gaztelaniar artikulatza hartuta. *Larrako/Larreko* “de la dehesa”; erreg. 121). *Ralda* (Rábanosko lur-saila). *Rejuna* (lur-saila, erreg. 580). *Roiga* (Villamudriako lur-saila, erreg. 30). *Roskioza* (*Orkiza*?, lur-saila). *Rute* (belardia, erreg. 197). *Torraiko* (lur-saila, erreg. 535). *Turkatxos* (lur-saila, erreg. 592). *Txaraña* (?) (agian, bigarren elementua *-arana*?, hobia eta lur-saila, erreg. 583). *Txorua* (*Txorrua*, lur-saila, erreg. (valle). Villamudriako lur-saila, erreg. 606). *Txorteta* (lur-saila, erreg. 361). *Txorma* (*Txorrua* ?, 1863, 945). *Zaga* (lur-saila, erreg. 1009; ausaz, *Zagaña*-ren ildokoa). *Zaizola* (bigarren elementua *-ola* atzizkia; erreg. 2039).

h) San Miguel de Pedroso

Herria Beloradoren hegoaldean aurkitzen da, eta, beraz, Arandio mendizerraren babesgunetik urrun samar. Bertan kokatzen zen monasterioak bere garrantzia ukan zuen; San Miguel de Pedrosoko euskal toponimoak ez dira ugariak, baina Burebakoak baino joriagoak dira, eta *Zarraga*, *Bubarana*, *Antxeta*, *Valdetxabieta* (hibridoak) bezain gardenak.

Antxeta (lursaila, erreg. 676). *Assur* (ibarra, 1022 urteko toponimoa. “...Et una vinea que est in valle de Assur...”. Cartulario de San Millán, 102 or., bezer. 91).. *Bajubi* (*Valjobi*, Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 665, 3, 1848. urtea). *Baljobi* (lur-saila, lehen osagaia gaztelaniazko *val-* (valle). “Una heredad en termino del Priorato que Baljobi de cinco celemines y cuartillo...”(Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg.665, 6). *Baljobi* (*Valjobi*, lur-saila, erreg. 225). *Balza* (toponimo zaharra, 1049. urterako aipatua. “Et totam vallem similiter usque ad summitatem campi oteri, et cum toto bustello et cum toto valle de Balza usque ad illum lumbum...”. Cartulario de San Millán, 150 or., bezer. 86). Beste aipua: “Una heredad do dicen Valza de una fanega poco mas ó menos, surca por abrego Feliz vecino de Puras, por solano Pedro Calvo, regañon tiesos, y cierzo valladar”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 665, 3, 1848. Urtea. Bere jatorria euskarazko *baltz* “negro, oscuro”, mendebaleko euskalkian, izan daiteke, baina ez gara beste iturrietara ixten). *Barga* (lur-saila, erreg. 2409. *Barga* hitza ezaguna da Ergoienan Naf.) eta bestetan toki *menditsu* eta *garai* bezala). *Bargadilla* (lur-

-saila.”Otra en Bargadilla de cinco celemines poco mas ó menos que surca por cierzo D., Miguel de Mateo, abrego el Hospital de Belorado”. Arch. Hist. Prov. Reg.- Pr. Leg. 665, 7, 1851. urtea). *Berlariga* (lur-saila, erreg. 68). *Bubarana* (lur-saila, -arana (valle) elementua, *Mujarana*, *Txobaharan* toponimoetan bezala). *Mujarana* (lur-saila, agian, *Bubarana*-ren ildokoa). *Sabutxo* (lur-saila, 1022. urtea; agian, gaztelaniako *Sabuco*. 1022 urtean bada bere lekukotza, *Chovaharan* eta *Assur* tokizinekin batera. “...Et una vinea que est in valle de Assur, ... et miserunt media vinea en Sabucho, et altera vineam que est in Chovaharan, quam misist Acha vita eta Nunno Valza de Seroiana...”. Cartulario de San Millán de la Cogolla, 102. or., bezer. 91). *Txobaharan* (lur-saila, 1022 urtekoa. Testua ikusi aurreko toponimoan). *Valderupe* (lur-saila. “Una heredad de una fanega poco mas ó menos en termino del Priorato de San Miguel que llaman Valderupe, surca por cierzo la cofradia de San Esteban...”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 665, 6). *Valdextabieta* (lursaila; bigarren osagaia, antza, -(e)txabieta, lehen bokalaren ohiko erorketaz. “Una heredad de media fanega en termino del Priorato do dicen Valdechabieta que surca por cierzo Simon Garrido”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 665, 3, 1848. urtea). *Villaumbidia* (?) (lur-saila, erreg. 1916). *Zagalaviña* (eskualdeko beste herrietan lur-sail bera; bigarren elementua gaztelaniatzko -viña; lehenegoa, aldiz, izan daiteke *zabala*-ren aldaki desitxuratua). *Zarga* (lur-saila, probableki, *Zarr(a)ga*-ren sinkopa, atzetonikoaren erorketaz gaztelaniar azentuaren eraginez). *Zarraga* (baratzea, erreg. 5330; *zar-* (viejo) eta -aga atzizkitik).

i) Santa Cruz del Valle Urbión, Soto del Valle

Bi herriok euskal toponimia oso sarri den eskualdean ematen dira, hau da, Arandio (La Demanda) mendi-zerraren gunean, Pradoluengo edo Fresnedako euskal toponimoen intentsitate-esparruan. Besteetan legez, euskara eskualdetik orain sei-hun bat urte mintzaira bizi bezala desagartzeak ondorioz euskal tokizenen adulterazio, desegite eta sinkopazio-prozedurak azkartu zituen. Hurrengo fenomenoak atzeman daitezke toponimo horietan: a) lehen bokalaren erorketa (*Txarreturre* (*E)txarriturri), *Turralde* (I)turralde), *Igutia* (Riogutia, Regutia), *Zagañas* (I)zagañas, *Zaga* (I)zaga (?). b) Bokaleen erorketa azentuaren eraginez (*Utarna* (Utarana). c) *Ea* talde bokalikoaren ixtura (*Basardia* (Basarte), *Landabea(s)* (Landabias). d) Artikulu erromanikoaren sasi-intepretazioa (*La Remendia* (Larremendia), *La Renguna* (Larreguna). e) Bestelako adulterazio eta sinkopak (*Ilukare* (Erukare, Errukare), *Erbineta* (Arbineta, Ermineta), *Riotalde* (Ritaldea), *Riotarte* (Ritarte, Retarte), *Riogutia* (Regutia, Igutia), *Zorza* (Zorrotza?). Beste toponimo askok ez du jasan adulterazio nagusirik, elementuak aski garden iraun dutelarik *Luzea* (largo), *Zelaya* /*Zalaia* (lano, campo), *Iturri* (fuente), *koba* (cueva), -arana (valle), *zarra* (viejo), *gorria* (rojo, pelado) bezala.

A, B

Abarza (lur-saila, erreg. 2155; bere osagaiak, agian, *abar-* (rama) eta -za ugari-tasunezko atzizkia. Ildo beretik Euskal Herrian *Abartzegi*, *Abartzuza*). *Altuzarra* (mendia eta erreka, *altu-* (alto) eta -zarra (viejo) osagaietatik). *Aluzea* (belardia, erreg. 1128. Lehen bokala izan daiteke gaztelaniar preposizioa; ido beretik *Aluzeas* (mendia, erreg. 2155). *Arandona* (lur-saila). *Arbineta* (beherago *Erbineta*, erreg. 132; izan daiteke “lugar de liebres”, beharbada, *Erbiti* (Naf.) toponimoa bezala; *Ermineta* honen aldakia, antza). *Armaula* (ibar tipia; -ula amaiera -ola atzizkia formula itxiaz eskualde betse *Bedarkula*, *Garrulla*, *Martikula*, *Gumenzula* bezala). *Arralde* (-alde “lado, zona” osagaia *Iturralde*, *Turralde* tokizenetan, besteen artean). *Artes* (lur-saila, erreg. 106 ; “entremedio”, pluragilez erromanikoaz. Osagai bera *Ulagarte*,

Txaurte kasuetan. Dena den, izen osoa beherago *Ilartes*. Beharbada **Lartes* “entre dehesas” *La Rain* (era) - Arabako toponimoetan- antzera hasierako silaba artikulatu erromanikotzat oker hartuta) *Azekoturre* (lur-saila, erreg. 1130; bigarren osagaia *-(i)turre* (fuente). *Barkaskuna* ?) (lur-saila, erreg. 1164). *Barraute* (lur-saila. “...En termino que llaman Barraute da fruto...” Arch. Diput. Leg. 1849, 270, 1752. urtea). *Barrukales* ?) (lur-saila). *Basardia* (lur-saila, *baso-* (bosque) eta *-artia* (entre) elementuetatik, baldin amaierakoa *-di* tokizko atzizkia ez bada). *Basinttes* ?) (Soto del Valleko lur-saila. “...Que llaman Basinttes da fruto a segundo año. Confronta por zierzo con tierra de Herederos de Mathias Alonso”. Arch. Diput. Leg. 1977, 220, 1752. urtea). *Besteklinea*(?) (lur-saila. “... Dos celemines de un Prado mayor cabida en Besteklinea, termino comunero surca regañon otro prado de los compradores”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 637, 8). *Birgona* (Lur-saila). *Bizkaruka* (*Bizkarruka*, lur-saila; lehen osagaia *bizkar-* “loma” *-uka* atzizkiaz. Ildo beretik Burgosko toponimoetan *Bizkarra*, *Bizkarraga*). *Bizkornuda* (“...Que llaman Bizkornuda (?) da fruto cada año” Arch. Diput. Leg. 1849, 265, 1752. urtea). *Buzanko* ?) (lur-saila, erreg. 193).

E, F, G, H

Ekizaga (probableki, *Ezkizaga*, “lugar tilos ?”). Beherago *Ezkiza*, *Eskizalaia*. “Un prado de tres celemines poco mas ó menos en Equizaga termino comunero de Santa Cruz, Soto y Garganchon que surca por solano del comprador. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 637, 11). *Erbineta* (*Ermineta* aldakia ere bada; erreg. 240. *Erbinetta* grafiaz, berriz: “...De dos celemines y media de sembradura de tercera calidad donde llaman Erbinetta”. Arch. Diput. Leg. 1977, 157, 1752. urtea). *Errukare* (*Erukare*, *Ilukare* aldakiak ere bai. Lur-saila eta madura.”Otra heredad en Errucare sembradura de tres celemines poco mas ó menos, surca por regañon la Paul llamada Errucare cirzo y abrego Riberas”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 637, 13. Orobat, hurrengo: “...Sembradura de tercera calidad en termino que llaman Errucare”. Arch. Diput. Leg. 1848, 9, 1752. urtea). *Eskizaia* (*Ezkizalaia*?, belardia, erreg. 211). *Eskizalaia* (lur-saila, erreg. 995; *ezki-* “tilo” batzuetan), *-zalaia* (prado, campo). *Espurzia* (lur-saila, erreg. 407. “Sembradura de tercera calidad en termino que llaman Espurzia...”. Arch. Diput. Leg. 1849, 21, 1752 urtea). *Ezkiza* (agian, *Ezkizaga*-ren sinkopa; belardia, erreg. 1877). *Garatia* (*Garatea*, “portillo de monte” *garai-* eta *-ate* elementuetatik; Santa Olalla-n tokizen bera; erreg. 470. “Otra heredad vajo el camino que se va á Garatia”. Arch. Hist. Prov. reg. Pr. Leg. 637, 14). *Gitagalena* (?), (lur-saila, erreg. 1061; probableki, *Gitagorena*-ren aldakia, bigarren osagaien *-gorena* (el más alto, superior). “...Sembradura de tercera calidad, en termino que llaman Guitagorena”. Arch. Diput. Leg. 1849, 12, 1752. urtea). *Gizamotila* (*giza-* (humano) eta *-motilla* (muchacho) osagaietatik; toki-izena, agian, ez-izen bezala hartu behar da, lur-saila, erreg. 435). *Guarza* (larraina, erreg. 1582; bide beretik *Guarza Hobias*, lur-saila, erreg. 144). *Gustaia*(?) (lur-saila; amaieran *-zalaia* baten sinkopa egon daiteke). *Gurupea* ((Soto del Valle-ko soroa). “Otra tierra de secano de dos celemines de sembradura, y tercera calidad, en Gurupea”. Arch. Diput. Leg. 1977, 2, 1752. urtea). *Gutia* (“menor”, *Regutia*, *Rigutia*, *Marangutia* delakoetako bera). *Guzpizarra* ?) (lur-saila). *Ilobias* (kanposantu zaharra, erreg. 1984; tokizenaren kokapena kontuan izanik, *agian*, *hilobia* “sepultura” delakotik; beherago *Ilobias* 1752. urtean). *Horubias* (lur-saila, erreg. 822).

I, J, K, L, M

Igutia (lur-saila, agian, *Rigutia*-ren aldaki laburra, “río menor” esanahiaz). *Ilartes* (lurtsaila. Gorago *Artes*. **Lartes* balitz *larr(e)-tik*. *Ilar-*, bestalde, “brezo”).

Ilobias (Soto del Valleko lur-saila. Gorago *Hilobias*. “Otra heredad en Ilobias sembradua de dos celemines poco mas ó menos que surca por cierzo de Pascual Garcia”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 637, 13). *Ilukare* (aldakiak *Erukare*, *Errukare*.”...De segunda calidad donde llaman Ilucare da fruto con descanso de un año” Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 637, 156). *Ilukarre* (erreg. 52). *Ikapika* (lur-saila). *Iorza* (Soto del Valleko lur-saila. Agian, *Zorza /Zorr(o)za*-ren aldakia; beherago *Zorza*. “...Y segunda calidad, en do llaman Iorza, da fruto cada año, confronta por Cierzo con prado de Juan Garcia”. Arch. Diput. Leg.1977, 4, 1752. urtea). *Ipella* (lur-saila, erreg. 124. “Otra de igual sembradura en Ipella surca al solano Pedro Camara”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg.637, 13. Orobat, hurrengo lekukotza: “...De medio celemin y tercera calidad, en Ipella”. Arch. Diput. Leg. 1977, 18, 1752. urtea). *Iturburu* (“manantial, *iturr(i)-* eta *-buru* elementuetatik; Araban -gaztelaniaren ukituan, maiz, *Itorboro* eta *Torboro* formulak bokaleen irekiera berantaz. Pradoluengon *Turbero* (Iturbero) eta *Turroz*as (Iturroz). *Jaizka* (lur-saila). *Kabolasa* (belardia, erreg. 161). *Kaprea* (Soroa. “Otra tierra de secano, en do llaman Caprea, de celemin y medio de sembradura”. Arch. Diput. Leg. 1849, 431, 1752. urtea). *Ketiga* (mendia, erreg. 2158). *Kobatxo* (lur-saila, erreg. 447). *Korko* (Soto del Valleko soroa. “Sembradura de tercera calidad en termino que llaman el Corco da fruto con descanso de tres años”. Arch. Diput. Leg. 1977, 3, 1752. urtea). *La Luzea* (*luze* “largo”. Orobat *Luzea*, belardia, erreg. 518). *Landabias* (*landa-* “campo” eta *-bea* “bajo” osagaietatik, agian. Ildo beretik *Olandabias*. “Un prado de diez cargas de yerba en do dicen Landabias, surcante al abrego herederos de Andres Garrido”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 637, 13). *Lantern*a (hobia). *Lartes* (lur-saila, erreg. 19. **Larr(a)rt*es baten sinkopa, ausaz, pluralgile erromanikoa atxikia duelarik. Gorago *Artes*). *Lozaria* (lur-saila, erreg. 821. Orobat, *Lozarria* formula -erreg. 47-, bigarren osagaia *-sarr*ia (espeso) daitekalarik. Beherago *Zarrias*, erreg. 50). *Luzea* (“largo”, belardia, erreg. 518). *Maionda* (lur-saila, ausaz, - *ondo(a)*, *Maiond(o)a Iberondo*, *Ironda/Trond(o)a* kasuak bezala). *Mendia* (“monte”, erreg. 1119. Bestetan *Mendias* eta *Bendias*, azken hau ezpaukariaren ohiko trukaketaz). *Mendias* (goikoa, gaztelaniar pluralgilez). “Sembradura de segunda calidad en termino que llaman de Mendias”. Arch. Diput. Leg.1849, 27, 1752. urtea). *Mozalzar*o (lur-saila). *Motila* (lur-saila, erreg. 2100; gorago *Gizamotila*). *Mozalzaral?*) (agian, *Mosalzar*o; lur-saila, erreg. 1917). *Muñeza* (padura eta lur-saila, erreg. 154).

O, P, R, S

Olanbarras(?) (lur-saila, agian, erreg. 1398). *Onaldia* (lur-saila, bigarren osagaia *-aldea* daiteke). *Orbella* (artegia). *Ordanitiga* (ildo berekoa, itxuraz, *Ordantiga*; erreg. 489. “...Y segunda calidad, en do llaman Ordanitiga, da fruto cada año”. Arch. Diput. Leg. 1849, 73 eccl., 1752. urtea). *Ordokia* (lur-saila, erreg. 1192, “llano” *ordo*-eta *-(t)oki* osagaietatik) *Oreka* (lur-saila; laburduraz *Orka*. Agian, **Ordeka* “llan” baten aldakia. “...En termino que llaman La Oreca da fruto”. Arch. Diput. Leg.1977, 16, 1752. urtea). *Orkilanda* (muino eta erreka; **Ordokilanda* baten sinkopa), behar-bada). *Otarna* (*Utarna / Utarana*-ren aldaki beranta, -amaieran *-arna/-ar(a)na* “valle”). *Pradobineta* (lur-saila, erreg. 1542). *Regutia* (erreka eta lur-saila, erreg. 2138. Nahiz, *erri-* “ campo, tierra” hitzaren sinkopa *re/ri* izan daitezkeen, Errigoitia > *Rigoitia* kasuan bezala, lehen osagaian gaztelaniazko *río-* / *re-* (*Retuerto* = Río tuerto o torcido, euskaraz *Laspiur*) ematen dela uste dugu. *Rigutia* kasuan zuzenago *río*-osagaia. *Regutia*, beraz, “río menor” edo *arroyo* litzateke. Bada *Rio Txikito* ere. Antzeko bidetik *Ritarterea* (**Riotarterea*, *Ritaldea*). *Rekonzalaia* (lur-saila, erreg. 961; bigarren osagaia *-zalaia* (llano, prado) *Martinzalaia*, *Kruzelaia* kasuetan bezala;

hemen bigarren elementua asimilazio bokaliko goranzkoaz). *Remendia* (lur-saila; probableki, **Larremendia*, haseirako silaba artikulutzat oker hartuta. Ez dugu uste, bada, hasierako *re-* delakoa *erri-* “tierra, campo” denik. Bestalde, *Regutia*-ren erlazioan “río/ re-” bezala ere intepreta daiteke, baina hemen ez da hain itxurazkoa. Beraz, probableago “monte de pastizales” esanahia). *Renguna* (lur-saila, erreg. 272; bigarren osagaia izan -*gune* (espacio, lugar) ala -*gurena* “superior, el más alto” *Valdegurena*, *Gitagorena* kasuetan bezala). *Restroluzea* (belardia, 549). *Reteluzea* (lur-saila, erreg. 303; ildo beretik *Retaluzea*, erreg. 661, *Restuluzea* / *Resteluzea* ?), -*luze* “largo” osagaiaz; beherago *Zestruluzea*, *Zertuluzea*). *Ritaldea* (lur-saila). *Ritartea* (lur-saila; lehen elementua *re-* (río), *erri-* “tierra, campo” alhora utzita. Gaztelaniar *Retuerto* hidronimoan osagai bera). *Ritena* (lur-saila; bere aldakia *Rittana*. “...Que llaman Rittana..., confronta con tierras de Hermenegildo Camara”. Arch. Diput. Leg. 1849, 27, 1752. urtea. **Ritarana* baten sinkopa izan daiteke, “valle” izaki bigarren osagaia; bada *Ritena* aldakia orobat, erreg. 108. “Otra de la misma cavida en el Salegar de la Ritena surcante por cierzo y solano...”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 637, 13). *Sabaruga* (*Zabarruka*?, haitzak). *Sabarruka* (lur-saila, -uka atzizkia *Bizkarruka*). *Sabarruza* (*Zabarruka*?, lur-saila). *Solanta* (lur-saila).

T, TX, U, V, Z

Turaldea (*Turaldea*, lur-saila eta iturria, erreg. 620, 76; (*i*)*tur-* “fuente” eta -*aldea* “lado, paraje” osagaietatik. Santa Cruz del Valle-ko lur-tsaila. “Otra de dos celemines y medio en Turaldea, surca por regañon Beneficios y solano Ignacio Alarcia”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 637, 13). *Turrida* (?) (belardia, erreg. 364). *Txarreturre* (lur-saila, erreg. 141; bigarren osagaia -*iturri* “fuente”, lehenengoa, ausaz, (*E*)*txaurre*). *Txikito* (erreka eta belardia, erreg. 533). *Txorron* (*Txorran*?, lur-saila, erreg. 977). *Ulama* (?) (lur-saila, erreg. 556). *Utardia* (?) (lur-saila). *Uzkiza* (lur-saila; beharbada, (*Eg*)*uzkiza* “lugar de solano” baten sinkopa, lehen bokalaren erorketaz (*I*)*turaldea*, (*E*)*leja* kasuetan bezala. *Urkiza* herria ere bada *urki*-ren ildotik askoz *Utarana* (lur-saila, -bigarren osagaia -*arana* “valle”. Aldakiak *Utarna* erreg. 39, 1225, eta *Utarena*.”Termino que llaman Utarna da fruto a segundo año”. Arch. Diput. Leg. 1849, 23, 1752. urtea). *Utardia* (?) (lur-saila). *Vallegorria* (toki-izen hibridoa, bigarren osagaia -*gorri* “rojo, seco” izaki). *Zabaluka* (*Zabarruka*?, lur-saila, erreg. 21, Arch. diput. Leg. 1849, 25, 1752. urtea). Lehen osagaia *zabal-*, (*agian*). *Zabaluzea* (lur-saila). *Zaga* (*Za*(*rra*)*ga* ala (*I*)*zagañas*/ *Zagaña* -ren ildokoa; erreg. 472). *Zagañas* (soroa. “Otra heredad en Zagaña sembradura de celemin y medio ó dos, surca por regañon de Pedro Arcendillo”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 637, 13. Hurrengoa ere bai: “...Y de segunda calidad, en do llaman Zagaña, da fruto a segundo año”. Arch. Diput. Leg. 1977, 9, 1752. urtea). *Zalaia* (“llano, prado” *zelaia*-ren aldakia; bide berdinetik *Rekonzalaia*, *Eskizalaia*, *Ziskezalaia* (?). “Y segunda calidad, en do llaman... zalaia, da fruto a segundo año”. Arch. Diput. Leg. 1977, 3, 1752. urtea). *Zarrias* (*sarria* “espeso, espesura”, belardia, erreg. 50). *Zarzea* (lur-saila). *Zarzia* (belardia, erreg. 94). *Zarzia* eta *Ordantiga* (lur-saila, erreg. 2016). *Zerrulabe* (lur-saila). *Zertuluzea* (lur-saila) “...De tres celemines de sembradura, y primera calidad en do llaman Zertuluzea”. Arch. Diput. Leg. 1977, 12, 1752. urtea). *Zestruluzea* (*Zertuluzea*?, soroa. “...De dos celemines de sembradura de segunda calidad donde llaman Zestruluzea produce cada año”. Arch. diput. Leg. 1849, 276, 1752. urtea. Gorago *Restuluzea*, *Restroluze* eta *Reteluzea*). *Zillas* (lur-saila, *cella*/ *ciella* erromaniakoaren erlazioan. Euskararen esparruan *zil* “omblijo”, “cogollo”, “eje” eta abar. Goiko etimologia probableena.”...Tres celemines sembradura de tercera calidad en

termino que llamar Zillar (Zillas?), da fruto...”. Arch. Diput. Leg. 1849, 24, 1752. urtea. Ildo beretik *Zukuzila*, *Zorazilas*). *Ziskezalaia* ?) (soroa. “Sembradura, y tercera calidad en do llaman Cisquezalaia”. Arch. Diput. Leg. 1977, 3, 1752. urtea.). *Zorza* (belardia, erreg. 117; probableki, *zorr(o)za* “agudo” hitzaren ildotik, atzetonikoaren erorketaz. Burgosko toponimoetan, orobat, *Kinzorzas*, *Ginzorzas*).

j) *Tosantos*:

Tosantos herria Espinosa del Camino eta Belorado artean lekutzen da, eta, beraz euskal toponimia sarri ematen den gunetatik urrun. Aipatzekoak *Azkarro*, *Aranas*, *Berkolar* tokizenak.

Aranas (lur-saila, erreg. 1134; *aran* “valle”. Osagai beraz toponimo anitz Burgosko partean *-arana/arna* formulapean (*Zularna*, *Ezkurna*, *Urtxarana*, *Eskijarana*, *Bitarana*, *Araluzia*, *Arangua*, eta abar). Cfr. L.M. Mujika, “El euskara en la toponimia de Burgos”, *Iker* 6, Euskaltzaindia, 327-330 or.). *Arancones* (lur-saila, erreg. 1947). *Azkarros* (lur-saila, erreg. 264; *ezkar* / *azkar* “arce campestre”. *Ezkarros* aldakia bada). *Barga* (lur-saila, erreg. 1280). *Berkolar* (lur-saila, erreg. 622; igarren osaigaia *larr(e)* / *lar* “dehesa, pastizal” daiteke. *Brekolar* aurrekoaren metatesia; erreg. 168). *Karrerai* (?) (lur-saila, erreg. 926). *Matxorra* (lur-saila, erreg. 1726). *Nokakora* (lur-saila, erreg. 769; *Okakora*, erreg. 756, bestalde). *Ortiz* (muino eta lur-saila, erreg. 156; lat. *fortis*-en ildo patronimikoa duena). *Roazas* (*Ruaza*, lur-saila, erreg. 329). *Zurrikueta* (?) (lur-saila, erreg. 1180; *-eta* atzizkiak Burgosko euskal toponimoetan *Arizeta*, *Maldeta*, *Ezpeleta*, *Olleta*, *Zabaletas*, *Ezketa*, *Txabieta*... *Baganeda*-k, berriz, herskari ozenaz formula erromaneztatua luke. Cfr. L. M. Mujika, “El euskara en la toponimia de Burgos”, art. c. 321-322).

k) *Valmala*:

Valmala Arandio mendi-zerraren adarretan aurkitzen da, hots, euskal toponimoak ugarien diren eskualdetik hurbil. Bertan tokizen garden asko: *Zabaletas*, *Zaballa*, *Arankiza*, *Zarria* (*Sarria*), *Bitarana*, *Sorabe*, *Zamaka*... Tokizenak herriekin mugakide direnean errepikatzen dira, nagusiki. Nabarmentzekoa toki-izen batzuen palatalizazioa: *Zaballa*, *Garrulla*, *Gomenzulla*, *Artolla*, *Olleta* (*-olla/-ulla*-atzizkiaren kasuan); hegoaldeko eskualde erromanizatueta egoniko euskal toki-izenen ñrabardura fonetikoak islatzen du.

A, B, E, G, H

Abina (agian *Arnia*?, erreka. “Y una heredad de tres celemines en el Rio de Avina (?) linda al solano de los compradores”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 676, 7). *Ainela* (**A Inela* izan daiteke, preposizio eromanikoa duelarik muturrean; erreg. 408). *Aitarte* (erreka). *Aizpuru* (erreka eta lur-saila, *aitz-* “roca” eta *-buru* “cabeza, punta” osagaietatik). *Alluzarra* (bigarren elementua *-zarra* “viejo”. Santa Cruz-en bada *Altuzarra* toponimoa. Osagai beraz Burgosko toponimoetan: *Zarraga*, *Zarrabadia*, *Turruzarra*, *Altuzarra*, *Guzpizarra*). *Andalaña* (lur-saila, erreg. 160). *Andurla* (agian, **Andorla* batetik, *-ola* atzizkiaren formula itxiaz). *Armia* (lur-saila, erreg. 404. Merino Urrutiak *Haramia* zaharrago baten lekukotza, op. c., 92 or.). *Arankiza* (*Arangiza*?, lur-saila eta belardia, erreg. 212. “Una heredad de tres celemines poco mas ó menos en Aranquiza, surcante por cierzo de Don Policarpo Alarcia, al regañon de Francisco Robredo”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 676, 9, XIX mendea. XVIII mendean hurrengo lekukoa: “Otro prado de... sembradura, de tercera calidad, en do llaman Aranquiza, regadio con la misma agua que el antezedente”. Arch. Diput. Leg. 2162, 75, 1752. urtea. *-za* atzizkiak hurrengo toponimoak Burgosen: *Giraldaza*, *Eguzuza*, *Abarza*, *Arduisa*, *Artaza*, *Orokiza*, *Usarza*, *Urkiza* (herria). *Artolla* (lur-

-saila; *Artola* “cabaña de ovejas” baten formula bustia). *Barangones* (?) (lur-saila, erreg. 81). *Barraute* (lur-saila, erreg. 806). *Bitarana* (haitza eta lur-saila; erreg. 684; honen aldakia *Bidarana*, erreg. 553). *Bidutxo* (lur-saila, erreg. 19). *Bitarkuna* (haitza eta lur-saila, erreg. 984; bigarren elementua *-gune* izan daiteke). *Ekueta* (*Zelekua*, *Zelegueta*?, lur-saila, erreg. 1120). *Eraña* (*Erreña*?, lur-saila, erreg. 605). *Erreña* (lur-saila, erreg. 161; beherago *Herreña*). *Ezpea* (*Zizpea*?, lur-saila, erreg. 231). *Garrulla* (lur-saila). *Gindabal* (lur-saila, erreg. 1986; bigarren elementua, agian, *-zabal*). *Girridal* (?) (lur-saila. “Otra en el Gurridal de tres celemines”. Arch. Hist. Prov. Reg. Prov. Leg. 676, 9). *Herreña* (lur-saila, erreg. 381). *Hizondo* (*Irondo*?, lur-saila).

I, L, M, N, O

Inela (lursaila, erreg. 1133). *Inja* (?) (lur-saila, erreg. 1371). *Ipella* (lur-saila. “...En do llaman Ipella, da fruto a segundo año, confronta por Cierzo con tierras de Manuel Camara”. Arch. Diput. Leg. 2162, 131, 1752. urtea. “Y otra de dos celemines y medio en Ipella, linda al Regañon y Solano...”. Arch. Hit. Prov. Reg. Pr. Leg. 676, 12). *Lapaiga* (*Lopaiga* eta *Luperiga* beherago. Bada *La Opaiga*, lehen kontsonantea artikulatu erromanikotzat hartuta...). “Otra tierra de secano de dos zelemines de sembradura de tercera calidad, en do llaman Lapaiga, da fruto a segundo año”. Arch. Diput. Leg. 2162, 24, 1752. urtea). *Lasartin* (lur-saila). *Latrotxe* (belardia, erreg. 9). *Lopaiga* (lur-saila, erreg. 298). *La Zorza* (*Zorza*, sakana, erreg. 376). *Lozabe* (lur-saila; *Ozabe* / *Uzabe* lehen kontsonanterik gabe. “Otra en Lozabe de nuebe celemines surca por regañon Narciso Peña”. Arch. Hit. Prov. Reg. Pr. Leg. 676, 7). *Lozoabe* (*Lozabe* ?), lur-saila, erreg. 126). *Luperiga* (*Lopaiga*?, lur-saila, erreg. 53). *Magillo* (iturri eta lur-saila, erreg. 1304). *Mandrabula* (lur-saila; amaieran *-ola* / *ula* atzizkia, antza. Bere aldakia *Mandragula*, erreg. 89. “Y una heredad de media fanega de sembradura en do llaman la Mandrabula, jurisdicción del mismo Balmala que surca por abrego...”. Arch. Hit. Prov. Reg. Pr. Leg. 676, 19). *Markina* (*Mezkina*?, lur-saila, erreg. 585). *Mendegillo* (*Mendikillo*, probableki, *mendi*-ren ildokoa, amaieran gaztelaniar txikidurazko atzizkia duela; erreg. 1441. Batzuetan ere *mende-* *-mendi* ordez, gaztelaniar bokalismoaren eraginez-). *Montikillo* (erreg. 158, *Mendikillo*-ren formula erromaneztatua). *Mendigillo* (soroa). “Una en Mendiguillo de media fanga de sembradura surca por abrego Tomas Camara”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 676, 7. Ildo beretik *Mentikillo* (erreg. 92). *Merikinu* ?) (erreka eta lur-saila, erreg. 984). *Meskina* (“Otra en Mesquina de un celemine...”). Arch. Hit. Prov. Reg. Pr. Leg. 676, 9). *Mezeturri* (lur-saila, bigarren elementua *-iturri*). *Mosalsuro* (*Mosalzaro*?, lur-saila). *Muzkina* (*Mezkina*?, lur-saila, erreg. 186). *Nella* (*Neila* ?, lur-saila, 634). *Nojog* ?) (belardia, erreg. 38). *Onso* (lur-saila, erreg. 665). *Opaiga* (*Lopaiga*, lur-saila, erreg. 145). *Ozabe* (*Lozabe*, lur-saila, erreg. 365; *Ozube* aldakia, erreg. 811).

R, S, T, TX

Remendiko (toponimoa baliteke **Larremendiko* baten sinkopa izatea, formula erromantzeatuak *La Rrea*, *La Rain*, *La Rabidea* (*Larrabidea*?) modukoak izaki, lehen silaba artikulatu erromanikotzat (*la*) hartuta. Ez ahanzi Burgosko toponimotan *Larreguna*, *La Rabidea*, *Larran*, *Lartes* delakoak. Hemen ez zaigu probablea iruditze (*e*)rri- “tierra, campo”-ren errotik abiatzea). *Rodrigaña* (lur-saila, erreg. 1490). “*San José*” eta *Txarriturri* (meatoki baten izena, bigarrena euskalduna delarik, *etxa*- (*txarri*?) eta *-iturri* osagaietatik. Beherago *Txarriturre* eta *Txarreturre*). *Sarobe* (lur-saila, “majada, redil” esanahiaz...” En do llaman Sarove da fruto al segundo año, confronta por Cierzo con terrenos del Concejo”. Arch. Diput. Leg. 2162, 30, 1752. urtea). *Sarriko* (sakana, erreg. 265; *sarri*- “espeso, espesura” *-ko* atzizkia. Bestetan *Zarrias*, txistukariaren trukaketaz). *Txantio* ?) (belardia). *Txarreturre* (*Txarriturri*,

belardia, erreg. 906; bi azken bokaleen irekiera (i > e) eman da, gaztelaniak euskal fonetikari erantsitako irekiera (*mendi* > *mende*, *Mendegillo* kasuan bezala). Araban *beiti* > *betxi* > *betxe* eta *bide* > *bede* prozedura fonetikoak atzematen dira, noiz edo noiz, erdalduntze zaharreko eskualdetan. Lehen osagaia *etxa*- “casa”, baina *-txarri* “cerdo” ez da arbuaitzekoa. *Txarriturre* aldakia, erreg. 295). *Txarte* (*Etxaurte*?, belardia, erreg. 908). *Txaurte etxeaurre*- “delante de la casa” eta *-arte* osagaietatik, antza. “Un prado para cogida de cauto cargas de yerba situado do dicen Chauarte termino de la misma surcante al solano del comprador”. Arch. Hist. Prov. Reg. Pr. Leg. 676, 7). *Txikito* (baratzea, 1194; orobat, *Txikitos* (lur-saila, erreg. 305). *Txorran* (lur-saila, erreg. 173). *Txuarte* (*E*)*txaurte*-ren metatesia, erreg. 215, 426).

U, V, Z

Upaiga (*Lopaiga*, lur-saila, erreg. 1119). *Vallegorria* (toponimo hibridoia, “valle rojo, pelado” esanahiaz). *Zaballa* (*Zabala*-ren aldakia bustiduraz, hegoaldeko toponimoetan ohikoa denez. “Et inde ascendendo ad illam viam que vadit de Belforato ad Espinosam, ubi iungit se cum supdicta (*sic*) via super S. Johanem de Zavalla”. Cartulario de San Millán de la Cogolla, 46 or., bezer. or. 97). *Zallaza* (**Zaballaza*-ren sinkopa, agian). *Zaballazu* 1190. Urteko tokizena. “Et una terra in padule S. Clementis, et alias duas terras in Zavallazu super illam sernam de Sancio Didaz...”. Cartulario de San Millán de la Cogolla, 280 or., bezer. r.98). *Zabalta* (**Zabaleta*-ren sinkopa, bigarren silaban azentu bizkorrek bokalaren erorketa sortu bide duelarik; lur-saila, erreg. 558). *Zamaka* (soroa, Arch. Diput. Leg. 2162, 82, 1752. urtea, erreg. 97, -975). *Zarramo* (lur-saila, erreg. 58). *Zarria* (*Sarria*, “espeso”). *Zarzias* (lur-saila). *Zarruko* (-*uko* / *uka* atzizkia *Bizkarruka* kasuan bezala. Arch. Diput. Leg. 2162, 26, 1752. urtea). *Zelekua* (lur-saila). *Zizpea* (“...De sembradura, de tercera calidad en do llaman Cizpea”. Arch. Diput. Leg. 2162, 55, 1752. urtea). *Zorzas* (haitzak eta lur-sailak, erreg. 207; agian, **zorr(o)tza* “agudo” batetik, atzetonikoaren erorketa islatuz; eskualdeko beste herritan toponimo bera). *Zumaka* (agian, *Zamaka*, lur-saila, erreg. 641; bada, dena den, *zumake* landarea, jatorriz, arabiarra bide dena).

2. *Arlanzon ibaiaren ibilbide garai eta erdiko euskal toponimoak*

- LEÓN, L., (1939). *Proverbes basques et vie spirituelle*. Bayonne.
- LÓPEZ DE GEREÑU, Gerardo, (1988), *Refranero Alavés*, Vitoria/Gasteiz.
- MARTÍNEZ DE ISASI, Lope, (1972). *Compendio Historial de Guipúzcoa*, Bilbao.
- MICHELENA, Luis, (1959). *La fuente de un refrán*, BRSVAP.
- _____ (1988). *Sobre la historia de la lengua vasca*, S. Sebastián.
- MOGUEL, Juan Antonio, (1981). *Peru Abarka*, Gerediaga Elkarte, Durango.
- OYHENART, Arnaud d’, (1992). *Proverbes et poésies basques*, Baigorri: Ed. Izpegi,
- PERMYAKOV, G. A. (1988). *Osnovy strukturnoi paremiologii* [Les principes de la parémiologie structurelle], Moscou, (en russe).
- SAKHOKIA, T. (1967). სახოკია თ., ქართული ანდაზები. თბილისი *kartuli andazebi* [Proverbes géorgiens], Tbilisi, (en géorgien).
- SHEROZIA, R. et MEMISHISHI, O. (1994). შერთია რ., მეშიშიშვილი თ., ხალხური სიბრძნე. I მეგრული და ლაზური ამდაზები *Xalxuri sibrzne. I megruli da lazuri andazebi* [La sagesse populaire, I Proverbes megrèles et lazes], Tbilisi, (en géorgien).
- SIKHARULIDZE, K., (1963). სიხარულიძე ქ., ქართული ხალხური საგმირო აფორიზმები. თბილისი *Kartuli xalxuri sagmiro aporizmebi* [Aphorismes populaires héroïques géorgiens], Tbilisi, (en géorgien).
- TAYLOR, Archer, (1962). *The proverb and an Index to the Proverb*, Copenhagen.
- URQUIJO, Julio de, (1964-1967). *Refranero vasco. Los refranes y sentencias de 1596*, 2 tomos, S. Sebastián: Ed. Auñamendi,
- VEYRIN, Ph., (1955). *Les Basques*. Ed. Arthaud.
- VINSON, Julien, (1883). *Le folk-lore du Pays Basque*, Paris.
- ZAVALA, Antonio, (1985). *Esaera zaarren bilduma berria*. t. 1-2. Tolosa.

Azkue eta euskal hizkuntzaren duintasuna

Txomin Peillen

Gizarte jakintza guztietan bezala, bakoitzaren iritziek eta ustekizunek ikertzailearen iragazki bezala jarduten dute. Beraz bilketa lan guztietan, beti gai hutsuneak aurki genitzake. Bestalde berriemaileekin harremanetan ere haien hizkuntza ahuleziak eta hutsuneak ager daitezke. Horregatik Azkueren obra baloratzeko unean garaia, giroa eta jendeak kontutan hartu behar ditugu.

Azkuek, Euskal *Erriaren Yakintza* edo *Cancionero Vasco* argitaratzean, liburu-kien hitzaurretan, han-hor aitortzen du gaiak aukeratu, guraizekin, haizturekin idazkiak birmoldatu eta hizkuntza orraztu duela. Berak bere burua folkloristatzat ematen etnologo, hortik eta apez izatetik, agian, jokabide horiek.

ZERGATIK

Ez zaigu ahaztu behar ez zuela, Barandiaranen gisa, Azkuek aleman eskolako etnologia formakuntza izan. Berak ez zuen etnografia hutsaren egiteko irrisik. Garai hartan, ordea, euskal kultura gaitzetsia zen eta buruaren zutitzen hasia. Azkuek, kultura oinarri duina izango zen altxorra eskaini nahi zuen, gure aberriari. Noski altxorretan harri ederrak, urreak eta zilarrak biltzen dira eta egunerokotasunak sortu ikatz, lohi, petrolio, zimaurre eta zaborrak baztertzen.

ZABORRAK

Abadea zenaz gain ezin zezaiokoen eskatu erotismoaz, subertsioaz zerbait bil zezan. Baztertu zituen keriak, lizunkeriak, burgesen eta apezan aurkako bertso gehienak, ipuin ximpleegiak hala nola Peru ta Mariarenak. Azken horiek direla-eta Jon San Martin bere *Euskal literaturaren inguruan* liburuan idatzi zuen “Itxura denez *Peru ta Maria* izenez ezagutzen diren ipuinak ez zituen maite Azkuek, bi baizik ez dira ageri beretan beste guztiak aurkeritxoak baizik ez ziren, esanaz (*op.cit.* Donostia: Hor Dago, 1980, p.122)

Apeza zelako bakarrik egin ote zuen? Ez dut uste. Prakadunek berdin egiten zuten eta jadanik idatzi nuen nola Oihenarte abokatuak Etxepare zentsuratu zuen, eta J.D.J. Sallaberry mauletar abokatuak, nahiz ezkerreko gizon izan, notable izanki Etxahunen lan satirikoak ez zituen argitaratu nahi izan. Mauleko artxiboan dauden haren berrehun kantuetan, Etxahunen satira baten bazterrean norbaitek frantsesez idatzi, otoi ez dezazuela inori aipa holako kirtenkeriez arduratu naizela.

XIX. mendea eta XX. mende erdia, XVII.a bezala oso puritanoak ziren. Puritanismoaz kanpo bazen beste arrazoirik gaien guraizez ebakitzeke, alegia, *Cancionero Vasco* horretan bederen, «Cancionero» kontzeptua orduan zer zen oroitu behar zaigu. Hain zuzen Azkuek VII. tomoaren hasieran aitortzen du gaztelaniazko hitzaurrean espainolek eta alemanek egin «Cancionero» delakoak gaien aldetik eta hizkuntzaren aldetik goi mailako eta kultoak direla, baina noski ez dira herrikoiak. Azkueren tentazioa izan zen herrikoietik abiatuz zerbait duin egitea, XIX. mendean finlandiarrek *Kalevalarekin* eta Bretoiek *Barzaz-Vreizh* ekin egin zuten moduan. Hona zer dion, hortaz, Azkuek:

«Pudo el folklorista haber recogido más estrofas de estas canciones, pero por su falta de interés y carencia de poesía hubo de contentarse, por lo general, en anotar sólo la primera estrofa.

«Alguien comparando nuestro Cancionero con alguno de otro pueblo, podría creer que los otros «cancioneros» rebosan de poesía, que tanto se echa de menos en muchas de nuestras canciones. Un gran folklorista francés moderno Tiersol llegó a admirar la honda poesía de las canciones populares andaluzas y precisamente la que él citaba como tal era obra no del pueblo, sino de Fernán Caballero.

«Tal sensación podría cualquiera experimentar ojeando y hojando algun «cancionero» popular alemán. Si sus composiciones poéticas fuesen obra del pueblo, ciertamente podría uno hasta ruborizarse al dar a la publicidad nuestras humildes poesías populares; Goethe, Schiller, Heine, Wieland y otros excelsos poetas figuran en «Cancioneros» de la docta Alemania.

«Algo análogo se podría acaso hacerse entre nosotros el día de mañana, escogiendo las mejores melodías populares en número como de tres a cuatro centenares y abriendo entre nuestros poetas, concurso pero de verdad.

«Mientras tanto, conténtese el lector con saborear humildes producciones de ignorados bertsolaris que ni tuvieron siquiera noción de la poesía».

Gaien murrizte hori ustegabeen ere gerta daiteke. Etnologok ez dugu formakuntza orojakituna, gure-gurea dugun kultura eta ustekizunen arabera egiten ditugu galderak. *Herri Sendakuntzaz Zuberoan*, *Anuario de Eusko Folklore* argitaratu didan liburuan, Barandiaranen itaunketa erabili nuen. Laster, hasi baino lehen, hutsune larri batez konturatu nintzen, lotsaz edo ahaztuz jendeek ez zuten sexurik ez gernu aparturik, haurgintzaz ezer.

Ez uste hobeki atera nintzela? Lotan nituen aurre-iritziak neuzkan. Nire sendakuntza galdeketa arrazionalismoz itoa, praktika zintzoez galdetzeko egina zen. Zorionez grabatzen dugunean eta grabatzen dugulako abantailarekin berriemaileak anekdoten edo beste gertaeren kontatzen uzten ditugu eta orduan azti botika, erremedio bitxiak, praktika zahar zuzen eta okerrak, ustekizun on eta txarrak galdetu gabe agertu zitzaizkidan. Bai honelako anekdota jakingarri asko bildu omen dituzte Hizkuntza Atlasean ibili direnek.

Etnologoak bi ikerbide ditu: edo bere kulturari, bere hizkuntzari etnografia egin. Hori da Azkueren kasua, nahiz hizkuntzaren ulerkerari edo bilketari akatsak izan. Beste bidea, Frantzian oso modan, ez denborarik galtzea azpikulturako hizkuntza baten ikasten eta interpreteari erabili. Horrek dakar mentalitatearen ez ulertzea, itzultzailearen mirailak itxuraldatzea, hitzen pisua ez ezagutzea. Iparraldean ezagutzen ditut bertsolaritzaz arduratzen diren bi ikerle, euskararik ez dakitenak!!

AZKUEREN GARAIA

Azkuek zeuzkan abantaila eta oztopoak ugari ziren. *Alde onak?* Oraindik herri-kultura bizi-bizian egotea. Bigarrenik beste kulturen ezagutzak ematen zion beharrezko urruntasunaren edukitzea. Bestalde berriemaileekin euskara erabiliz uzta ederra bildu zuen. Gehienetan itzultzaile gabe ez zen corpusa aldatuegia. Askotan eza-gunak zituen berriemaileak. Gazte gaztean gertatu zitzaidan pott egitea ezezagunekin galdera egitean. Baina Azkuek apezaren abantaila zuen. Prasadunek kofesatzen ikasi ez dugulako hobe dugu gure berriemaile ezagunenekin ibiltzea.

Gure herrietan, euskaraz galdetzeak abantaila handia du. Berriemaile onek, nahiz erdal eskola zerbait izan edo eskola hori jasan dutelako, euskaraz trebeago dira bai eta erdal kultura arrazionalistek sortu debekuak ahazten dituzte. Hots, gu ez gara eskola maisu trufalariak.

Alde txarrak? Azkuek ez zituen eta ezin zituen euskalki guztiak ezagutu, horregatik, lotsorki, Eexen entzun dudak euskalki bakarrean, familiakoan, ama euskalkian zubereraz egin ditut nire ikerlan gehienak. Zoritxarrez Davant-i eta bioi gertatzen zaigu zuberotar ez diren ikerlariak, erreserbetako amerindiarren moduan ikusten gaituztela eta ez gaituztelarik kontsultatzen gure lanak, gure lekukotasunak, *testis nullus*-tzat ematen. Zuberotarrok liburu oso bat idatzi behar genuke gure munduaz eta gure hizkuntzaz idatzi diren hutsen zuzentzeko. Gaur esan dezaket etnografian, etnologian, hizkuntzalaritzan, Henri Gavel, Robert Lafon, Jean Haritschelhar, Jean Larrasquet, Jon Etxaide eta Kepa Larriñoa direla bakarrik osoki fidagarriak.

AZKUE ETA EROTISMOA

Azkuek bere hitzaurrean gai ausartak, bertso txarrak(?) entzun dituela eta haien lekuan bere olerkiak ipini dituela, dio. Hau ez da inolaz ere etnografia zientifikoa, hau litzateke agian folklore egitea, herriaren hoberena edo hobetua ematea. Maiz zuberotarrak, ihautiri bertsoekin ohituak direnak eta manexek eman fama txarragatik gure bertso txarrak aipatzen ditu, baina hamarnaka dira bizkaierazko eta gipuzkerazko kantu aldatuak. Hegoaldean ez dira Ekialdean baino aratzago, garbiago: duela hogeit bat urte gipuzkoar idazle batek zuen euskarazko hiztegi erotikoa argitaratu, berehala agortu zena. Egilea gurekin zegoen Galizian *Galeusca* batean eta behin Lugotik Santiagora, autobusean elkarrekin gindoazela, gizon horrek, isildu gabe, gipuzkoar bertso lizunak kantatu zizkigun eta batzuk oso gogorrak, haien ondoan zuberotarrenek kantikak diruditelat. Duela urte pareta esan nion argitara zetzala. Erantzun zidan, orain funtzionari errespetagarria eta politika gizona izanki, ezin zuela.

Zuberoan ez dugu holako kantu gogorrik, gehienak erotiko-alusiboak edo erotiko-satirikoak ditugu. Hona Azkuek zentsuratua «Beltxaren beltza»:

Gizonak dio:	Beltxaren beltza beltxaren bruneta, barnatik naizü kolpatü. arhantzeño zure lürretan nahi nikezü lanthatü
Neskak erantzuten	Lantha ezazü zure lürretan arhantze lürrek badütützü

Azkue irudikorra genuen baina urrutiegi doa batzuetan. *Arrosa eder* kantuan lehen tomoan 68. orrialdean «maitea bi besoen artean» zentsuratzen du «bi begien aitzinean» Alusiboetan, noski, Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo ere erabil-tzen diren sinboloak eta izenak agertzen dira: aranondoa, arraina, ilarra, luma, ollanda, paboa, pipita, txardina buru gorria.

Puritanismo handia ezagutu dugu Euskal Herrian. Apur bat Europa osoan, baino astunagoa, moldegaitzagoa, baina upelari txotxa jarri zaionean, eta ez literatuaren eruz, moralaren upela zartatu da. Euskal Herrian erotismo eta pornografia gogorrak agertu zaizkigu, puritanismoaren indar eta neurrian. Txalapartak daukan erotiko saila erraz saltzen da eta erotikoa satirikoan *Ostielak* eta *Napartheidek Igela* xume eta zintzoa gainditu dute. Halaz ere badirudi erotismoa gauza serioa, sakona bihurtu dela, sexuaren debekutik sexuaren tiraniara joango ote gara, gai horretaz barre egin nahi dugunok baztertuz? Alta erotismoak obra ederrik eman lezake, gimnastika bat ez izaten dakianean.

BERRIEMAILEEN ARAZOAK

Jadanik esan dizuet hobe dela ezagunekin etnografia bilketaren egitea. Nire aldetik, auzo zaharrekin, ahidekin ibili ohi naiz. Ez naiz sekulan ausartu Azkuek hartu zituen arriskueta Zuberoako zokoan, nire ama euskalkian. Berriemaileen adina dela-eta, batzuetan gazte batek edo gazteago batek zaharrak baino hobeki erantzun dit eta osoki eskola gabea ez zait orainarte sekulan baliatu, ez baitute ulertzen zer nahi duzun eta ez baitakite beren hiztegi hibridoan euskara eta erdara beti ongi bereizten. Gero aurkitu behar pazentziako berriemailea eta euskara ongi ahoskatzen duena.

Berriemaile eta ikerlarien artean ahal direnak eta ezin direnak badira. Hegoaldean, zergatik ez zuen lizunkeriarik entzun Azkuek, agian, han abadearenganako errezelu eta begirune gehiago zegoelako. Iparraldean, batik bat Zuberoan, jadanik, apeza ez zen jende sakratua eta mutiriki diote «aphezak gü bezala tützü, ez tützü gü beno hobe».

AZKUE ETA KANTUTEGIA

Kantuetan Azkueri jakingarriena zena, melodia zen ez testua, beharbada horregatik hizkuntza ez zuen hainbeste errespetatzen. Berak honela dio VIII. liburukian: «Si esta obra fuese de antología popular, no figurarían en ella la mitad de sus piezas, pero por ser «cancionero» se ha atendido más al mérito de la melodía que a la letra» (*Cancionero Vasco*, tomo VIII, 31. orrialdean)

Bestalde hizkuntza duinaren obsesioarekin eta erdaldunek euskaldunetan sartu herri jakituriaren gaitzespena gainditu nahi zuen.

AZKUE ETA HIZKUNTZA

Azkuek, lan handiegia egin zuen. Ez zuen astirik eduki kantu eta ipuinen aldaeren biltzeko. Beharbada ez zukeen ezer hobetu beharrik zeren batzuetan, lekuko edo berriemaileak hizkuntza makaroniko bat erabiltzen zuelako, berriemaile batzuek euskara aberatsagoa dutela besteek baino. Gaiez mugatuz eta Jean Haritschelharrek

Etxahunez egin kantu kaierekin egin zuen bezala egin behar izan balu Azkuek Euskal Herri osorako, katuen gisa zazpi bizi behar zukeen.

Gainera, Azkuek ez zuen beti euskalki guztietan laguntzailerik eduki, bestelan zuberotar kantu bat hobetzekotan zubererazko hitz arruntak erabiliko zituen, beraz zuberotar kantu bat bost gipuzkoar hitzekin ematea ez da zientifikoa. Hona zer dioen berak biridazketaren bere metodologiaz:

Yakingai au Benaparroan ta Lapurdin euskera garbiz eman zidaten, Zuberoan, berriz, uf! iru erdarakadaz apaindua (*Euskal Erriaren Yakintza*. Lehen tomoa, 20. orrialdea)

Eta zein ziren manexek erabiltzen, omen, ez zituzten hitzak eta gaizki kopiatu erdarakadak *pladzerra*, «d», batekin(?), *xagriña* zubereraz «xangria» dena, *esperantxa*, agian, Euskal Herrian Zuberoan bakarrik erabiltzen direa? Nik erran nezake Nafarroa garaian eta Iparralde osoan ezagunak direla. Bai, garaiko ustekizunen araberaz zebilen. Bai, zuberera begitan zuen, manexek baizioten «euskara zikina» zela.

Bestalde zuberera euskalkiekin ez diren beste euskalkien hiztegiak ez ditu aipatzen eta «Eztira koplak jartzen» Orion bildu kantuan ez ditu zuzentzen ez hiru baina zortzi «erdarakada»: *kosta*, *mariñel*, *debalde*, *galanta*, *allegatu*, *buelta*, *txanbra*, ez eta Aginagan bildu kantuan: *bapo*, *jornal*, *broma*, *mantendu*, *parte*, *sobratu*, *sobra*, *reglako*, *faltatzen*, *probatu*, *justu*.

Batzuetan ez zuen testua biltzen:

ta nik, orduan, esakera bat burutu arte itxaron ta gero euskeraz yosita banan-banan papereratzen nituen

(*Euskal Erriaren Yakintza* 19. orrialdean)

Cancionero Vasco-n berdin honela idazten du lehen tomoaren 131. orrialdean dio zergatik bost bertso kendu dituen:

«Los tres últimos versos, apenas hacían sentido y ni siquiera tenían rima. Otras locuciones exóticas quedaban, siendo preciso para hacer nuevos versos más tiempo del que habitualmente dispone el folklorista».

Barandiaranek eta Azkuek ez zuten grabatzeko astirik izan. Beren kuaderno- txoekin eta sukalde mahai zoko batean, etxolako erdi ilunpean idazten zuten, eta maiz ezin errepikaraz, gaizki ahoskatu edo gaizki ulertu hitza. Tekno etnologian gaizki entzunak hiztegiataro igaro dira: gurdiazen karrozeria esateko Foix apaizak omen *argantetx* hitza bildu zuen eta erromaniko mailegua zitekela dio Lhanderen hiztegiak, baina gazte denboran ez dut *organtetxe* baizik entzun. Noski abade guztiek ez zuten laborantza dastatu, eta ikasiko zuten euskaraz *etxe* hitza adierazi zabalekoa dela, zerbaiten karrozeria, edo ingurua adierazten duela, hala nola *leiho-etxe*, *makina-etxe* eta *organtetxe*.

NOLA BALIATU AZKUEREN LANAZ?

Gure herri kulturaren batik bat, haurrekin *Euskal Erriaren Yakintzako* abesti eta ipuinak erabilgari dira. Gero etnografiaren aldetik datoak ekartzen dituzte eta hobeki egin nahi badugu, badugu zer egin aldaera biltzen ezen uste baitut herri kulturaren laurdena ere ez dugula bildu. Kantuekin talde biltetako abiatu dira Antton Valverderek Hegoaldean eta egin ziren Zuberoan Martzel Bedaxagarren taldearekin, zoritxarrez Mauleko *Ondarearen Etxean* argitaragabe daudenak.

Gaurko etnografian, euskal liburugintza osoan bezala, filologoaren abusuak daude, edukiari baino gehiago hizkuntzari begiratzen delako? Ikerlanak gaztelania

hutsez egiteko ohitura txarra sartu zaigu, horregatik, Barandiaran eta Azkueren ondotik euskaraz jarraitzen dut, edukiaren aldetikako jakintzen biltzen *Herri Sendakuntzazkoa* eman nuen, *Ehizarena* izango da filologo frustratuen baimenik gabe. Filologoen eta mekanografoen, beren gipuzkoar mundutik ateratzen jakin behar lukete. Ez da bakarrik zuberera gaizki tratatua dena, Patxi Ondarrak badaki bere kostuz nola 11. orrialdeko zuzenketak egin behar izan zituela, asko Aita Iraizozek, Nafarroako lapurtarrean idatzia automatikoki, norbaitek gipuzkoartu zizkiolako.

Zoritxarrez gure kultura nekrofoen eskuetan gertatzen da, Euskara dakitenek ere gaztelaniaz idazten, museotarako.

Adibidez ere guk Iparraldetik bidali euskarazko testuak, bakarrik gaztelaniaz agertu ziren, *Ritos funerarios* liburu lujosoan. Hau da euskararen ehorzketa. Euskara dakitenen errua. Noski, nik ere erdaratan idazten dut eta testu elebidunetan Juan Garmendia Larrañaga eta Jose Miel Barandiaranek erakutsi bideetatik, baina Euskal ikerketen erakunde ospetsu baten katalogoan euskal kulturazko liburuak % 98 gaztelaniaz daudenean, nora goaz? XXI. mendean gure erronka litzakete erdiak euskaraz izatea.

Euskarara nola bildu jendea, geronek errespetatzen ez badugu. Horixe zen Azkueren kezka bat. Haren altxorra ez da Oiarzungo urre meatzak irudi agortua, baina J. M. Satrustegik euskal mitoen galera eta ez eraberritzeak kezkatu zegoenean, arrenkura berdina zeukan, ahoz galtzen direnak herri-jakintza horretan aurkituko ditugu gure arbasoek, aukeratu, hobetu ogasunak. Noski, corpus baten duintasuna dela-eta, iritziak iritzi, herri baten kulturaren agrikulturaren bezala lore, gari, arto eta patata egin ote daiteke lur, lohi eta zimaurre arruntik gabe?

Azkuek ez zituen Sabino Aranaren terminatxoak erabili nahi izan: euskararen muinetik atera nahi zituen hitz berriak. Noski denbora asko galdu dugu garbizalekeria eta mordoilokeriaren gatazkan. Jakin dezagun guk ere eta Orain Atlasaren altxorra daukagula euskaraz hitzik asmatzen jadanik daudenean eta erdibidetik ibiltzen hitz berrien sortzen. Hau da gizaldi berriaren benetako herronka.

Antzinako etnografo asko apezak ziren eta beren garaiko heziketa eta orduko eliza arauekin oztupoak zituzten; gaur, uste dut apezari uzten zaiola zientifikoa izaten.

Nola nahi etnografia egitean ez genituzke gure sinesteak, ustekizunak, hizkuntzaz iritziak, estetikak kontutan hartu behar, ahalaz eta etnologia egitean guttiago. Hori da zailena, gure garaiko jendeak gara. Saia gaitezen aurrekoek baino hobeki egiten. Halabiz.

* * *

Resumen

Resurrección María de Azkue, prócer de la cultura vasca, realizó una recolección ingente de textos de la literatura popular en *Euskalerrriaren Yakintza*. Siguiendo los criterios de la época a favor de la dignidad del idioma y del contenido, mejoró el idioma sin caer en un purismo y censuró los textos. Del mismo modo en el *Cancionero Popular Vasco* escribió «se ha atendido más al mérito de la melodía que a la letra» Se podrá utilizar su obra en el siglo XXI, conociendo las condiciones peculiares y límites de su época y de la nuestra.

Euskara eta erromantzeen artean izan diren harremanen historiaz

Maite Etxenike Elizondo
Valentziako Unibertsitatea

0. Euskaltzaindia eta Patxi Goenagari nire eskerrik bizienak eman nahi dizkiet Euskaltzaindiaren nazioarteko XV. biltzarrera etortzeko egin didaten gonbiteagatik. Euskal Herrian bizi ez banaiz ere, Valentzian baizik, eta kultura hispaniarra aztertzeaz arduratzen naizenez gero, nire ikerketei eta neure pertsonari batez ere dagokionez hemengoa sentitzen naiz. Beraz, eskerrik asko bihotzez, atsegin handiz etorri naiz benetan zuengana. Bestaldetik, Patxi Goenaga jaunak galdetu zidanean ze hizkuntzatan hitz egiteko asmo nuen, zalantzarik gabe “euskaraz” erantzun nion. Badakit euskaraz hitz egiteko ohitura falta zaidala, baina gaurko egunerako egokiagoa iruditzen zait eta horretan saiatuko naiz, nahiz eta niretzat euskaraz egitea hain bada ere.

Valentzian bizitzeak, bi hizkuntz artean, hau da, gaztelania eta katalanaren artean izaten diren harremanak ezagutzeko aukera eskaintzen digu. Beraz, alde horretatik gaur hitz egin behar dudanarentzat badu bere abantaila. Baina, bestaldetik Euskal Herritik kanpo bizitzea euskera hobetzeko, batez ere hizketa mailan, ez da hain egokia izaten. Horregatik benetan eskertuko genizueke nire euskararen lerroak kontuan ez bazenute hartzuko, baizik eta euskararen bidez esan nahi dudana. Eskerrik asko aurretik.

1. Duela gutxi pentsatzen zen bi hizkuntza desberdinen artean hizkuntza batek ez lezakeela eraginik bestearen gramatikan. Soziolinguistikaz geroztik, ordea, datu linguistikoen eta soziolinguistikoen artean azaltzen den lotura garbi ikusiz, lotura hori gaur egun benetan garrantzitsua estimatzen dugu.

Badakigu kontaktuaren bitartez sinkretismo batzuk euskaraz (-ko eta -tzaren artean gertatzen dena, besteak beste, -tzat desagertzen ari dela: *medikuarena* <-*medikuarengana* ordez esaten da, eta abar) sartu direla edo hizkuntz kontaktuen eremuan askotan elementu espresiboak mailegatu izan direla (ezeztapen-izenak bezala eta abar), Martin Haasek (1995) adierazi zuen bezala (eta baita konparaketa diakronikoa egiteko proposamena egin ere). Aldaketa horien ondorioak eta zergatik horrela aldatuak izan den jakiteko, Haasek oinarri teoriko garrantzitsua indartu zuen: kontaktua eragina lexikoaren eremuan hasten dela, eta hortik gramatikaren eremuan gero eta gehiago sartu: fonema berriak hitzen bidez sartzen dira hizkuntzan, ezeztapenak hitz espresiboak bezala mailegatu dira lehendabizi funtzio gramatikala hartu baino lehenago, eta abar.

Nik gaurkoan lexikoaren arloari buruz batez ere (ez bakarrik, baina bai parterrik handiengan) hitz egingo dut, beste hainbat kontakturen ondorioak alde batera utziz,

Haasek berak ematen duen oinarri teorikoarekin ados natorrelako, hau da, kontaktua (hizkuntz kontaktua jakina) lexiko bidez hasten dela. Beraz, gaurkoan lexikoari buruz arituko naiz gehienbat, han eta hemen euskal erromantze harremani buruz barreiatuak dauden hainbat lanen nire iritzia emanez. Eta norbaiten lana edo lanak aipatzen ez baditut, gaurkoan denek egin dituzten ikerketei buruz hitz egiteko astirik izan ez delakoan izango da, ez beste arrazoiengatik.

Jakina denez, euskara-erromantze artean izandako harremanen historiak argi eta garbi hiru mugarri ekartzen digu: a)-Schuchardt aurretik egindakoa, b)-Schuchardt eta Mitxelenaren denboraldi artean izandako idazlanak, eta c)-Mitxelena eta Mitxelenaz geroztik egindakoa.

Euskal hiztegi-gintzaren historiari begira, Sarasola, Urkizu, Knörr, Lakarrak, gero Azkarate eta Goenagak eta abar...eginiko idazlanen bitartez dakigu lau mugarri garrantzitsu eta adierazgarritzat jotzen dutenak badirela¹: a)-Larramendi, b)-Azkue, c)-Mitxelena, eta d)-Mitxelenaz geroztik egin dena. Beraz, Mitxelena bera mugarri garrantzizkoena azaltzen den ezker, beraren hitz batzuk ekarriko ditut orain abiapuntu modura:

“Vasconia, como área marginal, constituye una zona de refugio de prácticas, creencias, costumbres y técnicas de fecha muy diversa, como su lengua es puerto donde se han cobijado tantas palabras y expresiones latinas y romances caídas en desuso en los lugares de procedencia”(1960a).

Nik nire ikerketak erromantze aldetik egiten ditut jakina denez, Espainiar edo Filologia Erromaniko ikuspegitik (besteak beste, ikus 1987² eta 1998), baina badago euskararen erromantzearen eragina, eta hori Euskal Filologiarentzat interesgarria da eta gaurkoan horretaz mintzatuko naiz. Bi ikuspegi hauek banatu egin behar dira eta banatan saiaturko naiz nire hitzaldiaren zehar, baina ahaztu gabe biak oihalaren edo txanponaren aurki eta binperra edo alderantzikoa direla (hau da, gauza berak agertzen dituen aurpegiko eta azpiko aldeak: “aurki guziak bere binperra”).

Beraz, gaztelanian euskararen eragina nolakoa izan den alde batera utziz, hitz egin dezagun euskararen barnean dauden latina edo erromantzeen eraginari buruz.

2. Euskal eta erromantzeen artean izan diren harremanak latinetik datoz, latina erromantze bihurtzen ari zenetik. Betidanik, esan nahi dut, hizkuntzalaritza zientzia zientifiko-teoriko modura moldatzen ari zenean, batez ere Hugo Schuchardten garaitik, euskara latinez beterik dagoela dakigu. Hori nabarmena da lexikoari begira: aspalditik dakigu *pake*, *merke*, *aingeru* eta hainbat eta hainbat hitz “latinetik euskarara” etorriak direla, Segura Munguía eta Etxebarria Ayestaren liburuak (1996) titulu esaten duen bezala, eta hainbeste eta hainbeste hitz gehiago euskaraturik izan diren bezala. Hori dena, Filologia aldetik edo hizkuntzaren historia aldetik ez da bate-re gauza erraza jakitea nondik edota noiztik dugun hitz horiek euskararen bizirik eta hori ia kasu guztietan agertzen zaigu. Baina, esan bezala, orain arte euskararen bihotzeraino (esan nahi dut, mamiraino) zer bidetatik sartu diren ezin izan dugu argitu ezta kronologiaren xehetasunetan sartu ere.

Dena den, zalantzarik gabe arlo honetan lan garrantzitsuenak egin zituena gure Mitxelena izan zen. Berak eskema berri batean artikulatu (moldatu) zuen euskal historiari buruz jakin genuena (Lakarrak gaur esan duen bezala, baita Miren Azkaratek atzo goizean, eta hainbat eta hainbat), eta ordutik euskara eta erromantzeen artean izandako harremanak maila zientifiko-teoriko egoki batean aurkitzen dira.

1 Ikus batez ere Lakarra (1998).

Jakina denez, latina dugu laguntzarik hoberena euskara hizkuntzen artean bakardadean izan ez denik adierazteko. Latinetik hartu zituen hitzen bitartez euskararen historia zerbait gehiago ezagutu ahal dugu; hori ere Mitxelena esan zuen eta Gorrotxategik aipatzen du maiz².

Euskara eta erromantzeen artean izandako harremanak denboraldi luzeena irauan duten eta edozein hizkuntzen artean ezagutzen dugun harreman iraunkorrenak izan direla esan daiteke: gaztelania Hego Ameriketako bost mende bakarrik darama eta gauza bera gertatzen zaio ingelesari Ipar Ameriketako edo frantsesari Kanadan edo suediarari Finlandian eta abar. Baliteke laponiar eta suomiarraren artean izan diren harremanak euskara eta erromantzeen artekoak baino luzeagoak izatea, baina ez daukagu dokumenturik edota nolanhiko lekukotasunik denboran hain urrutiraino joateko.

Hainbeste mila urteren buruan irauan duen hizkuntzaz hitz egiterakoan ezin inola ere ahantz eta aztertu gabe utz hainbeste eragin izan duten hizkuntzaren kanpo-arrazoiak. Pentsa dezakegu hainbeste mila urte irauan duten hizkuntzei buruz mintzatzeko ari garela, ez hizkuntza bati bakarrik buruz. Kontua da, kanpo-arrazoiak aparte, hizkuntzaren barruan aurkitzen direla lekukorik egokienak (Mitxelena berak garbi utzi zuen bezala) eta euskara barruan daukagu hainbeste latin eta erromantze.

Horretaz, euskararen historiara ateratzen den garaia alde batera utzita (gaur goizean Gorrotxategik hitz egin du horretaz zorrotz eta zeharo), goazen hizkuntza harremanen hasierari buruz hitz egitea.

3. Badakigu euskara eta erromantzeen arteko harremanak muga historikoa dutela: erromatar presentzia Euskal Herrian. Ordurako euskarak batasun falta adierazten du, azaletik aztertzen badugu, baina gauza bera gertatzen da latinarekin eta esanik ez lehendabiziko erromantzeekin: batasun falta. Latinak, ordea, bazuen ordurako milaka liburu eta gramatika anitz idatziak, ezta bat ere euskarak.

Garai hartan jende gutxi zekien idazten edo irakurtzen; beraz, erreferentzi eredu Hispanian, batez ere Hispaniako Iparraldean, hizkuntzaren aldetik (latinaren aldetik lehendabizi eta erromantzeen aldetik apur bat geroxeago) erabat galdua zen. Badirudi euskal erromantze harremanak hizketa mailan hasi zirela, hizkuntzen arteko "kontaktuetan" normalean gertatzen den bezala. Horrek esan nahi du, beste alde batetik, latin arrunt edo berankorrenekin euskara kontaktuan egon zela, zeren eta latin arrunta deitzen duguna izan zen hizkuntza erromanikoen oinarria, ez latin klasikoa.

Batzuentzat, gehienentzat, gaur egun arte, erromanizatzeko prozesua Euskal Herrian gertatu ez zen ezker, latinaren eragina euskarari (hona hemen beste liburuarren titulua, Luis Mari Mujikak 1982an eginekua) V-VI. garren mende aurretik ezinezkoa izan zen haienentzat, VII. garren mendez geroztik baizik; Mitxelena zenak berak ere gauza bera uste zuen, nahiz eta nere lanarekin aurrera egiteko esan hainbeste aldiz (eta ez esan bakarrik, baita idatzi ere eskuz³). Baina asken urte hauetan gero eta argiago azaltzen da erromatarrek Euskal Herriaren bihotzeraino ailegatu zirela, eta ez aile-

2 Ikus, batez ere, Gorrotxategui (1995 [1997])

3 Hona hemen eskutitz baten zati bat: "Ya sabe V. que estoy convencido de que su *Historia lingüística vasco-románica* será un trabajo del mayor interés. En V. se juntan dos clases de saberes que rara vez se dan todavía juntos entre nosotros. Es V. una hispanista, mejor una romanista, cuyos méritos están públicamente reconocidos y avalados por publicaciones de cuya calidad no cabe dudar. Además de ser vasca, es V. bascongada, es decir, euskaldun, y puede ver las cosas desde la otra vertiente, que no es opuesta, sino complementaria de la anterior...No estamos sobrados, al menos en nuestro campo, de personas de vocación y capacidad demostradas. Me permitirá, pues, que, señalando feamente con el dedo, le diga que V. pertenece a lo muy poco que tenemos en un campo crucial para nuestros estudios. Beste bat arte, bihotzez, Luis Michelena".

gatu bakarrik, baizik eta gure artean bizi ere edo gutxienez euskal jendeen ohiturak konpondu erromatarren bizimoduak asimilatu arte (eta “asimilatu” horri buruz ez dut gehiagorik esango). Orduko lekukotasunek gero eta gehiago adierazten dute Euskal Herria erromatar eraginatik aparte bizi ez zela. Esate baterako, Zarautz aldian (Aranzadi taldeak aurten eta hil hauean Erromaren eraginaren seinaleak oro eman digunez, Elkano izeneko auzoan batez ere), Irunaldian, Veleia zer esanik ez, eta abar.

Erromatarren garaian, Rosa Miren Pagolak (1995) idatzi zuen bezala, “bi indar kontrajartzen dira. Latinizazioa bata, baina euskararekiko permisibitatea, edo nolabait esateko,...baskoien eta erromatarren elkarren arteko komunikazio horretatik euskarari sortzen zaion *modus vivendi berezia*”⁴.

XXI. mendean aurkitzen gara, eta mende honetan testuen hizkuntzalaritzak alde batetik eta soziolinguistikak eta pragmatikak bestetik, bata bestearen beharraz ohartu bezain laster, elkar osatu eta aberastu egin dute. Ondo dakigu euskararen historia erromatarren presentziarekin argitzen dela (baita mugen aldetik Euskal lurraldeenak gero eta gehiago gutxitu egin direla ere, ezaguna den ezker). Gure historiaren denboraldi ilunenetako bat—Goi Erdi Aroa—aztertzeko metodo historikoaz baliatzeak eraman zituen arkeologo batzuk azterketa sistematikoak egitera, baina estudio hauek bildu den informazioa, hala ere, sakabanaturik aurkitzen da, batez ere argitalpen monografikoetan, historia kongresuetarako aktetan, aldizkari zientifikoetan. Filologiaren aldetik hemen agertzen den *corpusa* biltzeko dugu oraindik ere.

Hala eta guztiz ere, esan dezagun azken urteotan egin diren azterketek Euskal Herrian biztanlego autoktonorik bazegoela agertzen dutela. Baina azterketei dagokienez egin den lanaz gain, ikerketa honei dagokien beste alde batzuk ere azpimarratu nahi ditut. Alde batetik, euskarak latinetik jaso duen materiala oraindik gehienez kronologikoki sailkatu gabe dago, eta horretarako ahalegina egitea behar dugu ikerketa zientifikoagoa lortu nahi bada: Segura eta Etxeberriak katalogatzen egin duten lanaz gain, sailkapen kronologikoa behar dugu. Beste alde batetik, ikerlan honek informazio ugari ematen digu euskararen historiari buruz, garaiko biztanleek kokalekuei buruz genekiena aberastuz.

Nolanahi ere, badirudi Euskal Herriko beheko partearen jendea, erdi-hegoaldekoa, alegia, erromatarrekin bat egin zela. Goiko partea, ordea, baliteke bat ez egitea, baina erromatarrekin harreman anitz izan zutela ez da, nire ustez, zalantzan jarri behar den kontua, eta harreman estuetan egongo zirela gainera. Honen eragina hizkuntzan agudo igerriko da: Euskal Herrian toki batzuk (batez ere hiriguneak) lurralde elebidunak bihurtzen dira eta nire ustez ordurako elebidunaren bitartez azaltzen da gaztelania Hegoalde lurraldetan alde batetik, eta gaskoia, okzitaniarra eta frantsesa Iparralde lurraldeetan bestetik: tartean ere nafar erromantzea (gaur egun desagerturik dagoena) eta aragoiera (okzitaniarrarekin zer ikusirik duen hizkera) Pirinioen bi aldeetan izanez.

Bestalde, V-VI. mendetik baditugu hobeto ezagutzen ditugun hilarriak, batez ere Agustín Azkaratek eginiko lanari esker (1996). Estela edo hilarri hauek argi eta garbi adierazten dute V. eta X. mende artean, Hegoaldean eta baita Iparraldean ere (eta hori dena azaleko seinaleak bidez) euskara bizirik zegoela Euskal Herri osoan. Mitxelena, Gorrotxategi, Lakarra eta abarrek egin duten lanaren bitartez argi ikusten da antzinako lekukotasunak euskal hizkuntzaren batasuna azaltzen dutela erromatarren garaian. Baina nire ustez horrekin bat dator erromantzea Hegoaldean eta Iparraldean sortzen ari zela susmatzea (ikus *Enego* hilarri batean, *Enecoren* ordez).

4 Antzeko zerbait esaten du Sayas jaunak RIEVeko idazlan batean, geroxeago aipatuko dudana bezala.

Falta zaiguna da, nire ustez, garai hartako batasuna azaltzea erromantzeen aldetik edo, nahi baduzue, latin arrunt edo, hobeto esan, berankorraren aldetik. Hona hemen idatzi nuena 1998an:

“Sin negar validez a la sólida argumentación que permite establecer la existencia continuada de lengua vasca desde época antigua en un territorio relativamente homogéneo, lo que parece menos justificado es negar mayor envergadura de la reconocida a la latinización, sobre todo teniendo en cuenta que en la totalidad de ese mismo territorio habrá romance en el futuro (con sus variedades perfectamente explicables por razones históricas) de forma ininterrumpida. Por lo tanto, si la presencia de testimonios aislados de carácter vasco permiten inferir la existencia de lengua vasca en tal territorio con la ayuda de datos procedentes de otras vías (fundamentado todo ello con más peso en el hecho de que se haya conservado hasta hoy una lengua derivada de ella en límites geográficos más o menos semejantes), la misma presencia de nombres latinos en el mismo territorio (en el que, por añadidura, el contacto vasco-latino está testimoniado por la existencia de préstamos en el léxico vasco), en el que más tarde surgirán variedades románicas que llegan hasta hoy tras procesos de nivelación, debe ser interpretada como cartografía en germen de la emergencia de tal romance posterior”.

Garai hartan latinak ematen digu, beraz, euskararen topografia, baina, baita erromantzearen topografia ere (esan bezala, *enego* azaltzen da, *enecoren* ordez, hila-ri batean eta horrek erromanizatzeko prozesu martxan zegoela esan nahi du). Bestalde, gogoan eduki behar dugu euskara hizkuntza bat bezala ailegatu dela gaur arte; erdara, edo erromantzea, ordea, hizkuntza bat baino gehiago bezala: euskara harreman estuetan izan da erromantze desberdinekin, eta horrek, nahi eta ez, eragin desberdina inprimatu zuen euskararen mamian: hizketa mailan erabat desberdina; idatzi mailan, aldiz, latina batasun presioa izanik.

Baskoiek ez zuten erromatarren aurkako indarririk egin, erromatarrek eta baskoiek elkarren artean aski armonia olean bizi zirelarik, dirudenez. Kontua da, noiz edo noiztik edo haienetako zenbait bihurtu ziren “baskoak”, hau da, euskaldunak modura, esan nahi dut, historia ikuspegitik: antzinako baskoi batzuk edo denak euskaldunak ala ez, edo eta “baskoi” aipaturiko izenak noiz edo noiztik “euskalduna” esan nahi ote du.

4. Badirudi euskara erromantzeen sustraia izan dela, denborarekin desagertu egin dena toki guztietan, hau da, Katalunian, Aragoian, Pirinioetan bereziki. Bizirik dagoenean, bestalde, euskara erromantzearen “adstratoa” izan da. Ez dirudi ordea euskara inoiz superestraturik izan denik, nahiz eta Euskal Herrikan kanpo joan Errekonkista garaian (geratzen diren arrastoak Espainiako toponimian edo adstratu bezala geratu zirela dirudi), Merino Urrutiaren garaitik (1978³) dakigun bezala, Ameriketara heldu baino lehen oso ezagun den bezala. Horretarako, euskara ez dela inoiz superestratu moduko eraginik adierazi, baliteke arrazoia izatea euskara ez dela behin ere kolonizazio hizkuntza izan ezta ere “lingua franka” izan denik: ez dakigu, edo nik behintzat ez dakit esan zergatik. Badirudi euskaldunek “lingua franka” bezala beste hizkuntzak erabili omen dituztela beti: latina, erromantzea eta abar. Normala dela dirudi, hizkuntza edo dialekto desberdinetakoak izanik, harreman estuak dituztenek elkar ulertzearen hautatzen duten hizkuntza edo aldaera dialektala euskara ez izatea, baizik eta beste hizkuntza edo aldaera errazago edo errazaturiko bat.

Beraz, ez dago arrazoirik latin hizkuntza Euskal Herrian izan ez zela mantentzeko. Alde horretatik, bada, eztabaida eten egin dela esango nuke, zeren eta horrek ez du esan nahi euskarak (Euskal Herriak berak bezalaxe, jakina) bere nortasuna galdu egin zuenik: Sayas Abengoechearen (1999), “Erromaren gainbehera aldi eus-

kal herriak bere kultura indar berritu [bai] zuen” (baina latinetik behar zuena hartuz. Gainera, Erroma suntsitzera joan zenean, beste kolonizatzaile beldurgarriago batzuk, esan nahi dut, beste indar politiko berria azaldu zen Euskal Herri inguruan, hau da, germaniar herria) eta ondoren bigarreneko erromanizazio prozesua, Caro Barojak hainbat aldiz idatzi zuenez.

Ni neu bere garaian euskara-erromantze harremanak antzinatik (aspalditik) datozela adierazten saiatu nintzen, jakina denez. Hona hemen orain dela hamazortzi urte idatzi nuena (1983):

“Aunque pensemos que, en la época de la latinización, el latín no pasase de ser una lengua franca o pidgin y quizá, por lo tanto, no materna (en terminología de Stewart, es decir, que no se transmitía de una generación a otra en el seno familiar, sino que era aprendida con fines comerciales o de otra índole por hablantes de lengua vasca), en un momento dado tuvo que convertirse en tal, ya que el romance de toda esa zona es autóctono, derivado del latín directamente y no importado de áreas circundantes o, por lo menos, no tenemos fundamento para pensar lo contrario. Esto nos hace creer que tuvo que existir forzosamente un bilingüismo vasco-latino o vasco-protorrománico del que surgió el romance. Quizá la comunidad bilingüe vasco-latina o vasco-protorrománica fuese pequeña en un principio; presumiblemente correspondería a los grupos dominantes del país y de ellos fue extendiéndose a otras capas de la población”.

5. Bestaldetik, arabiarren presioa ere hegoaldetik nabaritzen da euskaraz mende batzuk geroago: *albaitari*, *azenario* hitzak arabieratik datoz, *azukre* (ikus honen aldaerak, gaztelaniatik, frantsesetik eta abar zuzenean etorriak direla esana: ¿non ibiliko zen lehenago *zukrea*, ¿katalanean edo euskaran?) Ezaguna da, bestalde, garai hartan arabiarrek errege euskaldunen alabekin ezkontzen zirela, baina emakumeek bere kulturari eusten omen zioten: badirudi erromantzea hizkuntz komunikatiboa izan zela arabiar eta euskaldunen artean, lingua franca bezalako (berehalaxe aipatu zela zentzuan). Gaur egun, arabiarren eragina euskaraz aztertu gabe dugu.

6. Denborarekin erromantzeak latinera itzuliko dira eredu bila, baina hori gertatuko da erromantze bakoitzak bere mugak ipini dituen finko beste erromantzeei begira. Orduan latinak erromantzearen nortasuna aberastu egingo du, latina beste hizkuntza izango balitz bezala eta beste hizkuntza zelako; euskararekin ere gauza bera gertatuko da eta hauxe da arrazoia latina euskararen ereduia izan zelako esplikatzeko. Erabat interesgarria iruditzen zait Tartasek (*Onsa hilceco bidian*) “templum honoris” *ohoriaren templa* bezala itzultzen duela ikustea (Echenique, 1998): latinetik euskara edo latinetik latin euskaratura, horrek ez du azken finean inporta.

Honek denak garrantzi handia izan du euskararen etorkizunean eta garbi agertzen du zeinen garrantzitsuak diren hizkuntzaren historian alboko edo inguruko hizkuntzak: latina lehendabizi, gero arabiera eta erromantzeak azkenik: nafarrera (hau da, nafar erromantzea), aragoiera eta katalana (bi azken hauek toponimian azaltzen diren euskararen arrastoen arabera behintzat eta baita lexikoan ere [Echenique, presatzen b]).

7. Euskarak eta erromantzeak, batak nahiz besteak zabaldu egin dute bere lexiko trinkoa, batak bestetik hainbat hitz hartuz. Azken urte hauetan euskara-erromantze lexikoari buruz eginiko lanek bultzada nabarmena ezagutu dute, orain arte eginitako ikerketak metodologiaren aldetik azken batean aberastuz: Rohlf, Mitxelena, Caro Baroja, Mariner, Echaide, Zárata, Irigoyen, alde batetik, eta bestetik Segura / Etxe-

barria, G. Torres, Peillen, Josu Gómez, Mitxelena eta I. Sarasolaren *Euskal Orotariko Hiztegia*, eta Aguden *Diccionario etimológico de la Lengua Vasca* ahaztu gabe, baita Corominasen *Hiztegiak* ere, Mitxelenak maiz idatzi zuen bezala⁵. Orain gaude, nire ustez, garai egokienean, euskara eta erromantze sistemen arteko harremanak, lexikolari dagokionean zehatz eta sakonki aztertzeke, berehalaxe esan bezala bata bestea aberastu egin duela kontutan hartu ezker eta gogoeta hau abiapuntu modura hartzen badugu behintzat, eta nik halaxe hartzen dut.

Egin dudan lan batzuk gaztelaniari dagokion garrantzia bilatzen eginik dira, baina arazo honek badu bere alderantzi, hau da, euskarak beste hizkuntzetatik hartu dituen hitzak zein bidetatik, zein denboratan, zein modutan eta abar, hizkuntzaren bihotzeraino ailegatu diren. Besteak beste:

- *Salto ta brinko*: *Euskal Orotariko Hiztegiak* jasotzen du ("salto ta brinko zebiltzan kuarto barrenian...), s.v. *brinko*⁶ edo *bringo*. *Salto ta brinko* ez da hitz mailegua bakarrik, baita esapide edo lokuzio modura egituratu den segmentua. Horrek esan nahi du euskararen mamiraino sartu dela, hitzen azalean gelditu gabe. Bestalde, *brinkoren* eratorri ugari samar dugu: *brinkari*, *brinkolari*, *brinkatu*, *brinkoka*, Iparraldean eta baita Hegoaldean ere aspalditik ezaguna direnez gero.
- *kuartillo*, *kuartillu* jasotzen du *Euskal Orotariko Hiztegiak*, erdaratik etorria eta erdaratan atzizki txikigarriekin erabilia; gero, euskaran arintzen da berriro ere, *kuartilotxo*, *kuartilotxu* esanez.

Hainbat eta hainbat mailegu dugu euskaldunen tradizioan indarrez beterik erabili direnak, EOHk azaltzen duen bezala.

Oso garrantzitsua da kasu batzuetan euskararen egitura barnean gertatu dena gogoratzea: maileguen bitartez, euskarak markagailu morfologikoak adierazi ditu, bere gramatikan ezagutuak ez zirenak. Aspalditik dakigu latinetik hartutako *erregiek erregina* egin zuela femeninoa, latinean ERREGINA zelako hitza zein erromantze modura moldatu zuelako, eta hortik euskarak ahal izan du atzizkia: *erregina*, *birjina* (hemen malgukari bezala, *birj.*- bera ez da ezer euskeraz, ezin da segmentatu, baina eredu bezala badu bere funtzioa; erreginan, orde, eranskaria dugu, ahal delako *-ina* morfema bezala kendu), baita beste batzuk ez hain ezagunak ere: *koinatu* / *koinata* esate baterako. Alternantzia honen azpian duguna da euskararen latinezko maileguak batzuetan neutrotik hartuak izan direla (*mizpiru*, *mizperu*), eta bestetan femeninoetik (*mizpira*, *mizpera*); beste kasuetan mailegu bikoitza azaltzen zaigu: *historia* / *istorio* (bata nahiz bestea étimo edo erro berdina dute, gaur egun erabat desberdinak izanik). Zer esanik ez *serorari* buruz (Hegoaldean batez ere elizaren eguneroko ardura duen eta zenbaitetan apaizari laguntzen dion emakumea, sakristauaren emaztea batzuetan, eta Iparraldean batez ere moja bezala erabilia) eta bere eratorpenak (*serorategi*, *seroragai*, *serorago*, *seroratu*, *serora-etxe*); *serora* SORORE latinetik dator, eta bukaeran duen *-a* hori artikulu edo *-a* organikoaren modura finkaturik dago (eta hiztegietan *-a* berarekin azaltzen da), baina baita femeninoaren markagailu morfologikoa bezala ere, hau da erromantzetik hartuta femeninoarekin loturik dago.

Zalantzarik gabe euskal lexikoaren ikerketa zehatza erabat balio handikoa agertzen zaigu euskara-erromantze arteko harremanak hobeto ezagutzeko. Kontuan hartu behar da, gainera, azken urte hauetan euskal hiztegi gintza berak aurrerapen handia

5 Honi buruz zerbaite esaten dut azaltzeko (a) dagoen artikulu batean.

egin duela, egoera hobe bateranzko urratsak eginik. Historiaren ikuspenetik falta zaizkigun puntuak hauexek dira: mailegu bakoitzaren sartze garaia ezagutzea, baita nondik euskarara sartu den ere, hau da, zuzenean latinetik edo erromantze zehatz batetik (zeren eta batzuetan garbi dago hitz konkretu bat gaskoitik harturik dagoela⁷; bestetan, ordez, ez da hain garbi ikusten). Esate baterako, euskarazko *ganbara*-k latinezko *camara*-rekin badu⁸ zer ikusirik, baina zein bidetik etorri zaigun ikustea ez da hain erraza: baliteke erromantzezko *ganbratik* etortzea (nafar erromantzean *cambra*, *gambra* ezaguna dugu, baita aragoieran edo gaskoian) edo zuzenean latinetik. Esan dezagun *ganbara*-k beste hitz batekin zerikusirik baduela, *ganbarote* hitzarekin esan nahi dut. A. Etxaidek Orion aurkitu zuen *ganbarote* hitza *ganbara* bezala erabilia, baina esan behar dut Zarautzen ere gutxienez *ganbarote* erabat bizirik dagoela. *Ganbarote*-ri hurbiltzen zaio gazt. *camarote*. Larramendik jaso zuen *ganbaroste* “recámara” balioarekin⁹, eta happax bezala agertzen da Mitxelenaren *Euskal Orotariko Hiztegia*-n. De facto, Corominasek¹⁰ gazt. *camarote* gaskoierazko *camarototik* datorrela esaten du bere *Diccionario Crítico Etimológico Castellano e Hispánico*-n. Susmatzeko da euskaraz *ganbara* nafar erromantzetik hartu zuela eta gero *ganbarote* gaskoitik ‘ganbara’ adieraz zeharkatu. Hau izan litekeena da, edo behintzat oraindik argitu gabe dugun arazoa.

Bestalde, euskal erromantze toponimoak agertzen dira, Masu Nittak (prestatzen) aztertu duen bezala, hizketako egoeran bi hizkuntzen arteko hitzak batera erabili izan direnez. Esate baterako Juncáriz (Vizcaya) (Barrancos de *Juncáriz*, Campos de *Juncáriz*, Fuente de *Juncáriz*, Pozos de *Juncáriz*) “probable combinación de sinónimos interlingüísticos como rom. *juncar* + *de* + *vasc. i, ihi* ‘junco’ con sufijo abundancial *-tz(e)*, *-tza*”¹¹ dela dirudi. Badakit Matias Múgikaren lanetan (1996) eta abar beste ikuspuntu batzuk azaltzen direla, baina oraindik ikerketa asko egin beharko dugu garbi ikustera iritsi arte.

8. Nafar erromantzea. Eta honeraino iritsi nahi nuen. Badira euskaraz hitz ugari gaskoitik edo nafar erromantzetik heldu zaigunak: *arrangura*, *tristura*, *ardura*... De facto, nafar erromantzeren gunea, gaztelaniatik eta aragoieratik desberdina izanik, komunikabide korapilo baten tartean murgildurik zegoen Erdi Aroan, eta erabat garrantzitsua da komunikabide korapilo bezala, benetako zubia nafar erromantzea bihurtuz, gaztelania eta aragoieraren artean Hegoaldean eta gaskoi eta okzitaniar arte Iparraldean izanik. Ez dezagun ahaztu, lehendabizi idatzitako euskal testua, Bernard Etxepareren *Primitiae Linguae Vasconum*, gune horretatik etorri zaigula erromantze (gaskoi edota nafar erromantze) grafiaz idatzirik.

Eta arabieratik etorriak izan direnak: *azukre* (edo *sukre* Iparraldean, frantsesez edo katalanez bezala), *al baitari*¹², *laranja* (edo *liraina* edo *naranja*), *¿ez* ote dira nafar erromantze bitartekoak euskaraz sartu izanak?

9. Erromantzearen aldetik lexiko arloan Carmen Isasik aztertu ditu nafar erromantze eta bizkaitar erromantzeen artean agertzen diren harreman historikoak (prestatzen), ez bakarrik gaskoitik (¿ala nafarretik?) datozen maileguak (*ostalaje*, *logaje*,

6 Zarautzen Gabonetan kantatzen genuen bezala: “Salto ta brinko, salto ta brinko, mendian barrena, Jesus adoratzera ahal dan azkarrena”.

7 Ikus Txomin Peillenek (1998) aipaturiko *andoila*, *tripot*, *gola* eta horrelako beste batzuk.

8 Larramendiren hiztegian SUPREMA CONTIGNATIOren balioa bezala azaltzen da.

9 Ondoan latina CONCLAVE ipiniz.

10 Ikus DCECH s.v. *camara*.

11 Ikus L. Michelena, *Apellidos Vascos*, 301 eta 347.

12 Atzo goizean Miren Azkaratek esan zuen Hiztegi Batuaentzat *al baitari* oso hitz preziatua zela, garai batean beste hizkuntza batetik hartua izan arren.

carcelaje, pobrezaje), baizik eta *forano* ‘kanpotar’ (Aragoi, Nafarroa eta Errioxan), *merçero* edo *bolsero* ‘diruzain’). Hori baliteke erakustea, nire ustez, komunikabidea irekita zegoela erromantze eta euskararen artean, bata nahiz bestean.

10. Beste alde batetik, gogora dezagun Tovarrek hil baino lehenago idatzi zuena (nahiz eta hil ondoren argitaratua izan): Rhin Ibaiaren alpetar aldiak hartutako mailegu asko ez ziren inoiz idatzian sartu (“no entraron nunca en la lengua escrita” [1997]), bi mila urte eguneroko hizketan iraun arren (“a pesar de que ha perdurado casi dos mil años en la lengua cotidiana no literaria” [1997]).

Azken finean badugu Euskal hiztegia: *patata, platan, tomate, kanoa* eta abar (gaztelaniatik hartuta izanik aspaldidanik seguru asko).

11. Miren Azkarate eta Patxi Altunak (2001) euskal morfologiaren historiari buruz argitara eman duten liburua irakurtzeko ez dut oraindik astirik izan, baina pentsatzen dut laguntza handikoa izango dela euskal-erromantze harremanak ikeritzeko, hain zuzen ere artikularen sorrera euskaraz eta horren harira euskal erakuslearen sistema zaharraren (bi edo hiru gradukoa zen argitzeko) azterketa, izen sintagma mugatu eta mugagabearena (hau da, artikularen erabilera), baita aditz flexioko morfemen historia eta abar.

12. Sintaxian gauza bera gertatu da. Urte hauetan Pragmatika izeneko metodologiak, ez idatziari, baizik eta hizketari begira eraman ditu aurrera bere lanak. Gaur egun egin beharko genukeena hauxe da, alde batetik “conectores pragmáticos” izeneko partikulen historia adierazi, zein modutan azaldu ziren eta zer funtzio betetzen duten euskararen gainera, *badá...eta abar*, eta batez ere gaztelaniatik hartuak direnak: *según eta*, eta abar. Baita beste esaera desegokiak: esate baterako, *zergatikan*, batuan bazterturik izanez. Hauek denak aztertzeke Lourdes Oñederrak (prestatzen) balio handiko plangintza egin du azaltzeko dagoen artikuluan, Valentzian eginiko espainiar hizkuntzaren historiari buruzko V.garren Kongresuan aurkeztu zuena.

13. Badago *Ibaizabal* izeneko aldizkarian idazle bat “Euskaldun Erdaltzalea” bezala sinatzen duena. Idazle honek ideia berarekin bueltaka aritzen da eta honela idazten du: euskaldun batek gaztelania (erdara azken finean) dotore egiten duela uste du, baina benetako erdara kaskarra erabili. Bere idazkiak nahaste guztiz beterik daude, “komeria aldean” moduan. Oso interesgarria da ezagutzea erretratzen duen euskara-erdara nahaste hori: hitz egiten duenean ez da konturatzen egiten duena gaztelania ez denik¹³. Gauza bera aurkitzen dugu gaur egun uruguaitar eta brasildarren mugan, portugesa eta gaztelania nahasten duten hizkuntzalarien artean. XX. mendearen hasieran euskara eta erdara berehala bizi ziren Euskal Herrian, baina nahaste honek ez zuen hizkuntza berririk sorta erazi: gaztelania goraka joan zen, euskara gutxitzen ari zen bitartean (Echenique, 1997). Orain, XXI. mendearen, zorionez, gauzak aldatu egin dira, zertxobait behintzat. Eta XXI. mende honetan, testuen hizkuntzalaritzak alde batetik eta pragmatikaren bestetik, bata bestearen beharraz hartu bezain laster, elkar osatu eta aberastu egin dute. Horrek esan nahi du metodologiaren aldetik Filologiak zerbait berririk baduela betiko gaiak ikuspuntu eraberritu desberdinetatik begiratzeko.

14. Bukatzera noa. Euskal erromantzeen artean izandako harremanak aztertutako beharko ditugu Soziolinguistika eta pragmatikari begira, hau da, batez ere hizketari zerbait gehiago begira.

¹³ Gure artean, gu geuk esaten genuen Zarautz aldiak: ¿*qué tal, qué tal?*:- *bastante petral*; eta ez genuen pentsatzen *petral* hori euskara zenik, baizik eta gaztelania. Nahaste hauek normalak izaten dira bi hizkuntza edo gehiago egiten den tokietan.

Egia da iraganera begiratu ezkerro euskara eta erromantzeen artean izan diren harremanek gehienez diglosiaren eragina erakusten digutela; ez dut uste, ordea, kasu guztietan horrela izan denik (euskara *ispilu*, besteak beste [esate ximple baterako], *albaitari* edo *telebista* bezala, neologismoak dira edo ziren; horrelakoak garai guztietan izan dira (eta izango dira) eta ez dute diglosiarekin zer ikusirik. Bestaldetik, hasieran esan bezala, kontuan hatu behar dugu erdaraz, gaztelaniaz, euskaratik datozen maileguak ere baditugula. Arrazoiz beterik esaten du Txomin Peillenek (1998) euskararen latinistek edo latina aztertzen dutenek latina besterik ez dutela ikusten, erromanistek erromantzea, eta abar. Hori egia izanik, esan dezagun beste batzuk euskararen historian gertatu den guztia diglosiaren bitartez esplikatuta nahi dutela. Baina bakoitzari berea eman behar zaio, hori da koskarik zail edo neketsuena eta hemen izaten da maiz, nire ustez, Filologiaren aldetik oztoporik handiena.

Egin diren lanek hilarriei buruz edo lexikoari buruz, orain arte dakigunez, Euskal Herrian eta baita inguruko lekuetan ere, komunikabide besterik ez didate erakusten. Eta dena dela, esan bezala, susmatzen dut nafar erromantzea laguntza handiko izango dugula zentzu horretan aztertzen irauteko. Ez da ahaztekoa etorkizunera begira gerta daitekeena, baina hori nire ikerketen mugatik irten den kontua da.

Badakit arlo honetan oraindik arazo anitz dagoela argitu gabe. Pentsatzen dut eztabaidatzeko bizitza guztia eramango gaituen denbora luze izango dugula (batzuentzat luzea izango da, besteentzat laburra, baina gizarteari dagokionez luzea izango dela pentsatuz eta nahian ari naiz, eta gizarte filologikoari buruz mintzatzen ari naizen ezkerro, batez ere euskal gizarte filologikoari eta nire iritzia eman behar baldin badut, Filologia eztabaida dagoen lekuan nahitaez aurkitzen dela esan beharko nuke.

Gogora dezagun behin Joan Corominas erromanista (batez ere erromanisten artean katalanista) ospetsuak esan zuena:

“La historia de una lengua no se comprende sin la historia de las lenguas con las que ha estado en contacto; por lo tanto, no tiene sentido enfrentar una lengua con otra, ni un hombre con otro”.

Eta gure Mitxelenaren (1960b) hitz batzuk aipatuz benetan amaitzera noa:

“En Vasconia y zonas vecinas, el contacto entre romanistas y vascólogos puede ser tan fecundo como es estéril su alejamiento, fundado en prejuicios y en limitaciones subjetivas, y no en la realidad de los hechos que han de ser estudiados”.

Eskerrik asko.

* * *

AIPAMENAK:

- AZKARATE, M. ETA ALTUNA, P., (2001), *Euskal morfologiaren historia*, Donostia.
- AZKARATE GARAI-OLAUN, A., (1996), *Euskal Herriko Erdi Aroko hilarri eta inskripzionak (V-XI.mendeak). I. Euskal Herriko Mendebaldea*, Bilbo.
- COROMINAS, J., Y PASCUAL, J. A. (1985-96), *Diccionario Crítico Etimológico Castellano e Hispánico*, Madrid.
- ECHENIQUE ELIZONDO, M. T., (1984¹), *Historia lingüística vasco-románica. Introducción a su estudio*, Donostia.
- (1987²), *Historia lingüística vasco-románica*, Madrid.
- (1997), *Estudios de historia lingüística vasco-románica*, Madrid.
- (1999), “Protohistoria de la lengua española en el primitivo solar castellano”, *Actas del IV Congreso Internacional de Historia de la lengua española*, Logroño, 39-57.
- (prestatzen a), “Algunas consideraciones sobre préstamos léxicos vasco-románicos”, *Homenaje a F. González Ollé*, Pamplona
- (prestatzen b) “Confluencia de lenguas en el área pirenaica en la época de orígenes”, *Actas del Congreso de lengua y toponimia pirenaicas*, Valencia.
- ELHUYAR (ed.), (2000²) *Euskal hiztegi modernoa*, Donostia.
- GORROCHATAGUI, J., (1997 [1995]), “Los Pirineos entre Galia e Hispania: las lenguas”, *Veleia*, 181-234.
- (1995), “The Basque Language and Its Neighbors in Antiquity”, *Towards a History of the Basque Language* (J. I. Hualde, J. A. Lakarra, eta R. L. Trask arg.), 31-63.
- HAASE, M., (1995), “Amikuzera”, *Euskal Dialektologiako Kongresua* (R. Gómez eta J. Lakarra arg.), 173-188.
- ISASI, C., (prestatzen), “Documentos navarros y documentos vizcaínos: algunas coincidencias”, *Actas del V Congreso Internacional de Historia de la lengua española*, Valencia.
- LAKARRA, J., (1998), “Hizkuntzalaritza konparatua eta aitzineuskararen erroa”, *Uztaro*, 25, 47-110.
- LARRAMENDI, M., (1745), *Diccionario trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín*, Donostia.
- MICHELENA, L., (1960a), *Historia de la literatura vasca*, Madrid.
- (1960b), “Prólogo”, E. De Arriaga, *Lexicón Bilbaino*, pp. 5-8, Madrid: Minotauro.
- MUJICA, L. M., (1982), *Latina eta erromantzearen eragina euskaran*, Donostia.
- MUGICA, M., (1996), “Notas de fonética histórica y toponimia. 1. Sobre cronología de los cambios fonéticos”, *ASJU*, XXX-1, 219-238.
- NITTA, M., (prestatzen), “Romanceamiento de las sibilantes vascas en la toponimia de La Vizcaya (Navarra)”, *Actas del V Congreso Internacional de Historia de la lengua española*.
- OÑEDERRA, L., (prestatzen), “La cabeza es para andar; sobre el español hablado en zona vasca”, *Actas del V Congreso Internacional de Historia de la lengua española*.
- PAGOLA, R. M., (1995), “Nafarroako hizkerak”, *Euskal Dialektologiako Kongresua* (R. Gómez eta J. Lakarra arg.), 255-295.

- PEILLEN, Tx., (1998). [1995], *Les Emprunts de la langue basque à l'occitan de Gascogne*, Madrid.
- SAYAS ABENGOECHEA, J. J., (1999). "De vascones a romanos para volver a ser vascones", *RIEV*, 44-1, 147-184.
- SEGURA MUNGIA, S. eta ETXEBARRIA AYESTA, J. M. (1996). *Latinetik euskarara*, Bilbo.
- TOVAR, A., (1997). *Estudios de tipología lingüística*, Madrid: Ediciones Istmo.
- TRASK, R., (1997). *The History of Basque*, London / New York.

Mahai ingurua:
**Lekuko euskarak eta euskara batua:
elkarren osagarri ala arerio?**

1

Xabier Kintana

HIZKUNTZA BATUA ETA DIALEKTOAK

Euskararen batasunaren auzia ez da atzo goizekoa baina gure literaturaren historia osoan zehar, nola edo hala, gai hau aldizka planteatu den arren, estandarizaziorako lehen pauso serioak, ordea, XX. mendearen hasieran hasi ziren egiten. Hondarribiko bileretan Euskal Herri osorako grafia arauak ezarri nahi izan zirenean. Geroxeago, 1916an, Euskaltzaindia eratu bezain laster, gure Akademiak lan horri heldu zion, Broussain eta Champion euskaltzainen eskutik, praktikan arrakastarik izan ez arren. Haren ondoko beste saio batzuek ere ez zuten zori hobirik izan, Azkueren gipuzkera osotua, Krutwigek bultzaturiko lapurtar klasikoaren berpiztea edota Oskilasok proposatu nahi zuena gogoan harturik.

Nahi hutsa, ordea, ez da nahikoa izaten asmoak aurrera ateratzeko. Askok sentituriko beharizana, horretarako giro egokia eta gutxienezko egoera administratibo laboragarria, hau da, osagai objektiboak, maiz eraginkorragoak izaten dira proiektuen arrakastarako, eta elementu horiek gure artean 60.ko hamarkadaren bukaeran hasi ziren mamitzen, alfabetatze-euskalduntze kanpainen eta ikastolen ugaltzearekin batera. Horren ondorioz zoritu zen Arantzazuko 68ko bilera, Gabriel Arestik proposatua eta K. Mitxelena zuzendaritzapean gaurko euskara batuaren oinarriak ezarri zizkiguna.

Mitxelena baina, ez genuen hizkuntzalari hutsa. Jakituriaz eta herri senaz ongi horniturik egoteaz gainera, euskaldunon herri-psikologiaren ulertzaile bikaina ere bazen. Beti testu idatziaz ez bada ere, hark gauzak esateko eta egiteko modu berezia zeukan, eta euskara batuaren formaz ez eze, proiektua ulertzeko eraz eta bera bideratzeko prozeduraz ere uste baino eredu-jarraipide gehiago utzi zizkigun. Askok euskara batuaren oinarritzko filosofia hori beragandik ikasi genuen, eta ahal izan dugun neurrian hori praktikatzen ahalegindu gara, beti ongi asmatzea erraza izan ez arren.

Errenteriako irakasleak argi ikusi zuen aurreko batasun-proiektuen porrotaren arrazoi nagusietako bat hau izan zela: inguruetako euskaldunek erdiko euskalkiduenengana zuten mesfidantza, hauek maiz nagusikeriaz jokatzen zutelakoan, hots, bere-

na gainerakoei indarka sartu nahian zebiltzalakoan, horrek besteei zekarkien autonomia-galerarekin. Noski, norbaitek, agian hitz gogorregiekin, gipuzkoar inperialismoa deitu izan zuenaz ari naiz. Ongiegi dakit iritzi horrek aski subjektiboa irudi lezakeela, baina kontua da portaera hori besteei horrelaxe ikus-sentitzen zutela beldurrez eta mesfidantzaz.

Errezelo hori, Mitxelena ongi konturatu zenez, are nabarmenagoa zen mendebalean, Bizkaian bereziki. Baziren horretarako arrazoiak ere. Alde batetik, bizkaiera zen, alde handiz, euskararen batasunarekin gehien galdu beharko zuen dialektoa, bere bazter-egoera eta berezitasun urunduagoengatik. Bestetik, beste euskalkiek ez bezala, bizkaierak aldean hitzun kopuru handia dauka, euskara osoaren herena, gutxien jota, eta giza multzo horren pisu soziologikoa ez zen ahanztekoa. Azkenean, gure herrialdeak abertzaleatasunaren historian izandako garrantzia eta Sabino Aranak eta bere jarraitzaile askok dialekto hori nola estimatzen zuten kontuan izanda, espero izatekoa zen mendebaleko euskaldunek euskara batuaz erreparatu ugari izatea, aurreko batasun-saioetan ere agertuak.

Hori zela eta, Mitxelenak ardura handiz jokatu zuen euskara batua alde bateko eta besteko euskaldunen arteko batasunaren adierazle izan zedin, euskalkien arteko oreka, toki guztietako emaitza eta aberastasunen bilgune, proiektu nazional horretan euskaldun guztiok partaide eta eroso senti gintezen, guztion etxe amankomunean. Horrela uler daiteke, adibidez, aditzaren batasunean puntu askotan mendebaldeko eta ekialdeko euskalkien ezaugarri batzuk onartzeko agerturiko jarrera ona, erdialdeko adizkeren osagarri.

Euskara batua, hortaz, goi-nafarrera-gipuzkera-lapurteraren oinarri sendoen gainean mamitu eta eraiki zen, eta, hasieran behintzat, literatur tradizio zaharra bereganatu zuen, iraganeko formak gehienontzat batuagoak zirelakoan. Horrez gainera, inguruko euskalkien aberastasunak, sintaxi, lexiko eta esaeretan, eskuak zabalik onartzen ziren, bai nafar-zuberotarrenak eta baita, mendebaldeko euskaldunenak ere, literatur hizkuntza horretan eskualde guztietako euskaldunak partaide izateko.

Orduan, adibidez, ez zen zalantzan jartzen *haurride*, *itzel* edo *aitzindari* hitzak edo *anaia/neba*, *bertan/berton*, *gatzatu/mami/gaztanbera*, *itzal/itzel*, *hodei/laino*, *egur/zur*, *lur/behe*, *madari/udare*, eta *zer/zertzuk* bikote-hirukoteak euskara batuko hitz bete-beteak eta osa-aberasgarriak zirela, beren esangura bereziarekin guztion euskara zehatzago egiten zutelakoan. Aniztasuna bereganatzen zuen eredu horrek arrakasta eta onespen zabala izan zuen, hasiera hartan toki guztietako euskaldunak onartzeko izan zuten gogo zabala kontuan izanda, eta bereziki Bizkaian, hemengo euskara hartatik urunduena izan arren. Hori dela eta, une honetan hor-han-hemenka jende batzuk euskalkietara itzuli nahi izateak, oinarrizko desakordioaren sintoma kezagarritzat jo behar dugula uste dut. Eta gaitzespen nabarmenenak berton, Bizkaialdean, sortu izateak ere, termometro sentibera bihurtzen gaitu mendebaldeko euskaldunok, desbideraketan alarma-seinale, gauzak hain ondo ez doazela erakutsiz.

Izan ere, batasunaren hasieran ez genuen oraindik ordenagailurik eta hortaz, gure literaturako egile garrantzitsuenen eragina idazleok, haiek egiazki irakurriak genituelako, beraiez genuen iritzi subjektibo baina egiazkoan oinarritzen zen, zuzen edo oker, munduko gainerako hizkuntza guztietan gertatu den bezala, derradan bide-nabar. Geroago, informatikaren teknologia heldu zitzaigun, baina mende guztietako autoreen datuak aurkitzeko unean horren laguntza preziagaitza izanik ere, aukera ez da oraingo literaturgileen benetako irakurketa-eraginetan oinarritu, fikzio estatistiko batean baizik. Eta ironikoki, ordenagailuei beita hori ematen diharduten operatzaile

hautatuz landa, inork gutxik irakurri eta seguraski irakurriko ez dituen maila ezberdineko autoreek berez izan ez duten eragina nabarmenki igo da aspaldion, lehenago, batzuen ustez, oreka eta naturaltasun handiagoz bideraturik zeuden hainbat gauza hankaz gora jarritz.

Bestalde, autonomia lortu ondoren euskara irakaskuntza eta komunikabideetara ofizialki iragan zenetik, 1968an Arantzazun Xarrittonek azalduriko kezka hura, neurri handiz, bete egin da. Gipuzkoar peto-peto eta kimikoki hutsen –erran nahi baita, gainerako euskalkien berri izan (nahi) gabeen– eragina gero eta ageriagoa da: *bai baino, orai, udara hontako zerua lainoz betea dago, eskuko behatzak, Arratiko bailara, Mirenen anai bat, gera eta degu, artzaitxakurrak, kamioizale, hemezazpi, laister* eta *aizkenean* eguneroko ogia bihurtu zaizkigu argitaletxe, prentsa-artikulu eta irrati-emanaldi konkretu batzuetan. Horietako asko, gainera, zenbait euskaltzainen bedeinkapen nabarmenez gainera.

Ez da harritzekoa, noski, egoera horrek euskaldun batzuegan ezinegona eta haserrea ere piztea. Izan ere, ez dirudi oso bidezkoa, batasunaren izenean, batzuei berenak ez dituzten hitzak, aldakiak eta adizkerak ikasteko eskatzeak, eta besteak, ordea –eta bereziki idazle, kazetari eta esatari ustez profesionalaz ari naiz–, beren zilibor-hesteari begira lasai egotea, besterenik ezer jaso eta erabiltzeko inolako interesik izan gabe. Eta zabar-alferkeria hori are salagarriagoa iruditzen zait gainera, bitartean, milaka euskal herritar erdaldun euskara ikasten ari direla gogoan izanda, gizarte-integrazioaren izenean batzuei eskatzen zaiena ez baitago inola ere orekatutik beste muturrekoen axolagabekeriarekin.

Euskara batuaren aitzakian idazle batzuek beren erdialdeko euskalki pribilegiatua bultzatu eta gainerakoen aberastasunak jasotzeko interes berezirik ez dutela ikusirik, ondorioz, beste idazle batzuek, erreakzioz, beren dialektoei eutsi nahi izan diete, eta pendulua beste puntaraino eramanez, euskalki kutsuko guztia goresten eta azpimarratzen hasi zaizkigu. Kasurik nabarmenenetako bat, Xabier Amuriza idazle eta bertsolaria dugu, seguraski. Oker handirik gabe esan daiteke bera izan dugula Euskal Herriaren historian bertsolaritza hizkuntza landu eta idatziarekin uztartzen gehien saiatu dena, hura arlo horretako ez gutxiren herritarkeri kutsutik atera eta bertsogintza mailaz jasoz. Bizkaitik egindako bere ahaleginak Gipuzkoa aldean ez zuela oihartzun handirik ikusita, nonbait, aspaldion, ordea, berriz ere lehenagoko molde dialektaletara pasatu da, hots, kasu egiten ez ziotenen bide berberera. Ondorioz, atzerapauso horrekin guztiok eredu interesgarria galdu dugu, zalantzarik gabe.

Horietako batzuek uste dute euskalkiz idaztea mesedegarria izan daitekeela euskalkien lexiko eta esaldi-emaitzak euskara batuan txertatuz eta indartuz joan daitezen. Ene irudiko baina, oker daude. Jokabide horrekin euskalkietako hitzei izaera are lokalagoa ematen diete, mugatuagoa, beren praktikan hitzok erabilera dialektal hutsarekin lotzen dituztelako, eta horixe da, antza, gipuzkeraren oraingo hegemoniarekin ondo pozik dagoen zenbaitek nahi lukeena, hain zuzen: euskalkietako hitzak onartu bai, baina euskalkietan idazten denerako besterik ez, horrela pixkanaka euskara batutik erabat zokoraturik gelditu daitezkeen. Horregatik, euskalki ezberdinetako berezitasunak ate nagusitik sartzeko bide bakarra, ene irudiko, horiek euskara batuan erabiltzea da.

Argi utzi nahi dut, jakina, euskalkietara itzuli nahi horretan maila ugari eta ñabardura franko direla, eta kasu guztiak ez direla zaku berean sartzekoak. Alde bate-tik, badira hasierako euskara batu formalegi eta akademizista hark falta zuen freskotatuna norbere euskalkiaren berezkotasunean berreskuratu gura izan dutenak, lagun- eta senide arteko harremanen erregistroa, adibidez, eredu batuari herri-hizkera txertatzean

osatuko zelakoan. Horiek orok, zer esanik ez, lan bikaina egiten dihardute, gure literatur hizkuntza erregistro berriez aberasten dutelako.

Aitortu beharra dago, bestalde, euskaldun berriok, umetako hizkuntza erdara izan dugulako, seguraski ez garela ongi konturatzen hizkuntza mintzatu dialektalak txikitandiko euskaldunengan zer nolako garrantzi eta lotura afektiboa daukan. Hau, derradan bidenabar, maiz hutsune handia izaten da, euskaltegietan ez baita afektibotasunaren hizkuntza inola ere lantzen, ondorioz, horretarako eredu egokirik ezaz, ikasleak senide, haur txiki, maitaide eta lagunarteko giro berezietan hankamotz utzi-rik. Eta hor ere, jakina, azpie-redu dialektalek badute sarrerarik¹.

Toki jakinetan kokaturiko elkarrizketa biziei sinesgarritasuna emateko ere, euskalkietara jotzea erabaz dezko da, eta Txomin Agirrek berak ere hortixek jo zuen *Garoan*, Oñati ingurukoena hizkera nabarmentzeko. Irrati lokaletako emanaldi batzuk, herritarrekin harreman zuzenak dituztenak bereziki, euskalkiz ematea ere guztiz egokia iruditzen zait. Normala da, bestalde, administrazioan, arduradunek beren administrazioekiko tratua berauek ongien ulertzen duten moduan izatea, edo apaizek sermoiak beren herritarren euskalkian egitea. Zer esanik ez, eskola-ikastoletako ume gehienek euskara aski homogenea egiten duten herrietan, andereñoek, beren lana behar bezain ongi egin nahi badute behintzat, ondo kontuan izan beharko lituzkete tokian tokiko euskararen ezaugarri nagusiak, lexiko aldekoak batez ere, haurrekiko lehen harremanak arrotz eta beren aita-amen hizkeratik urrunegi gerta ez daitezten.

Horretan, ondo kontuan hartzekoak dira, ene ustez, Juan Luis Goikoetxeak toki euskaldunetako haurrak eskolatzeak eskaintzen dituen ideia gehienak, bai eta Koldo Zuazoren proposamen batzuk ere, kasu batzuetan, kasuistika xeheegietan abiatuz gero, praktikara eramanez ezinezko absurdoetara hel gaitzekin arren².

Kezkagarria, ordea, bestea da: zientzi artikuluak orain euskalkiz plazaratzen ikustea; ETBko aurkezle batzuek beren herriko era dialektalak erabiltzea (*hemezazpi*, *artzai*, *gotzai*, *degu*, *gera*...); Bizkaiko museoetako katalogo eta argibideak, Enkarterrietakoak barne, euskalkiz eskaintzea; Euskara batuan holakorik ez dagoenean, Bizkaiko Diputazioak bertoko ikasleen artean euskalkiz egindako agendak banatzea;

1 Giza harreman berezietarako hizkuntz ereduak, noski, sozialki transmititzen dira, eta horregatik zaila izaten da inoiz ikusi ez entzun ez duguna ongi asmatzea. Halere, beren hutsune nabarmenak onarturik ere, zerbait esan beharko lituzkete euskaldun berri/ikasien alde: euskara ikasketa-bidez eskuratuta dutenez, hots, hizkuntzaren sormen-baliabideak ongi berenganatuak daukatelako, maiz, asmamen biziagoa eta itzultzeko ahalmen handiagoa izaten dutela txikitandiko euskaldun letragabeei baino... batzuek eta besteek eredu horiek erdaraz jaso dituztenez. Gogora dezagun, adibidez, maitasun eta sexu harremanak geure artean tabu hutsak izan ditugula orainsu arte, eta giro horretako hizketak, nagusiki, erdaraz jaso ditugula, erdal literatura, irrati, zinema edo telebistako mezu-modeloen bitartez. Alde horretatik, Koldo Zuazok bestelakorik uste izan arren, maizago entzun daitezke txikitandiko euskaldun batzuen ahoan *palo-ma*, *preciosa mía*, *chavala*, *pichoncito mío*, *carriño*, *amante*, *jan lentejitas*, *etorri lolitos egitera*, *a borriquito* modukoak euskaldun ikasienean baino. Bestalde, Iturgaitz jaunak adierazpen publikoetan erakutsi ohi dizkigun etorri eta bokantza mirezgarriak inspiraziotzat harturik ere, ez dirudi "hain beharrezko, ezinbesteko eta nahitaez eutsi beharreko" omen dugun euskara batuari laguntzeko modurik egokiena denik, bera hainbeste nekez eta ikastordu luzez eskuratzen ari direnen lepotik "Marteko euskara" moduko loreak asmatu eta lau haizeetara hedatzea, euskalkiak "über alles" eta "for ever" bultzatu nahi dituztenen fabore, ura beren errotara eramaten utziz. Are gutxiago, "porque jeneralmienten Pamplonako campo de deportesen entrenetan dogu" gisakoak parra-parra esaten dituztenen euskeratxu jatorri inolako deiturarik ezartzen ez zaionean, zenbait euskaldun berriz gainera, euskalkidun ugari ere euskara txar eta kaxkara egingo ez balute bezala. Eta ez du balio, gero, sorgin-ikaslearen antzera, suarekin olgetan ibili ondoan, inguruak kixkaldurik utzi ondoren, norbere burua ere errerik ikustean, euskara batuaren etsaen profeta berri ustekabea bilakaturik, beranduko damuz aieneka agertu nahi izatea.

2 Kasu nabarienetako bat aste-egunen eta hilabeteen izenena dateke: aspaldiko urteotan Euskal Herrian argitaratzen diren egutegi gehienek eredu batuko izenak besterik eskaintzen ez dituztenez, eta, zenbait baserriako lagunek salbu, kale giroko jende gehienek, era batuek ez badakizkitez, *enerue*, *febrerue*, etab. besterik esaten ez dutenean, herri mailako hizkuntza mintzatu zein idatzian behialako forma dialektalak birpiztu nahi izateak ez dirudi premiazko ez bidezkoa denik. Bestalde, gaurko gizartean dugun lekualdaketa ugari eta toki ezberdinetako euskaldunen arteko ezkontza mistoak goagan izanda, zaila da hiri handietan -eta ez hain handietan ere- ume euskaldun talde homogeenok aurkitzea, proposatzen diren euskalki-egokitzapen horiek praktikara eramateko, eta are zailagoa izango da, zalantzarik gabe, etorkizunean. Horrek ez du esan nahi, noski, posible diren lekuetan gaitzestekoak direnik.

jendea literaturarik gabeko azpieuskalkietan alfabetatu nahi izatea; kultura jendeagana hurbiltzeko aitzakiaz herri-aldizkariak azpiazieuskalkietako forma tradizio gabe bitxienekin argitaratzea; lurralde historiko bateko berriak Euskal Herri eta mundu osorako prentsez eta internetez euskalki hutsez eskaintzea, herrialde horretako zona erdaldunetan eredu batua ikasteko hainbeste ahalegin egin duten euskaldun berriei beren herriko albisteak, iseka nabariak, dialektoz emanez; Euskaltzain batek euskara batuan esandako hitzak, edonork ulertzeko modukoak, ondoren Euskaldunon Egunkarian dialektoz eskaintzea, berak halaxe esanak balitu bezala; autobus publiko batzuetan *irteera* barik, *urteera* idaztea; euskalkiak hizkuntzatzat harturik, horiek normaltzeko arauak web orrian eskaintzea; unibertsitatera selektibitatea egitera datozen ikasle batzuek, Eubako ikastetxe famatu batekoek, adibidez, euskara batua ez dakitelako aitzakiaz azterketak euskalkiz egitea, aspaldiko urteotan gertatzen ari denez. Biblia osoa euskaraz daukagunean, oraindik mezako liturgia, aita gurea barne, lurraldez lurraldeko euskalkietan izatea, maiz hiztunen egiazko euskararekin bat etorri ez arren (Eibar, Oñati, Oiartzun, Hondarribia, Irun...). Hitz gutxitan: berez euskara batuari legokiokeen eremuan oraindik euskalkiak jarri nahi izatea, Jon Agirrek, esaterako, argi eta garbi predikatzen duenez³.

Ez ditugu, ordea, beste muturrekoak ere ahaztu behar. Ez da egokia, eta ez, seguraski, euskara batuaren kausagatik bakarrik, Bizkaiko herri euskaldunetako haur txikienekin sistematikoki *kilimak*, *pusketa*, *tronpatu* eta *kausitu* bezalako hitzak erabiltzea, bertoko *kili-kiliak*, *zati*, *okertu* edo *aurkitu* ezagunagoen orde. Euskara batuaren aitzakiaz, ez toki horretako ez inongo den euskalgaiztoaz egindako kartel aldrebesak jartzea ere astakeria galanta da, edo Gipuzkoako herriko jaietako programak agian zuberotarrek hobeki ulertuko luketen euskaraz idaztea, eta gisa honetako ganorabakokeriak.

Abusu hauen aurrean, iruditzen zait euskara batuaren hasierako oinarri ideologikoak birplanteatu, berraztertu eta, behar diren osagarri eta zuzenketa guztiekin, berreskuratu behar ditugula. Eta, hasteko, euskalkien eta euskara batuaren eremuak argi banatu beharra legoke, batak bestearen arloa bidegabeki zapal ez dezan.

Beste herri guztietan bezala, dialektok beren tokia, batez ere, maila mintzatu informalean daukate, etxeko giro eta lagunaren artean, eta gurean, oro har, jendea jatorriz eta txikitandik euskalduna den herrietan bereziki. Horrek ez luke esan nahi, munduko gainerako herri zibilizatu guztietan gertatzen denez, irakurtzearen eta kultura jasoaeren eraginez, zenbait forma mintzatu aberrante, laburtuegiak, erdarakadaz josiak etab. pixkanaka landu eta eredu batura hurbiltzen joatea komenigarria ez denik, toki urrunetako euskaldunok elkar ulertuko badugu, ez baitut uste, zenbaitzuek pentsatzen omen dutenaren kontra, euskaldunik hoberena sekula santan ezer irakurri gabea denik.

Euskalkiz idazten denean, gainera, beherago aipatuko dudanagatik, hizkuntza batuaren eredia ahalik eta gehien eduki beharko litzateke kontuan, eta herrian edo herrialdean bi aldaera erabiltzen direnean, zabalduenari eta batuenari lehenasuna eman (*alkarregaz*, ez *arkalaz*; *aurten*, ez *aurton*; *balitu*, ez *baleuz*; *gertatu*, ez *gertau*; *guraso*, ez *burraso*; *jende*, eta ez *jente*; *kalitate*, ez *kalidade*, *liteke*, ez *litaik*, *sartu*, ez *sartun...*), EGUNKARIAko Bizkaia gehigarriaren arduradun –itxuraz– giputzek hain sistematikoki idazten dituzten eta bizkaitar gehienoi hain xelege gertatzen zaizkigun *alabearen*, *enpreseak*, *eskolean* horiek ez aipatzearen. Edonola ere, eta berriro diot, euskalkietako hitz bereziak, sinonimoak, esaerak, joskera bitxiak etab. beti izango dira zilegi eta ongi etorriak eredu batuan ere, zein bere erregistro egokian.

³ Edonola ere, sintomatikoa da, euskalkia denetarako erabili behar dela dioten askok bere lanetan maila apal nabarmena erabiltzea, ezer irakurtzeko ohiturarik ez duten jende letragabeak erakartzeko alferreko ahaleginean nonbait.

Literatur hizkuntza batuaren arloak, ordea, gainerako eremu formal guztiak dira, eta, izenak berak adierazten duenez, oso bereziki zeregin idatzia: irakaskuntza, literaturgintza, ikerkuntza, administrazioa, seinalizazio-kartelak, hedabideak etab. Horrek ez du esan nahi, jakina, gaurko euskaldunon egoera soziolinguistikoa kontuan izanda, lexiko eta sinonimoen erabilera, batzuetan tokian tokiko egokitzapenak gaitzestekoak direnik, gure hizkuntz koktela oraindik behar bezain irabiatuak ez dagoelako, baina beti ere eredu batu literarioa errespetatuz (*amama/amona/amandre/amatxi, apur/pixka/poxi/amiñi, ahalke/lotsa, artez/zuzen, aurkitu/topatu/idoro/ediren/kausitu, debekatu/galarazi, gurdi/orga hitz/berba/ele/mintzo, irten/atera/jalgi/ilki, jausi/erori, jolasean/olgetan, nahi/gura, neba-arreba/haurride, ondo/ongi/ontsa, txakur/or, txerri/urde...*) tradizioerik gabeko txokokeria, laburpen, arrunzeria edo aldaera dialektal hutsei sarreerarik eman gabe: *arkitu, arpel, arrai, artzai, erten, galazo/galazi, ipui, iten bozu, mahain, oai/oin/guai, pasau, pentseu, ukusi, usai...* Eta ez nituzke aipatzeke utzi nahi herri-hizkeren aitzakiaz aspaldion bazterretan agertzen hasi zaizkigun *merenderue, bentaneruek, karroak*, edo *biberoak* bezalako erdarakada gordin horiek.

Era berean, eremu erdaldunetako eta etorki ezberdinetakoa ikasleak dauzkaten hiri nagusietako eskoletako irakaskuntza, maila jasoko hitzaldiak, irati-telebistetako emanaldiak, film itzuliak, irakaskuntza (bereziki maila gorenetan eta ingurua erdalduna den tokietan: Enkarterriak, Errioxa, Erribera, hiri nagusiak...), kamera eta mikrofono aurreko adierazpenak, informazio-argibide orokorrak (geltoki-aireportuetan, erostetxe handietan etab.) euskara ahalik eta batuenean egitea komeni da, horrela hizkuntza eredu finkatzera laguntzeaz gainera, irakurtzeko ohiturarik ez duten herritarrek, batez ere adin batetik gorakoek, begiak ezean, belarriak bederen euskara batura molda ditzaten.

Egia esan, modalitate bien artean etengabeko osmosia gertatuko da, hurbiltze bidean. Horrela, literatur hizkuntzak jende xehearen hizketatik maiz berba apal, arrunt edo dialektalak bereganatzen ditu, horietako batzuk jargoi edo esangura berezietarako espezializatuz. Herritar arruntak, aldiz, irakurketaz, eskolan dituen seme-alabei entzunda, hedabideen eraginez eta, pixkanaka eredu jaso eta aberatsagoaz jabetuz doa, horiek aldizka, berak ere zerbait badakiela erakutsi nahi duenean, hobekixeago mintzatzeko erabiliz. Eta fenomeno hau gero eta nabarmenagoa da gazte jendearen artean, gaur egun bere euskalki hutsean berba egiteko gai direnak ia-ia erabateko analfabetoak izanik, hots, testu ida-tziekin eta komunikabideekin inolako harremanik izan gabeak.

ESTANDARIZAZIOAREN INGURUAN

Bestaldetik, ez letorkiguke batere gaizki hizkuntzaren estandarizazioaz gogoeta labur bat egitea, ideiak argi eta ordenaturik edukitzeko. Jadanik XVIII. mendean Joanes Etxeberri Sarakoak ongi azpimarratzen zigunez⁴, hizkuntza batuak, eredu gisa balio izatekotan, bat eta bakarra izan behar du, eta ez bi, hiru edo gehiago, kasu horretan erremedioa gaitza bera baino okerrago gerta daitekeelako. Horrexegatik, gorago aipaturiko egokitzapen lokalak kontuan izanda ere, estandarizazioak, berez, zeregin jaso batzuetarako eredu ukaitea esan nahi du, baina eredu bakarra eta esklusiboa,

⁴ "Halatan bada gure eskuara zurtz jabegabeko, eta hainbertze mendez mende arrokapean, itsaso, eta uhinpean galdu ordean bezala dabilan hunentzat, nahi nuke bilhatu aitzindari, eta buruzagi on bat bakharra; erran dut bat eta hura bakharra, zeren asko orduz hainitz aitzindari, eta buruzagiren izatea baino, hobe balizate osoki bathere ez izatea: *Nam confregit Dominus conquassabit capita in terra multorum* (Ps. 109). Aitzindari, eta buruzagi hainitz den lekhan behin ere ezta enkontru onik, aitzitik han kausitzen eta izaiten ohi dira nahastura, gudu, eta eskatima franko: handik dio Iskribu Sainduak ere: *Omne regnum in se divisum desolabitur* (Luc, 11 v. 17) Hargatik beraz aitzindaria edo buruzagia behar da izan, lehen erran dudán bezala, bakharra, baina hura ona eta behar bezalako". Joannes Etxeberri Sarakoaren *Lan hautatuak*, Lur ed., Donostia, 1972, 115-116 orr.

egiazki guztiahalduna izateko, filosofo klasikoez zuhurki irakasten zuten, Jainkoak berak ere bakarria izan behar duen bezalaxe.

Halere, estandarizazioak, bere erabilera-eremu sozialaz gainera, beste premisa bat ere badakar aldean: eremu geografiko zabala izatea, hain zuzen. Euskal Herri osorako hizkuntzaren batasuna seriozki planteatu aurretik, literatur euskalkiek zeinek bere erabiltze-esparru geografikoa zehaztua zuten. Horrela, bizkaitarren arteko eredu idatzia erabakitzean, konturatuta zein konturatzeke, jaurreriko idazleek barruti horretako aldakien artean hautatu behar izan zuten. Adibidez, jendearen ahoan bizi ziren *dabe/daudie/daurie*, *guzti/duzti*, *ikasi/ikesi/ikisi*, *izen/uzen*, *sartu/sartun* formen artean lehenak hobetsi ziren. Hor –eta hori ere Mitxelenak inoiz zuhurki oharrarazi zigun– Sabino Aranek berak ere, bizkaierarako arauak ematean, lurralde historikoa-ren mailan bada ere, eredu batu bakarria proposatu eta bultzatu nahi izan zuen.

Jakina, euskaldunok herrialde-kontzeptu probintziala politikoki oraindik gainditua ez genuenean, eredu lokal bakoitzaren ondoan, baziren, zein bere esparru esklusiboan, beste batzuk ere: bizkaiera, gipuzkera, lapurtera eta zuberera, tradizionalki literatur euskalkiak deituak, hain zuzen. Horietako bakoitzak aldamenen hiztun-multzo handiago edo txikiagoa zeukan, bai eta nola edo halako liburugintza ere, baina oinarritz, bakoitza bere eremurako moldatua izanda, hortik kanporako pretentsiorik ez zuenez, bere barruti horretan buruaskia zen, hau da, autarkikoa. Alde horretatik, Greziako antzinako dialektoez gertatzen zenez, berdintasun egoeran bizi ziren elkarren ondoan. Halere, Atenasko aldaera, koine famatua, eratuz joan zen heinean, oreka horrek ez zuen luzaro iraun, eta prestigio handiagoko eredu hura sortu zenetik, laster, *primus inter pares* izatetik, gainerako guztien erreferente nagusia izatera igo zen.

Horixe zen, preseski, Mitxelenak azaltzen ziguna hizkuntzaren eta dialektoen arteko ezberdintasuna, nolabait, planeta-sateliteen artean dagoena bera dela zioenean. Eredu batua sortu eta indartzen den neurrian, dialektuak hizkuntza nagusi hori du erreferente eta jarraibide, sateliteak bere planeta duen bezala. Eta konturatu ez bagara ere, euskararen arloan azken urte hauetan euskalkien balioespenean, hierarkia bera mamitu da: lehenagoko berdintasun-egoera hartatik menokotasun-egoerara iragan gara. Gaur egun hiztunon erreferentzia nagusia euskara literarioa da, euskaldun gehienon buru-gogoetako eremu geografikoa Euskal Herri osoa den bezala, hots, euskaldun nazioa, eta ez, soilki, norbere probintzia edo herrialdetxoa.

Alde horretatik, lehenagoko panorama hura sakonki aldatua denez gero, euskalkiekiko pertzepzioa ere birkontsideratu beharra daukagu. Adibide argi bat ipintzeko, antzinan Bizkaiko ikuspegi hertsitik, bizkaieraren batasuna egiteko orduan, *ikasi* forma aukeratu bazen, jaurreri honetan erabiltzen ziren beste aldaerak baztertuz (*ikesi*, *ikisi*), -berauek, linguistika aldetik, hautatua bezain onak izan arren-, oraingo honetan Euskal Herri osorako nazio-hizkuntza-planteamenduan, gauza bera egiteko ordua heldu da erro bereko beste aldaera guztiekin ere. Eredu batuan *aulki*, *atera*, *bakoitza*, *belar*, *berri*, *bezala*, *eliza*, *elur*, *eman*, *eskaini*, *gezur*, *guraso*, *gutxi*, *ile*, *olio*, *oroitu* edo *soro* hobetsirik gelditu diren unetik, euskalki ezberdinetan ahoz esaten diren *alki*, *atara*, *bakotxa*, *bedar*, *barri*, *bezela*, *elexa/eleiza*, *edur*, *emon*, *eskeini/eskini*, *guzur*, *burraso*, *gitxi*, *ule/ulle ori*, *orroitu* edo *solo* aldaerak holakotzat hartzen ari dira, hots, forma **idatzien** aldaera **mintzatu** hutstzat, dialektologoentzat seguraski biziki interesgarriak, baina hizkuntza idatzian inolako sarrerarik izan behar ez dutenak, *duzti*, *erten*, *galazo* edo *uzen* berba aspaldian baztertuek ere merezi ez zuten arrazoi berberagatik.

Hitz gutxitan, ene ustez, gaur egun ez dago inolako justifikaziorik hitz berberaren bikote hauekin irakurleen begiak alferrik nekatzen segitzeko, forma eredu estan-

dar eta era idatzietan maizenik agertzen denaren ondoan, sokatira antzuan, bigarren mailako beste fantasma absurdoak ere mantendu guran. Estandarizazioak, neurri handiz, itxura idatzia, nortasun grafikoa finkatzea eta kontsakratzea esan nahi du, eta ondorioz, herri zibilizatueta behintzat, inori ez zaio irakasten tradizio idatzi gabeko aldaerarik edo literatura modernorik ez duen dialektorik. Hizkuntza batean alfabetatzeak irakurtzeko aukera zabalduea eskaintzea esan nahi baitu. Erdaldun maisu bati, adibidez, ez litzaioke burutik pasatuko, ikasleen erraztasunaren aitzakiaz, bere herriko analfabetoei *eso mesmo la dije a la güela, ven pacá, estuvistes ay, ansí, eto me paice mu güeno, endemás, satamente* edo *pos ha venío* modukoak irakastea, esaten diren modu berean behintzat, horien forma estandarrak baizik.

Hortaz, bistan dago, hizkuntza batuarekin inolako harremanik izan nahi gabe eta azken hoge urteotan eredu batuak hezkuntzan, hedabide eta administrazioan egin duen bide luzea ahazturik, euskalkiak estuki arautu, beren behialako forma idatzian mantendu eta bultzatu nahi izateko saio batzuk alfer-lanak direla, eta ez luketela kritika berezirik ere mereziko, ahalegin horietan euskaldunok geure indar urriak sakanabatzen eta hondatzen ari ez bagina, inguruko erdara ongi finkatuen mesedetan. Aldamenean eredu batua duen beste edozein hizkuntza ofizialek bezala, gurean ere euskalkiek, berez, komunikabideen, irakaskuntzaren eta administrazioaren eraginez, etengabeko erosio prozesua jasaten dute, pausoz pauso hargana hurbilduz. Eta behin prozesu hori hasiz gero, dialektoen isolamendua behin betiko hausten da, egoera erabat aldakorra dute, atergabeko hurreratzeko eta asimilazio-bidean abiatua. Joera natural hori, gaurko hitzunez jadanik ez dakiten behialako modeloaren arau zaharkituz eta korronte nagusiaren kontrako neurri bitxiekin gelditu eta oztopatu nahia marea gorei kanaberazko hesiak jartzea bezalakoa da.

DIALEKTO ALA HIZKUNTZA?

Lawrence Arabiakoaren film famatuko pasarte bat ekarri nahi nuke hona. Gogoan dukezuenez, protagonistak, Akabako portutik irten eta Sinaiko basamortua zeharkatu ondoren, Kairora heltzean, Allenby mariskalarekin hitz egiten du, eta bere konkistak sendotzeko, armak eskatzen dizkio arabiar lagunentzat. Hasieran fusilak, gero metrailadoreak eta ondoren munizioak. Kasu guztiotan mariskal ingelesak, aldamenean zuen Dryden aholkulari diplomatikoaren onespenez, baietz erantzuten dio. Hurrengoan baina, Lawrencek arabiarrentzako kanoiak eskatzen dizkionean, diplomatikoak, erabat asaldaturik, honela dio: “Kontuz jenerala, kanoiak emanez gero, independentzia emanen diezu eta”.

Hizkuntzen arlora itzuliz, nolabait horixe bera esan daiteke dialektoez ere: Dialekto bat grafiaz, morfologiaz eta gramatikaz erabat arautzen denean, bere independentziarako tresnak eskaintzen zaizkio, hots, ordura arte dialekto izandakoa hizkuntza bilakarazten dugu. Beraz, geure buruari galdera hau egin behar genioke: ea euskara **bat** nahi dugun, ala euskal hizkuntza **batzuk**. Eta bigarren kasu honetan, jakina, ea gure egoerak, demografiak eta baliabideek aukera hori aurrera ateratzeko erarik ematen ote diguten ere, behin anizbide horretatik hasiz gero, zatiketaren zatiketaz tokian tokiko modelo ezberdinen bila noraino hel gintezkeen asmatzea zaila ez den arren.

Norbaitek esan dezake inoiz, eredu estandarraren ondoan, azpiestandarrak ere izaten direla, baina ez gaitezen engaina. Horiek eskualde zabal oso ongi mugatuetan

eta hiztun kopuru handiz hornituak izaten dira. Gainera, konbergentziarako borondaterik ez dagoenean, azpiero horiek azkenean hizkuntza beregainak bilakatzeko joera dute, katalan/valentziera, galego/portugesera edo serbiera/kroazieraren kasuetan argi eta garbi gertatzen denez, gauza jakina baita, dialektoreen eta hizkuntzaren arteko ezberdintasuna, linguistikoa baino gehiago, maiz subjektiboa eta soziologikoa izaten dela. Bestelako kasuak ere badira, noski, errumaniera/moldaviera eta turkiera/azerierarena, adibidez, Sovietar Batasunaren peko bigarren eskualde horiek ondoko senideekin elkartzeko lehen neurria aspalditxoan hartua baitute jada, alfabeto zirilikoa utzi eta latindarra onartzean.

Ez nuke ixildu nahi euskararen azken urte hauetako dialektizazio-joera honetan bazterretan zabaldu den informazio faltsu eta kaltegarria: euskalkien aberastasunaren kontuaz ari naiz. Izan ere, dialektok altxor aberasgarritzat aurkeztean sarritan gauzak nahasi nahi izan dira maltzurki. Alde batetik, behin eta berriro azpimarratu dut euskalki guztietako fraseologia, lexiko propio, ezberdin eta berezitua, ezin utzizko aberastasun-iturri bikaina gertatzen dela guztion euskara batua osatzeko orduan. Baina hitz berberaren aldaera hutsez ari bagara, (*beltz/baltz, direla/dirala, eduki/euki, elkar/alkar/elgar, eman/emon, erabaki/erabagi, etortzea/etortea, gainean/ganean, igo/igon/igan, jaiak/jaixak, jende/jente, naiz/naz, nazio/nazino, nintzen/nintzan, noiz/noz...*) argi esan behar da hor ez dagoela inolako lexiko-aberastasunik, Mitxelenak inoiz salatu zuenez, eta bai erraztasunerako, normalizaziorako eta elkar aditzeko oztopo absurdoak.

Filologoen ikuspegitik, ordea, egia da aldaera dialektaletan azken buruko etimoa topatzeko edo hitzen bilakaera historikoa argitzeko arrasto oso interesgarriak aurki daitezkeela, baina horrek ez du zerikusirik ohiko hiztunek elkar aditzeko behar duten erraztasunarekin, ez eta hizkuntza biziaren normalizazioarekin ere. Halere, badirudi euskalkizale eta dialektologo batzuek, deformazio profesionala azken muturrera eramanda, oraindik bitxikeriak esaten dituzten hiztunak –eta dirudenez zenbat eta letragabeagoak hobeto– giza zoologiko pribatuetan kontserbatu nahi lituzketela beren plazer partikularerako, edo agian beren klub txikiko kideei giza espezimen horiek erakusteko, magnetofoiak aspaldian asmatu zirela ahaztuta nonbait. Eta gauden egoera honetan, jendea inolako testu idatzirik ez daukan bere txokoko euskera-txuan alfabetatzeko saiokat egiten jardutea, esan ditzagun gauzak garbiki, horko ikasleak lotsagabeki engainatzea besterik ez da⁵. Eta ez du balio, ondoren, kausalitatearen ordena hankaz gora jarrita, joan den mendearen hasieran Federiko Belaustegigoitiak jadanik salatu zuen “azutegiko euskara” edo “*euskera de barriada*” moduko aldaerak maila idatzira eramaten saiatzeak, egiten ari den alfabetatze lan desegokia a posteriori justifikatzeko.

Gertakariak historian bi aldiz jazotzen omen dira: lehenbizikoan tragedia moduan eta bigarrenean fartsa gisa. Euskal Herrian hizkuntzaren batasunaren planteamenduak oraingoarekin, hiru aldiz errepikatu dira. Beharbada buru gogorreko komediante txarrak garelako, edo agian noizik behinkako ziklo itsuetan galdurik gabiltzan ero hutsak. Horrela, batzuen eta besteengatik geure hizkuntzaren iraupenari berari erronka ez txikia jasanarazten diogu etxe barrutik, frantsesak eta espainolak kanpotik egiten dizkioten

5 Gure arteko zorakeriak ikusita, gogora datorrit, ezinbestean, Arthur Koestler-ek bere biografian kontatzen duen pasadizo xelebrea, Sovietar Batasun sortu berria bisitatu zuenean berari gertatua. Behin Asiako lautadetak Merv herriko eskolara eraman zuten, Afganistandik ez urrun, eta ikasgela batera sartu zenean, harriduraz ikusi zuen, maisuaren keinuari jarraituz, ikasleek *A guten Tog!* esanez agurtzen zutela bera, alemanezko ohiko *Einen guten Tag!*-en ordeztu. Izan ere, bere ezjakintasunean, errusiar irakasle gizagaixo hura, alemana barik, yiddish-a irakasten ari zen, hau da, Europaren erdialdeko juduek zerabilten Erdi Aroko aleman dialekto zaharkitu bat, hebreerazko hitzez josia. Arthur KOESTLER, *Euforia y utopia*, Alianza Editorial, Madril, 1977, 190. or.

erasoak aski eta sobera ez balitu bezala. Eta oso sintomatikoa da, gauzak ikusi eta ulertu nahi duenarentzat behintzat, atzora arte euskararen kontra jo eta ke ibilitakoek, orain, euskara estandarren arrakasta ikustean, bat-batean, herrixka eta famili giroko dialekto beneragarri eta “egiazkoen” aldeko porrokatu agertu nahi izatea⁶, baina jakina, aldi berean orotarako erabili nahi den euskara batu artifical horren kontra. Garbi baitugu guztiok, azken buruan, bide bakoitzak nora garamatzen.

Ordua da honelako eho-desehotzeko penelopekeriei behin betiko amaiera emateko. Pentsatzen dut seriooki planteatu behar ditugula hizkuntza batuaren eta dialektoen funtzio-eremuak eta hauen banaketaren lerro nagusiak, batak besteen arloa zapal ez dezan eta guztien artean elkar osatzeko bide aberasgarria zabalik gera dadin. Era berean, euskara batuaren hasierako kontzepzioa bera berreskuratu beharra daukagu, euskaldunen elkargune eta gure arteko batasunaren ispilu izan dadin, batzuk beste-engandik ikasteko prest egonez, berdintasun egoeran, inoiz sentitu ditugun nagusimenpeko arteko harreman latz eta deserosoak oro behin betiko uxatzeko.

6 Eta, zalantzarik izanez gero, aski luke irakurleak Jaime Ignacio del Burgok bere iazko liburu sonatuan (*El ocaso de los falsarios*, Editorial Laocoon, Madrid) euskara batu eta euskalkie buruz idatziriko pasarte argigarriok irakurtzea: “No podía ser de otra forma porque se trataba –dicho sea con el mayor de los respetos– de una lengua rural y primitiva, incapaz de competir con el latín y de evolucionar hacia formas más avanzadas que, quizás, hubieran podido convertirlo en idioma nacional”... “Más aún, de no haber sido porque la Real Academia de la Lengua Vasca decidió a mediados del siglo XX, en pleno franquismo, acometer la tarea de unificar los dialectos vascos y las reglas gramaticales así como la traducción a veces artificiosa del diccionario de la lengua española (sic) al nuevo idioma unificado o batua, la pervivencia del vascuence –ya de por sí muy difícil– hubiera sido tarea imposible”. (...) “Pero para impulsar el euskera como lengua nacional era imprescindible proceder a la unificación de los diversos dialectos, pues de lo contrario era imposible el entendimiento entre los étnicamente iguales. Kruzwig (sic) convenció a la Real Academia de la Lengua Vasca de la necesidad del batua o lengua unificada. Hubo académicos discrepantes, que entendían que la unificación pretendida iba a suponer la condena a muerte –como así ha sido, digan lo que digan– de las variedades dialectales originarias, a pesar del brindis al sol que representan los preceptos de las leyes de promoción del vascuence que hablan de su especial protección por parte de los poderes públicos. A los nacionalistas no les interesan los monumentos lingüísticos del pasado, hechos para disfrute de filólogos de lenguas muertas, sino la implantación de un modelo lingüístico único que pueda servir como idioma nacional y alternativa real al castellano. Por eso se gastan tantas energías en promover el euskera. El batua es el eje fundamental de la construcción de la nación euskalherriaca. Y aquí no hay lugar para el romanticismo del que hacían gala los escritores eúskaros, precursores del nacionalismo vasco en Navarra, como Campión, Iturralde, Aranzadi, Olóriz”. (...) El declive del vascuence es un proceso secular que tiene múltiples causas y nada tiene que ver con esa supuesta represión del idioma por motivos políticos. La razón fundamental de la regresión del euskara reside en su incapacidad para competir primero con el latín, después con las lenguas romances y, por último, con el castellano” (...) “el euskara seguía siendo un idioma rural y primitivo, utilizable únicamente en las relaciones humanas y familiares más elementales. La transmisión del vascuence tenía su ámbito natural en el hogar, allí donde tenía la consideración de idioma materno. Pero los vascoparlantes eran analfabetos...” (82-84. orr.) (...) “No hubo, en conclusión, ningún genocidio cultural ni antes ni después de la incorporación a la Corona de Castilla, ni en los años del franquismo. Si el euskera no se convirtió en el idioma “nacional” de los navarros fue porque no reunía las condiciones necesarias para ello, tanto porque no se habló nunca en importantes zonas de Navarra como por el hecho de su incapacidad intrínseca para ser considerado como idioma de cultura, al menos hasta que llegó el batúa” (85-87. orr.).

2

Bizkaia

Juan Luis Goikoetxea Arrieta

1. ITAUNA: EUSKARA BATUA-EUSKALKIA NIRE HERRIALDEAN.

Hasiera-hasieratik jokatuko dut euskalkia erabiltzearen eta irakastearen alde. Beti ere jakinik, euskara batuaren ondoan jartzen den bizkaierak arazoak sortuko dituela.

Jarraian adierazi gura nuke bizkaiera bezainbat dela neurea euskara batua, bate-tik *egiken* ondoan *ezak* erabili izan delako bizkaieraz, bestetik, bataren zein bestearen alde egindako lanek biekiko lotura ezin estuagoak sortu dizkidatelako.

1968ko Txillardegiren “Literatura-hizkuntza osatu, ala euskalki guziak hil” (*Euskera* XIII, 222) egiazkoari, gaur Erramun Baxoken ideia hau ere –berez, 1987koa dena- gehitu beharrean gara: “behin betikoz jakin dezagula, jatorrizko hiztunek daukatela konpetentzia, eta euskaldun zaharrak ez badira euskaldun, ez da euskararik, arima gabeko euskaranto hil bat baizik”. (Baxok, 1987:10).

1968 ezkerro, Bizkaiera –euskalkiak- egoera diglosikoan jarri ditugu euskara batuaren ondoan. Ferguson-en araberako antolaketan, euskara batua goian eta bizkaiera behean. Euskaldunon borondatez eratutako banaketa honetan, historikoki akats handia egin dugu, bizkaierari ez baitzaio bere *locusa* izendatu. Euskalkiak irauñ dezan esparru jakinak, funtzio argia eskaini behar zaio, ezen, Koldo Mitxelenak idatzi zigunez, “Las lenguas ocupan espacio, lo mismo que el saber”, (*Lengua e historia*, 200).

Bakoitzak bere funtzioak betez gero, Mackey-k dioenez eleaskotasuna iraunkorra da. Bizkaieraren lurretan bizi den hiztunak, egoera batzuetan bizkaiera erabiltzen du, beste batzuetan euskara batua, Fishman-en “nor mintzatzen den zein berbetatan norekin eta noiz” hura izan behar baita gogoan, (*Bilingualism in the barrio*, 1965).

2. ITAUNA: ETORKIZUNARI BEGIRA ZELAN IKUSTEN DUZU BATUAREN ETA EUSKALKIAREN ARTEKO UZTARDURA?

Bizkaiera heteronomia da “dialecto de”. Autonomia dagokio, ez independen-tzia. Hala ere, bizkaierak badu izaera bat, eta bizkaieradunak ere badauka horren

kontzientzia. Lekeitioko neska-mutilen artean % 79,5ek darabil lagunen artean Lekeitioko aldaera, % 1,1ek euskara batua, (Elordietak eta *The Basque Dialect of Lekeitio*, 3).

Bizkaiera heteronomo izatean, euskara batuaren eragin handia jasotzen du, eta bizkaieradunok jo eta ke dihardugu bizkaierak ere euskara batuan eragin handia izan dezan.

Euskaraz bizi dena, sarri-sarri topatuko da euskalkiarekin –baldin euskaraz bizi bada-, dela prentsan, dela irratian, dela, batez ere ahozkoan. Horregaz esan gura dut, bai euskara batua zein euskalkia aldaera biziak direla.

Euskara batua zein euskalkia bizirik badira, ez da arrazoirik eskolan ere biak ez lantzeko. Euskalkia lantzen ez bada, bizkaierak “eredu inkonszientea” izaten jarraitzen du Sapis-en hitzetan, eta “eredu konszientea” euskara batua. Horrela, jardunean bizkaiera eta batua lehian ager daitezenean “eredu inkonszienteko” elementua galdu egiten da. *Berbaz ibili* inkonszientekoa –bizkaierakoa-, *hizketan ibili* konszientekoaren aurrean *berbetan ibili/hizketan ibili* bilakatzen da, *berbaz ibili* galdurik.

Halan da ze, landu egin behar dira eskolan, euskalduna atxiketze-ereduan –dakienetik ez dakienarakoan, Ausubelen ikasketa esanguratsuan– hezikik, eta erdal-duna murgiltze-ereduan.

Irakaskuntzan ezin ahaztuko dugu, euskalkia eta euskara batua ukipenean bizi direla, ukipen gunea hitzuna dela. Ondorioz, batutik bizkaierara eta bizkaieratik batuarako eragina etengabea izango da hitzunarengan, erabili arren bizkaiera funtzio batzuetarako eta euskara batua beste batzuetarako.

Gainera, etxetik bizkaiera dakiena da bere euskara lantzean etxeakoaren eta eskolakoaren artean zubi egiten duena, baita euskaldun zahar eta berrien artean ere bitartekotza egiten dakiena. Har itzazu adibiderako idazlan bi euskara batuan, bata bizkaieran alfabetatuarena, bestea etxekoa saihesturik batuan ikasia. Froga erraz bezain argigarria. Euskalkia landu gabe dagoenak honela jotzen du:

zuzen zekienaren aldamenean, okerra darabil: “urtietan” ahoz esanik, “urtetan” idatziz euskara batuan.

Euskalkiko erabilera ugari fosilizatuta utziz: *ganorabako*, bai baina *diru bakoa*, ez. Euskara batuan bizkaierako elementu asko isilduz.

Txorierriko ikasleak, kasurako, euskara batua ardatz dela ikastea komeni da, *duteren* ondoan *dabe* eta *deurie* testuinguru egokietan landuz. Jakina da ikasleak eza-gutu dezan irakasleak ere beharko duela.

3. ITAUNA: ZER GEHITU ETA ZER BAZTERTUKO ZENUKE EUSKALTZAINDIK EMANDAKO ARAUETATIK, EUSKARA BATUA-EUSKALKIAK BIKOTETIK ABIATUTA?

Beldur naiz, euskara batua-euskalkien arteko eztabaida, beste behin ere, idatzira ez ote dugun mugatzen, arazorik larriena ahozkoa dugunean. Orain herri batzuetan ahoz esaten den eran idazten dabilta: *alabia* bada ahoz, halaxe idatzita. Dena dela, ida-tziak bere arauak ditu eta ahozkoak bereak. Gero etorriko da idatzia nola irakurri. Umore apur batez, esan dezagun adibiderako, frantsesez prologoa, *prologue* esaten

dena, inork irakatsi ezik euskaldunok *pro-lo-gu-e* irakurriko genukeela, hau da, ez dela idazten esaten den gisan.

Leku batzuetan agertu den joera, herri-herrikoa idatzi gura izatea, agian, ikus-gegi honetatik behatu beharko genuke: hiztunok badakigu berbetak ez direla tresna objektiboak eta sozialki neutroak, ezen esanahia transmititzen dutelarik, talde sozial eta etnikoen identitatearekin loturik baitaude, eta ondorioz, eragina dute hiztunen jarreran.

Azken aldian identitatea lekuko euskaran, ia-ia familiakoan bilatu izan da, horretarako besteengandik bereizten gaituena azpimarratuz.

Baina norbere herriko euskara idatzi gura izatea 1968an baztertu zen: “Niretzat Errenderiakoa da errexena eta ederrena...hala ere *eitten du, egiten du* idazten dut” (Mitxelena, *Euskera* XIII, 240). “Orroit ditela batasun zahar hori –Laphitz, Duvoisin– eta Diharasarrirena garbizaleak eta *ene xoko-moko* zalek gal arazi daukutela. Euskal Herri osoa bezain zabaleko bihotza izan dezagun guziek” (Iratzeder, *Euskera* XIII, 223).

Herrian herriko euskara idazteko, leku bakoitzerako euskara batua sortu behar da eta nonork aukeratu forma desberdinen artean, eta arautu, ezen eskolan inork ez du ikasten amarena –bere amarena– herrikoa ikasi arren. Nire gurasoak auzo bereko izanda, 57 urtean batera bizi arren, batak *urebioa* esaten zuen eta besteak *udebioa*. Areago, aitak berak aditzean behin *giñen* eta jarraian *gintzezan* erabiltzen zuen.

Pertsona bakoitzak bere ideolektoa dauka, ez da aldameneko lagunaren ideolektoaren pare-parekoa, nahiz eta elkarren artean berba egiteko adinako antzekotasuna izan.

Bestalde, euskaldun alfabetatu bakoak ere badaki -kate mintzatuko berben arteko talkagatik- ahoskatzen duenaren sakonean badela forma osoago bat, berak gogoan daukana. Esate baterako:

- *Or dau arasoa, ba!*
- *Ser diñosu?*
- *Or dagoela arasoa!*

Horren aurrean zer idatziko dugu? Forma osoa, alegia, *hor dago*.

Ez dugu ahortzi behar hiztunak badituela forma osoak bereganatzeko bideak:

Lehena, Patxi Uribarrenek dioskuna: *emongotsuten* ageri ez den lexema, *ez dotsuten* agertzen jako forman.

Bigarrena, zein euskaldunek ez ditu entzun berben forma osoak, bertsolarien ahotan, elizan, kantaren baten edo telebistan? “Bizkaiera batu modukoa egiten genduan bertsolariok, ez herri-herrikoa, euskara batua sortu arte be” esan zidan Jon Lopategik. Gipuzkoako bertsolariak ere berdintsu, ez, zeozelan adierazteko, Urliia pilotariak komentaria lanetan erabiltzen duena –zein bestalde eder-ederra den–.

Hola jokatu ezik, Mitxelena irakasleak zioenez, siglak idaztera helduko ginatke. Plaentxian gertatua kontatzen digu: entzutean “Erreipe, ni zigarroa erretzera noiak”, erreipe RIP hilerrietakoa idatziko litzateke. (Mitxelena, *Euskera* XIII, 242).

Halanda ze, euskara hizkuntza bat da, eta ez hizkuntza asko. Beraz, hizkuntza osoarentzat balio duenak, balio du euskalki bakoitzerako ere. “Ortografia desberdina

erabiltzea –bustiduretan kasurako– hizkuntza desberdintzat hartzea da”. (Bergarako Biltzarraren adierazpeneko 5. puntua, 95).

Besterik da, eta oso beharrezko, etxeko euskara jaso eta prestigiatzeko hiztun bakoitzaren ahozkoa jasotzea idatziz, behar diren fonetismoak eta erabilia. “Halaxe egin izan du Jose Migel Barandiaranek lehen –Iñaki Gamindek orain– herriaren ipuinak, esaerak eta aztikeriak biltzen ibili delarik, herriak eman dizkion bezalaxe batu eta azaldu edo Juan San Martink *Zirikadak* eta *Eztenkadak* eskribitu zituanean”. Salvador Garmendiak 1968an esana; baina ez ahoz esaten den antzerako kodigo idatzi bat sortzeko, hiztun guztiek modu berean berba egingo balute bezala. Ez da kon-tua eta belarrietarako idaztea, begietarako baino.

Zein bizkaiera?

Euskara baturako euskaltzale guztiek eman dezakete iritzia, baina erabaki erakunde bakarrak egiten du, Euskaltzaindiak.

Euskalkietan ez da gauza bera. Euskara baturako legez euskaltzale guztiek eman lezakete iritzia, baina ez dago erakunde bakarra erabakiak hartzeko. Hortik sortzen da, adibidez, bizkaierako atal batzuetan eredu bat barik hiruzpalau izatea. Bizkaierak esperimendu linguistiko ugari jasan behar du kodifikazioan, prestigioa galduz. Hori, ordea, ez da bizkaieraren errua, euskaldunon anarkiarena baino. Sakonean, gainera, uste bi behintzat badira, batak bizkaiera lehengoan mantendu behar dela dio, besteak, gaurkotu. Horien aurrean, nik uste dut euskara batuaren eragina bizkaieran ez onartzea, bizkaiera ez modernizatzea dela. Etorkizuna, ostera, euskalkiko erudia eta batukoa hurbiltzetik dator.

Bizkaierak polemika baino dinamika dakar.

Euskalkiari ez zaio komeni polemika iraunkorrik. Bizkaiera-polemika bikoteak kaltea baino ez dakarkio berbetari. Bizkaierak auzolana behar du eta adostasuna. Irakasleak jakin behar du zelan irakatsi, baina batzuetan ez daki zer irakatsi, zer bizkaiera. Halakoetan arautu beharrean gara.

Irakasleak ez dauka ia zerekin irakatsi. Non dira metodoak, eskuliburuak, liburu irakurgarriak?

Orokorrean, diskurtsoa berriztatze-premian aurkitzen gara lagunok. Nahiko esan eta entzun da argudioez. Erabili egin behar dira euskalkiak, landu eta irakatsi. Predikuetarako sasoiak, ordea, joanak dira, tresneriaren, bitartekoen aroan sartu gara.

Dena dela, azken urteotan garrantzitsuena bizkaieraren lurretako euskal pizkunde da, pizkunde poztarra.

3

Debarroa

Juan Martin Elexpuru

ARRATSALDEON:

Ez diet gure moderatzaile Andres Urrutiak proposaturiko gaiei zuzenean erantzungo, izan ere lehenaz, euskalkiak eta batua gaiaz, ez nuke herenegun Koldo Zuazok esandakoaren laburpen txar bat egiten besterik jakingo. Zeharo bat nator haren hitzaldiaren mamiarekin. Eta iruditzen zait asteleheneko beste hitzaldietan ere zentzuzko gauza asko esan zela. Euskaltzaindiaren Araugintza, berriz, gai zabalegia zait, eta proposamen txiki baina lotsagabe xamar bat egitera mugatuko naiz.

Euskalkian gaiaz, entzundakoak entzun ondoren, inpresio xume batzuk plazaratu nahi nituzke bakarrik:

Inpresioa dut gure artean ez direla gehiegi euskalkia bildu, landu eta errejistro jasoetan erabiltzea bere lehenasunen artean dutenak. Euskaltzain osoen artean, adibidez, ausartuko nintzateke esaten, hogeita lautik lau edo bost izango direla, asko jota, gaiarekin oso kezkatuta daudenak. Besteek bere lehenasunen zerrendan, erdi aldean, behean edo aldamenean dutela begitantzen zait. Hau ez dut ez txartzat ez ontzat jotzen. Errealitatea da. Bakoitzak eskubide osoa du bere kutuntasunak aukeratzeko. Euskarak mila sutegi du, eta bakoitzak ikusi behar du zein su indarrez hauspotu eta zein ez.

Euskaltzain ez garenon artean ere, inpresioa dut gauza berdintsua gertatzen dela: ez gara gehiegi gaia bihotzez sentitzen dugunak. Dena dela, Mendebaldeko euskalkiaren esparruan dezente gara, eta nahiko saiatu eta gogaikarriak, gainera. Nafarroa Garaian, batez ere Bidasoa arroan eta Sakanan, bada kezka hori duen jende adoretsua franko; Zuberoan ere bai: hango jardun ia guztia zubereraz bideratzen da. Erdialdeko euskalkian eta Lapurdi-Behenafarroan, ostera, inpresioa dut kezka hau ez dagoela oso zabaldua.

Inpresioa dut, bestalde, euskalkia bildu, landu eta errejistro jasoetan erabili nahi dugunon arteko adostasun maila handia dela. Denok osagarritzat ikusten dugu batua eta euskalkia, denok Euskaltzaindiaren arauak jarraitzen ditugu ortografian; eta deklinabidea eta aditza ondo finkatzearen aldekoak gara, batzuek euskalki osoaren eta beste batzuek berbeta-eskualdearen apustua egiten badugu ere; berbak osorik idazten ditugu denok; maileguen ganean irizpide berberak ditugu, eta abar eta abar.

Egia da Mendebalde Taldeko, eta oro har Bizkaiko euskalkizaleek, bizkaiera bakarraren alde jotzen dutela aditzean eta abar, eta fonetismorik gabe idazten dutela;

eta Badihardugukook , eta oro har Deba Arrokoak, berriz, aditza berbeta-eskualdeka finkatu nahi dugula eta zenbait fonetismo idaztea hobetsi dugula, fonetismo barik idaztea ere ontzat emanda.

Baina honek ez gaitu elkarrekin zapuztu behar. Indarrak batu egin behar ditugu, eztabaida antzuetan elkar aspertu barik. Denok dugu halako joera, neugandik hasita, arkakuxua hartz bihurtzeko, Urtubiko Andereak aspaldi batean esaten zuen bezala.

Jar dezagun adibide bat. Oñatiko *Kontzejupetik* aldizkarian esaldi hau ager daiteke, esate baterako: *Amandriak loiba txikixari kantaitten xao*. Bizkaiera batuan: *Amandreak loba txikiari kantatzen (edo kantetan) deutso*. Zergatik hobesten dugun lehenengo testua? Atzetik hasiko gara: *kantaitten* esaten da Oñatin, eta oñatiarren identifikazio ikurra da gainera *kantaitten* hori. *Xao* da laguntzailea, *dio* batuan. *Deutso* oso arrotz ikusten da herri horretan. *Dio* hurbilago dute bai soinu eta bai geografiaz. (Legazpin, km gutxira, hala esaten da).

Gainera gogoan izan dezagun *Kontzejupetik* aldizkaria barne kontsumokoa dela, Oñatin irakurtzen dela, eta ale batzuk agian Bergaran edo Arrasaten, eta herri horietakoak ere gustura irakurtzen ditugula Oñatiko euskera onean idatzitako testuak. Azken batean, *Amandriak loiba txikixari kantaitten xao* entzuteak edo irakurtzeak ez diola inori kalterik egiten, eta bai askoren begiak eta belarriak gozaten.

Eta orain geure buruari begiratu, pentsatzen dut Badihardugukoak ere apaltasunez eta begirunez jokatu behar dugula. Bizkaian gehiengoaren sentiberatasuna eta jarduna bizkaiera batuaren aldekoa bada, dirudien bezala, errespetatu eta ontzat eman behar dugu.

Eta guztiaren ginetik, elkarrekin berba egin behar dugu gaiaren gainean, eta ez Mendebaldekoak bakarrik. Euskal Herri osokoak. Nik uste dut horretarako biltzar txo bat egitea litzatekeela egokiena gai honekin sentibera garenon artean, euskalkia bildu, landu eta erabiltzen dugunon artean. Eta Jagon Sailak izan beharko lukeela biltzar horren antolatzailea.

Eta gaia sentitzen eta maitatzen dugunak, bildu beharko genukeela, sentitzen eta maitatzen esan dut, uste baitut alderdi afektiboak ere pisu handia duela gorabehera honetan.

Eta gaia mesfidantzaz begiratzen dutenek ez liguketela oztoporik jarri behar, aski frogatua baitugu jende txintxo eta gizalegekoa gara.

Hurrengo puntura pasatuz, *Euskaltzaindiaren araugintza*, badakit orain proposatuko dudana hauspokeria irudituko zaiola zenbaiti. Baina nire aspaldiko burubide bat da, eta azaldu egingo dut.

Testu literario bat idazterakoan, eta batez ere elkarriketetan, ken *iezadazu*, esan *diezaiola* edo *zeniezaioke* ipini behar dudanean, zaila egiten zait laguntzaile horiek idaztea; ahoskagaitzak, soinu arrarokoak, estetikoki zatarrak begitantzen zaizkit, eta ebitatu egiten ditut zela edo hala. Beste batzuei ere gertatzen zaielakoan nago. Eta bururatzen zait bizkaierazko laguntzailea, *egin*, alegia, askoz ere dotoreagoa dela. Ken *egidazu*, esan *dagiola*, etab. Atrebentzia handiegia ote litzateke Gramatika Batzordeari gaia aztertzea eskatzea? Ez dut proposatzen *iezaiozu*, *diezaioket* eta familia osoa atzerriratzea, ez, jaungoikoak aparta! Proposatzen dudana da, hala derizkionak, *egidazu*, *egiozu*, *dagiola* edo *negioke* erabiltzeko baimena izan dezala.

Besterik ez. Eskerrik asko.

4

Gipuzkoa

Joxe Ramon Zubimendi

Eskerrik asko Jagon sailburu dugun Andres Urrutiari ni horrela gorai patzeagatik, eta arratsalde on entzule guztioi.

Aldez aurretik jarritako gidoia jarraitu ordez, neuk esan nahi ditudan hainbat kontu esango ditut, gidoia alde batera utzita. Izan ere, errezeloa daukat (eta orain arte entzundakoekin horrelaxe gertatu da) hainbat gauza esan gabe geratuko ote diren. Eta nik esan egin nahi ditut horietako batzuk. Ez gipuzkoarren izenean, ni ez bainator inoren ordezkari; baizik beste ikuspegitxo bat azaldu nahirik eta, beharbada, seguruenik, zuek lehendik ere badakizkizuen ohar batzuk edo jakingarri batzuk adierazi nahirik.

Aspalditik nauze euskalkietako ahoz kotasuna berreskuratu eta indartzearen aldekoa, baina ez galdetu niri nola egin behar den zehazki lan hori. Ez galdetu niri irakaskuntzan zer-nolako mailaketa egin behar den, zer adinetan, zer lekutan, non bai eta non ez den sartu behar bizkaiera, gipuzkera, nafarrera edo dena delakoa. Ez galdetu niri... nik ez baitakit. Ez galdetu niri komunikabideetan, herrian herriko aldizkarietan, irrati txikietan eta abarretan, zer, nola, noiz, non edota zenbat sartu behar den bertako euskara, herrian herrikoa edo eskualdekoa; nik ez baitakit.

Nik badakit, ordea, Euskaltzaindian, Jagon sailean, badugula lantalde bat, *Euskalkien lantaldea* izenekoa, hain zuzen ere, horiek guztiak (eta besterik ere) aztertzeko, eztabaidatzeko, aurrera bidean jartzeko... Euskaltzaindian badugula gogo eta elkarrekin egiteko sortutako taldea. Talde horretan baditugu eskualde gehienetako ordezkariak, bai Ipar, bai Hego Euskal Herriko eskualdeetakoak. Egia da bakarren batzuk falta zaizkigula; baina ez gonbita faltaz: izan ere, hainbat jenderi deitu izan diogu, eta ezin zutelako edo nahi ez zutelako edo dena delakoagatik, ez zaizkigu etorri. Jakizue, beraz, etorri nahi duenarentzat (hartarako gai izanik) atek zabalik dau dela eta ongi hartua izango dela.

Beraz, soziologiaren ikuspegitik edo soziolinguistikaren ikuspegitik edo, hor zer eta nola egin behar den ez dut nik esango. Lantalde horrek, Jagon saileko *Euskalkien lantaldeak*, hor hitz egingo du, aztertuko du eta, halako adostasunik lortu eta onduz gero, Euskaltzaindiari proposamenen bat egingo dio. Zer-nolako proposamena egingo dion ez dakit, baina lantalde horrek zerbait proposatuko dio Euskaltzaindiari: alegia, esango dio zer-nola jokatu beharko lukeen Euskaltzaindiak lantalde horren iritziz. Kontuz, gero! Ez halako pertsona edo beste halako urlia edo sandiaren iritziz, baizik eta lantalde osoaren iritziz.

Esan bezala, lantalde horretan bildurik dira eskualde gehienetako ordezkariak (eta iritzi desberdinetakoak ere bai). Beraz, nire ustez, euskaltzale jakin batek (edo bik edo hiruk) Euskaltzaindiari proposamena egitea baino askoz ere aberatsagoa da gisa horretako lantaldeak proposamen zehatz bat egitea Euskaltzaindiari.

Gero Euskaltzaindiak zer erabakiko duen, hori beste konturik da, hori gerora ikusiko da. Lehenik ikusi behar da ea lantaldea bera iristen ote den proposamen bakar bat egitera: denentzako balio duen edo balio dezakeen proposamen “batua” egitera. Hori ikuskizun dago. Baina dagoeneko *Euskalkien lantaldea* lanean ari da. Bere denbora beharko du, noski, lanak egiteko; baina “Arian-arian, zuloa harrian”.

Bestetik, esan nahi nuen (eta ez nuke inola ere nahi zuek kontu hau bazterrean ahaztuta uzterik) Euskaltzaindiari egotzen zaiola, batasuna dela eta, hainbat aldiz eta hainbat plazatan, euskalkiak alde batera utzi izana. Salaketa gogorra!

Nik, gogoangarri, aipamen batzuk egingo dizkizuet: Euskaltzaindiaren azken urteotako lanen aipamen batzuk egingo dizkizuet, egin nahi dizkizuet, ikus dezazuen eta epaitu, iritzi hori zuzena ote den ala okerra ote den.

Euskalkiei dagokienean, Iker Saileko lan erraldoiak aipatu nahi ditut lehenda-bizi. Batetik, *Euskal Gramatikaren Lehen Urratsak*. Lan horrek euskalkiekin duen zerikusia nabarmen-nabarmena da, begi bistakoa da, eta “Bistan dagoenak ez du ispi-lurik behar”. Bigarren lan erraldoia, bigarrena edo beste bat, *Orotariko Euskal Hiztegia*. Eta nork ukatuko du *Orotariko Euskal Hiztegiak* zerikusi zuzena eta bete-betekoia duela euskalkiekin? Bi horiez gainera, *Euskal Herriko Hizkuntza Atlas*a, ohiko euskal mintzamoldeak biltzen dituena. Eta mintzamolde horiek euskalkietakoa ez badira, esango didazue, zer, nongo, nolako, noizko eta nondikako mintzamoldeak diren. Eta zer esan Onomastika batzordeak ari duen lan itzelaz? Hartu, esate baterako, Toponimia alorreko zerrendak: azken urteotan, milaka eta milaka leku-izen aztertu dira banan-banan; baita erabaki sendo askoak hartu ere! Bestalde, ez ahaztu Euskaltzaindia argitaratzen ari den Pedro de Irizarren liburu-mordoska, euskalki guztietako aditz-paradigmak jasotzen dituena.

Gehiago nahi baduzue, Euskaltzaindiko Herri Literatura batzordeak joandako zortzi urteotan egin dituen lau jardunaldien izenburuak gogoraziko dizkizuet: joan den abenduan, 2000. urtean, Bilbon, *Euskal Fraseologia* izan zen jardunaldiaren gaia (Mokoroaren omenez, hain zuzen ere: euskal lokuzioak edo esapideak bilduz lan izugarri handia egin zuen Mokoroaren omenez); 1998an, Tolosan, *Herri Antzerkia* izan zen gaia (Antonio Maria Labaienaren omenez); 1996an, Durangon, *Paremiologia* izan zen gaia, alegia, esaera zaharrak, atsotitzak eta abar aztertu, bildu eta azaltzeko antolatutako jardunaldia; 1994an, Oiartzunen, *Ahozkotasuna* izan zen gaia (Manuel Lekuonaren omenez). Beraz, Herri Literatura batzordea ere, beste batzorde batzuk bezalaxe, euskalkiekin zer ikusi zuzen-zuzena eta bete-betea duen ikerketa egiten eta plazaratzen ari da.

Iker sailetik *Jagon* sailera, bertako idazkaria naiz eta. Lehen ere esan dizuet *Euskalkien lantaldea* hor ari dela egitasmo bakar bat edo irizpide bakar bat edo bateratu bat prestatu nahian Euskaltzaindiari proposamen orokor bat egiteko. Bestetik, *Komunikabideen lantaldea* ere Jagon sailekoa dugu, eta komunikabideen lantalde horretan ez daude EITB eta *Euskaldunon Egunkaria* bakarrik; izan ere, hortxe baitute beren lekua Topaguneko herri aldizkarien ordezkariak ere, herri aldizkariak eta irrati txikiak bidea eta kezka agertzeko lekua. Eta kezka horien artean, bistan da, euskalkien erabilerari dagokion kezka ez da txikienetakoa.

Azkenik, besterik ez aipatzeko, aurten bertan sortua du Euskaltzaindiak *Internet* bidezko JAGONET kontsulta zerbitzua, eta hortxe ari da lanean, euskararen kalitatea jagon beharrez. Beraz, euskalkien gaia aipatzen denean, ez ahaztu Euskaltzaindiaren lan horiek denak eta lan horien emaitza mardulak. Ez ahaztu.

Euskalkien alorrean erabakiak hartzea zaila da. Besteak beste, jakin egin behar baita. Hasteko, jakin, eta gero, norberak dakiena besteekin batera plazara atera, eta aldeko eta kontrako iritziak agertu. Eta denon artean zerbait egitea, ahalik eta erarik egokienean egitea, posible ote den aztertu behar da.

Sentimenduak sentimendu, denok baditugu sentimenduak, eta sentimenduak onak dira. Euskalkien auzian, sentimenduak pil-pilean daude hainbat bihotzetan, eta hori ona da: nire iritziz behintzat, oso ona da; baina itsumenik gabe. Mesedez, itsutu gabe.

Ikerketa egiten segi behar dugu, lanean segi behar dugu, elkarrekin bilduz *Euskalkien lantaldean*, eta aurrera bideak elkarrekin aztertuz. Aurrera begira nondik, nola eta nora egin behar dugun aztertzen segi behar dugu, beraz. Auzi honetan, zuzentasuna, egokitasuna eta beharra, hirurak elkarren eskutik ibili beharrean ikusten ditut, zorionez. Hauxe da, hortaz, nire epaia, inork entzun nahi balu ere: dabilzala uztarri berean euskara batua eta euskalkiak; elkarren osagarri baitira, eta ez elkarren etsai. Jakin bezate, gainera, elkarren premia dutela bizirik irauteko, eta bataren heriotzak besteen hondamendia ekarriko lukeela. Azkenik, epai hau betearaziko duen ardura-dun prestua ere izendatuko dut: beharra. “Beharra, eragile on.”

Ikusten duzueenez, nik erabat beste aldetik heldu diot gaurko gaiari; baina ez nabil etxekalte, ez Euskaltzaindian eta ez euskalgintzan. Baneukan gogoan esan ditudanak jende aurrean berriro esateko; egia horiek ere esan beharra eta gogorarazi beharra baitago; sarri ahaztu egiten baitzaigu egiten ari garen lana hor dagoela, eta gaurko lanak biharko lana dakarrela, eta gaurko ezagutzak biharko ezagutza dakarkigula. Jarrera ere landu behar da, jakina, eta sentimenduak ere bizi egin behar dira; baina beste alderdi horiek ere bai. Eta dena gizalegez.

Orain isildu nadin, luzatzeko arriskua daukat eta.

Eskerrik asko entzule guztioi.

5

Nafarroa

Paskual Rekalde

SARRERA

Ez da hau lehen aldia Euskaltzaindiak *Lekuko euskarak eta euskara batua* gaia landu duena. Aldian-aldean gai honen inguruko erabakiak eta adierazpenak plazaratu ditu. Ildo horri jarraikiz, eskertzekoa da, zinez, Biltzar honetan ere hainbaten eta hainbaten kezka-iturri den gaiari lekutxo bat egin izana.

Hainbat iritzi, uste, kezka... agertuko dut hemen, ikusitakoaren eta ikasitakoaren laburpen soil. Betiere, nire parte-hartzeari dagokionez, Nafarroa azter-eremu hartuta. Nolanahi ere, erran dezadan ondoko hitzak ez direla nahitaez nafar guztienak, afera korapilotsu honen gaineko iritziak eta pentsalmoldeak bat baino gehiago baitira geurean.

Gezurretan arituko nintzateke erranen banu Nafarroan ez dela euskalkien gaineko kezkarik izan. Izan da eta, gaur egun ere, bada. Nolanahi ere, nafar euskaldunok ditugun kezken arteko bat da, Nafarroan euskaldun konprometitu izan eta bizitzeko zailtasunak gaitzak baitira, are gehiago, egun, Nafarroako Gobernuaren erasoaren aitzinean.

Euskarari buruzko Foru Legeak ezartzen du nafar euskalkiak zaindu eta errespetatu behar direla¹. Zinez, hitz ederrak dira, baina errealtateak bertzerik erakutsi eta erakusten digu. Gobernuan boterean dagoen alderdi politikoak (UPNk) eta *Diario de Navarra* behin eta berriz erran dute ez dutela euskara baturik nahi Nafarroan, haien ustez «un vasco impuesto desde fuera, un arma más del nacionalismo vasco destinada a apropiarse de Navarra» delakoz, ez Nafarroako euskara «vascunee de aquí». Alabaina, hemengo euskalkiak bultzatzeko benetako ekimenik ere ez dute egin. Euskarari (batuari) kultura balioa ukatu nahi izan diote, baina errealtateari so egiten badiogu, konturatuko gara euskara batua normaltasun osoz sartu dela administrazioan eta hezkuntzan.

1 Abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 1. artikuluko 3. puntuak, hitzez hitz, honela dio: "Nafarroako euskalkiek errespetu eta babes berezia izanen dute". Nafarroako Gobernuari eginkizun zehatza ematen dio Xedapen Gehigarri bakarrean: "Nafarroako Gobernuak, "Vianako Printzea Erakundea" Kultur Zerbitzuaren bidez, Foru Lege honen 1.3 artikuluan ezarritakoa betearazteko behar diren jarduerak aurrera eramanez ditu".

EUSKARA BATUAREN IBILBIDEA NAFARROAN (EUSKARA BATUA-TOKIKO EUSKALKIAK).

Euskara batuak Nafarroan zer ibilbide egin duen agertu aitzinetik, uste dut komeni dela Nafarroako euskal hizkeren gainean oinarritzko argitasunen bat ematea. Erran behar da nafarrera ez dela bakarra, ez dela «*erran, bertze, aitzin*» bakarrik, «*esan, beste, aurre*» ere nafarrera direla².

Euskara batua pixkanaka-pixkanaka ezartzen joan da Nafarroako irakaskuntzan eta administrazioan. Baita horren produkzio osoa ere, hala nola, liburuak, telebista, aldizkariak, egunkariak... Baliabideen urritasunak, administrazioen axolagabekeriak, bazterketak eta hizkuntza kontzientziazioaren maila txikiak ez dute ahalbidetu ekimen propio garrantzitsurik. Nolanahi ere, ezin bazter utzi euskararen (euskalkien) eta euskal kulturaren aldeko herri-mugimenduak (aldizkariak, telebistak, irratiak...) eta eskolak (herri-eskolak eta ikastolak), horiexek mantendu baitute, hein batean bederen, euskararen sua Nafarroan. Den-denetan uztartu dira euskara batua eta euskalkiak. Hala ere, euskalkiek presentzia handiagoa izan dute ahozko komunikabideetan, idatzietan baino (erraten ahal da Sakana aldean banatzen den *Guaixe* aldizkaria dela euskalkia idatzira eramán duen bakarretakoa).

Euskarari buruzko Lege murriztaileak (Nafarroa hiru hizkuntza eremutan banatzen du) behaztopa anitz paratu dio euskararen garapen normalizatuari. Horri gehitu beharko genioke euskararen arloan euskal eremuko hainbat udalek izan duten axolagabezia eta utzikeria eta, nola ez, *Diario de Navarra*, aldian-aldian, euskara batuaren kontra argitaratzen diren iritzi-artikuluak edo egunkari horretako *Nafar Izkuntza* gehigarrian Euskaltzaindiaren eta euskara batuaren kontra agertu diren idazkiak.

Euskalkien inguruko hainbat motatako lanak egin dira Nafarroan, bertzeak bertze, dialektologia tesiak, hiztegiak, lan-monografikoak... Poliki-poliki ezagutzen ari gara hobeki Nafarroako euskara. Baina, nola islatu da hori gizartean? Beharbada huts egin da lan horiek gizarteratzen; beharbada ez dugu jakin irakaskuntzan, oro har, xertatzen.

Eskualdeka egin da lan, nor bere txokoan arituz. Hala ere, uste dut, ez dugula jakin "nafar mugimendu bateraturik" sortzen, ez Euskal Autonomia Erkidegoan egiten denari kontra egiteko, baizik eta gure euskalkien ekarpen aberatsa zein den jakin eta euskara batuan txertatzeko. Bi eredu nagusi (*esan / erran*) izateak ere, beharbada, ez du sobera lagundu. Baina, aitzakiak aitzaki, uste dut, kanpotik etortzen ahal den laguntza ukatu gabe, guk gerok egin beharreko lana dela.

EUSKARA BATUAREN ETA EUSKALKIEN ARTEKO UZTARDURA

Ez dut deus berririk asmatuko erraten badut, eskuarki, euskara batua erdialdeko euskalkian oinarritu dela. Eta erdialdeko euskalki hori mintzo da egun Nafarroako

2 Mendebaletik ekialderako bideari jarraitzen bagatzaizkio, lau euskalki mintzo direla ikusiko dugu:

- (a) *Erdialdeko euskalkia*, Larraun, Araitz, Imotz eta Basaburuan (nafarreraren ezaugarriekin).
- (b) *Nafarrera*: Burundan (mendebaleko eta erdialdeko euskalkien ezaugarriekin); Malerrekan, Ultzaman eta Atetzen; Baztanen eta Erroibarren (nafar-lapurteraren ezaugarriekin); Sakanan (erdialdeko euskalkiaren ezaugarriekin); Bortzerrietan (nafar-lapurteraren eta erdialdeko euskalkiaren ezaugarriekin); Aezkoan (nafar-lapurteraren eta ekialdeko nafarreraren ezaugarriekin).
- (c) *Ekialdeko nafarrera* Zaraitzun (nafar-lapurteraren eta zubereraren ezaugarriekin).
- (d) *Nafar-lapurtera*, Urdazubi eta Zugarramurdin, eta Luzaiden.

mendebaleko eremu euskaldun zabalean. Hori hala izanik, bistan da erdialdeko euskalkiarekin muga egiten duten nafar hizkerek ez dutela arazo handiegirik izan batua-
ren eta euskalkien arteko uztardura egiteko. Baina, mendebaletik ekialdera joz gero, zer? Programa, liburu, aldizkari, irrati, telebista... arrotzen mezuak zeuden-zeudenean hartu eta onartu behar izan dira, baina, aldi berean, ez da produkzio propiorik izan.

Bertzalde, erran behar da hizkuntza arau estu eta zurrun samarra erabili dela eskoletan, administrazioan eta euskaltegietan. Ez dira, gehienetan, kontuan izan tokian tokiko hizkeren ezaugarriak. Arrazoiak edo zergatiak bat baino gehiago: kanpotik etorritako edo tokian tokiko irakasle batzuen ezjakintasuna³; irakaskuntza publikoko irakasleen mugikortasuna⁴; nafarreraz idatzitako liburu gutxi izatea; hezkuntza administrazioak deus guti egitea⁵...

Berdintsu irakatsi da Tuterako euskaltegi batean, Iruñeko ikastola batean edo Larraintzarko eskola publikoan. Baina, erru osoa ez da maisu-maistrena edo irakasleena; beharbada, beren ikasketetan ez da behar bezala landu gai hau edo alde batera utzi da. Euskararen arloan lanean ari diren irakasleek, euskara teknikariek edo itzultzaileek euskara batuaren eta tokiko hizkeren gaineko ezaugarri nagusiak zein diren jakin beharko lituzkete, zein tokitan irakatsi edo lan egin, hangoak segurik bai⁶.

Ezbairik ez dut, bertzalde, euskara bizi, aberats eta erakargarria egin nahi badugu, euskalkiak (eta haien ekarpena) behar-beharrezkoak ditugula. Haur batek ez luke eskolan inolako arazorik izan behar etxean ikasi duen euskararekin, irakasleak egina-halak egin beharko bailituzke etxeko edo eskualdeko euskararen eta eskolako eta ikasliburuetakoko euskararen arteko zubi-lana egiten. Eta gaitzerdi eskolako hizkera zuzena bada! Zer egiten dugu ikasleak matematikako edo fisikako problemen ebazpena euskaraz egiteko gai izan eta, eskolako edo liburuetakoa ez den bertze mintzo batean ari den norbaitekin bi minutuko elkarriketa xume bat izateko gai ez badira? Zerbaitek huts egiten du hor.

Eta, etorkizunean zer? Ez dut inolako zalantzarik. Euskara batua indartzen eta sendotzen segitu behar dugu, baina ez nolana hiko euskara batua. Euskalkien ekarria gehitu beharko diogu (nork bere hizkeratik abiatuta), euskara aberats, bizi eta gozagarria egiteko. Baina hemen ere egina-halak bi norabide izanen ditu:

(a) Euskara mintzo den tokietan, euskalkia zaindu eta sustatu behar da, baita eskoletan, euskaltegietan eta udal administrazioan ere. Eskolako lehen urteetan, Haur eta Lehen Hezkuntzan behinik behin, euskalkiak toki handiagoa hartu behar luke, betiere hori izanen baita etxeko euskararen eta euskara batuaren arteko uztardura egiteko biderik emankorrena.

Badugu, halaber, errazegi bazter utzi ohi dugun eremua, aisiarena, alegia. Euskalkian aritzeko eremu ezin hobea da, eskolako hizkera zurruna utzi eta nork bere

3 Berriki arte arrunta izan da Baztan aldeko herri-eskoletan irakasleak ikasleari etxeko euskara zuzentzea, konparazio baterako, haurrak "lauretan hoge" erran, eta irakasleak honako hau erantzutea: "ez da lauretan hoge esan behar, *laurogei* baizik". Edo hainbat ikastolatan nafarreraren ezaugarriak behinenak ere ez irakastea.

4 Ez da harritzekoa urte batean Azpilkuetan, heldu den urtean Garesen eta ondokoan Iruñean aritzea irakasten.

5 Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Euskara Zerbitzuak euskalkien inguruko ikastaro pare bat eskaini ohi die irakasleei urtero. Gehienbatean, kanpotik etorri den irakasleari begira prestatutakoak dira, euskalki baten edo bertzearen oinarri-oinarriko ezaugarriak zein diren jakiteko. Ez da euskalki edo herri-hizkeren jakintzan sakontzeko ikastarorik eskaini, ez irakasle, ez ikasleei ere.

6 Ez litzateke erdiespen txikia izanen denok geureganatuko bagenu, errate baterako, erdialdeko euskalkiaz gain, bi albotan ere badirela bertze euskalki batzuk, eta haietan mintzo direnei errespetu osoa izan behar zaiela.

sentimenduak, usteak, komunikatzeko nahiak agertzeko, azken batean, euskara bizia egiteko.

(b) Euskararik mintzo ez den tokietan, abiapuntua euskara batua izanen da (eta, egun ere, hala da). Hala ere, uste dut euskalduntze prozesuan garrantzi handiagoa eman beharko litzaiokeela familia euskaldunetan egonaldiak egiteari, Ingalaterrara ingelesa hobetzera joaten den bezalaxe. Dena dela, bi azpimultzo eginen nituzke hemen:

(b.1) ez aspaldi euskaraz mintzo ziren eskualdeen egoera (Erronkari, Zaraitzu...), zeinetan euskara batuan irakasteaz gain, eskualde horietako euskara galduaren ezaugarri nagusiak ere gehitu beharko bailirateke, eta

(b.2) euskara aspaldi galdua duten edo, guk dakigula behinik behin, euskara inoiz mintzatu ez den eremuen egoera, zeinetan euskara batuan irakatsi behar baita. Ahal izanez gero, herrialdeko euskararen ezaugarri nagusiak ere pixkana-pixkanaka ikasi beharko lirateke.

Nolanahi ere, oraino lan gaitza dugu egiteko, batez ere euskara batua eta euskalkiak zer diren errateko jendeari. Irakaskuntzan, herri-komunikabideetan edo administrazioan lanean ari direnek, oro har, ez dute garbi gai hau. Batzuek euskalkiak eta batua bi multzo isolatu eta aldaezintzat dituzte; berteze batzuk, aldiz, batuaren kontra egon gabe euskalkien alde ere badaude, baina ez dakite nola landu gaia...

EUSKARA BATUAREN ETA EUSKALKIAREN ARTEKO UZTARDURA EUSKALTZAINDIAREN ARAUGINTZAN.

Goian aipatu dugu erdialdeko euskalkitik abiatu zela euskara batua egiteko. Ibiliaren ibiliak argi samar utzi du, nire ustez bederen, erabaki hura zuzena izan zela. Kontua da bazterretako euskalkiek ez dutela leku duinik aurkitu hainbat arlotan⁷.

Ez du lan erraza Euskaltzaindiak euskaldun guztien gustuko diren arauak ematea. Eskuarki, erabaki zuzenak hartu ditu, eta oinarritzkoaren eta txokokeriaren artean bereizketa egin du. Ez dezagun atzendu nafarrera bi euskalki hedatuen artean gelditzen dela (*erdialdeko euskalkia* eta *nafar lapurtera*).

Nolanahi ere, ezin hemen aipatu gabe utzi *Hiztegi Batua*. *Hiztegi Batuan* hitz anitzen ondoan zein euskalkitakoak edo eremutakoak diren ageri da⁸. Erabaki horrek aldeko eta kontrako iritziak sortu ditu. Batzuek diote euskalkiaren marka jarritz gero, oro har, hitz hori bazter gelditzen dela liburuetatik, egunkarietatik edo telebistatik, jendeak uste duelako hitz hori euskalki batekoa dela eta ez euskara batukoa; berteze

7 Urteak iragan ahala, iduri du bukatu direla argialetxe eta aldizkari batzuek "erran eta berteze" erako idazkiei lehenago paratu ohi zieten betoa, edo nafar-lapurtera aldera jotzen duten nafarren euskarari zenbaiteke, hainbat nafar artean, egiten zizkieten isekak. Zerbait aldatzen ari den seinale.

8 Hala ageri da *Hiztegi Batuan* (*Euskera*, 45 (2000-2), 482): "Hainbat hitzen formaren ondoan *Bizk.*, *Ipar.* eta *Naf.*, *Gip.*... ikurak eman ditugu. Euskalki markaren bat azaltzen duten hitz horiei buruz esan behar da ez dela inondik ere Euskaltzaindiaren asmoa, marka horiek eranstea, horrelako hitzak bazterteza; aitzitik, euskalki hitzok *Hiztegi Batuan* sartzek adierazten du Euskaltzaindiak bultzatu egin nahi dituela idazleak hitz horiek erabiltzera —jakinaren gainean eta nori bere senak agintzen dion eran, jakina— horrela euskaldun guztien ondare komuna bihurtuz joan daitezela".

9 Arras baztertu behar genituzke, nire ustez behinik behin, nork bere hizkerakoak ez dituen hitzak eta esamoldeak hartu eta norberarenei egokitzeko egiten diren ahaleginak, baldin eta lehenak norberarenean errateko berteze biderik dagoen: *bertan behera utzi* hartu eta *alde batera utzi* esan beharrean, *bertan beheiti utzi* hibridoa sortu; *irratari esataria* hartu eta *eleketari* esan beharrean, *erritari* erabili edo *butano bonbonaren gorakada* erabili nahi izan eta, ez bat ez bi, *butano bonbonaren goitkada* harribitxia sortu, *butano bonbonaren prezioa goititza* edo antzeko esaldi bat erabiltzen ahal denean.

batzuek, aldiz, uste dute erabaki hori zuzena dela, beharrik gabe euskalki bateko zein bertzeko hitzak edo esaldiak ez nahasteko aukera ematen duelako⁹. Geroak erranen du erabaki hori zuzena izan den edo ez. Hiztegi Batua bera nola landu eta erabili behar den ere ez du argi batek baino gehiagok; hor dugu, adibidez, "h." [= hobe] ikurra dararmaten hitzekin praktikan gertatzen ari dena: "h."-dunak hobetsi eta gainerakoak gaitzetsi¹⁰.

Hondar Hitz

Ezbairik ez dut. Bide laburra egin du geurean gai honek, bertze eskualde batzuetan egin duena baino anitzez ere laburragoa. Hortaz, eginahalak eta bi egin beharko ditugu esku artean dugun gai garrantzitsu bezain minberari (euskalkien gaiak aldekoak eta kontrakoak ditu geurean, bertzeetan bezala) erantzun zentzuduna eta landua emateko. Horretan asmatzen badugu, uste dut euskararen onerako izanen dela Nafarroan.

Halabiz!

¹⁰ Hala dio *Hiztegi Batuan* (*Euskera*, 45 (2000-2), 482): "Beste hitz mota batek ere argibide berezia behar du: "h." [= hobe] ikurra erantsi zaienak, hain zuzen. Horietan ere bi multzo bereizten ditugu. Lehen multzoa euskalki marka dararmaten hitzek osatzen dute. Horrelakoetan "hobe" hori Euskal Herri osoari begira idazten diren testuetako erabilerari soilik dagokio, eta hitz edo aldaera horiek egokiak dirateke beste kasu batzuetan, *Herria* astekarian, *Bizkaia* gehigarrian edo herri aldizkarietan idazterakoan, adibidez. Bigarren multzoa bestelakoei —hots, "zigarro" [...] 2 *Heg.* 'zigarro txikia' h. **zigarreta**" edo "**partidu** Heg. 1 h **partida** [...]"] bezalakoei — dagokie. Hauei buruz Euskaltzaindiak esan nahi du ohartzen dela ez direla denak idazle guztiek egoera guztietan eta berehala onartzekoak, eta agian bide zuhurrena pausokakoa dela, testu jaso eta formalenetatik hasiz, eta bigarren urrats baterako utziz ahozko erabilerari lotuek. Hemen ere, senak eta egoerak erakutsiko dio idazle edo esatari bakoitzari nola joka arauok betetzeko erantzukizunean."

6

Iparraldea

Txomin Peillen

Zuberoan zer egiten den eta zer ez den egiten kontatu behar dizuet, laburki ahalaz; baina ohar txiki bat aitzinetik egin behar nuen eta hau da: bizkaitar bat bisitaz jiten bada Zuberoara eta bizkaieraz mintzatzen hasten bada, euskaldunek ez diote deusik konprenituko, ez hitz bat ere. Orduan, hau ikusten baitut nola egiten den Santa Grazin, euskara batuan mintzatzen badira, dexente konprenitzen die. Nahiz eta lekuan lekuko euskalkian mintza daiteken, uste dut ez dela euskara batua bakarrik idatzian erabili behar, zure euskalkitik kanpo zaudenean ere hitzegin behar dela. Gogoratzen naiz ipar-manex bat nola Bizkaian bere azpieuskalkian hitzegiten alferretan amorratzen zen.

Ez dakit zuberotar euskara denez edo beste mintzaira bat. Batzuetan ez ditugu Iparraldeko hitzak erabiltzen, *bost*, *beste*, *ostegun*, *arrasti*, *amama* eta *aitata* eta *igarran* erraiten dugu eta beste orduz bai, *hitzeman*, *heltü*, *aitzina*, *gibel*. Hitzegitean gaztelaniazko azentu tonikoaren antzekoa darabilgu eta fonetikan, hitz askotan, denetan ez, “u”, *ü* bilakatu. Horiek ezin ditugu aldatu, baina azken urteotan mintzatuan atzera edo gibel eman badugu, aurrera egin dugu idatzian.

Duela 20 urte, 5 edo 6 grafia baziren. Batzuek, ahoskatzen zen bezala, frantses grafiarekin idazten zuten; beste batzuek ahoskatzen zen bezala idazten zuten, XX. mendeko euskal grafiarekin, beste batzuek ahoskatzen zen bezala; baina Euskaltzaindiaren grafiarekin; beste batzuek, XIX. mendeko grafiarekin, baina hitzak osorik emanaz eta azkenik, orain, nagusi dena, Euskaltzaindiaren grafia eta hitza osorik emanaz, hau da gehiengoa. Batek oraindik jarraitzen du lehenagoko grafiarekin, beste dotzenarekin grafia bat egin da.

Gramatikan zer pasatzen den?, Eman dezagun, Pedro Yrizarrek ez baitu zubereraren aditza eman, baina Bizkaikoan bezala da, herri batetik bestera aditz formak kanbiatzen dira. Azken urteotan aditz forma bat hautatu da, euskara batutik hurbilena eta hori ikastolan irakasten, hori erabiltzen da irratietan eta gramatikan zerbait indar egin da. Orain badugu gramatika bat, zubereraren gramatika, Junes Casenavek egina talde batekin, eta hor ibili da Jean-Louis Davant.

Hastapenetik, –zeren eta badu 25 urte badela ikastola Zuberoan–, andereñoek deitu gintuzten galdetzeko: nola idatzi behar dugu? zer egin behar dugu? nola irakatsi behar dugu? Testuak egin behar ziren. Zuberoan lehen eta orain zubereraz hitzegiten da ama eskolan, zubereraz irakasten dela lehen mailako lehen urteetan. Eman dezagun 8 urtetan pixka bat ikusten dela euskara batua zer den, 9 urtetan hobeki eta 10 urtetan, kolegioan erabiltzen baita euskara batuaren antzeko hizkuntza bat sakon-

tzen. Nik diot, kolegiotik hasiz “Iparraldeko euskara batua” erabiltzen dela. Progresio bat dago euskara batuarekin, Zuberoan arazo handirik sortzen ez duena, zeren eta herriko euskararekin ez baita moztu, zeren eta oraindik, batzuetan gurasoak, beste ba-tzuetan amamak eta aitatak mintzatzen baitira zubereraz. Nik diot lokarri hori ez dela moztu behar. Lan hori egin eta egiten baitu ikastolak eta irratiak ere bai, nahiz eta erabiltzen duten zuberotarra, sartzen dituzte euskara batutik hartu hitzak, iragar-kian eta nahi duzuna eta holako hitzak sartzen dira Zuberoako euskararen orain, eta erabiltzen, emeki-emeki, pixkanaka, euskalkia ito gabe, sartzen da euskara batua zubereran.

Gero, zailtasun bat du euskalkiak, aditz alokutiboa oso aberatsa duelako. Zukako alokutiboa badugu hitanokaz gainetik, eta zuek ez duzue problema hori. Markatu gabeko aditza bakarrik galderetan darabilgu. Orain zer gertatzen da, euskaraz ikasi gazteek holako plastikozko zuberera bat darabilte: zuka pixka bat erabil-tzen dute, hikakoa gutxi dakite eta nokakoa guttiago. Batzuek etxean ikas dezakete, zeren eta ahizpak daudenean, ahizpak beren etxean noka mintzatzen direla leku ba-tzuetan oraindik, baina gero, familia batean denak anaiak baldin badira, orduan noka ez dute entzuten eta neskekin ez dute erabiltzen eta eskolan ikastea oso zaila da.

Holako gauza txipi batzuk, baina eman dezagun, ez dut uste berez hain gaizki dagoenik gure euskalkia alde horretatik, ez du sufritzen euskara batuaren aldetik, sufritzen du frantsesaren aldetik. Zahar gehienek hitz egiten dute Zuberoan, behar-bada 50 urtez goitiko jende gehienek, baina handik behera %20ra iristen da eta umetan gutxiago %10, eta orduan badago problema.

Beste gauza bat ere badago, zuberotarrak baduela bere fonetika bereizia, azen-tu tonikoa badu espagnolaren antzekoa, gaztelaniaren antzekoa, gero badu fonetismo batzuk irakatsi behar direnak eta oraindik hasi ez direnak idazten: kontsonante aspiratuak erabiltzen dira, *ikhasi* eta *ikhusi*, *apheza* eta horrelakoak erabiltzen dira normal eta ez dira galdu horik. Gauza bat ari da sartzen zoritxarrez eta hori Iparralde guztian gertatzen da: frantses azentu mota bat. Nik erraiten dut frantsesa mintzatzen duten gaskoinetik sartu diguten azentu hori. Adinekoek *rr* doblea erabiltzen dute Zuberoan oraindik, baina pixkanaka itsasaldetik heldu den manex-gaskoi “r” hori gazteek darabilte. Euskal bokalak ez dira itsasaldean bezainbeste desagertzen. Eta hortan, oraindik, andereñoek badakite euskara ona erabiltzen, zeren eta hasieran lehenik etxeko euskara irakatsi baitute, maisu eta maistrak ziren zuberotarra zekitenak, gisa batez edo bestez idazten zutenak eta azkenean, euskara batua ondotik sartu da eta geroztik ikasi dute eta diplomak erdietsi.

Eta momentuan pentsatzen dut Iparralde gehiengan ez dagoela problemarik; euskalkiak erabiltzen direla ikastoletan, behar bada, Hendaian, Donibane-Lohizunen eta Baionan izan ezik denetan, gero, barnekaldean bai, batzuek irakasten dute, Behenafarroan behintzat, behenafarreraz eta, Zuberoan, zubereraz. Gero, arazoak sortzen orain, zeren eta umeak heldu baitira ikastoletara eta, gurasoek euskararik ez dakitenean, zer euskara erabili behar den Baionan, zer euskara mota Angelun, zeren eta guraso-umeak Euskal Herri osotik baitatoz.

Eta irakasleak nor diren, baxenafartarrak asko eta besteak Hegoaldekoak. Ikusten da Hegoaldekoak euskara batua irakasten du batzutan eta besteak, euskalkia. Zuberoan ez dago arazorik, denek zubereraz dakite. Arazoa ez da bakarrik euskalkia, Zuberoan ez dela umerik sortzen, herria zahartzen ari dela. Noizarte iraungo duen ezin esan!

